


NOR BERE PATROI

Arrasateko kooperatibistak aro globalaren aurrean

Joseba Azkarraga Etxegibel



2006ko «Euskal Gizartearen Egoera» sariaren irabazlea

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA

PRESIDENCIA

NOR BERE PATROI

Arrasateko kooperatibistak
aro globalaren aurrean

Joseba Azkarraga Etxegibel

2006ko «Euskal Gizartearen Egoera» sariaren irabazlea

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA

Azterlan eta Lege Araubide Zuzendaritza
Prospezio Soziologikoetarako Kabinetea

PRESIDENCIA

Dirección de Estudios y Régimen Jurídico
Gabinete de Prospección Sociológica

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2007

AZKARRAGA ETXEGIBEL, Joseba

Nor bere patroï : Arrasateko kooperatibistak aro globalaren aurrean / Joseba Azkarraga Etxegibel. – 1. argit. – Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2007

p. ; cm.

ISBN 978-84-457-2640-2

1. Cooperativismo-Mondragón. I. Euskadi. Gabinete de Prospección Sociológica. II. Título. 334.73(460.154 Mondragón)

Argitaraldia:	1.a 2007ko azaroan
Ale-kopurua:	1.300 ale
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Lehendakaritza
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Azaleko irudia:	Mikel Arrazola, «Argazki» artxiboa
Fotokonposaketa:	Ipar, S. Coop. Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao
Inprimaketa:	Grafo, S.A. Avda. Cervantes, 51 - 48970 Basauri (Bizkaia)
ISBN:	978-84-457-2640-2
Lege-gordailua:	BI - 3.308-07

Laugarren planeta negozio gizonarena zen. Eta hain zegoen lanpeturik, ez baitzuen burua jaso ere egin printze txikia heldu zenean.

—Egun on —esan zion honek—. Zigarroa itzalia daukazu.

—Hiru eta bi, berdin bost. Bost eta zazpi, hamabi. Hamabi eta hiru, hamabost. Egun on. Hamabost eta zazpi, hogeita bi, hogeita bi eta sei, hogeita zortzi. Berrero pizteko astirik ere ez. Hogeita sei eta bost, hogeita hamaika. Uf! Beraz, bostehun eta bat milioi seiehun eta hogeita bi mila zazpiehun eta hogeita hamaika egiten du.

—Bostehun milioi zer, baina?

—Zer? Oraindik hor al zaude? Bostehun eta bat milioi zera... Dagoeneko ez dakit... Hain lanpetua nago! Ni berriketa gutxiko gizona nauzu, eta ez naiz ergelkeriatan aritzen. Bi eta bost, zazpi...

Antoine de Saint-Exupéry, *Printze txikia*

«El vasco mira terriblemente en serio la vida y todo lo convierte en religión. Hasta la política y el negocio, cuando son abordados por él, lo son con alma religiosa y espíritu de entrega absoluta —la política, mucho; el negocio, más—. Esta es nuestra dificultad, que solemos tomarnos todas las cosas en serio, lo que no hacen algunos grandes pueblos de nuestro derredor»

Karlos Santamaria

«Gizon-emakumeak beren bidearen jabe izan daitezen, barruan musika behar dute, musika berezi bat. Musika bakarra diruarena eta erosotasun mugagabeekin bizitzeko nahiarena bada, nekez eraldatuko ditugu gizartearen egiturak»

Alfonso Gorroñoigoitia

«El yo no puede pensar que esta tierra humana permanezca indiferente a su desaparición, que nada de si mismo persista en ella, que sus catectizaciones, su sufrimiento, sus sueños choquen con lo absurdo de un final que revela la desmesura presente ante la fatiga, la lucha, los duelos, [...] y el objetivo que inevitablemente va a encontrar. El yo quiere creer —y diré necesita creer— que su existencia tiene un sentido».

Piera Aulagnier

AURKIBIDEA

SARRERAKOAK

1. Ikerlaria eta ikergaia	13
a. Kokapen pertsonalari buruz: zelan gerturatu natzaion ikergaiari	13
b. Une soziohistorikoari buruz: noiz gerturatu natzaion ikergaiari	16
2. Ikerkuntzaren ezaugarri nagusiak	17
a. Lurralde teorikoa	18
b. Lurralde enpirikoa	19
c. Lurralde esplikatiboa	19
3. Euskal Kooperatibismoa pentsatzearen garrantziaz.	20
a. Euskaldunok munduari eginiko ekarpena	20
b. Atze-oihalean, Modernitateari buruzko gogoeta	21
c. Eztabaida akademikoaz gain, eztabaida publiko eta soziala	22
d. Puntako protagonistak euskal historia sozial modernoan	26
e. Bestelako kultura ekonomikoa eta enpresa eredu berria sortzearen garrantziaz	27
f. XXI. menderako Euskal Kooperatibismoa birsortzeko beharra	27
g. Bokazio praktikoa gogoan, ikerketa soiletik ikerkuntza-ildora.	28

ATAL TEORIKOA

Gizarte moderno kapitalistaren kritika

1. Max Weber: Modernitateari buruzko pentsamolde kritikoa	32
2. Etika protestantearen eragina kapitalismoaren sorreran.	42
2.1. Ma(r)x.	45
2.2. <i>Ethos</i> ekonomiko tradizionalaren kontra	46
2.3. Aszetismoa, bizitzaren gidari.	52
2.4. Predestinazioa.	56

2.5. Gogor lan egitearen garrantzia	58
2.6. Arsitokratak vs burgesak	60
2.7. Aberastasunaren tentazioak (kontzepzio utilitaristen gailentzea)	62
2.8. Langile funtzionalak	63
2.9. Kritikak Weber-en lanari	64
3. Erresistentziaren aldeko aldarria: autoarauketa, autoeraketa, autodeterminazioa	67
4. Gizarte moderno kapitalistaren kritika: Weber, Frankfurt Eskola, Habermas	75

ATAL ENPIRIKOA

Kooperatibistak mintzo

1. Fundatzaileen diskurtsoaren analisia	85
1.1. Abiapuntuak	85
1.1.1. Fundatzaileak	85
1.1.2. Diskurtsoaren testuingurua	86
1.1.3. Fundatzaileen posizio soziala	88
1.2. Diskurtsoaren gako nagusiak	90
1.2.1. Balioak	90
a. Hezkuntza eta konpromiso soziala	92
b. Egintzaren kultura	94
c. Eraginkortasuna	95
d. Demokrazia	97
1.2.2. Zentzua	97
a. Zer (eraldatu): auzi soziala	98
b. Zelan: egiturak aldarazi	101
c. Nork: langileriaren auto-eremantzipazioa eta autonomia	105
d. Norantz: eraldaketa sozial dimentsioaniztuna	106
1.3. Etika katolikoa eta kooperatibismoaren espiritua	107
1.3.1. Fundatzaileen zentzu ereduaz	107
1.3.2. Asimilazio kulturala, identitate kooperatibistaren galtzea	115
2. Bidegileen eta gaurko protagonisten diskurtso analisia	131
2.1. Abiapuntuak	131
2.1.1. Diskurtso analisirako zenbait irizpide	131
2.1.2. Parte hartzaileen posizio soziala	132
2.1.3. Diskurtso ildoen gaineko zenbait kontsiderazio orokor	135
2.2. Gako diskurtsibo nagusiak	136
2.2.1. Imaginario baikorra eta arrazoi historikoa: galera-diskurtsoarekin haus- tura	136
2.2.1.1. Mundu globalizatua, bide onetik doan mundua	136

2.2.1.2.	Bereizgarritasun kooperatiboaren ardatz nagusiak	142
	<i>Ongizate komunitarioa</i>	142
	<i>Lansariak</i>	143
	<i>Alecoop, kooperatibismoaren bitasuna jokoan</i>	145
	<i>Nor kooperatibista, eragile sozial ala eragile ekonomiko?</i>	146
	<i>Iragana eta oraina</i>	150
	<i>Enplegua, bereizgarritasunaren ikono</i>	153
	<i>Kultura, baloreak eta bizipen kooperatibistak: transmisio arrakastatsua</i>	155
	<i>Parte hartzea, bere dimentsio ezberdinetan</i>	157
	<i>Legitimazio handia</i>	159
2.2.1.3.	Zentzuen instituzionalizazioa, irakurketa positiboa	161
2.2.1.4.	Kooperatibismoaren etorkizuneko zentzua: lan molde berriak eta parte hartzea	162
2.2.1.5.	Nazioarteratzea, ikuspegi positiboa	166
2.2.2.	Baikortasunetik triunfalismora	168
2.2.3.	Arrisku eta galera osagaiak	175
2.2.3.1.	Pertsona-sozietatearen ahultzea	176
2.2.3.2.	Balore eta zentzuen galera	182
2.2.3.3.	Nazioarteratzea: arriskuak	187
2.2.3.4.	Hezkuntzan hutsunea	189
2.2.3.5.	Instituzionalizatzearen arazoak	193
2.2.3.6.	Desfuntzionalizazioaren zantzuak	197
2.2.3.7.	Lan molde berrien arriskuak	208
2.2.3.8.	Herrigintzaz bi hitz	211
2.2.4.	Etorkizunaz eta kooperatibismoa mundu berri batera ireki beharraz	214
2.2.4.1.	Globalizazioa eta nazioarteratzea	214
2.2.4.2.	Euskal Herrian ere kooperatibismoa ireki beharra	219
2.2.4.3.	Gazteak eta kooperatibismoa	223
2.2.4.4.	Kooperatibismoaren transmisioa	226
2.2.4.5.	Hezkuntza ereduaren garrantzia	228
2.2.5.	Zentzu ereduaz	233
2.2.5.1.	Kooperatibismoaren zentzu historikoa	233
2.2.5.2.	Zentzua goi eremuetan	234
2.2.5.3.	Zentzu-mugak	238
2.2.5.4.	Zentzu modalitate berriak: zentzu-eredu indibidualizatuak	240

ATAL ESPLIKATIBOA

Arrasateko kooperatibistak aro globaren aurrean

1. Bi hitz euskal esperientzia sozioekonomikoaren balioaz	245
2. Begiratu kritikoa modernitate kapitalistari: efikaziaren zentzuaz eta zentzuaren efikaziaz	246

3. Kooperatibismoa Modernitatearen argitara	251
4. Arrasateko Kooperatiba Esperientziaren genesi garaiko zentzuak	255
4.1. Eragile subjektibo eraginkorra	255
4.2. Autoeraketaren paradigma	258
5. Kooperatibismoa autoeraketarako bide. Herriaren boterea sendotzeko baliabide psikosozialak	260
6. AKERen gaurko ajeak. Arima galtzen ari ote?	266
7. Digresio teorikoa zentzu-eredu integralaren (kooperatibismo erlijiosoaren) pitzaduraz	269
8. Beste zenbait gako zentzu krisia ulertzeko	276
8.1. Konstelazio ideologikoaren ahitzea	277
8.2. Begiratu historikoa. Gizarte-aldaketak Euskal Herrian	280
8.3. Zentzuen instituzionalizazioa. Kooperatiba-komunitatetik korporazio-elkartera	282
8.4. Aldaketak enpresa kapitalistan, kooperatiben identitate-krisia	284
8.5. Hezkuntzan hutsuneak	286
9. Zer egin? Aterabidearen arrastoan	287
9.1. Hiru erantzun molde nagusi	287
9.2. Diskurtsoen toponimia	289
9.3. Bi hitz tradizionalismoaz eta diskurtso posmodernoaz	290
10. Kooperatibismo postaylorista iparra ote?	291
10.1. Zenbait erreparatu enpresa kultura berriaren itzal luzeari	292
10.2. Arrasateko kooperatibismoa indibidualismoaren garaian: zentzu-eredu berriak	294
11. XXI. menderako Euskal Kooperatibismoa: efikaziari zentzua, zentzuei efikazia	298
11.1. Nortasuna berritu ikuspuntu autonomotik	298
11.2. Jokaleku historiko berri batean kokatu behar. Begiratu laburra gaurko munduari	300
11.3. Zenbait pista Euskal Kooperatibismoa mundu globalizatuan birkokatzeko ..	305
Bibliografia	325

SARRERAKOAK

1. Ikerlaria eta ikergaia

a) Kokapen pertsonalari buruz: zelan gerturatu natzaion ikergaiari

Asko esan eta idatzi da gizarte-ikerlariok geure ikerketa-objektuekiko izan beharreko neutraltasunari edo objektibotasunari buruz. Neronek, aitor dut, hitz horri ez diot sekula gustuko oihartzunik aurkitu, «neutraltasunari». Batetik, ez da existitzen posizio neutral erabatekorik, subjektibotasuna gehiago ala gutxiago neutraliza badaiteke ere. Bigarrenik, pertsonon konpromiso etikoa saihesten duelako, «ikerlari izoztuak» sortzeko beharrezko arrazionalizazio intelektuala izan delarik sarri. Azkenik, begitantzen zait ikerkuntzarik ederrenak «barrutik» eta «barruarekin» egin ohi direla; inplikaziotik; ikergaiaren barruko zoko eta esanahietan murgilduz; iker-tzailearen ilusioa, pasioa eta desioa ikerkuntza-objektuari atxikita daudenean nolabait, arrazoiarekin eta edozein ikerketak eskatzen duen nolabaiteko distantziarekin nahasiak, hori bai. Arazoa ez baita objektuarekiko lotura afektiboa izatea, ezpada hori besterik ez izatea. Ez da nire asmoa hain gai epistemologiko konplexua hemen erabat argitzea, are gutxiago agortzea. Baina, konplexutasunak konplexutasun, nago beharrezkoa dela ikerlariaren posizioa, xume bada ere, irakurleari garbi eta zuzen azaltzea.

Izan ere, horixe da ustezko neutraltasunaren/objektibotasunaren gaineko eztabaida bukaerarik gabekoan niri neuri gehien konbentzitzen nauen jarrera: ikertzaileak azal dezala modu librean zeintzuk diren ikerketa-objektuarekiko sentitzen dituenak eta sentitzen ez dituenak. Bide horretatik gainontzekoei —ekarpena baloratzera datozen komunitate zientifikoko lankideei eta irakurle guztiei— tresnak ematen baitzaizkie egindako ekarpena hobeto baloratzeko, ulertzeko zein berau mugatzeko.

Horregatik, kooperatibismoarekin loturiko neure posizioa erakutsiko dut ondorengo lerroetan; beharbada ez neure baitako ertz guztiak, bai ordea garrantzitsuenak; ikerketa-objektuak neure biografian izan duen (eta duen) inpaktuaren hariak lotu eta ikergaiarekiko ikerlariak duen posizioa hobeto ulertu aldera.

Izan ere, kooperatibismoa beti egon izan da hor, beti izan du lekua neure bizitzan, familia kooperatibistakoa bainaiz: aita, langile kooperatibista, lan-bizitza ia osoa kooperatiba den lantegi industrial batean eman du; ama ere lantegi berean, kooperatibek azpi-kontratatzeko azken urteotan hartu duten joeraren dieran; beste bi osaba ere, kooperatibistak. Lantegia inoiz ez da izan Arrasateko taldearen baitakoa (80ko hamarkadan aukera eman eta langileek ezetz erabaki zuten asanbladan). Arrasatearra ez den euskal kooperatibismoak inguratu nau, beraz. Aldi berean, kooperatiba-etxe batean hazitakoa naiz: langile ugari batu, euretako asko kooperatiba bereko lankideak, eta etxebizitza kooperatiboa eraiki zuten 60ko hamarkadaren bigarren erdialdean.

Arrasaten bezala, eta beste hainbat euskal herritan bezala, herriko apaiza izan zen geure familiaren sostengua bermatu duen lantegia sortzeko animatzaile ezinbestekoa. Arrasateko eta Abadiñoko apaizen ahalegin horiek ez ziren gertakari isolatuak izan, garaiko ekimen kooperatibo ugari erantzuten zioten erlijioaren eta herrietako apaizen akuilu eraikitzaileari, Elizaren dotrina sozialaren zutabe baitzen kooperatibismoa; hori bai, beste inon ez da sortu Arrasate inguruan sortu den esperientzia kolektibo, auto-eratzailerik, aberats eta biderkatzailea.

Taupada biografiko horiek euskaldun askok konpartitzen dituzte, asko baitira, modu batean ala bestean, kooperatibismoaren presentzia gertu izan duten euskaldunak. Askori, lana eta etxeaz gain, ikastola kooperatiboa gehitu behar zaio; ez da hori nire kasua.

Dena den, presentzia hori presentzia isila izan da gehienetan, ez izendatua, hitzez adierazi gabekoa, ez kontzientea; izaera kooperatiboak inongo diferentziarik markatuko ez balu bezala. Nekez izan da identitate sortzaile; ez zaio eman, gurean bederen, inolako estatus berezi ez bereziturik. Pixkanaka deskubritu nuen errealitate txiki hori, ur txikitik sendotutako saltsaren erritmoan, astiro-astiro. Umezaroa bukatu eta nerabezaroa seinalatzen zuten bestelako deskubrimenduekin batera heldu zen: aitaren eta osabaren lantegian botere antolamendua ezberdina zela, botoa ematen zutela eta urte bukaeran etekinak banatu. Herrian, gainera, nolabaiteko estatusa zuten lantegi horretako langile-kooperatibistek, gainontzeko esku-langileek baino gehixeago politzikorazten omen zuten etekin banaketari esker.

Euskal Herriko Unibertsitatean, laugarren mailako Soziologia ikaslea nintzela, lehenengoz gerturatu nintzaion kooperatibismoari ikuspegi soziologiko-enpirikotik, ikasle-lan xume baten bidez (lantegira joan, galdera batzuk jaurti, datuak jaso eta lantxoa egin). Lehenengoz izendatu nuen fenomeno kooperatiboa, presentzia isil hura hitzez jantzi nuen. Aita langilea zeneko kooperatiba aztertu nuen eta auto-esplotazioaren gertakaria azpimarratu bestelako gertakarien gaineratik. Kooperatibismoaren kontrako diatriba bihurtu nuen lan xume hura. Lehenengoz izendatu, berau kritikatzeko.

Hogei urteak pasatxo zituen gazte oraindik nerabearen purrustada edipikoa izango zen beharbada. Kontua da urtetxo batzuk bazirela aita lantegiak irentsia ikusten ari nintzela, egunero hamar-hamabi orduko lan-jardun gogorrek betez urte luzeetan. 90 hamarkadaren hasieran lantegiak bizi zuten krisi latzari aurre egiteko, zirenak eta ez

zirenak egin behar, baita diru asko jarri ere. Aldi oparoetan kooperatibaren plateretik gehiago jan ahal izateak aldi kritikoetan gose gehiago pasa behar izatea eskatuko balu bezala, gordin agertu zitzaidan kooperatibisten arduraren tamaina eta nor bere patroizatearen nolakotasuna. Norbere lantegiaren eta etorkizunaren defentsa ia epiko hari, une hartan ezin nion ikusi duintasunaren zantzurik baina; unibertsitateko lana etorri zen, eta kontzientzia sozio-politiko hazkorrak eraginda-edo, kooperatibismoa auto-esplotazioaren paradigma borobiltzat jo nuen, dinamika ekonomiko kapitalistarentzat pagotxa, nolabait.

Gerora eztitu zen irakurketa hori. Hori ere ur txikitik egosi zen. Nerabe garaiko estilo kognitibo zurruna ahultzen hasi eta konplexutasuna, kontraesana, paradoxa eta anbiguotasuna tolera daitekeela seinatzen zuten bestelako deskubrimenduekin batera heldu zen. Esku artean nerabilen tesi-gaia alboratu, Eusko Jaurlaritzaren finantzazioa ere bai, eta Mondragon Unibertsitateak heldutako eskaerari baiezkota erantzun nion: Arrasateko kooperatibismoa ikertzen hasi nintzen. 2000 urtean LANKI Ikertegia sortu genuen: Mondragon Unibertsitatearen baitan kokatzen den *Lankide-tzaren Ikertegia*. Bertan Arrasateko mugimendu kooperatibista dugu ikergai nagusi, eta gizarte auto-eratuagoa oinarritzeko intuizio, motibazio eta ipar. Horrek eman zidan ikerkuntza-objektuarekiko determinantea den posizioa: ni neu kooperatibista kooperatiba den unibertsitate batean, ikergai nuen Arrasateko talde kooperatibistan bertan; barrutik eginiko ikerketa ahalegina, beraz.

Ikertegi sortu berriak behar zuen leku bat eraiki, euskal kooperatibismoa begiratzeko proposamen epistemologikoa, nolabaiteko marko teoriko eta intelektuala. LANKIko urteotako lanek besteak beste helburu hori izan dute, eta lerro hauek ere norabide horretan ulertu beharrekoak dira, hein batean.

Ikerkuntza hasieran, galeratik gerturatu nintzaion Arrasateko kooperatibismoari; pragmatismoaren, errentagarritasunaren eta arrazionaltasun instrumentalaren aurrean, esentziak galtzen edo urardotzen ari zelako ikuspegiarekin, bat eginik euskal gizarteko zati batek zuen irakurketa kritikoarekin. Denborarekin, eta barrutik ikusita, nago beharbada larriagoak direla bere hutsuneak eta handiagoak bere bertuteak.

Finean, nerabezaroak eragindako afirmazio nahi destruktiboen gainetik eta kontzientzia soziopolitiko ororen azpitik, nolabaiteko estimazio «politikoa» geratu zait ikerketa-objektuarekiko. Izan ere, kontraesanak kontraesan euskaldunok jakin izan dugu gurean, euskal gizartean, dinamika komunitarioak abiatzen, elkarrekin bideak zabaltzen, herri-klaseei bizi-aukerak eta bizi-horizonteak irekitzen, herritarron autoantolakuntza ardatz hartuta. Administrazio publikotik harago eta merkatu-logika gordinetik honantzago, logika auto-eratzailerei lekua eman zaie. Gutako askorentzat hori egia biografikoa da, aurreko belaunaldikoen izerdi eta adimen konpartituaren emaitza sozio-historikoa gara hein batean.

Guztiarekin, anibalentzian sustraitzen naiz; batetik, Arrasateko kooperatibismoa kritikatzeko joera, badagoelako zer kritikatu eta kritika delako hobetzeko bide bakarra; bestetik, Arrasateko kooperatibismoa zaintzeko beharra, badagoelako zer zaindu. Biak ditut bidaide, nolabaiteko tentsio dialektikoan eta bizikidetzan bizian, baita oreka

aldakorrean ere. Eta, ikuspegi «intelektualago» batetik, Arrasateko kooperatibismoa estimulatzailerik zait, leku ezin egokiagoa munduaren zenbait norabide ikuskatzeko, globalizazioaren aurrean desafioak zeintzuk diren ikusteko, globalizazioa Euskal Herritik hausnartzeko, enpresa-demokraziak dituen mugak eta zailtasunak identifikatzeko (eta bizitzeko); eta, hori gutxi balitz, egokia da gogoeta egiteko Mendebaldeak garatu duen modernitateari eta zibilizazio moldeari buruz.

Aipatutako guztia ikusita, agerikoa da ez natzaiola gerturatzen ikerkuntza-objektuari neutraltasunetik, bihotzik gabeko jarduna bailitzan; hori ez da posible; ezta nahi ere; ezta beharrik ere. Ezagutza oro eraikitzen da interes batzuetan oin harturik, eta ikertzailearen interesak zeintzuk diren azaltzea da ikerkuntza baterako abiapuntu ona. Bide horretatik jarraituz, Gizarte Zientziek eta Soziologiak bete beharko luketen funtzioari buruzko iritziak ere, ikerlanak hobeto ulertzeko balio dezakete. Horregatik, ikergaiari begiratzeko erabilitako diziplina ulertzeko moduez ere jardun nahi nuke, xume eta labur:

- a. Gizarte Zientziak, batez ere Soziologia, auto-ulermena eta gizartea hobetzearen (eraldatzearen) zerbitzura ulertzen ditut, Wright Mills-ek zioenari jarraiki; errealtatearekin konprometituta eta pertsonon patuarekin engaiatuta, nolabait.
- b. Weber-en paradigmak mugitzen nau hein handi batean: norbanako zein talde «zentzuduna» dut motibazio; norabidez, esanahiez eta iparrez jantziak; zentzu hitzaren bi adieratan jantziak: «norabidez» eta «esanguraz». Bestetik, Habermas-ekin aurkitu dut Weber, Durkheim eta Marx-en arteko nolabaiteko sintesi interesgarria.
- c. Demokratizazio sozial hazkorrak mugitzen nau bestetik: herri-ekimena, herri-boterea eta intuizio auto-eratzailerik mundua sustatzeko eta indartzeko tresna gisa ulertzen ditut gizarte zientziak.
- d. Azkenik, euskararen herrian bizi eta euskararen herria bizi duen pertsona baten ikuspegia da orriotan aurkituko dena.

b) Une soziohistorikoari buruz: noiz gerturatu natzaioren ikergaiari

Aro aldaketa bat bizi dugu, horixe entzuten da sarri, eta eragile kolektibo zein indibidual guztiak egokitu behar dira baldintza sozio-historiko berrietara. Behin eta berriro entzuten da mundua aldatzen ari dela, sakon eta arin egin ere. Esan bezala, Arrasateko Kooperatiba Esperientzia (AKE) leku egokia da munduaren zenbait norabide ikuskatzeko, globalizazioa eta posmodernitatea Euskal Herritik hausnartzeko, eta, baita ere, gogoeta egiteko Mendebaldeak garatu duen zibilizazio patroari buruz.

AKE ez da soilik eragile enpresarial-ekonomikoa, ez da soilik Euskal Herriko lehen enpresa-taldea. Kultura, identitate eta zentzu-gorputz baten eramaile den subjektu kolektiboa ere bada. Zentzu horretan, euskal esperientzia sozio-ekonomikoa ez da soilik errealtate ekonomiko bat, ideal zehatz batekin konprometitutako pertsonasare moduan ere uler daiteke. Promesa baten ondorioz jaio zen: enpresa eraldatzea

(barne-demokrazia, komunitatea zerbitzatu, ondasunen banaketa justuagoa, Euskal Herriaren garapena sustatzea...) gizartea aldatzeko. Ametsaren jomuga, herritarrek (langileriak) enpresa (auto)gobernatzea zen, garai bateko jauntxokeria kapitalistari hortzak erakutsiz. Eta enpresarekin batera gizartearen beste arlo batzuk ere bai: hezkuntza, gizarte-aurreikuspena edo osasuna, esaterako. Autonomia sozialaren (langileriaren eta herritarren autoantolaketa) intuizio eta pentsamendutik abiatu zen, nolabait, bertako protagonista ugari.

Azken urteotan izugarri hazi da, bai negozio-bolumenean nola langile kopuruan. Eraldatze prozesu sakona bizi du. Eraldaketok zerikusi zuzena dute egungo ekonomia ireki eta globalizatuari erantzuteko premiarekin. Estrukturaltzat jo daitezkeen aldaketa horiek Arrasateko kooperatibak goitik behera zeharkatzen dituzte: balioetan, kulturen, egituraren eta izaera juridiko zein antolamenduzkoan ari dira gertatzen.

Subjektu kolektibo eta kultural horrekin zer gertatzen ari den aro aldaketa bizi dugun honetan, horixe izan da gure sakoneko galdera. Prozesu horren berri ematea izan dugu xede. Barne begiratua da proposatzen duguna, amets hura zertan den ikustea. Euskal esperientzia sozio-ekonomikoaren bihotz-barrunbeak haztatzea, bere tolesdura intimoei begiratzea, eta horretarako, hainbat kooperatibistarekin izandako solasaldiak baliatu ditugu.

2. Ikerkuntzaren ezaugarri nagusiak

Ikuspuntu zehatz batetik hurbildu gara fenomeno kooperatibora. Kooperatibajarduerak bi arrazionaltasunen arteko oreka bilatzen du. Bestela esanda, bi bulkadek zeharkatzen dute fenomeno kooperatiboa. Bata, arrazionaltasun ekonomiko-instrumentala da; kooperatibaren alderdi honek merkatuan arrakasta lortzea du helburu, ondo egokitzea joko-zelai horren arauetara. Bestea berriz, balore-arrazionaltasuna; honen helburua lehen aipatutako arrazionaltasuna nolabaiteko humanitatearekin uztartzea da, zenbait balioekin bateratzea: printzipio demokratikoekin, komunitatea zerbitzatzeko oinarri duen etika ekonomikoarekin; finean, etika komunitario batekin. Bigarren ikuspegi honetatik, kooperatibismoa zentzu-komunitatea da, komunitate etikoa. Hau da, pertsonaren eta bidezko gizartearen gaineko ikuspegi zabalagoa bere egiten duen enpresa jarduna da. Bokazio soziala eta eraldatzailea duen enpresa-errealitatea. Hitz batean: enpresari eta lanari bihotza erantsi gura dion ekimena.

Orriotan biltzen den ikerkuntzaren helburu orokorra honela laburbil daiteke: *Arrasateko Kooperatiba Esperientziak bere identitatea, eta kultura kooperatiboa, nola egokitzen diharduen globalizazioak eskatzen dituen baldintza sozio-historiko berrietara.*

Identitate eta kultura kooperatibistaren bilakaera aztertze aldera, hiru begiratu aurki daitezke lan honetan: iragana; oraina; eta etorkizuna.

- Iraganeko zentzu kolektiboak aztertu dira, Arrasateko kooperatibetan ekonomiak eta giza baloreek izan duten uztartzea (*atzoko zentzuak*);
- Gaurko aldaketa erradikalak ere begiztatu ditugu, kooperatiben kanpo fisonomia eta barruko arkitektura kulturala sakon aldatzen ari baitira. Zenbaitzuen ustean, etenda legoke balore kooperatibisten aldeko apustua; edo, beste zenbaitzuen ustean, baloreen higatzearen aurrean geundeke (nolabaiteko une konplikatua); edo, beharbada, harremanaren eraldatzearen aurrean (logika instrumentalaren eta balioen arteko harremana). Ikerkuntza honetan era ezberdinetan izenda daitekeen diagnosia aurkituko duzu: zentzu-krisia, identitate krisia, motibazio krisia edo krisi kulturala identifikatu da (*gaurko ajeak*);
- Eta, azkenik, etorkizunari begiratu diogu, eta enpresaren arrazionaltasun instrumentalak XXI. mendean etikaren gurpilean engaiatuta egon dadin, kooperatibei nolabaiteko proposamena egitera ausartu gara; identitate kooperatiboa trinkotzeko, birgaitzeko eta berrindartzeko proposamena, alegia. Efikaziak eta giza baloreek uztarri berean lotuta jarraitu behar —eta ahal— dutela sinetsita baikaude (*biharko desafioak*).

Eta ondoren aipatuko ditugun hiru lurraldeak zeharkatu ditugu horretarako: lurralde teorikoa, enpirikoa eta esplikatiboa.

a) *Lurralde teorikoa*

Gizarte oro esanahi multzo bat da; irudikapen kolektiboz osaturiko esanahi mundu bat; arauetz eta agindu moralez mamitutako imaginario bat; sinesmenez eta sentimendu kolektiboz fabrikatutako eraikina. Hauxe da gure abiapuntuko ikuspegia: osagai sinbolikoen sare horrek osatzen du gizartea, Durkheim-ek ederki azaldu zigun moduan. Horrek guztiorrek gizarte bateko «sistema kulturala» gorpuzten du, gizarte horretako egituratze sinbolikoa; *gutasun* bat, nolabait. Esan dugun moduan, kooperatiben unibertsoa ere horixe da: zentzu osagaiez mamitutako arkitektura kultural-identitarioa. Sozietate kooperatiboak zera dira: edozein eragile ekonomikok behar duen efikaziaren printzipioa giza baloreekin uztartzen saiatu diren eraikin modernoak.

AKEn egituratze sinboliko, kultural, ideologiko eta identitarioa aztertzeke, Modernitatearen berezko egituratze sinbolikoa aztertu dut lehendabizi. Izan ere, Arrasateko Kooperatiba Esperientzia mundu zabalago horren parte da, eta testuinguru makro-soziologiko/kultural horren eta beronek izandako eboluzioaren parte. Ezin ulertu AKEn gertatutakoa, begiratua ireki eta parte deneko Mendebaldeko munduari sakon samar begiratu barik.

Gainera, Arrasateko mugimendu kooperatiboaren azterketak zuzen garamatza Modernitateari buruzko gogoetara. Izan ere, kooperatibek bere egiten dute Modernitatearen berezko tentsioa, Modernitatea ulertzen badugu, behinik behin, Max Weberren ekarpenaren haritik. Weberrek zioenari jarraiki, Modernitatea bi indarren arteko tentsioa baita: arrazionaltasun formala (giza ekintzaren helburua eraginkortasuna lortzea da) eta balore-arrazionaltasuna (giza ekintzari zentzua ematen dio bigarren

honek, berau azken zergatiaz eta zertarakoez hornitzen du). Esan bezala, tentsio horixe bera dago kooperatibismoaren kode genetikoaren oinarrian. Horregatik, tentsio horretan arreta berezia jarri duen pentsamendu filosofiko-soziologikoa aztertu dut: Max Weber-ekin hasi, Frankfurteko Eskolarekin jarraitu, eta Habermas-ekin amaitzen den pentsamendu ildo¹. Pentsamendu hari horrek Modernitate kapitalistaren kritikara eroan gaitu, mendebalder zibilizazioaren zenbait patologia aztertzeraz eta bere egituratze sinboliko berezia analizatzeraz².

b) Lurralde enpirikoa

AKEren identitate kooperatiboaren sorrera, bilakaera eta gaurko egoera aztertu ditut lan teorikoa egin eta gero. Langintza horretarako, kooperatibistekin eginiko eztabaida-taldeak eta elkarrizketa sakonak erabili ditut material gisa. Modu horretan, beraien unibertso sinbolikoan murgildu naiz, bi talde bereiziz: batetik, Fundatzaileak (duela 50 urte kooperatibak sortu zituzten hiru lider handiak); eta bestetik, Bidegileak eta Gaurko Protagonistak (hots, bidean protagonista garrantzitsu izan direnen diskurtsoak aztertu ditut, euretako asko puntako gidariak ziren elkarrizketak egin ziren sasoiak). Beraz, «goi mailako» kooperatibisten ekarpenak baliatu ditut ikerkuntza honetarako.³

c) Lurralde esplikatiboa

Kooperatibistekin izandako solasaldiek nolabaiteko zentzu — eta identitate-krisi bat diagnostikatzeraz eroan naute. Batzuetan esplizitua eta sarri estalia dagoen ondoeza. Lanaren azken atalean diagnostiko hori sakonago azaltzen eta horren balizko arrazoiak esplikatzen saiatu naiz.

Gainera, etorkizunari begirako proposamena landu gura izan dut, muzin eginez errealtatearen deskripzio hutsari. Uste baitut Gizarte Zientziek ez dutela neutralak

¹ Orriotan, pentsamendu-ildo horri buruz eginiko ikerkuntza-lanaren laburpena jasoko da. Lan osoa ikusi nahi izanez gero: Joseba Azkarraga Etxegibel, *Modernitate kapitalistari kritika: Weber, Frankfurteko Eskola, Habermas*, UEU, Bilbo, 2006.

² Hortik aurrera, jatorrizko lanak beste bi atal izan ditu, orriotan bildu ez direnak. Euretako batean, jorrotutako diagnostiko kritikoari zelan buelta eman, Mendebaldearen patologiei zein sendabelarrekin aurre egin, horixe landu dut, lekua eginez berrarautze politiko, kultural eta etiko berria aldarrikatzen ari diren ahotsei (munduko zenbait pentsalari, ikerlari zein gizarte-zientzialarien proposamenak labur bildu dira). Aterabidea aurkitzeko sendabelar orokorrak landu ditut lehenik eta behin, enpresari loturikoak gero (enpresaren inguruan sortu diren planteamendu berriak izan ditut aztergai, planteamenduok enpresa zentzuz hornitzea bilatzen baitute funtsean; arrazoi instrumentalaren bihotzean *zentzu-geziak* sartu nahi direla dirudi, enpresaren gizarte-ardura, langileen parte-hartzea eta gisakoekin). Eta hurrengo atalean, kooperatibismoaren analisi teorikoa egin dut: kooperatibismoan orotar, eta euskal kooperatibismoan zehazki, bi arrazionaltasunen arteko tentsioa zelan gauzatu den aztertu dut. Esan bezala, azken bi kapitulu teoriko horiek ez dira lan honetan jaso, lanaren tamaina zaintze aldera.

³ Orriotara fundatzaileen diskurtso-analisiaren zati txiki-txiki bat besterik ez dut ekarri, lanak luzeegi joko luke-elako bestela. Bidegileak eta Gaurko Protagonistak deiturikoen analisia, aldiz, osorik dakart.

izan behar, eta errealitatea hobetzeko zereginarekin konpromiso aktiboa behar dutela izan. Horregatik, ondokoaz ere arduratu naiz: zer egin kooperatibismoak etorkizuneko desafio latzei aurre egiteko beharrezkoa duen identitatea trinkotu dadin eta euskal kooperatibismoak behar duen berreraikitze sinboliko-kulturala gauza dadin (kontuan hartu beharreko aktorea izan dadin irekitzen ari den estadio historiko berrian, bat eginik estadio honek instrumentaltasunetik harago behar dituen logika sozial, etiko, demokratiko eta ekologiko berriekin).

Galdera garrantzitsua begitantzen zait, izan ere, globalizazio garaian osagai kultural eta identitarioek sekulako garrantzia hartu dute erakundeen munduan (ondotxo dakitene hori «ukiezinen» garrantziaz mintzo diren multinazionalak eta korporazio globalek). Beraz, batetik, kooperatiben biziraupen ekonomikorako garrantzitsua den aspektuaz ari gara eta, bestetik, berebiziko auzia da gaurko munduan: ekonomia balore humanistekin uztartu gura duten esperientzia sozialek arnasa behar dute, euren «identitate eraldatzailea» globalizazioaren erruberapean txikituta gera ez dadin. Kooperatibei bereizgarritasuna, kalitate etikoa eta indar enpresariala ematen dieten dimentsioaz ari gara, beraz.

Azkenik, ikerkuntzaren ezaugarriokin amaitu aldera esan dezadan zerbait erabilitako metodologiari buruz. Ikerkuntza honetan aztergai izan ditut zeintzuk diren Arrasateko Kooperatiba Esperientziaren gaineko diskurtso hegemonikoak. Bertako kide direnen gako diskurtsibo nagusiak identifikatu nahi izan ditut, esperientzia sozio-ekonomikoaren iraganari, orainaldiari eta etorkizunari buruzko irakurketak aletu eta euren mamiai begiratu. Une jakin batean aztertu dira iritziok: euskal esperientzia sozioekonomikoa globalizazio prozesuan bete-betean sartuta dagoen momentuan, alegia (XX. mendearen bukaeran eta XXI. mendearen hasieran gertatu da esperientzia kooperatiboaren globalizazioa eta, ondorioz, identitate kooperatiboaren problematizazioa).

Mundu sozialaren inguruan eraikitzen diren irudikapenak eta definizioak aztertzeko, metodologia kualitatiboa da egokiena, gauza jakina da hori. Metodologia horren bidez pertsonen unibertso sinbolikoan sartzeko txartela eskuratzen da; osagai kognitiboak, ideologikoak edo jarrerazkoak aztertzen dira. Kasu honetan, Arrasateko Kooperatiba Esperientzia interpretatzeko moduak aztertu dira.

Teknika jakin batean oinarritu dut ikerkuntza gehiena: *eztabaida-taldeak* (21 eztabaida-talde egin dira eta 30 bat lagunek hartu dute parte). Berauek egin bitartean *elkarriketa sakonak* ere egin dira, horiek ere nabarmen aberastu dute ikerkuntza, nahiz euretako asko modu informal batean gertatu. Guztira, 60 orduetik gorako hitz-apertuek osatzen dute ikerkuntza enpirikoaren oinarria.

3. Euskal kooperatibismoa pentsatzearen garrantziaz

a) Euskaldunok munduari eginiko ekarpena

Geurean dugu, Euskal Herrian, mundu zabalean ezagunetakoa eta ikertuenetakoa den auto-eraketa ekonomikoko esperientzia. Arrasateko Kooperatiba Esperientziaz

berba egitea, zenbaitentzat munduan garrantzitsuena den mugimendu kooperatibistaz jardutea da. Beraz, AKE azttertzea, gizarte moderno industrialaren oinarritzko subjektu kolektibo baten (ekonomiaren munduan auto-antolatzea erabaki duen langileriaren) gora beheretan murgiltzea da, eta ekonomiaren eta enpresaren munduan euskaldunok mamitu dugun puntako esperientzia sozio-ekonomikoa.

Zentzu horretan, gaiari ondoko saihetsetik hel dakioke: euskal esperientzia honen gorabeheretz, eta enpresa demokraziaren gorabeheretz, guk geuk ikertzea garrantzi handikoa da. Hau da, euskal herritarrok geure esperientzia propioak ikertzea, geuk eginiko ekarpenetatik abiatzea, berauek hobetzeko, bertatik eta bertarako jardunez.

b) Atze-oihalean, Modernitateari buruzko gogoeta

Esan bezala, ikerkuntza honetan ondoko abiapuntua izan dugu: funtsezko tentsio batek zeharkatzen du sozietate kooperatiboa, gizarte modernoa zeharkatzen duen tentsio berberak, hain zuzen: arrazionaltasun instrumental-ekonomikoaren eta arrazionaltasun etiko-normatiboaren arteko tentsioak. Era horretara ulertu dugu «identitate eta kultura kooperatiboa», hortxe baitago, gure ustean, bere oinarritzko izaera eta nortasuna.

Hitz lauak erabiliz, diruaren eta bihotzaren (helburu sozio-etikoen) arteko harremana dugu kooperatibaren kode genetikoaren oinarrian. Biak dira kooperatibaren helburu, kooperatibak helburu ekonomikoa duten erakundeak baitira eta aldi berean jarduera ekonomikoa oinarri eta helburu etikoz jantzi nahi dutenak; norbanakoa eta komunitatea lotuz; interes indibidualak eta kolektiboak txirikordatuz; efikazia ekonomikoa eta logika etikoak uztarri berean jarriz. Kooperatibagintzak bere egiten du oreka gaizto hori, akaso beste inongo instituzio modernok egiten ez duen modu esplitzitan. Hortxe kooperatibek sortzen duten interesa, eta hortxe euren ekarpena. Hortxe, baita ere, euren zailtasun eta kontraesanak.

Kapitalak utopiarik ez duela entzuten da sarri. Ez utopiarik ez jainkorik ez aberrik ez bihotzik. Horixe da, askoren ustean, modernitatearen patologiarik kezagarriena: arrazionaltasun instrumentalak ibilbide oldarkor gera ezin moduko bati ekin zion, eta menpean hartu ditu garai batean gaineratik zituen bestelako logika batzuk: logika erlijiosoak, ekologikoak, familiarak, sozialak, espiritualak edo kulturalak. Kapitalismo moderno aurreratuko gizarteetan, logika instrumental-ekonomikoak gizarte bizitza kolonizatzeke joera du (Habermas). Hori nabarmenagoa da globalizazioarekin.

Garapen materiala eta morala, biak lortzeko eta uztartzeko gogoan zetzan Ilustrazioaren mezu askatzailea, eta gizarte modernoaren abiapuntuko desio eta egitasmoa. Azken hamarkadotan, Modernitatea krisian dagoela bolo-bolo entzun da. Bestek beste, Ilustrazioari eta Mendebaldeko zibilizazio modernoari bekatu ezaguna bezain larria egozten zaio: aurrerabide material, ekonomikoa, tekniko eta zientifikoaren bide oparoan bestelako dimentsio batzuk baztertu izana, alegia. Azken batean, efikazia teknikoaren eta utilitarismoaren erreinuan, espirituz eta zentzuz hustu (ahuldu) ote

diren Mendebaldea eta mendebaldarrak (kapitalismo moderno aurreratuko gizartean, logika instrumental-ekonomikoak gizarte bizitza kolonizatzeko duen joeraren ondorioz).

Sinpleago esanda, beharbada sinpleegi: oparotasun materialeko eta pobrezia espiritualeko testuingurua bizi omen dugu, nolabait esateko. Eta testuinguru historiko horretan gizarte moderno konplexuek (eta bertako kideek) nekezago aurkitzen ei dute erantzunik zenbait galderen aurrean. Bertako kideok zailago dugu gauzen azken zergati eta zertarakoez mintzatzea, eta zentzu-krisiaren eta anomia-aren mamua dugu amesgaizto. Ikuspegi horren arabera, Mendebaldeko gizarte ereduak zailtasunak ditu pertsonen integrazio sinbolikoan. Mendebaldarrok geure bizitzak zentzuz hornitzeko zailtasunak ditugu, aski ezaguna da irakurketa hori. Krisi espirituala bizi dugu zenbaitzuen irudiko, krisi morala deitzen diote beste batzuk, eta krisi kulturala beste hainbatek. Azken batean, efikazia teknikoaren eta utilitarismoaren erreinuan, espirituz eta zentzuz husten ote dagoen Mendebaldea.

Beraz, euskal kooperatibek, bere xumean, zuzen garamatzate Modernitateari buruzko gogoetara. Kooperatibez gogoeta egitean, begiak gizarte modernoan jarrita ere izan ditugu; gizarte modernoaren izaeran, bilakaeran, eta etorkizun posiblean. Bestela esanda: kooperatibak, hein batean, aitzakia dira gizarte modernoaz hausnartzeko; aldi berean, gizarte modernoaren gaineko hausnarra beharrezkoa deritzogu kooperatibismoa bere zabalean ulertzeko.

Modu horretan, kooperatibismoaren garrantzia nolabait erreskatatu eta Modernitateari buruzko gogoeta soziologiko eta akademikoaren bihotzean kokatu gura izan dut. *Unibertsaltasunetik partikularitasunerako* bidea egin da nolabait: Modernitateari buruzko gogoeta (Weber, Francfort, Habermas) abiapuntu hartu eta marko intelektual-akademiko zabalago hori buruan interpretatu dut euskaldunon esperientzia partikularra.

Aldi berean, *partikularitasunetik unibertsaltasunerako* bidea egiteko saiakera dago. Kooperatibak Modernitatearen altzora ekarri ditugun modu bertsuan, Modernitatea kooperatiben esperientziarekin argizatzen saiatu naiz. Lan honek balio izan digu Modernitateaz hausnartzeko, euskaldunok mamitu dugun esperientzia partikular jakin baten talaiatxotik. Izan ere, euskal kooperatibismoari buruz eta berau gauzatzeko aukerei buruz berba egitea neurri handi batean Modernitateari buruz jardutea da, Mendebaldeko kulturak bizi izan duen bilakaeraz, bere paradoxez, anibalentziaz, kontraesanaz eta etorkizunerako aukerez. Modernitate industrialaren sorkide baita euskal kooperatibismo modernoa, eta tentsio berberak zeharkatzen du bata eta bestea.

c) Eztabaida akademikoaz gain, eztabaida publiko eta soziala

Ikerlarien artean iritzi kontrajarriak dira Arrasateko mugimendu kooperatiboak bizi duen bilakaerari buruz. Iñaki Herasek dio: «askorentzat, kapitalismoari alternatiba ere baziren enpresak, egun azal desberdineko mami bera duten enpresa sasi-

kapitalistak baizik ez baitira»⁴. Arrasateko kooperatibismoari ondoko inkoherentziak egotzi zaizkio, besteak beste⁵:

- Teorian bazkideena da jabetza eta erabakimena, baina kooperatiben bizitza errealean zuzendariek hartzen dituzte erabakiak, gehiegizko jauzia dagoelarik demokrazia formaletik («persona bat boto bat») praxi demokratikora. Antxon Mendizabalek dioen moduan, joera teknokratikoez gaina hartu diote bulkada auto-eratzaileri. Gainera, «holding» erako egitura sortzen ari da MCCn, eta horrek ahuldu egin dezake behetik gorako elkartze librean oinarritutako kooperatiba taldearen izaera.
- Lansarien arteko alde zabaltzen ari da.
- Behin-behineko langileen kopurua asko hazi da, termino absolutu zein erlatibotan.
- Nazioarteratzearekin, euskal gizartearekiko konpromisoa diluitzeko arriskua dago.
- Nazioarteratze prozesua formato ez kooperatiboan burutzen ari da (Arrasateko zenbait kooperatiba, talde ez kooperatiboan barruan integratu dira; bertako langileek kontrolatzen ez dituzten sozietate kapitalista ugari sortu da filial gisa; kapitala kanpoko kideei zabaltzen zaie...), eta nazioarteratzearen alderdi sozialari buruz eta lurraldetasunaren artikulazioari buruz ez dago behar den gogoeta eta ekimenik.
- Ideologia eta formazio kooperatibistaren ahultzea. Horrekin batera zentzu komunitarioa ere ahuldu da, parte hartzea ahulduz.
- Nekez sortzen da kooperatiba berririk.
- MCC euskal Herriko indar sozial biziekiko isolatuta bizi da.

Ikerlari zenbaitentzat, pragmatismorako labaintzea da Arrasateko kooperatibismoaren garapen logiko posible bakarra. Antxon Mendizabalek aspalditxo zioen «egungoa ez litzatekeela mugimenduan hasiera-hasieratik zegoen kontraesanaren garapena baizik»⁶. Arrasateko kooperatibismoaren kontraesanak, gainera, handiagoak egin dira 80ko hamarraldian, Europako merkatura eta 90ko hamarraldian globalizazio testuingurura egokitu behar diren ondorioz.

Kritiko zorrotzen artean Arrasateko kooperatibak gertutik jarraitu dituen Iñaki Uribarri dugu. Ezker pentsamendu kritiko eta alternatiboan kokatzen den euskal ekonomilari eta sindikalista honek hainbat esplotazio-molde egotzen dizkio AKERi: lehenik eta behin, Arrasateko kooperatibismoak hasieratik bizi izan du kooperatibismoaren auto-esplotazio klasikoa; ondoren, indartu egingo da aldi baterako esplotazioa; gero, kontratatutako eta azpikontrataturiko enpresetako pertsonala esplotatzeko joera da nabarmendu dena; eta azkenik, nazioartean ezarri edo erositako enpresetako lan-

⁴ Iñaki Heras, *txanponaren bi aldeak. Ekonomiaren mito eta elezaharrak*, Alberdania, 2003, 182 or.

⁵ Arrasateko kooperatibismoaren gaineko kritika eraikitzaile interesgarria ageri da 2003an Arrasateko talde kooperatiboaren baitako zenbait kooperatibistek, sentsibilitate kooperatibazale aurrerakoi eta euskaltzalekoek, argitaratu zuten liburuxkan: «Kooperatibagintzarako abiapuntuak», edizio mugatua, 2003.

⁶ Antxon Mendizabal, «Autogestión y mercado», *Hika*, 91 zka., 1998ko uztaila.

gileen esplotazioa dugu, eta, baita ere, ingurumenaren esplotazioa.⁷ Autore honen irizian, pragmatismo enpresarialak erabat irentsi du Arrasateko kooperatibismoa, baina, bada bestelako kooperatibagintza bat, txikia, alternatiboa eta solidarioa; pentsamendu kritikoa mundu alternatibotik sortua eta bertan garatua; autogestioarekin eta etika ekologikoarekin bat egiten duena; eta kooperatibak gizartea eraldatzeko erreminta gisa ulertzen dituen. Kooperatibismo hori da zutik dirauena, printzipio etikoduna eta gizartea eraldatzeko motibazioarekiko koherentziaz jokatzeko ari dena.

Kritika ezaguna da, bestetik, Sharryn Kasmir antropologia irakasle estatubatuarrena⁸. Arrasatera etorri zen urte erdiz, Lurrean zerua aurkitzera, erreinu perfektu gisa saltzen zen kooperatiben mundua ikertzera. Esperientzia kooperatiboa «langile klasearen ikuspegitik» ikusita, sozialismoaren kontrako proiektutzat jo zuen, langile mugimenduaren aurkakotzat. Besteak beste, langile eta zuzendarien artean bereizketa eta distantzia sakona antzeman zuen. Funtsean, espazio kooperatiboan langileei ez zaie itzuli euren lan-bizitzaren kontrola, esango digu. Arrasateko kooperatibismoak ez du, beraz, logika kapitalistarekin hautsi; akaso kapitalismo humanoago eta erlijioso baten aurrean gaude, besterik ez. Kooperatibismoak abertzaletasun moderatuen ideologiatik edan du, eta hortik ezin sortu proiektu sozialistarik.

Arrasateko mugimendu kooperatibistak, ordea, ez du bakarrik ametitzen gogoeta «akademikoa». Esango nuke nagusiki debate soziala pizten duela; hots, euskal gizartean presentzia du, gure herrietako kaleetan inoiz entzuten den kezka da.

Arrasateko kooperatibismoa baloreak galtzen ari ote den, horra hor galdera ezaguna bezain garrantzitsua. Efikaziaren eta baloreen arteko harreman konplikatu horretan gauzak okertu ote diren. Aipatu logiketako bat indargabetzen ari ote den, edo bestea behar baino gehiago oldartzen. Asko dira balore galeraz edo esentzien higaduraz mintzo direnak, kooperatiba barruan zein kanpoan: kooperatibak (eta kooperatibistak), izan zirela baino ez direla. Asko dira negozioaren nagusigo ia erabatekoa ikusten dutenak, balore galtze eta logika instrumental-ekonomikoaren aldeko labaintze prozesua identifikatzen dutenak, kooperatibak txinara langile merkeak kontratatuzera doazela ohiko multinazionalen antzera. Aldiz, beste batzuentzat subjektu kooperatibista *eraldatzen* ari da, ez galtzen. Eta bada uste duenik Arrasateko kooperatibismoa bere unerik hoberenean dagoela ikuspegi guztietatik: inoiz baino kooperatibismo gehiago praktikatzen dela, eta inoizko hoberena.

Arrasateko esperientzia sozio-ekonomikoak filiak eta fobiak sortzen ditu euskal gizartean, iritzi publikoan. Idazlan hau orrazten ari naizela, 2007ko udan, Juan Mari Arregiri hauxe irakurri diot euskal prentsan: «...akatsak akats, kooperatiba talde

⁷ Iñaki Uribarri, «La doble moral del Grupo Cooperativista MCC», *Arian* aldizkaria, 27 zka., 2001eko uztaila. Ikus, baita ere, ondoko lan biak: Uribarri, «Transformaciones de la experiencia cooperativista de Mondragón», *Hika*, 91 zka., 1998ko uztaila; eta «Estado actual del movimiento cooperativista de Mondragón», ondoko lanean: Elena Grau eta Pedro Ibarra (koord.), *Una mirada sobre la red. Anuario movimientos sociales*, Betiko Fundazioa, Gakoa Liburuak e Icaria Editorial. Barcelona, 2000, 101-104 or.

⁸ Sharryn Kasmir, *El mito de Mondragón*, txalaparta, Tafalla, 1999. Ikus baita ere, *Hika* aldizkarian egin zitzaion elkarrizketa, 91 zka., 1998ko uztaila.

honek egindako lan izugarria aitortu beharra dago. Onartu beharreko elementurik garrantzitsuen, dena den, hain talde indartsu eta boteretsua izanda ere, dakigunez behintzat, sekula bere baitan eskandalu ekonomiko-finantzierorik gertatu ez izana da. Taldearen agintari gorenak sekula ez dituzte poltsikoak diruz gainezka eduki. Eta beti ezaugarritzat izan dituzte diskrezioa eta zintzotasuna (...) MCCk aitorten soziala merezi du. Gurea badu behintzat.»⁹ Beste batek esana da nazioartean beharrezkoa den indartze moralean lagun dezakeela kooperatibismoak (XX mende hasieratik Euskal Herrian egin bezala), balore ekonomiko eta sozialen bateratzea bilatzen duen humanismo industrialia beharrezkoa izango baita esnatu den mundu berrian.¹⁰

ETA erakunde armatuak ere, aldian-aldian bere gogoeta propioak egin izan ditu Arrasateko kooperatibismoari buruz, beti oso kritikoak¹¹. Erakunde armatuaren iritzian «langileen auto-antolakuntzatik langileek enpresaren kudeaketa ekonomikoa eta soziala» lortzeko helburuarekin jaio zen esperientzia ez doa bide onetik, ezta gutxiago ere. Eskualde jakin batzuen (Deba Goiena bereziki) garapen sozial eta ekonomikoa lortu da, herritar askoren konpromiso maila oso handia izan da, «kooperatiben proiektua eraldaketarako tresna izan zitekeela sinistu» baita, baina, errealitatean erreparatuz gero, «proiektu honek eraldaketarako izan zezakeen ahalmena erabat kolokan dago». Herriaren zati bati onura ekonomikoa ekarri dio, ezbairik gabe (enplegua sortu da, hezkuntza eta ikerkuntza bultzatu dira...). Lan harremanetan, oster, aparteko lanorduetan buru da, 35 orduko lan-astearen borrokan ez du ekarpenik egin, dualizazio eredu nabarmena da (bazkide / ez bazkide), eta abar. Lan-antolaketa metodo berriak sartu dira, «langileen bizi-baldintzak enpresaren beharrei guttiz egokituz». Helburua produktibitatea handitzea izan da beti, pertsonen gainetik proiektu ekonomikoa jarri delarik. Langileak jabeak direlako ideia «teoria hutsa da», eta langileen artean pasibotasuna eta ilusio eza dira nagusi. MCC izan daiteke neokapitalismoaren (malgutasuna, elkarlana, burokraziarik gabeko zuzendaritza, talde lana, kalitatea kontrolatzeko taldeak, langileen parte hartzea jabeagoan) «adibiderik garrantziena». Hortik uler daiteke kapitalismoaren ideologoen azaltzen duten interesa.

Finean, erakunde armatuaren iritzian «ikuspegi teknokratikoa nagusitu da, hau da, MCCk proiektu ekonomikoa bultzatzea pertsonen garrantziaren gainetik, herriaren gainetik, jarri du. Hasieran, enpresa-kapitalista ereduaren eraldatzeko izan behar zuena neoliberalismoaren aurpegia zuzitzeko tresna ezin hobea bihurtu da». Gainera, «Euskal Herria ez da existitzen MCCrentzat. Espainian kokatzen du bere burua». Lehen, sikiera, Euskal Herrian sortutako baliabideak bertan inbertitzen ziren, baina gaur nabarmena da kanporako joera. Azken batean, enpresa ikuspegi nagusitu da, emaitza ekonomikoa dira helburu nagusia, eta lehiakortasuna eta errentagarritasuna lehenetsi dira; joera honen adibiderik garbiena Eroski litzateke («izaera erabat antidemokratikoa», «enpleguaren prekaritatearen eta malgutasunaren eredu»).

⁹ Juan Mari Arregi, «Aldaketa MCCn», *Argia*, 2.99. zka., 2007ko utzailaren 29a.

¹⁰ Anton Arbulu Ormaetxea, «Cooperativismo y humanismo industrial», *Diario Vasco*, 2004ko maiatzak 10.

¹¹ Ondoren jasoko ditugunak ETA erakunde armatuaren barne komunikaziorako berri-paperetik hartuak dira: «Beti eman daiteke pausu bat gehiago», *Zutabe*, 101 zka., 2003ko ekaina.

Kooperatibek arima galtzen ari ote? Iritziak ugari. Aski ezagunak dira aipatutako erantzunetako batzuk. Kooperatibisten artean ere kezka giroa arnasten da, globalizazioak efektu sakonak ekarri baititu. Gaurko merkatuak eskala handiko ekoizpen eta banaketara bideratutako ekonomi eta enpresa ereduak ekarri du, eta horrek kalte egiten dio ekonomia autogestionario, ekologiko eta sostengarri baten ikuspegiari. Globalizazio garairako ideario etikoa, zenbaitentzat, «ongizatea globalizatzea» izan beharko litzateke¹². Kooperatibek (euskal kooperatibak barne) «bidezko globalizazioa» bulztatu nahi dute.

Aurreratu dugun moduan, AKERen aspektu ilunei dagokienez, bere nolabaiteko «perbertsio pragmatikoari» dagokionez, Ilustrazioari eta Mendebaldeko zibilizazio modernoari antzeko bekatua egotzen zaio. Beraz, askoren iritzian, baita orriotan ageri den diagnostikoan, antzeko zerbaiten biktima litzateke euskal kooperatibismoa: aurrerabide material, ekonomiko, tekniko, finantzario eta zientifikoaren bide oparoan, bestelako dimentsio batzuk baztertu izana (edo behar bezala gaurkotu ez izana).

Aurrerago nioen bezala, kooperatibak barrutik ikusita, beharbada aspektu ilunak oraindik ilunagoak dira eta aspektu argiak oraindik argitsuagoak. Iritziak iritzi, euskal gizartean garrantzi handikoa den gaia dugu, milaka lagun bizi eta lan esperientzia unibertso kooperatiboan ardaizten delako, eta, hortaz gain, beste askoren gogoetak biltzen dituelako.

d) Puntako protagonistak euskal historia sozial modernoan

Euskal herritarren historia sozial eta ekonomiko modernoan garrantzia handikoak izan direnen testigantzak biltzen dira lan honetan. Laster desagertzeaz den belaunaldi batek eginiko bizi-hautuak ageri dira; ibilbide biografikoa antolatzekeko modu jakin batzuk; bizitza ulertzeke eta lanari esanahia atxikitzeke era propioak; berezko subjektibotasunak. Mundua irakurtzeke eta bizitza gobernatzekeko modu zehatz bat, ez beste bat, aukeratu dutenen hitzak dira (nahiz fundatzaileen analisiaren zatitxo bat ekarri orriotara). Bi belaunaldiren (fundatzaile erretiratuen eta gaurko protagonisten) pentsaera, sentiera eta jokaera horiek aurrez aurre begiratu behar izan diote globalizazioari eta, bataila historiko horretan, zauriak eta garaipenak izan dira, pozak eta barru urratuak.

Orriotan, beraz, hainbat lagunek hartutako konpromiso sozialaren eta izandako herri-esperientziaren kontakizuna ageri da. Euskaldunon historia sozial modernoan dezenteko eragina izan dutenen (eta dutenen) ahotsak. Nagusiki, AKERen hiru fundatzaileak ditut gogoan: Jose Mari Ormaetxea, Alfonso Gorroñoigoitia eta Jesus Larrañaga (azken hau 2005ean zendua).

¹² Ikus *T.U.Lankide* aldizkariko editoriala (MCCren aldizkari korporatiboa): «Globalizar el bienestar», 2002eko uztaila, 470 zka.

e) Bestelako kultura ekonomikoa eta enpresa eredu berria sortzearen garrantziaz

Kooperatibismoaz hitz egitea, enpresa-eredu batez hitz egitea da, gizarte-eredu batez aldi berean, giza identitate eta giza eredu batez, ondorengoak uztartu nahi lituzkeena: ekonomia eta etika, pragmatismoa eta balio humanistak, hazkunde ekonomikoa eta gizartearen kohesioa, arrazoi ekonomikoa eta arrazoi solidarioa, errentagarritasunaren irizpideak eta demokraziarenak. Seguruenera, uztartze horretan datza gizateriak XXI. mendeari begira duen desafiorik handienetakoa (handiena ez bada).

Egun, Mendebaldeko zibilizazio patriaren eta garapen ereduaren hedatzea bizi dugu. Globalizazioa, hein handi batean, Mendebaldearen globalizazioa da, gizarte moderno aurreratuaren zabaltze hazkorra (lekuan lekuko sinkretismoekin, noski). Arrazionaltasun ekonomikoaren muga bako hedatzeak sekulako arazoan aurrean jarri gaitu, ezberdintasun sozialak zein mehatxu ekologikoak sekulakoak baitira. Garapen Iraunkorra da hitzetik hortzera darabilgun kontzeptua, eta funtsean, ondokoaz ari gara: printzipio ekonomikoak bestelako logikekin uztartu beharraz. Hazkuntza ekonomikoak estandar sozial, etiko, demokratiko eta ekologikoak jarraitu beharko ditu aurrerantzean.

Gainera, mundu zabaleko prozesuak kooperatiben etxeko leihotik begietaratuz gero, globalizazioak ez dizkigu soilik desafio ekonomikoak erakusten; erakusten digu, aldi berean, joera uniformizatzaileak indartsuak direla oso, identitate kolektiboak eta subjektu kulturalak desartikulatzeko amenazoa bizi dugula, eta berauei eustek garrantzia handia duela.

Bide horietatik doaz etorkizuneko eztabaida eta desafiorik agian inportanteenak, XXI. mendeko agenda sozio-politikoan gorrikeri ageriko direnak. Enpresek buru-belarri sartu behar dute garapen iraunkorraren eztabaidan, erakunde horiek egungo arazo humano, sozial eta ekologikoen bihotz-bihotzean baitaude. Beharbada sekula baino garrantzitsuagoa da arrazionaltasun ekonomikoa bestelako giza-arrazionaltasunekin lotu gura duen egitasmoa garatzea. Bide horretan, AKE pista bat izan daiteke.

f) XXI. menderako Euskal Kooperatibismoa birsortzeko beharra

Kooperatibak horretan saiatu dira historian zehar: ekonomia gizartearen eta enpresa gizakion zerbitzura jartzen, kontraesanak kontraesan eta argi-ilunez betetako ibilbidea medio. Zentzu horretan, XXI. mendeak behar dituen planteamenduetatik gertuago egon daitezke. Sufritzen ari dira baina. Globalizazioarekin praxi eta molde berriak asmatu behar izan dituzte, eta moldeotako batzuk kooperatiben nortasun eta praxi historikoaren kontrakoak izan dira.

Arrasateko Kooperatiba Esperientziari buruz hainbat ikerkuntza eta irakurketa egin dira, gehienak enpresa-ekonomiaren, gestioaren, erakundetzearen eta zuzenbidearen alorretatik. Orriotan giza talde baten kulturari eta identitateari begiratzen zaio,

bere bilakaera historikoari, eta globalizazio garaian bizi dituen aldaketei. Arrasateko Kooperatiba Esperientziaren egituratze sinbolikoa hartu dugu begitan, bere arrakasta ekonomikoaren hondoan dagoen identitate eta kultura partikularra.

Sendotasun kultural-ideologiko hori izan da bere arrakastaren giltzetako bat, eta berau dago gaur kolokan, gizarte modernoaren metafora borobila bailitzan. Egoera honi irtenbidea aurkitzea oso da garrantzitsua. Batetik, kooperatibek eurek behar dutelako identitate krisiari irtenbidea bilatzea, XXI. menderako kooperatibismoa berrituz, berrindartuz eta berrasmatur. Baina, ikuspegi zabalagotik, kooperatibak indartzean, enpresa— eta gizarte-eredu bat indartzen ari gara, giza baloreak eta pragmatismoa biak batera eroan nahi lituzkeena. Horixe da etorkizunak behar duena, eta kooperatibek bide horretan eredu imperfektua bezain estimulatzailea eskaini dezakete.

Horregatik, identitatea zelan errekuperatu eta proiektu kooperatibista nola bir-sortu, horri erantzuteko ahalegina xume bat egin nahi izan da, onartuz erantzunak ezinbestean kolektiboa izan beharko duela eta su txikitari egosia.

g) Bokazio praktikoa gogoan, ikerketa soiletik ikerkuntza-ildora

Ikerkuntza honek kooperatibismoa interpretatzeko marko orokor bat ezartzea nahi izan du, edozein ikertegik behar baitu ikuspegi intelektual bat garatu eta begiratu propioa landu. Ondoren beste ikerkuntza eta doktore-tesi batzuk etorri dira, egun bide egiten ari direnak, eta beste ikerkuntza horiek orriotan plazaratzen den oinarriko marko intelektuala zein emaitzak hartu dituzte abiapuntu. Zentzu horretan, ikerkuntza soila ikerkuntza-ildo bilakatzen ari da, orriotako irakurketak etengabe osatzen eta aberasten ari direlarik.

Guztiak dute bokazio praktikoa, hau da, errealitatean eragitea bilatzen dute, gauzak hobetu eta arazoak konpondu aldera. Azken urteotan LANKI Ikertegitik eginiko lanek identitate kooperatibistaren bilakaera eta gaurko egoera azaltzeaz gain, beronen trinkotzerako pistak eskaini nahi dituzte, eta lanok ezagun egin dira MCCko goi arduradunen artean. Korporazio kooperatiboan ardura gorenak dituztenek ezagutzen dituzte ikerkuntza honetan argitutako emaitzak eta, hausnarketa prozesu aberats eta luze baten ostean, MCCren erabakiak oinarritzen ari dira ikerlariok proposatutako zenbait aterabidetan.

ATAL TEORIKOA

Gizarte moderno kapitalistaren kritika

«En el idealismo alemán y en Marx se consideró que el contenido normativo de la modernidad se resumía en los conceptos de autoconciencia, autodeterminación y autorrealización. El sentido del prefijo «auto» quedó, sin embargo, distorsionado desde el principio bajo el signo de un individualismo posesivo y de una subjetividad pura y dura. Tenemos que devolver a ese «auto» un sentido intersubjetivo. Nadie puede ser libre por sí solo. Nadie puede llevar desconectado de los demás una vida consciente, ni siquiera su propia vida. Nadie es un sujeto que sólo pertenezca a sí mismo. El contenido normativo de la modernidad sólo puede descifrarse en su lectura intersubjetiva.»

Jürgen Habermas

Arrasateko kooperatibistak ezagun dituenak badaki euskal jende horrek baduela berezitasunik, nolabaiteko jite berezia dutela euretako askok. Eta Arrasateko kooperatibismoa ulertzeko bertako kooperatibistak ulertu behar dira, biziera berezi horrek hondoan dituen sustrai kulturalak eta motibazioak; esan ohi den legez, ez baitago kooperatibismorik kooperatibista barik.

Arrasateko kooperatibistak ezagutzen dituenak badaki bizitza gobernatzeko modu baten zertzeladak ere aurki daitezkeela bertan. *Ethos* bat, nolabait. Eta berau ulertzeko Weber-en ekarpena aparatatu teoriko ona irudi zaigu, beharbada ezagutzen dugun onena (*ethos* ekonomiko modernoaren sorrera eta bilakaera azaltzen ditu). Handia da euskal esperientzia aztertzeke, eta honek hezurmamitu dituen bizierak ulertzeko, bere ekarpenean aurki daitekeen altxorra.

Horixe da Arrasateko kooperatibismoa eta kooperatibistak ulertzeko lehen gonbita: Weber ezagutzen dutenei proposatu nahi diet bere lanaren zati bat berrirakurtzea, letra artean euskal jendarteak eman duen esperientzia sozio-ekonomikoa irakurriz aldi berean; ezagutzen ez dutenei, pentsamendu horren zenbait zokotan sartzeko gonbita egin nahi diet, gogoan Arrasateko kooperatibistak izanik.

1. Max Weber: Modernitateari buruzko pentsamolde kritikoa

Modernitatea aztertzeko eta ulertzeko —modernitate kapitalista, zehatzago esanda— hainbat dira bide posibleak. Euretako bati helduko diot: *identifikazio weberiarra*; arrazionalizazioaren eta modernizazioaren artean ezartzen den identifikazioa, alegia.

Modernitateari «arrazionalizazio» hitza lotu zaio nolabait. Dagoeneko aurrera-tu dugu: gizarte modernoetan funtsezko tentsio bat bizi da efikaziaren eta zentzuen artean, arrazoiaren eta fedearen artean, arrazionaltasun instrumentalaren eta balore-arrazionaltasunaren artean.

Historian zehar asko izan dira tentsio horren joan-etorriak. Garai historiko batzuetan tentsio hori ia desagerturik ikusi dugu, fedea arrazoiari gailendu zaiolako, edo alderantziz, efikazia jainkotu delako eta zentzu osagaiak baztertu; azken hau litzateke gizarte modernoaren patologia. Batek pentsa lezake aipatzen ari garen auzia ideien munduari lotzen zaiola, gogoeta akademikoaren unibertso abstraktu eta zerutiarrari, baina, auzi hori bizitzari lotzen zaio zuzen; hau da, bizitzeko moduez ari gara azken batean; hezur-haragizko gizakumeen bizitza (auto)gidatzeko eta (auto)governatzeko moduez. Historian zehar gorpuztu izan diren biziera arketipiko batzuk (monastegietako bizitza, lehendabiziko kapitalismoaren enpresa-gizonak, zientzialariak...) bien arteko uztartzean oinarritu dira.

Bizitza horiek modu sistematiko eta ordenatuan antolatutak izan dira, diziplinaz eta sakrifizioz, eta era bateko ala besteko obligazio moralean edo fedean sostengatu dira. Weberrek biziera horietako bat sakon aztertu zuen, lehendabiziko kapitalistena alegia. Euskal unibertsoan ere aurki daiteke antzekorik, Arrasateko kooperatibismoan hain zuzen, bere berezko ezaugarriekin betiere.

Arrazionalizazio prozesuaren bidez Weberrek gizarte kapitalista modernoaren genesia, izaera eta bilakaera azaldu zigun. Aurreratu dezagun bere analisiaren gako nagusia: gizarte horietan giza arrazoiaren erabilera konkretua nagusituko da, efikaziaren jainkoa goratuko duena eta bestelako giza baloreak pribazitatearen gotorleku estura bidaliko dituena. Azken baloreak, balore sublimeak, gure bizitzari esanahia ematen diotenak, esfera pribatura mugatu dira. Azken baloreak, balore sublimeak, bizitza publikotik desagertu dira, edo gizarte bizitzaren ertzetara bidaliak izan dira.

Bestela esanda: baloreetan oinarritutako giza ekintzek gero eta leku gutxiago izango dute modernizazio prozesuak aurrera egin ahala. Arrazoi instrumentala arrazoi substantzialetik (balore arrazionaltasunetik) bereizi egin da, eta bereizte horren ondorioz, Weberren ustez irrazionaltasun arriskutsu batean murgildu gara. Arrazoi teknikoaren eta moralaren arteko bereizketa oinarri duen analisi horrek liluratu egin du zibilizazio modernoaren ulertu nahi izan duen aztertzaile ugari.

Diagnostiko weberiarrek ez du, beraz, baikortasunaren iturritik edango. Diagnostiko latza da: arrazionaltasun baloratiboak gizarte bizitzaren ertzetara bidaliak dira.

Horren aurrean, Weberren esfortzua arrazionaltasun baloratibo horiek berreskuratzearen aldekoa izango da, integralagoa edo osoagoa izango den arrazionaltasuna proposatzea, pertsonen duintasuna baitago jokoan. Izan ere, ekintzari — giza baloreen bidez — zentzua emateko ahalmen arrazional hori da gizakiaren berezko ezaugarria, baita duintasunerako bidea ere; horretan datza bizitzaren auto-arautze arrazionala.

Beraz, Weberren kontzeptio antropologikotik gizakia modu konkretuan definitzen da: zentzu beharizana duen izakiak gara eta, kultura-izakiak garen heinean, zentzua sortzeko gaitasunak definitzen gaitu. Kontzeptio horretatik Weberren ahalegina da baloreek zuzendutako arrazionaltasunari eustea, arrazionaltasun instrumentalaren inperioaren (eta inperialismoaren) aurrean.

Arrazionaltasun instrumentalaren onurak ugariak izan dira, ukaezina da hori. Mendebaldean giza arrazoiak izan duen garapenak gauza onak ekarri dizkigu: prozesu natural eta sozialen gaineko domeinu tekniko-formala handitu da. Gizakia hainbat sineskeri eta botere misteriosuz askatu da, munduaren gaineko kontrola areagotuz. Beraz, arrazionaltasun instrumentalaren indartzea ez da berez txarra, gizakia beldurretik eta menpekotasunetik libratu du hein handi batean.

Hitz lodiagoz esango dugu: ekintza instrumental eta estrategikoen oinarrian dauden pentsamendu sistema sekularizatuak — eta berauek sustatzen dituzten des-sakralizatze prozesuak — arrazionalizazioaren eta modernizazioaren ezinbesteko baldintzak dira, eta baita lorpen kognitibo garrantzitsuak ere. Egitura kognitibo berriek ahalbidetuko dute arrazionaltasun modernoaren sortzea eta garatzea, eta horrekin batera, zientzia garatzea, legea arrazionalizatzea, eta artea kanpoko loturez askatzea. Ez dezagun ahaztu, gainera, Modernitateak balore iraultza bat dakarrela aurreko garaiekin alderatuz gero: kontzientzia eskubideen aldarrikatzea, giza eskubideen aitortza, hiritar eskubideak, jabego eskubideak, botere publikoen aurreko askatasun pertsonala...

Baina, garapen horrek, aurreratu dugu jada, badu bere alde iluna: arrazoi instrumentalaren garapenak geure bizitzari zentzua emateko funtzioa duten arrazionaltasun substantiboak (giza baloreak kontuan hartzen dituztenak) bazterrean utzi ditu, gizarte bizitzan agintzeko indar gutxiagorekin utzi ditu, eta gizakion erabakiak zein proiektu sozialak etikoki funtsezko ahalmen gero eta murriztagoarekin.

Horretan datza modernizazio prozesuaren anibalentzia: biziraupen materiale-rako baliabidez soberan hornitu gaituen arrazoiaren erabilerak, zentzu-krisi sakonean murgildu gaitu.

Bi kolore agertzen dituen gertakaria, beraz: batetik, ilustrazio eta emantzipazio prozesua dugu; bestetik, «lilura-galtze» eta des-sakralizazio prozesua¹³. Banator berriro berba lodixagoekin: behin kontzientzia «des-liluratuta» eta egitura kognitibo berriak instituzionalizatuta, martxan jartzen da arrazionalizazio instrumentalaren aldeko mugimendua. Prozesu horren ondorioz kaltegarriena ondokoa litzateke: gi-

¹³ Euskaraz «lilura-galtze» terminoa erabiliko dut Weberren kontzepturik garrantzitsuena adierazteko: ingelesezko «disenchating» edo gaztelaniazko «desencantamiento».

zabanako autonomo eta «arrazionalen» existentzia eta garapena ahalbidetzen duen gizarte-oinarria ahitze bidean jarriko da. Habermasek esango luke arrazoi instrumentalak *bizitzaren mundua kolonizatu* duela.

Bi kolore beraz. Batetik, gizadia adinez nagusi bilakatuko da, gizakia bere indarraren balioaz jabetu eta, giza arrazoia eskuetan, auto-konfiantza eskuratuko du, ordura arte ukatua zuen baliabide sendoa. Baina, bestetik, prozesu historiko indartsua aktibatuko da, gizarte harremanen despertsonalizazioa eragingo duena, eta komunikazio sinbolikoaren sikatzea.

Modernizazio prozesuaren erroetan dagoen anibalentzia hori frankfurtiarrek ere, Weberren eraginez, erruz landuko dute. Arrazoi ilustratuak giza arrazoiaren fede itsua zuen, baina, giza arrazoiak izan ditzakeen arriskuak eta alde ilunak agerian geratu dira modernizazio prozesuan zehar. Ilustrazio garaiko pentsalariak zera esan ziguten: arrazoiaren erabateko garapenak miseria materiala gairatzea eta gizakiaren kondizio morala hobetzea, biak ekarriko zituela. Garai ilustratuari baikortasuna zerion alde guztietatik: giza arrazoiaren garapenak posible den mundurik hoberenera eramango gintuen, betiere libreki funtzionatzen uzten bazitzaion. Usteak erdi ustel, ordea.

Gauzak ez dira uste bezala irten, edo ez espero zen neurrian. Giza arrazoiak oso bereak dituen ahalmen batzuk bidean utzi dituela ematen du: munduari, bizitzari eta giza ekintzari zentzua atxikitzeak ahalmena, esaterako. Eta horrekin batera, jada aurreratutako duguna: Weberren diagnostikoaren arabera, gizakiak bere bizitza auto-gidatzeko duen ahalmena ere kolokan jarri da. Weberren diagnostiko latzaren honoan aurkitzen dugun beldur sakona horixe da: Europako historia modernoaren kreazioa den indibiduo autonomoaren ideala kimera hutsean geratzea, edo eta sistema despertsonalizatuaren ertzetan bizirautea ahal duen moduan.

Arrazoi morala eta instrumentala uztartu nahi zituen Ilustrazioak, arrazoi substantibo baten mesedetan. Baina, Adornok eta Horkheimer-ek esango diguten bezala¹⁴, «Ilustrazioaren dialektikak» bestelako prozesu historikoa agertu digu: arrazoi instrumentalaren garaipena eta, ondorioz, arrazoi substantibo horren auto-suntsipena.

Lan honen bihotzean, beraz, arrazionalizazio gisa ezagutzen den gertakari konplexua dago. Azken batean, Weberrek eta bere ondorengoek modernitateaz eginiko interpretazioa interesatzen zaigu: gizarte bizitzaren jarduera-eremu guztietan arrazionaltasun eredu jakin bat ezartzen joango da — arrazionaltasun formala — eta gertakari honek ilunpeetara bidaliko du arrazionaltasun material baloratiboa. Gizarte ordenan instituzionalizatuta geratuko da giza-ekintza molde bat: bitartekorik efizienteenak erabiliz helburu jakin batzuk lortzea asmo duen ekintza moldea, hain zuzen.

Ekintza molde horren instituzionalizatzea ekonomia kapitalistaren hedapenarekin estuki lotuta dago; izan ere, helburuetara orientatutako ekintza arrazionalaren gauzatze borobilenetako bat enpresa kapitalista da. Esan gabe doa: ekonomia kapi-

¹⁴ Max Horkheimer eta Theodor W. Adorno, *Dialéctica de la Ilustración. Fragmentos filosóficos*, Trotta, Madrid, 1998.

talista giza bizitza modernoa moldeatuko duen funtsezko indar bilakatuko da, kapitalismoaren gizarte markoan jaiotzen den orori ekintzaren orientazio konkretu bat inposatuz. Bizitza ekonomikoak ez baititu soilik ondasunak eta zerbitzuak ekoizten, tipo humanoak ere sortzen ditu, gizakiak moldeatzen ditu, eta gizakien arteko harremanak ere bai.

Modu horretan, modernitate kapitalistarekin norbanakoari ukatu egiten zaio hain berea duena (edo izan beharko lukeena): bere bizitza auto-gidatzeko aukera, kontzienteki aukeratutako baloreak jarraituz. Horixe baita pertsona egiten gaituena: gure bizitzaren azken helburuak eta baloreak libreki eta kontzienteki aukeratu ahal izatea. Hau da, munduan modu kritiko eta erreflexiboan kokatu ahal izatea.

Horregatik, hasieratik argitu beharra dago Weberrentzat benetan jokoan zegoena ez zela Mendebalde «balore hutsune» batean murgiltzea (ezinezkoa ere badena), baizik eta geure bizitzak antolatzekeo ipar gisa ditugun baloreak eta azken helburuak arrazionalki justifikatzeko ezintasuna (arrazionaltasun instrumentaletik haratagoko arrazionaltasun eredu bat oinarri hartuta).

Indibiduoaren autodeterminazio kontzientea da Weberren pentsamenduaren funtsezko erreferentzia. Indibiduo humanoaren (autodeterminatuaren) desagertze posiblea da Weberrek horizontean ikusten duena, indibiduo modernoa makro-erakunde sozialen menpe geratzen baita (masa alderdiak, makinaria burokratikoak, fabrika handian egin beharreko lan anonimoa...), arimarik gabeko espezialista bihurtuz. Bide honetatik gero eta zailagoa egingo zaio bizitzari oinarritze etiko eta normatiborik bilatzea eta, batez ere, oinarritze hori arrazionalki justifikatzea.

Beraz, ondokoa oso da garrantzitsua: arrazionalizazio prozesuaren ondorioz gizakiaren (eta kolektiboaren) autonomia bera dago jokoan. Zalantzan jarriko da indibiduo autonomoaren ideia klasikoak eta ilustratuak. Arrazionalizazio prozesuaren eraginez, autonomia indibidualaren ideia ilustratuak anakronismo baten antz gero eta handiagoa har lezake. Momentu batean autonomia horren alde jokatu zuten egitura sinbolikoek — zientziaren garapena ziurtatu zutenek eta erlijioak inposatutako mundu ikuskera oker eta magikoak gainditzeko balio izan zutenek — preso hartu dute autonomiaren aukera hori, politeismo axiologikoak agintzen duen testuinguruan gizakiari gero eta zailagoa egingo baitzaio zentzuari eustea. Eta, berriro diogu, Weberren kontzepzio antropologikoari jarraiki, gizakia, gauza guztien gainetik, zentzua sortzeko ahalmena eta beharra duen izakia da. Mendebaldeko arrazionalismoaren eraginez, espiriturik gabeko espezialista bihurtu daitezke gizaki modernoa, arimarik gabeko teknokrata, balore oinarritzerik ez duen ardi galdua.

Weberrek modu konkretuan interpretatzen du modernotasunera ekarri gaituen bilakaera historikoa: ekintzarako jarrera eta disposizioak aztertzen ditu, eta hein handi batean, unibertso horretan gertatutako aldaketek ezaugarrituko dute modernotasuna eta berau indartuko. Ez ditu, beraz, gizakiaz «kanpoko baldintzak» kontuan hartuko nolabait esatearren, ezpada barrukoak (gizakiaren barruko disposizioak).

Bilakaera historikoaren eraginez, gizaki modernoa sistema deshumanizatzaile berrietan gatibu geratuko da. Weberren hitzetan, «burdinezko kaiolak» eraikiko dira

modernitatearekin. Kontzeptu hori Lukács-en «gizarte kosifikatuaren» aurrekaria da eta, baita ere, ondoren etorriko diren frankfurtiar klasikoen (Adorno eta Horkheimer batez ere) «Administrazio Totalaren gizartearena».

Argi dago: kultura modernoaren bilakaera marrazten digun analisi hori ez da, ez, baikortasunaren eredu. *Historiaren filosofia tragiko-ekzor* gisa definitu dute askok oinarrizko posizio hori¹⁵. Baina, Weber bera da bilakaera horren alde positiboak eta sortzaileak asumitzeko deia egiten duena, monoteismo axiologiko zaharminduak alde batera utzi eta benetako etika bat mamituz: askatasunaren eta erresposabilitatearen etika sekularizatua, balore askoren artean balore multzo baten aukeraketan eta onespen kritikoan oinarrituko dena.

Beraz, Weberrek arrazoi ilustratuaren gainbehera diagnostikatzen du eta, horrekin batera, subjektu subiranoarena, baina, diagnostiko ilun horren aurrean Weberren proposamena erresistentziaren aldekoa da: subjektu ilustratu (subirano) horren defentsa.

Weber ez da, ikuspegi honetatik, desagertu den gizarte aurre modernoaren baloreak desiratzen dituen nostalgiko eta kontserbadorea. Weberren begiratu begiratu tragikoa da, gatazka eta borrokaren beharra onartzen duena, eta soilik ideal bati eutsiz salba gaitezkeelako uste sendoan oinarritzen dena. Weber ez da, beraz, aterabiderik bako aienea. Weber ez da hiltorian dagoen horri eusteko ezinezko saiakeran ari dena¹⁶. Bere hautua beste norabide batetik doa: gizaki modernoak bizi duen arimaren zatiketaren aurrean, humanitateari eustea proposatzen digu.

Arrazionaltasun teleologikoak (formalak, instrumentalak) harreman ezberdinak izan ditzake arrazionaltasun normatiboarekin (materialarekin, baloratiboarekin): mutur batean gatazka suntsitzailea eta bestean erabateko sinbiosia; tartean, aukera ugari. Weberrek sinbiosia ikusten du hasierako kapitalismo modernoa sustatu zuen protestantismo aszetikoan, geroago ikusiko dugun legez; hots, efikazia eta zentzuak uztartu ziren. Kooperatibismoa da harreman sinbiotikoaren beste adibide bat; edo sinbiosia bilatzen duen giza esperientzia, besterik ez bada.

Protestantismo aszetikoak nor bere profesioan bihotz eta arima aritzea eragin zuen, eta alde horretatik kapitalismoak behar-beharrezkoa zuen jokabide funtzionala sortu zen: lankortasuna hedatu zen, lanera emanda bizitzeko hautua, eta aurreztearen aldeko hautua ere bai, lan asko eginez eta gutxi gastatuz. Protestanteeek ekintza pragmatiko-adaptatibo horren arrakastan ikusten dute euren kalitate etiko pertsonalaren proba, eta salbatuak izango direlako segurtasuna. Bizitza metodiko-arrazional horretan elementu guztiak daude jokoan: ekintzak konponbidea bilatzen dio arazo pragmatiko-adaptatiboari (arrakasta ekonomikoa), eta baita ere zentzu beharrari (arrakasta

¹⁵ Jacobo Muñoz, in Yolanda Ruano de la Fuente, *Racionalidad y conciencia trágica. La Modernidad según Max Weber*, Trotta, Madrid, 1996, 17 or.

¹⁶ XIX mendeko alemaniar akademikoen artean ukitu nostalgikoa inportantea izan zen oso. Horren adibide da, esaterako, Tönnies. Modernitateak funtsezko konfiantza eza sortuko du. Baina Weberrek, Simmel moduko autoreengandik gertuago, garai aurre modernoekiko nostalgia kontserbadoreari uko egin zion.

ekonomikoa da salbatua edo Jainkoak hautatua izan naizenaren seinale). Ondorioz, munduaren domeinu arrazional gradurik altuena lortuko du. Helburu pragmatikoak bilatzen dituen adaptaziorako ekintza horrek, balore-ainguralekoa lortuko du, *ethos* erlijioso jakin batek emango diona.

Eguneroko bizimoduan frogatzen zen (*bewährte*), hain zuzen, erlijioz prestatua zegoenaren grazia eta hautespena; inondik ere ez, noski, eguneroko bizimoduan zen bezala, baizik eta Jainkoaren zerbitzutan metodikoki *arrazionalizatutako* eguneroko jardutean (*Alltagshandeln*). Salbamenaren froga eguneroko jardute arrazionallean datza, lanbide kategoriaraino (*Beruf*) goretsia.¹⁷

Protestantismo aszetikoaren kasuan indibiduoek arrazionaltasun biak uztartzen zituzten: batetik, adaptazioa eta arrakasta helburu duena; eta bestetik, subjektiboki lotesle gisa sentitzen dituzten balore exijentziak. Berriro diot: Arrasateko kooperatibismoaren protagonistekin antzeko zerbait gertatu da.

Aipatu dugun moduan, arrazionaltasunen arteko harremana era askotakoa izan daiteke, baina, Weberrek garbi ikusten du harreman horren konplexutasuna eta bien arteko gatazka potentzial eta erreala¹⁸. Weberren iritzian, gizakiek soilik helburuei egokitutako arrazionaltasunaren arabera jardungo balute, mundu hori «burdinezko kaiola» bilakatuko litzateke eta gizakiek euren askatasun guztia galduko lukete. Mendebaldeko kulturaren arrazionalizazioa horretan datza, hain justu ere: helburuei egokitutako arrazionaltasunak (eta horren menpeko ekintza ereduak) izugarri garatu dira, baloreei egokitutako arrazionaltasun eta ekintzen kaltetan.

Horren ondorioa izugarritzko aurrerapen teknikoa da, baina, katastrofikoa izan daiteke askatasun indibidualarentzat, baloreei egokitutako arrazionaltasuna albo batera uzteak tradizionalismo berria sustatzen baitu: tradizionalismo teknokratikoa. Esan bezala, testuinguru horretan norbanakoak galdu egingo luke bere ekintzak orientatuko dituzten baloreak aukeratzeko gaitasun kritikoa. Bide bakarra ezartzen da: pragmatismoarena, efikaziarena. Kitto giza askatasuna, eta ongi etorri zentzukurtsiari.

Baina, hori esan eta gero, Weberrek argi dauka antzeko zerbait gertatuko litzatekeela kontrako kasuan. Antzeko zerbait gertatuko litzateke baloreei egokitutako arrazionaltasunak baliogabetuko balu helburuei egokitutako arrazionaltasunaren ekintza kritikoa. Gogora dezagun helburuei egokitutako arrazionaltasunaren erabilera posible egin duela gizakia gizarte tradizionalaren morrontza eta arazoetatik askatzea.

«Arrazionaltasun formal» (efikazia) eta «arrazionaltasun material» (giza balioak) bereiztuz, Weberrek ekonomia kapitalistak eta bestelako konfigurazio ekonomikoa (aurre-kapitalistak edo sozialistak) bereizteko saiakera egingo du. Kudeaketa ekonomiko batek «arrazionaltasun formal» gradurik handiena lortuko du irizpide normatibo guztiak —merkatu dinamikari arrotzak zaizkion giza balo-

¹⁷ Max Weber, *Ensayos sobre Sociología de la Religión*, Taurus, Madrid, 1983, 213 or.

¹⁸ Weber, *Economía y sociedad*, 21. or.

reak — alde batera uzten dituenean. Arrazionaltasun formalak ondokoa bilatzen du soilik: bitartekorik egokienak aurkitu helburu jakin bat lortzeko; esate baterako, irabaziak eskuratzea. Arrazionaltasun formala eta honek eragiten duen arrazionalizazio prozesua neurtzeko, efizientzia, gaitasun teknikoa eta kalkulagarritasuna erabiltzen dira irizpide gisa.

Gizarte aurre-kapitalista edo tradizionaletan ekonomia arautzeko modua bestelakoa zen. Halakoetan ondasunak ekoizteko eta banatzeko modua arau tradizionalei loturik agertzen zen, eta arau horiek arrazionaltasun formalaren dinamika autonomoa ezeztatzen zuten. Beste era batera esanda: ekonomia molde horietan arrazionaltasun materiala (baloratiboa) zen nagusi, irizpide ekonomiko hutsetik haratagoko printzipio normatiboak erabiltzen baitziren. Printzipio normatibo horiek era askotakoak izan dira historian zehar: senide harremanak; balore erlijiosoak; pribilegio sistema tradizionalak; lokarri afektiboak; debeku moralak, eta abar.

Beraz, kapitalismorako jauzia ondoko eran ezaugarri daiteke: kapitalismoaren ezarpen historikoarekin sistema ekonomikoa bereiztu egingo da sistema etiko-normatibotik; ordura arte arrazionaltasun formalak zituen muga tradizionalak hautsi eta arrazionaltasun horren hedapena ahalbidetu da.

Puntu honetan beste ñabardura garrantzitsu bat egin behar da. Izan ere, Weberrek ez du uste ekonomia kapitalistak arrazionaltasun formalaren hedapena dakarrela-eta (arrazionaltasun materialaren kaltetan), ekonomia molde horrek inongo printzipio normatiborik kontuan hartzen ez duenik; hots, arrazionaltasun material oro desagertzen denik. Horrela balitz zelan esplikatuko etika protestantearen inguruan egiten duen analisisia? Analisi horretan esango baitigu gizaki batzuk, balore jakin batzuk medio, garaiko mentalitate tradizionalistarekin haustura eragin zutela, eta modu horretan, ekonomia kapitalistak (eta honi lotutako arrazionaltasun formalak) behar zituen portaerak garatu zirela, baina balore soro batean oin hariturik.

Beraz, hasierako kapitalismoa balore jakin batzuekin uztarturik ageri da, eta balore (erlijioso) horiek eragingo dute ekonomia kapitalista garatzea. Bestetik, gizarte kapitalistaren ibilbidean asko izan dira erabilitako arrazionaltasun material printzipioak (baloreak), arrazionaltasun formalaren garapena osatzeko edo/eta kontrolatzeko. Aipatutako «Erreforma» garaia da Weberrek landuko duen adibidea (protestantismoaren etika). «Ongizate Estatu» beste adibide bat da. Eta bien tartean (Erreformaren eta Ongizate Estatuaren tartean), etsenplu ugari.

Weberren ustean, kontua da arrazionaltasun formalak nagusi bilakatzeko joera duela, eta bere ibilbide oldarkorrean, arrazionaltasun material (balore) orori gailentzen zaiola. Gizakion erronka zera da: saihestu behar da arrazionaltasun formala giza bizitzaren eremu guztietara hedatzea; hau da, arrazionaltasun material gradu bati eutsi behar zaio.

Sozialismo guztiek, Weberren iritzian, arrazionaltasun materialaren aldeko mugimenduak dira; merkatuaren eta arrazionaltasun formalaren menpe utzi ezin diren baloreak aldarrikatzen dituzte: «justizia», «denon ongia», «hiritar guztien ongiza-

tea» eta gisakoak¹⁹. Zentzu horretan, sozialismo ugariak zera bilatzen dute: baloreek (arrazionaltasun materialak) gidatutako praxi politikoa errekuaratzea. Hori litzateke justizia soziala gauatzeko bidea.

Zenbaitzuen iritzian, Enrique Serrano tarteko, puntu honetan Weber posizio sozialistetara hurbiltzen da, liberala izanik ere ekoizpen faktoreen arteko oreka lortzea ezinezkotzat joko baitu merkatuaren ekimen hutsez. Baina, ez zen sozialista. Weberrek gogor baztertuko du produkzio-bideak sozializatu eta planifikazioan oinarrituko den ekonomiaren alternatiba (garaiko marxismoak aldarrikatzen zuen «ekonomia planifikatua»). Gure autorearen ustean, alternatiba horrek arrazionaltasun formalaren hedatze oraindik biziagora eramango gintuzke, burokrazia estatalaren bidez. Puntu honetan badirudi Weberrek historiari aurrea hartu ziola, aurretiaz sumatu baitzuen sozialismo errealeko gizarteek nozitu zuten burokratizatzea, eta horrekin batera, arrazionaltasun formalaren hedatze izugarria: «sozializazio hazkorrak, ezinbestean, burokratizazio hazkorra esan nahi du egun», aurreratu zigun Weberrek.²⁰

Beraz, zein da arrazionaltasun formalaren hedatzea saihestuko lukeen alternatiba? Weberren ustean alternatiba hori ez da eremu ekonomikoan kokatzen, politika munduan baino. Politika mundua da arrazionaltasun materiala (baloreak eta azken helburuak) ezartzeko eta garatzeko jokalekua. Politikan jarduteak behartzen gaitu balore kontrajarrien aurrean baloreotako batzuen aldeko hautua egin eta horiekin konprometitzera (arrazionaltasun materiala), eta, aldi berean, balore horien gauzatea ahalbidetzeko bitartekoak ezagutu behar ditugu (arrazionaltasun formala).

Hementxe hartzen du Weberrek modernitatearekiko kritikoa den liberalaren forma nabarmena, demokrazia parlamentarioa jotzen baitu, beronen mugen jabe izanik ere, botere kontrapisurako dispositiboa, arrazionaltasun materialerako tartekak zaintzen omen baititu sistema politiko horrek. Arrazionaltasun materialaren erabilpen horren bidez definitzen dira, eta berri, gizarte bateko helburu politikoak.

Esan dugu helburuei egokitutako arrazionaltasuna eta baloreei egokitutakoa modu anitzetan jarri daitezkeela harremanetan, kasuistika zabala eta aberatsa gerta daitekeelarik. Baina, kasu batean bi arrazionaltasunak ez dira inondik inora osagarriak. Helburuok aurrez emanak eta ezarriak agertzen direnean: gizabanakoen borondatea baztertuta, helburuok lortzeko teknikoki egokienak diren bitartekoak aukeratzeko geratzen da soilik. Kasu horretan, Weberrek kontrajarrita ikusiko ditu bi arrazionaltasunak, arrazionaltasun formala eta materiala. Ondoren azalduko dugu beste berba batzuekin.

Arrazionaltasun formalaren adibiderik borobilena teoria ekonomikoan aurkitzen dugu, «gizaki ekonomikoan» hain zuzen. «Gizaki ekonomikoak» alde batetik beharrian batzuk ditu, eta bestetik, beharrian horiek aseko dituzten ondasunak eskas dira. Norbanakoaren aukera arrazional-formala ondokoan datza: bere beharrianak ondoen aseko dituzten bitarteko eta estrategiak bilatu beharko ditu. Arrazionaltasun

¹⁹ Weber, *Economía y sociedad*, 85 or.

²⁰ Weber, *Economía y sociedad*, 1061 or.

formalaren ikuspegi honetatik, norbanako edo agente horri soilik ondokoa eska da-kioko: bere beharrian eta lehentasunez kontzientea izan dadila, eta aukera tekniko egokia egin dezala berauek asetze aldera. Bide honetatik, gizabanakoen arteko lokarriak bere aspektu estrategikora murrizten dira. Joko horretan baloreei egokitutako arrazionaltasuna erabiltzea traba da, teknikoki egokia den aukera egiteko kaltegarria.

Garrantzitsua zaigu kontu hau, eta merezi du kontakizuna plano apalagora ekar-zea, abstrakzio maila jaitsez. Irudika dezagun otordua mendian egin duen mendi-goizalea. Janari hondarrak bertan utz ditzake, mendiko zelai batean, beheako bidea pisu gutxiagorekin eta lasaiago egin aldera. Tontokeria litzateke, ikuspegi horretatik, zama handiagoarekin jaiste menditik (arrazionaltasun formala: bitartekoen aukera tekniko egokia bere beharrianak hobeto asetu aldera). Bestelako ekintza burutzea ere posible da: «mendia zikintzea ez da etikoki onargarria, mendia guztiona baita, eta dagoeneko nahikoa degradatuta dugu ingurumena; gainera, zer gertatuko litzateke guztiok gauza bera egingo bagenu?», pentsa dezake mendizaleak (arrazionaltasun materiala: balore jakin batzuei egokitutako arrazionaltasuna eta ekintza moldea, horretarako sakrifizio pertsonalak eginez).

Azken kasu honetan, arrazionaltasun materiala eta beroni laguntzen dion ekintza mota interferentzia garbia da arrazionaltasun formalaren dinamika autonomoan. Arrazionaltasun formalarentzat koste gisa azaltzen da bestelako logika baten interferentzia. Beraz, bi logiken arteko kontradikzio esentzial baten aurrean gaude.

Bada, esan beharrik ez dago Mendebaldeko kulturak izan duen bilakaera eta gaurko egoera horrela esplikatu daitekeela: arrazionaltasun formalaren hedatze hazkorrak erretzetara bidali ditu bestelako kontsiderazioak, eta logika instrumentalak osatu hartu du han-hemen. Egun bizi ditugun arazo sozial, humano eta ekologikoak horren adibide borobila dira.

Mundu modernoan, batetik, monoteismo arrazionala ezarriko da —bitarteko-helburuetan oinarritutako arrazionaltasuna—, eta bestetik, politeismo axiologikoa. Horregatik, mundu modernoan sekula baino garrantzitsuagoak izango dira adituak eta teknikoak; berauek dira helburu jakin batzuk lortze aldera bitarteko egokienak aplikatzen adituak.

Asko dira Weberrek aztertu zituen gizarte eremuak arrazionalizazio prozesua zertan zetzan azaltzeko: burokrazia, ekonomia, erlijioa, zuzenbidea, hiria, musika... Guztiak baliatu zituen arrazionalizazioaren fenomenoak esplikatzeko. Giddensek modu sinple bezain argigarrian definitzen du hizpide dugun arrazionalizazio prozesua:

Weberrek arrazionalizazioarekin lotzen ditu zientziaren garapena, teknologia modernoa eta burokrazia; izan ere, arrazionalizazioa zera da: bizitza sozial eta ekonomikoa antolatzea ezagutza teknikoetan oinarrituriko eraginkortasun-printzipioen arabera.²¹

²¹ A. Giddens, *Sociología*, Alianza, Madrid, 2000, 722-723 or.

Enpresak efikazia eta kalkulabilitate printzipioak erabiliko ditu formalki librea den lana antolatzeko. Kontabilitate arrazionala, zuzenbide formala eta egitura burokratikoak funtsezko kontzeptuak dira enpresa modernoan. Osagai horiek ezean, bestelako kapitalismo aurre moderno bati buruz ariko ginateke, baina ez enpresaren antolakuntza arrazional modernoari buruz. Halaber, kapitalismo modernoaren garapena ulertzeko beste faktore bat ezinbestekoa da: faktore ideologikoa; *ethos* berezi bat; bizitza estilo (metodiko eta sistematiko) baten oinarri ideologiko-etikoa, eginbehar profesionala bizitzaren erdigunean kokatuko duena. Hau da, teknika eta zuzenbide arrazionalaz gain, arrazionalismo ekonomikoak azken hau behar du: euren bizitza ekonomikoa arrazionalki gidatzeko gai diren eta prest dauden gizakiak.

«Kapitalismoa» izan da txinan, Indian, Babilonian, Antzinaroan eta Erdi Aroan; baina, (...) kapitalismo modernoak bereizgarri duen *ethos* hori falta zen.²²

Ethos hori dugu *homo economicus*aren bizitza estiloaren oinarria, eta baita ere profesional modernoarena. Hori da, aldi berean, kultura modernoaren oinarria, kultura modernoa kultura profesionala baita. Horretan datza bizitza erregimen modernoa, bizitza gidatzeko eta arautzeko era modernoa. Beraz, arrazionalizazio kultural (mundu-ikuskera erlijioso berriak eta zientzia) eta sozialaz (burokratizazioa) gain, esfera subjektiboan bizitzaren arrazionalizazioa dugu: Mendebaldeko arrazionaltasun modernoa pertsonalitate-sisteman ere gauzatuko da, bizitza estilo metodiko-arrazionala ageri zaigu, ekintzarako jarrera eta disposizio multzo bat.

Ondokoak dira bizitza estilo modernoaren oinarrizko ezaugarriak:

- denbora kategoriaren araberako portaeraren diziplinamendu zurruna;
- bizitzaren aurrean jarrera aszetikoa, hainbat norabidetan: kanpo naturarekin ezartzen diren harremanetan, pertsonen arteko harremanetan, eta nork bere buruarekin ezartzen duen harremanean. Bestela esanda: kanpo naturaren (munduaren) domeinua batetik, eta barru erreprimituak, bestetik. Aszetismoak munduaren ukazioa du ipar, eta paradoxikoa badirudi ere, horren bidez berau eraldatzeko joera agertuko du. Errealitatearen domeinu aszetiko erradikal hori profesioaren eremuan gauzatuko da bereziki, profesioa bihurtuko baitu bere horretan helburu. Modu horretan eguneroko lanari zentzu moral sakona erantsiko zaio, akreditazio etikorako espazio bilakatuko da, eta indibiduoaren bizitzari zentzua emango dio.

Bizitza estilo hori baloreei egokitutako eta helburuei egokitutako arrazionaltasunak uztartzetik sortuko da, eta ez da soilik enpresariaren, industri langilearen edo funtzionario espezializatuaren ezaugarria, baizik eta «gizaki modernoarena», berau «profesionala» den heinean. Hobeto ulertuko da pertsonalitatearen esferan gertatu den arrazionalizazioa aurrerago, Weberren obrarik ezagunena aztertzerakoan: *Etika protestantea eta kapitalismoaren izpiritua*.

Pertsonalitatearen esferan (esfera subjektiboa), balore-arrazionaltasunaren ahitze hori ondokoarekin lotzen du: *ethos* profesionalaren sustrai etiko-erlijiosoak sikatu

²² Weber, *Ensayos sobre Sociología de la religión*, I bol., 36 or.

egingo dira eta *ethos* utilitarista bilakatuko da. Beste modu batera esanda: portaera arrazional teleologikoaren «oinarritze praktiko-morala» ordezkaturia izango da, bere lekuan oinarritze soilik «mekaniko-adaptatiboak» ezarritik.

Esan berri duguna Modernitatearen funtsezko diagnostikoa da. Arrasateko kooperatibismoari buruzko eztabaida ezagun eta publikoa antzeko terminoetan uler daiteke: portaera kooperatibistak galdu edo ahuldu ote ditu bere oinarri baloratibo eta etikoak?; sikatu egin ote dira bere sustrai etikoak eta utilitarismoz jantzi ote da?; zentzu kolektibo eraldatzaileak ahaztu eta adaptatibo-mekaniko hutsa ote da bere portaeraren funtsa?

Gure autorearen ustean, «etika protestantea», ideia multzo gisa, ez da inondik ere gizarte kapitalistaren kausa bakarra, gizarte kapitalista gertakari ugari eta konplexu askoren emaitza baita²³. Erlijioa osagaietako bat izan zen, osagai garrantzitsua, gizakien portaerak aldatzeko motibazio-oinarriak landu baitzituen, giza-portaerok arrazionaltasun formalaren hedapenera egokitu zitezela. Gizarte modernoarekin ekintza-orientazio eta biziera tradizionalak krisian sartu ziren, eta krisi hori gainditzeko sendagaia ere izan zen protestantismoa, aurreko mundu ikuskeren desagertze mingarria ikuskera berriekin ordeztua izan baitzen, portaeraren orientazio segururako ainguraleku berria sortu zelarik.

Protestantismoak munduari luzatutako begiratuak (irudiak) gizakien ekintzan efektu konkretua dauka:

... aszetismo horrek negozio-bidetik eraman zituen gizakirik jainkozale eta zorrotzenak; hauek negozioetan arrakasta izatea bilatzen zuten, bizi-jokabide arrazionalaren emaitza gisa.²⁴

2. Etika protestantearen eragina kapitalismoaren sorreran

Esan dugun bezala, arrazionalizazio prozesua esfera kultural, sozial eta pertsonal-subjektiboan gauzatuko da. Arrazionalizazio prozesuari ikuspegi deskriptibotik heldu diogu, baina Mendebaldeko arrazionalismo modernoa ikuspegi genetiko batetik aztertzerik ere badago: lehendabizi bat dator, gero bestea, eta gero hurrengoa.

Beraz, modernizazio prozesua arrazionalizazio prozesu gisa agertzen da: mundu-ikuskerara erlijiosoen arrazionalizazio etikoarekin abiatzen da (arrazionalizazio kulturala) eta, helburuen arabera ekintza arrazionalen ainguratze materialari esker (arrazionalizazio pertsonala), ordena instituzionalean sendotzen da (arrazionalizazio soziala). Horrenbestez, modernizazio sozialaren analisiak ondokoaz arduratu behar

²³ «Kapitalismo modernoa existitzeko premisa orokorra kapitalaren kontabilitate arrazionala da (eguneroko premiak asetzeko xede duten irabazi-asmodun enpresa handi guztientzako araua da hori). Enpresa horien premisak ondoko hauek dira: 1. Ekoizpen-ondasun material guztiez jabetzea (...) 2. Merkatu-askatasuna (...) 3. Teknika arrazionala (...) 4. Zuzenbide arrazionala»; M. Weber, *Historia Económica General*, México, FCE, 1974, 237 or.

²⁴ *Ibidem*, 460 or.

du: kontzientzia-estruktura modernoak operatzaile bihurtzeko nozitzen duten fenomenoaz.²⁵

Weber horretan saiatu zen: aztertu zuen zelan gauzatu zen bizitza estilo jakin bat, bizitza estilo metodiko-arrazionala, salbazio-erlijio judu-kristauaren arrazionalizazioaren ondorioz gauzatuko den *ethos* aszetiko-arrazionalaren emaitza gisa.

Beraz, Weberrek batez ere «barruko» faktoreak aztertu zituen, faktore subjektiboak, kapitalismoa subjektibitate molde bat ere badelako; hau da, bizitza gobernatzeko modu bat. Plano honetan aldaketarik izan ez balitz, zaila litzatekeen portaera ekonomiko modernorik gauzatzea: «arrazionalismo ekonomikoak, jatorrian, bi iturri baititu: batetik, teknika eta zuzenbide arrazionalak; bestetik, gizakiek garatuko duten gaitasuna hainbat jokamolde praktiko arrazional aurrera eramateko.»²⁶

Beraz, Modernitaterako jauziak aldaketa garrantzitsuak eskatuko ditu kontzientzia-egitura tradizioaletan. Mundu ekonomikoan «helburuei egokitutako ekintza arrazionalak» gauza daitezen, beharrezkoa da *ethos* ekonomiko berria eta bizitza estilo berria.

Ethos berriak ondokoa dakar: bai kanpoko nola barruko munduarekiko jarrera arrazional-dominatzaile berria, norberaren akreditazio etikoa probatzeko bitarteko gisa erabiliko dena. Eta pertsonalitate-egitura berria dakar. Beronen bidez indibiduoaren bulkadak, beharrak eta interesak modu sistematikoan orientatuko dira eginbehar profesionala betetzera; *zentzu hornitzailea eta bere horretan helburu izango den eginbehar profesionala betetzera*, hain zuzen.

Kapitalismo modernoaren behin indartuta, bere mekanismo propioak garatuko ditu legitimazioa eta egonkortasuna lortzeko. Behin finkatuta, indibiduoaren kosmos (kapitalista) horretan jaioko da, ia erreforma ezina den egitura baten barruan. Ingurumari horretan, makinaria ekonomikoak inposatzen dituen arauetara egokitu ezean, subjektu ekonomikoak ezingo dira moldatu, ezingo dute biziraun. Arauen kontra jarduten duen enpresariak edo langileak ez du zereginik: «ekonomiatik erremediorik gabe baztertuta geratzen da; arauetara egokitzea ezin duen edo nahi ez duen langileak enplegua galdu eta kalera doan bezala.»²⁷

Baina, kapitalismoaren genesian gauzak ez ziren horrela: garai hartan sistema ekonomikoak ez zituen arauok mekanikoki inposatzen. Ikuspegi honetatik, modernizazioaren galderak subjektibitateari begiratzera garamatza, edo beste modu batera esanda, barruko baldintzak aztertzea. Lanaren bidez lortu nahi izango den munduaren domeinu aszetiko-arrazionala (arrazionalizazio subjektiboa) erabakiorra izan zen bizitza ekonomikoaren eta politikoaren («kanpo») arrazionalizazioak gerta zitezen. Behin portaera molde horiek instituzionalizatuta, behin baldintza subjektiboak finkatuta, kapitalismoa bere burua erreproduzitzen ikasiko duen sistema bilakatuko da.

²⁵ Ruano, *op.cit.*, 174 or.

²⁶ Weber, *Ensayos sobre Sociología de la religión*, I bol., 19 or.

²⁷ *Ibidem*, 38 or.

Hau da, ordena ekonomikoa eta politikoa sistema gisa sendotzen direnean, ez dute legitimazio erlijioso edo moralen beharrik izango, bere legitimazio ideologiko (ideologia liberala) eta auto-arautze mekanismo propioak sortuko baitituzte. Baina, berriro diogu, kapitalismo modernoaren hastapenetan ez zen horrela.

Ethos ekonomiko horrek harreman estua du protestantismoaren forma konkretu batzuekin. Fede erlijiosoaren eduki batzuek eragin zuzena izango dute mentalitate ekonomikoan. Horixe da *Etika protestantearen* helburua, harreman hori zelan gertatzen den azaltzea:

Bizitzaren kontzepzio puritanoak abiatutako botereak kapitalen sorrera lagundu zuen, baina, hori baino garrantzi handiagokoa: jokabide burges eta —ikuspegi ekonomikotik— *arrazionala* sortzen lagundu zuen, eta puritana jokabide horren ordezkari tipikoa eta kontsekuente bakarra izan zen; kontzepzio horrek, beraz, *homo economicus* modernoaren erditzea ahalbidetu zuen.²⁸

Weberren tesiak —puritanismoak garapen ekonomiko modernoan izan duen eragina azaltzen duena—, polemikoa izanik ere, lurralde teoriko berria ireki zuen eta hainbat ikerkuntza suspertu²⁹. Sar gaitezen barrurago.

Weberrek gai zentral bati egin nahi izan zion aurre: zergatik kapitalismoa bakarrik Mendebaldean garatu den. Erromako inperioa erori ostean, beste zibilizazio batzuk Europaren aurretik zeuden, oso aurretik egon ere. txina bera askoz garatuago zegoen ikuspegi teknologiko eta ekonomikotik. India eta otomandar inperioa, beste horrenbeste. Zer gertatu zen, bada, XVII gizalditik aurrera European jazo zen garapen ekonomiko indartsua jazo zedin?

Mendebaldeko garapen ekonomiko erradikal hori azaltzeko, giza jarrera konkretu bati begiratu behar zaio: historian zehar sekula ikusi ez den jarrera bat, aberastasuna metatzearen aldekoa. Jakina, beste zibilizazio batzuetan aberastasuna metatzeko desioa bizia izan da; askok giza tendentzia unibertsala dela esango lukete, horrek erosotasuna, boterea eta segurtasuna baitakar. Baina, Mendebaldean jarrera hori kualetiboki ezberdina izango da. Gure autoreak jarrera horri *kapitalismoaren espiritua* deituko dio: lehendabiziko kapitalistek —merkatariak eta industrialek— zituzten baloreak eta sinesmenak.

Lehendabiziko kapitalista horiek aberastasuna metatzeko joera handia zuten, baina, bazegoen diferentzia bat beste zibilizazio batzuetako aberatsekin alderatuta: aberastan hori ez zuten erabiltzen luxuan bizitzeko; bizitza estilo pairamentsuak, abnegatuak eta austeroak garatu zituzten. Aberastanaren adierazpen agerikoak mesprexuz bizi zituzten. Weberrek jarrera «irrazional» hori azaldu gura du: aberastan lortu, baina berau gozatu ez. Arrasateko kooperatibistak ezagutzen ditue-

²⁸ *Ibidem*, 159 or.

²⁹ Weberrek puritanismo hitza erabiltzen du mugimendu aszetikoari erreferentzia egiteko. Mugimendu aszetiko orokorraren barruan protestantismo aszetikoa dugu, eta honen barruan hainbat korrante: kalbinismoa, pietismoa, metodismoa, eta «mugimendu bataiozalea» delakoaren barruko sektak (baptistak, menonitak eta kuakeroak), besteak beste.

nak badaki ezaugarri horrek baduela oihartzunik Arrasateko mugimendu kooperatibistan.

Bizi jarrera funtsezko hori Mendebaldeko garapen ekonomikoaren erdigunean dago. Bestelako kultura eta garai batzuetako aberatsek ez bezala, mendebaldar hauek ez baitzuten lortutako aberastasuna xahutu, berau berrinbertitu egin zuten, enpresen indartzea eraginez. Bizitza estilo baten hezurmamitzeaz hitz egiten ari gara, bizitza estilo metodiko-arrazionala, ordena sozial modernoarekiko funtzionala izango dena. Izan ere, modernizazio sozialaren bi faktore garrantzitsuenen garapenerako oinarria izango da: ekonomia kapitalista eta Estatu modernoa. Bizitza estilo horren oinarrian zera dugu: munduaren domeinu tekniko-pragmatikora metodikoki zuzendutako sinesmen erlijiosoak.

Baina, zergatik? Zergatik zuzendu bizitza nor bere buruari uko eginez? Zergatik aberastasuna lortzeko esfortzu izugarria egin eta, oparotasunean bizitzeko aukera eskura izanik, horri guztiari uko egin? Ikus dezagun.

2.1. *Ma(r)x*

Weberren obra, Marxen idatzien eta pentsamenduaren kontra idatzitako obra gisa ulertzen dute askok: faktore ez ekonomikoak garapen sozial modernoaren giltza izan dira. *Etika protestantea eta kapitalismoaren izpiritua* liburuak Marxen aurkako — beharbada hobeto legoke esatea «marxismoaren aurkako» — hipotesia du oinarrian: balore erlijiosoak kapitalismoaren sorreran funtsezkoak izan ziren eta, beraz, sistema berriaren profila ez zen sortu, Marxek zioen legez, eraldaketa ekonomikoetatik soilik; ideiak osagai eraldatzaile aktiboak izan ziren, ez errealtatearen erreflexu soil.

Baina, Marx eta Weberren arteko harremana ez da hain sinplea. Iritzi ezberdinak daude askorentzat alemaniar Soziologiako erraldoirik handiena den Max Weberren obrak marxismoarekiko izan duen kokapena zehazteko orduan.

Aipatu dugun moduan, batzuen iritzian teoria weberiarra Marxen teorizazioei emaniko erantzun gisa ulertu beharra dago. Egia esan, Weberrek ez zuen oso gertutik ezagutzen Marxen lana; izan ere, lan horren zati bat gure autorearen heriotzaren ostean argitaratu zen. Beraz, «erreakzioaren ikuspegi» honi jarraiki (marxismoaren kontrako erreakzioa), Marxen aurka baino gehiago, marxisten aurka atera zen. Weberren ustean marxistek gizarte bizitza esplikatzeke orduan kausa bakarra nabarmentzen zuten: aldagai ekonomikoa. Garapen historiko guztiak gizartearen oinarri ekonomikotik azaltzen zituzten. Hau Marxi zorrotz egotzi ezin bazaio ere, halaxe da bere jarraitzaile askoren kasuan.

Ikuspegi teoriko marxista honetatik, ideien mundua mundu materialaren isla hutsa baino ez litzateke; ideologia, interes materialen —batez ere ekonomikoen— ispilua. Weberrek ez zuen onartu ikuspegi hau, eta kontrako norabideari ekin zion: ideiek mundu ekonomikoan duten eragina aztertu zuen. Garrantzi handia eman zien ideiei, bereziki erlijioari, edo ideia erlijiosoek egitura ekonomikoan izandako eraginari.

Bigarren ikuspegi batek dio Weber ez zela izan Marxen aurkaria. Marxen ikuspegi teorikoa osatzen ahalegindu omen zen. Ikuspegi hau muturrera eramanda, Weberrek teoria marxistaren barruan lan egin zuen, berau borobiltzen eta osatzen; egitura materialak ideien munduan izan dezakeen eragina barik, kontrako norabidean eman daitezkeen gertakariak azaldu zituen. Era berean, estratifikazioaren teoriari bagagozkio, osatze lan hau agerikoa litzateke: Marx klase sozialez arduratu zen, gizarte mailakatzearen dimentsio ekonomikoa hartu zuelarik kontuan; Weberrek, aldiz, beste dimentsio batzuk ere kontuan hartu behar zirela defendatu zuen: prestigioa (estatusa) eta boterea, besteak beste. Kasu honetan ere Marxen teoriaren aberaste baten aurrean geundeke.

Aurreko bi ikuspegi horiek komunean dute aspektu bat: teoria marxistak Weberrengan eragina izan zuela aitortzen dute. Baina, badago hirugarren ikuspegi bat³⁰: Marx, Weberrek izan zuen eragin anitzetako bat baino ez zen izan. Bestelako eraginak ugariak eta garrantzitsuak izan ziren: Kant eta Nietzsche filosofoak, besteak beste.

2.2. Ethos ekonomikoa tradizionalaren kontra

Max Weberrek munduko erlijio handiak aztertu zituen. Gizarte zientzietan ezagunenetakoa den obran (*Etika protestantea...*), erlijioak, protestantismoak hain zuzen, gizarte aldaketan, eta zehatzago esanda, kapitalismoaren sorreran izan zuen eragina aztertu zuen. Protestantismoa, eta zehatzago esanda bere adarra den puritanismoa, Mendebaldean garatu den kapitalismo industrialaren iturri nagusietakoa izan da, gure soziologoaren ustean. Lehendabiziko enpresariak kalbinistak izan ziren (protestantismoaren adar bat). Kalbinisten arrakasta materiala lortzeko zuten grina izan zen Mendebaldeko garapen ekonomikoa sustatu zuen indar kultural eta psikologiko garrantzitsua. Arrakasta material hori Jainkoa zerbitzatzeko nahi zuten, eta Jainkoaren graziaren seinaleztat zuten.

Orotar, Weberrek kristautasuna «salbazio erlijio» gisa kontsideratzen zuen: giza-kiak salba daitezke kristautasunaren sinesmen eta dogma moralak praktikatu gero. Bekatuaren ideia, eta Jainkoaren graziaren bidez bekatutik libratzeko aukera, inportanteak izan dira oso, aukera honek Ekialdeko erlijioetan aurkitzen ez den tentsio eta dinamismo emozionala sortu baitu. Kristautasunak, autorearen iritzian, bekatuaren kontrako borroka etengabera bideratuko ditu sinestunak eta, beraz, kontserbadorea barik —Marxek zioen moduan—, indarrean dagoen ordenaren kontrako ekimenak bidera ditzake. Izan ere, puritanismoak bizi-jarrera oso bat sustatuko du: mundu materiala kontrolatzera eta itxuratzen zuzendutako jarrera; jarrera hori urrun dago Ekialdeko hainbat erlijioek sustatzen duten mundu materialarekiko ihes gogotik.

Galdera litzateke: nola pasatzen da portaera ekonomikoa arrazionala (helburuei egokitutako ekintza ekonomikoa) esangura moralez kargatutako ekintza izatera, le-

³⁰ Ritzerrek, esate baterako, hirugarren ikuspegi honen alde egingo du (*op.cit.*, 33.orrialdea).

hendabiziko burges kapitalisten existentzia zentzuz betetzeraino? Zelan uzten dio jarduera ekonomikoak esanahi adaptatibo hutsa izateari, norbanakoaren beraren balioa neurtzeko jarduera bihurtzeraino?

Prozesu hori gerta zedin *ethos* modernoak kontzientzia tradizionalen kontra borrokatu behar izan zuen. Kontzientzia tradizional horiek (Aintzinatekoak, Erdi Arokoak eta baita ere Berpizkundekoak) helburu ekonomikodun portaera arrazionalaren aurrean ikuspegi etikotik axolagabe agertzen ziren, edo gaitzesgarri gisa ikusten zuten portaera hori. Horixe da aldatuko dena.

Lehendabiziko kapitalistak puritanoak ziren, eta euretako askok ideia kalbinistak zituzten. Doktrina kalbinista izan zen izpiritu kapitalistaren iturri garrantzitsua. Doktrina horrek, besteak beste, gizakiak tresnak direla defendatzen zuen, Jainkoak Lurrean dituen tresnak, alegia; eta Jainkoaren eskariz gizakumeek bokazio bat behar dute izan, okupazio bat, Jainkoaren aintza gorestekoa erabiliko dena.

Weberrek gertakari estatistiko batekin hasiko du bere analisia. Zenbait datu estatistiko hartu eta zera ikusten du: Europa modernoari bagagozkio, protestanteek portzentaia altuagoetan esku hartzen dute kapitalaren jabetzan, zuzendaritzan eta lanpostu espezializatuenetan. Ikuspegi estatistikotik, enpresa modernoetan protestanteek leku esanguratsua betetzen dute pertsonal tekniko eta komertzialaren artean. Sinesmen erlijiosoak eta gizarte-egitura: bien artean lotura hori zeri zor zaio?

Weberren arabera, kontua ez da katolikoak mundutik aldenduago bizi zirela, edo eta protestanteek aspektu materialekiko maitasun berezia garatu zutela. Kontua da pertsona edo kolektibitate batean bi aspektuak aurkituko ditugula: batetik, bertute kapitalistaren hondoan aurkitzen den negoziarako sena; eta bestetik, bizitzako ekin-tza guztiak ukitzen dituen auto-arautze zorrotza. Beraz, espiritu protestantearen eta kultura kapitalista modernoaren artean konexiorik aurkitu gura badugu, protestantismoaren ezaugarri erlijiosoei begiratu beharko diegu eta ez protestanteen ustezko «munduarekiko maitasunari». Ideario erlijioso jakin batek aldarrikatzen duenari begiratu behar zaio.

Kapitalismoaren espirituari gerturatzeko Benjamin Franklinen maxima moralei begiratzea proposatzen digu autoreak:

- denbora dirua da;
- dirua emankorra da;
- puntualitatea eta justizia negozio guztietan;
- zergak ordaintzearen garrantzia, gizaki ondradu eta zintzo gisa agertuz, hortxe baitago norberaren kreditua hazteko baldintzetako bat; gastu eta sarrera guztien kontua eraman beharra...

Ez gaude bizitzeko teknika zehatz eta soil baten aurrean, baizik eta «etika» berezi baten aurrean. Gizaki ondradu eta sinesgarriaren ideala dago oinarrian, eta batez ere, kapitala haztea indibiduoaren obligazioa delako ideia dugu aurrean (kapitala bizkortzea, bere horretan helburu). Beste garai batzuetan kapitalismoa izan da, bai, baina ez kapitalismo modernoaren etika berezia.

Pentsa daiteke Franklinek moralitatearen balioa onartzen duela beronek dirua lortzeko balio duelako; hots, moralitatea ikuspegi instrumentaletik erabiltzen duela. Baina, ez da hain erraza: interes egozentrikoen kosmetika hutsa baino gehiago da. Etika horren arabera, irabaziak ez dira beharrezan materialak asetzeko bitartekoak, baizik eta bizitzaren helburuetako bat: gero eta diru gehiago irabazi behar, beronen disfrutea zorrotz saihestuz. Dirua irabazteak norberaren lanerako bertuteak erakusten ditu, eta lanerako bertute hori da Franklinen moralaren ardatza. Zibilizazio kapitalistaren etika sozialaren muina ondokoa da: «eginbehar profesionala»ren ideia.

Etika protestanteak gogor eta sutsu borrokatu behar izan zuen tradizionalismo ekonomikoaren aurka, eta tradizionalismo horrek gorpuzten zuen mentalitate eta bizi-jarreraren kontra. Tradizionalismo hori «hornikuntza ekonomia» edo «beharrezanak asetzeko ekonomia» dugu. Egoera horretan, ohikoak eta oinarrizkoak diren beharrezanak asetzerazuzentzen da portaera, eta jarduera ekonomikoa beharrezan horiek asetzeko bitartekoa baino ez da.

Ekonomia eredu horren barruan izan dira kapitalismo mota aurre modernoak. Hau da, «kapitalismoaren espirituaren» eta «tradizionalismoaren» arteko bereizketa ez da oinarrituko irabazi nahian: batek izango luke eta besteak ez. Berritot: Weberrek ez du identifikatzen kapitalismoa irabazi nahiarekin, hainbat autorek egin duten bezala (tartean: Sombart, Simmel, edo Weberren maisua izan zen Lujo Brentano). Gure autorearen ustez kapitalismoa hedatzearen arrazoi nagusia ez da kapitalaren akumulazioa, baizik eta espiritu kapitalistaren garatzea. Espiritu hori esnatu eta ezartzen den tokietan, berak sortuko ditu —eragiten duen ekintza moldearen bidez— kapital eta diru akumulaziorako baldintzak, eta ez alderantziz. Ez da egia, bestetik, «bulkada adkisitiboa» ez zenik existitzen garai aurre kapitalistetan, hainbat «erromantikok» uste duen bezala.

Beraz, *ethos* ekonomiko modernoak esan gura duena zera da: jarduera ekonomiko adkisitiboaren arautze normatiboa; «irabazira» sistematikoki orientatutako bizitza-estiloa sortuko duena; kalkuluan oinarritua; eta formalki araututako merkatuek (kapital-merkatua, lan-merkatua eta ondasunen merkatua) eskaintzen dituzten aukeren arabera garatua. Etika arautzaile hori da erabili beharreko irizpidea ordena ekonomiko moderno eta forma ekonomiko tradizionalak bereizteko orduan.

Tradizionalismo ekonomikoan ere bazegoen arautze normatiborik, baina norabide negatiboan: jardunbide ekonomikoa tratatzen zuten muga moralak. Kapitalismo modernoaren indarra ondokoa datza: erabat osagarri bihurtzen ditu «helburuei egokitutako ekintza arrazionala» eta ekintza morala (arrazionaltasun formala eta materiala). Ez dago gatazka harremanik bi arrazionaltasunen artean, kontrakoa baizik: elkar elikatzen dute.

Arrasateko kooperatibismoaren honoan aurki daitekeen arautze normatiboak ere hori lortu zuen, bi arrazionaltasunen arteko osagarritasuna eta elkar elikatzea, bestelako kooperatiba esperientzia batzuk maiz ikusi duten antinomia baztertuz (helburu moralen eta ekonomikoen arteko antinomia). Baina, horrek ez du esan gura kooperatibismoa gidatzen duen etika arautzailea eta hasierako kapitalismo protestan-

tearena gauza bera direnik: kooperatibismoak arrakasta ekonomikoa bilatuko du, baina arrakasta hori soilik izango da bertutetsua promozio pertsonal eta kolektiborako baliagarria den heinean (bitartekoa, beraz). Sustrai etiko horiek ekonomia humanistatik eta gizarte-etika sozialista batetik gertuago daude, geure iritzian.

Buelta gaitzen Weberren ekarpenera. Espiritu kapitalistak borroka latza izan du bestelako mentalitate eta bizi-jarrera batzuk indargabetzeko. Zapuztu beharreko mentalitate eta bizi-jarrera horien artean, negozioetan eskrupulorik gabe jokatzeko tenen kasua dugu. Dirua irabazteko orduan interes propioak eskrupulorik gabe beste gauza guztien gainetik jartzea, espiritu burges kapitalistaren ikuspegitik «atzeratuta» dauden herrialdeen ezaugarria litzateke. Diru goseari amore ematea ez zen lehendabiziko kapitalisten jokabidea. Garai aurre kapitalistetan sarri batera zihoazen mugarik gabeko irabazi asmoa eta arau tradizionalakiko morrontza fidela.

«Tradizionalismoa» deritzan mentalitatea eta portaera moldea izan zen kapitalismoaren espirituaren lehendabiziko arerioa. Langileen artean nabarmena zen mentalitate hori. Somara lan egiten jarri zituzten enpresa buruek lan-produktibitatea hobetzeko asmoz: «gehiago irabaziko duzu lan gehiago eginez gero», esan zitzaion langileari. Baina, horrek ez zuen fruiturik eman, ez baitzuten diru gehiago irabazteko senik («lukuru senik»). Orain ez zaigu horrenbeste interesatzen zeintzuk izan ziren estrategia enpresarialak —langileen diziplinamendua lortzera zuzenduak—, baizik eta langileen mentalitate eta jokabide tradizionalista ulertzea:

... [langileak] nahiago izan zuen lan gutxiago egitea, diru gutxiago jasotzearen truk, noski; kezka ez zen egunean zenbat irabaz zezakeen, ahalik eta lan gehiena eginez, baizik eta ordura arte irabazten zituen bi marko eta erdiak jasotzeko zenbat lan egin beharko zuen, horrekin premia tradizionalak asetzeko adina baitzuen. Jokabide hori «tradizionalismo» deitu dudanaren adibide bat da: gizakiak «berez» nahi duena ez da dirua muga gabe irabaziz jardutea, bizitzea baizik, betidanik bizi izan den bezala bizitzea, eta bizitzen segitzeko behar adina irabaztea.³¹

Nahikotasunaren nozioa dugu kultura tradizionalistaren ardatza. Mentalitate horren ondorioz, somara lan egitearen estrategiak huts egin zuen eta kontrako bideari ekin zitzaion, langileek lan gehiago egin zezaten: soldaten jaitsiera. André Gorzek ere arreta berezia jarriko du Modernitatearekin batera gertatutako kultur eraldaketa sakonari: *del «esto me basta» al «más vale más»* formularekin azalduko digu berau:

Arrazionalizazio ekonomikoa kontabilitate-kalkuluarekin hasten da. Horrenbestez, giza jarduerak kalkulu horren menpeko ez diren bitartean arrazionaltasun ekonomikotik at dabilta: denborarekin, mugimenduarekin, bizi-erritmoarekin nahasten dira. Nik, ene lur-pusketatik familia, astoa eta bi ahuntz elikatzeko nahikoa ateratzen dudun bitartean; ezpondetan eta basoan nahikoa egurra badagoenez, janaria egin eta etxea berotzeko egurra ateratzen dudun bitartean, arrazionaltasun ekonomikoa ene lanetik kanpo dabil: egin behar dena egiteko hartu behar den denbora hartu behar da; beharrezkoa bermatua dagoenean, lanaldiak aisialdiari emango dio bidea. Baina, auto-konsumorako ekoizti ordez, merkaturako ekoizten hasi naizenetik dena aldatu da goitik behera.³²

³¹ M. Weber, *La ética protestante y el espíritu del capitalismo*, 59 or.

³² André Gorz, *Metamorfosis del trabajo*, Sistema, Madrid, 1995, 146 or.

Prozesu garrantzitsu horretan kalkulu horren arabera antolatu beharko da bizimodu, denboraren nozioak erabat aldatuz, erritmo naturaletatik aske. Auto-kontsumorako ekoizteari utzi eta merkaturako ekoizpena gailentzen denean, denbora unitate bakoitzean ekoiztutakoa kuantifikatuko da. Hona hemen Barry Jonesek dioena:

Bizi-iraupeneko ekonomietan laborariak nekazaritza ez du «industriatzat» jotzen, bere bizimodu baitu. Bere premiak asetzeko ekoizten du, batik bat, eta soberakin txiki bat aurrezten du, ezustekoei aurre egiteko, ez hura saltzeko. Ez dira arduratzen ez etekin ekonomikoaz, ez mozkin-tasaz, ez esportazioaz, ez espezializazioaz; ez dute beren denbora kronometratzen, ez dihardute lehiari auzokideekin. Laborantza errotazioa urte-sasoien erritmoan doa; lanak bizitza osoa betetzen du, behin ere ez dago amaitua. Soldataren, lanaren iraupenaren edota oporraldien nozioek ez dute ezertarako balio.³³

Langile tradizionalistak libreago determinatuko ditu bere beharrizanak eta bere asetzeko esfortzu kopurua. Bere beharrizanak mugatzeko tendentzia izango du; bide horretatik, egin beharreko esfortzua txikiagoa izango baita. «Honekin nahiko daukat» kategorian, kategorian kulturala da, eta gizarte tradizionalen kategorian zentrala da.

Gizarte tradizionala ordena aldaezina zen. Jaiotzatik jasotako posizioa betetzen zuten gizabanakoei, eta pertsona bakoitzak bere zegokiona zeukan. Eta horrekin kontent egon behar. Gehiago izatearen desioa munduaren ordenaren kontrako atentatua zen: gutizia, bekaizkeria, harrokeria eta gisako bekatuek gidatzen zuten desio hori. Ordena naturalaren eta Jainkoaren kontrakoa zen hori.

Ostera, Gorzek diogen bezala, kontabilitateak «gehiago» eta «gutxiago» kategoriak ezagutzen ditu; ez daki «nahikoa» zer den. Espiritu kapitalistak, modu horretan, birrindu egingo du auto-mugatzeko joera hori, eta moztu egingo du lanaren eta beharizanaren arteko lokarria.

Langile tradizionalistek ez zuten emakume langile «pietistek» zuten jarrera, esaterako. Hauek formazio erlijiosotik (pietismotik) jarrera berezia garatu zutela azaltzen du gure autoreak: kontzentrazio gaitasuna; lanarekiko obligazioa sentitzeko jarrera; sen ekonomiko fina (irabaziak kalkulatzeko gaitasuna); norbere buruaren domeinu zorrotza (auto-kontrola); lana helburu bihurtzea (kapitalismoak eskatzen duen «profesioaren» ideia)...

Beraz, lehenik eta behin espiritu ekonomiko jakin bat sortuko da, eta gero antolakuntza ekonomiko kapitalista modernoa. «Espiritu kapitalista» hori kapitalismoaren garapena gertatu aurretik ere bazegoen. XVII mendean aurki daitezke lehen zantzuak, baina XIX mendeko bigarren erdialdean instituzionalizatuko da.

Weberren ustez, forma ekonomiko antzekoak gauza daitezke etika ekonomiko oso ezberdinekin. Are gehiago, existi daitezke forma ekonomiko erabat kapitalista, baina «espiritu» kapitalistatik ez (halakoxea omen zen XIV eta XV mendeko ekonomia florentiarra, ikuspegi instituzionaletik enpresa kapitalista baten moduan fun-

³³ Barry Jones, *Sleepers Awake! Technology and the Future of Work*, Oxford, Oxford University Press, 1983, 82 or. (Gorz-en liburutik jasotako zita, 147 or.).

tzionatzen baitzuen, baina espiritu tradizionalista baten gainean). Alderantziz ere bai: existi daiteke «espiritu» kapitalista bat, baina instituzio ekonomiko arrazional egokirik ez (esaterako, Franklinen kasua: «espiritu» kapitalista modernoa defendatu zuen ingurune ekonomiko aurre kapitalista batean). Soilik ethos ekonomikoak eta forma kapitalistak bat egiten badute historian, soilik faktore ideologikoen eta estrukturalen aliantza horrekin (elkar elikatuz eta indartuz) gorpuztuko da ordena ekonomikoa «sistema» gisa. Hori da Mendebaldean gertatu dena.

«Kapitalismo modernoaren spirituak» —hau da, irabazi legitimoa lortzera zuzendutako mentalitatea, horretarako profesio bat sistematikoki burutuz— enpresa modernoan aurkitu du bere gauzaren borobilena. Aldi berean, enpresa modernoak espiritu horretan aurkitu du bere hedapenerako indar espiritualik sendoena. Baina, ikus dezagun enpresari tradizionalistaren ohiko jokabidea zein zen; hau da, ikus dezagun nolakoa zen lan domestikoa ardatz zuen enpresa bateko buruaren bizitza XIX mendearen erdialderarte.

Izan ere, espiritu tradizionalista hori oso bestelakoa zen. Geure gaurko ikuspegitik (eta Weberren garaiko ikuspegitik beste horrenbeste, autoreak onartzen duen moduan) enpresa-buru horren bizitza-erritmoa motela zen, eta nahikoa eroso. Beste aspektu objektiboagoi begiratuz gero, nahikoa antzekoa zen (antolakuntza eredu «kapitalista» zen: kapital ekarpena beharrezkoa zen, kontabilitatea eramateko modua...), baina bizitza-erritmoa geldoagoa zen. Ekonomia «tradizionalista» baten aurrean gaude enpresarioen «espirituari» bagagozkio: bizitza erregimen tradizionala, irabazi tradizionala, lan kopuru tradizionala, negozioa eta langileekin harremana aurrera eramateko eredu tradizionala, betiko bezeroak... Bizitza estilo horrek aldaketa sakona jasango du, oraindik antolakuntza eremuan aldaketa sakonik gertatu barik ere:

Hauxe baizik ez omen zen gertatu: hirian bizi ziren enpresari familia haietako gazte bat halako batean sorora joan eta, bertan, behar zituen ehungileak arreta biziz hautatuko zituen; pixkanaka, bere kontrolpean eta bere menpean ezarriko zituen; hezi egingo zituen, hitz batez, nekazari izateari utzi eta langile izan zitezten. Aldi berean, transakzioen ardura bereganatuko zuen, txikirako erostunekin zuzenean harremanetan sartuz; bezero berriak egiten ahaleginduko zen, urtean behin gutxienez bidaiak egingo zituen eta, batez ere, produktuen kalitateak erostunen nahi eta premietara egokitzen saiatuko zen; era horretan, erostun bakoitzaren «gustura egokitzen» ikasiko zuen eta printzipio ezagun bat praktikatzeko hasiko zen: «prezio txikia, kontsumo handia». Orduantxe berriro ere errepikatuko zen «arrazionalizatzeko» prozesu ororen emaitza saihestezina: gora ez doan pertsona, behera doa. Horrela amaitu ziren ezteiak, eta lehiakideen arteko borroka latza nagusitu zen; sekulako ondasunak osatu ziren baina ez ziren errenta-iturri barea bihurtu; alderantziz, negozioan inbertitu ziren haiek ere, eta tradiziozko bizimodu lasaia eta baketsua errealitate lakar bilakatu zen: lanean ziharduenak gora egiten zuen, irabazitakoa gastatu ordez, aberastera bideratzen zuelako eta, beste muturrean, betidaniko bizi-moduari eutsi ziotenak, planak mugatu beharrean egokitu ziren.³⁴

Ikuspegi honetatik, kapitalismo modernoa hedatzearen arrazoi nagusia ez da aurkitzen (batez ere) enpresak duen diru baliabideetan (edo kapitala metatzeko auke-

³⁴ Weber, *La ética protestante y el espíritu del capitalismo*, 67-68 or.

retan), baizik eta espiritu kapitalistaren garapenean. *Espiritu kapitalista hori esnatu eta finkatzen denean, berak sortuko ditu enpresa jarduerarako beharrezkoak diren diru aukerak, eta ez alderantziz.*

Bizimodu tradizional lasaiak egundoko kolpea jaso zuen, eta egundokoa izan zen biziera tradizionalaren kontra erabili zen biolentzia kultural-sinbolikoa (eta ez hain sinbolikoa). Sekulako biolentzia antropologikoa ekarri zuen prozesu honek. Espiritu berria ez zen modu baketsuan ezarri, eta inork gutxik egin zion uko bere borondatez bizitza molde tradizionalari.

2.3. *Aszetismoa, bizitzaren gidari*

Planteamendu berriak konfiantzarik eza, gorrotoa eta sumindura morala sortu zuen han-hemen. Enpresari modernoek ezaugarri etiko sendoak agertu behar izan zituzten langileen eta bezeroen konfiantza irabazteko, berez zuten etorkizun-ikuspegi argia eta ekintzarako gaitasunetik aparte. Ez zuten izan bizimodu batere erraza, ezta oparitutakoa ere, euren hautuak ezaugarri etiko zorrotzak eskatzen baitzituen, ezaugarriok aurreko garaietako tradizionalismoaren etikatik ezberdinak baziren ere.

Enpresari berri horiek ez ziren espekulatzailerik ausartak eta eskrupulorik gabeak, ez eta aberatsak. Bizitzaren eskola gogorrean zaildutakoak ziren, zuhurrak eta oldarkorak aldi berean, neurritsuak eta saiatuak, euren lanari debozioz lotuak, eta printzipio burges zorrotzak jarraitzen zituztenak.

Aipatutako debozioa garatzeko, hasiera batean beharrezkoa izan zen bizi-jarrera hori legitimatuko zuen pentsamendu moral eta erlijiosoa. Gaur dagoeneko zentzu erlijioso horiek ez dira beharrezkoak, bizi-jarrera hori mekanikoki erreproduzitzen delako. Gaur, ezaugarri moral horiek ez dute harremanik inongo etika edo pentsamendu erlijiosoarekin. Horregatik, Weberrek dio askok pentsatuko dutela bizitzaren zentzu merkantilista horrek ez duela inoiz zerikusirik izan etika edo pentsamendu erlijiosoarekin, eta tradizioaren sunsiketetan duela bere oinarria. Eta egia da Weberren garaian dagoeneko gauzak horrela zirela, baina ez da beti horrela izan. Gaur oraindik nabarmenagoa da portaera ekonomikoa zein urrun dagoen ikuspegi erlijioso-etikoetatik:

Alemanian, «kapitalismoaren izpirituak» elikaturiko gizakiak egun antiklerikal hutsak dira edo erlijio kontuez ez dute inongo kezkarik (...) Pertsona horiei jarduera nekaezin horren «zentzua» zein den galdegingo balitzaie (...) eta erantzunik ematen asmatuko balute, honelako zerbait ihardetsiko lukete: «seme-alaben eta horien seme-alaben kezkatik»; edo, bestela, (arrazoi hori izpiritu «tradizionalistadun» pertsonak ere ematen dutenez), beraien iritziz, negozioa eta, ondorioz, lanean etengabe jardutea, «bizitzan ezinbestekoa dutela» argudiatuko lukete. Izan ere, horixe da euren jardueraren motibazio bakarra; «jarduera irrazionala»ren motibazio bakarra esan genezake (zoriontasun pertsonalaren ikuspegitik begiratuta), gizakia baita negoziarako existitzen dena, eta ez alderantziz.³⁵

³⁵ *Ibidem*, 70 or.

Oinarri etiko-erlijiosorik gabeko enpresa-gizonei lilura berezia eragiten die botereak, aberastasunak eta «zenbakien erromantizismoak». Baina, orotar, lehendabiziko enpresari idealaren espiritua ez zihuan hortik, batez ere arrakastarik handienak lortu zituztenena. Hasierako enpresariak aszetismoa zuten bizitzaren gidari: ostentaziorik, itxurakeriarik eta nabarmenkeriarik ez zuten onartzen, alferrikako luxua gorroto zuten, eta baita ere euren boterearen gozamen kontzientea. Era berean, euren eskuratutako errespetu sozialaren adierazle ziren keinuak nazkaz bizi zituzten, keinuon aurrean deseroso sentitzen zirelako. Portaera eredu oso baten aurrean gaude, ezaugarri aszetiko garbiak dituen.

Bere aberastasunetatik «deus ere» ez dauka bere buruarentzat; «bere lanbidea ahal bezain ongi burutzea» sen irrazionala baizik ez du.

Baina horixe da, hain zuzen, gizaki aurre-kapitalistak ezinezko eta misteriosu ikusten duena, hain zikin eta higuigarri sentitzen duena. Norbaitek bizitza osoa lanean ematea, egunen batean hilobira diruz josita jaisteko ideia hutsak bultzatuta, irudi zaio bakarrik esplikatu daitekeela sen zitelen —*auri sacra fames* haren— emaitza gisa.³⁶

Buelta gaitezen euskal unibertsoa. Arrasateko Kooperatiba Esperientziaren oinarrian dagoen biziera eta kultura apur bat ezagutzen duenak antzekotasun nabarmenak aurkituko ditu lehendabiziko enpresari kapitalisten «espiritu» horrekin. Arrasateko Kooperatiba Esperientziaren hastapenetan garbi ageri da aszetismoarekin lotura zuzena duen biziera eta kultura. *Etika protestantea* irakurtzea euskal esperientzia sozio-ekonomikoari buruzko pasarteak irakurtzea bezalakoxea da hainbat aspektuari dagokionez. Aldeak ere hortxe daude, sistema kooperatiboak ez duelako biderik irekitzen inor «hilobira diruz gainezka» jaitsi dadin: Arrasateko kooperatibismoaren oinarri-oinarrian dauden pertsonak ez dira inondik ere aberastu.

Are gehiago, biziera kooperatibistak uko egin dio modu kontziente batean aukera horri, patrika indibidualak barik despentsa kolektiboa baitzen bete beharrekoa. Asko eta asko hilobira joango dira jakinik enpresa kooperatiboan betetako funtzioak beste nonbait bete izan balituzte, aspaldi aberastuta leudekeela; eta jakinik, beraz, euren bizitza irizpide etikoez gidatu izanak bide hori moztu diela. Horregatik, ekonomia eta moral erlijiosoaren arteko aliantza «eginbehar profesionalaren» ideian berdin gauzatu bada ere, nago Arrasateko kooperatibismoak bestelako etika bat gorputzen duela, salbamen pertsonala barik —edo akaso, horrekin batera— ongizate komunitarioa ardatz duena. Hobekuntza kolektiboa agindu eta bilatzen duen zentzu-ildoak legitimatuko du dirua egin beharra.

Duela pare bat mende inguru mendebaldarrok (nekazariak) ginenaz jabetzeko, gaurko kultura ez moderno eta tradizionalistagoen ispilian begiratzea baino ez dugu, bizimodu tradizionalista eta erritmo lasaiagoen ispilian, hain zuzen. Mundu zabaLEAN jende askok jarraitzen du oraindik sosik aurreratu gabe bizitzen, egunean egunerokoarekin bizitzen, arrakasta ekonomikora zuzendutako planifikazio eta kalkulu zorrotzenetik urrun.

Denboraren poderioz, sekularizazio prozesua medio, erlijioak utzi egingo dio funtzionala eta beharrezkoa izateari.

³⁶ *Ibidem*, 71 or.

Ordena ekonomiko kapitalistak beharrezkoa du aberastearen aldeko «lanbide» horretara emanda bizitzea (...) egun ez dago loturarik jokamolde praktiko «krematistiko» horren eta «munduaren kontzepzio unitario» jakin baten artean. Batez ere, portaera horrek egun ez du nahitaezkoa botere erlijiosoen onspenean oinarritzea; areago, bizitza ekonomikoan arau eklesiastiko edota estatalen eragin hautemangarri oro oztopotzat jotzen du. «Munduaren kontzepzioa» interes politiko-komertzialen eta politiko-sozialen egoerak determinatzen du. Bere jokabide praktikoa arrakasta kapitalistaren baldintzen arabera egokitzen ez duena hondora doa edo, gutxienez, ez da oso gora igongo. Hori dena kapitalismo modernoak garaipena eskuratu duen garaian gertatzen da, antzinako heldulekuetatik aske geratuz.³⁷

Aberastea bere horretan helburu bilakatu izanak, «profesio» bihurtu izanak, argi dago historiako garai luzeetako sentimendu etikoaren kontra jo duela³⁸. Kapitalismoak aberastearen legitimazioa ekarri du; hasieran erlijioak legitimatu zuen eta orain erlijio barik legitimatua dugu. Arrasateko kooperatibismoaren kulturen ere aberastearen legitimazioa burutuko da, ezberdina bada ere azken helburua: kontua ez da indibiduoak aberastea, baizik eta hobekuntza (material eta moral) komunitarioa.

Dena den, lehendabiziko kapitalismoak ere, Arrasateko kooperatibismoaren antzera, izango du abiapuntu gisa gizarte konpromisoa eta komunitateari zerbitzua eskaintzeko betebeharra. Eta, baita ere, oso «arrasatearra» den lanaren kontzeptua eta enplegua sortzearen ideia.

Teknika eta ekonomiaren esferetan jazotako arrazionalizatzeko-prozesu honek gizarte moderno burgesaren «bizi-eredu ideal» horretan ere eragina du, dudarik gabe: lana, gizateria ondasun materialez hornitzearen aldeko bitarteko bat delako ideia hori, «espiritu kapitalista»ren ordezkarien buruan ibili da beti, gizaki horien jardueraren helburu gisa. (...) Enpresari modernoak berariazko bizi-poz «idealista» sentitzen du; ase eta harro sentitzen da gizaki askori «lana eman» izanagatik eta bere jaioterriaren loraldian lagundu izanagatik (kapitalismoak ulertzen duen adiera bikoitzean, alegia: errolda ugalduta eta merkataritza suspertu duelako).³⁹

Arrasateko kooperatibistak ezagutzen dituenak badaki zein puntutaraino garrantzitsua den beste batzuentzat lana sortzea (garai ideologiko zapalean utopia nagusi bihurtzeraino) eta jaioterriaren/Euskal Herriaren loraldian laguntzea. Eta bada gehia-

³⁷ *Ibidem*, 72 or.

³⁸ Interesgarriak dira erlijio katolikoak, esaterako, aberatsen salbamen espiritualerako jartzen dituen trabak: ganbelua jostorratz burutik sartzea baino zailagoa da aberatsak Jainkoaren erreinuan sartzea. Bestetik, diru maileguak interesak kobratuz egitea debeku kanonikoa izan da. Debeku hori munduko moral erlijioso gehienetan agertzen da. Lukurreria ere debekatuta egon da, eta irabazi kapitalista moraletik kanpo kontsideratua. Historian zehar Elizak kapitalismoarekiko izan duen areriotasun horrek antzekotasun nabariak ditu historian zehar ezker pentsamendutik kapitalismoari jarri zaizkion traba etikoekin. Kasurik hoberenean, Elizaren tradizioekiko fidelak diren kapitalisten jarduera neutroa izango da ikuspegi etikotik, hau da, tolera zitekeen zerbait. Etika ekonomiko katolikoak ere kapitalismoarekin harreman positiboa landu behar izan du, eta jesuita asko izan ziren aitzindarietako batzuk: komertziantzearen irabaziak ikuspegi etikotik zilegiak direla adostuko da. Baina etika ekonomiko katolikoan ez dugu aspektu bat aurkitzen, protestantismo aszetikoan berebizikoa dena: profesioaren praktikan aurkitzea norberaren salbamenerako ziurtagiria (*certitudo salutis*). Katolizismoak salbamenerako bestelako bitartekoak defendatuko ditu (*ibidem*, 27. oina, 71 or.).

³⁹ *Ibidem*, 78-79 or.

go: lehendabiziko kapitalisten kasuan, bizitzaren orientazio osoak Jainkoa du ipar, elkartasun ekimenek eta lanak barne:

Munduaren xede bakarra Jainkoa gorestea da, hautaturiko kristaua ez da existitzen Jainkoaren handitasuna munduan areagotzeko baizik, dagokion heinean bere prezeptuak beteaz. Nolanahi ere, kristauek obra soziala egin dezaten nahi du Jainkoak, bizitza sozialaren egitura prezeptu horietara egokitu eta helburu haren arabera antolatu dadin nahi baitu. Kalbinistaren lan soziala munduan *in majorem Dei gloriam* soil-soilik egiten da. Beste horrenbeste gertatzen da etika profesionalarekin, kolektibitatearen lurreko bizitzaren zerbitzutan baitago.⁴⁰

Beraz, baliteke oreka kontua izatea: hein batean, Arrasateko kooperatibismoan aurki daitekeen etika soziala kolektibistagoa da, eta Weberrek lehendabiziko kapitalistengan aurkitzen duena indibidualistagoa. Baina, horrek ez du esan gura azken honen konpromiso sozialean motibaziorik aurkitzen ez duenik, edo Arrasateko kulturak interes indibidualean (materialak zein idealak) sustrairik ez duenik.

Izan ere, kapitalismoarekin batera gizakiak harreman berria sortuko du bere «profesioarekin», misio zentzua atxikiz beroni, baina, horrek ez du esan gura arrazionalizazio prozesu orok norabide hori hartu behar duenik. Bizitzaren arrazionalizatzea hainbat modutan eta norabidetan egin daiteke, ez dago molde bakarrik. Gure autorearen egitekoa arrazionalizatze jakin eta konkretu bat aztertzea izan da, lan profesionala abnegazioz biziko duen figura humano berriaren jatorrian dagoen espiritua aztertuko du, hain zuzen.

«Profesio» hitzak alemanez (*Beruf*) badu kutsu erlijiosoa (ingelesez are gehiago: *calling*): Jainkoak ezarritako misioa. Antzeko zerbait aurki daiteke Arizmendiarrietak lanaz duen kontzepzio aberats eta zabalean (ez hitzak berez halako erresonantziarik duelako, baina bai hitzari atxiki zaion esanguragatik): lana da mundu humanoagoa eraikitzeko zereginen jainkoarekin kolaboratzeko bidea (baita gizartea eraldatzeko tresna ere, eta auto-errealizatze bidea).

Erreformak ekarri zuen ideia berria ondokoa da: portaera moralaren adierazpen goren munduan norberak duen egiteko profesionala betetzea da. Hortik ondorioztatuko da lanaren zentzu sakratua (ekinbide profesionalari eduki etiko-erlijiosoa erantsiko zaio). Lanaren moral berri horrekin irakurketa zeharo ezberdina finkatuko da: portaera moralaren adibidea ez da dagoeneko fraide-bizitza (monastegiko bizitza aszetikoa), baizik eta bakoitzak bizitzan betetzen duen posizioak ezarritako eginbeharrak betetzea («profesioaren» bidez).

Luteroren ustean, monastegiko bizitzak ez du baliorik Jainkoaren aurrean, eta are gehiago, desamodio egoista baten emaitza da biziera hori. Lan profesionala izango da hurkoarekiko maitasunaren seinalea. Mundu honetan gutako bakoitzak bere eginbeharrak betetzea, horixe da Jainkoa gorestea eta bere onspena jasotzeko bide bakarra. Luteroren eta Erreformaren ekarpenik garrantzitsuenetakoa bizitza profesionalaren balorazio etiko berria izan zen. Kontenplazioa ez zen jada balore morala, eta hautsi egin-go da munduan ekitea banitate eta maltzurkeria seinale zela zioen ideiarekin.

⁴⁰ Weber, *La ética protestante y el espíritu del capitalismo*, 131 or.

Horrek ez du esan gura Erreformaren lagunak kapitalismoaren lagunak zirenik, ezta gutxiago ere, komertzianten handien kontra sutsu jo baitzuten: gutxi batzuk aberastu eta gehienak pobrezian murgiltzen dituen jokabidea ez da ona komunitatearentzat. Halaber, komertzianten handien kontra jotzeak ez du esan gura mentalitate kapitalistarak ez zutenik.

Arizmendiarieta ere, garaiko klima teologiko eta Elizaren dotrina sozialari jarraiki, gizarte lanetan aktiboki inplikaturako eta komunitatearekin zuzen konprometitutako apaizaren figuraren aldekoa izango da («apaizgo sozialaren» aldarrikatzen zutenen sokakoa zen). Apaizaren zeregina ez da soilik meza santua ematea, elizaren hormen artera mugatuta, baizik eta herrigintzan jardutea, pertsonen behar material eta espiritualei erantzun zabala emanaz. Etenik gabe eta arnasik hartu barik, ekina zen bere iparra, bere bizitzaren testigantzak ondo azaltzen duen bezala; bere kolaboratzaile zuzenek sarritan gogoratzen dute inguruan sustatzen zuen jarrera: ez zegoen atsedetik hartzeko tarterik, ez zegoen egindakoa kontenplatzeko denborarik, erronka berri eta gogorragoei heldu behar zitzaizen-eta.

2.4. *Predestinazioa*

Esan bezala, kalbinismoa izan zen bizitzaren orientazio kapitalista garbien eragin zuen indar erlijioso. Munduari begirako dedikazio puritano indartsua eragin zuen, bizitza profanoari misio zentzua atxiki zion.

Kalbinen ideien artean badago bat garrantzi handikoa: predestinazioarena. Jende guztia dago predestinatuta, baina gutxi batzuk dira Jainkoak «aukeratuak». Gizaki batzuk salbatu eta gainerakoak kondenatu egingo dira. Lurrean egiten den ezerk ez du balio aukeratuen zerrendan lekua izateko, aldez aurretik baitago hori erabakita, berdin gizakumeek hau ala beste egin.

Fede erlijioso honek forma psikologiko jakin bat eman zion bere menpean hartu zuen norbanakoari; bulkada psikologiko konketuak sortu zituen, bizitza orientatzeko modu oso bat. Sinesmen honek egundoko antsietatea eragin zuen doktrina kalbinistaren jarraitzaileen artean. Azaldutako planteamenduen gizatasun faltak egundoko barne bakardadea eragin zuen norbanakoarengan. Kontu egin behar dugu Erreforma garaiko gizakientzat erabakiorrena zen aspektuaz ari garela; hau da, betiko zoriona ala kondena. Gizakia behartuta zegoen bide bat egitera bakar-bakarrik, aldez aurretik erabakita zegoena deskubritzeko: salbazioa ala betiko kondena. Inork ezin zion lagundu, ez apaizek («aukeratuak» soilik uler zezakeen Jainkoaren hitza), ez sakramentuek, ez Elizak, ez Jainkoak berak.

Abandonu erradikal hori, sakramentu bidezko salbamenik ametitzen ez zuena, katolizismoarekin aurkitzen dugun alderik nabarmenetakoa da: munduaren «desenkantamentua» gauzatuko da, sakramentuen magia zeharo baztertua baita salbamerako bitarteko gisa.

Horrekin batera, puritanoen artean beste indibiduo batzuen laguntzan ez sinestea gomendatzen zen. Atmosfera berezi horrek erabateko bakardadearen infernu mingarria kondenatzen zuen indibiduo, gogo-aldarte berezira, bere buruaren salbamenaren ardura etengabera (berriro diogu: auzi hori zentrala zen garaiko norbanakoarentzat).

Dotrina horrek izaera antiautoritario nabarmena zuen: moralitate eta salbamen kontuetan Elizaren eta estatuaren zaintza erabat ukatzen zuen. Mundura lotzen gaituzten lokarriez askatzeko joera eragingo du, idolatria ororekiko mesprezua, eta giza harremanekiko arbuioa ere bai. Norbanakoaren barruan, komunitatearekin lotzen zuten sentimendu-hari naturalak hautsi egingo dira. Hitz batean, bakardadea.

Funtsezko galdera ondokoa litzateke: nola jasan dotrina hori, lurreko bizitzaren osteko arazoek arazo lurtarrek eurek baino ardura askoz handiagoa sortzen zuten garaian? Fededun guztiak ondoko galderen menpe bizi ziren: aukeratuen taldekoa ote naiz? Eta zelan jakin dezaket, segurtasunez, talde horretakoa naizela? Norberak bere okupazioan zuen arrakasta, horixe bilakatu zen «aukeratuen» zerrendan leku bat bazenaren seinale garrantzitsuena; arrakasta materiala, hain zuzen.

Erich Frommek Erreforma garaiko gizakiaren egoera emozional eta psikologikoaren azterketa egin zuen, Weberrek marraztutako bideari jarraiki. Bere ustean, norberaren destinua ez ezagutzeak sortzen duen angustia gainditzeko, gizakia jardue- ra frenetikoari lotuko zaio, zerbait egiteko joera konpulsiboari. Soilik modu horretan gaindi ditzake inpotentzia sentimenduak eta zalantza. Arrakasta Jainkoaren graziaren seinale izango da; porrota, kondenazioaren seinale. «Askatasun» horrek isolamendua eta norbera ezer ez sentitzea ekarri zuen, konfiantza eta indarra ekarri beharrean.

Esfortzu konpulsibo hori ez da aurrera eramango pertsonak gura duen helburua lortzeko, edo destinua aldatzeko, baizik eta alde zurretik finkatuta dagoen zerbait gertatuko den ala ez jakiteko. Erdi Aroko gizartean lana eguneroko ogia lortzeko bitartekoa den bitartean, Erreforma garaian bere horretan helburu bilakatuko da. Gizakia lan egitera bultzatua izango da ez (soilik) kanpo presioek eraginda, baizik eta barne joera konpulsibo batek eraginda (psikismoan integratutako bulkada). Horregatik, gizakia bere buruaren esklabo bihurtuko da. «Jarduera eta lanarekiko jarrera berri hau — biak ere, berez, helburutzat hartuta —, Erdi Aroaren amaieratik gizakiak nozitu duen transformazio psikologiko garrantzitsuenentzat jo daiteke.»⁴¹

Beste lan batzuetan ere Erreformak eraginako aldaketek jardun zuen pentsalari eta psikoanalista honek. Bereziki argigarriak dira ondoko hitzak:

Gizarte industrial modernoak, esate baterako, ez zituzkeen bere helburuak erdie- tiko gizaki askeen energia exijitu ez balu egundoko intentsitatez lan egin zezaten. Bere energiarik gehientsuena lanean emateko irrikatan ibiliko zen pertsona bihurtu behar zen gizakia, diziplinazko azturak bereganatu behar zituen —ordena eta puntualtasuna, bereziki—, gainerako kulturetan ezezaguna zen graduan. Ez zen aski gizaki bakoitzak erabakitzea egunero eta kontzienteki lana egin nahi zuela, puntual izan nahi zuela eta abar; erabaki kontziente hark salbuespen asko ekarriko zituelako, gizartearen fun-

⁴¹ Erich Fromm, *El miedo a la libertad*, Paidós, 1993, 102-104.

tzionamendu onak jasan zitzakeenak baino askoz gehiago. Eta ez ziren aski eragingarri izango mehatxua eta indarra (...). Lanean aritzeko, puntual eta ordenatua izateko *premia* hura, helburu horien aldeko barne-bulkada bihurtu behar izan zen. Horrenbestez, gizarteak bulkada horiek berezko zituen karakter soziala ekoitzi behar izan zuen.⁴²

Etor gaitezen berriro Weberren teorizaziora. Esan bezala, ekintza onak ez dira salbamenerako bitartekoak, baizik eta «aukeratuen» zerrendan norberak lekua duela ziurtatzeko ekintzak, eta, ondorioz, angustia uxatzeko baliabideak. Beraz, ekintza onak egin beharrekoak dira, eta planifikazio eta orientazio metodikoa eskatuko diote fededunari. Salbamina lortzeko modua ez da (katolizismoan bezala) etengabe merezimenduzko ekintza isolatuak pilatzea, nork bere burua sistematikoki kontrolatzea baizik, egunero dilema bera aurrean daukala: hautatua ala kondenatua?⁴³

Erdi Aroan kristaua «egunean egunekoarekin» bizi zen, bere eginbehar tradizionalak betetzen zituen eta lantzean behin «ekintza (isolatu) onak» egin. Ekintza horiek ez zuten bizitza sistema bat osatzen, noizean behinekoak ziren, arrazionalki planifikatu gabekoak, heriotzaren gertutasunaren aurreko aseguru gisa eginak, edo bekatu batzuk garbitzeko intentzior. Bai, Eliza Katolikoak eskatu eskatzen zuen bizitza aldaketa erradikala, baina,aldi berean, kaleko pertsonak bazuten eskaera hori amortiguatzeko bitartekorik: penitentziaren sakramentua. Pertsonen inpotentzia eta gaitasun eza, katolikoen kasuan Elizak estali zezakeen, sakramentuen magiaren bidez. Apaiza zen magoa, eta eskuragarri zeuden umiltasuna eta damua. Berak eskaintzen zuen penitentzia, esperantza eta barkamenaren segurtasuna.

Kalbinistaren angustiak, ostera, ez zeukan erremedio errazik: ez zeukan kontsolamendurik beste gizaki batzuen eskutik:

Kalbinistaren Jainkoak ez zien fededunei exijitzen halako edo bestelako «obra onak» egitea, baizik eta euren jardunean saildutasuna azaltzea modu sistematikoan. Dagoeneko ez da aipatzen bekatua, damua, penitentzia, deskarga eta berriro bekatu egitearen arteko oszilazio katoliko (eta benetan humano) hura; dagoeneko bizitzak ez du saldo jakin bat, aldi baterako zigorren bidez garbitu eta graziaren bitarteko eklesiastikoen bidez kitatzekoa. Era horretan galdu zuen gizaki arruntaren jokabide moralak bere izaera anarkiko eta ez-sistematikoa; gaur egun jokabide hori metodikoa eta planifikatua da.⁴⁴

2.5. Gogor lan egitearen garrantzia

Aszetismo puritanoak «pertsonalitatea» modu berezian konfiguratzea bilatzen zuen, eta zeregin horretan afektuen auto-kontrola funtsezkoa zen: bizitza, era kon-

⁴² E. Fromm, *Psicoanálisis de la sociedad contemporánea*, 72 or.

⁴³ Weber, *La ética protestante...*, 144-145 or.

⁴⁴ *Ibidem*, 149 or. Interesgarriak dira Weberrek jesuiten inguruan egiten dituen hausnarketak; izan ere, pentsatzekoa da euskal jatorriko mugimendu katoliko horrek eragina izan duela euskal gizartean eta euskaldunon eratze sozioopsikologikoan (Max Weber, *La ética...*, 151-152 or., 159 or. eta 225-226 orrialdeko 42. oina).

tziente eta argian gobernatu beharra zegoen, eta espontaneitatearen gozamen ardurabakoa saihestu.

Erdi Aroan biziera metodikoa zeramatenak eta auto-koakzioa erruz praktikatzen zutenak monjeak ziren, klaustro barruan. Gizarte moderno kapitalistak ekarriko duen aldaketarik handiena bizitza estilo hori klaustroetatik gizartera hedatzea izango da, gizarte-bizitza guztia zipriztinduz. Bada esan duenik Erreformaren ezaugarriak nagusiena kristau oro bizitza guztirako monje bihurtzea izan dela. Bizitzaren santifikazioa bilatuko da, eta gogo horrek negozio komertzialaren itxura ere hartuko du, «kontabilitate morala» izugarri zorrotza izango baita.

Beraz, kalbinismoak (ez luteranismoak) portaera etikoa metodikoki antolatzea inposatuko du, existentzia guztiaren kristautzea eraginez. Horixe da, ez besterik, erreforma kalbinistak ekarri zuena. Jakina, puritanoaren bizitza santu eta sistematikoa diziplina latz eta zurruna eskatzen zuen. Horren ondorio praktikoa, portaera profesionalaren kontrol aszetikoa izan zen, eta etika profesionalaren sustraitze erlijioso erabatekoa.

Garai hartan gaur imajinatu ezin dugun eragina zuten ideia eta energia erlijiosoek, eta sasoi hartan hurrengo bizitzaren gaineko ardurek dena hartzen zuten; komuniorako aukerak kristauaren posizio soziala erabakitzen zuen; apaizak influentzia handia zuen gizartean... Testuinguru horretan energia erlijiosoak faktore determinanteak ziren herriaren izateko eran. Puritanismoak, beste ideia askoren artean, aisialdia eta lortutako ondasunen gozamina debekatzen zuen; etengabe aritzera, ekitera, jarrera aktibora, eta denborarik ez galtzera zuzendu gura zituen fededunak:

... izan ere, «santuaren betiereko atsedena» beste bizitzan da; hemen, lurrean, bere grazia-egoeraz seguru egon nahi duen gizakiak, «bera bidali duen Horren obrak egin beharko ditu, egunez den bitartean». Jainkoak errebelatua duen borondatearen arabera, bere handitasuna areagotzeko balio duena ez da aisia, ez da atsegina, obrak egitea baizik; bekatuak lehena eta denetan nagusiena, beraz, denbora alferrik xahutzea da (...) Bizitza sozialean denbora alferrik galtzea, berrikeria jardutea, luxuetan, baita loari behar duguna baino denbora gehiago ematea —osasuna mantentzeko sei edo zortzi ordu behar ditugu, gehienez ere—, erabat gaitzesgarria da moralaren ikuspegitik (...) denboraren balioa infinitua da, eta galdutako ordua, Jainkoaren aintzaren zerbitzutarako lanari lapurturiko ordua da.⁴⁵

Etengabe gogor lan egitearen aldeko deialdiak dira nagusi; lan fisikoa edo espirituala. Lan profesionala hurkoari zaion maitasunaren adierazpena da, eta Jainkoari zor zaion esker onaren froga (*in majorem Dei gloriam*). Horregatik, lana ez da inposizioa baillitza bizi behar; ez da bizi behar zerbait amorragarria edo gogaikarria balitz bezala. Kristaua, kristau ona, prestu eta ardurati behar da azaldu. Lana bizitzako helburu absolutua da, Jainkoak ezarria eta, beraz, lanik egiten ez duenak ez dezala jan. Amorrarioak jota lan egitea Jainkoaren grazia ezaren seinalea dugu.

Lanaren gaineko ikuspegi honetatik erretiroari esangura eta balorazio berezia erantsiko zaio. Norbere beharrian materialak asetuta izateak —esaterako, abera-

⁴⁵ Weber, *La ética...*, 213-214 or.

tsen kasuan — ez du esan gura lanari utzi dakiokenik, denak baikaude Jainkoaren arauen menpe, eta guztiok dugu berau goresteke betebeharra, iraunbizitzeko ditugun baliabideak zeintzuk diren kontuan izan barik. Ikuspegi honetatik, erretiratzeko adin «ofiziala» aurreratzeko joera, hau da, lehenago erretiratzeko tendentzia, moralki gaitzesgarria da oso (atal enpirikoan ikusiko den bezala, Arrasateko kooperatibisten lehendabiziko belaunaldiko gidariek antzeko ideiak azaldu dizkigute jubilazioaren inguruan).

Kontua ez da lana egitea egiteagatik, baizik eta profesioaren bidez lan arrazionala burutzea, modu sistematiko eta metodikoan. Planteamendu berri hauek benetako jauzi etikoa ekarriko dute, aberastea zilegia ez ezik egin beharrekoa ere bilakatuko delako. Aberastasuna gaitzesgarria izango da nagikeria eta bizitzaren gozamina eragiten dituenean soilik. Aberastea txarra da, plazerra, erosotasuna eta lasaitasuna bilatzen badira bizitzan:

...aszesia bereziki ondokoaren kontra zihoan: existentziaz gozatzea «kezka gabe» eta bizi-pozaren iturri izan daitezkeen existentziaren alderdiez gozatzea (...), mugarik gabeko gozamina, pietatetik zein lan profesionaletik horrenbeste urruntzen den horixe zen aszetismo arrazionalaren etsaia; nolana agertzen zelarik: «jauntxoek» kirol gisa, zein —gizaki arruntaren kasuan— dantzaleku eta tabernara maiz eginiko bisita gisa.⁴⁶

Norberaren gozamerako gatzatzea erabat gaitzesgarria da, Jainkoaren aintzarako bideak xahutzen baitira. Bestetik, Elizaren handikeria eta nabarmenkeria artistikoa begi txarrez ikusia zegoen. Antzerkia bera ere gaitzesgarria zen. Era berean, artearen munduan aspektu erotikoa eta biluziak debekatu ziren. «Idolatria» elementu oro gaitzetsi zen.

Baina, aberastasuna betebeharraren emaitza gisa, etikoki zilegia da, eta gainera, gorde beharreko agindua. Pobrea izan nahi izatea, gaixo egon nahi izatea bezalakoa litzateke. Zentzu honetan, lanerako gaituta dauden pertsonak eskeko gisa aritzea moralki gaitzesgarria da, baina, hori baino gehiago ere bai: nagikeria bekatu handienetakoa da, hurkoarekiko maitasunaren kontra baitoa.

2.6. *Aristokratak vs burgesak*

Jakina da pobrezia eta eskeketasunaren gaineko ideia horiek Ingalaterrako eta beste herrialde batzuetako legedietan aldaketa handiak eragin zituztela. Ordura arte, erregimen monarkiko askoren printzipioetako bat pobreen babes ofiziala zen, eta horrekin batera, langabeei lana ematea. Erdi Aroko etikak eskeketasuna baimentzeaz gain, berau goratu ere egin zuen. Besteak beste, pobreei limosna emateak aberatsei ekintza onak burutzeko aukera eskaintzen zien; eta printzipio etiko hori medio, pobreei nolabaiteko babes materiala bermatzen zitzaion. Aipatutako legedi aldaketak

⁴⁶ Kontzeptzio puritanoen ordezkari gorenetakoa den Richard Baxter-en berbak dira: Weber, *La ética...*, 233-235 or. Weberrek ondoko hitzak ere erabiltzen ditu: «erabakiorra hauxe da: helburu pertsonaletarako dena, Jainkoaren zerbitzuari kentzen zaio» (*ibidem*, 239 or., 72 aipua).

babes sozial horrekin hautsi zuen, puritanoen esanetan limosna ematea ez baitzen karitatearen seinale.⁴⁷

Aszetismoaren ikuspegitik gorrotagarria da jauntxoaren arduragabekeria (bizitzaren gozamenara zuzendutako biziera), eta baita ere aberats berrien handikeria eta erakutsi beharra. Goratu beharreko jarrera, *selfmade man* ideia oinarri duen burgesaren figura austeroa da.

Idolatria bera bezain gaitzesgarria zen luxua harro erakustea, feudalismoak bizi-ki gustukoa izan zuen portaera, alegia. Weberrek ohartarazten digun legez, jauntxo feudalentzat luxuaren garrantzia ez zen azaleko zerbitu, euren auto-afirmazio sozialaren ardatza baizik. Aristokratarentzat helbururik garrantzitsuena estatusa lortzea zen, zeukan estatusari eustea edo berau handitzea. Estatusaren kontsumoan oinarritutako *ethos* berezia dugu aipatu berri duguna⁴⁸.

Zibilizazio industrialaren etika ekonomiko eta bizi-estilo berriaren muina ulertzeko lagungarria zaigu ulertzea bestelako giza-talde batzuk euren bizitza gidatzeko erabili dituzten balore eta irizpideak. Aristokraten *ethos*aren kasuan, prestigioaren araberrako gastua zen egin beharrekoa, ez diru-sarreraren araberrako gastua; estatusaren irizpidea gailenduko zaio *ethos* ekonomiko hutsari. Gorteko aristokraziarentzat kapitala izatea bitarteko hutsa zen, euren benetako helburua betetzeko lagungarria: beste gizakiengandik bereiztea eta euren «errealitate» sozialari eustea. *Ethos* berezi horrek gaurko ikuspegitik nahiko ulergaitza den jarrera sortuko du, eta nobleziaren sektore askoren gainbeheraren arrazoi bilakatuko da, daukatena baino gehiago gastatuko dutelako. Biziera horrek ematen zien zentzua eta bizitzan seguru orientatzeko irizpideak; jokabide horrek gorpuzten zuen euren auto-irudiaren muina eta identitate pertsonalaren oinarria; besteen errespetua merezi ahal izateko, euren estatusak eskatzen zuen gastua egin behar.

Egon izan dira, beraz, bizitza gidatu duten bestelako arrazionaltasun batzuk. Noble askoren tragedia horretan datza: portaera molde jakin bati eutsi zioten, arrazionaltasun jakin bati alegia, gizarteko arau nagusiak beste bide batetik zihozten bitartean. Nobleen existentzia eta auto-kontzientzia, portaera tradizional konkretu bati lotzen zitzaizkion, aurreko garai historikoetan arrakastarako eta auto-afirmaziorako baliagarria izan zen portaera moldeari, hain zuzen. Baina, portaera berdin horrekin, zibilizazio industrialaren hastapenetan porrotera kondenatuak izan ziren, bizitza gidatzeko molde oso baten desfuntzionalizazioa gertatu zelarik⁴⁹.

⁴⁷ Speenhamland-eko Lege famatua aipatzea baino ez dago babes sozialaren bilakaera garrantzitsu horretaz jabetzeko. Ikus: Karl Polanyi, *La gran transformación. Crítica del liberalismo económico*, La Piqueta, Madril, 1997, 137 or.

⁴⁸ Ideia horretan gehiago sakonduko du Norbert Eliasek; jauntxoaren *ethos* estamentario berezitik burgesen *ethos* sozial berrirako jauzia azaltzen digu, gorteko gizartearen berezko kulturaren azalpenaren bidez: Norbert Elias, *La sociedad cortesana*, FCE, 1993.

⁴⁹ *Ethos* aristokrataren izaera, aristokraziaren gainbehera eta *ethos* burgesaren indartze historikoa ikusteko, José Antonio Escrivá-ren ondoko filma ikustea gomendatuko nuke: *Arroz y Tartana*.

2.7. Aberastasunaren tentazioak (kontzepzio utilitaristen gailentzea)

Lehendabiziko kapitalisten sasoiria bueltatuz, erlijioak era konkretu bateko bulkada psikologikoak «sortuko» ditu: norbera bere profesioan finkatzea eta bertan arerrapausoak ematea egin behar nagusi bilakatuko da, eguneroko borroka horretan lortu daitekeelako norberaren salbamenaren segurtasun objektiboa. Etenik gabe lan profesionalean jardutea bihurtu zen zalantza erlijiosoa uxatu eta nork bere buruan segurtasuna sentitzeko bidea.

Gauzak horrela, fededunen artean arrakasta ekonomikoa helburu zuen sekulako bulkada garatu zen. Irabaz asmoari bidea libre utzi zitzaion, aberastea moralki zilegia eta egin beharrekoa baitzen. Gainera, kontsumoari traba handiak jarri zitzaizkion. Horra hor emaitza: aurreztearen aldeko koakzio aszetikoak kapital formazioa eragingo du. Sortutako kapitala ezin zen inondik inora xahutu, eta ondorio gisa, helburu produktiboetan berriro inbertitzen zen.

Aspektu honetan ere, Arrasateko kooperatibismoan bada antzekotasunik. Arizmendiarrietaren «burdinezko legea» datorkigu gogora, aurreztea ezinbestekoa zela defendatzen zuen ideia, berriro inbertitu eta garapen ekonomikoa sortu aldera. «Aurreztu ala maletak» leloa zen pentsalari eta ekintzaile euskaldunak sasoi batean sutsu zerabilena: Euskal Herriaren eta euskal herritarren gero ekonomikoa ziurtatzeko beharrezkoa zen estrategia hori, hau da, aurreztu eta bertan berriro inbertitu (Arrasateko kooperatiben sasoi bateko egitasmo etiko-moralaren muina izan zen hori). Orohar esanda, «lan asko egin eta gutxi gastatu» izan da kode moral kooperatibistak luzaroan agindu duena. Horrela, historian zehar kooperatibek lortutako irabazien zati garrantzitsua norbanakoaren patrikara bidali beharrean, berriro inbertitzeko erabili da; «emaitzen kapitalizazioa» deitu zaio horri, eta komunitatearekin konpromisoa adierazteko modu gisa ikusi izan da: berriro inbertitu, gizartean aberastasuna sortzen eta banatzen jarraitzeko.

Lehendabiziko kapitalisten antzera, lehendabiziko kooperatibisten kasuan —bertako gidarien kasuan, behinik behin— erabakiorrena ez da kapitala metatzeko agertu den gaitasuna (hori ere bai, jakina); erabakiorrena bizitza profesional osoaren —bizitza osoaren, esango nuke— arrazionalizazio aszetikoa da. Hau da, bizitzaren kontzepzio puritanoak, esango digu Weberrek, ez zuen soilik kapitalen formazioa eragin, baizik eta are inportanteagoa dena, portaera burges eta arrazionala sustatu zuen (ikuspegi ekonomikotik). Hots, «gizaki ekonomikoaren» (*homo oeconomicus*) jaiotza eragin zuen.

Baina, Weberrek egindako ekarpenean gutxiagotan azpimarratzen den aspektua bereziki interesgarria delakoan nago: bizitza ideal horiek porrot egin zuten, puritanoek ezin izan zitelako aberastasunaren «tentazioei» uko egin. Aberastu ahala erlijioa alboratzen joan zen. Arrasateko Kooperatiba Esperientziari dagokionez, antzeko galdera formulatzen da debate publikoan eta kooperatibiston arteko debateetan: aberastasunak, kontsumismoak eta arrakastak «sikatutako» eta «jandako» esperientzia ote? Galdera bera bota dakiok Mendebaldeko kultura eta gizarteari.

Puritanismoaren ordezkaria izan zen John Wesley-k duela urte mordoia eginiko hausnarketa gaurkotasan handikoa iruditzen zait, ondoko galderari erantzun guran zebilela: nola eutsi baloreei aberastasunaren testuinguruan? Wesleyk arazoaren gaineko kontzientzia garbia azaltzen du eta, aldi berean, kontzientzia tragikoa:

Beldur naiz, aberastasuna ugaltzen den tokian, urritzen da erlijioa neurri berean; ezin dut ikusi, beraz, gauzen izaera hori izanik, nola iraun lezakeen luzaro egiazko erlijiosotasunaren itzartze berri bakoitzak. Nahi eta nahi ez, erlijioa lanerako gogoaren (*industry*) eta soiltasunaren (*frugality*) iturri da, eta bata eta bestea aberastasunaren sortzaile. Aberastasun hori ugaldutakoan, ordea, berarekin bat areagotzen dira soberbia, pasioa eta munduarekiko zaletasun guztiak. Nola iraun ote lezake luzaro metodismoak, bihotzetiko erlijioa izaki, egun arbola tantai gisa hazten ikusten ari bagara ere? Metodistak lanerako prestuak eta aurreztaileak dira; horrenbestez, ondasun materialetan geroz eta aberatsagoak ohi dira. Eta, ondorioz, haiengan soberbia, pasioa, mundu eta haragikeriazko nahikunde guztiak, bizitzeko harrokeria, areagotzen dira. Erlijioa hor azpian datza baina, pixkanaka, haren izpiritua idortuz doa. Ez ote dago erlijiotasun puruaren etengabeko gainbehera honez kontrako biderik? Ezin diezaiokegu eragotzi jendeari lanerako gogotsu eta aurreztaile izaterik. Kristau guztxi jakinarazi behar diegu ahal duten guztia irabazteko eta aurrezteko eskubidea eta obligazioa dutela, hots, aberastu egin daitezkeela eta aberastu behar direla.⁵⁰

Berba horiei ondoko gogoetak jarraituko dio: ahal duten guztia irabazi eta aurreztu behar dute, eta ondoren, «ahalik eta gehien eman», Jainkoaren grazian aurrera egin ahal izateko eta, modu horretan, zerua irabazteko. Aberastasunaren eta erlijioaren arteko talka hori garbi zegoen garai hartako puritano askorentzat. Garbi ikusten zuten bien arteko konexioa eta geroko deskonexioa. Puritanoen artean bada esango duenik Jainkoak jende asko pobrezian gordetzen duela aberastasunak dakartzan arriskuak handiak direlako: gizakien bihotzetatik atera egiten du erlijioa.

2.8. Langile funtzionalak

Horrenbestez, erro erlijiosoak sikatzen hasten direnean, kontsiderazio utilitarioak gailenduko dira. Esangura erlijiosoak sikatu eta esanahi utilitaristek jantzi eta gobernatuko dute ekinbidea. Dena delakoarekin, aszetismoak ez zuen eraginik izan soilik enpresa-gizonengan, langileen buru-bihotzak ere gidatuko zituen:

Aszetismo erlijiosoaren ahalmen itzelak, gainera, eskura jarriko zizkion [enpresariari] langile neurritsuak, zintzoak, erresistentzia handikoak eta lanerako prestuak — lana bizitzaren helburu gisa ikusiko duten langileak, Jainkoak hala nahi duelako —.⁵¹

... langileengan saindutasunaren ikurra ez da erlijioaren jendaurreko konfesioa, *conscience to do their duty* izenekoa baizik. Ikusten denez, Jainkoaren interesa eta patroiarena bat etorraraztea da kontua.⁵²

⁵⁰ Weber, *La ética...*, 250-251 or.

⁵¹ Weber, *La ética...*, 252 or.

⁵² *Ibidem*, 253 or., 99.zita.

Esana dugu Weberrek ez duela marxismoaren proiektu politiko antikapitalista eta antagonistaren katilutik edango, baina agerian jarriko du aszetismoak zelan hezitu zituen masak lanerako: plusbaliaren ekoizpenerako prestatu zituen, esango digu. Puritanoen ikuspegitik, fededunak kapitalismoan integratzeak interes etiko-erlijiosoen alde egin zuen. Bilakaera kapitalistaren ikuspegitik, fededun horiek kapitalismoaren «espirituaren» garapenaren zerbitzura jarri ziren:

Kapitalismoa, hastapenean, beren burua ekonomikoki ustiatzera etsi-etsian joango ziren langileen premian zegoen. Egun, sendo eta zindo, langileak lanera behartu ditzake beste mundurako saririk eskaini barik ere.⁵³

Horrela da: gaurko langilearentzat —Weberren garaiko langilearentzat baino modu nabarmenagoan gure sasoikoentzat— lana «profesio» kontsideratzea zerbait naturala da, enpresariarentzat aberastearen kontzepzioa den bezalaxe.

Aszetismo kristauaren espirituak, espiritu kapitalista modernoaren osagaietako bat dugu, baina, hori baino gehiago ere bada, zibilizazio modernoaren osagaietako bat ere badelako. Profesioaren ideian oinarritutako portaeraren arrazionalizazioa dugu zibilizazio modernoaren ezaugarri nagusia. Okertzeko beldur barik baieztatu daiteke, gainera, XX mendean gizarte mendebaldarrek eginiko ibilbidean funtsezko ideia horren indartzea ikusi dugula. Besteak beste, Mendebaldean duela gutxira arte soldatapeko lanaren eremutik eta lan-merkatutik kanpo egon izan diren emakumeak ere, portaera molde horretan integratzen ari dira modu masiboan. Lanaren ideiak, bizitza profesionala garatzeko de-soiek, gaurko emakumeen bizi-esperientzia alderik alde zeharkatzea lortu dute.

Beharbada bizitza estilo baten hedatze masiboaren aldeko mugimendua dugu begi aurrean⁵⁴, emakumeen integrazioaz gain, kapitalismoaren globalizazioarekin lanaren praktika eta kultura mendebaldarra indartzera datozelako. Weberrek garbi ikusi zuen Mendebaldeko eboluzio kulturalak zekarren indarra:

Puritanoak gizaki profesionala izan nahi izan zuen: geuk ere horrela izan behar dugu. Aszetismoa monasterioko gelatik irten eta, munduko moralitasuna mendean hartzeko xedez, bizitza profesionalean instalatu zenetik, ahal izan zuen neurrian lagundu zuen kosmos ekonomiko modernoa eraikitzen; kosmos horrek, ekoizpen mekaniko-makinistaren baldintza tekniko eta ekonomikoetara estekaturik, gaur egun berebiziko indarrez determinatzen du bertan jaio diren gizaki guzti-guztien bizi-estiloa (ez bakarrik bertan aktiboki esku hartzen dutenena), eta, seguru asko, luzaro determinatuko du etorkizunean ere.⁵⁵

2.9. *Kritikak Weber-en lanari*

Garrantzitsua da ondoko aspektua: puritanoek ez zuten kapitalismoaren garapena bilatzen, berau ondorio ez bilatua izan zen. Euren helburua bestelakoa zen: Jainkoak

⁵³ *Ibidem*, 255 or., 105.zita.

⁵⁴ Weberrek azalduko digun zalantza geure eginez, horrek «bizitza estiloa» egikaritzen duela onartzen baldin badugu, behinik behin; izan ere, akaso «bizitza estilo» orenen ukazioaren aurrean baikaude.

⁵⁵ *Ibidem*, 258 or.

markatutako bidetik bizitza bertutetsua jorratzea. Dotrina kalbinistek ez zuten, ezta ere, erreforma moral edo sozialik bilatzen, baizik eta arimaren salbamena (Arrasateko koope-
ratibismoak, ostera, enpresaren eta gizartearen egiturak eraldatzea bilatu izan du). Baina, zibilizazioan sortutako eraginak itzelak izan ziren, baita euren nahien kontrakoak ere.

Yolanda Ruanoren iritzian Weber ez da izan lehena arrazionalismo ekonomiko modernoaren eta protestantismoaren arteko lokarriak ikusten. Baina pentsamendu weberiarren orijinaltasuna beste nonbait legoke, lokarri horiek klabe paradoxikoan ulertzean, hain zuzen: munduaren ukazio judu-kristaua, bere bertsio protestantea medio, munduaren domeinu bilakatu da. Zentzu honetan, ethos aszetiko-protestanteak logika paradoxikoa hartzen du bere baitan, baita fatala ere, ontasuna bilatzen duen indarra bada ere, halabeharrez kaltea sortzen baitu.

Weberren ikuspegiak tragediatik asko dauka:

Mundua aldaraztea xede hartu zuen aszetismoak, eta munduan errealizatu nahi izan zuen bere burua; ez da harritzekoa, hortaz, mundu honetako aberastasunek geroz eta itzal handiagoa —eta, azkenean, izugarri erakargarria— izatea gizakien baitan, historiari egundo ezagutu gabekoa. Kutxa izpirituz hustu da, auskalo betirako ote den. Nolanahi ere, kapitalismo irabazleak ez du dagoeneko erlijioaren laguntzaren premia-rik, funts mekanikoetan oinarritzen baita. Badirudi, era berean, puritanismoaren arrosa koloreko ordezkari irribarretsua, ilustrazioa, hil egin dela; eta, orain, eginbehar profesionalaren ideia geure bizitzen gainetik hegan dabil, iraganeko ideia erlijiosoen mamua bailitzan. Eginbehar profesionalaren betetzea interpretatzeari uko egiten dio gizakiak, dela obligazio hori hainbat balio izpiritualekin zuzeneko erlazioan jartzerik ez duenean, dela, alderantziz, subjektiboki derrigortze ekonomiko huts gisa baino sentitzen ez duenean. Sustrai sakonenak izan zituen herrialdean, Amerikako Estatu Batuetan, irabaziasmoak —bere zentzu etiko-erlijiosoa dagoeneko desagertuta— pasio agonal hutsekin elkartzeko joera agertzen du, kirol batek izan dezakeen paretsuko izaera hartzen duelarik. Inork ez daki oraino nork beteko duen etorkizunean estalki huts hori; inork ez daki garapen izugarri honen buruan beste profeta batzuk agertuko diren, edo aspaldiko ideal eta sinesmenak indartsu birsortuko diren, edo, bestela, egoera mekanizatu batek eta denak denen aurkako borroka aztoratuak ez ote duen dena estaliko. Horrela izatekotan, zibilizazioaren fase honetako «azken gizakiek» esakune hau aplikatu ahal izango diote bere buruari: «Espiritu gabeko espezialistak, bihotzik gabeko gozatzailak: ezdeus horiek uste dute gizatasunak egundo ezagutu gabeko faseraino heldu direla.⁵⁶

Laburbilduz, Modernitaterako jauziak baditu «barne baldintza» batzuk, hau da, ekintzarako jarrera eta disposizio (subjektibo, psikiko eta kultural) jakin batzuk, modernizazioa bultzatuko dutenak. Weberren ikuspegi teoriko orokorraren oinarrian, ideiek efizientzia historikoa nola lortzen duten aurkitzen dugu, eta mekanismo psikiko-kulturalek duten garrantziaren tamaina. Okerra da, bere ustean, Erreforma uler-tzea ordena ekonomikoan gertatutako aldaketen errefleju soil gisa. Baina, bestetik, okerra litzateke esatea Erreformatik gabe ez zela kapitalismorik izango.

Kritika ugari izan ditu Weberren tesiak⁵⁷. Batzuen iritzian, kapitalismoaren izpirituz ulertzen den hori, Italiako lehen ziutate komertzialetan aurki daiteke, kalbi-

⁵⁶ *Ibidem*, 259-260 or..

⁵⁷ Giddens, *Sociología*, 727 or.

nismoaz ezer jakin aurretik. Beste batzuk diote Weberrek azpimarratzen duen ideia zentrala, bokazioz lan egitearena, sinesmen katolikoetan ere bazegoela. Historialari batzuk pentsabide katolikoak kapitalismoaren garapenean izan duen eragina azpimarratu dute, nagusiki eskolastika hispanoak eta jesuiten ekarpenek.⁵⁸

Etika protestantea lan famatua argitaratu aurretik, Euskal Herrira etorri zitzaigun Max Weber, 1897an, Marianne bere andrearekin. Areetatik idatzitako gutun batean bere amari luze eta zabal hitz egin zion gure herriaz eta «euskal probintzia ederren» ohiturei buruz. Weberrek harriduraz ikusten zuen, baita miresmenez ere, sasoi hartan gure herriak bizi zuen industrializazio prozesua: «Kapitalismorik modernoena hedatzen ari da berealdiko ahalmen eta kemenez.»⁵⁹ Baina, urte batzuk geroago idatzitako *Etika protestantean*, Weberrek ez zion inongo aipamenik egin Euskal Herriari. Zergatik aipatu barik utzi «kapitalismorik modernoaren» adibide hain garbia? Beharbada Euskal Herriak auzitan jarri zezakeen bere tesi zentrala, protestantismoak kapitalismoan izan zuen eragin erabakiorraz mintzo dena. Izan ere, gure herria oso katolikoa izanik ere, kapitalismoa oso garatuta zegoen. Weberrek berak aitortzen zuen aipatutako gutunean apaiz katolikoek eragin handia zutela euskaldunen bizitzan: «Elizaren diziplina zurruna da» zioen gure herriaz ari zela. Azaolaren iritzian, agian kontuan hartu behar da Weberrek oso une txarra bizi zuela gure herria eza-gutu zuenean, animoz oso makal zebilela, eta ondorengo urteetan bere buru-osasun goerak txarrera jo zuela.

Behargina izan da euskalduna, saiatua eta lanarekiko prestua; «euskaldun ona» behinik-behin. Eta lurralde katolikoa izan da gurea. Arizmendiarrietak ere gure herriak izan dituen baloreak azpimarratu zituen eta zehatzago lanarekiko izan duen jarrera. Eta gure ekonomian eragin handia izan dute balore sozial horiek, eta lurralde katolikoan ernetu dira. Protestantismorik ez dugu apenas izan, salbuespenak salbuespen, baina euskaldunoi protestantismoari —etika kalbinistari— lotzen zaizkion zenbait nortasun ezaugarri erantsi zaizkigu: sakrifiziorako joera aitortu zaigu, lanarekiko jarrera positiboa eta espiritu saiatu, lehiatsu eta ekintzailea. Lanaren kultura jakin bat aitortu izan zaigu euskaldunoi, lankortasunean sendo oinarritua. Argitzeke dago jesuitek horretan guztian izan duten eragina, izan ere, jesuitak izan ziren erreforma katolikoaren erreferentzia nagusietakoa. (Hortxe dago, bestetik, jansenismoa, eragin handia izan ei du euskal katolizismoan, eta ez Ipar Euskal Herriari bakarrik.)

Luterok bezala, Ignazio Loyolakoak tormentu handia bizi izan zuen, baina, ez zuen dotrina berririk sortu, elizarekiko menpekotasuna hautatu zuen. Hala ere, diferentziak diferentzia, Loyolak ere niaren domeinurako eta norbere bizitzaren arautze zurrune-rako programa sistematiko bat sortu zuen. Kristauak Kristoren aldeko konpromiso eta zerbitzu aktiboa adierazi behar zuen, soldaduen antzera, militante saiatu eta diziplinatu gisa (jesuiten antolakuntzak komando militarren antz handia zuen).

⁵⁸ J. Conill, «Marco ético-económico de la empresa moderna», in A. Cortina, *Ética de la empresa*, Trotta, Madrid, 2000, 57 or.

⁵⁹ Borja Vivanco, «Max Weber y la cultura vasca del trabajo», *Diario Vasco*, 2004ko maiatzak 9. or.

Weberri eginiko kritiken atalean, Ingalaterrako Richard Henry Tawney aipatu behar⁶⁰. Autore honen iritzian, Weberrek garrantzi gehiegi aitortu zion protestantis-mo kalbinistari kapitalismoaren hastapenak azaltzeko orduan. Kapitalismoaren agerpena, nagusiki, ondoko arrazoari zor omen diogu: industria eremuan erlijiositateak atzera egin behar izan zuen gauzak ikusteko modu berri baten oldartzearen aurrean; ikuspegi ekonomikoaren aurrean, hain zuzen («efikazia ekonomikoa» printzipioaren nagusitasuna). Beraz, industria eta erlijioa ez datoz bat, antagonistak lirateke.

Edozelan ere, guri interesatzen zaiguna zera da: kapitalismoaren espirituak bizitza estilo berria dakar, irabazi asmoa instituzionalizatuz eta profesioa izugarri goratuz. Hori guztia, bizitza profesionalaren balorazio etiko-erlijioso sakon batetik. Kritikak kritika, Weberrek mundu modernoari buruz egindako teorizazio eta analisisiek duten garrantziaren erakusle gisa, hona hemen Alain Tourainen hitzak:

Mundu berria eta gizaki berria sortu behar dira iraganari, Erdi Aroari, bizkar emanez, antzinakoengan arrazoiaren baitako konfiantza berriz aurkituz eta lanari, ekoizpenaren antolamenduari, truke askatasunari eta legearen inpersonalitateari berebiziko garrantzia aitortuz. Lilura galtzea (desilusioa), sekularizazioa, arrazionalizazioa, agintaritza arrazional legala, erantzukizunaren etika: Max Weberren kontzeptuek, klasiko bihurturik, modernitate hori ondo baino hobeto definitzen dute.⁶¹

Obra horren bidez Weber saiaturiko da kapitalismo modernoaren sorrera esplikatzen. Baina, ez kapitalismoaren sorrera bakarrik, baita ere, edo batez ere, Modernitatearen sorrera:

Horren adiera [*La ética protestante... lanarena*] ez da mugatzen, nolana ere, kapitalismoaren kausetara, modernitatearen kausetara baizik; eztanda eginikoan Mendebaldeko eta, ondoren, mundu osoko ordena eta zibilizazioa erruz aldatuko lituzkeen prozesu bakar eta errepikaezin horren zergatietara, alegia.⁶²

3. Erresistentziaren aldeko aldarria: autoarauketa, autoeraketa, autodeterminazioa

Kulturaren gertatutako jakintza metatuak (arrazionalizazio kulturala) eragin zuzena izan du jendearen (indibiduo zein taldeen) bizitza estiloaren egikaritzean. Ideiek efikazia enpirikoa lortu dute historiaren pasarte horretan; ideiek pertsonen bizierak norabidetu eta hezur-mamitu dituzte. Ideiak haragitu egin dira nolabait. Hori da Weberrek erakusten diguna *Etika protestantean*: nola ideiek efikazia historikoa lortu duten.

Etika protestanteak portaera ekonomiko arrazionalari behar zuen euskarri moralala eman zion: ekintza ekonomikoa moralaren lurraldean sustraitzea ahalbidetu zuen.

⁶⁰ R.H. Tawney, *La religión en el origen del capitalismo: estudio histórico*, Dédalo, Buenos Aires, 1959.

⁶¹ Touraine, *Crítica de la modernidad*, Temas de Hoy, 49 or.

⁶² Salvador Giner, *Historia del pensamiento social*, Ariel Historia, Barcelona, 1999, 615 or.

Efikazia ekonomikoa bilatzea (eta aurkitzea) moralki legitimatuta geratu zen. Gizarte kapitalistak behar zituen baldintza subjektiboak sortuko dira, beraz.

Baina, gerora eduki moralez hustu egingo da portaera ekonomiko arrazionala. Ekintza ekonomikoaren esfera —eta beste horrenbeste gertatuko da ekintza politikoaren esferarekin— bere legaltasun propioarekin garatuko da, hazkuntza kapitalistari —eta, politikaren esferan, botere estatalaren birproduktzioari— dagozkion berezko logika kognitibo-instrumentalen bidez. Ondorioz, hasierako ekintzak zuen motibazio-oinarria ordezkaturik izango da, oinarri sasi moral berria jarriz bere lekuan: utilitarismoa.

Hitz batean: Modernitatea oinarri moral-erlijiosoekin haziko da, baina bere garapenean oinarriok albo batera utzi eta adaptazio oinarriak erabiliko ditu. Beraz, balore-orientazioa deuseztatzen duen ingurumena sortzen du. Modernizazio prozesuak badu, ikuspegi honetatik, arrazionaltasun praktiko-morala (auto)suntsitzeko joera.

«Kapitalismoaren espiritua» historian agertutako pertsonaia bat da, balore batzuk gorpuzten dituen eta, beraz, historikoki esanguratsua. Kapitalismoaren espiritua *ethos* bat da: ohitura mental eta moral batzuk, baita egikaritzen psikologikoa ere. Etika sozial jakin bat da, «bizitza estilo» modernoa sortuko duena. Helburuak bilatzen dituen ekintza arrazionala balorez jantziko da. Maxima moralek izaera aszetiko nabarmena dute, hedonismotik eta utilitarismotik oso urrun: jarduera profesionala betetzea agintzen dute, profesioa bere horretan helburu bilakatuz, modu metodiko, sistematiko eta diziplinatuan bete beharreko jarduna.

Hortaz, genesi garaian kapitalismoa harreman estuan zegoen moralitatearekin. Alain Tourainek honela dio Weberren tesiari buruz: «Kapitalista, ez diruaren alde, bokazioaren alde eta lanaren alde den-dena emateko prest dagoena da»⁶³. Kapitalismoaren espiritua, beraz, ez da adaptazio arazoak konpontzeko teknika pragmatiko soila; etika aszetikoa da; etika horrek ekinbide ekonomiko arrazionalari esangura moral handia ematen dio eta zentzuz hornitzen ditu euren portaera jantzen dutenak esangura horrekin.

Zentzu horretan, agindu moral horiek ez betetzeak ekinbide ekonomikoaren porrota ekar lezake (aginduok merkatuarekiko funtzionalak diren portaerak sustatzen dituztelako); baina, agindu moral horiek ez betetzeak ondorio garrantzitsuagoak ditu corpus moral horren barruko biztanlearentzat: eginbearra ez bete izanaren porrota; agindu moralari huts egin izana, alegia.

Modernizazio prozesuak aurrera egin ahala, konbikzio-etika batetik etika pragmatiko baterako jauzia gertatuko da. Norabide utilitarista hartuko duen urardotze baten aurrean gaude. «Eginbehar profesionalaren» ideiak iraungo du pertsonalitate egituran zein ordena instituzionalean, baina orube utilitaristaren sasi-moralitatean sustraitua. Ondorioz, errentagarritasunera orientatutako portaera ekonomikoa (ekintza ekonomiko arrazionala) ez da etikoki baliotsua emaitza onak ematen ez baditu,

⁶³ Alain Touraine, *Crítica de la modernidad*, Temas de Hoy, 42 or.

eta baloratua izango da irizpide utilitarioen bidez, gizabanakoari etekinak (edozein etekin) emateko gaitasunaren arabera. Eginbehar profesionalak auto-gidatutako ekin-tza «zentzuduna», ekin-tza pragmatiko bilakatuko da, aurretiaz ezarrita datozen hel-buru eta interesen arabera.

Arrasateko kooperatibismoaren inguruan galdera bertsua jaurti daiteke. Arrasateko kultura ekonomikoan kapitala lanarekiko subordinazioan ulertu da (kooperatibismo industrialean oro har ulertu den moduan). Ekonomia bera —ekinbide enpresariala— bitartekoa izan da, goragoko balore eta xedeak lortzeko bidea. Aldi berean, Arrasateko kooperatibisten artean —nagusiki lehendabiziko belaunaldikoen artean— bizitza estilo zurrun, soil, diziplinatu eta saiatur gorpuztu da (kode moral kristauak hala agintzen zuen). Austeritatea aldarrikatzen zuen kultura bat izan dugu: ekinbide enpresarialetik lortutako ondasunak era neurritsuan gozatzerantz deitu du luzaroan.

Arrasateko kultura kooperatiboan lanak eskuratu duen balorazio gorenak Weberren «eginbehar profesionalaren» balorazioa dakarkigu gogora, biak baitaude eduki moralez eta jainkotiarrez jantzita. Funtsean, konbikzioaren etika batek lagundu izan du, baita ere, Arrasateko kooperatibismoa: barne atxikimendu moral, konbikzio moral sendoetan oinarritutako enpresa jarduna..., horiek izan dira ekinbide kooperatiboaren abiapuntuak. Galdera ezaguna bezain eztabaidatua jaurtiko dugu berriro: ea gaur egun euskal kooperatiba esperientzia ez ote den labaindu utilitarismoruntz, soilik emaitzak baloratzera, konbikzioaren etikatik etika pragmatiko batera.

Esan dugun bezala, kapitalismoa bizitza ekonomikoaren indar nagusi bilakatzen denean, bere biziraupena ziurtatzeko dagoeneko ez du behar hasierako enpresariak eta langileak barneratu zituzten maxima etikoak. Hortik aurrera modu mekanikoan birproduzituko du bere burua. Subjektu ekonomikoaren (enpresarioak eta langileak) aukeraketa da erabiltzen duen bidea behar dituen portaerak berregiteko: adaptatzen direnak sarituak izango dira, ongizate egoera eskainiz; besteak bizitza ekonomikotik baztertuak izango dira.

Baina, hori baino gehiago dago: balore-arrazionaltasuna lagungarri izatetik eragozpen izatera pasa da, izan ere, helburuei egokitutako arrazionaltasunaren garapena tratatzen du; baloreek efikazia tratatzen dute.

Ethos ekonomiko modernoa pragmatismo huts bilakatuko da. Prozesu horretako bi muturren artean, aszetismo profesionalaren eta pragmatismo hutsaren artean, bada-go tarteko estadio bat: baikortasun ilustratua, bizio indibidualek interes orokorraren alde egin dezaketela defenditzen duen kontzeptzioa, kontzeptzio dagoeneko sekularra eta batere aszetikoa ez dena. Baina, kapitalismoa sistema gisa finkatzen denean, ordena horren biziraupena deslotu egingo da ordura arte justifikazio ideologikoa eman dioten bai kontzeptzio bai etiko-erlijiosoetatik nola sekularretatik (kontzeptzio ilustratuak). Erreformaren oinordeko baikorra izango den Ilustrazioa bera ere, zerraldo. Kapitalismoa, garaile, euskarri ideologiko oroz libratuko da.

Jakina da Arrasateko Kooperatiba Esperientzian ere izan dela izaera sekularreko motibazio-ingarantzitsurik: batetik, euskal herrigintza (nazioa); bestetik, langileriaren hobekuntza (klasea). Jainkoa, nazioa eta klasea, hirurak izan dira, lehen modernitateko gizarteetan, iturri indartsuak pertsonen eta giza-taldeen identitateak egikaritzeko orduan; baita Arrasateko kooperatibismoan ere. Motibazio-iturri sekular horiek ere kolokan ote daude Arrasateko kooperatibismoan?

	1. estadioa	2. estadioa	3. estadioa
Kapitalismoa	Aszetismo profesionala	Baikortasun ilustratua	Utilitarismoa eta pragmatismoa
	Jarduera ekonomikoak ainguratze moral-erlijiosoa du: salbazio pertsonala	Bizio indibidualek interes orokorraren alde (liberalismoa)	Ekonomia eta morala bereizita
	Motibazio aszetikoa	Motibazio sekularra	Motibazio pragmatikoa
	Bizitza «zentzuduna» Bizitza modu unitarioan orientatzeko gaitasuna. Bizitza modu metodiko, sistematiko eta diziplinatuan gobernatzeko ahalmena		Zentzu-krisia Askatasun-krisia
Arrasateko kooperatibismoa	Aszetismo profesionala	Baikortasun ilustratua	Utilitarismoa eta pragmatismoa
	Jarduera ekonomiko- enpresarialak ainguratze moral-erlijiosoa du: hobetze material eta espiritual kolektiboa	<ul style="list-style-type: none"> • Herrigintza • Euskalherrigintza • Langileriaren askapena 	Enpresaren jarduna zentzu-gorputz goren batetik deslotuta
	Motibazio aszetikoa	Motibazio sekularrak	Motibazio pragmatikoa
	Bizitza «zentzuduna» Bizitza modu unitarioan orientatzeko gaitasuna. Bizitza modu metodiko, sistematiko eta diziplinatuan gobernatzeko ahalmena		Zentzu-krisia Askatasun-krisia

Weberrek enpresa modernoa eta kapitalismo modernoa, bien izaera aztertzea du helburu nagusi. Giddens-en interpretazioari bagagozkio⁶⁴, Weber bat dator Marxekin funtsezko aspektu batean: kapitalismo aurreratu edo modernoak mundu berezia osa-

⁶⁴ A. Giddens, *El capitalismo y la moderna teoría social*, Ed. Labor, Barcelona, 1988. Giddensen sintesi hau baliatuko dugu ondorengo azalpenetarako.

tzen du; eta gizarte molde berezi horretan arrazionaltasun teknologikoak erabateko nagusitasuna lortuko du, erlijioa ordezkatuz. Marxek ere sarri azpimarratu zuen kapitalismoaren aurrerakadak sekularizazioa zekarrela:

...eta honek [kapitalismoak], kalkulu egoistaren ur izoztuetan ito ditu bai debozio erlijiosoaren estasis sakratua, nola zaldunaren berotasuna, zein burgesaren sentimentalismoa.⁶⁵

Habermasen hizkuntza erabiliz, ekintza molde instrumentalak bizitzako gainontzeko eremuak kolonizatuko ditu. Prozesu historiko honen bidez, harreman sozialen despertsonalizazioaren aurrean gaude, gizakien arteko komunikazio sinbolikoa «sikatu» egingo da, eta, giza bizitza, arrazionalizatutako sistema anonimoen logika inpersonalaren agindupean jarriko da. Prozesu horrek bizitza mekanizatu egingo du, berau askatasunez eta zentzuz husteraino.

Gauza onak eta ez hain onak ekarri ditu arrazionalizazioak, baina Weberrek ez du bilatuko horren balantzea egitea, arrazionalizazioaren etekinak eta kostuak zehatz neurtuz. Balantze hori ikuspegi askotatik egin daiteke eta emaitza zeharo ezberdinak lortuko genituzke. Helburua beste bat da: arrazionalizazioak sortzen dituen arriskuez kontzientzia hartzea, berauei aurre egin ahal izateko. Hortik aurrera ez dago ezer aurreraterik: ikusi egin behar gizakion gaitasun praktikoa zein den arrisku horiei arrakastaz aurre egiteko orduan.

Gauzak horrela, gizarte modernoetan (baita Arrasateko kooperatibismoan ere) gizakion ekintzak koordinatzeko zailtasunak daude. Izan ere, kolokan jarri denean guztiok konpartitzen dugun zentzu traszendentearen existentzia, norbanako anitzek sortutako zentzu pluraltasuna bilakatu da nagusi. Horrek baditu txalotu beharreko ondorioak: halako baldintzetan botereak dagoeneko ezin ditu munduaren gaineko irudi tradizionalak erabili batzuen pribilegioak eta besteen obedientziak justifikatzeko. Gizarte modernoek berezkoa duten balore politeismoak legitimazio krisi potentziala dakar ondorioz.

Arazo sakona planteatzen zaie gizarte modernoei: zelan heldu legitimitatea sortuko duen irizpide normatibo batera, subjektu arrazional orok onartuko duen batera, horretarako mundua «ber-liluratu» barik (azken aukera hau ez baitagokio munduaren ikuspegi modernoari).

Beste modu batera azalduta: zelan uztartu pluralismoa eta unibertsaltasuna, harreman horretan termino bat ala bestea deuseztatu barik. Utopia tradizionalak pluraltasuna sakrifikatu izan ohi dute, unibertsaltasun harmonikoaren aldrean. Gizarte modernoek askatasun indibidualak bermatu behar/nahi dituzte, gizarte gatazkak ukatu barik; aldi berean, gizakion ekintzak behar bezala koordinatzeko beharra dute. Koordinazio hori ezinbestekoa zaigu, modernitate globalak dituen arrisku latzei aurre egin gura badiegu.

Arauk, baloreak eta idealak ezin dira modu arrazionallean eta sustantiboan oinarritu, baina balore-orientazioa beharrezkoa da «bizitza baliotsu» baterako. Soilik

⁶⁵ Marxek eta Engelsek esandako hitzak *Manifestu Komunsita* liburuan.

«kausa» batekiko atxikimenduaren bidez, politeismo sakonaren kontzientziatik abiatuta betiere, gizakia «pertsonea» bilakatzen da. Pertsonalitate morala hartuko du gure autoreak ipar gisa, ondoko ezaugarriekin: *duintasuna*, hau da, baloreekiko orientazio sistematikoa; *integritasuna*, edo aukeratua izan den horrekiko fideltasuna; eta *autonomia*, aukeratutako baloreen gaineko gogoetari dagokionez. Beraz, pertsona izateko bide bakarra dago: «kausa» bati modu apasionatuan lotzea; hau da, modu kontzientean aukeratutako baloreen aldeko orientazio sistematikoa.

Berba batean: *norberaren bizitzaren autodeterminazio arrazionala, bizitza gidatuko duten azken balore eta zentzuen aukeraketa kontziente eta erresponsiblearen bidez*. Hori da Weberrek marrazten duen ideal morala. Autoaraututako eta norberak sortutako bizitza, kontzientzia politeistan eta aukeraketan oinarritua, destitua jabe eginez eta ez bere esklabu.

Jardunbide «desapasionatua», «kausarik» gabekoa, ez da proiektu kontzientea, baizik eta helburuei egokitutako biziera arrazionala (arrazionaltasun formalaren diktadura): baloreak asumitzen dira horrela datozelako, edo erlatibismoaren indiferentzia nork bere egiten duelako, edo efikazia teknikoa balore planora altxatu delako.

Edozelan ere, balore-orientaziorik gabeko bizitza, makinaria bateko piezak burutzen duen lan teknikoaren pareko ekintza moldeak litzateke: burokrataren, enpresariaren, edo langile modernoaren bizierak lirateke. Makinaria politiko, ekonomiko edo instituzionalak inposatutako funtzioak betetzera zuzendutako bizierak. Horiek dira «espiriturik gabeko espezialistak», bihotzik gabekoak, gizadiaren estadio distiratsua lortu denaren ustean bizi direnak.

Zientziak zein politikak ezin dute «kausa» estatusa eskuratu. Baina,aldi berean, ekintza zientifikoak, politikoak, ekonomikoak, edo beste edozeinek, «ekintza» izaten segitu gura badu bere zentzurik osoenean (giza-ekintza, ez halabeharrek determinatutako ekintza), baloreak izan beharko ditu ipar. Politikariek, zientzialariek edo ekonomilariek «gizatasuna» gorde gura badute, baloreen bidez orientatu beharko dute euren jardunbidea (arrazionaltasun formalak eskatzen dituenak betetzeaz gain).

Baloreak eta pragmatismoa, biak fusionatzearen aldeko aldarria da Weberrek utzitako testigantza: baloreekin josi behar da helburuei egokitutako orientazioa. Soilik horrela borrokatu ahal izango dugu erabat arrazionalizatutako munduan indar inpersonal edo suprapersonalek ezartzen duten diktaduraren kontra, inposatutako balore-helburu pragmatikoei gizakion bizitza gidatu ez dezaten. Ezin gara inork ezarritako helburuen exekutore soil bilakatu. Gizakiarentzat bizitza estilo jakin bat posible da, gizakiok hain geurea duguna errespetatuko duena: auto-gidatzeko gaitasuna. Horretarako funtsezkoa da azken balore batzuekiko konpromisoa, baina, baita ere, helburuak argitzera zuzendutako analisía, edo eta baloreek orientatutako ekintzen ondorioen gaineko ardura.

Subjektua «zentzu sortzailea» denez, beharrezkoa da gaitasun hori aktibatzea morrontza berriak agertzen duen mehatxuaren aurrean, etorkizunak ezeztatu dezake-elako gizakiak hain berezkoa duen ezaugarria: zentzuak sortu eta berauen arabera

bizitza proiektu propioa auto-gidatzeko gaitasuna. Gaitasun horiek desagertu edo serio kaltetuak izanez gero, indibidua, ordena modernoa egonkortzeko beharrezkoak diren balore eta helburu funtzionalak betetzera mugatuko litzateke; eta horrek badu izen-abizenik: *subjektuaren amaiera*.

Arrazionalismo modernoaz Weberrek egin duen azterketak ederki agertzen du burgeseriaren autokonprentzioaren krisia eta, areago, honen osagai da (...) Mendea amaitzearekin batera, gizateria gidatzeko arrazoian ezarritako konfiantza ere amaituz zihuan. Optimismoa, bai arrazionalismo ilustratuarena eta bere oinordekorik gertuena den positibismo klasikoarena —biak ere, arrazoiaren aurrerabidean sinestuta eta koraza horrekin ondo jantzita—, mende berriko pesimismoak ordezkatu du. Mende berri horrek bere egin du ondoko guztia: hamaikatan nabarmendutako zimenduen krisia, arrazoiaren dekonstruzioa (hainbat diskurtso eta narrazio bilakatuz), politeismo baloratiboa eta era guztietako erlatibismoak; eta horrek guztiak irrazionalismoaren aurpegi beldurgarria agerian uzten du. Pesimismo kultural eta soziala, hitz batez. Edo, gutxienez, harridura, ondokoaz jabetzean: mende bat lehenago loriatua izan zen arrazoiak orain behin betirako galdu du bere hizki maiuskula, bere bat izatea, bere unibertsaltasuna, eta praxia funtsatzeko bere ahalmena. Hori dena da, azken batean, webtertar diskurtsoa kokatzen deneko garairenean ezaugarria.⁶⁶

Beraz, Weberrentzat soluzio bakarra dago modernitatearen ondoezaren aurrean: kausa gisa hartuko den eginbehar bati sendo atxikitzea entrega aszetiko bidez, eginbehar horren exigentziak asumituz. Bestelako bideek ez dute benetako irtenbiderik eskaintzen: arrazionaltasun molde aurre-modernoek nostalgi erromantikoz begiratzea; dagoenaren kritika negatibo hutsa; eszeptizismo arradikala; nihilismo antzua... Modernitatearen ondoezen eta antinomien esangura sakonak ezagutu behar ditugu, berauek arradikalizatu eta aurre egin.

Subjektuak jabetu beharra dauka balore politeismoaz eta baldintza barik jarraitu berak aukeratutako jainkoari. Konponbide horrek badu bere tragedia ikutua: aukeratzeko orok errenuntzia eskatzen du, bestelako bizierak bizitzeari uko egitea, ez baita posible aldi berean bi jainko zerbitzatzeko. Tragedia horrek badu beste alderdi bat: balore-oinarria duten ekintzek beti eragiten dituzte bilatzen ez ziren ondorioak, eta hori horrela izanik, jabetu beharra dugu azken balore edo ideal horiek ez direla sekula bere horretan gorpuztuko.

Weberrek emango digun soluzioa estuki lotuta dago tradizio protestantearen balore zaharrekin: kontzientzia indibidualaren autonomiaren ideala, eta lan bokazionalaren balorazio altua. Aukeraketa hori egitean beste bat baztertzeko du: Humboldt-ek eta beste batzuk gorpuzten duten tradizio kultural alemaniarra (XVIII mendean eta erromantizismoan oso sustraitua). Azken tradizio honek gizakiaren garapen osoa defendatzen du: bere dimentsio intelektual, espresibo, afektibo eta morala. Ikuspegi humanista honek gizakiaren potentzialitate osoen garapena bilatuko du, hobetze espiritual, afektibo eta morala. Baina, ideal horri kontrajarrita Weberrek espezialistaren figura eraikiko du: praktika profesionala ekinbide goren bihurtu duen subjektua, aukeratutako «kausa» profesionalari emanda bizi dena.

⁶⁶ Ruano, *op.cit.*, 211 or.

Arrazoiaren eta subjektu modernoaren krisiari Weberrek ematen dion erantzuna, beraz, erresistentzia da: erresistentziara joko duen subjektibitatea, balore sortzailea izango dena, eta auto-arautua. Modernitatearen kritika egiten du modernitatetik irten gabe. Segitzen du zentzu-sortzailea den subjektuaren nozioa eta bere bizitza autogidatzeko gaitasun arrazionala duen subjektuaren ideia defendatzen. Pertsonaren nozioa da defendatzen duena, azken batean; horrek ordezkutzen baitu indibiduoaren ukazioaren kontrako erresistentzia heroikoa; hori da balore-arrazionaltasunaren isiltze hazkorra gelditzeko modua.

Weberren proposamenak, hitz batez, ondokoari erantzuten dio: arrazoiaren garapenak destino gisa ekarri duen arimaren zatikatzeko eta idortze horretatik, «gizatasun hondar» bat erreskatatzeko premiari; nork bere sinesmenak arrisku gorrian ikusten dituenan desadostasuna agertzeko gaitasuna sustatzeko urgentziari, horrelakoetan, «aski da, ezin dezaket bestelakorik egin, honaino iritsi naiz» esatea posible bihurtzeko.⁶⁷

Norbere konbikzioak defendatu ahal izateko aukera errealak sortzearen inguruko ardura izan zen Weberrena. Azken batean, autonomia pertsonalaren aukera eta muga historikoez hausnartu zuen. Nago gogoeta horrek baduela irakaspen garrantzitsurik globalizazio gari honetarako. Arrazionaltasun formalaren seme-alaba diren zientziaren, aplikazio teknologikoen eta arrazionaltasun ekonomiko gordinaren ekimenez gizadia une ezin larriagoan jarri duten honetan (munduaren gehiengoarentzat fabrikatu den miseria; giza espeziearen biziraupena kolokan jarri dezakeen desafio ekologikoa; suntsipen masiborako sekulako gaitasun militarra...), badirudi giza ekintzok «zentzuz» arautzearen aldeko bideak behar direla, mundu ezin pluralagoan nolabaiteko balore-hautu konpartituak egiteko hautua.

Azken batean, ondokoa da gaur mahai gainean dugun galdera: ea ekonomia kapitalistaren zabalkunde hazkor eta globalaren ondorioz, ezartzen ari ote zaigun inongo balore-inpugnaziorik onartzen ez duen ekintza-ibilbidea; ea inposatzen ari den jarduteko modu uniforme eta bakarra. Eta beraz, ea berez dagokiguna kentzen ote zaigun: autonomia, askatasuna, autoeraketarako bideak, auto-orientatzeko aukera.

Jokoan dagoena ez da nolana hikoia: geure bizitza gidatzea kontzienteki aukeraturako balioei kasu eginez. Hauxe dugu gakoa: ea etorkizuna eraiki daitekeen ala ez —eta zein neurritan— gizakiaren nolakotasun espezifikoan oinarrituz, hots, zentzua sortzea eta geure izatea horren arabera gobernatzea. Egituren, gizartearen edo globalizazioaren indarraren aurrean, indibiduo eta taldeek subjektu izateko duten gaitasuna handitzea da desafioa: geure bizitzaren gaineko kontrola berreskuratzea, geure buruak geuk aukeratutako balore-bidetik arautuz, geure historia txikiaren subjektu aktibo eginez. Egokitzapenerako aginduak eta auto-determinatutako ekintzak uztartzean datza desafioa.

Balore krisiak subjektuari buruz galdetzera garamatza zuzen. Nietzsche-k Jainkoaren heriotzaz hitz egin zuen, eta Foucault-ek subjektuaren requiema aitatu zizun. Baina, dominazioaren lurraldean beti dago erresistentzia, esan zigun Foucaultek.

⁶⁷ Ruano, *op.cit.*, 216 or.

Ildo beretsutik, badira azkenotan planteamendu eraberrituak, subjektua erreskatatu gura dutenak. Ez ilustrazioaren eta iluminismoaren subjektu harroa, ezpada subjektu moral (Apel, Habermas, Muguerza, Adela Cortina), narratibo (Ricoeur, McIntyre) edo diskurtsiboa⁶⁸.

Subjektu kooperatibista eraldatzailea errekueratzea beharko dugu. Eta, hein handi batean, sinboloen bidez egin beharko da hori, zentzu kolektibo eraberrituen bidez. Ideiak eta gizakion ahalmen sinbolikoa eragile historiko indartsuak baitira.

4. Gizarte moderno kapitalistaren kritika: Weber, Frankfurt Eskola, Habermas⁶⁹

Aldeak alde, hari batek zeharkatzen du Weberrekin hasi, Frankfurt Eskolarekin jarraitu eta Habermasekin amaitzen den pentsamendua. Bizi dugun eta bizi gaituen mundu modernoari buruzko diagnostiko bat du pentsabide horrek, diagnostiko tragikoa une askotan, eta esperantzari leiho bat ireki nahi dion irakurketa beste batzuetan (azken hau Habermasekin batez ere). Pentsamendu hori arras konplexua eta korapilotsua da, baina, era honetan formula daiteke⁷⁰:

- Max Weberren iritiz, arrazionalizazio sozialeko prozesua *Zweckrationalität* delakoaren hegemonia areagotzearen paretsukoa da; hau da, teknikaren eta kalkuluaren, organizazioaren eta administrazioaren hegemonia. Arrazoiaren garaipenak ez du ekarri Askatasunaren Erreinua, Marxek espero zuen bezala. Aitzitik, indar ekonomiko inpersonalen eta burokratiko antolatutako administrazioen domeinua ezagutu dugu. «Burdinezko kaiola» batean bizitzera kondenatu gaitu horrek.
- XX. mendeko laugarren hamarkadaren lehen urte ilunetan *Ilustrazioaren Dialektika* idatzi zen. Lan horretan Max Horkheimer eta Theodor Adornok aintzat hartu zuten Weberren diagnostikoaren indarra. Teoria Kritikoak etsi egin zuen. Mozorroa kendu zioten arrazoitzat hartzen zen haren bihotzean zetzan desarrazoiari. Etsialdiaren gailurrean aro modernoari buruzko akta desesperatua idatzi zuten, eta uko egin zioten txosten hartan ezer positiborik jasotzeari.
- Jürgen Habermas etorriko beharko da gero, mezuaren norabidea aldatzeko intentzior: teoria sozial kritikoak ibilitako kale itsu horri argi pixka bat eman-go dio (*Ekintza komunikatiboaren teoria*), modernitateari buruzko bestelako

⁶⁸ C. Thiebaut, «El sujeto posmoderno. Una reivindicación del sujeto moral tras su descarte en el siglo XX», *Areté*, XIII/2, 2001, 91-111 or.

⁶⁹ Pentsamendu-ildoa honi buruzko irakurketa sakonagoa ondoko lanean aurki daiteke: J. azkarraga Etxegibel, *Modernitate kapitalistari kritika*, UEU, Bilbo, 2006.

⁷⁰ Thomas McCarthy, «Reflexiones sobre la racionalización en *La Teoría de la Acción Comunicativa*», Hainbat Autore, *Habermas y la modernidad*, Cátedra, 2001, 277-278 or. T. McCarthy-ren ikuspegia garatuago aurki daiteke ondoko lanean: *La Teoría Crítica de Jürgen Habermas*, Tecnos, 1995.

ikuspegi batekin agertuko da eta, diagnostikoa kritikoa bada ere, tragediaren bidea saihestezina ez dela esango digu. Kontua da Weberrek arrazoi instrumentalaren gailentzea ikusten zuela leku guztietatik eta, beraz, ezin izan zuen gaitasun komunikatiboen garapena ikusi. Horkheimer/Adorno bikoteak itsu-itsuan jarraitu zion Weberrri eta, azkenerako, bizitza modernoari — bere estruktura eta erakundeei — ez zioten inongo arrazoi-izpirik aitortu. Ilustrazioaren dialektikak erakutsitako ikuspegiari aurka eginez, Habermasek argudiatu du modernitateari loturiko atsekabeak ez direla sortzen arrazionalizaziotik; modernitatearen patologia sakon horiek bizi ditugu ez direlako modu orekatuan garatu eta instituzionalizatu arrazoiaren dimentsio guztiak.

Bersteinek dioen moduan⁷¹, Weberrengan aurki daitezke bestelako aukera historikoen inguruko iradokizun eta esperantza zantzuak. Bere ikuspegiak ez gaitu erabateko tragediara bultzatzen, gerturatzen bagaitu ere amildegi ertzeroa. Ez du amore emango *halabehar* historikoaren sinesmenaren aurrean, bestelako arrazionalizazio prozesuak gauza daitezkeelako.

Wellmer-ek ere, Habermasek horrelakorik onartuko ez duela esango digu⁷². Weberrren eta Horkheimer/Adornoren kontra, Habermasek argudiatzen du arrazionalizazioaren paradoxa horrek ez duela adierazten arrazionalizatzeko-prozesu modernoek barne-logika (edo dialektika) jakin bat dutenik, logika saihestezin bat, alegia. Ez legoke, ez arrazionalizazioaren paradoxarik (Weber), ez Ilustrazioaren Dialektikarik (Horkheimer/Adorno). Egokiagoa litzateke esatea arrazionalizazio prozesu «selektibo» bat gertatu dela; hau da, arrazionalizazio prozesuak izaera selektiboa izan du arrazionaltasun komunikatiboari mugak ezarri zaizkiolako, edo zehatzago esanda, produkzio prozesu kapitalistak mugak ezarri dizkiolako.

Weberrek ez zuen erreminta kontzeptual nahikorik arrazionalizazio sistemikoa eta komunikatiboa bereizteko (bigarren hau ez zuen ikusi); ez zuen ikusi, esaterako, konstituzio modernoetan instituzionalizatu diren printzipio unibertsalak (hauek, Habermasen iritzian, arrazionaltasun komunikatiboaren osagai garbiak dira); ez zuen ikusi horrelakorik antolamendu politikoaren plegu demokratikoetan; ez zuen ikusi horrelakorik diskurtso zientifiko, politiko edo estetikoetan; ez eta borrokan diharduten mugimendu sozialen garapenean (gizabanakoen eskubideen alde, antolamendu demokratikoaren alde, ekologiaren alde, emakumeen eskubideen alde, edo beste hainbat aferen alde borrokan ari diren gizarte mugimenduak). Weberrek ez zuen arrazionalizazio komunikatibo hori behar bezala ikusi eta, horrela, ezin izan zuen behar bezala ikusi gizarte modernoek izan badutela egitura moralala sortu eta eusteko gaitasuna.

Modu berean, Frankfurtoko Eskolako lehen belaunaldikoen giro ilunean arrazionalizazio prozesuaren «argiak» ikustezinak ziren. Ilustrazioak gizadiaren aurrerapen

⁷¹ Bernstein, «Introducción», in A. Giddens *eta al.*, *Habermas y la modernidad*, Cátedra, Madril, 21 or.

⁷² Albrecht Wellmer, «Razón, utopía, y la dialéctica de la ilustración», Hainbat Autore, *Habermas y la modernidad*, 95-96 or.

morala zuen helburu, autoaraututako gizaki eta herriak nahi zituen, baina, arrazoi teknikoaren garatze desorekatuak desbideratu egin du gizadia bide horretatik. Gizadiak galdetu behar lioke bere buruari ez ote dion arima deabruari saldu.

Aurrerapen teknikoek gizarte libre eta justuagoaren oinarri materialak ziurtatzea eta finkatzea zuten helburu, baina, lehen belaunaldiko frankfurtiarren ustean, erabat administratutako gizartea utzi digute. Arrazoi efikaz horren aurrerapenak ez gaitu askatasunaren erreinutik gertuago jartzen, alderantziz baizik. Zer egin?

Lehen belaunaldiko frankfurtiarrak ez dute aterabide sendorik ikusiko. Gizadiaren aurreragoko estadioetara bueltatzea ezinezkoa da. Modu berean, ezinezkoa da dagoeneko despotismo instrumentaletik askatzea, gure izaera jada erabat perbertituta baitago, gure pultsioak desbideraturik. Arrazoiaren bestelako aurpegiak desitxuratuta agertzen dira arrazoi teknikoaren atzaparretan. Zer egin, bada?

Marcuseren esperantza gizaki berri baten jaiotza da, kontzientea eta solidarioa, lanaren beharrezanetik askatua, eta naturarekin harreman orekatuan biziko dena. Esperantzarik gabekoengan jartzen ditu berak bere esperantzak. Adornok, ostera, trszendentzian bilatuko du deskantsua eta babesba. Moralari dagokionez ezer exijitzen ez duen Jainko baten alde agertuko da; beldurrik eragingo ez duen Jainkoa. Horkheimerrek ere klabe erlijiosoan formulatu zuen bere esperantza:

Kantek Jainkoarengan etsi-etsian zergatik sinesten zuen azaldu beharko banu, Víctor Hugoren pasarte hura baino erreferentzia hoberik ez nuke aurkituko. Gogoan geratu zaidan bezala aipatuko dut, hara: emakume zahar batek kalea zeharkatu du; seme-alabak hazi eta hezi ditu eta esker txarra bildu du ordainetan; lanean jardun du eta miseria gorrian bizi da; maitatu du eta bakarrik geratu da. Baina, haren bihotzak ez du gorrotoizpirik gorde eta, ahal duen guztietan, laguntza ematen du. Bere bidean aurrera doa, norbaitek ikusi du eta honela dio: «Ça doit avoir un lendemain», horrek biharamuna behar du izan, alegia. Historian nagusitu den injustizia betirako izango zenik sinesteko gai ez zirelako, hain zuzen ere, Voltairek eta Kantek Jainko bat exijitu zuten, eta ez bere buruarentzat.⁷³

Erich Frommek ere erlijioaren garrantzia azpimarratu zuen, eta kristau gisa azaldu ohi zen. Hala ere, edo erlijioarekin batera, esperantza politikoari eutsi zion: «sozialismo humanista komunitarioa» zen bere aldarriaren muina⁷⁴. Sozialismo marxistaren konponbide ekonomiko edo ekonomizista kritikatu zuen: marxismo ortodoxoak pentsatu zuen produkzio bitartekoen sozializazioak, eta ekonomia zentralizatu eta planifikatuak, nahikoak zirela gizarte berria eraikitzeko.

Gizakiaren pasioen konplexutasuna aintzat ez jotze horrek hiru akats larri-larrietara eroan zuen Marxen pentsamendua. Lehenik eta behin, gizakiak daukan faktore moralaz ahantzi egin zen; ekonomi aldaketak eginikoan gizakiaren ontasuna automatikoki berretsiko zuelakoan zegoelako, hain zuzen ere; Marxek ez zuen ikusi beren barnebizitzan aldaketarik nozitu ez zuten pertsonak ezin sor zezaketela gizarte hoberik. Ez

⁷³ M. Horkheimer, *Teoría Crítica*, Barcelona, Barral, 1973, 212 or.

⁷⁴ Sozialismo komunitario horren printzipioak *Psicoanálisis de la sociedad contemporánea* liburuan aurki daitezke.

zion arretarik eman, esplizituki bederen, bestelako orientazio moral baten premiari: hori gabe, balizko bide politiko eta ekonomiko guztiak alferrikakoak izango ziren.⁷⁵

Frommek bere obra guztian zehar gizaki modernoaren heriotza espiritualaren gaineko ardura azalduko du, eta sozialismoak teoria psikologiko baten beharra duela aldarrikatuko du, faktore morala berreskuratu beharra, plano horretan kokatzen baitira gizaki modernoaren hutsune larriak:

Ikusi izan dugunez, (...) teoria marxistak gizakiaren teoria psikologiko baten premia duela jabetu ziren sozialista marxista asko; ulertu zuten, era berean, sozialismoak eman behar diola gizakiari honek behar duen orientazio— eta debozio-sistema; sozialismoak aurre egin behar diola gizakiaren identitateari eta bere bizitzaren esangura eta helburuei dagozkien arazoei. Arau etikoetarako eta garapen espiritualerako zimendua izan behar du...⁷⁶

Murgil gaitezen gehiago Habermasen ikuspegian. Gizartea bi ikuspegitatik uler daiteke, esango digu: *sistema* gisa, batetik, eta *bizitzaren mundu* gisa, bestetik:

- *Sistema* ikuspegi batetik, gizarteak dituen autogobernu eta autoerregulazio mekanismoak kontsideratuko ditugu. Funtsean, mekanismo horiek gizartearen autokontserbazioa bilatzen dute, eta berau lortzearen alde egingo dute. Sistemaren kontserbazioa lortzeko ekintza instrumental eta estrategikoak ezinbestekoak dira.
- Ostera, *gizartea bizitzaren mundu* gisa kontenplazten badugu, gizarte horren balore, instituzio eta egitura normatiboez ariko gara. Aktoreek parte hartzen duteneko mundua, beraien arteko elkar ulertzea oinarri duena. «Bizitzaren mundua» sozializazioa, gizarte integrazioa, erreproduktzio kulturala eta gisako gertakariekin dago harremanetan. Sistemaren kontserbaziorako ezinbestekoak dira ekintza instrumental eta estrategikoak; ostera, *bizitzaren munduan* berezkoak dira gizakien arteko elkarrekintza eta komunikazioa. Eredu honetan elkar ulertze prozesuak gauzatzen dira, eta prozesu horiek giza ekintza beharrezko errekurtsoz eta zentzuz hornitzen dute. Eredu honetan interpretaziorako horizonteak irekitzen dira, aktoreei zentzu aukerak eskainiz. Eredu honetan kokatzen dira errealitatearen gaineko definizio komunak, hau da, unibertso sinboliko konpartitua.

Modernitateak bi azpisistema bereiztea ekarri digu: azpisistema ekonomikoa eta azpisistema politiko-administratiboa. Bi horiek dira bizitzaren munduaren erreproduktzio materialaz arduratzen direnak, eta orain, eboluzioaren estadio honetan, zentzuz hornitzea helburu duen bizitzaren munduan kolonizatzeaz mehatxu egiten dutenak (hau da modernitate kapitalistaren patologia nagusia).

Bizitzaren munduak ondoko espazioak hartzen ditu: iritzi publikoa (subjektuak bi eratara ulertuta: pertsona pribatu gisa eta hiritar gisa), eta bizitza pribatua (familia, lagunak, eta abar). Bizitzaren munduaren kolonizazioaren aurrean gaude.

⁷⁵ Fromm, *Psicoanálisis...*, 220 or.

⁷⁶ Erich Fromm, *Sobre la desobediencia*, Paidós, Bartzelona, 1984, 22 or.

Mekanismo sistemikoek (diruak eta botereak) integrazio sozialerako mekanismoak ordezkatzeko dituzte ordezkaezinak diren eremuetatik. Horixe da gizarte modernoetako patologia sozial nagusia. Kolonizazio —edo gutxienik, mediatizazio— horretatik letorke *askatasunaren galera* Habermas-en iritzian. Logika sistemikoen (logika ekonomikoaren eta logika politiko-administratiboaren) dinamika hazkorraren ondorioz, bizitzaren munduko eremuak —iritzi publikoa eta bizitza pribatua— erasotuak dira. Aldi berean, sistemaren eta bizitzaren munduaren arteko banaketa hazkorra da *zentzu galeraren* erantzulea, bigarrena sistemaren aginduek kolonizatu baitute.

Askatasunaren erreinu marxianoan bizitzaren munduak —eta bertan kokalekua duen marko instituzionalak— ekintza arrazional-teleologikoko azpisistemak (ekonomikoa eta politikoa) kontrolatzen ditu modu aktiboan. Marx-ek sistemari «beharrizanaren erreinua» eta bizitzaren munduari «askatasunaren erreinua» deitzen zien. Modernitate kapitalistan ez, ordea: dirua eta boterea bizitzaren munduan sartu dira eta komunikazioaren ordezkari berbazkoak ez diren bitartekoak ezarri dituzte; ondorioz, giza harremanen monetarizazioa dugu, eta erabakien burokratizazioa; merkatuak erabakitzen ditu komunikatiboki adostu beharko liritekeen lehentasun eta balorazioak.

Zer egin?

Teoria Kritikoaren lehendabiziko belaunaldiarentzat errukia eta gupida izan ziren kritikarako oinarri garrantzitsuak. Aldiz, bigarren belaunaldiak ez du ibilbide hori egin nahi izan, zientziak babestuko zuen erantzun teorikoa landu beharra baitzegoen. Habermasek hizkuntzaren edo mintzairaren lurraldean aurkitu du nolabaiteko irtenbidea. Arrazionaltasun komunikatiboaren alde egin du, eguneroko bizitzan errotutako arrazionaltasunaren alde, hortxe baitago behar den *humusa*, gizakiek erabaki dezaten euren bizitzekin zer egin. Bizitzaren eremu horretan erabaki beharko da zerk merezi duen eta zerk ez, gizakion azken helburuak zeintzuk diren, zer egin gure orainaldiarekin eta etorkizunarekin, garaile gisa agertzen den arrazoi estrategikoari erantzun egokia emanaz. Bizitzaren eremu hori da zorientasun proiektuen kokalekua.

Formulazio erlijiosoak bazterrean utzita —ez ei dutelako emaitzarik eman—, Habermasek Frankfurt Eskolako intuizio intimoena jaso (injustiziaren kontrako borroka) eta klabe linguistikoan bueltatuko digu. Mintzaira da Habermasen iritzian akordioaren lekua, mintzoak edo hizketak ulermena bilatzen baitu. Mintzaira eta elkar ulertzea batera doaz, hizkuntzak akordioa baitu helburu. Akordioa, azken batean, interes partikular eta unibertsalaren bateragarritasunaren bilaketa da. Eta hori baino ez da Ilustrazioaren helburu morala: borondate partikular eta unibertsalaren arteko batasuna.

Weberren ustean modernitateak ondokoa dakar: dagoeneko ez da posible ona dena, egia dena eta ederra dena bat etortzea. Hots, Berpizkunde garaian batu nahi ziren hiru aspektuak bereiztuta agertzen zaizkigu: ona dena (moralak), egia dena (zientzia) eta ederra dena (arteak). Batasun hori hautsi da eta, horren ondorioz, zentzugalera eta lilura-galtzea bizi ditugu. Habermasek komunikazioaren bidez batasun hori berreskura daitekeela azpimarratuko du.

Beraien arteko batasunaren haustura —baita ondoriozko zentzu galera eta liluragaltzea ere— saihestu ezinezkotzat ikusi zuen Weberrek. Nagusi diren egia zientifiko-teknologikoez gizadiaren gehienaren eskklusioa eragiten dutenean eta planetaren bizi-raupena bera ere arriskutan jartzen dutenean, badirudi dagoeneko ez dagoela egiazkoa eta onaren arteko batasunik; orduan, zail gertatzen da egia horien garapenean zentzua bilatzea eta ilusioz bizitzea. Egun, batu nahi dira gutxienez ontasun eta egiazkotasun asmoak, baina ez Errenazimenduan bezala. Oraingo eta orduko garaien arteko aldeetako bat, batasuna komunikazioari esker berreskuratzea da, argudioen bitartez erabakitzeko baitugu zer den ona eta egiazkoa.⁷⁷

Arrazionaltasun instrumentalaren garapen hazkorrak bizitzaren munduaren kolonizatzeko sistemikoa dakar, baina, Adornok eta Horkheimerrek ez bezala, Habermasek prozesu honen kontrako balibideak izan baditugula esango digu: ekintza komunikatiboaren bidez posible da bizitzaren mundua deskolonizatzea. Hori litzateke gaurko Teoria Kritikoaren zeregina.

Beraz, Habermasek bazterrean utziko ditu modernitatearen ikuspegi apokaliptikoak, bide berriak ireki eta irakurketa esperantzagarria proposatuz. Baina, hori baino gehiago egingo du: Habermas proiektu ilustratu modernoaren defendatzaile amorratu bilakatuko da.

Harritzekoa bada ere, ahalegin horren emaitza zera da: azkenean, bere aurreko maisuek modernitateaz egin zuten ebaluazioaren kontrakoa egingo du berak. Haien aburuz, «erabat administratutako mundua» eta alienazio eta basakeri forma berriak, arrazionalizatzeko-prozesu modernoaren edo «Ilustrazioaren dialektikaren» emaitzat jotako behar dira, Habermasen iritziz, aitzitik, alienazio eta basakeria horiek prozesu hori txarto burutu izanaren emaitza baizik ez dira. Munduak nozitzen duena ez da «arrazoi-gehiegikeria», arrazoi gabezia baizik. Modernitatearen patologiak ezin zaizkio egotzi arrazoiari berari; arrazoi bertan behera utzi izanaren ondorioak dira, edo arrazoiaren dimentsio jakin batzuk komunikazioaren idealari nagusitu izanaren ondorioak... «Mekotasunetik libre den gizarte» bilatze hori oraindik ere gizakiaren emantzipazio-ekintzaren horizonte utopiko gisa ageri da, hori da «benetan arrazionala» dena. Beraz, modernitatea «amaitu gabeko proiektu» legez ebaluatua da eta ez, ordea, gezur handi baten gainean eraikitako prozesu itxuragabetua balitz bezala. Bere distortsioak bistatik galtzen ez baditu ere, Habermas berehala agertuko da ilustrazio-proiektuaren defendatzaile nagusi bezala...⁷⁸

Habermasen iritzian, aipatu kolonizazio prozesua gizarte modernoaren patologia serioena da, baina, egitura eta ekintza komunikatiboak indartzearen bidez badago, egon, esperantzarik. Teoria Kritikoaren egitekoa beti izan da gizarte modernoaren patologia sozialak ur azalera ekartzea, ondoren konponbiderako bideak seinalatuz.

Eremu ekonomikoaren eta politiko-administratiboaren indarrak mugatu eta egoera orekatuagoa lortu aldera (bizitzaren mundua indartuz), beharrezkoa da borondatearen formazio demokratikoa. Hau da, demokrazia partehartzailea da konponbidea, erabakiak berauen ondorioak biziko dituztenen eskuetan jarriz. Sozialismo de-

⁷⁷ Flecha, Gómez eta Puigvet, *op.cit.*, 139 or.

⁷⁸ Vallespín, *op.cit.*

mokratikoa da Estatu eta prozesu ekonomikoa domestikatzeko bidea. Beharrezkoa da azpisistema ekonomikoari eta politiko-administratiboari mugak jartzea.

Mugak jarri behar zaizkie ekonomiaren eta administrazio publikoaren diru eta botere zirkuituei, eta, aldi berean, zirkuitu horiek bizitza pribatutik eta espazio publiko libretik bereiztu behar dira, hots, komunikazioaren bidez egituratu diren ekin-tza-eremuetatik. Bestela, bizitzaren mundua, berari arrotzak zaizkion arrazionaltasun ekonomiko eta burokratikoak inbadituko dute gero eta modu nabarmenagoan.⁷⁹

Gaurko munduaren gaineko diagnostikoak ez ei du baikortasunerako leku handirik uzten. Bizitzaren eremu hori, bizitzaren mundua, ez dago sasoirik onenean. Artea, morala eta zientzia erabat bereiztuta agertzen dira, bakoitza bere erreinu propioan giltzapetuta, bakoitza bere baitan itxita, bakoitza bere logika propioekin. Adituen kultura gero eta alduenduago dago eguneroko bizitzan sortu eta konpartitzen diren lehentasun eta balorazioetatik. Sistema ekonomiko eta politikoaren ezaugarria den arrazionaltasun instrumentalak bere esanetara makurtu du arrazionaltasun komunikatiboaren indarra. Baina badago aterabiderik:

... Habermasen iritziz, gizarte modernoaren patologia nagusia hauxe da: eboluzio sozialaren une honetan, legitimazio tradizionalak zokoraturik, akordio batek soilik —bere eraginpean diren interes guztiak jasotzen dituen akordioak— legitima dezake erabaki bat; eta, hala ere, hitzez bestelako bitartekoek —hala nola diruak edo botereak— ordezkatu dituzte prozesu komunikatiboak, hots, borondateak interes jeneraletara atxikitzea ahalbidetuko luketen prozesu komunikatiboak. Komunikazioaren apendizaiara sozialan jauzi bat emateak bakarrik ahalbidetuko luke egun patologia sozialak gaintzea. Aurrerabide teknikoa gutxietsi gabe, gizartearen benetako *arrazionalizazioak* komunikazioan aurrerapausoak egitea exijitzen du (hots, aurrerabide morala gauzatzea).⁸⁰

Behin eta berriro egiten dugu topo arrazionaltasun eredu biak osagarri egiteko desioarekin, elkarri kontrapisua eginez, biak baitira beharrezkoak, arrazoi teknikoa eta arrazoi morala. Arrazionaltasun etikoaren eta instrumentalaren arteko borroka historikoa, Frankfurteko Eskolako kide guztiek izango dute hizpide, elkarri lotuta behar dutela aldarrikatuz, elkarren beharrean daudela seinalatuz, betiere orekan.

Habermas kritikoa ageri zaigu gizarte garatuekin, ez dutelako erabiltzen kulturalki duten apendizaiarako potentziala. Eta bitartean, konplexutasun sistemikoaren gorakada deskontrolatura emanak bizi dira. Teoria Kritikoa, beraz, burokrazia (estatu) eta merkatuaren aurrean kritikoa azalduko da, elkartasuna garatzeko espazio berriak proposatuz. Honek, besteak beste, zera esan gura du: giza eskubideen onspenaren eta praktikaren alde jardutea (osasuna, hezkuntza, eta planetako guztientzat elikagaiak).

Komunikazio egiturek potentzial askatzaile handia dute eta, kontrol sistemikoen (estatuaren eta merkatuaren) potentzial autoritarioaren aurrean, kontrapisu gisa joka dezakete. Bide honetatik, egitura komunikatiboak indartzearen bidetik, protestarako potentziala sortzen da, eta errekurtsoen banaketa ardatz duten mugimendu tradizio-

⁷⁹ J. Habermas, *La necesidad de revisión de la izquierda*, Tecnos, Madrid, 1996, 135 or.

⁸⁰ Cortina, *Crítica y utopía*, 140.or.

lekin batera (mugimendu sindikalista nagusiki, baina baita kooperatibista ere), bizitza moduak aldatzearen aldeko mugimendu berriak sortu dira (mugimendu feminista edo ekologista). Mugimendu feministaren ondorio praktiko eraldatzaileak nabarmenak dira geure eguneroko bizitzan, erakundeetan, unibertsitateetan eta etxeetan.

Beraz, gaurko munduak diagnostiko positiboegirik ametitzen ez badu ere, badago zeri heldu. Eguneroko bizitzan lortutako adostasun, akordio, konfiantza eta elkarrizketak indartu behar dira, komunikazioari bidea ireki, elkarrekintza bidez gizakion alderdi solidarioak eta bere arrazionaltasun propioak bidea egin dezaten.

ATAL ENPIRIKOA

Kooperatibistak mintzo

FUNDATZAILEEN DISKURTSOAREN ANALISIA

1.1. Abiapuntukoak

1.1.1. Fundatzaileak

Arrasateko Kooperatiba Esperientziaren fundatzaile izateaz gainera, lehen belaunaldiko erreferentziatza hartuak izan diren hiru kide nagusien diskurtsoaren analisia bildu dugu atal honetan: Jose Maria Ormaetxea, Alfonso Gorroñogoitia eta Jesus Larrañaga⁸¹. Arrasateko Kooperatiba Esperientziaren makina bat alderdi eta konturi heldu zaie, joan den mendeko 90eko hamarkadan bertako parte aktibo izateari utzi zion hirukotearekin: haren historia, motibazio nagusiak, balioak, oinarri etiko eta pentsamenduzkoak, bere izateko arrazoia, ibilbidean emaniko lehen urteak, bilakaera, mende Erdiko bizitzan izandako arazoak, egungo egoera, gerorako perspektibak, etc.

Saio horietan Arrasateko kooperatiba munduaren errailetara ez ezik, bihotzera ere so egiteko parada izan dugu. Arizmendiariaren lankide nagusi eta fundatzaile izan direnek Esperientzia horren inguruko beren balorazioak, kezkek, iritziak, beldurrak eta itxaropenak azaldu dituzte.

Beraiekin eginiko saioetako grabazioak, eta geroagoko transkripzioak, balio historiko handiko dokumentuak direlakoan nago, enpresa izan eta egiteko bestelako ideia batean oin harturik, esperimentu sozial jakin bat praktikan ipintzea nahi izan duten kooperatibisten munduan murgildu nahi duen edonorentzat. Bestelako gizartea eta gizakia eratzea zuten helburu, Arizmendiariaren pentsaera kooperatibotik gertuago ibiliko zirenak. Horixe erdiesteari bizitza entregatu dioten hiru gizakien testigantza da hau.

⁸¹ Fundatzaileen iritzien pribazitatea zertxobait babestu aldera, beste izen-abizen batzuk erabili ditugu analisian. Bestetik, hizkuntza kontuei buruzko iruzkina: elkarrizketok gaztelaniaz egin ziren, nahiz fundatzaileetako bi euskaldun petoak izan eta hirugarrenak euskaraz ondo samar ulertu; abstrakzio maila handiko kontuez aritzeko gaztelera dute hizkuntza nagusi. Hori dela-eta, irakurleak gaztelaniaz aurkituko ditu euren aipuak (jatorrizko hizkuntza errespetatu da).

Analisi hau burutu ahal izateko hainbat eztabaida-talde egin ziren, 1999ko irailetik urte hartako abendura arte. Guztira, hiru ordu inguruko bederatzi saio egin zirenenez, hogeita zazpi bat orduko solasaldiek emandakoaren laburpena duzu hau⁸².

1.1.2. Diskurtsoaren testuingurua

Esango nuke eztabaida-talde horiek osatzeko aplikatu den prozedura aski atipikoa dela gizarte-zientzien alorrean, orokorki, eta soziologian bereziki: elkarrizketa eta hitz-aspertuen gidari modura, testu bat erabili dugu, LANKI (Mondragon Unibersitateko Lankidetzaren Ikertegia) osatzen dugun kideok idatzia.

1999ko ekainean idatzi zen *Proyecto Testimonio. Reflexiones y preguntas para un debate cooperativo* tituluko testu luze eta zail samarra. Arrasateko Kooperatiba Esperientziaren hainbat aspektu edo dimentsiori heltzen dieten bederatzi kapituluk osatzen dute idatzia⁸³:

1. Errealitate globalean kokatzea
2. Jarrerak
3. Lana
4. Parte-hartzea
5. Kooperatiba barneko eta kooperatiben arteko elkartasuna
6. Sustraitze-elkartasuna
7. Elkartasun globala
8. Pertsonaren garapen integrala
9. Hezkuntza

Fundatzaileek eginiko saio bakoitzean testuko kapitulu bat edo pare bat jorratu zen. Saioa egin baino hamar bat egun lehenago banatu ohi zitzaien parte-hartzaileei jorratuko zuten gaiari buruzko kapitulua, aurretiaz irakurri eta gogoeta egin ahal izan zezaten.

Azpitarratu nahi nuke praktikan jarritako heterodoxia metodologikoak daukan garrantzia, funtsezko arrazoi batengatik: testuek kolorea eman diote parte-hartzaileen diskurtsoak sortu direneko testuinguruari. Jakina da testuinguruak diskurtso-estrategiak baldintzatzen dituela. Gizakion hitzak eta gogoetak etengabeko harreman eta elkarreraginean bizi dira ingurunearekin. Gure kasuan, testuak berak finkatu zuen parte-hartzaileek Arrasateko errealitate kooperatiboaren gaineko begirada eraikitzeko baliatu zuten markoa. Ondorioz, testu horren orientazio nagusiak agertu behar dira,

⁸² Egiari zor, orriotakoa oso bertsio laburtua dela erantsi beharko nuke. Izan ere, jatorrizko lana asko luzeago eta mamitsuagoa da. Orriotara, diskurtso-analisiaren zenbait atal baino ez ditugu ekarri. Bi dira orriotatik kanpo geratu diren bi gai nagusiak: batetik, identitate kooperatiboaren galtzea arrazoitzeko erabilitako argudio multzoa; bestetik, ahultzen ari omen den identitate kooperatibo hori errekuiperatzeko edo indartzeko fundatzaileen proposamenak.

⁸³ Testuaren egileak Jon Sarasua eta biok izan ginen.

ezer baino lehen; horren bitartez, fundatzaileen iruditeri kolektiboan murgil gaitezen berau motibatuz zuen kanpo-estimulua ezagututa⁸⁴.

Ondokoa da testuaren izaeraren muina: orokorki, esperientzia arizmendiarraren irakurketa ukitu kritiko batez busti da, berez daukan duda gabeko balioa esplizituki aintzat hartuta. Testuak konbinatzen dituen bi dimentsioak bereiztea komeni da hemen. Dimentsio batek — deskribatzaileztat jo dezakegunak — Esperientziaren bilakaera zeharkatzen duten aspektuen gaineko eztabaida formulatu nahi izan du, ez besterik. Horren bidez, gaiak ahalik eta modu objektiboenean zehazten ahalegindu gara, debatea kokatzea, horixe besterik ez baitzuen helburu. Testua ez da agortu, ordea, alderdi deskribatzaile hutsean. Testu osoa zipriztindu duen beste dimentsio batekin tartekatzen da aipatutako ahalegin deskriptiboak: Esperientziari buruzko balorazio jakin batekin, alegia.

Bigarren dimentsio horren bitartez, Arrasateko Kooperatiba Esperientziaz balorazioak isuri dira, deskripzio hutsetik haratago esan bezala. Eztabaida sortzea beste helbururik ez duten hainbat azalpen neutral samarrez gainera, kritika-ildoak, egingakoaz balioztapen positiboak eta etorkizunera begirako jarduera-estrategiak formulatu ditugu; eta, areago, proiektu kooperatiboaren etorkizuna gogoan izaki, balizko *zentzu-bide* batzuk ere proposatu ditugu.

Bigarren dimentsio horren argumentuaren hari nagusia ondokoa da: kooperatiben zenbait aspekturi erreparatuta, Arrasateko esperientzia sozioekonomikoaren identitate kooperatiboaren balizko urardotzea aipatzen da; eta kooperatibak neurri gain orientatu izana merkatuan lehiatzeko duten gaitasuna sendotzera. Horren aurrean, espiritu kooperatiboa birsortu eta suspertzeko premia ez ezik, Arizmendiarrietaren kooperatiba-ideian datzan *gizartearen eraldaketa multidimentsionalean* sakondu beharra nabarmentzen da.

Testuari badario, beraz, kooperatibismoa eta, era berean, Arrasateko kooperatibismoa interpretatu eta begiratzeko modu jakin bat. Honekin zera esan nahi dut: fundatzaileen kontakizunak — geroagoko eztabaida-taldeetan esku hartu zuten gainerako parte-hartzaileenak bezala — diskurtso-ildo jakin batekin erkatu ostean eraiki eta bildu dira: horra, bada, aipatu heterodoxia metodologikoa. Horrek, besteak beste, ondokoa esan nahi du: orriotako iritziak ez dira, nolabait esatearren, behin betiko iritziak. Sasoi eta testuinguru jakin batean bildutako inpresioak dira; batetik, inpresio sendoak, esperientzia kooperatiboaren gaineko irakurketa hauek ez dira-eta azken orduan sorturikoak; baina, bestetik, une (historiko eta pertsonal) eta gune jakin batean sorturiko diskurtsoak dira, ikerkuntza partikular honek diseinaturiko testuinguru zehatzean sorturikoak, alegia.

Hori esanik, nabarmen dezadan — begi bistakoa badirudi ere — guk eginiko irakurketa horrek (*Proyecto Testimonio* izeneko testuak) ez duela determinatu fundatzaileen produkzio diskurtsiboa. Fundatzaileen ikuspegiak berrogei urte baino gehiago dituen bizi-eskarmentuan oinarrituak daude, eta azken orduko ezein testuk (oso zentzuzkoa izanik ere) nekez alda lezake horren funtsa. Kontrakoa esatea testuari

⁸⁴ Espazio faltagatik, aipatutako *Proyecto Testimonio* idatzia ez diogu erantsi argitalpen honi.

berez ez daukan garrantzia aitortzea litzateke. (Esaten ari naizena berdin balio du Bidegile eta Gaurko Protagonistentzat).

Okerreko bidetik gindoazke, era berean, *Proyecto Testimonio* testuaren eragina gutxietsi edo ezetsiko bagenu: testuak ez du mintzakidea jarri irakurketa atsegin baten aurrean; irakurketa kritiko baina eraikitzaile baten aurrean jarri du; horrenbestez, beharbada fundatzaileen posizioa bestelako diskurtso-testuinguruetan izan zitekeen (izan dena, agian) baino kritikoxeagoa agertzen da hemen. Testuari darion aire kritikoak parte-hartzaileen ardatz diskurtsibo edo baloratiboa posizio kritikoago bazueta bultzatuko zuen seguruenera; berezko funtsa aldatu gabe baina.

Testuak ez du, beraz, diskurtso berria *sortarazi*. Ikerlariok idatzitako testuaren eragina bestelako termino bazueta ulertu behar da: fundatzaileen zenbait iritzi, interpretazio eta irudikapen azaleraztea erraztu du. Ondoriozta daiteke, metodologia honi esker, bestelako koordinadetan nekez plazaratuko liratekeen iritzi eta balorazio zenbait jalgi direla. Eta, beharbada, bestelako testuinguruetan galaraziagoak leudekeen diskurtso-elementuak aktibatu dira (saio hauetan agertu diren intentsitate eta sakontasunarekin, bederen).

Aldi berean, ordea, LANKI-kook idatziriko testuaren kutsu kritikoa desadostasun iturri izan da hainbat unetan: parte-hartzaileengan, kritikatu den horren defentsa harrotu du. Metodologia honek, beraz, fruituak norabide bat baino gehiagotan barreiatu ditu.

Azkenik, ikerlan hau Esperientziak berea duen instantzia batek egiteak ere —Mondragon Unibertsitateak—, iritziak libre adieraztea erraztu duela esan behar. Konfiantza eta gertutasun-giroan, komunikazioa irekia eta zuzena izan da, inongo isiltasun-itunik ezarri gabe.

1.1.3. Fundatzaileen posizio soziala

Arrasateko kooperatibek osatzen duten esperientziaren inguruan hamaika iritzi sortu dira euskal gizartean, era guztietakoak sortu ere. Pertzepzioen aniztasun hori bera kooperatiba barnean ere islatzen da. Errealitate sozialeko zeinahi fenomenoren gaineko pertzepzio sozialak hertsiki lotuak egon ohi dira subjektuek gizartean betetzen duten posizio sozialarekin («barrutik» edo «kanpotik» hitz egitea, posizio horren adierazleetako bat baino ez da). Ez dut asmorik aspaldiko eztabaida soziologikoan sakon murgiltzeko, ideiak eta egitura sozialaren arteko lotura aztergai duen eztabaidan alegia, berau aintzat hartuko dudan arren. Horri esker hobeto ulertuko baitira fundatzaileen diskurtso eta unibertso sinbolikoa.

Fundatzaileen posizio soziala gutxienez funtsezko gertakari bik determinatzen dute: kooperatiba munduan urteetan bete duten funtzioak, batetik; eta mundu horrekiko egun duten kokapenak, bestetik. Aurrenekoari buruz, kooperatibetan eginiko ibilbide luzean, protagonista bakoitzak hainbat eginkizun desberdinetan jardun du, baina beti goi-mailako kudeaketan eta zuzendaritza funtzioekin lotura estuan; ardura maila handiko kooperatibistak izan dira, beraz. Ziklo profesional osoa Arrasateko

kooperatiben munduan bete dute denek; hamarkada luzeetan goi-exekutiboak eta, hein batean edo bestean, mugimendu kooperatiboko erreferente nagusiak, baita lider sozial handiak ere, zein esperientzia kooperatiboaren analista eta behatzaileak izan dira. Eginkizun horietan eman dute euren hoberena.

Lan-etika sutsua buru-bihotzetan, bizitza zeregin profesionalari entregatu dioten leinukoak dira. Aurreneko bi hamarkadetan, maiz astero hirurogei ordutik gora eskaintzen zioten lanari; oporraldia, berriz, urtean astebetetxea baino ez. Lanaren kultura sakona bizi izan dute; kultura hori, batetik, gizarte molde historiko jakin baten ezaugarri da, *lanaren gizartearen* edo gizarte industrialaren ezaugarri; bestetik, euren inspiratzaile ideologikoa eta gidaria izan zen J. M. Arizmendiarrjeta apaizaren mundu-ikuskeraren bereizgarri nagusietakoa ere bazen.

Horien belaunaldi eta garai historikoan lana ia-ia balio absolutua izan da. Nork bere burua errealizatzeko eta gizartean integratzeko bide nagusia izan da lana; baita norberaren identitate pertsonala eta baliotasun pertsonalaren sentimendua euskarritzeko elementua ere. Pertsona horiek bizitza osoa eta honen zentzua funtzio produktibo eta profesionalaren gainean eraiki dute; funtzio eta obligazio horiek, gainera, artean ideia kooperatiboarekiko konpromisoaren adierazpenik garbiena ziren. Beraz, XX. mendeko gizarte industrialari zegokion lanaren ideologiaren seme-alabak dira eta, gainera, balio-multzo batekiko nolabaiteko atxikipen pertsonal eta intimoa bizi izan dute. Hortaz, lanak —konpromiso sozial modura ez ezik, besteekiko elkartasunaren eta zerbitzuaren adierazpen gisara ere hartua— pribilegiozko tokia bete izan du.

Esan gabe doa: lana dena izan denean, lanerako ez den denbora, hutsaren parekoa ohi da: seguruenik, hortxe datza fundatzaileen egokieraren gakorik nagusietako bat, baita elkarriketok egin zirenean ere. Bizitza osoa ez ezik, bizitzaren zentzua ere lanean oinarritu duenarentzat erretiro-aldia segurantziarik eza nozitzeko eta burua etengabe auzitan jartzeko garaia bihur daiteke, alferrikakotasun eta frustrazio sentimenduez josia (zenbait kasutan, noski).

Bizitzako azken fase horri bakoitzak bere erara egiten dio aurre, bistan da, eta aldi horrek ez dute zertan angustiak eta zentzu-krisiak markatu. Erretiratzeak pertsonari dakarkion eten biografiko horren aurrean, bada norabide-aldaketarik egitea, bizi-baldintza berriei modu atsegingarrian egokitu ahal izateko. Nolanahi ere, aspektu hori oso kontuan izan beharra dago: lanaren eta honek berarekin daraman funtzio publikoaren gainean bere bizitza pertsonal eta kolektiboa egituratu duenari —are eta gehiago, lanarekiko konpromisoan bildu izan direnean ideal utopikoak eta elementu traszendentetiek—, erretiratzea antzutasunak jotako giltzaperatze toleraezina gerta dakiok. Faktore hori ere aintzat hartu behar da, fundatzaileen diskurtsoaren orientazio batzuk sakonagotik ulertzeko⁸⁵.

⁸⁵ Ez da erraza argitzea erretiroak sorturiko bizipenak euren «galera diskurtsoarekin» duen harremana. Zenbait kasutan, eta lanaren ideologiaz blai bizi izandakoengan asko nabarmenago, lana *galdu* izanak *galera* sentimenduen harrotu eta *galera* ardatz duten diskurtsoak eragin edo indartu ditzake nolabait (bestetik, bizitzaren udagoienean egoiteak, bizitzaren bukaera kudeatu behar den hain une biografiko partikularrean egoteak alegia, izan dezake eraginik, jakina). Horren garrantzia nabarmendu baizik ez dut egingo hemen, kolektibo horren diskurtsoa ahalik eta modu zehatzenean ulertzeko bidea emango digun testuingurua moldatu aldera.

Gogoetatxo horrekin esan nahi dut balitekeela fundatzaileen diskurtsoaren elementu zenbait —adarrak kritikoenetako batzuk, bereziki— egun duten posizio sozialetik ulertu behar izatea, posizio horrek ahalmena izan baitezake kolorez eta intentsitatez ñabartzeko diskurtsoa: kooperatibetan dena izan dira haiek eta, gaitasunez eta ezagutzez osasuntsu badabiltza ere, azken urteok behinola *leit-motiv* izan zuten hartatik urruti bizi izan dituzte, erretiroaren aginduz.

Haietariko bakoitzak erretiroa hartzean eragin desberdina nozitu duela dirudi, normala den moduan, baina bada zerbait hirurek antzera sentituko zutena: bizitzako azken etapa honetan, lan-munduari eta kooperatibismoari norberak eginiko ekarpenaz balorazio positiboa ateratzeko premia denek sentituko zuten, ibilbide biografikoa koherentziaz eta zentzuz jantzi aldera. Norbere bizitzaren gaineko irakurketetan, are gehiago bizitzaren udagoienean, guztiok jo ohi dugu narrazio koherente eta *zentzudunetara*, eta ez porrotak edo zentzurik ezak markaturiko narrazioetara.

Bestetik, Arrasateko Kooperatiba Esperientziaren egungo zuzentze— eta kudeatze-lanetan zuzen parte ez hartzeak fundatzaileak nolabait urrundu ditu bertatik, urruntasun hori afektibo edo emozionala ez bada ere. Urrutiratzeak agian emango zien panoramari perspektiba zabalago batez so egiteko aukera, haien begirada orain ez baitago ekonomia eta merkatu alorretako dimentsioek hain baldintzatua (jardueran dabiltzan protagonistena ez bezala). Eta pentsa daiteke kooperatiben eguneroko jardunean erantzukizunik ez izate horrek errazago egingo ziela jarrera kritikoak agertzea.

Alderdi batez ere sozio-psikologiko horiek azaldu nahi izan ditut helburu zehatz batekin: atal honetan aztergai dugun kolektiboaren ikuspegia eta horizonte diskurtsiboa ulergarriago gerta dadin, zertzelada horiek fundatzaileen bizi-eskarmentura hurreratzen baikaituzte, nolabait. Ohartarazpen hauek iradokizunak baino ez dira, fundatzaileek erakusten duten mapa sinboliko eta sozio-kognitiboaren aurrean ipintzen garenean berori errazago ulertzen lagun dezaketenak.

1.2. Diskurtsoaren gako nagusiak

Atal honetan, fundatzaileen *unibertso sinbolikoa* aztertuko dugu, bi ardatz-kontzeptu hautaturik: ekintza fundatzailearen zein geroko ekimen kooperatiboaren inspirazio-bide izan ziren *balioak*, eta ekintza lagundu zuen *zentzua* (balioei baino gehiago zentzuei erreparatuko diet).

1.2.1. *Balioak*

Kooperatiba-proiektuak tradizioz bereizgarri izan dituen balio etikoak ondo ezagunak ditugunez, ez naiz luze arituko alderdi horretaz. Arrasateko Kooperatiba Esperientziari dagokionez, balioak kooperatiba-tradizio aberats horretan sakon erro-

tu badira ere, esperientzia honek badu bere profil propioa. Balioen zerrenda posible bat ondokoa da (Agirre):

Lana edo lanaren etika
Ardura
Austeritatea
Zintzotasuna eta zuzentasuna
Elkartasuna
Eraginkortasuna eta errealismoa
Demokrazia
Elkarlana
Elkartasuna

Asmoa, dena den, ez da eztabaida-taldeetan aipaturiko balioen zerrenda ekartzea, kontu behinena ez baita Esperientzia honek bereizgarri dituen balioak sintetikoki aipatzea, horien esanahietan murgiltzea baino. Horregatik, esperientzia kooperati-boaren oinarri izan diren balioen zerrenda soil —eta, aldi berean, tipiko— horrez gaindi, komeni da agerian ipintzea hastapenetan Esperientzia horren bizkarrezur motibazionala osatu zuten jokaera eta balore-jarrerak.

Balioa da, guretzat, «pertsona edo kolektibitate batek eredugarritzat daukan izateko edo jokatzeko modua; horri esker, ezaugarri hori (omen) duen gizaki edo jokabidea desiragarri edo estimagarri gertatzen da»⁸⁶. Balioa, hortaz, idealaren eremuan kokatzen da. Eredugarri den aldetik, izateko edo jokatzeko nolakotasun apartekoa da, inspirazio bide da, eta bertaraino iristea gizakiaren ideala izan daiteke. Nolako erueduek eta sakoneko balioek adierazi ote zuten estreinako urrats haien norabidea?

Espainiako Gerra Zibila amaitu eta handik urte batzuetara Arrasaten abian ipini zen zerbait. Apaiz gazte bat eta *Acción Católica* erakundeko gizatalde gaztea herriko bizitza sozial eta kulturean eragiten hasi ziren. Honaino, behintzat, berdina izan zitekeen —izan zen, benetan— euskal geografia osatzen duten herri askoren historia. Baina historia horrek Arrasaten bestelako dimentsio bat hartu zuen. Zerbait abiatu zen, eta «zerbait» hori beste maila bati zegokion. Esperimentu erakargarria izateko itxura zuen haren oihartzunak aditu ziren Euskal Herriko beste hainbat eskualdetan ere, eta jende askok bertan parte-hartzea deliberatu zuen, erabakiak bizitzan biratze latza eginaraziko bazien ere: lanari utzi, bizitzera Arrasatera edo Deba Goienera etorri...; izan ziren halakoak.

Gerraosteko Arrasate hartan sorburua izan zuen gizarte-mugimenduak espiritu arduratsu asko erakarri zituen beraz, bertakoak zein kanpokoak, garaiko errealitate latza gaindituko zuen zentzuzko beste ezertan esku hartzeko irrikatan zeudenak.

⁸⁶ G. ROCHER, *Introducción a la Sociología General*, Ed. Herder, Bartzelona, 1990, 70 or.

Fundatzaileak bertakoak ziren, Arrasatekoak. Zergatik pertsona hauek —fundatzaileen kasuan—, aski bizimodu erosoa egiteko aukera izanik, nahiago izan zuten konpromisoz (baita oztupo ere) josiriko bide ezezagun eta zail hura hautatzea? Zergatik ez bizimodu errazagoa, nolabaiteko aukerak dituzten pertsona gehienek hautatu ohi duten bidea, bizitza seguru eta oparoaren abantailez ondo hornitua? Zein elementuk eraldatu zien bizi-proiektu kooperatiboaren alderako, nahikoa zalantzazkoa bazen ere?

a) *Hezkuntza eta konpromiso soziala*

Kontu horiei erantzuna emateko ahaleginetan dihardugula, gainerakoetatik nabarmentzen den aurreneko balio-elementuarekin egiten dugu topo; Arrasateko Kooperatiba Esperientzia sortarazi zuen bizi-jarreraren esentzia da berau: konpromiso soziala, alegia. Izan ere, *gainerakoekiko konpromisoa* hastapeneko protagonista haien gorputz axiologikoaren gako nagusien artean agertzen da; baliteke horixe izatea gako nagusia. Tasun edo dohain horrek, norberarentzat nahi den izateko eta jokatze modu gisa ulertuta, fundatzaileen bizi-proiektuaren elementu nuklearra osatzen du:

«Yo no creo que en el origen nosotros nos fijáramos mucho en los principios. Nosotros tuvimos una formación diaria, asidua, permanente, en un clima de trabajo y de identificación con los problemas sociales realmente interesante. Luego sin darnos cuenta fuimos entrando en una especie de redil que nos llevó por la vía de hallar en nosotros cierto compromiso con los demás; ése era el planteamiento de Arizmendiarieta. Los demás eran para él la gran cuestión y a nosotros también nos hacía pensar en los demás» (Buruaga).

Izan ere, lehen kooperatiba sortu aurreko urteetan erein egin ziren balio zenbait —besteekiko konpromisoa, tartean—, hezkuntzazko zeregin luze-sakonean. Bizitza sozialean parte hartzen zuten, hainbat jarduera kultural, kirolezko edota ludiko antolatuz eta, horren osagarri gisa, prestakuntza akademiko edo intelektualagoa jasotzen zuten «ikasketa zirkuluaren» bidez. Gerora, gauzak ikusteko modu bat proiektu gisa mamitu zen: printzipio kooperatiboak oinarri hartuta, enpresak sortzea, alegia:

«En la primera fase en la que estábamos creciendo en esas ideas y empapándonos en ese sentido de la justicia a través de lecturas, a través de círculos de estudios, a través de acciones comunes, parecía una bobada hacer carrozas, teatros... Pero con ello fueron calando ideas que más adelante fructificarían en crear cooperativas, porque aquello también suponía una forma de ser gerente o de afrontar temas en la vida. De modo que más que hablar de principios en un comienzo diríamos que tendríamos que hablar de educación en la dirección a la formulación de principios que vienen después» (Buruaga).

Hastapen haietan ez zegoen formulazio ideologiko kontzienterik. Hezkuntza-lan bizia izan zen, eguneroko prestakuntzan, etengabe, konpromiso-giroan. Abiapuntua, beraz, ondokoa da: gazteria hura sozializatzea gainerakoei zerbitzua emateko jarrera ardatza zuten balioetan. Protagonisten hitzak baliatuz, gazte haiei irakatsi zitzaizen «gizarte aurrean izateko eta egoteko modu bat, balioak, jokabide-arauak, bizi-filo-

sofia oso bat». Eta Jose Maria Arizmendiarieta izan zen fundatzaileen eguneroko erreferentzia eta «gizarte aurrean izateko eta egoteko modu» horren transmisore nagusia, «xehetasunetan etengabe irakatsiz eta harrizterainoko eredu izanez».

Arizmendiarietak berak egin zuen enpresa-esperimentu berrirako pertsonen hautaketa, irizpide zorrotza baliatuz:

«(...) Arizmendiarieta en buena pedagogía selectiva, nos había chequeado en nuestra dimensión generosa, en saber darse a los demás. Las carrozas de Navidad, la lotería para el campo de fútbol y un largo etcétera, eran para él la prueba del nueve en desprendimiento y trabajo con y para los demás. Y nosotros no éramos estrategias ideológicas entonces. Ahora quizá largamos con más pose ideológica, pero en el fondo éramos unos ingenuos atraídos por la certeza de las ideas de un hombre guía» (Salterain).

Fundatzaileek eurek aitortzen dute konpromiso soziala izan zela elementu motibatzailer nagusia. Jatorrian, hain handia izanik izaera eta jokaera horri aitortzen zitzaion balioa, enpresa-izatea lagundu eta zentzuz janzteaz gainera, tarteka enpresa-irizpidea bera ere gainditzen zuen. Bestela esateko, garrantzi handiko erabakien aurrean, elkarlan eta zerbitzuaren ideiekiko koherentzia hobetsi izan zen enpresa-izaera hutseko kontuen gaintetik. Horren adibide gisa: arrazionaltasun ekonomiko-enpresariala mugatu egin zen, inguruko enpresa-errealitateekin lehian ez jardunez eta lehiakideek «okupatuak» zituzten jarduera ekonomikoetan ez murgilduz:

«(D. José María) Nunca pretendió que se compitiera con la industria local y buscaba la colaboración multidimensional. Yo diría que éste es uno de esos valores que si yo tuviera que seleccionar (...) diría que es el que distingue «esto» de la sociedad capitalista...» (Agirre).

Iritzi etiko batzuek enpresaren mozkinaren eta arrakasta ekonomikoaren irizpidea bera laguntzen, mugatzen eta, areago, gainditzen zuten inoiz. Zenbait erabaki garrantzizkoetan, irizpide ekonomikoaren gaintetik proiektu etikoa lehenetsi zen (edo parean jarri).

Konpromiso sozialaren balioak —euren bizi-aukeraren iparrizar eta euskarri izan zen balioak, alegia— alor semantiko zabal eta aberatsa osatzen du, eta fundatzaileen diskurtsoan lexiko ugaria biltzen du: «gainerakoez kezkatzea»; «eskuzabaltasuna»; «entrega»; «zerbitzua»; «aberats dezagun gizartea, ez gizakia»; «besteekin elkarlanean jardutea»...

«Realmente nuestro proceso de nacimiento fue el de comprometerse. Para D. José María eso era absolutamente importante, porque era un creyente profundo que percibía los problemas de la sociedad y se comprometía con ellos...» (Agirre).

Ezinezkoa da konpromiso sozialaren ideal hori kristauaren ideietatik bereiztea. Fundatzaileen narrazioan bata bestearen eskutik doaz; euretako bakoitzak bestearekin hertsiki loturik hartzen du zentzua:

«Ha sido una vida muy religiosa, profundamente inclinada a la Iglesia y a los compromisos sociales, la que conformó unas personas y un estado de ánimo en la que sobre todo había generosidad» (Buruaga).

b) Egintzaren kultura

Gizakiaren hobekuntza erdiesteko helburuz, pertsona eta mugimendu askok egin dute proiektu eta planteamendu etikoen alde, mundu hobe eraikitzeko proposamenen alde. Baina, proposamenok errealitatera ekarri dituzten pertsonak ez dira horren ugariak; are eta gutxiago, jakina, hori arrakastaz burutzea lortu dutenak. Esku artean dugun esperientziaren arrakasta-gradua auzitan dagoen arren, begien bistakoa da aldarrikatutako balioak erdiesteko eginiko ahalegina, hots, pentsaera eta egintzaren artean gorpuztu den lotura hertsia. Areago, gauzak horrela, bidezkoa dirudi aspektu hori fundatzaileen kulturak — eta, hedatuz, Arrasateko kultura kooperatiboak — berebera duen ezaugarritzat hartzea:

«Nuestro calor, el de los infantes de primera hora, era el calor por la acción, por lo concreto, en la fase de lanzamiento empresarial» (Salterain).

Arizmendiarrietaren ezaugarri aipatuenetako bat zen hori, hain zuzen: ideia bururatzetik praktikan jarri arteko distantziak labur-laburra behar zuten:

«(...) porque naturalmente nosotros éramos unos grandes ignorantes de las corrientes doctrinales de la época. Hasta tal punto que confiábamos en lo que hacía la Iglesia porque estaba Don José María representándonos y nos parecía que era un hombre ejemplar y que traducía una síntesis maravillosa entre creencias y acción. Era un hombre que proyectaba la creencia con la acción de una forma natural y nos bastaba esto. Repudiábamos el capitalismo sin saber lo que era realmente» (Salterain).

Balioen eta ezagutzen transmisio teoriko-arrazionalizatua egon zen nolabait, baina, hortik harago, fundatzaileek azpimarratzen dutenez, «(transmisioa) egintzari esker gorpuztu da, batik bat» (Salterain). Ideiak eta jokatzeko modu kooperatiboak irakastea, funtsezko piezak dira erduzkotasuna eta, horrenbestez, egintza. Areago, fundatzaileen iruditerian horixe da erdietsi beharreko «izateko eta egoteko» modu eredugarria: izaera ekintzailea.

Handia da *balioak gauzatzeak* fundatzaileen artean hartu duen garrantzia. Alferrik hitz handiak, gauzatzen ez badira; alferrik prozedura eta gertakari ukigarri gisa mamitzen ez diren aldarrikapen ponpoxoak. Arizmendiarrietaren esakune ezagunetako batek honela zioen: «Hitzetan adieraz ezin den ideia ez da ideia on bat; egintza bihurtu ezin den hitza alferrikako hitza da». Adimenetik hitzetara joan behar da, eta hitzetatik ekintzara jauzi egin.

Arizmendiarrietaren pentsaera-ildo tipiko horren haritik, aldarrikatzen den balio bakoitza mamitu, haragitu egin behar da gizarte-estruktura edo egitura juridiko gisa. Horregatik garrantzi handikoa da utopia aingerukeriarik gabe aldarrikatzea eta «utopia eta kimera bereiztea» (Buruaga). Utopiek lanabes konkretuak behar dituzte esturaturak alda daitezten. Ikuspegi kristautik ulertu eta onetsitako balioak — hala nola eskuzabaltasunak eta zerbitzuaren ideiak — haragitze horren premia zuten. Automugatze materiala zen, esaterako, hautuetako bat, eta haragitu behar zen: ordainsarien arteko tarte gizabidezkoaren bidez eman zitzaion forma. Formula horrekin, berdintasuna eta, azken helburu gisa, klaseen arteko aldeak suntsitzea, bi ikuspegi horiek gorpuztu nahi ziren:

«Nosotros partimos de la base de que no por ser cooperativistas íbamos a tener los ingresos de los grandes patrones. Íbamos a ser modestos en nuestros ingresos y uno de los principios que se estableció (...) fue que el que menos ganara uno y el que más ganara tres (...) En principio fue 2,5 y ahí radicaba, en estas cifras tan pequeñas, tan modestas, tan insignificantes, ahí radicaba todo» (Buruaga).

Elkartasunarekin gauza bera: modu konkretuan agertu behar du bere balioz-kotasunaren egiaztagiria. Kasu honetan, sakrifizio (ekonomiko) pertsonalaren bitartez eta alor materiala baztertuz, edo erlatibizatuz, edo mugatuz:

«Yo la solidaridad la he interpretado como algo que cuesta al bolsillo de cada uno a título personal» (Agirre).

Balio nagusietako bat da austeritatea, bizi-jarreratzat, bizitzeko modutzat eta konpromiso sozialari heltzeko eratzat hartua.

Egintzaren balioaz oso kontziente zirudien Arizmendiarrietak: egintzaren balioa aldarrikatzen zuen bizitzan, ez kontenplaziozko jarrera. Pentsaera filosofiko marxistari jarraituz, gizakiak mundua kontenplatu orde, eraldatzeko ahaleginak egin behar zituela zioen.

«En esto Arizmendiarría decía que teníamos excesiva cultura libresca y poca cultura de la acción» (Salterain).

«A Arizmendiarría le inundaron todos de teorías marxistas... y poco posibilistas en el entorno real. Y aquel no andaba con las aventuras de la distancia, sino con la posibilidades objetivas que había en la propia comunidad. Entonces el marketing de él era por prioridades. ¿Qué hace falta? Casas, pues a hacer casas. ¿Qué hace falta? Campo de deporte; pues venga. El siempre llevaba de una forma absolutamente activa su cultura. Le bastaban los conceptos fundamentales del evangelio, (...) sabía de las necesidades, sabía de las prioridades. Sabía que un pueblo alfabetizado es una condición básica y elemental. Pues venga, a favor de ello» (Salterain).

Pentsaera eta egintzaren arteko lokarri estua funtsezkoa izan da kooperatibismoaren arrakastarako. Esaten denean «kooperatibismoa aurrerantzean ez dela garaile izango; ez da garaile izango zuek eredugarriak eta zuen sinesmenekin koherente ez zareten neurrian» (Salterain). Estilo kooperatibista, subjektibotasun kooperatiboa —«gizaki austero, langile, eredugarri»—, egintzan adierazi beharra dago, hortxe jokatzen da benetako partida.

c) *Eraginkortasuna*

Lehen belaunaldiko kooperatibistek partekatzen duten balio-sistemak badu funtsezko beste elementu bat: *eraginkortasuna*; hori gabe ezin uker daiteke Arrasateko esperientziaren kultura, ezta bere arrakasta bera ere. Enpresa izate eta egiteak, ondokoa onartzea dakar, konplexurik gabe onartu ere: ekonomia munduaren izaera eta ebidentzia, eta mundu horretan nagusi den etekinaren eta errentagarritasun ekonomikoaren printzipio saihestezina. Enpresa kooperatiboak ez dira behin ere errealtate etiko-sozial huts edo karitatezko elkartetzat hartu, inondik inora. Kooperatibetan arrazionaltasun ekonomikoa agerikoa da, beharrezkoa eta bere muinaren bihotzean dago.

«(...) es necesario el éxito económico para desarrollar la idea cooperativa, porque la cooperativa es una empresa y no hay una empresa económica que pueda subsistir si no hay éxito económico. Por consiguiente es el oxígeno para poder subsistir» (Buruaga).

Arrasateko kultura kooperatiboa, bestelako kooperatibismo batzuk bere-bereak izan dituzten kontzeptzio klasiko etiko-moral hutsak hautsita, enpresa-izaera kementsu eta lehiakorraz jantzitako kultura kooperatibo arrazionalizatua da. Arizmendiarrietaren pentsamenduan ere, pragmatismoan oinarritutako nolabaiteko heterodoxia hautematen da: kooperatibismoak batez ere bere bideragarritasun ekonomiko-enpresariala frogatu behar du; hortik aurrerako guztia espekulazioa baizik ez da izango. Hortaz, pentsaera kooperatibo arrazionalizatuaren bidez, eraginkortasun ekonomikoa norbere gain hartzen da eta lotsagarria ez den tasuntzat onesten duen esperientzia eraiki da.

«Porque hay que tener en cuenta que para ser cooperativa había que se empresa eficiente, lo decía Don José María. Es más, llegó a decir que más vale una empresa eficiente que una cooperativa ineficiente que no sirve y no da valor añadido» (Salterain).

Arrasateko kooperatibismoak lortu gura izan du agerian ipintzea beharginek enpresa-zereginetan badutela izan trebeziarik; langileriak bere burua (auto)zuzentzeko daukan gaitasuna frogatu nahi izan du; nor bere patroi izan daitekeela, alegia. Bide horretan, aldagai ekonomikoa onartzea ezinbestekoa zen eta, ondorioz, Arrasateko kooperatibismoak haustura erakutsi du bestelako kooperatibagintzarekin: antieconomizista izan eta kudeatzeko gaitasun urria agertzearen historikoki porrota nozitu izan duen kooperatibismoa. Arizmendiarrietak bazekien kooperatibismoaren porrot ugarietz, eta zilborreste hura eten beharra zegoen. Kooperatibismoa egiaz eraldatzaile izan zedin, antieconomizismoan oinarrituriko barne-deabruak uxatu behar ziren bertatik.

«Pues probablemente si llegan a ser otro tipo de cooperativas, igual habría pesado más (...) un sentido más solidario, más espiritual. Probablemente. Pero no se hubiese visto encarnado en lo que es realmente auténtico, y la prueba de fuego: pelear en la vida económica de igual a igual. Al fin y al cabo, la experiencia de Mondragón tiene esa virtud o esa ventaja, esa rareza, y por eso llama la atención» (Salterain).

Arrasateko esperientziak kooperatibismoa lehiakortasunaren ikuspegitik ulertzen du: horra hor gainditu beharreko egiazko proba, fundatzaileen iritziz. Alderdi hori ez omen da erraz onartzeko modukoa, sistemaren aurrean kooperatibismoak erakutsi beharko lukeen izaera errektibo eta kritikoa bereziki nabarmentzen duten sektoreentzat. Salterainek anekdota bat tarteko adierazi du kooperatibista izatea lehiakor izatea bezain garrantzitsua dela aldarrikatzeak sortarazitako polemika:

«Tal es así que a mí en Argentina me armaron un cristo en la universidad a cuenta del concepto de la competitividad, porque dije que una sociedad [empresa] que no era competitiva era un lastre para la sociedad, y que no servía para nada. Eso sonaba a blasfemia absoluta, y normalmente estaban en contra (...)» (Salterain).

d) *Demokrazia*

Labur esango dut: enpresan demokrazia finkatzeko proiektua funtsezko balio edo indar-ideia izan da. Arrasateko Esperientziaren motibazio giltzarrietako batzuk dira langileek beren burua gobernatzea, botere-organoetan zuzenean esku hartzea eta, hortaz, funtsez eraldatzea harreman sozial kapitalistak eta enpresa kapitalistako botere asimetrikoaren metabolismoa:

«Son valores simples, básicamente son valores democráticos, gestión compartida entre los trabajadores de forma que permita el acceso a los trabajadores a los órganos de poder, a los órganos de gestión y en definitiva demostrar que los trabajadores formados son capaces de gestionar la empresa como han sido los otros capitalistas.» (Salterain).

1.2.2. *Zentzua*

Eginbideari eta bizitzari zentzua atxikitzeke premia izan du gizakiak beti. Berger eta Luckmann soziologoek diotenez, eginbide eta bizitzaren zentzua gizakiaren berezko osagaia da⁸⁷. Zentzua, bide batez, honela defini dezakegu: «(pertsonak dituzten) esperientzien artean lokarria dagoelako kontzientzia»⁸⁸. Zentzuaren kontzeptuaz ari garenean, pertsonak bere indibidualtasunetik eraikitzen dituen zentzuez baino gehiago (horiek pertsonalak eta ezin transferituzkoak dira), intersubjektibitatearen alorrean agertzen diren beste horietaz dihardugu; komunitateak partekatzen dituen zentzuak dira horiek edo, bestela esateko, gizaki batzuk beraien artean komunikatu eta lotzen dituzten esanahiak.

Fundatzaileen kolektiboak Arrasateko Kooperatiba Esperientziari eman dion zentzuaren analisiaren bidez, beraiek partekatu dituzten asmo, esangura eta azken jomugetan murgilduko dira ondoren datozen lerroak. Arrasateko mugimendu kooperatiboa sortu zuen ekinbide sozialari egotzi zaizkion esanahi kolektiboak aztertuko dira: ekinbide horren zergati eta zertarakoak, bere azken arrazoia.

Jakina denez, Arrasateko Kooperatiba Esperientziaren azken asmoek alor ekonomiko-enpresarial hutsa gainditu zuten. Praktika ekonomiko-enpresariala zentzuz janztea eginkizuna duten esanahiek nolabaiteko konstelazioa osatzen dute; edo, beste hitzetan adierazteko, Arrasateko kooperatiba-proiektua, bere azken asmoei dagokienez, balio ekonomikoa sortzea bilatzen duen asmo hutsetik haratago doa. Fundatzaileek, hastapenetatik, esperientzia horri esanahi kolektibo jakin bat eman zioten, zentzu-komunitate bat osatu zuten eta bertan oinarritu zuten beren bizitza profesionala, identitate pertsonal eta soziala, eta bizi-jokabide osoa. Zentzu eta esanahiek, kooperatibagintzaren alde piztu zen ekinbide sozialaren zergati eta zertakoak adierazten dituzte, osagai ideologikoak dira nolabait.

⁸⁷ P.L.Berger, & T. Luckmann, *Modernidad, pluralismo y crisis de sentido*, Paidós, Bartzelona, 1997.

⁸⁸ Berger & Luckmann, *ibid.*, 32 or..

Hona galdera, hortaz: zein dira fundatzaileen kulturan praktika ekonomikoa zentuz jantzi duten esanahi horiek? Zein, azken jomugak?

a) *Zer (eraldatu): auzi soziala*

Zentzu-elementu denetan lehena hauxe da: *auzi soziala* izenekoari konponbidea bilatzeko saiakera gisa eratu zen Arrasateko kooperatiba-proiektua.

Jakina denez, auzi sozialtzat jotzen dugu lana eta kapitalaren arteko gatazka historikoa, iraultza industrial eta produkzio sistema kapitalista iristean azaleratu zena. XX. mendea amaitu arte bederen, gizarte industrial kapitalistetan gatazka sozial nagusitzat hartua izan da, eta batez ere eremu sozio-espazial jakinean hartzen du ostatu: enpresa kapitalista. Enpresa, gatazka sozial moderno gertatzen den zentro neuralgikoa da, espazio horretan gorpuzten da gizarte industrial kapitalistarekin batera azaleratzen diren subjektu kolektibo nagusien arteko gatazka —enpresariak (kapitala) eta langileria (lana)—.

Testuinguru sozial honetan piztuko da, ez soilik Arrasateko kooperatibismoa, kooperatibismo modernoa, oro har. Aranzadiren hitzetan, «kapitalismoaren bidegabeberien aurka langileriak izaniko erreakzio baten ondorioz sortu ziren kooperatibak»⁸⁹. Kooperatibismo modernoa aro industrial kapitalistaren hastapenetan agertu zen, aurreneko kapitalismoaren kontra herri-klaseek eraginiko erreakzio modura. Beraz, kooperatibismo modernoa, oro har hartuta, garai modernoan gatazka sozial nagusitzat jotako horri konponbidea emateko saiakera gisa sortu zen. Motibo nagusi hori bera da Arrasateko Kooperatiba Esperientzian aurkitzen dena, munduan izan den kooperatibismo industrial modernoaren agerpen, agian, handiena eta arrakastatsuen.

Arrasateko gerraosteko urteak gerrako zauriek markatu zituzten: elkarren etsai izan zirenen arteko gorrotoa, familia hautsiak, egoera sozial tamalgarria. Hitz batez: bizi-baldintza prekarioak, pobrezia, desberdintasun sozial nabarmenak, segurantziaz eza, bazterketa, eta antzeko fenomenoak, tuberkulosiak eta bestelako gaitzek larriagoturik. Halakoxea zen eszenategia: ekimen eraldatzailearentzat ederki ongarrituriko soroa; espirtu arduratsuek gizartea eraldatzeko eta bizi-baldintzak hobetzeko nahiak eraiteko aproposa. Horixe izan zen fundatzaileek mamituriko ekimenaren zentzuaren parte bat: kontua zen, auzi soziala behin-betiko konpontzerik ez bazegoen ere, gutxienez hari aurre egitea.

«(...) la cuestión social, en la que crepitaban desde el salario hasta las horas de trabajo. Diríamos el tratamiento de las personas y todo lo que concernía a la poca capacidad que tenía el trabajador de vivir con cierta comodidad: obligado, con el salario que tenía, a destinar casi el 90% a comer y comía mal, y el otro 10% a las demás cosas... Se creó en nosotros una especie de atmósfera con la *cuestión social* como término común». (Buruaga)

⁸⁹ D. Aranzadi, «Orígenes históricos y asentamientos ideológicos del asociacionismo socioeconómico», in *Congreso de Cooperatibismo*, Eusko Jaurlaritz, Gasteiz, 1988, 34 or.

Kooperatiba enpresa da eta bere helburu berehalakoak errentagarritasun terminoetan formulatzen dira, baina, bere azken funtsa «langileriaren emantzipazioa» da —azkena izanagatik, ordea, ez da garrantzi eskasenekoa, alderantziz baizik—. Horregatik, Copreci sortu zen unean (erreferentziako kooperatibetako bat), kooperatibaren helburu industrial eta helburu soziala argi eta garbi bereizi zituen:

Cuando los estatutos de Copreci, (...) se quería distinguir perfectamente el objeto industrial del objeto social. Se corrigió muy antijurídicamente en el siguiente sentido: «El objeto social de esta cooperativa es la emancipación de la clase trabajadora. El objeto industrial la producción de componentes para electrodomésticos» (Agirre).

Arrasateko kooperatibismoa, neurri handi batean, gizarte kapitalistak —eta honi ezinbestez zegokion klase-borrokak— probokatutako egoera sozial dramatiko hari kristautasun sozialetik eman nahi izan zitzaion tratamenduaren ondorio da. Arizmendiarietak, Gasteizko Seminarioan ikasi zuenean, bai gai sozialetan nola teologikoetan, garaiko kristau pentsamenduko korrante modernoekin konektatu zuen: Barandiaranen eta honen lankideen ikaslea izan zen, eta hogeita hamargarrenetako hamarkadan, gerrate zibilak eztanda egin arte, gizatalde horrek —auzi sozialaz, besteak beste— egin zituen hausnarketa eta proposamenetatik elikatu zen. Ikus ditzagun, labur, zeintzuk diren hausnarketa eta proposamen horiek.

Leon XII.aren *Rerum Novarum* entziklika plazaratuz geroztik, *auzi sozial* izeneko indar-indarrean egon zen eliza-barneko mundu hartan. Garaiko Elizak zientziaren eta kultura modernoaren aurrean agertzen zuen intransigentziarekin alderatuta, Barandiaranen taldeak bestelako mundu-ikuskerara eta bestelako pentsaera ordezkatzeko zituen: kristautasunak garai berrietara egokitzeko premia larria agertzen zuenez, modernitatearekin elkarrizketan hastearen alde agertu zen eta, bide horretan, Seminarioan bertan norabide-aldaketa pedagogiko latza egin zuen, ikasketetan soziologia, psikologia kolektiboa, etnologia eta filosofia sartuz; beti ere errealtatea ezagutzeko eta, bertan oin harturik, Euskal Herri osoan hedatzen ari ziren joera sekularizatzaileen aurka aritzeko.

Gizartea nozitzen ari zen deskristautze eta laikotze nabarmenaren kontra, *apaiz sozialaren* figura sustatu zuten: horrelako erlijio gizonak, errealtatetik urrundu ordez, bizitza sozialeko alderdi denetan inplikatu behar zuten. Hori, dudarik gabe, Barandiaranen taldearen aldetik, gizarte-interbentziarako egiazko programa berritzailea zen, inongo espaziotan jarduteari uko egingo ez zion apaiz-mota berria prestatzea helburu zuena⁹⁰. Testuinguru horretan prestatu zen Arizmendiarieta humanoki eta intelektualki, eta bere jarduna, bistan da, Barandiaranek zuzentzen zuen sektoretik defendatu eta errebindikatu ziren ikuskera eta jarduteko eraren adierazpen garbia da.

Pérez de Calleja-k aipatu duenez, «Eliza, edo Elizaren parte bat, jabetzen hasiko da, XX. mendean sartutakoan, klase-gatazka baten osagai dela; arazoari konponbidea emateko modua aukeratu beharko du: eskuinak ordezkatzeko duen botere

⁹⁰ Antonio Rivera eta Javier de la Fuente, *Modernidad y religión en la sociedad vasca de los años treinta*, EHU/UPV, 2000

faktikoaren alde inolako eskrupulurik gabe agertuko da edo, bestela, kontrako hautua hobestea imajinaezina zenez, hirugarren bidea bilatuko du, oraindik alde zeuzkan langile-klaseko haien auto-antolakuntzaren bidez; hortxe ziren kooperatibak, esate baterako»⁹¹. «[Arizmendiarieta] Apaiz izaerak eroan zuen kooperatibismoa aukeratzera» (Buruaga).

Lehen kooperatibaren sorrera bultzatu aurretik, ordea, errealitate sozialari helitzeko beste hainbat saiakera egin zituen Arizmendiarietak, Elizak finkatua zuen jardunbidearekin bat zetozenak —Elizaren sektore aurrerakoienak, zehazkiago—. Hezkuntza lanari loturikoak izan ziren saiakerotako batzuk: batetik, ikasketa-zirkulu-luen sorrera —honelakoetan hazi eta hezi ziren Arrasateko Esperientzia Kooperatiboko fundatzaileak⁹²—; bestetik, gerraostean, lanbide heziketako eskolen sorrera ere —hauetan ere hezi ziren fundatzaileak—. Antonio Riverak eta Javier de la Fuentek eginiko ikerlanaren arabera, «ateismoaren aurka borrokatzeko lanabesik eraginkorrena ikasketa-zirkuluak ziren; hauen helburu nagusia, langileen artetik elite bat prestatzea zen, honek ideia sozial-kristauak hedaraz zitzaizkien»⁹³.

Elizako zenbait sektore hasi zen formula kooperatiboko enpresa-ekimenak sortzen: Euskal Herrian bertan, apaiz asko jardun ziren herrian herriko kooperatiba sortzeko ahaleginetan, baina, aurrerago esan bezala, Arrasateko esperientzia gainerakoe-tatik gailendu zen, erdietsitako dimentsio, izaera eta emaitzak medio. Kristautasuna suntsitzea jomuga zuten sozialismo, anarkismo, komunismo eta gainerako indarrek aurrera egitean, Elizak errealitatean jardun behar zuen, eta langileriarri konponbide duin eta sinesgarria eskaini. Izan ere, kristautasunaren eta honen erakundeen aurrean langilea geroz eta axolagabeago —areago: aurka— agertzen zen, argi eta garbi. Tes-tuinguru horretan sortu zen Arrasateko kooperatibismoa.

Fundatzaileen motibazio kristauak ez du ezbairik: fededun izatean datza kooperatiben sorrerari eman zioten zentzuaren parte handi bat. Areago, egintza fundatzaileari benetan zentzua eman ziona dimentsio kristaua da, gaur egun esperientzia hori erlijio-esanahiez blaitzea inortxok ere errebindikatzeko ez duen arren; ezta be-raiek ere.

«Probablemente la dimensión cristiana que alienta el proyecto arizmendiano es el componente, dimensión o faceta que más le distingue. Y no he visto exégesis de sus escritos y de su obra que se haya detenido a pensar en ello y a aflorar este aspecto que se halló en el origen de la experiencia, y que fue el resorte que alentó a sus colaboradores más cercanos. El «hombre cooperativo» arizmendiano no puede entenderse sin la acepción cristiana y evangélica que envuelve a ese hombre. (...) [hoy] casi a ninguno se le ocurriría dotarle de la impregnación religiosa que nutre permanentemente el pensamiento arizmendiano. También estoy de acuerdo en decir: «esto está bien, pero ahora no aportaría nada»» (Buruaga).

⁹¹ A. Pérez de Calleja, *Arizmendiarieta, el hombre de acción*, Gizabidea Fundazioa, Arrasate, 1989, 10 or.

⁹² Bertan, garaiko pentsamendu soziala eta gizartea aztertzen zuten. *Akademia Sozial* edo *Soziologia Akademia* ere ditu zitzaion. Gogoratu, era berean, Arizmendiarietaren guraria Lovainako Unibertsitatera joatea zela, soziologia ikastera; Elizako hierarkiak ez zion biderik eman eta Arrasatera bidali zuten.

⁹³ A. Rivera eta Javier de la Fuente, *op. cit.*, 70 or.

Azpirarratu ditugu hemen pentsamendu sozial-kristauak, hogeita hamarreko hamarkadan, auzi sozialaren aurrean proposatu zituen hausnarketak eta jardunbideak, berebiziko garrantzia baitute: horiek euskarri hartuta interpretatu behar dira, Arizmendiarraren pentsamendua eta ekinbidea ez ezik, sorrerako lehen belaunaldiko kide gehientsuenen motibazio nagusienak ere. Ikuspegi horretatik, fundatzaileak produktu soziohistorikoak dira, euren garaiaren taupaden oihartzun borobila.

b) Zelan: egiturak aldarazi

Horrek, dena den, ez du esan gura egintza fundatzailea euskarritu zenik corpus ideologiko argi, ordenatu eta ongi definitu batean. Hasierako sorrera-une haietan fundatzaileek ez dute printzipioen edo ideologiaren formulazio kontzienterik. Badi-rudi fundatzaileen baitan justizia sozialaren aldeko sentimendua eta antikapitalismo lauso antzeko bat gauzatzen ari direla, nolabait. Enpresa kapitalistaren estruktura, izaeraz, justua ez dela ikusten da. Estruktura horretan botere-asimetria gordina dago, eta langileari botoa eta hitza ukatzen zaizkio:

«Hablar de principios en el origen sería un algo presuntuoso (...) Al comenzar, nuestros objetivos eran de generosidad, igualdad entre los demás y de ir contra la situación predominante en la que las diferencias de clases eran abrumadoras, donde el trabajador no tenía nada que decir en la empresa y el empresario lo era todo en la empresa: el gran magistrado.» (Buruaga).

Diagnostikoa argi zegoen: garai hartako enpresa kapitalistak langile gehien-gehienak heteronomia-egoera ia erabatekoan utziak zituen (gogoan izan dezagun Francoren garaian erabat debekatua zegoela langileria-estrukturazio sindikal eta politikoa). Gehiengo zabal batek duintasuna minduta eta bizi-baldintza eskasak zituen, eta, testuinguru honetan zeregin handia zuten konpromiso sozialean oinarrituriko hezkuntza-lanak, eskuzabaltasunak, besteei zerbitzua emateak eta gisako baloreek:

«De modo que en la primera parte los principios eran de preocuparse por los demás. Los principios eran de mayor justicia entre las personas. Un hombre distinto que tuviera soberanía en el trabajo y evidentemente también que tuviera ingresos de los resultados de las empresas. Yo creo que ésa era un poco la circunstancia que se vivía en aquella época. Era la educación y una circunstancia determinada» (Buruaga).

Garbi dago diagnostikoa: enpresa kapitalistaren botere-egitura, bere izaeraz, bidegabea da, desberdintasun sozialak erreproduzitzen baititu eta, gainera, ez du bermatzen pertsonaren duintasuna. Bada, diagnostiko horrek berak entzunaraziko du konponbide arizmendiarraren taupada nagusia: izaera kapitalista horren eraldaketa estrukturala, hain zuzen:

«Los principios radicaban en hacer más justa la vida, y llevar a cabo una mejor distribución de lo que se producía, de la riqueza que se producía. Para ello había que cambiar las estructuras» (Buruaga).

Diagnostiko kritikoak enpresa kapitalistaren egitura bera hartzen zuenez muintzat, egitura bera eraldatu behar. XIX. mendearen amaieratik Espainiako Gerrate Zibilera arte, kooperatibaren formula onetsi, defendatu eta aplikatua zuten euskal na-

zionalismoak, sozialismoak zein katolizismoak. Formula egokitzat zuten auzi soziala gainditzeko eta euretako bakoitzak sostengatzen zuen proiektu sozial-ideologikoaren alde egiteko⁹⁴. Katolizismo sozialari dagokionez, Elizak bere dotrina sozialean defendaturiko postulatuak ziren kooperatibismo katolikoaren oinarriak. Arrasateko kooperatibismoan ere, Elizaren dotrina sozialaren oihartzun zabala dugu.

«Realmente el proceso nuestro de nacimiento fue el de comprometerse. Para Don José María eso era absolutamente importante porque era un creyente profundo que recibía los problemas de la sociedad y se comprometía con el tema, de ahí que su eslogan primitivo era modificar las estructuras de la empresa, en fidelidad a la doctrina social de la Iglesia». (Agirre)

Arizmendiarrietak auzi sozialari aurre egiteko proposatzen zuen modua ez dator bat gizarteko sektore kontserbadoreek proposatzen zuten asistentzialismoarekin (edo aitakeriarekin). Ez dezagun ahanztu, bide batez, Espainian Eliza Katolikoak, oro har, ederki sintonizatzen zuela Francoren erregimen diktatorialarekin. Fundatzaileen iruditeri kolektiboan, norabide eraldatzailea behin eta birritan errepikatuko da slogan gisa: «egituren eraldaketa». Kooperatibismo arizmendiarrari bere genesian egotzi zitzaion zentzuak funtsezko ezaugarri bat zuen: enpresak bere-bereak zituen harreman sozialak errotik aldatu beharra, zeinahi ikuspegi asistentzialista alboratuz:

«Don José Maria [a la cuestión social] le dio otro valor; es decir, cambiar las estructuras. Las estructuras no podían seguir siendo las que ya existían. Tenían que cambiarse. No se trataba solamente de que al peón en vez de pagarle 1500 pts. le pagaran 2000, o al oficial en vez de 2000, 2500. No. Había que cambiar las estructuras para que eso tuviera consecuencias hacia el futuro» (Buruaga).

Kooperatiba propioak hutsetik sortzen hasi aurretik, bestelako ahalegin bat egin zen: orduan martxan ziharduen enpresa kapitalista «barrutik» eraldatzeko saialdia. Enpresa sakon erreformatzeko saiakera hura, artean Arrasaten zen faktoriarik sendoenean praktikan ipini gura izan zuten: «Unión Cerrajera de Mondragón». Lantoki horretantxe ekin zioten bide profesionalari Esperientziako fundatzaileek, eta enpresa kapitalistak bereak dituen baldintzak jasan ere bertan egin zuten.

Estreinako kooperatiba sortu aurretiko lehen fase hura bete behar izanak badu garrantzirik, garrantziaren neurria zehaztea erraza ez den arren. Alde batetik, frogatzen du printzipioek eta aspektu ideologikoez osotasun lauso bat moldatzen zutela; ildo ideologiko (kooperatibo) zehatz bat baino gehiago, balio konstelazio bat zegoen, indarrean zen injustiziazko mundua onesten ez zuena. Ideia nagusi bat partekatzen zuten: langileriaren egoera aldatu beharra zegoen, prozesu ekonomikoan aktiboki eta arduraz esku hartzeko aukera ebasten zitzaiolako beharginari, eta, horrenbestez, baita bere etorkizuna egikaritzeko aukera ere. Gerora, ordea, pertzepzio eta sentimendu olde hura kooperatiba-proiektu modura gorpuztu zen:

«De la misma forma que creamos cooperativas podía haberse atascado esto si la empresa en la que trabajamos hubiera cambiado sus modelos de comportamiento. Por ejemplo, si hubiera hecho que todos los obreros de la Unión Cerrajera, donde trabajá-

⁹⁴ Leire Arrieta eta beste, *El movimiento cooperativo en Euskadi 1884-1936*, Fund. Sabino Arana, 1998.

bamos nosotros, hubieran sido socios de la empresa a través de las acciones. Hubo un intento de que un 20% de la acciones pasaran a los trabajadores, intento que fracasó» (Buruaga).

Buruagak berak:

« (...) en 1950 cuando se planteaba a las empresas que facilitaran el acceso a la propiedad de sus trabajadores y se negaban. Por eso surgió el cooperativismo» (Buruaga).

Arizmendiarietaren pentsamenduan, pertsonaren filosofia enpresaren filosofia-ren aurretik zetorren. Pentsamenduaren iparrizarra zen pertsona integralaren ideiak talka egiten zuen gehiengo sozialari gizarte kapitalistak egotzia zion zereginarekin (elkarren aurkakoak ziren): kapitalismoaren ikuspegitik langileria bere lan-indarraren saltzaile soila zen; salerosteko merkantzia hutsa. Errealitate hura bestelako bihurtzea zen motibazio nagusia eta, hasiera batean, eraldatze hura zuzentzeko modua ikusi zen langileari akzioak salduz, enpresan parte-hartzeko aukera emanez, nolabait. Kontu hau xehetasunez Salterainek azaldu digu:

«Porque él [Arizmendiarieta] en principio, hizo unos estatutos que se llamaron Ulgor S.A. Dichos estatutos componían tres partes, que eran: socios capitalistas; socios trabajadores; y socios entre los dos, elegir 1/3 mixto. Entonces Alfonso y compañía esos estatutos los llevaban allí y los traían otra vez, porque el de registrado les decía que esos estatutos eran de Don José María Arizmendiarieta y no de la ley de la S.A.

Don José María desde el principio tuvo la idea de hacer una empresa conectada, conmutada como se dice ahora, con la sociedad capitalista. Porque él sabía que los capitales eran un flujo necesario, y de hecho en los primeros estatutos los capitales incluso tenían remuneración variable, lo cual era una heterodoxia.

Pero él siempre tuvo en la cabeza la necesidad de la presencia de los capitalistas y de hecho si en aquel entonces la famosa ley de cogestión alemana llega a tener expresión en España. Probablemente hubiéramos hecho una sociedad distinta a la que hicimos, e incluso las propias SALES [Sociedades Anónimas Laborales], que después vino la solución de la SALES, combinación de trabajadores y capitalistas» (Salterain)

Herri-klaseen bizimodu prekariora duintasunez janzteko hasierako kemen haiek enpresa kapitalistan bertan gauzak aldatzeko jomugarantz bideratu ziren eta, horrela, langileari egoera hobetzeko aukera eskaini zitzaion, parte eta konpromiso handixeagoak hartzearen bidez; behargina, besteren proiektu bateko konpartsa hutsa gabe, duintasun-subjektu gisa irudikatuz. Argi zegoen ideia: langileriaren egoera duin bihurtzea, prozesu sozio-ekonomikoaren gaineko ardura handiagoak hartzea, protagonista bilakatzea, ordura arte beharginak zuen merkantzia-izaera gainditzea. Kontua zen, beraz, langileari jardunbide kapitalistak historikoki egotzi izan dion status politikoa aldatzea, lan-indarraren saltzaile baino ez baitzen kapitalaren ikuspegitik. Eraldaketa haren ondorioz, aldatuko zen, baita ere, gizarte industrial-kapitalistarekin batera agertu ziren bi subjektu kolektibo handien —langileria eta enpresarioen— arteko botere-harremana. Horri esker, desberdintasun sozialak minimizatu egingo ziren eta lanaren statusa arras desberdin kontsideratuko zen, lan-

gilea erabaki-subjektu bihurtuko zen-eta. Ideia horri kooperatiba jantzia geroago ezarri zitzaion.

Sorburuko asmoak «klaseen arteko aldeak ezabatu eta egestura sozio-ekonomikoak eraldatzea» izanik (Buruaga), «Unión Cerrajera» firmak ezin gaindituzko eragozpenak ezarri zizkion helburu horiek erdiesteari; ezinbestean, noski. Gauzatu nahi zen eraberritze-proiektua enpresariak ezin zuten onartu (are gutxiago, kapitalismo amorratuko enpresariak), hura botere-orekaren funtsezko eraldaketa baitzen (oreka horren grabitate-zentroa aldatzea proposatzen zen, langileria alderako lekualdatze erlatibo baina garrantzitsua, hain zuzen).

Azken buruan, proposatutako erreformak bideragarritzat jo ez zirenez, hura eraldatzeko proiektua bertan behera utzi eta bestelako bat eratu zen: enpresa berria (kooperatiboa) sortzea, alegia. Alde batetik, enpresa barnean, harreman sozialen bestelako irakurketa globala izan zen aukera posible bakarra, enpresa kapitalista barrutik eraldatzea erabat ezinezkoa baitzen; beste aldetik, fundatzaileen kolektiboaren buruan bueltaka zebilen justizia sozialaren ideiatik gertukoena horixe zen, zalantza barik: parte-hartze integrala zen aldetik, sistema kooperatiboan beharginak esku hartzeko aukera dezente handiagoa izango zuten, enpresa kapitalistaren akzioetan oinarrituriko parte-hartze mugatu hura baino handiagoa.

Hura, beharginen alderako boterearen lekualdaketa baino areago, gizarte moderno kapitalistak bereak dituen subjektu bien integrazioa zen —langileria eta enpresario-klasea—, beste subjektu eta identitate kolektibo bat sortzeko saiakera, beraz. Bi elementu nagusiak, lana eta kapitala, subjektu indibidual eta kolektibo bakarrean bat eginik suertatuko ziren. Identitate berri horretan baina, kategoriak bestela antolaturik zeuden: lana elementu nagusia izango zen eta kapitala, menpekoa.

Hala ere, enpresa-ideia berria egikaritu ahal izateko bestelako enpresa-kontzeptu bat ere eratu behar izan zen. «Eraikin» sinboliko-identitario berria altxatu zen, eta eraldaketa-proiektua eraikin haren zimenduetan egongo zen. Formula egokiena zen huraxe, kontzeptuan bertan aktore guztien arteko berdintasun handiagoko harremana aldarrikatzen baitzen; berdintasun horretan oinarrituko zen proiektu sozio-enpresariala. Horri esker enpresa humanoago bihurtu ahal izango zen.

«Porque teníamos más o menos la experiencia sobre todo Alfonso y Ormatxea que habían peleado en la Unión Cerrajera a nivel directivo, comités... en el sentido de que los trabajadores, por el hecho de ser trabajadores, en cierta medida se les debía dar un asiento en el consejo de Administración, copartícipes del desarrollo de la empresa. Estas son las ideas, más o menos. Lo que pretendíamos era que el trabajador de forma más natural y jurídica entrara en la participación de la empresa y que se conformara una especie, que después llamábamos muchas veces, democracia industrial o cosas equivalentes. Incluso autores como Erich Fromm ponían en sus libros el estado ideal del tipo de cooperativismo que desarrollábamos, eso era una conformación lógica de una sociedad desarrollada» (Salterain).

Nolanahi ere, eraldaketa estrategiaren oinarria enpresa kapitalista erreformatzea edo kooperatibak sortzea izan, kontu nagusia bestelakoa zen: fundatzaileen motibazio mordo hartan, gizartea eraldatzea zen asmo sendotako bat. Errealitate soziala

eraldatzeko desioa, betiere emantzipazioaren aldera, fundatzaileen zentzu-corpusaren bihotz-bihotzean agertzen da. Hortxe dago esperientziari —eta bertan beraiek eginitiko lanari— aurkitzen dioten zentzu-oinarri garrantzisuenetakoa.

c) *Nork: langileriaren auto-emantzipazioa eta autonomia*

Labur bildu dezadan:

- Arrasateko Kooperatiba Esperientzia eta fundatzaileen konpromiso soziala auzi sozialaren biran eratu zen;
- Aekinbide horri esleitutako zentzua borobiltzeko, bigarren kontsiderazio bat: ekintzaren logika ez zihoan asistentzia-egiturak indartu edo sortzeko bidetik, nahiz eta horixe izan zitekeen hautaturiko bidea (gogoan izan dezagun hori bera zela ahalegin sozial gehienetan nagusitzen zen logika, kristau munduko sektore kontserbadore eta boteretsuen artean, batik bat); jarduteko aukerak ha maika baziren ere, auzi sozialari estrukturak eraldatzearen bidez aurre egitea hautatu zuten.

Badakigu *zer* (auzi soziala) eta *nola* (enpresa kapitalista eraldatuz) egin nahi den. *Nor* da, ordea, eraldaketa horren subjektua? Erraza da erantzuna: langileria. Begien bistakoa badirudi ere, horrek ere badu garrantzia. Azken finean, berori da, akaso, esperientzia horren zentzuaren oinarri-oinarria: gizarte bateko botere-orekan desabantailan dauden subjektuak dira, hain zuzen, aterabidearen subjektu izan beharko dutenak, bitarteko instantziarik gabe. Gaurko hizkeran adierazteko, gizarte zibilaren protagonismoa eta ekintza kontzientea da gakoa.

Bestela formulatzeko, Arizmendiarrietaren —eta fundatzaileen— pentsamenduaren eta ekintzaren azken guraria langileriaren erabateko *integrazio soziala* da, eta hori erdiesteko mekanismoak antolatzea. Langilea bere gizartean eskubide osoko kideztat hartua izan behar da, erabateko hiritartasun-egiaztagiria ezarri eta ezarpen horrek dakartzan eskubide, betebeharrak eta erantzukizun guztiak aintzat josta.

Habermas-en hitzetan, gizartekideen integrazio sozial kontziente eta auto-arautuaz ari gara, ez integrazio sistemikoaz (honakoan, gizakien jokabide funtzionalak kanpotik arautuak dira). André Gorz-ek dioen moduan, batetik, heteronomia dugu (gizarteratze funtzionala), kanpo-logikek gizakiari inposaturiko jokabidea alegia, egileak zeinahi asmo edo kontzientzia duela ere; bestetik, autonomia: lankidetzara edo auto-araututako integrazioa, gizabanakoek beren burua antolatzeke duten gaitasunean oinarritua.⁹⁵

Kooperatiba-esperientzia protagonizatu zuten lehen belaunaldiko kideek eta fundatzaileek jokoan zutena, hortaz, herri-klaseen adin-heldutasuna demostratzen zen, erabateko integrazioa, kontziente eta auto-zuzendua. Kontua zen herritarra bere bizitzaren, bere destinoaren administrazioaz arduratzeko gauza zela frogatzea, ar-

⁹⁵ A. GORZ, *Metamorfosis del trabajo*, Galilée, Madril, 1991.

tean nagusi zebilen iritzia oso bestelakoa bazen ere: klase prestatu eta pribilegiatuen asistentziaren, laguntzaren, zuzendaritzaren premian zegoela langileria, alegia.

Jokoan zegoena, beraz, langilearen duintasuna zen, bere burua gobernatzeko gaitasuna; autonomia; heldutasun pertsonal eta kolektiboa. Horrek, baina, ondoko egoerarekin haustea agintzen zuen: «enpresan langileak hitzik ez zuen eta enpresarioa den-dena zen —*magistratu gorena*—» (Buruaga). Kontua zen besteek administratutako subjektu izatetik subjektu erabakitzaile bihurtzea, heteronomiatik haratago ezer ikustea zaila zen garai eta errealtate hartan.

Auzi sozialari konponbidea emateko saiakerak justizia sozialaren ideia eta aberastasunaren banaketa justuagora garamatza, hots, injustiziaren dimentsio objektibo-materialera, desberdintasun materialak zuzentzera. Ekinbide fundatzailea lagunduko duen esanahi-sistema, ordea, haratago doa. Aldi berean eta, agian, azken finean, boterea bera ere berdintasunez banatzea erdietsi nahi du, langilariarentzat bestelako egokiera humanoa baina, funtsez, politikoa proposatuz. Hortaz, ideia kooperatiboari darion proiektua —eta bereziki arizmendiarrari—, funtsean politikoa da, bestelako antolamendu soziala eraikitzea planteatzen duelako, boterearen eta botere-aukeren banaketa demokratikoagoan oinarritua.

d) Norantz: eraldaketa sozial dimentsioaniztuna

Modernitateko erakunde sozial nagusietako bat enpresa izanik, bera erreformatzeko da gizarte osoa eraldatzeko proiektuaren palanka. Gizarte horren gatazka nagusia biltzen duen aldetik, enpresa goitik behera eraberritze hori, aldi berean, gizarte kapitalista orokorraren eraldaketa lortzeko estrategiatzat hartua izango da. Enpresaren erreformak, horri esker, esanahi sakona hartuko du, gizarte eraldatzeko bitartekoa izango baita.

Kooperatibismo arizmendiarran, sakonean, bada enpresa-formula berria baino zerbait gehiago ere:

«Por eso los valores que se han substanciado han sido los valores básicamente de gestión compartida de trabajo democrático, en sentido de elegibilidad de cualquier punto del poder. En definitiva, demostrar que las personas cuando se unen con determinado nivel de ideales y hay un núcleo naturalmente impulsor, pueden hacerse con las riendas de la gestión de la empresa y a través de ella también de la gestión de la comunidad. Porque esta experiencia no es sólo un intento de alcanzar diríamos gestionar bien la empresa o no, sino hacer que la comunidad en su conjunto pueda tener acceso a los valores educativos, sanitarios, y en definitiva, a los principios de igualdad o «parrilla de salida» como decía Arizmendiarieta» (Salterain).

Lehenago esandako bi gauza esanguratsu erakutsi dizkigu aipamenak. Batetik, auto-gobernuak daukan garrantzia, hau da, herri-klaseak beren destinoaren hariak ehuntzeko bezain helduak direla frogatzeak duen garrantzia. Bestetik, auto-gobernuak daukan garrantzia gizarte-bizitzaren eremu guztietan; hots, Arrasaten ernamundu zen kooperatiba-hazian bada proiektu sozial dimentsioaniztuna. Izan, halaxe izan zen: beharginak ongi trebatuta, enpresa kudeatzeko gauza zirela frogatu beharra

zegoen. Aldi berean, ordea, (auto)governatzeko gaitasun hori frogatu beharra zegoen komunitate-bizitzako aspektu denetan ere, hala nola hezkuntzan edo osasungintzan. Bazen, beste aldetik, funtsezko helburu eta nahi bat: komunitateko kide denentzat *aukeren berdintasuna* finkatzea (gizarte hartan patroien semeak patroiz ziren eta langileenak langile).

Dimentsio-aniztasuna, dena den, bestela ere uler daiteke. Esan bezala, kontzeptu honek, ez enpresan bakarrik, bizitza sozialeko gainerako arloetan (osasuna, hezkuntza... etc.) esku hartzeko proiektua adierazten du; baina, horrekin batera, bai gizarte-estrukturan (plano objektiboa) bai kontzientzia kolektiboaren estrukturan (plano subjektiboa) esku hartzeko saiakerari heldu nahi dio. Ikuspegi horretatik ere, proiektua dimentsioaniztuna da. Hau da, gizarteko estruktura «objektiboen» eraldaketa, transformazio kulturalarekin osatzen da (kontzientzien aldaketa). Izan ere, biek elkar elikatzen dute.

Alor kulturalari eta bertan eragiteko saiakerari dagokionez, dimentsio eta motibazio komunitarioak sustatu nahi ziren.

«Cultivando la dimensión generosa, a la vez que cultivada la dimensión de la gestión, y en definitiva, cultivaba la dimensión de enrollar a la comunidad, para que no fuera solamente una empresa capaz de tener éxito, sino que la comunidad tuviera acceso a la educación, acceso a otros valores que son los que le daban la riqueza. Por eso, él decía siempre: «hagamos la comunidad rica y no al individuo rico»». (Salterain)

Enpresa kooperatiboa komunitateari zerbitzua emateko eratu zen. Era horretan, enpresaren izaera eta enpresari egotziriko funtzio soziala eraldaturik gertatuko da: aberastasuna sortzeaz haratago, gizabanakoa komunitate-zentzuan hezi beharko du enpresak; eta, noski, eskaintzen duen zerbitzu komunitarioaren arabera justifikazioa bilatu beharko du enpresak bere buruarentzat. Gizabanakoen kontzientzia kolektiboa transformatzea, bertan komunitate-sena txertatuz (ni komunitarioa eratzuz, alegia), Arizmendiarietaren pentsamenduaren eta sorrerako kultura kooperatiboaren abiapuntua da, eta, aldi berean, azken helburuetako bat:

1.3. Etika katolikoa eta kooperatibismoaren espiritua

1.3.1. Fundatzaileen zentzu ereduaz

Sorrerako testuinguruan, Arrasateko kooperatibismoa kausa moduko bat izan zen eta, hortaz, bertan militante askok hartu zuten esku; horien artean ziren fundatzaileak noski, gorputz eta arimaz jardun zutenak. Kausa horrek askorentzat —ez denentzat, jakina— gizateria askatzea edo antzeko zerbait eskaintzen zuen, egunero sakrifizio, diziplina eta norberaren indibidualtasunaren ukazio-dosi bat ematearen truk.

Hortaz, pasio kooperatibista batek gidatu ditu jokabide eta bizitzak. Lurrean paradisua eraikitzearen mitoa gogoan balute bezala, fundatzaileek lurrean nolabai-

teko misioa bete dute, eta etsi-etsi sinetsi dute kooperatibismoaren ahalmen askatzaileengan.

Iragana idealizatzeko arriskua dugu, egiari zor. Horregatik komeni da perspektibari eustea: Arrasateko kooperatibismoak, hasiera-hasieratik, fenomeno kooperatiboaren arrazionalizazioaren alde egingo du, hau da, enpresa efikaziaren irizpidea bere kulturaren erdigunean kokatuko du. Hala ere, genesiaren testuinguruan bere misio moralaren ertzak aski garbi marraztuak daude.

Egintza moralak —«guztien ongiari» dagokionak, alegia— fundatzaileen ikur— eta bizipen-unibertsoan toki nabarmena bete du. Beste pertsonetikiko ardura —etikaren eta moraltasunaren oinarri dena—, gizaki orok daukan gaitasuna ez ezik, fundatzaileen heziketak biziki aintzat hartu zuen balioa da. Besteei zerbitzua ematea, bestearenganako ardura, kristauaren mundu-ikuskeraren eta, horrenbestez, Arizmen-diarietak burututako hezkuntza-lanaren funtsezko elementua da. Arrasateko kooperatiben sorrera ezin uler daiteke bestela: motibo edo arrazoi moralak, kooperatibak sortzearen oinarrian bertan aurki daiteke.

Kode moral zorrotz baten arabera gidatu dute beren bizitza fundatzaileek. Esperientzia kooperatiboaren sorrera sasoiaren, kontzientzia moralak ekintza arrazional-ekonomiko hutsa inguratu, bildu eta biziki baldintzatu du. Kontzientzia moral horrek sortu duen hesiaren barnean eutsi behar izan zaio ekintza ekonomiko-instrumentalari eta, fundatzaileen aburuz, hesi horrexen egitura da egun ahulduta dagoena; hesi horixe da logika instrumentalak etengabe eraginiko inpugnazioak gainditu duena. Arrasateko kooperatibismoak gaur ageri duen itxurari begiratuta, galera sentimendua da fundatzaileen diskurtsoa zeharkatzen duen taupadarik garbiena (aurrerago sakonduko dugu galeraren diskurtsoan).

Genesi garaietan, kalkulu ekonomikoaren bidaide izaniko hesi moral indartsua genuen. Esaterako, aipatua duguna: enpresa garatzeko bide batzuk alboratu egin ziren, bideok ez zetozelako bat eskakizun moralek agindutakoarekin; kooperatibek baztertu egin zuten tokian tokiko industriarekin lehian sartzen ziren enpresa-proiektu zenbaitu ekiteko aukera. Hots, gertuko ingurunean «guztien ongia» aintzat hartzeak mugatu egin zuen kalkulu ekonomiko hutsa (eta «helburuen araberako egintza arrazionala»). Arteko kontsiderazio moral batzuek arrazionaltasun ekonomiko hutsa mugatzeko ahalmena zuten, beraz. Bada ekonomia arautzeko molde tradizionalista bat, nolabait esateko (gogoratu tradizionalismo ekonomikoan bazegoela arautze normatiborik, beti norabide negatiboan: jardunbide ekonomikoa tratatzen zuten muga moralek indar lotesle handia izango dute).

Bestetik, Buruagak dioenez, beste hainbat garapen-aukera ere alboratu egin ziren, horiek eta logika kooperatiboa elkarren kontrako nabarmenak zirenean.

«Es un objetivo [la expansión del modelo cooperativo] que dejó de ser prioritario como era al comienzo (...). Antes se rechazaban oportunidades de desarrollo si con ello se quebrantaban la *sociedad de personas* [organización que en términos sociojurídicos considera a sus miembros socios, es decir miembros con voz y voto]. Hoy, hay menos tesón en mantenerlos y cuando se hace algo en esa dirección se considera una proeza lo logrado, cuando solo consistiría en proseguir con los principios que inspira la experiencia arizmendiana» (Buruaga).

Lehen belaunaldi hartan, hautu moralek norbanakoaren eta gizataldearen egintza estutzen zuten eta, fundatzaileen kolektiboak eginiko irakurketa nagusiaren arabera, aspaldi luzean dimentsio moralak atzera egin du interes indibidualaren eta kalkulu ekonomikoaren aurrean: «Elkartasun-sen sakona ez dagoenean eta grina indibidualistak nagusi dabiltzanean, inguruan ditugun sistema ekonomikoen kutsadura nonahi azaltzen da.» (Buruaga)

Fundatzaileek —eta lehen belaunaldi hartako kide askotxok— egin zuten bizi-hautuak ere garbi azaltzen du beraien bizitzei aplikatu dieten kode moral zorrotza, alderdi materialean ezarritako mugapenei dagokienean, batik bat.

«(...) todas las inmanencias del hombre, el afán de poder, de prestigio..., aunque aquí una minoría digamos que no (...) Porque realmente hemos nacido en un pueblo y no hemos necesitado nada, nos hemos sentido contentos por lo que hemos hecho, no hemos tenido ambición. Tenemos algún abrigo hoy mejor que antes, pero más o menos vivimos exactamente igual. Pero eso es absolutamente raro. (...) un grupo que ha nacido en un pueblo como Mondragón y en el que hemos tenido la virtud de relacionarnos, de la amistad; y no hemos roto nunca ninguna vinculación especial. Si hubiéramos tenido dinero nos hubiéramos enfadado a la misma velocidad que lo obteníamos. Pero como no hemos tenido, hemos vivido pacíficamente, sin ninguna apetencia exterior, ni las mujeres más abrigos... Por lo tanto, ha sido una mente frívolona la nuestra. Unas convicciones religiosas que nos ayudaban a soportar; y eso ha sido. Pero si esta experiencia la montas en cualquier situación es absolutamente inviable» (Salterain).

Aipamen horrek neurritik pittin bat alde eginiko ikuspegia erakusten du, behar-bada: «ez dugu inolako premiarik izan», «ez dugu anbiziorik izan», «ez dugu inolako lotura [adiskidantzako] berezirik hautsi», «ez dugu dirurik eduki», «kanpo-apetarik gabe bizi izan gara»... Errealitatea, oro har, ezin adieraz daiteke termino absolutuetan, dudarik gabe: hemen agerturiko azalpenek ia inongo pitzadurarik gabeko jokabide morala adierazten dute. Izan ere, oroimen-komunitateak, iragana idealizatzeaz gain, min edo sufrimendu kolektiboko eskarmentuak hartzen dituzte oinarri gisa. Nolanahi ere, Salterainen aipamenak bizi-hautu jakin bat euskarritu duten arauak erakusten ditu, ahozko zeinahi diskurtsok ohikoak dituen gehiegikeria edo ñabardura gabeziez haratago.

Kolektibo hori, enpresa eta finantza alorretan maila goreneko ardurak bete arren, ez da aberastu. Kontu egin behar da fundatzaileek, euren prestakuntza eta gaitasun aitortuarekin, asko etekin ugariagoak lortzeko aukera zutela kapitaleko edozein enpresatan (zenbaitek bide hori jarraitu zuen, kooperatibatik atera egin ziren lehen belaunaldiko batzuk). Gure fundatzaileek betetzen zituzten funtzioak (banku bateko zuzendari nagusia, adibide borobila ipintzearen), sozietate kapitalisten inguruetan aberatsenak ziren sektore sozialei zegozkien. Fundatzaileek, ordea, beren bizitza profesional gehientsuenean 3. lan-indizea baizik ez zuten jaso (hots, lansarien eskema hartan aurrerakin —soldata— txikiena 1 zen eta handiena, 3).

Izan ere, «makina bat kooperatibistak frustrazio latza sentitu izan dute beti: kooperatiban aritu ordez, lantegi txiki bat sortu izan balute, milioi asko pilatuko zituzten berehala» (Agirre). Ondasun ugari edukitzeari eta antzekoei uko egin izana, sen-

dotasun handiko «sinesmen erlijiosoetan» eta «frailona» kalifika genezakeen pentsamoldean dago erroturik. Sinesmen horiek garaitu dute anbizioa.

«Entonces, la gente al jubilarse a los 65 años hace su propia lectura: me dan 8 millones. Y en lugar del 80% si hubiera echado el 30% [al Fondo de Reserva], hubiera tenido en lugar de 8 millones 24. Buruaga hizo una síntesis muy graciosa: todo lo que nosotros damos a capital hoy no nos llega para comprar un modesto bajo. Desde esta lectura, da la sensación de que el modelo era excesivamente atípico, demasiado espartano para vivir fluida y normalmente en sociedad; se ha ajustado tanto que pedir más sería quedarnos con nada entre manos» (Agirre).

Beraz, gizarteko hierarkian fundatzaileek bete duten posizioa ez dator bat, inondik ere, enpresan beteriko funtzio eta karguekin, gizarte kapitalistaren parametroen arabera, betiere. Beraien mundu soziala eta herritar arruntena antzekoak izan dira. Herrian baxoerditan ibili dira kalez kale, beste gainerakoekin batera; halako eta bestelako errito sozialetan parte hartu izan dute; gehiengo sozialaren munduko kideak zirela adierazten zuten erritoetan, hain zuzen.

Kooperatibisten arteko distantzia sozialak objektiboki laburrak izan dira urte luzetan, eta, gainera, biziki garatutako kontzientzia erlijioso-moral batek uxatu egin du urruntze soziala gertatzeko aukera. Espazio sozial berbera partekatzea balio handi handiko elementua izan da (eta hala da orain ere), protagonistek atzera begira eginiko irakurketan⁹⁶.

Austeritateak eta bizimodu «espartarrak» markatu dute bidea. «Espartarregia» eta «atipikoegia» terminoek baliteke nolabaiteko kexua adieraztea: praktikan ipinitako auto-ukazioari dagokionez, ortodoxia kooperatiboa zorrotzegi erabili ote duten. Hala eta guztiz ere, gure iritziz, kexu egitea baino gehiago (edo, agian, kexuarekin batera), amaitzen ari den bizimodua dela sumatzen dute, amaitzear dagoen bizi-hautu bat. Euren aurrera eroandako bizi-planteamenduaren «gehiegikeria» ez dator bat egun nagusi diren bizimoduekin: hauetan, edozein kooperatibistaren batz besteko kontsumo-mailak ez du zerikusirik garai hartakoekin. Egun austeritatea baztertu egin da, zentzurik eta baliorik gabeko kontzeptu izatera kondenatua izan da kontsumo gizartean. Fundatzaileen mundua, beren unibertso sinbolikoa, beren jokaera eta bizerak, iraganeko garai baten hondakinak baino ez dira dagoeneko.

Beraien pertzepzio horretatik, eurei erretiroa heldu eta kooperatibismoarekin ziztuzten lokarriak askaturik, aldaketak berehala etorri ziren. Interes indibidualen presioaren eraginez, alderdi materialen auto-ukaziorako joerak atzera egin zuen.

«Cuando de vez en cuando me suelen plantear que al día siguiente de que nos marchamos nosotros ya habían subido tres veces los sueldos que nos hubieran correspondido, a mí es una de las cosas que nunca me ha movido ninguna pestaña. A mí [el sueldo reducido] no me ha supuesto ni el más mínimo trauma personal, porque al final yo pienso, yo creo que soy coherente con mi vida, con una elección personal» (Agirre).

⁹⁶ Arizmendiarrietak berak ere ardura handieneko langile-kooperatibistak besteekin integratzea errebindikatu ohi zuen eta, era berean, gogor kritikatu zuen bai herritarrengandik urruntzeko joera, bai kooperatibistak «langileriaren aristokrazia» antzeko bat bihurtzeko aukera (hau da, kooperatibistak ez ziren langileekin aldea handitzea).

Kooperatibismoaren bizipenaren bihotzean bertan zeuden «ukazioa, konpromisoa eta egintza» (Salterain). Fundatzaileen jarrerren unibertsoan arrazoi moralek indarrez jokatzeko zuten. Bizi-jarrera horiek, konpromiso kooperatiboaren bereizgarritzat hartzen direnak, egungo gizartearen galdua dute behiala zuten sinesgarritasuna eta erakarpen-indarra. Gizartearen bilakaera orokorrak bestelako jokabide eta bizimoduak nabarmendu ditu, eta sakoneko gizarte-aldaketa latz horiek eraldaketa larriak eragin dituzte bai konpromiso kooperatiboetan, baita hauek ulertu eta gauzatzeko moduetan ere. Fundatzaileen iritziz, ekinbide moralaren galtze orokorra da garai honen ezaugarri nagusietakoa eta, gauzak horrela, fenomeno kooperatiboa joera orokor horren beste biktima bat baino ez litzateke.

Aldiz, haien mundu sozial, historiko eta kulturalean, indarrean ziren kontrol moral zorrotzak; jokabidea kontrolatzeaz eta bizitza arautzeaz arduratzen ziren bai kanpo— bai barne-kontrolak. Ondoko aipua esanguratsua da oso:

«La preocupación más alta que teníamos era precisamente hacer una sociedad participativa, democrática, con la riqueza bien distribuida, con una igualdad máxima llevada a los extremos máximos. Yo recuerdo que la primera vez que compré un coche en el Consejo Social fue como un clamor. Al ser el Director General de la Caja Laboral tenía que recorrer varios pueblos de Euskadi para crear oficinas o para incorporar cooperativas... Y recordaba esta mañana que en un momento dado, que la gente se molestó o dijo algo, Alfonso dijo: «no digáis nada porque si Buruaga sabe que estáis cabreados porque ha comprado un coche, lo va a tirar al río». Era así nuestra situación, era de ese grado de implicación en el problema» (Buruaga).

Azken aipu honi bagagozkio, konparazio historikoak, bistan da, gauzak nahastera eramanez gaitzake: garai hartan automobila ondasun aparta eta asko preziatuagoa zen egun baino; Arrasateko herritar gehienek ez zuten autorik eta, gainera, ametsik ere ez zuten horrekin egiten. Buruagak bai, autoa zeukan. Hemen interesa daukana, ordea, ez da automobila eros zezakeen edo ez, artean nagusi zen berdintasun-espirtua baizik: espirtu horren bitartez kide guzti-guztien egoera indibidualak kolektiboki negoziatu zitezkeen, baita gailenena ere. Hastapeneko kooperatiba-komunitateak —harreman sozialak hain gertukoak eta kontzientzia kolektiboa bizia izanik—, sekulako kontrol zorrotzak ezartzen zituen jokabide-arau batzuk zaindu aldera. Arau kolektiboak tarte txikia uzten zien «burges txikien» gutizia eta gozamenari. Kanpo kontrolez gain (nolabait esatearren), barne-kontrolak ere baziren: zuzendariak euren baitan barneratua zuten arau moralak ere, ez zituen horrelakoak erraz onesten.

Ez da egia fundatzaileek erosotasunaren ertz-ertzean bizi behar izan dutenik, atseginen bat dastatzeko aukerarik izan gabe. Alderantziz, dezenteko segurantzia materiala izan dute —esperientzia kooperatiboak, hasiera-hasieratik gaitasun ekonomiko handia erakutsi du—, baina, aukera materialak biziki mugatzen ziren, gerta ez zedin gizarteko sektore dirudunek zeramaten bizimodurantzko aldentzerik.

Kooperatibaren dotrinak ez zuen onartzen horrelako distantzia sozialik, eta bada beste kontu bat: fundatzaileek hautatu zuten bizimoduan, norberaren ongizate materiala gainerako ongizate materialarekin hertsiki loturiko kontzeptua zen; hots, norbait «bat» lan-indizea kobratuz bizi ahal bazen, fundatzaileek ez zuten arazorik

izango, inondik ere, «hiru» indizea poltsikoratzen baitzuten; zelan justifikatu, bada, hori baino gehiago. «Bestearen» ahalbideek norberarenak baldintzaten ditu; norberaren apetak «bestearen» ahalbideen arabera ezartzen dira. Ekintza batez ere morala da hori, «bestea» existitzearen kontzientziak norberaren existentzia baldintzatu eta mugatzen baitu.

Kooperatiben diziplina-erregimenak eta arau-kodeak berak ere euskarri moral sendoa edukitzearen garrantzia azpimarratu dute fundatzaileek: «Baita diziplina-erregimena bera ere, dena argudiatzen da arrazoi moral baten bidez: zerk hezten duen, zer den koherentea...» (Agirre).

«(...) yo sostengo que todo nuestro código normativo en general está vinculado más que a una directa eficiencia empresarial, que tenías que tenerlo, arranca siempre de un concepto moral. No digamos nada en la distribución de resultados y en ese tipo de cuestiones» (Agirre).

Osagai ekonomikoa ez da ulertzen osagai morala gabe, ezta alderantziz ere. Bata eta bestea txirikordatuak egotea da kooperatiba-fenomenoaren oinarria. Kooperatiba-proiektuan inplikatzeari kateatua dago ekonomiaren eta biziaren kontzeptu moral jakin batekin.

«En una palabra, había una cosa que nosotros cuidábamos mucho. Nosotros no somos cooperativistas por tener exenciones fiscales. Nosotros somos cooperativistas porque sentíamos que el trabajador personaliza la empresa, que la entidad más sagrada es el hombre. Y yo creo que muchos son cooperativas porque tienen que ser» (Buruaga).

«Como anécdota personal cuando fui yo para la aprobación de los primeros estatutos de Ulgor... [el funcionario, un conocido teórico y defensor del cooperativismo] Me espantó allí en el aula de los sindicatos: «¿Usted por qué hace la cooperativa, para agarrarse a las exenciones fiscales?». Juro por mi honor que era la primera vez que oía la palabra exención fiscal. No sabía ni lo que me estaba diciendo» (Agirre).

«Sakratu», «ohore» eta gisakoek hiztegi berezia osatzen dute, arau-unibertso tinko baten oihartzuna dute, eta mundu-ikuskerara «liluratu» batekin lotuak daude, nolabait. Gaurko garaiari ez dario tonu hori, ez dario kontzeptuok bizitzaren aurrean adierazten duten seriotasun, handitasun eta larritasun hori, nolabait.

Fundatzaileen ibilbide profesionalean kinka larri eta zirt edo zart egin behar ugari suertatuko ziren eta, horietako askok, duda-izpirik gabe, betiko oreka gaiztoarekin harremanetan: nola uztartu enpresari berez dagozkion irizpide arrazionala eta kalkulua ekonomikoa, batetik, eta kooperatiba izaerak bere-berea duen arrazionaltasun substantzial eta etikoa, bestetik. Aukeratu behar horietako bat formulatuko digu Agirrek ondoren:

«En cuanto a renunciar al alma, a mí, en el ejercicio de mi función te voy a decir lo que más me costaba: alguna idea o concepto que lo tenías asumido, reflexionado, pensado e interiorizado, y además absolutamente convencido de que tenías el 100% de razón, y por lo que sea, en el mundo de los órganos no lo veían... Es decir, cuando tenías que renunciar íntimamente, porque, evidentemente, en el concurso de otro tipo de ideas o pensamientos se te rechazaba. El ejemplo más paradigmático que tengo es cuando aquella ampliación de capital en Ulgor nos tumbaron. «Nos habéis tumbado

pero yo tengo la razón». Tragar ese tipo de cuestiones, y no solamente tragar, porque ante eso puedes tomar una reacción contraria de inhibición o de oposición, [sino] asumir como tuyo (...)» (Agirre).

1984 urtean Ulgor-en izaniko bizipen horren gainean aipamen bat baino gehiago egin ditu Agirrek: Batzar Nagusia berak presiditzen zuen eta kapitala zabalteari ezinbesteko zeritzon. Aretxabaletako frontoian 1.500 lagun bildu ziren eta derrigorrezkoa zen boto guztien bi herenak jasotzea, kapitala zabaltzeko proposamenak aurrera egin zezan. Berrogeita hamar botoren aldeagatik galdu zuen boz-keta eta behin baino gehiagotan entzun diogu Agirreri —ikerlan honen markotik kanpoko beste testuinguru batean—, praktikan erabaki haren haustura probokatzeko tentazioa izan zuela. Ez zuen horrelakorik egin, Batzar Nagusiak harturiko erabaki demokratikoa bere irizpide pertsonalaren gainetikotzat hartu zuelako, erabakia «ergelkeria hutsa» zela ikusi zuen arren. Handik bi urtera kapital-zabalkuntza gauzatu egin zen, errealitateak frogatu baitzuen horrela jokatzeko ezinbestekoa zela, eta Ulgor-eko kolektiboa konbentzitu egin zen. Anekdotak honek demokraziak ezartzen dituen morrontzak agerian uzteko balio du eta, beste behin ere, eraginkortasun-irizpideari erresistentzia latza ezarri dion kontzientzia etiko-demokratikoaren izaera loteslea erakusteko.

Esan bezala, fundatzaileen bizitzan kooperatibismoa ez da bakarrik zentzuz buruturiko karrera profesionalaren kokaleku izan. Kooperatibismoa bizitza-molde baten eta existentzia baten euskarri nagusia izan da, nolabait. Fundatzaileen funtzio profesionalaren iparrizarra izateaz gainera, bizi-jokabide oso bat orientatu eta zentzuz blaitu die. Arizmendiarrietak aldarrikaturiko kooperatibismoan aurkitzen dugun kontzeptu moral horren arabera antolatu dute, enpresa-funtzioa ez ezik, bizitza osoa ere. Eta seguruenara hori ez zen posible izango kooperatibismoa eta kristau fedearen artean ezartzen duten lotura estuari esker ez balitz. Horrexegatik da kooperatibismoa bizi-jokabide osoa orientatu duen zentzuen transmisorea.

«Lo del hombre nuevo es una aspiración eterna. Permanentemente renovada en cada generación. Yo desde que estoy desde los 14 años en la acción católica y luego con 24 años en ejercicio espiritual y luego tal..., permanentemente en cada generación. Y además es inacabable por propia naturaleza. Si como creyente la perfección está en el Padre, entonces a mi se me ocurre que aquí tenemos que acotarlo en el tiempo. Qué tipo de hombre necesitamos para los próximos 25 años o 20; la aspiración que yo tendría, el tipo de hombre que hay que cultivar. Otro problema es con qué mecanismos se debe cultivar. Si no hacemos escuela diaria de la propia empresa y de las plataformas sociales... Para eso los que tienen que hacer de profesores son los primeros que tienen que estar convencidos. El tipo de hombre trabajador, responsable, honrado, austero y solidario» (Agirre).

Aipamenak garbi seinatzen du, beste behin ere, konpromiso kristauak sakon markaturiko bizi-ibilbidea. Bide hori, gutxi-asko, hirurek hartu dutena da: haientzat kooperatibismoaren azken helburu den «gizaki berria» esanahi erlijiosoz bustia dago erabat.

«(...) el tipo de hombre distinto, el hombre nuevo, (...) la aspiración eterna de todas las religiones y de la mía obviamente» (Agirre).

Fundatzaileentzat banaezinak dira hautu kooperatibista eta hautu kristaua, ezin da bata ulertu bestea gogoan izan barik. Dena den, konexio hori hautsi da eta ez ei da berriro gertatuko. Nolanahi ere, zehatz dezagun erlijiozaletasunak Arrasateko Kooperatiba Esperientzian izan duen lekua: Arrasateko kooperatibismoa ez da erlijioso. Bestela adierazteko, sorburutik, kooperatibismoa erlijio-motibazio baten konkrezio laikotzat bizi izan dute fundatzaileek. Modu berean, gure protagonisten iritziz, gauza bat da Arizmendiarietaren pentsaeraz (kristaua) aritzea eta beste bat Arrasateko kooperatibismoaz (laikoa) mintzatzea.

Zilegi bekit hitz joko bat erabiltzea, fundatzaileen zentzu-eredua beste modu batera azaldu asmoz: arrazionaltasun ekonomikoaren ondoan —eta berarekin batera— kontzientzia moralak hartzen duen karga ikusita, Arrasateko Kooperatiba Esperientzia, *proiektu enpresarial etikoa* baino areago, *proiektu etiko enpresariala* izan zen lehen belaunaldiarentzat. Izena eta izenlaguna bereiztea da kontua: izena (etika) eta adjektiboa (enpresa); helburua (proiektu etikoa) eta bitartekoak (proiektu enpresariala). Lehen belaunaldiarentzat, lehen planoan proiektu etikoa legoke (plano substantiboan), berau burutzeko enpresa-bidea aukeratu delarik. Ikuspegi horretatik, gaurko esperientzia kooperatiboa gertuago legoke ondoko honetatik: ekintza-kode etiko jakin batzuk onartu dituen enpresa-proiektua.

Tipo idealtzat planteatu ditugu bi-biak, errealitatean purutasun osoan aurkitzen ez diren eredu abstraktu gisa. Bata eta bestearen arteko muga garbiak zehaztea ez da kontu erraza, baina afera honela azal dezakegu: bi muturren artean bada bigarrenaren alderako lekualdatze edo mugimendu ebolutiboa; hots, etika-ñabardurez apaindutako enpresa-zentzua nagusituz doa, alderantzizkoa baino areago (enpresa-bitartekoz apaindutako proiektu sozio-etikoa).

Edonola ere, gorago esan dugun moduan inozokeria litzateke pentsatzea bere genesian Arrasateko kooperatibismoa, funtsez, alderdi ekonomikoa etikoaren pean ezartzeko saiakera izan zela eta gerora usteldu dela. Fenomenoa konplexuagoa da. Inork ondorio faltsurik atera ez dezan: Arrasateko kooperatibismo modernoak hasieratik onartuko du eraginkortasun ekonomikoaren printzipioa, konplexurik gabe, enpresa-jarduera zuzentzeko araua horixe baita, horrela, historian barrena kooperatibismoari buruzko beste kontzeptu batzuek ezarri dituzten muga moral hertsiegiak ezarri gabe. Munduko hainbat lekutan kooperatibak ezagunak dira gestioan eraginkortasunik ez eta enpresa-alorrean porrot egin ohi duten esperientzia gisa; luzea da, zinez, porroten zerrenda. Ederki zekien hori Arizmendiarietak. Horregatik barneratu behar izan ziren merkatuan derrigorrezkoa den jokabide-kodea, enpresa-jardueraren plangintza arrazionala eta kalkulu ekonomikoa; horiexek ziren onartu beharreko lehendabiziko arauak.

Arizmendiarietaren pentsamenduak, hortaz, kooperatibismoa arrazionalizatu eta arrazionaltasun ekonomikoa propiotzat barneratu zuen, horrela bakarrik jarri ahal izango baitziren martxan jomuga ekonomiko hutsaz haratagoko proiektu zenbait. Hortik aurrera, enpresa-jardueraren beharrezko eraginkortasuna onarturik, proiektu etikoari ekin ahal izango zitzaion. Baina, fundatzaileen ikuspegiak dioenari jarraiki, badirudi arrazionaltasun ekonomikoak autonomia handiagoa eskuratu duela, gainera

astindu dituela bere garapena oztopa dezaketen bestelako logikak, eta erdi hautsita geratzen ari dela sasoi batean printzipio moralekin zeukan idilioa. Ikus dezagun sakonago.

1.3.2. Asimilazio kulturala, identitate kooperatibistaren galtzea

Fundatzaileen kolektiboak kooperatiban bizitza profesional osoa ez ezik, beste zerbait ere eman du: haren inguruan antolatu du bere bizitza pertsonal eta kolektibo eta haren bitartez eraiki du bere identitate indibidual eta soziala. Eginiko ibilbide luzearen talaiatik eta horrek ematen dien perspektiba historiko pribilegiatutik, egungo kultura kooperatiboa esklerosi antzeko zerbaitek jota ikusten dute. Horrez gainera, tarteka kezka eta tarteka etsipena sortarazten dien beste zerbait ere ikusten dute: kooperatiba enpresak bereak zituen ezaugarriak eta identitate kooperatiboaren euskarriak ere atzeraka eta diluitzen ari dira.

Horra hor, fundatzaileen iruditeri kolektiboak bereizgarri duen diskurtsoaren gako nagusietako bat (denetan nagusia, akaso): identitate kooperatiboa egunetik egunera urtzen, galtzen ari da; enpresa kapitalistekin homologatzea eta horiekiko alde-rik ez edukitzea daraman ibaian behera doa, agian bere burua desagertzearaino iritsi arte (orain ezagun ditugun terminoetan, behintzat).

Identitate kooperatiboaren galtze-prozesua da fundatzaileen diskurtsoaren muina, beraz. Interpretazio ildo horrek ñabardura garrantzitsuak ditu, tarteko posizio ugari: galera eta endekapenez, usteltze eta desitxuratzeari ari zaigun diskurtso ildo hori bestelako iritzi eta hautemate batzuekin tenk dago beti; beste ildo horiek, tamaina bera ez badute ere, esperientzia kooperatiboaren lorpenen eta oraindik duen bestelako izatearen garrantzia nabarmentzen dute. Honako hau amaigabeko bataila da fundatzaileen ordena sinbolikoan; kulunkatze etengabea.

Fundatzaileen diskurtsoa, beraz, ezin marraz daiteke lerro bakar batez, ez da norabide bakarreko kalea, narrazio osoa estaltzen duen interpretazio-ildo nagusiak esperientziaren identitate galtzea adierazten badu ere. Galeraren diskurtsoak aldaketa-prozesu objektiboak aipatuko ditu: bazkideak ez diren langileen ugalpena; behin-behineko beharginen gehikuntza eta neurrigabeko erabilera; kooperatibaz bestelako izaeradun elkarteak etengabe sortu eta bereganatzea; soberakinen monetarizazio geroz eta handiagoa... Eraldaketa hauek guztiak, aldez edo moldez, merkatuen eta ekonomia-aren globalizazio fenomenoarekin hertsiki loturik daudela ikusten dute fundatzaileek.

Horrekin batera, Arrasateko kooperatibismoaren joera ebolutiboan enpresa-logika eta *ethos* utilitarista-pragmatikoa lehenesten ari direla hautematen dute. Hots: atzemaniko galtze-prozesua kooperatibismoaren estruktura sozial objektiboan ikustearaz gain, beste nonbait ere jazo da zerbait: Arrasateko kooperatiba-komunitatearen subjektibotasun kolektiboan, kulturen eta pentsamoldeetan ere jazo dira aldakuntza zenbait. Arrasateko kooperatiba-identitatearen bereizgarri kulturala geroz eta itxuraldatuago ageri da, ezagutzeko nekezago ageri da, eta mutazio kultural horren

funtsezko alderdia hauxe da: kooperatiben aldeko sutsutasuna eta fedea ahulduz doaz eta, horien ordeaz, geroz eta nabarmenagoak diren logika ekonomikoa eta enpresa-pragmatismoa agertzen dira nonahi. Asimilazio kultural hori kooperatibetako gorputz sozial osoak nozitzen du, baina eliteen artean gehiago sumatzen ei da:

«No hay gran entusiasmo, no hay militancia ni hay emociones fuertes en ser cooperativista (...) Si leísteis ayer la homilía del vicario que suele poner el periódico, que es magnífica, habla de un tal Lipovetsky. Como decía, toda esta farándula de lúdica que se está produciendo y este bochorno de acontecimientos que millón y medio se ponen a bailar en Berlín y demás, le había hecho pensar que mientras no haya además de esto fe en algo, la gente no estará feliz o no tranquilizará su corazón.» (Buruaga).

Fundatzaileen diskurtsoak gizarte osoan diagnostikatu du fedearen eta sinesmen galera latza. Dagoeneko ez da «emozio bizirik sentitzen kooperatibista izatean». Identitate kooperatiboaren galtze-joera objektiboez gain, motibazioen, balioen, zentzuaren eta halako «ukiezinen» galtze-joerak datoz. Errealitate objektiboaren homologazioarekin batera, pentsamoldeen homologazioa dator, kultura eta ideologia alortetako indiferentziario hazkorra.

«(...) hay una decaída fuerte del sentido personalista y (...) en el origen la vivencia era profunda y era un caldo de cultivo perfectamente sazonado y vivificado por los directivos» (Buruaga).

«En relación al pensamiento personalista evidentemente la cultura decantada y el sentido de identidad que todavía existe en nuestras comunidades como elemento personalista..., esto está presente. Pero voy a decirte que deslizándose en su conjunto hacia formas no conformes con un modo de ser especialmente diferente del común de la sociedad. Dentro puedes tener unas ciertas peculiaridades operativas e incluso una cierta mayor calidad de actitudes personales. Pero aquí siempre está el problema que en tiempos se discutía —o se aspiraba, o se especulaba— si la configuración cooperativa transcendía todos los aspectos de la vida. Si está presente o impregna todos los comportamientos en la sociedad. Desde ese punto de vista, (...) yo tengo la sensación de que en la sociedad mondragonesa del Alto Deba, en la gente que trabaja en las cooperativas y que han vivido y practicado, tiene una serie de secuelas en la forma de ver la sociedad, y muchos tipos de reacciones que son derivados de la cultura cooperativa dominante por aquí. Entonces eso fuera del entorno cooperativo es indiferenciado en relación a la cultura dominante salvo excepciones muy raras. Entonces, (...) dentro de la sociedad imperante [se trata de] una herencia personalista que no tiene repercusión o reflejo, o que se indiferencia en la forma de funcionar o de vivir con relación a la cultura dominante» (Agirre).

Bigarren aipuari bagagozkio, ba omen da hor diferentzial kultural bat, kooperatiba-jatorriko label edo zigilu bat, gertueneko (eta, aldi berean, kooperatiba-kontzentrazio handiko) ingurune sozialean nolabaiteko subjektibotasun edo nortasun kooperatibista moldatzera iritsi dena. Baina, zigilu hori diluitzen ari da oraingo kultura nagusiak bereak dituen izateko eta egiteko moduetan.

Kooperatibismoak eta kooperatibistek beraien izanaren funtsezko elementua galdu ei dute: injustiziaren aurreko haserre etikoa, alegia. Hori dela eta, fenomeno kooperatiboaren nerbio-elementurik garrantzitsuena ere galdutzat eman omen daiteke: ekintza kooperatiboaren bitartez gizarteko gaitz eta premiak konpontzen hasi

aurretik, gizarteaz behar den diagnostiko kritikoa. Arrasateko Kooperatiba Esperientzia gizarte osoak hartutako norabide berean lebilke, nagusi diren logiken inertziak ekarrita.

«No creo que exista una indignación ética. Se va al ritmo de la sociedad que nos circunda. Nos envuelve la inevitable influencia social, cuya incidencia en el cooperativismo no se puede frenar (...) y a la cual uno no se puede escapar, porque lo cubre todo. Y por una cuestión de empatía entra en todos los fenómenos que nos encontramos (...) Nosotros estamos casi fuera del sistema. (...) tal es la inercia natural de las actuales circunstancias... Solamente las personas que dirigen MCC pueden dar un cambio a esta situación. Los que están distanciados como nosotros que no tienen resortes de poder, lo único que pueden hacer es, con nuestra buena voluntad, aconsejar; o lo que podemos hacer es escribir... Lo demás, yo creo que el sistema MCC, el conjunto de las cosas, está lastrado por el conjunto de la sociedad. Es decir, camina en una dirección cada vez menos espiritual, menos idealista, menos romántica, menos proclive a la acción hacia los demás» (Buruaga).

Idealismoaren, erromantizismoaren eta elkartasun-senaren galera, horixe ei da Arrasateko kooperatibismoaren joera ebolutiboa, baina protagonistek euskal gizarte osoaren —seguruenik, gizarte industrialaren— joera orokorraren ale gisa interpretatzen dute, bete-betean. Errealitate sozialaz kooperatibismoak orain egiten duen definizioak galdua du behinola zeukan inkonformismo-karga hura ere. Haserre etikorik gabe, badirudi iparra pragmatismoaren kolorearekin marraztu dela, errentagarritasunaren bila etengabe.

«Casi totalmente se está asumiendo la impregnación de los valores exteriores. No nos distingue la divergencia en la valoración de lo vigente, sino en el hábito del ejercicio societario legal. En esto es donde nos distinguimos. Yo tengo la sensación de que nos falta un importante componente de inconformismo, que estaba en cierta medida latente en todas aquellas circunstancias que el otro día hablamos, en aquellas circunstancias fundacionales» (Agirre).

Paradigma kooperatibotik balorazio inkonformista egin izan da munduaz. Sistema kapitalistari eginiko kritikatik sortu zen XIX. mendean, eta sistema horren modu eta portaeren aurkako erreakzio gisa. Inkonformismoa ahuldurik, Arrasateko kooperatibismoak bere-berea zuen gizartea eraldatzeko bokazioak eragozpen latzak omen litzuzke bere sorrerako motiboari zentzua aurkitzeko: aldaketa sozialari zentzua aurkitzeko, alegia. Ondoko eran formula liteke: nola ipini praktikan gizartea eraldatzeko bokazioa, aldaketen premian dauden errealitate sozialeko beharrak diagnostikatzeko zailtasun larriak izaki?

Kooperatibismoaren «gizaki berria» erdiesteko azken asmoak, porrot egin omen du. Eskuzabaltasuna, gizartea zerbitzatzeko bokazioa, konpromiso soziala, horiek guztiak lur hain desegokian —gure gaur egungo gizartea— ernamuindu ezin diren haziak bezalakoxeak dira.

«En general, el hombre que yo creía que iba a surgir de esta plataforma de igualdad, de solidaridad, no se está produciendo. El hombre se está haciendo muy individualista, no es ese hombre nuevo que preconizaba Arizmendiarieta, efectivamente, sino que es un hombre nuevo por razón de lo que se llama en términos genéricos la Ilustración. La Ilustración que aconteció en Francia y que ha llegado a España, y la gente empieza a

pensar por su cuenta. El pensar por su cuenta, sabe que en una cooperativa está bien tratado, sabe que le van a tratar mejor que en otras partes, tiene un espacio limitado para desenvolverse con comodidad, tiene una parte en los beneficios, puedes elegir y ser elegido. Tiene un tratamiento económico mejor quizá que fuera, tiene un tratamiento social mejor. Pero de ahí en adelante ese hombre nuevo el cual lo veíamos como un hombre solidario hacia los demás, y que él podría ser un poco germen de otras posibilidades para un desarrollo, no lo ves. La gente se para en su propia casa, en su propia familia y a partir de esa órbita es mucho menos generoso» (Buruaga).

Elkartasuna itzaltzen ari omen da gizarte osoa bestelako jokabideetara daraman korrante orokor horretan: bulkada indibidualak lur berriak konkistatzen dihardu, konpromiso komunitarioaren kaltetan. Elkartasunaren zirkulua ixten ari ei da etengabe, eta filosofia kooperatiboaren oinarria —komunitate-zentzua— auzitan dago egun. Badirudi indibidualismoa dela erlijio nagusi berria.

Kooperatibismoaren mistikak nekez erakartzen ditu kide berriak eta, kooperatibazentzura gerturatzekotan, bizipena ez da gauzatzen inondik ere aspaldiko konpromiso, militantzia eta berotasun haiekin. Indibidualismoa eta interes egoistaren bilaketa dira pertsonen motibazioen euskarriak, geroz eta nabarmenago. Kooperatibek sorturiko diruak eta aberastasunak ere birrindu omen dute pertsonaren elkartasun, konpromiso eta moralaren alderdi hori. Emaitza onak dituzten kooperatibek gizakia egoista bihurtzen dute eta, gainera, joera bati hegalak ematen dizkiote: elkartasuna minimizatu eta mugarik gabeko askatasun indibiduala aldarrikatzen da.

«Quizá en el tema de austeridad, solidaridad... normalmente la abundancia de dinero hace más roñosas a las personas. Les cuesta más dar dinero a los que tienen que a los que no lo tienen. Desde ese punto de vista el dinero es como el ácido sulfúrico que estropea la convivencia y naturalmente afecta al meollo de la personalidad. El otro día me decía una persona que había hablado con una limpiadora de una casa, y decía que [los dueños de la casa] eran cooperativistas de cierto toque, de cierta nobleza; que eran inaguantables de lo tontos que eran y de lo poco grato en el terreno del trato y de la relación con las personas. Entonces la abundancia del dinero «egoistiza», reduce al hombre de una forma individual. Por eso en la medida que las empresas van ganando, tú vas ganando... ¿cómo impones las medidas de contracorriente? Se realizan proyectos que tienen poca resonancia, poca llamada en esta nueva generación de personas muy inducidas por el individualismo, muy inducidas por las vacaciones y un estándar de vida que no hay quien eche marcha atrás» (Salterain).

Egun, ongizate materiala eta indibidualismoa dira batez besteko kooperatibistaren existentzia sozialaren ezaugarriak, nolabaiteko ukitu «noblea», eta baldintza hauetan jokabide morala ahuldu, moteldu egiten da. Kooperatibistek orain betetzen duten espazio soziala ez da aspaldi hartzen zuten hura; esne-mamitan bizi dira, dagoeneko ez dira sistemaren ontasunek eta bertuteek benedikatu gabeko gizarte-geruzetakoak.

Mendebaldekoa bezalako gizarte eredueta, egundoko ongizate materiala baina gero eta atomizatuago dagoen gizabanakoa nagusi den ereduana alegia, hurkoaren premia ez da lehengoa; eten ohi da, beraz, besteekin kooperatzeko beharrezana bera. Aberastasun material horixe da, noski, balioen erreferentzietatik eta azken helburu sublimeetatik pertsona urruntzen duena.

«¿Qué está ocurriendo con el sistema? Se está produciendo lo que no había más remedio que se produjera: que en la medida que la gente aumenta su capacidad económica y su bienestar personal se va alejando de unos principios que están planteados ahí y que en el inicio eran el 95% de nuestras preocupaciones. La preocupación más alta que teníamos era, precisamente, hacer una sociedad participativa, democrática, bien distribuida, con una igualdad máxima llevada a los extremos máximos. (...) Pero a medida que la gente tiene Mercedes y tiene los mejores coches que casi se pueden tener, y además no sólo uno, como vosotros comprenderéis...; el cooperativismo a medida que avanza, a medida que paga más al personal, a medida que hay más ingresos per capita, a medida que tiene más reservas económicas para funcionar, pues tiene un piso aquí, otro en Mondragón y otro si puede para esquiar. Se está alejando, evidentemente; me parece bien que lo sepáis, pero no os desaniméis por eso. Eso es así, evidentemente. Recuperar eso es casi batalla perdida. O se toma las riendas desde dentro, que vengo insistiendo, o eso va a la indiferenciación» (Buruaga).

Fundatzaileek beren buruentzat onartu zuten sakrifiziozko, austeritatezko, konpromisozko bizimodu haren ordeztu, badirudi beste bat zutitu dela: hedonista, aukera materialerik josia, kooperatibaren balio eta oinarriekiko konpromisoa hautsi duena. *Premiaren kooperatibismo* batetik *oparatasunerako kooperatibismo* baterako trantsizioa gertatu da: kooperatiba bera, inolako zalantzarik gabe, aberastasun eta ongizatearen sortzaile izan denez, bere arrakastaren biktimatzat jo dezakegu, gauzak horrela gertatzeak kooperatiben desfuntzionalizazioa eta kultura-galtzea ekarri dituelako. Kooperatibismo arrakastatsua bere garapenerako ezinbestekoak izan ziren oinarri psikologiko-kulturalak deuseztatu ditu.

Ongizate materiala erdiesteko nahi iraunkorrak ordeztu ditu *ethos* kooperatiboa, bere austeritatea, bere idealismoa eta bere inkonformismoa. Enpresa eta ekonomia alorreko logika sendotu da, ondorioz, eta balantza desorekatu du. Ezinbestean gertatu da hori, ingurune ezin lehiakorrean ondo baino hobeto kudeatu behar delako eta bizirik iraun:

«Yo te diría que el desarrollo económico absorbe todos los esfuerzos habidos y por haber. Es una clase básicamente gestora, responsable... absolutamente metida en la gestión. No es para menos, porque la convulsión permanente que hay en el mercado exige una tensión tremenda. Teóricamente están después el presidente, el gestor de administración..., precisamente para otros mensajes, pensar en otros valores y en otros sentidos. Pero la verdad es que la primera opción de una empresa es ser empresa. Por derivación de ser empresa puede dar reorientación y sentido a otros valores. Pero en general, se puede decir que está demasiado absorbido por la exigencia diaria de funcionar como empresa (...) Entonces, la dinámica competitiva actual no lleva al lado de la corriente de ese hombre nuevo, dinámico, austero...» (Salterain).

Gizartea norabide jakin batean daraman mugimendu orokorra ikusten dute: Mendebaldeko zibilizazioak ekonomia bere motibazioaren erdigune bihurtu du eta horren aurrean, noski, egokitu baizik ez dago. Arrasateko kooperatibismoari dagokionez, labaintze hori gehiegizkoa izan ote den, iradokizun eta kritika-oihartzun hori ere aditzen da; hots, ekinbide kooperatibo koherenteago baterako egon bazegoela margen zabalagorik esaten da zenbait unetan.

Kooperatibismoak bere lehenetsuen eta jomugen ordena ondo zaindu behar luke. Kooperatiba-paradigmaren proiektuak gizakia azken jomuga du; pentsamolde

kooperatiboaren toki nagusia pertsonak betetzen du, pentsaera horren azken helburua bera baita, beste hainbat askapen-etikatan legez. Helburu hori erdiesteko bitartekoa ekonomi eta enpresa-egintza da. Bitartekoen eta helmugan arteko lotura, berriz, gaur ez omen dago biziki garbi, batzuk eta besteak bereizten dituen lerroa lauso agertzen baita. Fundatzaileek trantsizio antzeko bat hautematen dute: helburu ekonomikoa azken xede bihurtu da eta gizakia ez da jomuga horretara heltzeko bitartekoa baino.

Bitartekoen eta helburuen arteko nahaste hori ez da txikikeria, horren muturrean askapen-etika (eta praktika) batetik kontrako beste baterako balizko jauzia baitatza. Errealitatea lausoa da beti, paradigma bateko eta besteko elementuek osatzen dute, baina fundatzaileen kolektiboak lehentasunen ordenan nolabaiteko aldaketa iradokitzen du.

«[La empresa] tiene la obligación de ser rentable, si no desaparece en su conjunto. Por consiguiente no hay a la luz otra cosa que mensajes, que solamente tienen como norma acentuar el aspecto de rentabilidad, el aspecto de balances bien contruidos para que a fin de año hagamos una exhibición en un tablero, bien puesto. Es decir, si se va en esa dirección, si el único objetivo es ese, la filosofía, la ideología se trasmuta de aquella ideología inicial de que el hombre era la base y había que actuar en torno a él, hacia el Dios que es el becerro de oro que lo tenemos a la vista» (Buruaga).

Azken zentzuaren (proiektu moral eta etikoaren) eta eraginkortasun ekonomikoz jarduteko premiaren arteko oreka gaizto horretan, presak eta larrialdiak azken horren bidetik etorri dira. Egun enpresa-planak ez omen dira zuzen egiten, galdua dute esperientziaren sorburuko erroa.

«Además, te voy a decir una cosa: desde hace mucho tiempo tengo una esperanza. Porque es la primera vez que de modo sistemático se empieza a hablar [con motivo del Proyecto Testimonio] Porque yo cuando leo ahora, misión: la satisfacción del cliente; leo los planes actuales y me parecen una aberración (yo tiendo a exagerar un poco en las expresiones). Absolutamente descarnados» (Agirre).

Plan horiek «txarto espiritualizatuak» daude (Buruaga). Beste aldetik, Arrasateko Kooperatiba Esperientziaren zentzu dimentsioaniztuna baztertuz gero —hots, hezkuntza, gizarte, kultura eta espirituari dagozkien alderdiak—, bokazio eraldatzailea ez da bideragarria:

«(...) toda mutilación de una realidad compleja como es la sociedad, es un reduccionismo que tiende a esterilizar. Pretender una dinámica transformadora, remitida estrictamente a la mecánica empresarial interna —es lo que se pretende y donde se dirime la batalla— no tiene sentido. (...) [se necesitan] factores que realmente movilicen las conciencias, voluntades y energías humanas en cualquier pretensión renovadora. Consecuentemente, el sentido multidimensional» (Agirre).

Gizabanako kooperatibistek, beraz, beren motibazio utilitarista eta ekonomizista areagotu eta indartu egin dute. Horren froga, jadanik ezaguna zaiguna: ordainsarien arteko aldea. Kontu honek badu dimentsio bat lotuta dagoena alor kulturean eta pentsamoldeetan jazoriko aldatetekin. Ordainsarien arteko aldea mugatzearen kontzeptua aldatu egin da: lehen, gutxien irabazten zuten langileekiko elkartasunezko adierazpen gisa hartzen zen; orain, aldiz, gora begira justifikatzen da; merkatuan, hor kanpoan antzeko lanpostuan gehien irabazten dutenekiko aldea

omen da kontuan hartu beharrekoa. Diskurtso-aldaketa horren garrantzia Buruagak azpimarratu du:

«Estamos hablando del anticipo laboral. Yo ya sé que cada vez que pienso en ello, pienso que respondió a mi criterio y a mi actitud personal. Pero sí que duele que por una serie de principios la empresa cambie y ya no sea tan solidaria como antes. (...) La ley 1-3 obedecía a un concepto de solidaridad con los que menos ganaban. Entonces al subir a 9 porque cambias de modelo y dices no, yo voy a ganar el 70% de lo que ganaría estando en la competencia. Es decir, un director de banco, si aquel está ganando 20 millones pues yo tengo que ganar 13, esa es la forma que tiene. El nuestro era de otra forma. Esto ha cambiado. No me importa por esas recepciones; sí me importa porque hay un desgaste o una debilidad del sistema. (...) Garaikotxea [Lehendakari del Gobierno Vasco] en su tiempo cuando íbamos donde él nos pedía personal y se llevó a Retegi y a un tal Larrañaga; y me llamó a mi en varias ocasiones. (...) esto decía Garaikotxea: primero porque quieren este país; segundo porque están muy bien preparados; y tercero porque perfectamente entran en las cifras que aquí pagamos. (...) hay un cambio del primigenio concepto de solidaridad» (Buruaga).

Ordainsarien arteko aldea zabaldu izana mugimendu sakonago baten agerpena baino ez da. Fundatzaileek bereizgarri izan zuten bizimodua, alor materialari goazkiola nahikoa mugatua, aldatu egin da: orain, patrika indibidualak geroz eta beteago dabilta.

«Se está implantando cada vez con mayor fuerza la dejación ética de responsabilidades, aquellas en las que reside el liderazgo social o ético. Hay líderes empresariales, hay buenos gerentes, hay gente que es capaz, pero falta liderazgo social o ético. Y se está dando paso a la tolerancia de las ambiciones personales. Por ejemplo, me he enterado de que se ha hecho un trabajo por importe de 70 millones de pesetas para (...) instalarse en Rusia y en otros países siguiendo con la nomenclatura anterior, Asia y Japón. Entonces hace un trabajo Arthur [Andersen] de la mano del antiguo Vicepresidente del Gobierno [Vasco] por cuenta del grupo. 70 millones. 35 para MCC y otros 35 para el Gobierno Vasco. Luego tenían que buscar la persona que le llevara aquello. (...) creo que sacaron del Banco Santander una persona muy experta en estas cuestiones. Y aparte de decir que el modelo presentado por Arthur no vale para nada, se echaron 10 millones a la papelera. Él creo que ganaba 35 millones al año. Con todo ello se está malgastando y se está dando paso a la tolerancia de las ambiciones personales. (...) Se está malgastando una experiencia que tiene en su naturaleza y razón originaria el disfrute individual de bienes a través de una vida comunitaria y solidaria con los que están dentro del sistema y con los que se hallan fuera del sistema» (Buruaga).

Indarrean dagoen «kultura menperatzailearen (kapitalismoaren) oinarrizko elementuak asimilatuz gero, kultura txikiarenak (kooperatibismoarenak) egin du» (Agiarre). Hala ere, indiferentziazio edo asimilazio kulturalerako joera ez ezik, bestek ez bezala kooperatiba fenomenoak bere-bereak dituen helburuak eta bestelako ezaugarriak izan badirela aitortzen da. Arrasateko esperientziak berariazko sentikortasuna agertzen du oraino ere enpleguaren aurrean edo, zehazkiago esateko, enplegua sortzearen aurrean. Une hauetan kooperatibek alderdi hori motibazio nagusitzat eta bere bokazio sozialaren erronka behinentzat dute.

«Resumiendo, (...) no creo que las cooperativas quieran o puedan hacer cosas esencialmente — subrayo la palabra esencialmente — diferentes en relación a las que en esta materia practique el resto de las empresas. Partiendo de que la concepción está ahí, par-

tiendo de la práctica que se ha llevado, y partiendo de que cuando te enfrentas con una serie de realidades, en las cuales ya entra un aspecto mucho más sensible que es el de la subsistencia y el de la competencia, casi te indiferencias. Lo cual no está en perjuicio de que siga subsistiendo la voluntad de crear empleo de forma distinta. Otro problema es (...) [que] ahí están los contratos eventuales y los contratos indefinidos, y toda la batalla en estos momentos está encaminada hacia la consecución de los contratos indefinidos, pero con garantía de estabilidad y garantía de buena esperanza cara al futuro. En la misma medida en que esto en el escenario de la competencia no sea posible, no pienso que las cooperativas puedan hacer esencialmente cosas distintas» (Agirre).

Enpleguari dagokionez, bada hor berariazko sentikortasuna eta borondatea, baina sentiberatasun horren gaintik beti dabil zalantza airean, itzulinguruka: kooperatibismoak enplegu —kalitadeduna, batik bat— gehiago sortzeko aukera ba ote duen. Kooperatibismoa txertatua dagoen merkatu zinez lehiakor horrek ezartzen ditu edozein enpresa-jarduerak errespetatu beharreko arauak, horrek ez dauka bueltarik. Horixe da fundatzaileen narrazio osoa zeharkatzen duen irakurketa: lehia biziko ingurune horrek jarduteko arauak adierazten ditu eta, neurri batean, bederen, bizirik iraun nahi duenak horiek errespetatu beharko ditu. Nolanahi ere, erresistentziako jarrera da Agirrerena, esaterako, Arrasateko kooperatibismoa sartuta dagoen ingurunea arras inposatzailea dela ondo baino hobeto dakien arren. Bere jarrera individual berezi horretatik ikusten omen duen panorama hauxe da, nonbait: lehiakortasunaren kortseak jarduera posiblearen tartea dezente estutzen du, bai, baina prozesua ireki samarra da aldi berean, eta etengabe aldatzen ari da.

Arrasateko kooperatibismoak atergabe borrokan dihardu: alde batetik, aldakorra eta ezin lehiakorragoa den inguruneari egokitzeko bultzada pragmatikoa; bestetik, balio eta printzipio etiko jakin batzuei zor zaien leialtasuna. Borroka hori esperientzia kooperatiboak bere baitan daramatzen arrazoi morala eta arrazoi instrumentalarren arteko gatazka baizik ez da. Ingurune lehiakorren presioak galarazten duenean ekintza alternatibo edo diferentziala martxan jartzeko aukera, markoaren jarraibideak bete beharko dira —diote fundatzaileek—; norabide horretan presionatzen duten indar erraldoi horien pean hiltzerik nahi ez bada, ez dago beste irtenbiderik. Nolanahi ere, joko-arauak nahitaez onartu behar badira ere, fundatzaileek —are eta berezikiago Agirrek— ez dute bertan esku hartuko paradigma kooperatiboaren proiektu etikoa ukatuz, baizik eta atsekabe etikoa sakon-sakonetik nozituz eta gauzak horrela izatea saihestezina dela erabat egiaztatuz.

«No sólo la flexibilidad [laboral], sino la aceptación activa de que es un valor, en cierta medida, a cultivar. Resulta que es lo que te están diciendo las empresas del entorno y ahora incluso planteándole problemas a la cosa de la seguridad social y demás. (...) Esto es una percepción extraordinariamente dolorosa que he tenido en nuestro ámbito. Ese es un mecanismo, como tal mecanismo que, por razón de flexibilidad y por razón de supervivencia, tendrás que utilizarlo. Pero una cosa es que utilices con un dolor del corazón que te restringes espontáneamente —porque es también un problema de actitud—; o hacerlo, no te voy a decir como un alegre divertimento, sino como una sensación de que con eso estamos haciendo cosas formidables. Y no es verdad» (Agirre).

Inguruneak beharturik, neurri jakin batzuk hartu behar badira, hartu egin beharko dira, baina ez axolagabetasun eta aihergaz, higuin moralez baizik. Garrantzi handia

du alderdi horrek, arrazoi morala desagertzeari erresistentzia aktiboa ezartzen zaio-lako. Arrazoi moralak logika instrumentalaren desfile oldarkorra gertutik ikusiko du, erne eta bere lurraldeko azken bazterra ere defendatzeko pronto; eta, porrot eginez gero, porrota arerioari larrutik ordainarazteko prest.

Horregatik, kooperatibaren filosofia ez betetzea, kooperatibismoak dituen oinarri etikoei erdeinu egitearen parekotzat jotzen da, batik bat. Fundatzaileen ikuspegitik, egungo enplegu prekarioa hedatzearen alderdi «mingarria», baliabide horren erabilerearen intentsitateaz gainera, ondokoa da: higuin eta erdeinu etikoei eraikia zuten hesi morala hautsita praktikatzea da. Kezkagarriena, Agirrek adierazi duen moduan, zera da: indiferentzia etikoa nagusitzen denean bidea erabat libre uzten zaio bitartekorik eraginkorrenekin emaitzarik onena bilatzen duen ekintza moldeari, edozein pentsaera arautzailek (etikoa izan, erlijiosoa izan) daukan indar loteslea txikituta utziz. Kezkagarriena eta arriskutsuena, beraz, presio moral oro desaktibatu eta baliogabetzea da, giza ekintzaren eraginkortasun hutsa gailenduz. Kontzientzia moralaren ahulezia estrukturalak ate-leihoak parez pare zabalduko dizkio irtenbide optimoa (eraginkortasunaren ikuspegitik) bilatzen duen arrazionaltasunari, azken helburu edo zentzuak erabat ahazturik.

Fundatzaileen kolektiboaren iritziz, biziki garatutako kontzientzia moral batek zorrotz zelatatu behar luke jarduera ekonomikoa. Gizabiderik edo zuzentasunik gabeko jarduera ekonomiko mingarri bati era horretan bakarrik ezarri ahal izango zaizkio beharrezkoak diren muga moralak. Zaintza moral horrek, hain zuzen, fundatzaileen iritziz indarra galdu du Arrasateko kultura kooperatiboan, eta, horrenbestez, arrazoi ekonomikoa (enpresarial eta pragmatiko hutsak) bere logika instrumentala mugarik gabe hedatzeko askatasun handiagoa dauka.

Fundatzaileen bizitzan arrazoi morala funtsezko elementua izan da, logika ekonomikoa etengabe aurre egin behar izan diolarik miatze moralari. Egun, ordea, hori ez ei dago lehen bezain garbi. Behin-behineko enpleguaren erabilera ikusita, praktika batzuk asaldura etikorik gabekoak ote diren. Egun miatze moralaz arduratzen den instantzia ahulago dago, hein batean, eta horren ondorioz jokabide instrumentala hedatuz doa pittinka-pittinka. Arrazoi instrumentalak arrazoi moralari alde egiten dio, berau desegin eta minimizatzen du eta, azkenean, ekintza instrumentala ekintza moralari nagusitu ohi zaio, geroz eta desorekatuago bihurtu den harremanean.

Pentsaera pertsonalista, gizartean nagusi diren jarrera eta balioen marko orokorrean disolbatzen ari da. Agirrek «azakeria instituzionala» kontzeptua (*frivolidad institucional*) erabiliko du enplegu prekarioaz egin den erabilera gehiegizkoa kritikatzeko; kontzeptu hori dimentsio kulturean gertatzen ari omen den aldaketari loturik uler daiteke: hautu kooperatibistak bereak lituzkeen seriotasun, sakontasun eta larritasuna, alde edo moldez, galduak dituela iradokitzen du termino horrek. Salterainek darabilen «arinkeria» (*ligereza*) terminoak ere antzeko oihartzuna duela dirudi. Azken honek, Arrasateko kooperatibismoa beharrezkoa dena baino behin-behinekotasun eta enplegu prekario gehiagoz baliatzen den galdetuta, horrela ihardetsi du:

«Yo calculo que un poquitín con más ligereza probablemente, no haciendo el esfuerzo que debe hacer para sostenerse en términos más competitivos. Ese grado de libertad lo utiliza con más facilidad. Una vez que se generaliza como cultura, eso es facilidad» (Salterain).

Ligereza terminoak eta berarekin batera agertzen diren besteek osaturiko eremu semantikoak («arinkeria» eta «errazkeria») atentzioa ematen du; logika ekonomiko-instrumentalak eskuratu duen «askatasunaren» adierazle dira. Zenbait jokabide eta ekintza-ildoek behinolako agindu moraletatik urrundutako «kultura» sortu dute. *Poza* da ondoko aipuan ageri dena:

«No se puede olvidar lo que aquí se ha dicho reiteradamente. Este es un producto y un tema [eventualidad y empleo precario] en el que el cuerpo social no te ayuda nada. No es una conciencia colectiva que se revuelve contra la frivolidad o contra la alegría [de utilizar ese instrumento]» (Agirre).

Termino hauek guztiek interpretazio ildo bera seinalatzen dutelakoan gaude: egitismo (moral) transzendenteak adierazten zuen idearioa beharpenetan dagoela nolabait, bere sakontasuna eta seriotasuna moteldu egin dela, iruditeri kooperatiboa nolabait *hutsal bihurtze* prozesuan balego bezala.

Aurreko aipamenean, dena den, arrazoi moralaren ahultzea adierazten duen diskurtsoaren beste adar bat ere agertzen da: esperientziaren herentzia morala eta pentsamendu-oinarria moteldurik erakusten dutenak ez dira egungo buruzagiak bakarrik; kooperatibetako bazkideen gorputz osoa da «oldartzen ez dena», izari morala suspertzen, sendotzen ez duena. Beraz, kooperatiba-komunitate osoak nozitzen du prozesu hori. Bertan aditzen diren ahots bakarrak, sentikortasun ideologiko berezia daukaten estratuetatik datoz —Kontseilu Sozialetatik—, hor bizirik baitirau «halako bizitasun ideologiko batek, gustukoa ez duzun frontetik baldin badator ere» (Salterain)⁹⁷.

Kooperatiba-komunitateko kideak kooperatiba-zentzuetan hez daitezten egin diren ahaleginak ez bide dira aski, hezkuntzan hutsune latza gertatu delarik: nahikoa da erakunde kooperatiboek heziketa teknikora bideratzen duten gastua eta «heziketa etiko, moral, kooperatibo eta pertsonalistan» eginiko ahalegina elkarrekin alderatzea. (Buruaga). Garrantzi handia eman izan zaio —gehitxo, aukeran— prestakuntza tek-

⁹⁷ Azpimarratzekoa da fundatzaileen diskurtso kritikoa eta Kontseilu Sozialetako kiderik aktiboen eta ideologizatuenean diskurtsoaren artean atzematen den kointzidentzia. Kontseilu Sozialek kooperatiban sindikatu batek kapital enpresan bete litzakeen tankerako funtzioak bete ohi ditu, eta bertako zenbait kide ideologia marxistan oinarritu dira, kapitalaren zapalkuntza-molde guztien aurkako erresistentzian, bake soziala erdiesteko kooperatibismoak aldarrikatzen zuen klaseen arteko gatazka harmonizatze haren kontra. Historikoki, Kontseilu Sozialetako kide asko eta askoren ikuspegi marxistak aurka egin dio, aurrez aurre egin ere, kooperatiba-ideiari. Diskurtsoak, nolana ere, badirudi gerturatzen joan direla pixkanaka; bi motiborengatik, beharbada. Batetik, Mendebaldeko gizarteetan jarrera iraultzaile edo erradikalak nabarmen ahuldu direnez, kooperatibismoaren hegalki ezkerrekoen eta erradikalenak diskurtsoa itxuraldatu egin du: klase-ikuspegitik kooperatiba fenomenoaren funtsari kritika egitetik, kooperatibismoaren ezaugarri bereizgarrienak defendatzera pasatu dira (Mikel Olabe, «Lankideak: una mirada sobre nosotros mismos», *Hika*, nº 91). Hementxe datoz bat ezkertiar horiek eta fundatzaileak, lehenago eta historikoki elkarren «aurkakoko» baziren ere (fundatzaileak zuzendaritzako kideak baitziren). Beste alde batetik, fundatzaileek ere egungo joeren aurrean jarrera kritikoa agertzen dute, ikusten ari garen bezala. Badira, jakina, batzuen eta bestearen artean desadostasun nabarmenak baina, aldi berean, zenbait adar eta ildo garrantzitsutan diskurtso-bide berberetik doaz.

nikoari, «esperientziaren zentzuaren muina bera ahaztu dela esatea gehiegi bada ere» (Agirre). Hezkuntzan berariazko ahaleginik egin ez izanak —kooperatibetako organoek egunero-egunero burutu beharreko ahalegina— balioen ahultzea dakar zuzen. Hezkuntza zeregina, gainera, egunero egin beharreko zerbait da, egunerokotasunean txertatu beharreko ahalegina, kooperatiba-bizitzako une eta gunee garrantzitsuak etengabe busti behar lirateke zeregin horrekin.

«De momento, no parece que sea grave la situación concreta de la solidaridad. Lo preocupante es la tendencia y la poca docencia que se hace en beneficio de frenar las ambiciones individuales. La democracia, la solidaridad y el cooperativismo arizmendiano —que recogía estos presupuestos— son valores esenciales que necesitan un buen tratamiento y un ejercicio cotidiano de alimentarlos de nutrientes. Si no, poco a poco desaparecen por agotamiento. Es así como se expresaba Havel [presidente checo] respecto a la democracia. Estos aspectos espirituales son muy débiles y hay que regarlos mucho todos los días, porque si no desaparecen. (...) sobre todo en las Juntas Generales y en las Juntas Rectoras es donde hay que machacar, pero en cada pequeña reunión o una reunión específica comercial, o una reunión de análisis personal o lo que fuera, tiene que haber alguien que esté remachando estos principios. Pero si ya el Director General de Caja Laboral y el presidente de la Caja Laboral hacen una memoria cada año y no hacen ninguna apelación en la introducción de la memoria a estos conceptos que son claves» (Buruaga).

Dena den, oinarriko kideak ernegutzen ohi dira «dotrinatze kooperatibotzat» hauteman litekeenaren aurrean, ez baitute nahi «erlijio kooperatiborik» edo bestelako homiliarik.

Hezkuntzan gertatu den hutsuneak zenbaterainoko eragina izan duen, horra hor gogoeta gai konplexua. Gauzak humanizatzeko asmoei espazio zabalegirik eskaintzen ez dien ingurune sozialean, diferentzialtasun kooperatiboa finkarazi duten balio eta sentimenduak ahulago agertzen dira, eta, inertziaz, kooperatibak pragmatismoaren territoriora labaintzen ari dira; antzinako ardura sozialaren berotasuna kalkulu hotz arrazional bihurtu da; bada, horren kausetako bat hezkuntza edo, hobeto esateko, hezkuntza-proiektu serio eta ongi sustraiturik ez izatea da.

«Pero el hecho es que se producen tendencias que conducen, por efecto de la manida globalización y el pragmatismo reinante, hacia la asunción de caracteres propios de la sociedad de capital, sin que nadie desde dentro del sistema y con capacidad de cambiar las cosas, lo advierta. Parece que aquí puede existir un déficit de educación cooperativa, o por lo menos hay que pensar que ahí puede residir la falta generalizada de los antiguos sentimientos de responsabilidad social que asumió el cooperativismo arizmendiano en la primera mitad que Arizmendiarieta vivió. ¿Pueden ser suplidos su mensaje, su coraje y sus realizaciones por un aumento de la acción educativa? Depende. Primero del interés que tengan los que gobiernan el grupo y segundo de las virtudes de conocimiento, convencimiento, y capacidad comunicativa y estímulo de quienes despliegan esa actividad. Porque claro, si en la cabeza no se tiene esa necesidad y no se ponen los medios y no se quiere destinar fondos y no se quieren destinar personas, pues evidentemente es imposible» (Buruaga)

Kooperatibismoaren indiferentziazioa geroz eta nabariagoa izate horren kausetako bi identifikatu dira: globalizazioa, batetik, eta nagusi dabilen pragmatismoa, bestetik. Kausa biak bata bestearekin hertsiki loturik doaz baina, aldi berean, *kanpo-*

kausa objektiboa (globalizazioa) eta *barne-kausa subjektiboa* (pragmatismoa) gisara bereiz daitezke. Beraz, huts egin dute kooperatibismoaren barne-mekanismoek ere: zentzuen eta nor kooperatibistaren transmisio lanak hezkuntzaren bidez.

Tarteka, hezkuntza-defizitaren inguruko diskurtsoa kritikoago agertzen da. Hezkuntza kooperatiboan gertatutako «ahulezia erradikala» aipatu eta, ondorioz, gizar-tean nagusi den kultura (kultura kooperatiboarekin bat ez datorrena) olio-orbana legez hedatu dela nabarmenduko da.

Izan badira arau (kooperatibista) instituzionalizatuak, horietako askok operatibotasun-gradu politean irauten dute, baina kooperatibismoan bidaide behar diren bizipe-nak, sakoneko motibazioak eta espiritua lardaskatu samarrak daude. Huste espiritual eta ideologikoak «ahulezia erradikala» erakusten du eta, horren kausak diagnostika-tzeko unean, diskurtsoari autokritikarik ere antzematen zaio, hein batean: ez dirudi beraiek ere asmatu dutenik hezkuntza-lan eraginkorrik burutzen.

«Habría que decir que la debilidad es radical. No existen vías de educación cooperativa ni de los mensajes expresados en documentos y asambleas se desprende objetivamente que se sienta esa necesidad. A partir de esa carencia el vacío y los puntos débiles se extienden por todo el entramado de relaciones. Pero no se debe creer que a falta de educación cooperativa sistemática, no existan conocimientos cooperativos. Son dos cosas distintas. El cooperativismo institucional, el que se halla escrito en la ley, los Estatutos y en los Reglamentos, se cumple y se cumple bastante bien, excepto en, quizás, el exceso de plantilla de trabajadores que no son cooperativistas, y que de ponerse de relieve podrían conducir a la pérdida de exenciones fiscales. La «debilidad radical» se aprecia en aquellas motivaciones que Arizmendiarieta trazó con su vida, su magisterio, sus escritos, su equipo, su ejemplo, su visión global y anticipada. Estos contenidos influidos por su enraizamiento cristiano, trascienden del «cooperativismo oficial» cumplidor y ajustado a la ley, a la norma, pero raramente de valor. Tampoco los fundadores hemos sabido completar bien. Al menos podría afirmarse que no dejamos una huella profunda por la que seguir.» (Buruaga).

Esan bezala, gaitasun eta ezagutza teknikoek sekulako bizitasuna erakusten dute, baina alderdi etikoa eta humanoa erdi ahantzirik omen dago nonbait. Alderdi tekniko eta etikoak aldarrikatzen eta biltzen zituen hezkuntza integral hura heziketa instrumental hutsa bilakatu da.

«Aunque todas nuestras entidades educativas y sus instituciones de apoyo y superestructura —incluida la fundación Gizabidea—, todas sin excepción, si no recuerdo nada mal, proclaman enfáticamente en su objeto social la formación integral de la persona humana —algunas con el singular añadido de euskaldun— no sé en qué se traduce en la realidad práctica, ese componente de integridad programada. Pienso que la deriva hacia la formación, en detrimento —o si se quiere minimización relativa— de la educación es patente en nuestro ámbito. Consecuentemente los vacíos y puntos débiles de la labor realizada vienen del hecho de priorizar la formación (habilidades profesionales) sin atender a la educación (valores y conciencia). Estoy seguro que hacemos buenos profesionales y técnicos pero no estoy tan seguro de que hagamos buenos cooperativistas» (Agirre).

Mondragon Unibertsitatea bera, Arrasateko Kooperatiba Esperientziaren hezkuntza alorreko instantzia goren aлегia, «unibertsitate teknokratiko bilakatuko - ez

bilakatuko baskulatzen ari da» eta, areago, Arizmendiarrietak proposaturiko hezkuntza-ereduari —hezkuntza tekniko eta etikoa integratzeari, alegia— zor litzaiokeen tokia ez zaio ematen unibertsitate horretan (Buruaga).

Fundatzaileen iruditeri kolektiboak behin eta berriz *lehenaldia* eta *orainaldia* markatzen ditu: *lehenaldian*, esentzia kooperatiboak aintzat hartuak ez ezik, biziki errespetatuak eta praktikatuak izaten ziren; *orainaldian*, aitzitik, kooperatibismoa desnaturalizatze bidean behera doa. *Geroaldia* are eta ilunagoa da: kooperatibaren erabateko suntsipena ere iragarri izan da zenbait unetan. *Lehenaldia*, normalean irakurketa positiboekin loturik dago, nagusi baitira Arrasateko kooperatiba-ideiekin koherenteak diren bizipenak eta esanahiez ondo blaitutako zentzu-komunitatea.⁹⁸

Honen adibide gisa, *lehenaldian* erreserba-fondoak (kooperatibak gizartearekin duen konpromisoaren adierazleak) handiak ziren eta ondare indibidualak, aldiz, urriak; *orainaldian* joerak kontrako norabidean doaz. Kooperatibismo mota batetik —fundatzaileek protagonizatu zutenetik— beste baterako trantsizioa hautematen da hor. *Lehenaldiko* kooperatibismoa azken zentzuez josia zegoen —garai hartan, zentzu-oinarri kristaua nagusia zelarik—, gizakien bizimoduaren eta existentzia sozialaren erdigunean zegoen; hura kooperatibismo erromantiko eta transzendentala zen. *Orainaldiko* kooperatibismoa pragmatikoa da, *ethos* ekonomikoari eta enpresa-arrakastari begira dagoena; karga emozional eskasekoa; bertako kideen nortasun indibidual eta sozialaren osagai gisa ahuldua dago; bestelako enpresa-errealitate zenbaitekin geroz eta alde gutxiago ditu; eta, horrenbestez, geroz eta nortasun desitxuratu eta ahulagoa agertzen du.

Eztabaida-taldeetarako ikerlariok idatzitako testuei ere kritika zorrotza egin zaie, jatorriaz geroztik esperientzia zentzuz bete eta fededun askoren euskarri izan den kristau motibazioaren aipurik ez dagoelako. Egun, berriz, Arrasateko kooperatibismoaren funtsezko ezaugarri horretan sakontzeak zentzurik ez duela onartzen da. Laikotze eta sekularizatze-prozesu bizia nozitu duen gizarte moderno honen idiosinkrasiak ez du eskatzen kooperatiba jardueran erlijioaren agerpenik, ezta onartzen ere. Gogoratu hitzok: « Pero (...) [hoy] casi a ninguno se le ocurriría dotarle de la impregnación religiosa que nutre permanentemente el pensamiento arizmendiano. También estoy de acuerdo en decir: esto está bien, pero ahora no aportaría nada» (Buruaga).

Fedeari eta dimentsio moralari toki handia aitortzen zion gizarte hark; gaur, ordea, «bizitzaren zentzu praktikoa» da nagusi. Gizartearen sekularizazio-prozesua begi-bistakoa da fundatzaileentzat, eta fenomeno hori zuzen lotzen da gizarteak eta bertako kideek dimentsio morala galdu izanarekin.

«lo de la tecnología y del egoísmo humano... ¿Dónde emplazas el otro mensaje? La barahúnda que se oye hoy de las contraculturas y de culturas diferentes a la nuestra tiene decibelios a manta... ¿Y la cantidad de emisión de mensajes de la flauta pastoril de un ciudadano que esta allí en un arbolito tocando? Bueno, pues desde ese punto de vista diría yo la Universidad debería ser un protagonista importante» (Agirre).

⁹⁸ Jakina, fundatzaileen narrazioa ñabardura aberatsez jositakoa da, eta gogoratu nahi nuke orriotakoa diskurtso konplexu baten laburpentzat hartu beharko litzatekeela; lerrook, beraz, trazu lodia erakusten dute, ez besterik.

Egun balio erlijiosoak eta kooperatiboak (edo erlijioso-kooperatiboak) transmititzea galarazten duten eragozpenez ondo baino hobeto jabetzen dira hirurak. Gizarte modernoaren sekularizatze-prozesua argi eta garbi hauteman dute. Amaitzearen dagoen aroa da beraiena. Oraingo mezu berriek, «dezibelio» ugariagotz eta indar sozial handiagoz horniturik, euren existentziaren funtsa eta zentzua izan dena bazterrean utzi dituzte. Mezu moral-erlijioso-kooperatiboa ez datza gizartearen erdialdean, bazterretan baizik. Irudi bukoliko samarra ere eskaini digute, «arbolatxo» batean txirula jotzen ari den artzainaren irudia, beste garai batekoak diren molde eta logiken ordezkari gisa: erlijioa, moralala eta, horrekin estuki loturik, kooperatibotasuna, hutsalduz doaz, bizitza sozialeko ertzetara zigorturik. Sekularizatze-prozesua mingostasunez bizi dute, fede kristauan nola fede kooperatiboan daukalarik eragina; biak elkarri tinki estekaturik daude eta fundatzaileen iruditerian biak dira bukatzen ari den mundu horren adierazpena.

Jarraian emango dugun pasarte luzexkak merezi duelakoan gaude. Bertan maila globaleko kooperatibismoa egitea ezinezko izatearen arrazoiak azaltzen ditu Salteranek. Honatx:

«Yo creo que más que dejación, ni se acuerdan. Y a la hora de plantearse como interrogante, si puede ser cooperativo o no, primero ni se plantean. Segundo, es prácticamente inviable una reproducción cooperativa parecida o similar a lo que está ahí, a esa distancia en la que hay un montón de razones por las que es inviable. Entre otras, una muy clara es que cooperativamente el poder emana de la persona y emana allí donde está. Por lo tanto, si montamos una cooperativa en Tailandia, los tailandeses son muy soberanos, porque es una filosofía muy soberanista (...) la que tienen las cooperativas. Entonces, lo que pasa es que la cooperativa que monta aquella otra cooperativa, supuestamente, necesita dirigir la estrategia, dirigir la gestión y conducir el conjunto como una unidad. Entonces, eso dificulta enormemente o puede dificultar, salvo que haya una dependencia de tal calibre de tipo tecnológico, que no haya otra alternativa. Pero siempre hay un potencial que puede emerger de discrepancia con las unidades centrales. Por lo tanto, en función de estas dos razones está clarísimo que la única alternativa es la del capital, porque es el único poder inalámbrico desfronterizado, y que es el mismo poder aquí que en Tailandia, que en Rusia o que en la India. Por lo tanto, las cooperativas no tienen otra alternativa que ejercitar lo que se llama el modelo dual. Se es cooperativo allí en el núcleo donde se puede estar y no se es cooperativo allí donde es difícil o habría que hacer un heroísmo tremendo. Porque no es lo mismo que una asociación, una ONG o incluso una congregación religiosa. Cuando entra el dinero en la explotación como componente necesario, eso tiene otro tratamiento y es prácticamente inviable. (...) Entonces yo diría que eso es prácticamente imposible, y que asumir la realidad porque el mercado globalizado es una de las auténticas revoluciones del siglo XX y del siglo XXI. Además, es una revolución de las multinacionales. No es una revolución de la política (...) y además para colmo, el otro día comentaba yo esto, que es que los fondos de pensiones y los fondos de inversiones de los proletarios ennoblecidos del capitalismo —los americanos, los ingleses, los españoles...— están decidiendo la suerte de los países. O sea que si Marx levantara la cabeza qué diría hoy día, que los proletarios que él quería unir para hacer la vanguardia obrera ahora son los mismos proletarios que hacen la vanguardia capitalista. Eso es algo tremendo y paradójico, pero esa es la realidad. El mundo globalizado es una revolución impresionante, porque las asimetrías sociales no están desapareciendo, están aumentando, por lo cual ya es el disparate mayúsculo, y no se sabe cómo puede intervenir un gobierno mundial

o pseudomundial para corregir las enormes asimetrías sociales que engendra un capitalismo dejado en manos de las multinacionales. Nosotros estamos ahí y naturalmente tenemos que jugar en ese escenario» (Salterain)

Ondoko aipuan ikusiko dugun moduan, Salterainek modu esanguratsuan Fidel Castroren Kubarekin alderatu du esperientzia, Buruagak eginiko iruzkin baten ostean; honek, ezkortasunaren gailurrean, benetan sententzia latza jaurti du: «Gurekin 25 urtez luzatuko zen akabera, baina orain dagoen egokiera horretan [egungo buruzagiekin] hamar urterako dago». Horri Salterainek honela ihardetsi dio:

«Te pasa como a Fidel Castro... ¿Eso sabes quien decía?, Arizmendiarieta, cuando yo le discutía que si alguno se marchaba fuera... Bueno [él decía que] el cooperativismo morirá cuando los que dicen creer no creen. Por lo tanto, no es un problema de que la cooperativa no pueda triunfar como organización, sino que los cooperativistas no crean en su propia organización» (Salterain).

Badirudi Kubako problematika antzeko terminoetan planteatu dela: Miami aberatsetik edo beste nonbaitetik datozen sirenen doinuen aurrean, porrota ala arrakasta kubatarrek eurek eginiko apustuak erabakiko du. Kooperatibismoa ere hil egingo da kooperatibistak sinesteari uzterakoan. Fidel Castroren aipamenak gainera, beste zerbait irudika dezake: itzaltzen egon litekeen mundu baten eta, etsipenak etsipen, horri aurre egiten dion estruktura eta borondatea. Aipamen horrek Kuba komunistaren erromantizismo ideologikoa — gogoan izan Arrasateko kooperatibismoaren garaikide historikoa dela — eta ekonomia kapitalistaren botere faktikoaren arteko borroka dakarkigu gogora. Ez Kubako iraultzak ez euskal kooperatibismoak ezingo luketenez sistema bere purutasun osoan iraunarazi, kasu batean zein bestean ere irtenbidearen parte bat sistema (komunista edo kooperatiboa) bideragarri egingo duten kanpoko neurri eta logika ekonomikoak onestea izan omen liteke (Kubak dolarra sartu zuen, atzerriko kapitalaren inbertsioak onestea onartu behar izan zuen eta baita jabego estatalaz bestelako jabego molde batzuk ere).

Hori dena, nork bere identitatea ez galtzarren egin beharreko ibilbide latza erakusten du, jakina. Euskal kooperatibismoa eta komunismo kubatarra lotze horrek bi kasuetan borroka antzekoa dela iradokitzen du: garai berrietara egokitzeko premia, esentziei eutsiz. Dilema zaila: nola bizirik iraun arima galdu gabe.

Hiru aipu gehiago ekarriko ditugu hona, laburpen gisa: horietako bi Buruagarenak dira, bestea Agirrerena. Hirurek diagnostikatzen dute Arrasateko Kooperatiba Esperientziaren identitate-elementu kulturalen galtzea, argi eta garbi seinatzen da arrazoi moralaren ahultzea (asimilazio kulturala).

«Y probablemente sean pocos los pueblos que, como los del Alto Deba, mantengan tan estrechas diferencias de clases, de acceso a los bienes de la cultura indiscriminadamente para todos los hijos de cualquier ciudadano. Otra cosa es que este estatus haya provocado indiferencia hacia los demás una vez que se ha alcanzado un nivel de bienestar impensable hace cuarenta años, y que tal indiferencia haya debilitado los sentimientos de rebeldía a favor de quienes viven peor; o que, una vez «situados», hayamos terminado por creer que no es necesario abordar otras facetas íntimas de la vida porque nuestro apoltronamiento (...) nos inmuniza y nos soporta en nuestra particular ciudadela. Esto es lo que habría que combatir. Pero esa ruptura con las situaciones normales,

establecidas, requiere cierta actitud heroica, pero esa acción heroica... En cierta medida la hubo cuando se creó el cooperativismo, si no hubiéramos seguido apoltronados en la Unión Cerrajera» (Buruaga).

«Al final, la sociedad se ha hecho distinta porque los valores están en decadencia, porque (...) el ciudadano es absolutamente individualista y la cultura dominante es la del progreso y la del lucro económico. Prevalece un valor economicista, utilitario» (Agirre).

«Salvo las personas que viven estos temas sociológicos, a mí me parece que nadie conoce que el cooperativismo vive en una sociedad con un especial dinamismo social. Al revés, tampoco a mí me lo parece; la riqueza disponible, la disminución del horario de trabajo —casi en un 40% desde hace 40 años— y la pérdida de referencias de la moral religiosa, están haciendo más individualistas a las nuevas generaciones. Lo cual no significa que sean menos reales ni menos conscientes de sus responsabilidades específicas, pero sí que las solicitudes de la sociedad les preocupan menos y que sus prioridades son, casi en exclusiva, resolver casi únicamente sus propios problemas. Pero es evidente que en todas las épocas las organizaciones y los movimientos, para llevar a cabo una transformación social, han estado en manos de minorías. También en su origen la experiencia arizmendiana; y ahora también son pocos los que lo viven intensamente y conociéndola en su plenitud» (Buruaga).

BIDEGILEEN ETA GAURKO PROTAGONISTEN DISKURTSO ANALISIA

2.1. Aibapuntukoak

2.1.1. *Diskurtso analisirako zenbait irizpide*

Orriotan aurkezten dugun analisia hobeto ulertzeko lagungarria da fundatzaileen diskurtsoaren analisia ezagutzea. Izan ere, segidan aurkeztuko dugun analisiak fundatzaileen gaineko kapituluak esandakoei erreparatzen die sarritan, antzekotasunak eta diferentziak ikusi aldera. Gainera, orriotan azaltzera gatozen diskurtso eta mintzamoldea, fundatzaileenarekin nolabaiteko haustura dakarren diskurtso gisa aurkeztuko dugu⁹⁹.

Horrek ez du esan gura iritzi-ildo uniforme eta bakar batekin egin dugunik topo, ezta gutxiago ere. Ondoko analisisian iritzi-ildo ezberdinak aurkituko ditugu, zenbait unetan beraien artean aurkakoak ere bai, eta beste une batzuetan kontraesankorrek eta berdin-antzekoak. Hots, pluraltasuna dugu nagusi, baina, pluraltasun horren barruan badago gailentzen den estilo diskurtsibo jakin bat.

Fundatzaileak talde konpaktu eta homogeenago gisa hartu genituen, izan ere, belaunaldi berekoak dira, eta sinbolo esanguratsuak Arrasateko kooperatibismoaren munduan; garrantzi sinboliko eta historiko ukazina izan dute. Ostera, bidegileen eta gaurko protagonisten analisisian helburua ez da izan partaide guztiek konpartitzen dituzten diskurtso osagaiak erakustea. Ez ditugu talde homogeen eta esanguratsu gisa hartuko. Nagusiki bigarren eta hirugarren belaunaldikoak dira. Partaideetako batzuk aipatuko ditugun diskurtso-osagai gehienak konpartituko dituzte, beste batzuk ez horrenbeste. Euretako bakoitzak diskurtso orokorrek gorpuzten duen puzzleari zenbait zati aportatu dizkio, guk zatiok batu eta diskurtso-ildo orokor bat diseinatu dugu.

⁹⁹ Bidegileak eta Gaurko Protagonistak deituriko atal honi dagokionez, esan analisi guztia ekarri dudala orriotara; ez da laburpen bat, fundatzaileen kasuan bezala. Bestetik, atal honetan ere parte-hartzaileen pribazitatea zaintze aldera, ez dut azaldu izen-abizenik aipu edo iritzi bakoitzaren amaieran.

2.1.2. *Parte hartzaileen posizio soziala*

Fundatzaileen kasuan aipatua dugu ezin bereiz daitezkeela euren tonalitate diskurtsiboa eta gaur betetzen duten gizarte posizioa eta kooperatibismoarekin gaur duten harremana. Fundatzaileen produkzio diskurtsiboaren zati bat —akaso bere adierazpenik muturrenekoak— gaurko bizi-esperientziak markatzen duen sentipenetik ulertu beharra dago. Gaur Arrasateko kooperatibismoarekiko bizi duten egoera erretiro egoera da, eta, hiru fundatzaileen bizipenak ezberdinak badira ere oso, erretiroa galera sentimendu mingarri gisa bizi da zenbait unetan, autogarapen pertsonala eta betetasun esperientziekin lotutako bizi-esperientzia galdu baita. Ongizatea eta segurtasun psikikoa eskaintzen zuen egoera sozialetik bereiztu izanak, galeraren diskurtsoaren azpian dagoen tonalitate emotiboa baldintzatzen duela defendatu dut. Galeraren oinarritutako emozio-tonalitate horrek galeraren diskurtsoa elikatu eta amplifikatu egiten du zenbait unetan (ez kasu guztietan).

Modu berean, ondoko lerrootan diskurtso ekoizle ditugun pertsonen kasuan garrantzitsua da euren posizio soziala. Bi taldetan bereiztu ditugu: «Bidegileak» izenpean lehendabizikoa; «Gaurko Protagonistak» izenpean bigarrena.

Bidegileak taldean Arrasateko kooperatibismoan «bidea egin» dutenak daude. Hots, parte hartze garrantzitsua izan dutenak, eta akaso hiru fundatzaileen garrantzi praktikoa eta sinbolikora heltzen ez badira ere, funtsezkoak izan dira taldearen ibilbidean. Ondokoak izan dira «Bidegileak» izenpean batu ditugunak, hiru taldetan, eta tartean ikerkuntzako emakume bakarra:

A Taldea

- Jabier Mongelos, MCCko zuzendari orokor ohia, jubilatua
 - Manolo Quevedo, jubilatua, Ikerlaneko ikertzaile eta Eskola Politeknikoko irakasle lanetan ibilia
 - Javier Erdozia, MCCko idazkari orokorra (eztabaida taldea egin zen garaian)
 - Jose Antonio Mendikute, HUHEZIKO (M.U.) irakasle (gero HUHEZIKO dekanoa eta egun erretiratua)
 - Jesus Olazabalaga, jubilatua
 - Jabier Salaberria, Euskadiko Kooperatiben Federazioko zuzendaria eta LKSKo aholkularia
-

B Taldea

- Jesus Garmendia, HUHEZIKO (M.U.) dekanoa (gaur erretiratua)
 - Tomasa Zabaleta, Fagor-eko Gizarte Kontseiluko idazkari ohia, erretiratua
 - Gabriel Mendizabal, jubilatua
 - Iñaki Maruri, jubilatua
 - Julio Gorroñoigoitia, jubilatua
 - Jose M^a Ortubai, jubilatua
 - Jesus Goienetxe, MCC-ko Gestio Sozialeko burua
-

C Taldea

- Félix Ormaetxea, Gizabidea fundazioko lehendakaria (gaur jubilatua)
 - Iñaki Altuna, jubilatua
 - Roman Balanzategi, jubilatua
 - Jose Mari Sarasua, jubilatua
 - Juan Leibar, jubilatua
 - Rafa Fernández, jubilatua
 - Jose Luis Corcuera, irakaslea Eskola Politeknikoan (gaur jubilatua)
 - Jose Antonio Cancelo, MCCko zuzendari orokorra (gaur jubilatua)
-

«Gaurko Protagonistak» izenpean egun ardura garrantzitsuak dituztenak bildu ditugu. Ondoren aipatuko ditugu nortzuk izan diren eta eztabaida-taldeak egin genituen garaian betetzen zuten ardura (zenbait kasutan gaur betetzen dutena ere aipatuko da):

- Juan Maria Otaegi, MCC-ko lehendakaria
- Iñaki Gorroño, Euskadiko Kutxako zuzendariorde orokorra
- Agustin Markaide, Eroskiko Hipermerkatuetako burua (gaur Eroski Taldeko zuzendaria)
- Adrian Zelaia: MCC-ko lege-aholkularia eta M.U.ko lehendakaria (gaur MCCko idazkari orokorra)
- Jose Ignacio Garate, MCC-ko Idazkaritza Teknikoko zuzendaria
- Jose Mari Larramendi, Eroski Taldeko idazkaria (gaur erretiratu)
- Fernando Gómez Acedo, Fagor-eko gerentea
- Jose Antonio Ajuria, Lagun-Aroko lehendakaria
- Jesus M^a Herrasti: MCC-ko Nazioarte Saileko zuzendaria
- Anton Etxebarria: MCCko lehendakariordea
- txema Gisasola, Fagor-eko gerentea, (gero MCCko Gestio Sozialeko buru eta egun Fagor Elektrotresnetako zuzendaria)
- Mila Larrañaga, Fagor Elektrotresnetako Gizarte Kontseiluko kidea
- Mikel Olabe, Geysler, Gizarte Kontseiluko kidea
- Joseba Ugalde, Copreci, Gizarte Kontseiluko kidea
- Jabier Gantxegi, Fagor-eko presidentea (gero Gizabidea fundazioko lehendakaria eta gaur erretiratu)
- Pablo Mongelos, Fagor Elektrotresnak-eko gerentea (gaur Lagun Aroko zuzendaria)

Bidegileak			Gaurko Protagonistak		
A	B	C	FAGOR	PENSTSA. + EJEKUT.	
Quevedo	Garmendia	Ormaetxea	Mila Larraña	Zelaia	Gorroño
Salaberria	Zabaleta	Altuna	Olabe	Herrasti	Ajuria
Mendieta	Mendizabal	Balanzategi	Ugalde	Otaegi	Acedo
Olazabalag	Maruri	Sarasua	Gantxegi	Garate	Larramendi
Mendikute	Gorroñog.	Leibar	Aranzbal	Markaide	
Erdozia	Ortubai	Fernández	Mongelos		
	Goinetxe	Corcuera	Gisasola		
		Cancelo			

Bi dira, nagusiki, Arrasateko esperientziarekiko bizi diren egoerak:

- Elkarrizketak egin ziren garaian batzuk erretiratuta zeuden, euretako batzuk erretiratu berri.
- Beste batzuk, ostera, langile aktibo gisa ziharduten, gehienek kasuan azken txanpan, eta gehienak ardura potoloekin.

Erretiratuak egon ala ez, gehienak Arrasateko kooperatibismoan ardura potoloak betetakoak dira, edo erreferentzia garrantzitsuak; horregatik izan dira aukeratuak. Kooperatibismoarekiko duten posizio sozialari dagokionean, azpimarratu beharreko funtsezko ezaugarria ondokoa da (gehienek kasuan): gaurko kooperatibismoarekin duten lotura zuzena, eta beraz, kooperatibismoaren gaurko osasun egoerarekin sentitzen den lokarri sendoa, konpromisoa edo erresposabilitatea. Gaurko kooperatibismoaren parte dira edo duela oso gutxira arte izan dira.

Horrek pista inportante bat ematen digu: posizio horretatik zaila da, zinez, galeran oinarritutako diskurtso bat eraikitzea (gehienek kasuan), hein batean norbere erresposabilitatea edo porrota aitortzea bezalakoa bailitzateke hori; eta ariketa hori, jakina, ez da normalena. Diskurtsoak eraikitzen direnean, guztiok ahalegintzen gara, are gehiago beste batzuen aurrean, geure ekintzak eta hautuak babestuko dituzten diskurtsoak mamitzen. Normalean diskurtso orok erantzuten dio gure barruan errota dagoen interes-multzo bati. Horixe da elkarrizketatu askoren irudikapen kolektiboa baldintzatzen duen faktore garrantzitsua. Ondorioz, Arrasateko kooperatibismoari askoz begiratu positiboagoa luzatuko zaio. Irakurketaren ardatz nagusia beste leku batean aurkitzen da beraz.

Esana dugu fundatzaileen posizio sozialak ez duela berez azaltzen galeraren diskurtsoa, egon badagoelako galera oinarritzeko hainako elementu objektiborik, eta

noski, posizio sozial horretatik kanpo ere eraiki daiteke galeran oinarritutako irakurketarik. Erretiroa ardatz duen bizi esperientziak galera fokalizatu eta berau anplifikatzeko balio dezakeela defendatu dugu (kontuan hartuta lanaren etikak eta profesioak fundatzaileen bizitza gidatu eta berau zentzuz hornitu duela). Bidegile eta Gaurko Protagonisten kasuan beste horrenbeste esan daitekeelakoan gaude: aitaturako posizio sozialetik eraiki dute euren begiratu subjektiboa, baina horrek ez du berau oinarritze arrazional eta objektiborik gabe uzten, inondik inora. Kasu honetan ere, posizio sozialari buruzko kontsiderazioak hobeto ulertzen lagun diezaguke eraikiko den begiratua. Kontua zera da: aintzat hartzea zein bizi-markotan eta interes-unibertsotan txertatzen den partaideen hitza eta bizipena.

2.1.3. Diskurtso ildoen gaineko zenbait kontsiderazio orokor

Aurreratu dugun moduan, fundatzaileekin alderatuta bestelako imaginario eta ikuspegi baten aurrean gaude. Funtsean, galera diskurtsoarekin hautsiko da. Egon badaude galera osagaiak, baina funtsezko ardatza beste leku batean dago.

Badira fundatzaileen ildo beretsutik doazen hautemateak, AKEren ekarpen positiboen nola kontraesanen inguruan. Hemen ere, gogoratu behar dugu diskurtsoek izan ohi duten anibalentzia; hots, diskurtsoa etengabe kulunkatzen da, irakurketa baikorragoetatik ezkorragoetara, eta alderantziz. Fundatzaileen anibalentzian aurki daitezkeen irakurketa-ale positiboek zeharo bat egiten dute Bidegileek eta Gaurko Protagonistek azaltzen duten begiratuarekin. Azken hauengan ale horiek osatzen dute diskurtsoaren ardatz nagusia, ordea. Modu berean, azken hauengan ere presente dago nolabaiteko anibalentzia bat: zenbait unetan AKEri gorazarre egingo zaio, ikuspegi triunfalistak ere aurkitzeraino, eta beste zenbait unetan AKEren izaera problematikoa eta bere inkoherentziak azaleratuko dira.

Beraz, ez gara ari elkarri lepoa ematen dioten bi diskurtso erabat ezberdinez, bat fundatzaileena eta bestea segidan aztertuko duguna. Elkarren artean konexio puntu asko daude. Are gehiago, bereziki Bidegileak izenpean sartu ditugun zenbait partaide gertuago daude fundatzaileen diskurtsoetik hemendik aurrera azalduko dugunetik baino.

Esan nahi duguna zera da: funtsean, anibalentziaren parte diren bi nerbioen arteko orekak dira ezberdinak talde batean eta bestean. Bidegileengan eta Gaurko Protagonistengan, aurkitu, aurkitzen dira galera osagaiak, baina galeraren diskurtsoak ez du gaina hartzen, ez du narrazioa estaltzen, aurki daitezkeen ildo diskurtsiboetako bat da, beste batzuekin bizi dena, baina ez da diskurtsoaren trazu sendoena (fundatzaileengan sendoagoa da). Horregatik diogu galera diskurtsoarekin haustura bat dagoela: funtsean, baikortasunaren bizipenera egingo dugu jauzi; kooperatibismoaren iragana, orainaldia eta etorkizuna aztertzeko orduan, ikuspegi baikorrak estaliko baitu narrazioa.

2.2. Gako diskurtsibo nagusiak

2.2.1. *Imaginario baikorra eta arrazoi historikoa: galera-diskurtsoarekin haustura*

2.2.1.1. *Mundu globalizatua, bide onetik doan mundua*

Eztabaida-taldeetako kideei banatutako testuaren lehendabiziko kapituluan munduaren irakurketa kritikoa igortzen da. Horren aurrean jarrera eta sentsazio ezberdinak sortu dira, baina gehienengan, guztiengan ez esatearren, kooperatibismoa ordura arte pentsatu gabeko moduan kokatzea suposatu izan du. Testuaren tonu kritikoak, gainera, ezinezona sortu du gehienen kasuan, ezinezon emankorra batzuen artean, eta disgustu irekia eta erabateko desadostasuna zenbaitengan.

«...planteando desde el principio este mundo de la injusticia, de todo esto, y pretender de alguna forma resolverlo luego con la participación en la cooperativa, a mi me ha dejado un poco destrozado y no muy a gusto.»

«A mí el documento no me ha gustado la verdad. Me parece excesivamente abigarrado, con permanentes contradicciones que llevan más a la desorientación que en una dirección concreta.»

Gehien atsekabetu direnen artean kexua sortu da, Arrasateko Kooperatiba Esperientzia ez baita sekula mundu mailako problematika handien altzoan kokatu. Arrasateko Kooperatiba Esperientziari buruzko eztabaida eta elkarrizketa mundu mailako arazo larri eta potoloei buruzko irakurketa batekin hasi izanak zentzurik ba ote duen galdetu beharko litzatekeela esango zaigu. Testuan esaten denari arrazoi zati garrantzitsua aitortzen bazaio ere, Arrasateko esperientzia kooperatibotik gertuago dauden arazoetatik hasi beharko litzateke.

Zenbaitek galdetuko dute ea mundu mailako kalapitek ba ote duten zerikusirik esperientzia konkretu honekin. Finean, esperientziaren zentzua eta ekarpena mundu globalizatuan kokatzeak «jauzi kualitatibo» handia dakar, bat ez datorrena betiko kokapenarekin, berau umilagoa baita, lokalagoa eta bertakoagoa. Kokapen berriak «jauzi kualitatibo» garrantzitsua dakar norbere ulermenean.

«Yo creo que es un poco provocativo lo que se hace en este capítulo. Porque de hecho yo he conocido a Don José María. Yo creo que Don José María no planteaba un salto tan importante desde el punto de vista de nuestra experiencia cooperativa, hacia una fórmula de estructura política y estructura social que saliera al paso de la situación que existe. Había un problema de injusticia en una zona concreta aquí y ahora (...) Entonces a mi también me parece que es un salto cualitativo, diríamos, importante.»

Askorentzat testuak Arrasateko kooperatiba esperientziari munduko problematikak konpontzeko mandatua ematen dio, eta hori gehiegizkoa da, Arrasateko kooperatibismoaren ekintza-erradioa askoz umilagoa eta laburragoa baita. Ildo honetatik:

«Una gota del mar se estaría preocupando del nivel de salinidad de todo el mar. Es un despropósito general. Si nosotros aquí somos una gota... en el País Vasco somos el 5% de la economía, pero es que en el mundo redondito somos un átomo.»

Beste batzuen iritzian, eztabaidarako testua ideologikoa da, eta ondorioz, esperientzia kooperatiboak ezin du bere egin, esperientzia hau ezin baita ideologia jakin batekin lotu. Ondorioz, munduari buruzko diagnostikoek indibidualak beharko dute izan, ez kolektiboak. Subjektu kooperatibistari erdi ukatzen zaio diagnostiko komuna eraikitzeko aukera:

«Kontzeptu asko interesgarriak dira, baina ideologikoak ere badira. Hau da, pertsonalak dira. Ezin da esan: taldearen iritzi kolektiboa hau da, testuan dagoena da. Taldea ideologiatik kanpo mantendu izan da beti. Oso gai delikatu da eta taldean iritzi ezberdinak daude. Kontzeptu ideologiko asko dago hemen. (...) Munduari buruzko diagnostikoa indibiduala ala kolektiboa izan behar da? (...) ez dakit beharrezkoa edo ona den talde gisa diagnostiko bat izatea. txarra izan daiteke holako diagnostiko bat ofizializatzea, taldearena balitz bezala.»

Azken batean, espazio kooperatibistak duen pluraltasunarekin egiten dugu topo, eta pluraltasunean batasuna zelan lortu, horixe auzia.

«Ez da balorazio negatiboa, konstatazioa baizik, normala den mugimendua... Gaur ezin dugu Mounier erabili; ezta ere Tamames edo *Le Monde Diplomatique*... Niretzat aspirazioa... Korporazioan «errealitate eraldatzaile» denok esaten dugu, baina oso modu ezberdinetan ikusten dugu. Bakoitzarentzat gauza bat da, hori da esan nahi du-dana. Esaten dugunean «el trabajo como valor» jende askok es luke hori sinatuko: «no, no, el trabajo es un no-valor...» Ni ez naiz hori, baina gu bagara hori ere bai. Bazkide batzuk horrelakoak dira eta guztiok lan egin behar dugu.»

Konplexua bezain estimulatzailea, luzatutako galdera inplizitua: posible ote da espazio kooperatibista subjektu bilakatzea, bere baitan hartzen duen pluraltasun handia kontuan hartuta?

Edozelan ere, idatziari buruzko iritzi positiboak ere entzun ditugu: «Itzela da. Oso ona. Oso teorikoa». Iritzi positiboak ere bai:

«Arizmendiarieta hil zenetik ideologiazko lan bakarra. Ez dakit berandu ez datorren. Hau akaso duela 20 bat urte egin behar zen. Ez dakit Azurmendik berak ere horrelakorik idatziko lukeen. Oso ona.»

Halaber, desadostasuna eta ondoeza izan dira nagusi. Zergatik? Gure ustean, bi dira kexua eta desakordioa esplikatzen gakoak:

- Marko global berrian kokatzeko erresistentzia kultural edo subjektibo indartsuak daude. Gizartea eta mundua batez ere marko zaharretik, hots, estatu-nazioak ezarri dituen muga estuetatik pentsatu eta hausnartu duen mentalitate estilo baten aurrean gaude. Errealitate globalizatu eta interdependentean batek mundua eta norbere kokapena ulertzeko moldeak aldatzea eskatzen du, aldaketa kognitibo sakon samarra. Gure ustean trantsizio hori bizi dugu, estatu-nazioak ardaztu duen gizarte kontzepzioari «gizarte globalaren» errealitatea gaineratzen ari zaio, plano ekonomiko, politiko, sozial, mediatiko eta kulturalen. Baina belaunaldi berriak dira parametro sinboliko berrietan hazten ari direnak, eta bere

errepresentazioak —pentsatzeko moduak— lehengo moldeetan ardaztuak dituztenek erresistentzia handiak dituzte errepresentazio osagai berriak inkorporatzeko. Paradoxikoa da, belaunaldi zaharrago horiek ez baitute inongo arazorik aurkitzen AKE enpresa-sare gisa munduan zehar kokatzeko.

- Hortaz gain, zenbait unetan marko globala eta beronek gaur duen garrantzia aitortzen da. Baina, berau aitortzen denean ere, mundu globalizatua guk aurkeztutakotik oso bestelako imaginario bati lotuko zaio. Gehienetan, mundu ikuskera baikorra ageri da. Beraz, testuak agertzen ez duen ikuspegia defendatuko da gaurko munduaz hitz egitean. Munduaren irakurketa baikor horrek bi hanka nagusi ditu: lehenik eta behin, egun erakundeek bizi duten iraultza eta berauetan pertsonak lortzen ari diren zentraltasuna; eta bigarrenik, horren ondorio gisa kooperatibagintzak XXI mende hasieran duen gaurkotasun ukaezina. Ondorengo lerrootan garatuko ditugu biak.

Bi arrazoi horiek aurkitzen ditugu (marko global orokorrean kokatzeko erresistentzia kognitibo-kulturalak; eta, kokapen hori egon badagoenean, marko globalari buruzko oso bestelako irakurketa) testuak probokatu duen ezinegona, atsekabea eta, baita ere, disgustu irekia esplikatzeko.

Beraz, Arrasateko kooperatibismoaren kokapen globalizatu eta orokorregi horren egokitasuna zalantzan jartzeaz gain, kapitulu horri bigarren kritika bat igorriko zaio: munduaren irakurketa ezkorregia luzatzen du testuak. Interesgarria zaigu kritika ildo hori, zenbait kooperatibisten sakoneko gizarte-imaginarioaz pistak ematen dizkigulako: funtsean, eta arazoak arazo, mundua bide onetik doa.

«Lo que pasa es que yo soy siempre optimista. Yo creo que el mundo no camina hacia atrás, camina hacia delante»

«Lehenengo kapitulua arraroa egin zait. Hirugarren munduari buruzko kapitulua da. Hortik abiatu behar al gara ala gure errealitate hurbiletik? (...) Tonu pesimistegia dago.»

«Y también coincido en que [el texto] tiene un alcance y una pretensión desmedida, y partiendo de un capítulo primero de escenario con el que no coincido en absoluto. Me parece que estamos intentando ver solo la parte negativa. Me ha recordado en parte a los ejercicios espirituales que hacíamos cuando éramos chavales, que nos llevaban a Loyola y nos tenían una semana allí encerrados para decirnos lo malos que éramos. (...) Yo creo que nosotros debemos tener nuestros propios valores y nuestra propia definición. Pero yo no tengo por qué sacarle los colores al resto del mundo»

Mundua ez dago hain txarto, eta Euskal Herria are gutxiago:

«Yo creo que el texto es excesivamente crítico. Nos hemos situado en el capitalismo, es una concepción algo teórica... Yo les miro a los empresarios de alrededor aquí, y no..., pues no [dando a entender que no merecen la crítica]. Ahí nos situamos como jueces desde un plano más intelectual que real. Aquí [en el texto] parece que nos metemos con todo lo humano y lo divino. (...) Hay muchos sitios en que no tienen esa expresión digamos de diablo con cuernos.»

«Diagnostikoan kutsu bat nabarmentzen da. Nik positibizatu egingo nuke. Gauza batzuk oso eztabaidagarriak dira. Geure azterketak egiterrakoan kontuan izan behar

dugu Euskal Herrian ondo bizi garela, gizarte oso kohesionatua dugula eta balore positibo asko ditugula. Hori da gure abiapuntua. Hau ez da Tamames-ek edo Le Monde Diplomatique-k esaten duena.»

Aztergai dugun imaginarioan nagusi dira irakurketa goxoagoak. Zenbaitzuen barrenetan, gaurko egoerari buruzko sentimendu kritikoa barik, gaurko tendentzien gaineko irakurketa positiboa ageri da, aldeotasuna ere bai, eta kritikarik agertzekotan, kritika xumea. Mundua konfiguratzeko ari diren indarretan oinarritzko konfiantza moduko bat soma daiteke, haserretik, ezkortasunetik, asalduratik edo suminduratik erabat aldentuta. Gizarte — eta etorkizun-ikuspegi baikorra ageri zaigu.

Hori dela eta, testuan ageri den irakurketa kritikoa ez du konexio-gune gehiegirik aurkitzen protagonisten unibertso sinbolikoarekin. Testuak kooperatibismoaren hondoan aurkitzen den asaldura etikoaz hitz egiten du, bokazio inkonformistaz, kooperatibismoak bizi duen tentsio utopikoaren galeraz eta bere jarrera defentsiboaz... Horregatik, hainbatek planteatuko du egokiagoa litzatekeela kontzeptu ez hain kritikoa eta bigunagoak erabiltzea (eztabaida-talde ezberdinetako hainbat kidek):

«¿En vez de indignación ética, no se puede poner entusiasmo ético?»

«Tengo que admitir que no sé si es un problema de estilo, de lenguaje de los jóvenes, pero para empezar lo de indignación no me suena bien. Creo que nosotros hoy en día tenemos calificativos de otro tipo, más neutros vamos a decir. Pero ya digo, quizá sea un problema de lo «cascaus» y viejos que estamos. A mí me molesta la palabra indignación. «preocupación ética» estaría de acuerdo, pero no utilizaría un calificativo tan duro.»

«Yo como primer concepto no creo que se trate de indignación ética. Me parece rimbombante y exagerada. Plantearme la lucha de cooperativismo contra capitalismo y cosas por el estilo a mí me parece utópico.»

Testuan erabilitako kontzeptuek, kritikoez jokatzen direnak, ez dute islatzen aztergai ditugun protagonisten interpretazio mundua, ez eta kooperatibismoaz duten ustea. Akaso beste garai batzuetako espiritu kritikoa sosegua bilatu du («quizá sea un problema de lo «cascaus» y viejos que estamos») eta gustokoa ez zuten munduarekin bakea sinatu dute, akaso munduak hobera egin eta dagoeneko kritika sendoagorik merezi ez duelako, edo beste arrazoiaren bat tarteko.

Arrazoiak arrazoi, hein batean, bakea hitzartu da. Gaurko mundua ezaugarritzeko beste termino batzuk eta beste jarrera bat eskatzen dira. Modu berean, kooperatibismoaren gaurko egoera idazteko terminoak ez dira «tentsio utopikoaren galera» edo eta «jarrera defentsiboa». Beraz, zenbaitzuek errotiko desadostasuna sentitu dute eztabaida-taldeetarako oinarria izan den testuaren tonu eta diskurtsoarekin. Aldi berean, gizarte mendebaldarra begi onez ikusten da, demokraziaren eta kontzepzio liberalagoen lurraldea baita berau, eta hementxe sustraitu da kooperatibismoa sendoen.

«El texto creo que efectivamente da una foto demasiado negativa, porque, hombre, estamos hablando del capitalismo,... y también habría que decir que nuestro sistema [cooperativo] funciona mucho mejor en un sistema democrático, más transparente, más liberal si se quiere. (...) Teóricamente el mundo cooperativo podría haber funcionado perfectamente en las sociedades comunistas, pero curiosamente es donde peor ha

funcionado. (...) Otra cosa es que ésa búsqueda del beneficio per se [en las sociedades capitalistas] se nos lleva a extremos. Pero ha habido avances positivos, creo, en general. Tenemos de todo, no?, pero yo creo que realmente estamos más cómodos en una sociedad democrática y relativamente liberal, que en una sociedad más totalitaria en general.»

Ikuspegi baikorrak helduleku ugari aurkitzen du, eta guztiek erakusten digute Arrasateko kooperatibismoaren historia arrakastatsua izan dela. Nabarmena da, esaterako, aberastasuna sortzeko eta berau banatzeko erakutsi duen gaitasuna, eta kontuan hartu behar da asmo hori zegoela helburu nagusien artean esperientzia hau abiatu zenean. Munduari buruzko balorazio baikorra bat dator auto-balorazio baikorrek:in:

«Yo estoy satisfecho de haber podido participar junto con otros compañeros en crear riqueza y repartirla»

«Yo creo que si hubiera un montón de corporaciones como la nuestra en el mundo, el mundo sería distinto... La cuestión es que somos lo que somos. No es que sea malo lo que nosotros somos, sino que somos pocos. (...) Y creo, desde luego, que es muy noble la creación de empleo y el desarrollo económico estable del movimiento cooperativo.»

Asaldura etikoaren bizipenarekin batere identifikatzen ez direnak, bidean geldialditxo bat egin eta hausnartzearen beharra bera kuestionatzera helduko dira. Beste batzuk, ostera, baloreez pentsatzeko denbora hartu beharra aitatzen dute, arlo horretan ere badagoelako zer hobetu.

Dena delakoarekin, etorkizunari itxaropentsu begiratzen zaio. Garai berriak dakarren aldaketa positiboetako bat «iraultza kulturala» da. Hots, jendea askoz presatuago dago, inoizko gizarterik formatuenak ditugu, eta horrek eragina izango du egitura ekonomiko, politiko eta sozialean. Aldi berean, jendeak ez du bere lana soilik diru motibazioengatik saltzen, auto-errealizazioa eta gisako balore ez monetarioak funtsezkoak bilakatzen ari baitira. Guztiarekin, gaurko gizarte-sistemak pertsonak kontuan hartzen ditu eta hartuko ditu gero eta gehiago, eta horrek etorkizuna kolorez margotzen du.

«[Se trata de] un sistema que inevitablemente tiene que recurrir cada día más a las personas, y las personas cada día van a aceptar menos otros tipo de planteamientos. Entonces, yo creo que aquí hay opciones de futuro, y hay cado de cultivo en la sociedad como para que planteamientos equivalentes a los nuestros enraícen. Yo siempre he pensado que el modelo cooperativo es un modelo más avanzado que el capitalista, porque incorpora a las personas al hecho empresarial, y además trabaja a favor de las personas. No tanto a favor de unas personas haciendo el capital el objetivo fundamental, sino haciendo a las personas el objetivo fundamental (...) Son las personas las que participan en los beneficios y al final son partícipes de hecho en la realidad concreta empresarial. No son, digamos, sujetos pasivos. Yo creo que esto es una planteamiento que encaja más en los países desarrollados que en los países subdesarrollados.

Desde este punto de vista yo creo que nuestra realidad a pesar de algunas voces que se oyen por ahí, cada vez tiene más sentido en este planteamiento. Posiblemente, por el hecho concreto de revolución cultural que se está dando y se irá dando cada día más.»

Garai berriak kultura berria dakar, eta tendentzia hori askatzaile gisa interpreta-tzen da. Testuinguru kultural berriak erakunde eredu berria gorpuzten dihardu, eta horrekin batera pertsona kontzienteagoa, subjektu indibidual aktiboagoa. Badirudi pertsonaren gailentze horrek atzean utziko dituela beste garai bateko menpekotasun eta morrontzak. Badirudi, beraz, mundu berria dominazio fenomenoak leuntzera da-torren gizarte konfigurazioa dela, gizabanakoa lehenagoko muga eta kateez aska-tzera.

Zalantzarik gabe, aipatzen ari garen diskurtsoak hautsi egiten du galera sentimen-duarekin, etorkizunarekiko ziurgabetasunarekin eta, muturrerago, kooperatibismoak etorkizunik ez edo etorkizun zaila duelako sentimenduarekin. Galera diskurtsoari zenbait kasutan darion iraganarekiko nostalgia erromantikoarekin ere hautsi egingo da.

Horrek ez du esan gura galerarik diagnostikatzen ez denik, geroago ikusiko du-gun moduan. Baina, orainaldia ez da iragan hobe baten erreflexu desitxuratua, eta etorkizuna ez da inkoherentzia nabarmenagoen lurraldea. Hainbaten arabera, orai-naldiak zein etorkizunak kooperatibagintzarako aukera hobeak eskaintzen baitituzte. Diskurtsoaren ardatza, beraz, baikortasuna da, sarritan ñabartua eta bestelako inpre-sioz osotua, baina baikortasuna. Eta baikortasun horren bihotzean gaurko erakundeek eta, zehatzago, enpresek bizi duten eraberritze prozesua dugu:

«... cuando descubrí el tema de la Calidad Total, descubrí que aquí están los instru-mentos concretos para poder hacer esa realidad concreta y promover el hecho partici-pativo.»

«Ha habido dos sistemas básicos, el capitalista y la planificación colectiva. La plani-ficación colectiva ha desaparecido y resulta que ahora el sistema capitalista, en una de sus facetas actuales importantes, a efectos de obtener máximos niveles de competitividad, está buscando la participación de la personas como un factor de lo más importante (...) justamente lo que nosotros por definición y por naturaleza tenemos intrínsecamente en nuestra organización. (...) Yo soy muy optimista en esto.»

Aztertzen dihardugun diskurtsoan osagai ugari agertzen dira, bestelako diskur-tsoetan bezalaxe. Osagai ezberdin horien artean osagai kontrajarriak ere ageri zaiz-kigu, euren artean kontraesankorrak. Era horretan, posible da kooperatibismoak gaur bizi duen krisiaz hitz egitea, eta, aldi berean, historiaren joan-etorriak arrazoia aitortu diola pentsatzea. Bi gako diskurtsiboak, «krisia» eta «arrazoi edo arrakasta histo-rikoa», batera agertzen dira ondoko ekarpenean, pertsona berak kolpe bakarrean jaur-ti ditu biak:

«Hay una especie de renovación, de renacimiento. En un primer momento hubo una gran concentración de esfuerzos, quizás esos esfuerzos reales y tan importantes no han sido continuados. Estoy convencido: si llegamos a mantener ese esfuerzo en estos mo-mentos no estaríamos hablando de una posible crisis del cooperativismo. Estaríamos hablando de formas técnicas de acceder mejor, de hacerlo mejor, de ser más capaces. (...) El cooperativismo yo creo que es un valor de modernidad y lo aceptan todos: los países en vías de desarrollo, porque saben que el cooperativismo es un desarrollo ver-daderamente humano, colectivo, comunitario (...); y en el mundo más avanzado yo creo que se nos están dando la razón, y otra cosa es que nosotros no lo apliquemos.»

Diskurtso ildo honetan ageri zaigu nolabaiteko galera sentsazioa, modu egoskor eta tematian. Baina, tarte zabala ageri da, aldi berean, gauzak ondo doazela esateko eta sentitzeko, baita ere kooperatibismoa gaurko tendentzia modernoenen ikono gisa agertarazteko. Paradoxikoa bada ere, nolabaiteko krisia onartzen da, eta aldi berean kooperatibismoak une historiko goxoa bizi duela aditzera emango zaigu. Paradoxaren korapiloa aska daitekeelakoan gaude. Izan ere, krisiaz hitz egitea zilegi dirudi kooperatibismoaren gauzatze material-juridiko-instituzionalari bagagozkio; eta arrakastaz berba egitea zilegi dirudi kooperatibismoaren filosofia eta bizipen parte-hartzaileari bagagozkio, gaurko enpresaren identitate berrituak kontzeptu horiek haizatzen baititu gau eta egun.

Nolanahi ere, «krisia» eta «arrakasta», bi kontzeptuak bata bestearen ondoan agertzeak aldaketa aro bat bizi dugula adieraz dezake, eta aldaketekin batera, nahasmen garai bat. Eta edozein kasutan, aztergai dugun diskurtso ildoaren hondo-hondoan ondoko jarrera ageri zaigu: uko egiten zaio galeraren lurraldean sustraitzeari, joera objektibo sinesgarriak aurkitzen baititu beste norabidean, eta kooperatibismoaren gaurko arazoez jabetzen bada ere, baikortasunaren lurraldean pausatzen ditu bere hitzak.

Guztiarekin, mundu globalizatua ez da mundu arriskutsua, ez eta kooperatibismoarentzat garai zailak iragartzen dituen mundua. Gehientzat mundu globalizatuak aukera berriak eskaintzen dituen mundu berri eta itxaropentsua da (kontuan hartu behar da, azken hamarkadan AKEak hazkuntza ekonomiko handia bizi izan duela). Are gehiago, enpresa munduan gertatzen ari diren aldaketak direla eta, kooperatibismoari arrazoi historikoa onartu zaiola ulertuko da; kooperatibismoari zuzenean ez bada, kooperatibismoak bere filosofian biltzen dituen kontzeptuei. Bizi dugun aro historikoaren irakurketa positibo hori muturrera eramanda, sekula baino aukera hobekak daude kooperatibagintzarako.

2.2.1.2. *Bereizgarritasun kooperatiboaren ardatz nagusiak*

Ongizate komunitarioa

Arrasateko Kooperatiba Esperientziaren bihotzean ipar bat aurki daiteke: garapen komunitarioa. Horixe izan da bere zentzurik nagusietakoa, eta lorpenik esanguratsuenetakoa. Imaginario baikorra dugu aipatutakoa:

«[Esta experiencia responde] siempre a una preocupación de cómo involucrar al hombre, a la persona en la realidad concreta empresarial, que esto trascienda a otro nivel más. Hemos tenido también un grupo educativo. Yo pienso que en el grupo educativo se ha hecho muchísimo menos de lo que se podía haber hecho por insuflar a los estudiantes un espíritu de desarrollo comunitario, que es el gran valor que para nosotros encarnaba Don José María. Don José María pretendía hacer comunidades ricas, no individuos ricos. (...) Hay una realidad concreta que se ha conseguido en el Alto Deba...; vi un estudio hace poco que analizaba niveles de consumo y de distribución. Era donde había niveles medios más altos y además la distribución era más corta, más próxima; el abanico era menor.»

Arrasateko kooperatibismoak ongizatea sortu du, aberastasuna sortu eta modu orekatuan banatu du. Garapen komunitarioarekin izan duen konpromisoak bereiztu egiten du, eta bestelako enpresa-esperientziekiko ezberdin bihurtu.

Enpresa kooperatiboa komunitatea zerbitzatzeko bokazioz jaiotako enpresa eredu da, komunitatea aberasteko bokazioz, ez indibidua. Konpromiso komunitario hori du bere izateko arrazoietakoa bat, bere *raison d'être* nagusietakoa, eta konpromisio horrek egun badirau. Enpresa kapitalistek ez bezala, enpresa kooperatiboak epe luzeko apustuak dira, eta ez dute lehenengo kolpean alde egingo. Lan Kide Aurrezki Kutxa horren adibide fidela da: hemen berrinbertitu du, horixe izan baita bere motibazio garrantzitsuena. Gainera, Arrasateko kooperatibismoak beste enpresa batzuk —nagusiki enpresa kapitalistek baina baita ere zenbait kooperatibek— azaldu ez duten konpromisoa izan du gizartearekin: hezkuntza eta osasun instituzioak sortu ditu, esaterako.

«[Caja Laboral] reinvertía todos los ahorros en la propia comarca para que la gente confiara. No se iba fuera. Cosa que en otras entidades de crédito, no sabías dónde iban las inversiones. Eso ha sido una constante durante, por lo menos, dos décadas, las décadas de los 60 y 70 con seguridad. Pero el tema de los fondos sociales que tú has mencionado, la primera experiencia de funcionamiento realmente comunitario fue aquí. Otras cooperativas utilizaban en becas para los hijos, o sea con carácter interno. Aquí desde el principio se planteó eso con el objeto de crear una serie de instituciones, no sólo para los hijos de los cooperativistas sino para toda la sociedad en general. Ahí está el hospital comarcal de aquí [Arrasate]. Fue un desarrollo de carácter comunitario para dar servicio de salud en general. Y la Eskola... Aquí ha habido todos esos aspectos...»

Ikastolen aldeko konpromisoak ere aipamen dezente jaso ditu.

Lansariak

Ordainsarien arteko aldea dela eta, duela urte batzuetako aldaketak urratu garrantzitsu gisa bizi izan ziren mundu kooperatiboan, baina, gaur egun gauzak bere onera bueltatu dira. Beste garai batean dramatikoa izan zen, buruzagiak mantentzearen indizeen igoerak gertatu zirelako, baina, gaur egun, auzi honek ez du tentsiorik sortzen.

Fagor-en, esaterako, merkatuko indizeekin bat datozenak Fagor-eko %95,5a osatzen dute. Besteak ez, baina horiek exekutiboak dira, kooperatibetako gidariak, eta merkatuko batzbestekoaren azpitik daude. Jende askok ez du halakorik entzun nahi, nahiago balute bezala kooperatibekin etengabe muturtuta egon, baina halaxe da.

Gaurko ordainsari-abanikoaren aldeko defentsa egingo zaigu, beraz. Batzuetan defentsa sutsua:

«En relación al [índice] 1 del grupo..., el máximo está en el 6, pero el mínimo está en el 3. (...) Cuando se hablaba de un tope de 3 Fagor tenía 200 personas, coño. Pero ya cuando tenía 427 personas, ya se estaba hablando del 4,5. Entonces estaba Don José María, y Don José María era Don José María. (...) Y luego se pasó a una cooperativa de 3000 señores. (...) Yo estando de Director General de Fagor no pasé del 4,5 y eso es de antes de ayer. Yo pasé al 6 cuando me hicieron Presidente de MCC, a nivel del Grupo Cooperativo de Mondragón, que fue exactamente en abril del año 90.»

Ordainsarien arteko aldeak bizi izan duen bilakaeraren defentsa zorrotza egiten zaigu, jarrera defentsibo samarretik, ikusi berri dugun pasartean. Izan ere, gure protagonistek jakin badakite jende askok larregiko aldea irizten diola eta azken urteotan goi karguen ordainsariek gora egin dutela. Goi kargudunen aldeko bilakaera bizi dugula uste dutenen kontra, baikortasunean oinarritzen den diskurtso honetatik oso bestelako ikuspegia luzatuko zaigu: esfortzuak eta sakrifizioak goi kargudunek egiten dituzte, eurak baitira merkatuko batezbesteko soldaten azpitik ari direnak. Gaur 6 indizetik gora kobratzen dute batzuk, baina oso gutxi dira; %0,8a inguru. Gainera, zergak ezberdinak dira indize ezberdinen kasuan, eta indize altukoek zerga gehiago ordaindu behar dituzte.

Nolanahi ere, indize altuak justifikatuta daude, MCCko goi kargudunek erabaki oso garrantzitsuak hartu behar baitituzte, epe erdi eta luzera determinanteak direnak, eta ardura maila horrek beste sari maila bat eskatzen du:

«Cuando nació el 1 a 3, MCC no existía. Hoy los señores de MCC están a otro nivel de gestión, con otro nivel de complicación. No toman decisiones a corto plazo, toman a medio o largo plazo, y están condicionando el futuro de las cooperativas. Ante eso es imposible que mantengas los mismos niveles del abanico. Sí, es verdad que hoy el presidente de MCC cobra 7 millones.»

Beraz, kooperatiba taldea tamainaz handitzen doan heinean («Fagor-ek lehen 200 langile zituen, gero 427 eta orain 3000») oradainsari altuagoak beharrezkoak eta logikoak dira; eta, modu berean, «kualitatiboki» garrantzitsuagoak eta konplexuagoak diren erabaki eta ardurek justifikatzen dute gaurko aldea.

Gainera, ordainsarien arteko aldeak sortzen duen kexuak ez du inongo zentzurik MCCko soldatak eta kanpokoak alderatuz gero.

«Fíjate, me hablaban de un comercial (...): 13 millones, más un 75% variable en función de los objetivos. Y bueno, el presidente de MCC gana 7 millones y llama la atención. Pues me parece una barbaridad. El otro señor puede estar ganando 70 o 80 millones seguro.»

Hori ikusita, «izugarrikeria» da Arrasateko kooperatibismoan dauden aldeak «salatzea». Aspektu honi dagokionean, Arrasateko kooperatiben bereizgarritasunaren taupadak bizirik dira eta indartsu.

Baina, indize edo zenbaki jakinetatik haratago, ordainsari-abanikoak beste zerbait gorpuzten du, kontzeptu oso bat, eta hori da garrantzitsuena eta mantendu beharreko benetako balorea:

«Al hablar de la solidaridad interna y de la cosa remunerativa, también habría que hablar de muchas cosas: las redes familiares... Desde mi forma de ver, la solidaridad fundamentalmente se basa en tener una relación normal en la sociedad, y andar con normalidad en la convivencia. Y que esto [la apertura del abanico] no nos sirva para que haya desclasismo, no sé cómo decirlo. O sea, por algo se hace la solidaridad interna remunerativa. Desde mi forma de ver, es para que no haya diferenciaciones, de que estemos en un estrato, en otro, y casi ni nos vemos. Que sea una convivencia más normal, más natural. Si no se tiene esa percepción, a mí me parece que no sirve. Otra cosa es a efectos de gestión empresarial, y para mantener y poder traer gente interesante...»

«Desclasismo» terminoak interes handia duelakoan gaude. Termino horrekin kontzeptu oso bat adierazten zaigu: kooperatibetan exekutibo lanetan ibilitakoek, langile-kooperatibisten mundutik aldendu eta bestelako mundu batean sartzeko bizi dezaketean joera dugu aipagai. Goi kargudun batek jaurti dizkigu hitzok (MCCko idazkari nagusiak). Klase erreferentziak galtzeko erresistentzien aurrean gaude, bestelako munduetara indibidualki aireratzeko gogoaren ukazioaren aurrean. Ez da langile-herriarraren mundu sinboliko eta bizipenezkoa galdu nahi. Horregatik, abanikoak berdintasunaren balorea gorpuzten du beste gauza guztien gainetik, eta, jaso berri dugun pasarteaz azaltzen den ikuspegiaren arabera, balore horrek gizarteaz bizitzeko eta egoteko modu bat oinarritu behar du. Abanikoak beraz, gizartearen gaineko ikuspegi igualitario baten erreminta praktikoa da. Kontzeptu sakon baten aurrean gaude, karga normatibo handia daramana, eta norbere buruarekin harremantzeko modu bat ere badaramana, besteekiko lotura estuan, besteekiko berdintasun terminotan.

Alecoop, kooperatibismoaren bitasuna jokoan

Eztabaida pizteko oinarri gisa erabili dugun testuan AKERen jarrera defentsiboaz hitz egiten da, eta baita ere arrazoi posible bat iradoki: soilik enpresa talde gisa garatu da (garapen ekonomikoa) eta bestelako dimentsioak hein batean baztertuta geratu dira (hezkuntza, dimentsio intelektuala eta soziokulturala...). Desadostasun irekia azalduko zaio interpretazio horri.

Gauzak horrela izan ez direla Alecoop-ekin frogatu daiteke. Enpresa esperientzia hori aldi berean hezkuntza esperientzia bat da, ikasleei euren ikasketen autofinantzazioa ahalbidetzen die, eta horrek sekulako garrantzia du. Beraz, ez da soilik enpresa ekimen bat, hezkuntza munduan «aukera berdintasuna» balore goren egiten duen esperientzia osoago bat ere bada.

Alecoop aipatu dugu, eta esan beharra dago Alecoop-ek logika anitzen arteko tentsio eremua osatzen duela: bertan hartzen du ostatu arrazionaltasun ekonomikoak, eta bertan bestelako logikek (hezkuntzazkoak nagusiki). Guda zelai horretan elkarrekin bizi dira kooperatibismoaren logika ezberdinak eta kooperatibismoak bere-bereia duen bitasuna eta tentsioa.

Hori dela eta, badu interesik Alecoop-i buruzko interpretazio ezberdinak aintzat hartzeak. Arrasateko kooperatibismoaren oso atal zehatza eta puntuala bada ere, eta kooperatibismoaren irakurketa orokorraren metafora gisa estu-estuan har ez badaitete ere, bertan ari dira oreka gaiztoan arrazionaltasun ezberdinak, eta kooperatiba honi buruzko interpretazioek AKERen gaineko irakurketa globala iradokitzen dute.

Batzuen irudiko, Alecoop-ek arduratzekoa den labaintze ekonomizista bizi du:

«Hay una encuesta de estudiantes que critica profundamente a Alecoop, porque es un módulo empresarial, en el que hay que conseguir determinadas rentabilidades empresariales y tratar a alumnos en unas horas determinadas, únicamente como trabajadores, sin ayudar a potenciar sus capacidades, sin ayudarles como estudiantes... Destacan un malestar enorme. ¿No ha ocurrido ahí también que hemos fijado un objetivo empresarial a Alecoop y nos hemos olvidado de que a Alecoop van estudiantes, personas

en formación, y que hay que dedicar una atención extra y eso no es rentable? Eso no casa con el objetivo empresarial. Eso es un buen ejemplo de que a veces nos centramos demasiado en lo empresarial y nos olvidamos de otras cosas. (...) Porque nos da una pista de que a lo mejor somos expertos en gestión empresarial y estamos olvidando otros aspectos. (...) Entonces, ¿qué rentabilidad tiene que dar esa empresa en términos económicos, en términos sociales? Ese equilibrio es el que falta.»

Alecoop-en inguruko irakurketa horri hein batean AKE osoari luza dakiokoen balorazioa dario, neurriak neurri («¿No ha ocurrido ahí *también*...?»). Enpresa-logika eta bestelakoak euren artean gatazkan ulertzen dira, eta interpretazio horri jarraiki lehendabizikoak izan ei dira garaile, beharrezko orekak hautsiz. Bada horrela uste ez duenik:

«A mí que haya una crítica interna me parece muy bueno. Es que permanentemente tenemos que tener críticas internas, y eso no nos tiene que asustar. Pero fíjate: Alecoop con solamente cumplir la igualdad de oportunidades en el estudio, que uno tenga capacidad de autofinanciarse su carrera... Yo no estoy hablando de la parte formativa que tiene que dar Alecoop, sino la capacidad de poder llegar cada uno ahí, hasta donde quiera en el aspecto de autofinanciación de sus estudios. Esto es de una riqueza todavía exportable a cualquier país en vías de desarrollo, y es un modelo.»

Irizpide nagusia ondokoa da: enpresa-garapenak berak, inongo bestelako kontsideraziorik egin gabe, onurak sortu ditu, ikasleek euren hezkuntza prozesua finantza dezaten balio duelako. Aukera-berdintasunaren printzipioa garatu da. Ondorioz, zenbat eta gehiago hazi enpresa, orduan eta gehiago sakonduko da baloreetan, eta hori da funtsezko irizpidea, ikasleen balizko lan-eduki edo lan-baldintzen gaineko kontsiderazioetatik haratago. Kooperatibismoak bere baitan biltzen dituen bi nerbioen edo arrazionalitateen artean, gatazka barik, bateragarritasuna eta osagarritasuna azpimarratuko da.

AKERi bere osotasunean aplikatu dakiokoen printzipioa da: zenbat eta enpresa-garapen biziagoa, orduan eta aberastasun gehiago, eta orduan eta gehiago banatzeko (lanpostu eran, errenta eran...). Enpresa-garapenak berez zerbitzatzen die balore kooperatibistei. Diskurtso-ildo horretan biak batera doaz, enpresaren garapena eta baloreena, armonian eta baketsu. Izan ere, Alecoop-eko kasu konkretura bueltatuz, ez dago azken baloreei erantzuterik (hezkuntza helburuei), baldin eta enpresa-garapenik gertatzen ez bada:

«Hay un problema concreto: tú tendrás que cubrir gastos mínimamente. Y si tienes que mantener esa empresa cara al futuro para incorporar nuevos alumnos a los cuales se les puede dar la oportunidad, digamos, de acceso a nivel educativo, tendrás que generar más rentabilidades... Otro problema es cómo se hace eso desde dentro, y estoy de acuerdo, tenemos que ser autocríticos. Yo creo que autocrítico se ha sido fundamentalmente en las cooperativas.»

Nor kooperatibista, eragile sozial ala eragile ekonomiko?

Enpresa-garapenak ahalbidetuko du bestelako logiken garapena. Bestelako logika horiek baztertzen ari direlako susmo edo iradokizun suabearen aurrean, enpresa-garapenaren lehentasuna mahaigaineratzen da; bestela jai. Horixe da, gainera, AKEk bere muinean duen ezaugarririk garrantzitsuenaren.

«¿Que sólo hemos hecho desarrollo empresarial? Es que yo creo que lo que tenemos que trasladar de alguna forma son organizaciones de carácter empresarial que sean capaces de dar beneficios colectivos, dar beneficios comunitarios. Eso tenemos que hacer, y eso sí lo sabemos hacer.»

Funtsezkoa den aspektuaz ari gara: nor kooperatiboaren definizioaz. Nortzuk garen galderari erantzuten ari zaio, zerk definitzen gaituen, eta erantzun horren barruan, enpresa-arrazionalitate zapala (arrazionalitate instrumental hutsa) bestelako arrazionalitateez (baloreez) uztartzeko eredu ezberdinak dira eztabaidagai.

Baloreak bazterrean utzi ote dira negozioaren zerbitzura jarritako esperientzia batean? Edo eta enpresa-garapen arrakastatsuekin baloreen gauzatze historiko arrakastatsua (aberastasuna sortu eta berau banatu, langileen eta pertsonon duintasunari erantzuten dion enpresa antolamenduaren bidez) burutu da eta burutzen ari da? Horra hor gakoa eta eztabaida.

Interpretazioak ugariak dira, eta batzuk lehendabiziko tesiarekin lerratze joera azaltzen duten bitartean (negozioa lehenetsi da eta baloreak, hein batean, ahaztu), beste batzuk bigarrenari lotuko zaie (enpresa-hazkuntzak balore kooperatibisten gauzatzea ekarri du). Nolanahi ere, eta iritziak iritzi, berriro diogu: tonu orokorrari, ñabardurak ñabardura, baikortasuna dario:

«Pero, nosotros somos una realidad empresarial, no podemos desconocer esa esencialidad porque si la desconocemos estamos pidiendo lo que no se le puede pedir... Llega un partido político: «usted tiene cara de hacer frigoríficos...», «pues mire, no, yo soy un partido político». Nosotros somos empresas, y no creo que sea sospechoso de excesivamente estrecho en el ámbito empresarial.... Para mí esa es la prestación fundamental de la cooperativa: es una forma democrática de organización de la sociedad civil, en torno a una actividad económica. Eso es una cooperativa como definición fundamental. La primera prestación es esa.»

Lehendabiziko ekarpena jarduera ekonomiko-enpresariala da; herri-ekimenak modu demokratikoan antolatu du enpresa, espiritu solidarioa ipar hartuta, baina enpresa jarduera bat da.

Enpresa-logikaz gain, bestelako logikek zein toki betetzen duten, horixe dugu eztabaidagai. Enpresa-garapena ote den ipar bakarra ala bestelako helbururik ba ote dagoen (gizarte eta komunitate eredu ezberdin bateranzko pausuak ematea, autoeraketaren iparrari jarraiki), eta zenbaterainoko garatu bat eta zenbaterainoko bestea (hezkuntzako dimentsioa, intelektuala, soziokulturala...).

Zenbaitentzat, esperientziari buruzko irakurketa positibo bat egin beharra dago, garatu baitira enpresa dimentsiotik haratagoko logikak. Hezkuntzari eskainitako lana eta esfortzua da adibide borobila.

«Zergatik errepikatzen da [eztabaidarako oinarria izan den testuan] behin eta berriz taldean hori ez dala egin? Adibidez, hezkuntza arloan gauza pila egin da. Igoal ez da nahikoa, baina... Arraroa egin jat. (...) Landu da enpresa antolakuntza, landu da gizarte segurantz, landu da hezkuntza...»

AKE eragile ekonomikoa izan da, baina ez bakarrik. Eragile sozial gisa ere jardun du; hezkuntza-eragile gisa, besteak beste. Zentzu horretan, idatzi gabeko

eta idatzi beharreko historia bat legoke, Arrasateko kooperatibismoak gizartearekin izan duen harremanari buruzkoa, komunitateari zelan eta zenbat lagundu dion azaldu beharko lukeena. Izan ere, euskal gizarteari eginiko ekarpena garrantzitsua izan da.

«Jakín nahi nuke nik korporazioak azkeneko 20 urteetan ze errekurto ekonomiko destinatatu duen inguruan, ingurua lantzeko. Honekin ez da ezer justifikatzen, berriz diot, baina koño!, egindako gauzak esan behar dira: zenbat dinamikatan sartu dan... Caja Laborala determinantea izan da inizatiba popular eta herrikoi asko aurrera eramateko. Gaur ez, errekurtoak beste toki batzuetan daudelako, batez ere gure erakundeak [erakunde politikoak] eskuratzen joan garen neurrian. Egoera asko aldatu da, baina mugimendu kooperatiboa Euskal Herrian izan da gauza askoren bultzatzaile. (...) Hartu nahi nituzke nik Caja Laboralaren aktak, 60koak eta 70ekoak... eta identifikatu ze inizatiba, non kolaboratu dan...»

Edozein kasutan, komunitatean eragile sozial eta hezkutza-eragile gisa jokatzea garrantzitsua bada ere, kooperatiben izateko arrazoia, lehendabiziko motibazioa, aberastasuna sortu eta berau egoki banatzea da. Eta aberastasuna banatzeko erarik eraginkorra lanpostuak sortzea da; gero gerokoak, hori baita garrantzitsuenak.

Beste batzuen iritzian, enpresa munduan gehiegi zentratu eta bestelako dimentsio batzuk alboratu egin dira Arrasateko kooperatibismoan:

«Nik beti botaten deusiet errua jesuitei, Euskal Herriko akats guztiengatik, ze kristoren influentzia euki dabe. Besteak beste, unibertsitate publiko bat ez bada egon euren eraginez izan da. Eta hori oso gaizki etorri jako Euskal Herriari, atzerakuntza handia daramagu arlo askotan. Hemen gaur egun unibertsitate bat izatea oso positiboa da. Esaten duzue hemen: «puede que porque la experiencia se haya concentrado casi exclusivamente en un grupo empresarial y no haya profundizado en otras dimensiones sea la razón de que no tenga otro remedio que ir a la defensiva?» Ba, zati batean bai, neure ustez. Zati batean bai. (...) Begira astelehenean Comisión Ejecutiva daukagu eta daramatzagun gaiak:

- Evolución de los mercados
- Evolución de la rentabilidad de renta variable
- Beneficios antes de impuestos del primer semestre
- Inversiones de fondo garantizado...»

Zenbaitentzat pentsamendu hutsunea da esperientziak bizi duena: «déficit de pensamiento». Beste batzuentzat, garapen integrala, gizakiok geure dimentsio guztiak garatzea, eta gisako ideiak ondo daude, baina enpresa, enpresa da. Batzutan gehiegi eskatzen zaio enpresari eta mugimendu kooperatibistari, eta kontua ez da erakunde publikoak ordezkatzeta, eremu horretan ekarpenak egin badaitezke ere. Kooperatiba enpresek pertsonen garapena sustatzen dute, bere dimentsio anitzetan, baina betiere enpresaren barruan.

Gainera, nola hasi pentsatzen enpresa mundutik haratagoko aspektuetan, formato kooperatiboko enpresa-garapenak beste ezerk baino esfortzu gehiago eskatzen duen honetan? Kontua ez da enpresatik haratagoko auzietan subjektu sozial aktiboa bilakatzeta, baizik eta enpresa mundua eraldatzen saiatzea, beste esperientzia kooperatibo batzuk sustatuz edo bestelako bideren batetik:

«Pero realmente tenemos que trascender no lo empresarial. A lo mejor tenemos que trascender lo empresarial más inmediato y empujar otras experiencias cooperativas que están alrededor nuestro que no son directamente nuestras y con las que podamos colaborar.»

Beste batzuetan, bestelako logika horiek Arrasaten duten lekuaz mintzatuko zaizkigu. Hau da, garapen kooperatibistak bailarako gizarte bizitzan, eta bereziki Arrasaten, nolako eragina izan duen baloratuko da: sustatu ote ditu bestelako dimentsioak (dimentsio ez ekonomikoak) ala ekonomizismoaren gidari izan ote da? Arrasateren aberastasuna enpresaren ikuspegitik ukaezina da; baina, ikuspegi sozial eta humano batetik? Kooperatibismoak logika ekonomikoz zipriztindu ote du bailarako gizarte bizitza, berau kolonizatuz, ala garapen osoago baten aitzindari izan ote da?

Zenbaitentzat bailarak bizitza soziokultural aberatsa bizi du, baina proportzioan ez du zerikusirik enpresa-garapenak hartzen duen garrantziarekin. Arrasateko enpresen efikazia mundu zabalean ezaguna den bitartean, kultur bizitzaren alorrean «munduari ezin zaio ezer erakutsi». Arrazoiak ondokoa litzateke: kooperatibismoarekiko erabateko konpromisoak bestelako dimentsioak garatzeko aukerak xurgatu ditu. Beste batzuentzat, hori ez da horrela inondik inora: Debagoienak sekulako aberastasuna azaltzen du bere dinamika eta izaera komunitarioan, bere bizitza eta dimentsio kulturean, eta espiritu kooperatibistak ba omen du horretan zer ikustekorik.

Nolanahi ere, «bestelako» dimentsio horiek proiektu kooperatibotik deslotuak agertzen dira. Kooperatibismoak eragin handiagoa ala txikiagoa, ona ala txarra, izango zuen bestelako dimentsio horien garapenean. Baina, interesatzen zaiguna zera da: «bestelako» dimentsio horiek aukera indibidual eta pribatuaren alorrean ulertzen dira nagusiki, proiektu kooperatibo kolektibotik deslotuak. Hau da, kooperatibak instituzio gisa ez, askorentzat kooperatibistak dira inplikatu behar direnak gizarte eta kultur bizitzan.

Jubilazioaren inguruko eztabaidak ondo azaltzen du esan gura duguna: batek jubilazioaren eremuan kooperatibismoak ezer ez duela egin salatuko du (gizarteko eragile gisa, enpresatik haratagoko eremu ez produktiboen antolamenduan ez da inplikatu), eta halaxe erantzungo zaio: maila indibidualean guztiek ezagutzen duten Tomasa Zabaleta, bere bizitza profesional osoa Fagor-en emana, jubilatuen elkarrekin dabil eta ardura garrantzitsuekin¹⁰⁰. Beraz, badira gizabanako gisa ekarpen garrantzitsuak egin dituzten kooperatibistak.

Batzuk, gizarteko zenbait esparrutan, kooperatibismoa instituzio gisa inplikatzea nahi lukete; besteek nahikoa irizten diote kooperatibistak maila indibidualean inplikatzeari. Edozelan ere, enpresak dena xurgatzen du eta denborarik ez da geratzen bestelako zereginetarako. Horregatik, erretiroaren inguruko planteamendu bat jubilatuek euren egin beharko lukete; etxebizitzaren auzian beste horrenbeste: arazoa euren narruan sofritzen dutenak dira konponbidea bilatu behar dutenak. Besterik egitea, «aitakeria kapitalista» hutsa litzateke eta hori ez da kooperatibismoaren filosofia.

¹⁰⁰ Tomasa Zabaleta 2004ean zendu zen.

Beraz, aski hedatutako ikuspegi bati jarraiki, kooperatibismoa ez da eremu produktibotik haratago jardun behar duen eragile sozial bat. Negoziotik autonomoak diren dimentsioetatik bereiztua dagoen errealitatea da. Aitortzen da hori ez dela beti horrela izan, ez behintzat hastapenetan. Hasierako garai hartan enpresa proiektuaz gain Arrasateko kooperatibismoak proiektu global bat gorpuzten zuen, gizarte arlo ugari ukitzen zituen:

«Yo recuerdo de los planteamientos que nos hacíamos cuando estábamos en la época primera... Nuestro planteamiento no era exclusivamente empresarial. Era global. Nos preocupábamos un poco de todas las distintas facetas de la sociedad dentro del ámbito que podíamos, claro. Yo recuerdo que hicimos reuniones sobre el tema de la seguridad comarcal. Me acuerdo perfectamente, y el lugar donde lo hicimos...»

Baina, edozelan ere, horiek iraganeko kontuak dira, eta gaur egun kooperatiba ez da inplikatu behar gizarte auzietan. Inplikatzekotan, kooperatibistak eurak inplikatu daitezela. Horretan kooperatibek ondo hornitu dute euskal gizartea; ikusi besterik ez dago kooperatibismotik politikara zenbatek egin duen jauzi. Politikaz aparte, leku askotan aurkitzen dira kooperatibistak, eta horrek demostratzen du kooperatibismoa balore-eskola bat dela eta parte hartze komunitarioa sustatzen duen esperientzia.

Ildo horretatik, kooperatibisten gaineko irakurketa positiboarekin aurkitzen gara hemen ere. Pertsona kooperatiboa, kooperatibismoan jarduten duen edo jardun duen pertsona, eredugarritzat jotzen da, bestelako esparruetan ere ekarpen garrantzitsu eta interesgarriak egin ohi dituelako. Kooperatibistak hiritar eredugarriak izan ohi dira:

«Que conste que aparte de los frutos económicos, hoy en día hay un montón de cooperativistas en muchos sitios que aparte de sus compromisos y tal, están dando sus respuestas en este país, y son muy valorados. Y sin su aportación, seguro que muchos ámbitos de la vida cultural, social... no se conocerían. Hay muchas aportaciones de hombres cooperativistas. Porque, entre otras cosas, una de las grandes prestaciones del cooperativismo a nuestra sociedad es precisamente la ciudadanía. Yo creo que los cooperativistas somos muy buenos ciudadanos en general, y se puede contar con nosotros para abordar compromisos de otro tipo, si nos dejan tiempo.»

Iragana eta oraina

Ikuspegi baikorrak euskarri ugari aurkitzen ditu zera baieztatzeko: arrakastaren hizkiez idatz daitekeen esperientzia baten aurrean gaude. Euskarrietako bat iragana ez mitifikatzea da, berau ez idealizatzea. Galera sentimenduek iragan distiratsua eta orainaldi kaxkarra dute abiapuntu. Baikortasunaren diskurtsoak, ostera, iraganean egindakoaren balioa eta meritua ametitzen badu ere, berau idealizatzetik babesten da. Errealitatearen errepresentazio sozio-kognitibo horren bidez sosegu handiagoa aurkitzen da gaurko arazo eta inkoherentzien aurrean.

«Yo nunca he creído en la edad de oro. En otra época donde Euskadi ha sido democrática. Ni el cooperativismo ha sido una cosa ideal nunca. Cuando yo estaba aquí percibía el cooperativismo como una realidad potente, como una unidad importante unida a algo real de las personas. También [percibía] una ceguera en el seguimiento de los liderazgos. Yo no veía individuos creativos, individualizados, diciendo tal, tal, tal...»

Se ponían todos en firme y decían «aquí seguimos todos al líder». Tampoco es eso el cooperativismo. (...) Hasta que consigamos en una orquesta que cada uno toquemos un instrumento, pero seamos maestros cada uno, y todos toquemos la misma pieza... Eso es el cooperativismo.»

Iragana ez da arkadiaren eta perfektzioaren denbora historikoa. Are gehiago, iragan autoritario baten irudia ageri zaigu: bakoitzak bere instrumentua jo eta horretan maisu izan barik, liderrak instrumentalizatutako subjektu des-individualizatuen irudiari lotzen zaio iragana. Iragana desmitifikatzen zaigu beraz, eta iragana desmitifikatzeak gaurko kooperatibismoaz irakurketa gozo eta atseginagoa egiteko tarte zabala goa uzten du.

Galeran oinarritzen diren pertzepzio eta bizipenak, «izan ginena» eta «garena»ren artean distantzia handiak ikusten ditu; distantzia horixe da galera-diskurtsoa elikatzen duen bulkada eta motorea. Diskurtso baikorrean, ostera, gaur nagusi diren joerak ez dira hain negargarriak, ez dira, funtsean, arriskuaren ikuspegitik bizi, aukera ezin hobeak agertzen dituzten joerak ere badirelako (lan antolakuntza molde berriak...).

Hala ere, iragana ez idealizatzearen aldeko diskurtsoak sumatu sumatzen du galera osagairik. Sarritan, lidergoz eta ideologiaz hornituago irudikatzen da iragana. Pertsonen lidergoan eta gaitasun ideologikoan nolabaiteko galtze bat gertatu da, beste aro bateko distira kaskarkeri bihurtu da:

«Yo a Ormaetxea cuántas veces le he dicho: «Ormaetxea, Arizmendiarieta fue Marx. Tú y tu generación, Lenin. Y después de Lenin vendrá la mediocridad. Pero nuestra responsabilidad será organizar esa mediocridad. Vamos a organizarla, no? No vamos a ser Breznev, y no creo que lo seamos.»

Pasarte honetan, ez dago esan beharrik, galera osagaia nabarmena da, baikortasunak gidatzen duen irudikapen kolektiboaren barruan kokatzen bada ere. Eta, aldi berean, nabarmena da kooperatibismoaren imaginario eta lengoaia sekularizatuaren (ez erlijiosoaren) aurrean gaudela, Arrasateko kooperatibismoa azaltzeko lengoaia-unibertso marxista erabiltzen baita atze-oihal gisa. Badirudi pertsona (Arizmendiarieta) eta belaunaldi bikain batek, erdipurdikoa den belaunaldi bati pasa diola testigua, eta iraganeko bikaintasunarekin alderatzeak sortu sortzen du egonezinik: «Guretzat bada zama astuna beti konparatuak izatea. Zama astuna da: fundatzaileak...»

Beraz, egon badago galera osagairik, baina berriro diogu: ikuspegi baikorretik orainaldia eta etorkizuna orohar itxaropentsuak dira, eta, aldi berean, iragana ez da arkadia zoriontsu gisa irudikatzen, garai historiko inperfektu gisa baizik. Iragana ez da, beraz, utopia garbi eta portaera kooperatibista puruaren lurraldea. Finean, iragana ez zen hain distiratsua eta orainaldia ez da hain traketsa.

«Lehen ematen du dena zegoela ondo, guztiak zirela oso kooperatibistak... eta hori ez da holan. Badirudi orain ez dagoela elkartasun kutsurik...»

Iragana desmitifikatzeraz jotzen duen diskurtso-ildoak iraganari aitortu ohi zaion erliebe ideologikoa bera kolokan jartzeraino heltzen da; kolokan ez bada, berau erlatibizatzen du. Hots, iraganeko kooperatibismoak, ba ote zuen aitortu ohi zaion ipar ideologiko hain garbirik?

«Utopiaren kontzeptua... Ze puntutaraino hasierakoek utopia zuten? Bokazio sozialeko enpresa egin nahi zuten. Enpresa soziala. Hori utopia da, ala talde proiektu nahiko hurbila?»

Genesi garaiko kooperatibismoa gizartea eraldatzeko egitasmo batean oinarritzen ote zen, hori ere zalantzan jarriko da. Gizarte-erlaldaketa proiektua ukatzea gehiegizkoa izan daiteke, baina zalantza mantuak estaliko du iraganari buruzko irakurketa.

«Plantear el cooperativismo como un instrumento de transformación social, yo creo que nunca ha estado en el ánimo... No lo sé. Los instrumentos de transformación social suelen ser los partidos políticos, elementos que salen con una visión muy clara de saber lo que quieren. Suelen ser planteamientos muy idealizados, ideológicamente potentes y fuertes, y saben lo que quieren hacer y conseguir. No sé, no estoy ni de acuerdo ni en desacuerdo, simplemente no lo sé. Dudo de que el cooperativismo en su génesis tuviese una idea de transformar la sociedad, porque si fuera así estaría mucho más a la izquierda de lo que yo pensaba. Sí es verdad que plantea una serie de propuestas revolucionarias —entre comillas— para la época: justicia social, o democracia en el trabajo. Pero no sé si pretendía, a través del desarrollo del cooperativismo, ir transformando la sociedad, hacia una sociedad de tipo socialista, o de otro tipo.»

Kooperatibismoaren gogo eraldatzailea kuestionatzen duen errebisio historikoaren aurrean ote gaude? Erromantizismorik gabeko irakurketa historiko egiazkoagoa ote da luzatzen zaiguna? Gaurko ahultasunak eta hutsuneak erlatibizatu nahi ote dira, iraganari aitortzen ohi zaion distira kuestionatuz?

Dena delakoarekin, genesi garaiko kooperatibismoaren gaineko ezjakintasuna aitortzen da aurreko pasartearen («No sé, no estoy ni de acuerdo ni en desacuerdo, simplemente no lo sé»), eta horrek bereganatu du gure arreta, pistak eman baititzake erlaldaketa proiektua kolokan jartzen duen ikuspegia ulertzeko. Hau da, memoria historikoaren transmisio ahularen lurraldean soilik erla daiteke erlaldaketa proiektua kuestionatzen duen hazia.

Iragana ez da perfekzioaren lurraldea, baina naturala eta ulergarria da iraganaren idelizatzea, generazio guztiek bizi baitute joera hori, gutxi asko: «Aristotelesen denboran ere atera zen eskutitz bat, eta hurrengo generazioagatik [esaten zen]: «honek ez dute ezertan sinesten, ez dute moralik»». Aditzera ematen zaigu erromantikoa den ikuspegia eraiki ohi dela iraganari buruz, baina horrek batez ere beharizan subjektibo jakin batzuei erantzungo liekeela, ez «benetako» errealitate «objektiboari».

Gainera, atzera begira bizitze hori, eta, iragana gogoratzean, tristuraz hasperen egitea, bizi-jarrera fundatzailea ez dela iradokiko zaigu, eta pertsona edo erakunde batek joera hori azaltzen badu, ez da bide egokia aukeratu:

«Atzera begiratzeak ez du laguntzen. Atzeak aurrea erakusten du baina gauza bazuatarako bakarrik. Atzera begiratzea erreferente historikoak eukitzeko bai, jakiteko non, zer, nor zen Marx eta abar, bai, hori behar dugu beti. Marx gaur non dagoen eta marxismoa zer den... (...) Hasten denean pertsona bat edo organizazio bat beti atzera begira, «esto ya no es lo que era»...»

Gaurko kooperatibismoak bestelako proposamen bat gorpuzten segitzen du. Diferentzialtasun hori ez dago zalantzan, ez da soilik iraganeko kontua; akaso pro-

blematizatuta dago zenbait aspektutan erreparatu gero, baina zalantzan ez. Euskarri objektibo aski garrantzitsuak aurkitzen dira bereizgarritasun kooperatiboa azpimarratzeko. Hortxe dago enpresa kapitalistak ametitzen ez duen etekin banaketaren printzipioa.

«Yo, lo del hombre nuevo, no lo sé... No me ha gustado. Lo que sí creo es que en estos momentos está hirviendo la participación en la gestión, infinitamente más que nunca. (...) Tenemos una riqueza y la verdad es que somos envidia de muchas de las empresas que quieren trabajar con estos nuevos modelos de comunicación y participación. Porque, en el fondo, tienen una contradicción, que es el reparto de los beneficios. Es decir, la empresa capitalista al final llega a una contradicción cuando dice, «participa en el proyecto», y cuando llega el reparto, «esto para mí». Entonces, nosotros tenemos la gran ventaja de que el reparto es para todos. Y la facilidad con la que se están asumiendo proyectos empresariales de participación y de gestión, yo creo que es mejor que antes. (...) Nosotros somos poco dados a la divulgación, a la comunicación de estas cosas. Quizá esto debería tener otra transparencia para que se vea un poco, para que no estemos con ese concepto de que el cooperativismo de antes era bueno y ahora solamente es una cosa como una pérdida permanente o como un aumento de entropía que va decayendo.»

Beraz, gaur badago diferentzialtasun kooperatiboa defendatzeko heldulekurik. Langileen inplikazioan eta parte hartzean enpresa kooperatiboak puntakoak dira («somos envidia de muchas de las empresas»), beraien izaera juridiko-organizatiboak bermatzen duen etekinaren banaketarekin beste inor baino urrunago heltzen direlako. Horixe da, besteak beste, indartu beharreko zentzu-osagaia. Horixe da berrikuntzarako, koherentziarako eta bereizgarritasun kooperatiborako gakoa. Zentzu honetan, kooperatibismoa osasun egoera onean dago, akaso sekula baino hobeto, eta hortxe behar ditugu begiak, faltsutzat jotzen diren iragan magiko eta erromantikoen irudietatik salbu.

Gainera, parte hartzea sustatzen duen lan-harreman eredu ezberdina aurki daiteke kooperatibetan. Eguneroko harremanen alorrean ere, kooperatibak diferenteak dira; gertutasuna nabari da harremanetan, kidetasun sentimenduak, lanarekiko beste bizi-pen bat. Ereku kooperatiboko lan-harremanetan botere distantziak laburragoak dira eta demokraziaren ibilbidea luzeagoa.

«...lo que yo sentí mientras estuve trabajando pocos años en una empresa capitalista, era que las relaciones cotidianas eran distintas... (...) [En la cooperativa] esas relaciones de enriquecimiento del propio trabajo, de asumir las relaciones personales que tienes con toda la gente, yo creo que todo eso ayuda a la formación de grupos del Consejo Social. Conoces a toda la gente. Yo creo que es un ambiente de trabajo basado en la proximidad. Aquí hablas con el que tiene el índice 1 como con el que tiene 3,5 y casi hablas a la misma..., sin tener en cuenta nada.»

Enplegua, bereizgarritasunaren ikono

Langabezia eta lan prekarietatea eguneroko gai eta ogi dugun honetan, ikuspegi baikorretik Arrasateko kooperatibei dohain bereziak onartzen zaizkie, bestelako eredu bat gorpuzten dutelakoan:

«Beste lan eredu bat daukagu, duda barik.»

«Hau guretzat puntu fuerte bat da. Munduan lana prekariora da, gurean ez horrenbeste. Milaka lanpostu sortu ditugu korporazio barruan eta Fagor Elekrodomestioetan bi urtetan... 800 lanpostu fijo sortu ditugu. Nahiz eta ebentualak badiren eta pixka bat gehiegi.»

Baina, lanaren kalitateari bakarrik ez zaio begiratu behar, enpresa gisa bestelako interes gune batzuk ere egon badaudelako:

«Hor prekarizazio problema guk euki genezake. Dena den, gure erronka da ez lana bakarrik baizik eta gure gestio enpresarialean *input* berriak sortzea: teknologia, ezagutza... Lana ondo tratatzen da korporazioan, erronka da beste errekurtso batzuk inkorporatzea»

Arrasateko kooperatibismoa bereiziko lukeen aspektu bat enplegua sortzeko duen grina litzateke; horrek definitzen du esperientzia hau neurri handi batean. Hortxe komunitateari eta gizarteari zerbitzua eskaintzeko aurkitzen den modu hegemonikoa.

«Está clara una cosa: uno de los objetivos más importantes que tiene el grupo cooperativo es la creación de empleo. (...) Quizá no es así en el cortísimo plazo, pero sí en el planteamiento a largo plazo. Es clarísimo. La creación de empleo es una variable que se está continuamente tratando de controlar y tratando de desarrollar. Eso está clarísimo.»

Lanaren trataera da berezitasun kooperatibistaren muina. Enpresa «normalentzat» lana koste faktore bat da, eta ez dute konpromiso zuzenik enpleguarekin. Eten-gabeko kapitalizazioan oinarritutako politika kooperatibista, aldiz, enplegua sortzera zuzendutako politika da. Enplegua sortzeko gaitasun hori erraza da frogatzen. 80 hamarkadako krisi industrial larriaren erdian, AKE-ak eutsi egin zion enpleguari. Enpleguari eusteaz gain, enpresa berriak sortu ziren. Elkarriketatua ia guztien ahotan dabil: Euskal Herrian enplegua suntsitzen ari zen bitartean, Arrasateko taldeak eutsi egin zion desafiari, arazoak modu «zibilizatuan» konponduz (jarduera berriak sortuz, langileak beste kooperatiba batzuetan kokatuz...), eta ez kaleratze masiboen bidez. Horrek ere markatzen du diferentzia.

«En épocas de crisis, las reconversiones se han hecho con unos costes sociales muy inferiores. Hemos interiorizado los costes, y se ha tratado de un procedimiento lo más solidario.»

Enpleguarekiko konpromisoa da, baten bat izatekotan, ezberdintasuna markatzen duen osagairik garrantzitsuena, eta baita ere, zentzu osagai garrantzitsuena. Jakina da enplegu kooperatiboa sortzeko gaur bizi den zailtasuna, krisiaren mamuak eta merkaturu gero eta lehiakorragoak aldi baterako langileak erabiltzera bultzatzen baitute. Zailtasun eta «zauri» horiek diagnostikatzen dira, baina ez da heltzen funtsezko galerarik diagnostikatzerara.

«Yo creo que uno de los grandes costes que ha tenido nuestra crisis ha sido concretamente esta contratación tan grande de asalariados. Eso sí que nos ha hecho una herida bastante fuerte. (...) Creo que afortunadamente en estos momentos se están poniendo unos medios para ir reduciendo eso.»

AKE-ak enpleguaren ikuspegitik azken urteotan bizi izandakoak ez du galera determinanterik suposatzen. Aztergai dugun diskurtsoak aurkitzen du heldulekurik orainaldia eta etorkizuna joera positiboz koloreztatzeko. Esate baterako, Debagoienan langabeziaren datuak txikiak dira, eta Talde Kooperatiboak badu erantzukizunik horretan.

Kultura, baloreak eta bizipen kooperatibistak: transmisio arrakastatsua

Plano materialean Arrasateko kooperatibismoak ekarpen garrantzitsua egin du: aberastasuna sortu eta berau modu orekatuan banatu du, eta barrura begira elkartasun handia azaldu duen enpresa esperientzia bat da, oradainsarien arteko alde estuak probatzen duen moduan. Ongizate kolektiborako dispositibo efikaza izan da, komunitateari zerbitzatu dio eta beste inork ez bezala erantzun dio enpleguaren konpromisoari.

Baina, bestelako planoetan ere ezarri du bereizgarritasunik. Nolabaiteko diferentzia kultural bat ere eragin du, eta berau Debagoienan aurki daiteke:

«Y resulta que en este contorno, en Debagoiena, en el ambiente hay una inspiración, una forma de concebir cualitativamente mucho más comunitaria, la actuación a nivel de cualquier cosa, que en otras comarcas. Eso se nota muchísimo, pero no hemos hecho lo suficiente.»

Arrasateko kooperatibismoa erreferentzia garrantzitsua da Euskal Herrian, baina, esan dugun moduan, ez soilik enpresa arloan. Etikaren eremuan ere egin du ekarpen garrantzitsurik, eta hori aitortu behar zaio.

«Euskal Herri mailan erreferentzia gara eta ez dut uste enpresa arloan bakarrik. Erreferentzia etikoa be bai, nik hori be esango neuke. Badago Arrasate taldeko bizitzeko eta lan egiteko ohitura bat, pertsona bat. ¿Es el hombre nuevo cooperativo? Ez, pertsona konkretuak gara. Baina positibotzat hartu leike egin doguna, Euskal Herrian eh? Orain, nahikoa? Nahikoa inoiz, beti ahal da pausu bat gehiago emon.»

Balore kooperatiboak osasun egoera onean daude. Beti egin daiteke gehiago, hori ere esan behar zaio gaurko kooperatibismoari. Baina, baloreen transmisioa burutzen ari da, belaunaldiz belaunaldi gertaera kooperatiboaren funtsa eskutik eskura pasa da. Horrek ez du esan nahi bitarteko eta esfortzu gehiago behar ez denik norabide horretan, baina, funtsean, balore-krisirik onartzen ez duen diskurtso eta bizipen batez ari gara.

«A Alfonso y los demás les he dicho desde el primer día: «Estad tranquilos, lo que habéis hecho estaba bien. Y hay gente que va a continuar ese tema. La segunda generación lo asumió, y tú [Alfonso] lo has conocido. Lo ha asumido y creo que podéis tener confianza en ellos. Hay una tercera generación que está asumiendo». ¡Hombre!, ¿que lo podía asumir más? También, más gente también, ¿y que podríamos hacerlo de una forma más consciente y más planificada? También. Sinceramente, tenemos que poner medios, tenemos que insistir más en los valores cooperativos, en la filosofía cooperativa. Pero creo que afortunadamente la organización está reproduciendo esto. Si no, en estos momentos estaríamos en crisis.»

Berriro diogu: funtsean, imaginario baikor batekin egiten dugu topo. Arrakasta enpresarialaz gain, Arrasateko esperientzia gai izan da berezkoa duen balore-arrazionalitatea eta imaginarioa garatzeko eta transmititzeko. Diskurtso baikorretik, egoeraren diagnostikoa egitean, onar daiteke balore transmisioaz eta espiritu kooperatibistaren biziberritzeaz arduratu beharko litzatekeen hezkuntza fluxuak behar besteko indarririk izan ez duela, baina diagnostikoa ez da geratzen errealitatearen interpretazio ezkorrean, beti aurkitzen baita gauzak hobetzen ari direla esateko tarterik. Hezkuntzaren alorrean «azken urteotan hasi da berriro zeozer egiten». Arizmendiarieta hil zenetik zeregin ideologikoa baztertuta geratu dela diotenen aurrean:

«Bueno, baina zerbait egiten ari gara, ez dut uste esku hutsik geratu garenik»
 «TU Lankiden hilabetero agertzen dira teorizazioak»

Transmisio ideologikoz aparte, gaurko kooperatibek bizipen kooperatiboa transmititzeko gaitasuna agertzen dute, eta hori kontuan hartu beharreko aspektu positiboa da. Gaurko kooperatibetan jendea ikuspegi teknikoaz eta profesionalaz janzten da, baina baita balorez hornitu ere. Kooperatibismoak beti aldarrikatu duen «gizaki berri» horrengandik gertuago ala urrunago ote gauden galderaren aurrean, besteak beste, zera esango zaigu: kooperatibaren eguneroko funtzionamenduak bertan ari diren pertsonak moldeatzen ditu eta balorez hornitu. Kooperatibismoak horretan ere markatzen du, beraz, ezberdintasunik.

«Más de una vez he dicho que lo que verdaderamente forma no es la formación que vas a adquirir antes de entrar en el trabajo... Donde más te vas a formar es en tu propio puesto de trabajo. Eso que vale desde el punto de vista profesional y técnico, debió ser verdad también desde el punto de vista conceptual, desde el punto de vista de principios y valores cooperativos. Tenemos que ser capaces de que nuestra organización reproduzca esos valores de una forma natural. Es decir, el señor que entra con 22 años con una ingeniería técnica —y de hecho se está produciendo, afortunadamente...— cuando tiene 35 ha vivido tantos proyectos cooperativos..., ha vivido realmente, a veces de forma inconsciente, la realidad cooperativa. Y llega el momento en el que está en un Consejo Rector o de jefe de planta o director no sé dónde, y está acostumbrado a tratar con un Consejo Social, a discutir no sé qué, a que sus ideas se las discutan en la Asamblea General, y viceversa. Y eso, quieras o no, ha creado, ha constituido, ha formado un hombre y unos valores...»

Aipatu ikuspegiaren arabera, gehiegitan kontuan hartzen ez bada ere, eguneroko errealitate kooperatiboak esperientzia ezberdin bat eraikitzen laguntzen du. Errealitate kooperatibo horren indarra handia da, naturalizatuta dagoen harreman eredu gorpuzten baitu, ia inkontzienteki jasotako esperientzia bat probokatuz. Hortxe legoke bere indarra.

Eta, aldi berean, akaso hortxe somatzen da bere ahulezia, naturalizatuta egote horretan, jendeak ahaztu egiten baitu kooperatibek duten indar hori: maizegi, erraz galtzen da bistatik errotik ezberdina den esperientzia bat gorpuzten dela kooperatiban. Nolanahi ere, bere ikusezintasunean, bere isilean, errealitate kooperatiboak bizipen ezberdina eragiten du. Barne metabolismo ezberdin horrek ezberdintzen du nagusiki kooperatiba bat kooperatiba ez den beste enpresatik. Bata eta bestearen arteko mugak zehatzak dira.

«Yo recuerdo, y esto a título anecdótico, una cooperativa navarra en la que no había gente para dirigirla. Incorporaron un gerente del exterior. Estuvo cuatro meses y al final dimitió, y dijo que él sabía conducir una empresa que tenía 20 socios, pero no una que tuviera 200 propietarios. (...) Hay un metabolismo interno en las cooperativas, que no se ve: es todo el hecho participativo, todo el hecho informativo... Eso no se ve. Porque la estructura cooperativa desde el punto de vista empresarial es como cualquier empresa, y en su metabolismo radicalmente distinta. Y eso, o se aprende estando dentro, o si no, uno que viene de fuera con formación previa no encaja.»

Enpresa gidarien esperientzia azpimarratzen zaigu aurreko pasartean, kooperatibako esperientziak eta bestelako enpresa eredu eta moduak zerikusirik ez dutela esateko. Beraz, enpresa-gidarien bizipenei eta jokamoldeei erreparatuta ere, kooperatibek beste zerbait gorpuzten dute, beste zerbait eskatzen dute, guztiona den enpresa gestioak bestelako jokamoldeak eskatzen baititu.

Parte hartzea, bere dimentsio ezberdinetan

Ez da inondik inora ametituko kooperatibismoa urardotzen ari delako tesia. Galearren diskurtsoetik gertuago dagoen iritzi-ildoari eta kontzientzia kritikoa ez; ez gero, segituan agertzen da kexua eta kritika. Diskurtso baikorraren kasuan ez; ez da uste kooperatibek enpresa kapitalisten antz gero eta handiagoa dutenik, errealitate bien arteko mugak beste garai batean baino nahasiagoak direnik; hots, homologazio prozesu bat bizi denik. Eta tinko defendatuko da kooperatiben bereizgarritasuna, konbikzioz eta argudioz.

«En los años 90 se han cooperativizado dos empresas capitalistas. Todo el mundo dice: «estos cooperativistas de Mondragón han dejado de ser cooperativistas». Esa es una crítica muy fácil. Se oye, incluso a gente nuestra: «esto no es una cooperativa». Yo eso he discutido hasta con el secretario general de Confebask. Le he dicho: «ya que no somos muy diferentes dame los estatutos de vuestras sociedades y os cambio dos artículos, ya que no nos diferenciamos en nada. Os vais a enterar de lo que vale un peine. (...) Alguno podría decir: «falta el dinamismo, falta la voluntad fundacional». No, en absoluto.... Es muy complicado... Hoy, en el capitalismo, es el día que le pegas a un botón en un ordenador y te han pasado millones de dólares a otro en millonésimas de segundo. Tú no puedes trasladar 200 voluntades, con personas con carne y hueso, con cara, como decía el otro día el Lehendakari. Hay que gastarse y hay que convencer. Es muy diferente.»

Enpresa kapitalistak kooperatibizatze eginiko ahaleginek, genesi garaiko borondate eta espirituak tinko darraiela frogatzen du. Baina bada gehiago. Izan ere, gehienetan des-kooperatibizatze prozesuaren sinbolo gisa haiztzen den Eroski bera sekulako egoeran dagoela adieraziko zaigu. Langileen parte hartzearen alorrean lezio ugari eman dituen enpresa errealitatea gorpuzten du Eroskik, eta, lan harremanen historian, zaila da parekorik aurkitzea.

«Saliendo del mundo industrial: Eroski. Un desarrollo tremendo fuera. Claro, ha tenido que adquirir empresas porque en el mundo de la distribución o haces eso o desapareces. Bien, tiene sus riesgos, evidentemente. No vamos a entrar ahí ahora; ahí está y tenemos que sacarlo adelante. Pero es la experiencia de participación más vigorosa, más revolucionaria que se ha dado en toda la historia de las relaciones laborales.»

Se les ha planteado a los trabajadores; el 92% ha dicho que adelante, y participan en la gestión, en la dirección, en los resultados... Y hay voluntad. (...) Al principio dice: "oye, no vamos a perder la ocasión de crecer; luego ya veremos a ver qué hacemos". Ahí está nuestra respuesta, después a ver si somos capaces de reproducir el modelo [cooperativo].»

Lan-harremanen historian parekorik izan ala ez, Eroskik egoki gorpuztuko luke kooperatibismoak bere baitan hartzen duen tentsioaren konponketa arrakastatsua: batetik, hazkuntza ekonomikoa sustatu beharra, eta, bestetik, berau parte hartzearen aldeko formulekin aurrera eramatea; hots, kooperatibismoaren balore nagusitzat jotzen denari fidela izanik.

Bestelako diskurtso ildoetan inkoherentzia kooperatiboaren kasua dena, Eroski, eredugarri bilakatzen zaigu aztergai dugun diskurtso ildoan. Horrek ez du esan gura bestelako kontsiderazio edo ñabardurarik ez dagoenik Eroskiren ibilbide eta jokabidearen inguruan, baina indartsuen aktibatzen den irakurketa aipatu berri duguna da. Finean, kooperatibismoaren osasun egoeraren adierazlerik garrantzitsuena parte hartzea litzateke. Adierazle horrek itzelezko garrantzia du aztergai dugun diskurtso ildoan, kooperatibismoaren muina baita berau.

Arrasateko kooperatibismoaren ibilbide historikoan zehar baliteke parte hartzearen bizipenak tenperatura pixka bat galdu izana. Baina, instituzionalizatutako mekanismoak bere neurrian baloratu behar dira. Izan ere, beste inork ez du gestio plana Asanblada Orokorrean onartzen. Parte-hartze politikorako aukerak ikusita, be-reizgarritasuna eztaba daezina da:

«Yo creo que no se valora, siempre digo lo mismo. (...) Es que ninguna empresa en el mundo aprueba en una Asamblea General un plan de gestión. Somos nosotros los únicos.»

Parte hartzearen egoeraz mintzatzea kooperatibismoaren osasunaz mintzatzea da. Aspektu horri dagokionean, Arrasateko kooperatibismoak badu besteekiko alderik. Goi karguek beste enpresa batzuetan baino gutxiago kobratzen dute, baina, halere, gutxik utzi dute kooperatiba. Izan ere, kooperatibismoak beste gauza batzuk eskaintzen ditu, bestelako zentzu batzuk, kanpoan aurkitzen ez direnak. Orohar esanda, parte hartzea dugu hitz giltzarria. Euren beharrian materialak ziurtatuta dutenei eredu kooperatiboak beste aspektu batzuk eskaintzen dizkie.

Eskaintzen dituen zentzuen artean komunitate-zentzua dago, zerbaiten parte izateko aukera. Proiektu komunitario batean esku hartzeko aukera luzatzen da. Arrasateko kooperatibismoak komunitatea ekoiztu eta eskaintzen du, hain beharrezkoak diren errealitate komunitarioak gainbeheran dauden sasoi batean eta multinazionalak herrietan sustraitzeaz ezer ez dakiten garaian. Norbere herriarekiko konpromiso politikoa da parte-hartze aberatsago horren froga:

«Bueno, te quiero decir que algo tiene el modelo que engancha. En el fondo porque se sienten participar en una comunidad. Yo creo que es lo que engancha al final. Si solamente fuese un desarrollo personal... (...) [El concepto de] La comarca se ha terminado. Hoy en avión en 4 horas estás en Berlín. Entonces, algo hay ahí: te sientes miembro de una colectividad que está haciendo algo importante, que está haciendo algo interesante,

que está al servicio de un desarrollo. (...) Para mí no se explicaría el movimiento cooperativo vasco, concretamente el nuestro, si no hubiese bastante implicación también con el país, a nivel yo diría político, en el sentido global del término; a nivel socio-político, en el sentido global del término. Por lo menos gran parte de la implicación de mucha gente yo creo que va por esa vía. Y las raíces en tu propia tierra. De hecho, es lo que caracteriza al cooperativismo yo diría en todo el mundo. Hoy en día, cuando las multinacionales van y vienen, el cooperativismo es uno de los grandes valores que están viendo las sociedades que necesitan autodesarrollo. Están viendo el modelo cooperativo como una de las posibilidades y uno de los elementos de referencia, y el modelo concreto suele ser éste [Mondragón].»

Beraz, kooperatibismoak ahalmena du konpromiso integralago bat eskaintzeko, zentzu komunitarioez hornitutako enpresa proiektu bat eskaintzeko. Horregatik, dimentsio anitzeko parte hartze bat gauzatzen da: erabakietan parte hartzen da, proiektu komunitario batean, kapitalismo sutsuenari kontrajartzen zaion enpresa ereduan, eta, baita ere, euskal-herrigintza helburu duen enpresa proiektuan.

Legitimazio handia

Baina, bereizgarritasun kooperatiboa edo besteekiko diferentzia konstatatzeko, ikusi besterik ez dago kooperatibetako langileek zer pentsatzen duten. Datu objektiboak kontsideratzeaz gain, beraz, irakurketa subjektiboek ere norabide bererantz garamatzate: galera sentimendutik urrun, kooperatibak ezberdinak direla dudarik ez.

Asetze maila neurtzen duten inkestek garbi azaltzen dute inor ez litzatekeela joango kooperatibetatik («ni Dios quiere irse»), beraiengan eragina duten erabakietan parte hartzen dutelako eta «norbait badirela» sentitzen dutelako. Kooperatibek, beraz, estatus humano eta politiko ezberdina bermatzen diote pertsonari.

Baliteke iritzi orokorrak esatea kooperatibisten artean kontzientzia kooperatibista gehiegirik ez dagoela. Baina, esku artean darabilgun diskurtso ildoak ez du halakorik uste. Kooperatibisten artean kontzientzia kooperatibista bizi-bizi dagoela defendatuko da. Kooperatibek sindikatuarekin duten harremanari buruzko ezbaian sortu den ekarpena horren adierazle da. Ezbai horretan bi posizio ezberdin ditugu:

- Batzuk sindikalgintzatik gertu dagoen tradizio kooperatiboarekin gusturago sentitzen dira. Azken batean, enbor bereko bi adierazpide ezberdin dira, kooperatibismoa ere langile mugimendutik sortutako errealitatea baita. Ikuspegi honetatik, ez da begi onez edo gustuz ikusten kooperatibismoaren eta sindikalgintzaren arteko dibortzioa.
- Beste batzuetan, salba ezina den antagonismoa ikusten da bien artean, funtsezko bateraezintasuna. Sindikatuaren berezko izaerak talka egiten du izaera kooperatibistarekin, eta alderantziz. Gauzak ulertzeko moduak eta proiektuak ezberdinak dira; sindikatuak bazkideak enpresarekin duen harremana laboralizatzen saiatzen dira. Bi kulturak oso ezberdinak dira. Bat ez datozen proiektu historikoak gorpuzten dituzte.

Ezbaian zehar, kooperatibaren batean sektore sindikalista zaleek duten garrantzia azpimarratuko du baten batek. Baina, segituan dator erantzuna: horrek ez du esan gura posizio ideologiko horiek berez erakarpen-indar handia dutenik kooperatibisten artean, hau da, horrek ez du esan nahi kontzientzia kooperatibistak atzera egin duenik diskurtso sindikalistaren mesedetan. Kontua da ez dagoela besterik, eta kooperatibetan berezko diskurtsoak ez dagoenez, bestelako posizioek (sindikalistek) ez dagozkie tokiak okupatzen dituzte. Baina, errealitatean sentsibilitatea uste baino kooperatibismoaren aldekoagoa da. Hemen ere baikortasuna, sentsibilitate eta kontzientzia kooperatibista, hor nonbait, sindikalismoak gorpuzten duen asimilazio kulturaletik babestuta baitago.

Hortxe ikuspegi baikorra. Izan ere, bizirik omen da, erdi ezkutuan bada ere, mentalitate eta logika kooperatibista bat, ur gainean ageri ez dena, baina egon badagoena. Hots, uste baino kontzientzia kooperatibista handiagoa dago AKEen:

«A veces suelo pensar: habría que poner un carnet de cooperativista. (...) Y nos llevaríamos alguna sorpresa, fíjate. A lo mejor se apuntan más de la cuenta, más de los que pensamos en estos momentos.»

Beraz, kooperatibismoak badu lekuri kooperatibisten kontzientzietan, badu onespenik, badu legitimaziorik. Kooperatibisten barruetan nolabaiteko «sen kooperatibista» baten taupadak entzuten dira; zenbait aldiz errepikatu den moduan, «inkontzientearen» plano horretan-edo. Horrek badu ahuleziarik: ezkutuan bizi da bereizgarritasuna, eta gehienetan ezin ikusi; baina badu indarririk: kooperatibek lortu dute euren kultura propioa pertsonen tolesdura sakonetan iltzatzea. Beraz, kooperatibek «barrutik» legitimitate handia dute: inork ez du joan nahi (segurtasun eta asetahun maila handia), eta, mentalitate kooperatibistari bagagozkio, uste baino kooperatibismo zaleagoak diren asko daude (legitimitate kultural-ideologikoa).

Legitimazioa barruan, baina baita kanpoan ere. Kanpoan, gizartean orohar, AKEk legitimazioa eta erakarpen indarra duela azpimarratzen da. Espainiako ikasle unibertsitarioen iritzia aztertzen zuen ikerkuntza batean, MCC agertzen zen lan egiteko lehendabiziko aukera gisa. Arrazoiak zeintzuk diren galdetuta, horra hor erantzuna:

«Porque yo creo que se tiene conciencia por ahí, yo lo he oído, de que te dan grandes oportunidades de formación, y eso es verdad, y luego de promoción. Son aspectos que es verdad que se tienen. De hecho, los equipos directivos en general, de las cooperativas de Fagor al menos, han salido todos desde dentro.»

Arrazoiak arrazoi, ikasleek lehentasuna ematen diote —gizartean lehentasuna ematen zaio— Arrasateko eredu kooperatiboari eta bertan lan egiteari. Beraz, bereizgarritasun kooperatiboari buruzko kontzientzia soziala ere hortxe dago: parte hartzaileagoak dira, eta auto-garapenerako aukera gehiago ematen duten enpresak ere badira. Arrazoiaren artean ez da ageri Arrasateko kooperatibismoak konpromiso sozialerako espazio bat gorpuzten duenik, soilik autoerrealizaziorako aukerak dira aipagai. Bueltatuko gara auzi honetara.

2.2.1.3. Zentzuen instituzionalizazioa, irakurketa positiboa

Fundatzaileen diskurtsoan eta marko soziokognitiboan, zentzuak eta baloreak instituzionalizatu izanak baditu kontuan hartu beharreko aspektu positiboak, baina galera bat dakarrela azpimarratuko da nabarmen: elkartasuna eta gisako baloreak burokratikoki administratuko dira, kooperatibek horretarako baliatu dituzten mekanismo konplexuak erabiliz, baina egunerokotasunaren bizipen-eremu zuzenetik desagertu egin dira elkartasun sentimenduak, eta beraz, desagertu egin da baloreen bizipena bera. Baloreek badute euren tokia kooperatibismoaren metabolismo organizatiboan, baina bizitza kooperatiboa —«bizitzaren mundu kooperatiboa»— hustu egin da balore-bizipenez.

Aztertzen ari garen diskurtso baikorretik, instituzionalizazio prozesua nabarmena dela aitortuko zaigu, baina, nagusiki oso bestelako balioa gaineratzen zaio. Instituzionalizazio prozesuak ematen die baloreei duten indarra, egitura kooperatiboaren armazoiak baloreen jasotze inkontzientea bermatzen duelako:

«Hemos asumido una forma de entender la vida con un compromiso social. Y esto antes podía estar en los libros, cuando no había realidades tan importantes, realidades socioeconómicas tan importantes... Pero estas realidades de alguna forma nos han institucionalizado el compromiso social en su integridad. Y eso es muy importante, e inconscientemente tenemos asumido.»

Konpromiso kooperatiboak fase historiko ezberdinak izan ditu. Hasierakoa, hutsetik abiatutako hedatze fase gisa ezaugarri daiteke: genesi garaiko ekintza soziala, enpresa-egitura eta enpresa-eredu alternatiboetan gauzatzen hasiko da. Gerora, aipatu konpromisoa erdi naturalizatu egingo da mundu kooperatiboan. Paradigma kooperatiboaren gaurko indarraren zati garrantzitsua hortxe aurkitzen da: dagoeneko instituzionalizatuta dagoen errealitatea da, eta errealitate horrek bere baitako kontzientzia eta bizipenak moldeatzeko gaitasuna du.

Duela sei bat urte, esango zaigu, Fagor Arrasateko bazkideek indibidualki euren aurrerakinak jaistea erabaki zuten, beste lankide batzuen igo aldera. Halako erabakiak egon badaude, gerora instituzionalizatu egiten dira eta agindu eran betetzen diren neurriak direla ematen du. Baina, ez da horrela, jendeak ez ditu aginduz betetzen; nahi izanez gero, arau instituzionalizatu horiek aldatu daitezke, baina ez da halakorik egiten. Horrek frogatuko luke arau instituzionalizatuek bizirik dirauten elkartasun sentimenduetan sostengatzen direla. Izan ere, enpresa guztiek pasa dituzte une txarrak, eta, ondorioz, denei interesatzen zaie elkartasuna. Aipatu berri dugunak interesean eta beharrezanean oinarritzen du elkartasuna: solidarioak gara interesatzen zaigulako; gaur laguntzen zaitut bihar-etzi zure beharra izan dazakedalako. Ematen du distira eta balioa kentzen zaiola, baina, elkartasunak izan beharko lituzkeen oinarrien gaineko gogoeta teorikoetatik aparte, horixe dugu kooperazioaren oinarria eta abiapuntua: elkarren beharrezana izatea.

Antzeko zerbait gertatzen da parte hartze instituzionalarekin: naturalizatu egin da metabolismo kooperatiboan. Asanblada Orokorrek demokrazia ekintzak dira, parte hartzea ahalbidetzen duten egitura errealak. Gauzak bide onetik doazenean jendearen

parte hartzea lausotzen da, baina zirkunstantziek hala agintzen dutenean bizitu egiten da. Parte hartzea ahalbidetzen duten mekanismo instituzionalak hortxe daude, eta hori bere neurrian baloratu beharra dago.

«No tenemos en cuenta cosas que son normales. Y el acto democrático y participativo por excelencia de la asamblea general... Cuando las cosas van normal, inasistencia; cuando hay algo de morbo o va a haber algún problema, es cuando va la gente. (...) Tenemos una institucionalización de la participación, y eso es muy importante. Y el acto más importante dentro de ello es la elección de nuestros representantes.»

Beraz, kooperatibek berezkoa duten parte-hartze politiko-formala instituzionalizatuta dago, eta parte hartzeak beretzat lortu dituen mekanismo eta eskubide formalak eztabaida ezinezko balioa dute: «Para mí lo más importante de la asamblea es que se haya institucionalizado, la obligación de hacerla, y me fío cuando se hace»; «La institucionalización de la asamblea general es lo más importante que conozco».

Modu berean, elkartasun instituzionalizatua oso da garrantzitsua eta bere neurrian baloratu beharrekoa. Gaur gaurkoz, AKEak hainbat fondo baliatzen ditu elkartasunerako, eta arkitektura instituzionalizatu horrek «segitzen du apartekoa eta ikaragarria» izaten:

«Hay una solidaridad institucionalizada. Ha habido siempre y se ha reforzado bajo mi forma de ver. Ha habido siempre una reconversión de resultados, pero hay una solidaridad institucionalizada en relación a la creación de FCI (Fondo Central de Intercooperación), FEPI, la participación en los fondos corporativos de Caja Laboral... Todo eso sigue siendo extraordinario e impresionante.»

Gauzak horrela, diagnostikoa ezin baikorragoa da: sekula ez da egon tamaina horretako elkartasunik.

2.2.1.4. *Kooperatibismoaren etorkizuneko zentzua: lan molde berriak eta parte hartzea*

Baikortasunaren espiritutik erraz askatzen dira gaurko kooperatibismoan zailtzat jotzen diren korapiloak. Orainaldia bertutez hornituago dago kontraesan mingarriez baino. Etorkizuna ere halaxe ageri zaigu, kooperatibismoaren oinarriekiko koherentzian jokatzeko ahalbidetuko duen aro gisa. Kooperatibismoak etorkizunean egin beharko lukeen bidez jardungo dugu segidan.

Kooperatiba esperientziaren ipar garrantzitsuenetakoa hazkuntza ekonomikoa izan da historian zehar, ongizate materialaren aldeko hautua. Hazkuntzaren eta aurrerapenaren ideiak aldaketa nabarmena nozitu du mendebaldean, eta, testuinguru historiko berrian galdera berriak sortu dira: etengabe haztearen aldeko bulkada ote da etorkizunerako iparra? Lanpostuak sortzearen aldeko konpromisoan agortu beharko ote litzateke diferentzia kooperatiboa? Kultura ekonomiko oso bat kuestionatzen duten galderez ari gara:

«En los 50 nuestro mundo conocido era bastante manejable y limitado. Entonces teníamos dos grandes sistemas, el socialista y el capitalista. Y tomamos nosotros una

vía nueva, muy criticada sobre todo desde la izquierda. Fue muy doloroso ver como muchos compañeros nos criticaban, «sois un parche a la sociedad», «no aportáis nada al sistema»... Nosotros tomamos la vía cooperativa y ahí peleamos. Pero llegamos a los 90 y el mundo manejable ha cambiado muchísimo. Estamos en una visión mucho más compleja del mundo y ante eso no tenemos en este momento más estrategia de aportación que el crecimiento. Crecer, crecer en cada puesto de trabajo. Eso es lo que tenemos en estos momentos de estrategia general de aportación a la sociedad. ¿No haría falta una aportación distinta? ¿Somos capaces de hacer otra cosa distinta que aportar puestos de trabajo, que no es poco?»

Zertan oinarrituko beharko litzateke, bada, etorkizuneko nor kooperatiboa? Zeintzuk dira etorkizunean bereizgarritasuna bermatuko duten osagaiak? Hazkuntza ekonomiko soilak eta beronek dakarren lanpostu sorrerak, berez bereizgarritasuna oinarritzeko behar besteko indarrak ba ote duten galdetuko dute zenbaitzuk, ikusi dugun legez. Zalantzak zalantza, beste batzuk Gizarte Ekonomiaren haria segitu beharra aipatuko dute. Kooperatibaren formula juridiko estutik aparte badago bestelako formularik, bestelako errealiterik, izaera antzekoa duten enpresa molderik, eta bidaide ugari:

«Creo que en alguna medida hemos llegado a un momento como para plantearnos...., un sistema socioeconómico es mucho decir... Yo digo Economía Social, aquellas entidades que funcionan no por el criterio capitalista (la decisión está en el que tiene la mayoría de las acciones), sino aquellos que funcionan con carácter democrático y en la base con las personas, tanto en la decisión, como en los resultados, como en la gestión: las cooperativas, mutualidades, asociaciones, fundaciones... Yo creo que ha llegado el momento de hacer un planteamiento de este tipo a nivel general. Lo que pasa es que creo que para eso hace falta liderazgo, hace falta una definición científica de lo que puede ser economía social... (...) No solamente MCC. Hay entidades muy importantes. ANECOP es una cooperativa agraria en España que tiene una dimensión importante. MAPFRE tiene una dimensión importante. ONCE tiene una dimensión importante. Las Cajas Rurales, las Cajas de Ahorro...»

Aipatutako etorkizuneko ildoez gain, bada beste bat garrantzitsuagoa, adostuagoa eta aztertzen ari garen diskurtso ildoan sekulako zentraltasuna bereganatzen duena. Lan molde berriez ari gara, eta eurekin batera, parte hartzearen aldeko gaurko joerez eta enpresa kultura berriaz. Hortxe legoke etorkizuneko zentzu-ildo garrantzitsu bat, askorentzat garrantzitsuena, horrek erantzungo bailioke kooperatibismoak betidanik nahi izan duenari: parte hartzea, langile inplikatuak, autogestioa...

Parte hartzeaz hitz egitea kooperatibismoaren osasunaz hitz egitea dela esana dugu. Bi parte hartze eredu bereiz daitezke kooperatibetan: lanpostuko parte hartzea, enpresa mota guztietan lekua izan dezakeena (antolamendu era postayloristak); eta kooperatibismoak berezkoa duen parte hartze mota, parte hartze politikoa deitu duguna, erabakimena ziurtatzen duena, eta kooperatiben berezko organoen bidez gauzatzen dena (errektore kontseiluak, kontseilu sozialak, asanblada orokorrak...).

Kooperatibek parte hartzerako eskubide formalak instituzionalizatu dituzte enpresa munduan. Mekanismo formalak hortxe daude (asanblada orokorrak, kontseilu sozialak...), eta horrek, berez, balorazio positiboa behar du. Baina, bada garaia parte hartze formaletik parte hartze errealera igarotzeko. Bere garaian langilea baz-

kide izatera pasa zen, estatus politiko berria lortu zuelarik, eta erraldoi baten aurrera-pausoa izan zen hori. Orain, AKE-ri beste pausu bat ematea dagokio.

Esana dugu esku artean dugun diskurtso-ildoak erlatibizatu egiten duela iragan kooperatibistak ustez duen distira. Modu horretan, hautsi egiten du galeraren diskurtsoan «jausteko» tentaldiarekin eta beronek errealitatea sinbolikoki irudikatze harten duen bidearekin («iragana da kooperatibismo koherentearen tokia, eta orainak gainbeheraren norabidea markatzen du»). Horrek ez du esan gura, berritri diogu, galerarik hautematen ez denik; gainera, hainbaten kasuan galerak pisu espezifiko nabarmena izango du. Baina, funtsean, bestelakoa da tonua.

Parte hartzea, inplikazioa, talde-lana, langilea subjektu aktibo gisa... Termino horiek guztiak gaur egungoak dira, iraganekoak baino gehiago. Iraganeko kooperatibismoa jerarkikoa zen, agintea eta goitik beherako antolamendua ziren nagusi. Gaur, ostera, prozesu parte hartzaile aberatsak bizi dituzte hainbat kooperatibek, sekula baino kultura parte hartzaileagoa. Interpretazio ildo horrek, errotik apurtzen du galera sentimenduarekin, iragana desmitifikatzeaz gain, orainaldia, eta batez ere etorkizuna, aukera eta horizonte berrien lurralde gisa ikusten baita.

«Yo estoy desde el año 72 (...) En absoluto había entonces, ni plantearse.... porque se veía otra cultura distinta del trabajo. Otra cultura distinta, de la jerarquía que se encargaba del orden y mando. Tú recordarás cuando se pasó a un proceso más participativo. Los encargados tuvieron una crisis enorme. Desde ese punto de vista, yo creo que a veces ponemos en un gran pedestal lo de hasta ahora, y lo de ahora lo echamos por tierra, pero no estoy en absoluto de acuerdo.»

Esku artean darabilgun diskurtso baikorrak etorkizunari itxaropentsu begiratzendio nagusiki, tartean ondoko heldulekua aurkitzen duelako: enpresa kultura berriak proposatzen duen lanpostuko parte hartzea indartzen ari da, enpresa munduan orohar, eta kooperatibetan ere bai. Kooperatibek, gainera, koherentzia handiagoz egin dezakete bide hori, parte hartze politiko ere integratzen baitute (erabakietan esku hartzen da).

Diskurtso ildo horretan, kooperatibetako parte hartze politikoak gaur sofritzen duen kolpea (ez-bazkideen kopurua sekula baino handiagoa delako; enpresa kapitalista ugari administratzen dituelako Arrasateko taldeak...) badago leuntzerik, indartzen ari baita parte hartzea eguneroko bizipen gisa (lanpostuko parte hartzea). Lanpostuko parte hartzeak ordezkaturiko luke, hein batean, parte hartze instituzionalaren alorrean sofri daitekeen galera. Guztiarekin, kooperatibismoaren definizio berritu baten aurrean egon gaitezke: berau definitzeko garrantzitsuena ez litzateke kooperatibek gorpuzten duten egituraketa juridiko-organizatiboa, baizik eta parte hartzearen aldeko bizipena. Ikuspegi horretatik, kooperatibismoaren arau juridiko tradizionalari lotzea jarrera kontserbadoretzat jotzen da.

«Estamos evolucionando las empresas en el sentido de poner en cuestión aspectos jurídicos de nuestras propias cooperativas. Para ponerlas en cuestión las tiene que entender el colectivo que tiene que cambiar las normas, ponerlas nuevas... Cómo lo hacemos si es que lo único que tenemos identificativo es la forma jurídica actual. Pues a eso es a lo que se puede agarrar, y podemos tener dentro un conservadurismo a la norma,

a la norma actualmente vigente, y se nos pueden pasar un montón de oportunidades de tipo empresarial porque lo único que nos identifica es la norma, y no una vivencia cooperativa que se puede manifestar en esa norma o en otra: lo de las participaciones especiales y sus capacidades, lo de conjugar sociedades anónimas con sociedades cooperativas... Son aspectos que si lo único que nos vincula es el que cooperativa quiere decir estas normas y el cambio de las normas es perder sentimiento cooperativo, estamos ante un problema.»

Nazioartean hedatzeko sozietate anonimoaren formula saihestezina da, baina horrek ez du esan gura kooperatibismoaren betiko baloreei uko egin behar zaienik. Formato juridikoak eskaintzen duen aterpea ez da, zentzu horretan, determinantea, baloreekiko koherentziari eutsi baitakioke formula juridiko ezberdinekin.

«Y yo plantearía que la fórmula «sociedad anónima», que es la que vamos a tener que utilizar con más frecuencia las cooperativas ya existentes para su expansión en otras zonas cercanas o lejanas, no puede ser una fórmula en la que ya los valores no son los mismos, las participaciones no son las mismas... Creo que no tiene por qué ser así... Y a lo mejor tenemos que considerar que no es la fórmula jurídica la que vincula o no la participación, la pertenencia a la corporación, sino otras cosas, sino los valores que se empleen, los fundamentos, los objetivos que se planteen. (...) No vamos a poder renunciar a ese formato jurídico. Y por lo tanto, vamos a hacerlo bueno.»

Bizipenei erreparatzen badiegu, kooperatibismoa inoizko koherentzia eta purutasun handienarekin «bizitzeko» une historikoan aurki gaitzke: «Yo creo que en estos momentos estamos en capacidad de vivir el cooperativismo mejor que nunca. Así como antes teníamos una contradicción entre el cooperativismo filosófico y el Taylorismo organizativo...»

Parte hartzea behar bezala gauza dadin funtsezko egiteko bat dago: kapazitazioa. Funtsean, ulertu beharra dago zer den enpresa bat. Eta beste egiteko funtsezko bat gehien ustean: komunikazioa hobetu beharra. Horretaz gain, parte hartzea sustatzeko gidariaren edo exekutiboaren lana berebizikoa da, euren jarrerarekin egunero sustatu beharra baitute parte hartzearen aldeko kultura bat.

Parte hartzea sustatzeko molde berriak, batetik, eta kooperatibismoak bere barne metabolismoaren bidez ezartzen dituen parte hartze politikorako bideak, bestetik, osagarriak al dira? Elkar elikatzen ote dute, ala alderantziz? Honetan ere baikortasuna nagusi: bien artean sinergiak sortzeko aukera dute kooperatibek. Parte hartze molde berriak ez dira kooperatibismoaren patrimonioa, inondik inora, baina kooperatibismoak koherentzia handiagoz aplikatu ditzake teknika eta filosofia berriak.

«La participación a largo puede facilitar el sentirte miembro de una comunidad trabajadora, en algo que te vincula más al resto. Además, está también relacionado con el tema de la dimensión (...) Entonces, si no te sientes muy implicado en el propio núcleo, en tu primera comunidad de trabajo, difícilmente te podrás sentir más implicado en el conjunto. Y a su vez, si tú estás muy implicado aquí [a nivel de participación institucional], eso armoniza bien con los objetivos de la empresa.»

Dimentsioak parte hartzean izan dezakeen eragina aipatzen da aurreko pasartean. Zenbaitentzat dimentsioaren arriskuak nabarmenak dira, komunikazioa zaildu, eraba-

ki mailaketa konplexua ezarri eta batasun kontzientzia galtzen baita. Baikorrenentzat, dimentsioak ez dakar salba ezina den oztoporik, ondo antolatzean baitatza kontua.

Batasun kontzientziari sendo eustea garrantzitsua litzateke. MCC enpresa sare deszentralizatua da; MCC-ko presidentek ez dauka erabakitze ahalmenik, ahalmen morala baizik, eta epe luzera eragiteko ahalmena. Hori dela eta, MCC behetik gorako eraikina dugu. Beharrezkoa da «MCC-kontzientzia» gehiago sustatzea. Komunikatu behar zaio kooperatiba bakoitzari MCCk beretzat zer suposatzen duen, nazioartean negoziatzeko eta hedatzeko ematen dituen aukerak... Enpresa-talde kontzientzia sustatzea funtsezkoa da, eta horretarako kontzientzia hori komunikatu eta transmititu beharra dago.

2.2.1.5. Nazioarteratzea, ikuspegi positiboa

Kooperatiben nazioarteratzeak hainbat kontraesan dakartza, batez ere, formatu ez kooperatibistan burutzen ari delako. Halaber, aztergai dugun diskurtso ildoan, baikortasunaren ikuspegiarekin koherentzian datorren gertakaria da. Nazioarteratzea ere ikuspegi baikorraren galbahetik pasako da, eta, aldi berean, ikuspegi horrekin tentsioan sartzen da zenbait unetan.

Hots, batetik, nazioarteratzeak punta-puntan jarri du Arrasteko Kooperatiba Esperientziaren enpresa makinaria, «ingeniaritza» operazio handia suposatu izan du, eta ikuspegi teknokratiko eta ekonomikotik dezenteko desafioa; zentzu horretan, nazioarteratzeak aurrera begiratzen duen eta etengabeko egokitzapen esfortzuan diharduen bulkada eta espiritu aurrerazale horrekin bat egiten du. Baina, nazioarteratzea, aldi berean, duela gutxira arte funtsezkoak izan diren ezaugarriak kolokan jartzen dituela ikusten da: industri demokrazia, euskal lurraldearekiko lotura, esperientziaren kooperatiba izaera bera....

Beraz, irakurketa positiboarekin batera arriskuak aipatzen dira. Bi irakurketek aurkitzen dute lekua. Baina, kasu honetan ere, diskurtso eredu berbera aurkitzen dugu: baikortasuna nagusi.

«La internacionalización se puede hacer de muchas maneras... Las plantas productivas de aquí a otro lado, buscando economías de escala, economías de costes de escala... (...) También hemos comprado empresas capitalistas y estamos transformando en cooperativas. ¿Quién te dice que en Polonia no se va a hacer una cooperativa dentro de 15 años? Y es una forma de internacionalizar también nuestra filosofía.»

Enpresak kooperatibizatze bideari aukera ematen zaio, eta marko sozio-kognitibo baikorrari eusteko helduleku gisa balio du horrek. Baina, horretarako aukerarik ez balego ere, bada koherentziak bilatzeko bestelako biderik: gestio eredu onak ezartzea, edo eta parte hartzea sustatzea.

«Las implantaciones fuera no se llaman cooperativas. Pero te advierto: los métodos de gestión que están utilizando, a la gente se le suelen quedar los ojos a cuadros. En Marruecos por primera vez están hablando de participación. Es la primera vez que están hablando de proyectos raros, de sugerencias... No se llamarán cooperativas, pero...»

Ildo bertsutik, nazioarteko ezarpenek dakarten (ustezko) des-kooperatibizazioari —enplegu ez kooperatiboa sortzen baita— erantzun irmoa ematen zaio: «al final ese empleo, sea o no cooperativo, es empleo».

Parte hartzea da hitz klabea, eta kooperatibismoa, bere berezko egitura juridikoarekin, bide posible bat da, baina ez bakarra. Kooperatibismoak gorpuzten duen gauzatze juridiko-organizatiboaren gainera legoke parte hartzearen ideia. Idei hori litzateke AKERen benetako esentzia, eta kooperatibak ideia horren gauzatze historiko bat dira. Bestelako egitura juridiko-organizatiboetan ere posible da parte hartzea sustatu eta garatzea, eta gauzak horrela, posible da AKERen benetako esentzia salbatzea globalizazio garaian. Ideia horren bestelako gauzatze historiko bat posible da.

Mundua aldatu da eta globalizazioak baldintza berrietara egokitzea eskatzen du. Baina, zailtasunen gainera, koherentziaz jokatzeko dauden baldintzak azpimarratzen dira: okerrera egin ez duen kultura solidario bat, arrakastaz gauzatu den balore transmisioa...

«El mundo ha cambiado y nosotros estamos condicionados a ese mercado mundial... (...) Yo soy positivo. Creo firmemente en nuestra juventud. Yo veo que pasan por la Comisión Permanente generaciones distintas. Yo no noto que haya una ruptura o un deterioro, sino que creo que la gente comulga y tiene más conocimiento de causa que la que podíamos tener nosotros en algún otro momento. Que no aflora, pero que está ahí. (...) Y eso mismo nos hace que mantengamos el espíritu para gestionar esas empresas que necesariamente tenemos que tener en otras latitudes, en la medida en que se puede: mayor participación; un tratamiento laboral más acorde con nuestros principios; tratar de que, si en algún sitio se puede, transformar sociedades anónimas en cooperativas... Yo creo que en absoluto se están deteriorando nuestras virtualidades o nuestras esencialidades.»

Globalizazioak pizten ohi dituen ziurgabetasun eta inkoherentzia arriskuen orde, konfiantza handia azaltzen da belaunaldi berriengan, gauzak ondo egiteko duten ahalmenean sinesten da. Galerarik sentitu ez ezik, esperientzia kooperatiboak beste garai batzuetan baino baldintza hobek izan ditzake koherentziaz jokatzeko, belaunaldi berriak oso ondo prestatuta egoteaz gain, balore kooperatiboen jasotze erabat arrakastatsua burutu baita.

Balore transmisioa arrakastaz burutu izana, edo hala gertatu dela pentsatzea, baikortasunaren diskurtsoaren bihotzean dagoen aspektua da. Baloreak, beraz, ez dira ekimen kooperatiboaren ertzetara bidaliak izan. Ez dago, ondorioz, baloreekin hausturarik edo galerarik, ez krisirik, kontrakoa baino. Baikortasuna muturrerantz doan heinean, triunfalismoa oinarri duen diskurtso ildoak aurkitzen dugu.

Nazioarteratze prozesuan, Europako Ekialdearekin kooperatzeko aukerak ere bada. Herrialde komunista ohietan ekonomia pribatizatzen ari da, eta estatuarenak izandako kooperatibek, erabat desprestigiatuak, orain kooperatibismo europarra behar dute. Izan ere, hango kooperatiba industrial askok Italiara, Frantziara eta Euskal Herrira begiratzen dute. Testuinguru horretan Euskal Herria eta MCC foku interesgarriak dira, dagoen esperientzia industrialagatik eta kooperatiben inguruko euskal legediak eskaintzen dituen aukerengatik.

Enpresen nazioarteratzearekin batera, Arrasateko Kooperatiba Esperientziak garatu du bestelako modurik mundu zabalari begiratzeko. Hortxe dago Mundukide. Hirugarren Munduarekin ikuspegi kooperatibotik elkartasuna garatzea helburua duen GKE honek berotasun handia sortu du mundu kooperatiboan, eta AKE koherentziaz janzten du. Kooperatibismoak erakutsi beharko lukeen konpromiso ideologikoa eta balore hautua gorpuzten du, balore-arrazionaltasunaren ekinbide-eremuan atal garrantzitsua bilakatuz.

«Cuando se ha hecho la presentación de Mundukide, que es la fundación que con la participación de ONGDs y cooperativas se ha hecho..., han tenido una acogida impresionante y suponen una oportunidad de rellenar una laguna que tenemos ahí».

Gainera, Mundukidek ekarpen handia egiten dihardu, ez baita asistentzialismoan oinarritzen: garapen komunitario eta demokratikoa sustatzen du, eta eurak dira —hirugarren munduko kideak— euren arazoen eta konponbideen jabe. Gizarte zibilaren esku hartze kontziente, demokratiko eta solidarioan oinarritzen da. Ekarpene hori bat dator Arrasateko kooperatibismoaren izanarekin: «...no hemos sido nada proclives a coger subvenciones, ayudas... sino ser capaces nosotros mismos de llevar adelante nuestro futuro».

Eta, ikuspegi baikorraren galbahetik, hirugarren munduan errealitate eta ekimen komunitarioen berrindartze bat gertatzen ariko litzateke. Gainera, globalizazio garaian, kooperatibagintzak dakarren garapen komunitario eta autonomoak bikain erantzuten die hirugarren munduko beharrezane. Mugimendu kooperatiboa beharrezko gisa ikusten da mundu globalizatuan; beharrezkoa izaten segitzen du.

Beste batzuentzat, interesgarria da PRODESOk gorpuzten duen AKERen nazioarteratze eredua: Arrasateko kooperatibismoaren eredua mundu mailan salduko duen enpresa-esperientzia (beraz, negozio irizpideetan ardaztua). AKE, enpresagarapenaren bidez etekin kolektiboak eta komunitarioak sortu eta sortzen dituen esperientzia da, eta diskriminazio eta esplotazio handiak bizi dituzten herrialdeetan eredu hori «saltzea» zeregin erakargarria eta zoragarria da. Horretarako jendea behar da, «know how» horren transferentzia burutuko duen giza taldea, enpresaren alderdi teknikoaz baino beraz komunitatearen zerbitzura jartzeko ezagutzak transferitzeko gaitasuna duena; eta bitartekoak ere behar dira, jakina.

«El vender nuestro modo de hacer empresa a países donde hay una alta discriminación, una alta explotación, yo creo que eso es positivo. Y eso es un tema que a mi siempre me ha parecido apasionante, y creo que se podría realizar, y parece que en estos momentos se está intentando realizar. (...) Porque nosotros tenemos un modo de hacer que beneficia a la comunidad, que trata de eliminar la explotación de alguna manera, donde los medios de producción son propiedad de los que trabajan....»

2.2.2. *Baikortasunetik triunfalismora*

Dudarik ez, baikortasunak markatzen du aztergai dugun diskurtso-ildoan, AKERi buruzko interpretazioan estilo diskurtsibo horrek lotzen baititu hari mutur gehienak.

Jakina, baikortasunaren indarra ezberdina da pertsonen arabera eta landutako gaiaren arabera. Kontuan hartu behar da, gainera, diskurtsoek leku batetik bestera kulunkatzeko joera agertu ohi dutela. Baina finean, baikortasunaren galbahe horretatik igaroko dira errealitatearen definizio gehienak. Espiritu horrek xurgatuko ditu irakurketok.

Uneka muturrera eramaten da aipatu espiritua, eta orduantxe egiten dugu topo triunfalismoarekin, sarritan zaila bada ere muga hori non dagoen esatea. Jarraian ikusiko dugu gure ustean baikortasunetik baino triunfalismotik gertuago dagoen marko sozio-kognitiboaren nondik norako batzuk. Dagoeneko aztertuak ditugun pasarte batzuk izan dute triunfalizatatzat jo daitekeen tonurik. Tonu horretan sakonduko dugu.

Lan-antolakuntza molde berrien aplikazioa puntakotzat jotzen da Arrasateko kooperatibismoan, eta bide horrek gorpuzten du etorkizuneko koherentzia kooperatiborako bidea. Hortxe jokatzan ari da kooperatibismoaren arima eta esentzia. Ikuspegi horretatik, AKE-k jakin izan du pertsona proiektu global baten integratzen, eta molde berriek abiadura handian segitzen dute aurrerantz egiten. Esperientzia aberatsa eta ezagutza handia metatu da lurralde horretan, eta kontuan hartuz gero hortxe jokatzan dela kooperatibismoaren izana, irakurketa triunfalistarekin egiten dugu topo. Izan ere, kooperatibismoa sekula baino osasun egoera hobean aurkitzen da. Sekula ez da egin kooperatibismo hoberik. Batek hala dio: «Si supiera MCC todo lo que sabe MCC, sería la leche».

Ildo beretsutik, eta AKE-k eman duen guztia ikusita, zenbaitentzat harrokeriarik ez, baina «harrotasun sano bat falta zaigu», gehiegizko apaltasuna suma baitaiteke .

Parte hartze instituzionalaren (ez lanpostukoaren) osasun egoera baloratzetakoan ere, zenbait irakurketari triunfalismo kutsua dario:

«Creo que las assembleas generales nuestras hoy son menos vivas que hace unos años. (..) Pero también observo que cuando hay un problema de verdad, la gente sigue participando. Entonces yo diría sobre el modelo de participación como juicio global, que nadie funciona como nosotros. No hay organización en el mundo, salvo las cooperativas, y entre ellas a nosotros nos miran muy bien como modelo de buena experiencia....»

Kooperatibek berezkoa duten parte hartze politikoa egoera onean legoke, eta zenbaitzuen iritzian egoera ezin hobean. Asanblada Orokorra parte hartze prozesu luzeago baten azken helmuga dugu, eta bertara heldu aurretik, gardentasuna eta informazio transmisioa bermatuko lukeen prozesua da martxan jartzen dena. Erabakiak berresteko bakarrik balio duen asanblada irudia barik, asanblada kontziente eta ondo formatuaren ideia agertzen zaigu ondoko pasartean:

«Y el otro te dice: «mira, [la propuesta] he oído ya cuatro veces en consejillos, en la comisión de no sé qué, en el departamento no sé cuántos, y ahora otra vez en la Asamblea»

Antzeko ildotik doa ondoko pasarte, lanpostuko parte hartzearekin lotuta, Arrasateko kooperatibismoaren zenbait esperientzia harri eta zur geratzeko modukoak dira:

«Hace seis meses visité Garagarza con unos del Consejo Social de Canarias, y vi en unas zonas próximas al taller los grupos de trabajadores que estaban reunidos. Yo me quedé de piedra... Llevo 4 años fuera de MCC [erretiratu], y vi a la gente participando... ¿Que éso es generalizable a todas las empresas? Pues no lo sé... Estaban discutiendo entre ellos como trabajadores de mano de obra directa y cuando volvimos estaban discutiendo los responsables de los grupos...»

Kanpoko begiraleen ahotan ere jartzen dira AKE-ri buruzko laudorioak eta AKE-k duen benetako balioaren neurria:

«Creo que tenemos un gran fallo: la comunicación de lo que supone a cada cooperativa el hecho de estar dentro de MCC. Por ejemplo, la última charla con el amigo Super López; además, nos reunimos todos los gerentes, siempre hacíamos el mes de julio antes de vacaciones, que era la época de más optimismo... y traíamos a este hombre. Es un hombre muy majo. Y recuerdo que le decía a los que estaban en el grupo de automóvil, claro, él era su consumidor: «no os dais cuenta de lo que tenéis, no valoráis lo que tenéis dentro.»»

Parte hartze molde berrien aplikazio praktikoan Arrasateko kooperatibismoa aurretik doa, eta ia inor baino hobeto dabil. Lan molde berriek eskaintzen dituzten aukerak azpimarratzean, triunfalismo gisa kalifika daitekeen jarreraren aurrean aurki gaitzke: sekula baino kooperatibismo gehiago eta sekula baino hobea egiteko moduan gara.

«Yo creo que en estos momentos estamos en capacidad de vivir el cooperativismo mejor que nunca. Así como antes teníamos una contradicción entre el cooperativismo filosófico y el Taylorismo organizativo... Cuando hablábamos de autogestión no sabíamos como hacerla... En estos momentos tenemos mecanismos, tenemos luces para decir cómo se interpreta la autogestión. Realmente, han ido descubriendo otros el concepto de la participación, pero eso quizás teníamos que haberlo descubierto nosotros. Pero la verdad es que en estos momentos a nivel interno tenemos la capacidad de vivir mucho más esa autogestión, esa participación, que la que hemos tenido nunca.»

Aurreko gogoetak aipatua dugun oinarritzko identifikazio bat du bere abiapuntuan: kooperatibagintza parte hartze gisa definitzen da, eta parte hartze hori lanpostuaren autogestioaz. Kooperatibagintzaren kontzeptio jakin batekin egiten dugu topo, murriztailea zenbaitentzat, enpresaren kanpo jarduna kontuan hartzen ez duelako, eta nahikoa beste batzuentzat, barruko antolamendu bereziak (demokraziak) ematen baitio nortasuna kooperatibismoari.

Hain modan dagoen etika-enpresa binomioari erreparatzen badiogu, AKE aurretik doa horretan ere bai. Horren froga litzateke bere unibertsitatea, eta bertan etika gaiak duten garrantzia:

«Askoz elementu positibo gehiago dugu pentsatzen duguna baino. Gure korporazioan, unibertsitatean, inor baino hobeto egokituta gaude etika gaietan. Etika eta enpresa, esate baterako. Guk hor badaukagu zer esanik. «Valores éticos en la gestión empresarial», non lantzen da hemen baino hobeto?»

AKEak instituzionalizatu duen elkartasuna, bere fondo ugari eta ondo hornituen bidez, sekula baino egoera hobean dago. Hau da, sekula ez da horrenbeste elkartasunik egon:

«Es que este tipo de cosas son fondos intercooperativos que sirven para poder ir desarrollando el propio modelo empresarial. Yo creo que existe institucionalmente más solidaridad de la que ha habido nunca...»

Enpresa barruko zein enpresatik kanporako elkartasuna, biak sekulako egoeran daude. Enpleguarekiko konpromisoa da kanpo-elkartasunaren adibide gorena eta MCCren gaurko zentzu sozial garrantzitsuenetakoa. Hezkuntzan inbertitzen dena ere kontuan hartu beharreko datua da:

«Fíjate lo que se gasta MCC simplemente en formación.... 3000 millones al año, en costes directos e indirectos. Eso se dice pronto. Es que las cooperativas de Mondragón no solamente hacen solidaridad y trabajo hacia dentro, sino también hacia fuera. Si tú analizas los principios del grupo MCC el empleo aparece en la misión, en las políticas generales, en las políticas empresariales, en los objetivos básicos, en todo aparece la generación de empleo. Y estás haciendo solidaridad hacia fuera. O sea, otra cosa es que podamos transmitir eso. (...) La comarca del Alto Deba es la segunda a nivel de rentas y la que mejor distribución tiene, el abanico más estrecho... O sea, no podemos decir que estamos en una posición de abandono, que hay que revisar todo de arriba abajo. ¿Dónde estamos? ¿Quién ha escrito estas cosas? [ikerkuntzarako erabilitako testua].»

Osagai triunfalistak dituen diskurtso ildoarentzat eztabaidarako oinarria izan den testuaren tonu kritikoa erabat lekuz kanpo dago, eta haserre ere pizten du. Koherentziaz eta merituz gainezka ageri den esperientzia bati eragozpenak jarri izana toleraezintzat hartuko da zenbait unetan; nagusiki triunfalismoaren ikuspegiak bere aurpegia erakusten duenean gertatzen da hori, une horretan bi ikuspegien arteko gehiegizko distantzia dela-eta komunikazioa hausten baita.

Baina, jarri dezagun arreta aurreko pasarteko ideia garrantzitsu batean: AKEaren kanpo-elkartasuna batez ere enpleguan oinarritzen da. Enplegua sortzen da eta gizarteari sekulako zerbitzua eskaintzen zaio. Beste kontu bat da, esango zaigu, hori transmititzen den, edo transmisioan asmatzen den. Baina, AKEk ondokoari erantzun beharko lioke: non amaitzen da kanpo-elkartasuna eta non hasi ekonomikoki hedatzeko beharrezana? Hobeto formulatuta: enplegua sortzeak zeri erantzuten dio gehiago, elkartasun ekintza bati ala hazkuntza ekonomikoak dakarren efektu natural bati? Kanpo-elkartasuna enpleguan oinarritzeak jendearengan galdera horiek sortzen dituelakoan gaude, eta akaso hortxe dago elkartasun mota hori transmititzeko arazoaren zati inportante bat.

Ikuspegi triunfalista honi jarraiki, AKEren jokabideak ez du pitzadurarik. Bertutez jantzitako esperientzia honek, arazorik izatekotan, bere bertuteak transmititzeko arazoak dira:

«Yo, leyendo un poco esta parte, yo noto un esto negativo. [Se dice que] Hay que buscar, revitalizar... Yo creo que eso hay que hacer permanentemente... Va cambiando la sociedad y entonces permanentemente hay que renovar los mismos mensajes, pero en definitiva son los mismos mensajes. (...) Los principios yo creo que son de una riqueza impresionante. Coges los valores y dices: detrás de esto siempre está el compromiso hacia la sociedad. Somos un legado que tenemos que volcar y transmitir hacia la sociedad en todas nuestras manifestaciones. Lo que pasa es que, quizás a veces las prisas, las cosas nos han llevado a darlas por entendido.»

Ikuspegi triunfalistik ez dira erraz onesten iritzi kritikoak eta esperientziak izan ditzakeen «zuloak». Arazoa, egotekotan, transmisio falta izan da, edo panorama osoa ikusten ez dela: sortutako enplegua, aberastasunaren banaketa, Debagoienari buruzko ikerketa.... Diskurtso honek erresistentzia handiak azaltzen ditu gaurko kooperatibismoan arrailik ikusteko, oso erraz aurkitzen baititu arrazoi potolo eta ugariak ibilbide arrakastatsu batez hitz egiteko.

Arrasateko kooperatibismoa berez ona da, asmatu egin duen esperientzia bat, bertutez beteriko errealitate bat, eta elkartasuna dario lau izkinetatik. Onartzen da, egon, egon daitezkeela zenbait aspektu ondo ez dabilzanak, baina irakurketaren azaleko geruzan kokatzen diren aspektuak dira horiek, AKERen muina ukitzen ez dutenak. Beraz, kritika kanpo geruzan mantentzen da, sakoneko zentzua eta esanahiak kolpatu gabe; kritikak AKERen aldemenak eta ertzak zipriztintzen ditu. Funtsean, AKE babesteaz gain, berau goresteko joera diskurtsiboaren aurrean gaude.

Horregatik, ez dira erraz toleratzen ertzak kritikatzetik haratago doazen planteamenduak. Halakoetan ondoeza aktibatzen da, aurkakotasuna, eta baita haserre ere. Kontuak eskatzen dira («¿quién ha escrito esto?») eta errealitate osoa, ez partziala, ikusi beharraz hitz egiten da («hay que verlo todo»). Nork uka dezake AKERen arrakasta?

Argi dago, galera sentimenduekin erabat hausten du arrakastaren diskurtsoak, eta AKERen identitate kolektiboa positibizatu egiten du. Norbere nor kolektiboari era konkretuan begiratzen zaio: koherentziak detektatu eta azpimarratzen dira, ekarpenak urgaineratu, kontraesanak ertzean kokatu, eta besteekiko diferentzia positiboak azaleratzen dira. Neurri batean, gu kolektiboa babesteko ariketa bat ere bada, testuetan somatzen den erasotik identitatea babestu eta defendatzeko saiakera bat.

Gu kooperatibistari begiratzen zaionean, auto-kontzeptu kolektibo positiboa da berez aktibatzen dena. Osagai positiboz osatutako gu bat irudikatzen da. Hona hemen adibide esanguratsu bat:

«El orgullo por el trabajo bien hecho, esa era la opinión que se tenía de Mondragón antes. Yo recuerdo cuando vine aquí que cuando hablaban decían: «jo, este ha trabajado en Copreci»... Y eso era el orgullo del trabajo bien hecho y era una alta consideración social.»

Auto-kontzeptu positiboa da arrakasta eta garaipena —baikortasuna eta triunfalismoa— ardatz dituen diskurtsoaren oinarrietako bat. Etorkizunera begira, iraganarekin jarraitu eta garai berrietara egokitu beharraz hitz egiten da. Eginiko ibilbideak argi asko eta ilunetik gutxi eskaintzen duenez, funtsean orain arteko kooperatibismoari eutsi behar zaio («ir adaptándose como hasta ahora»), egokitzapen samur bat burutuz («renovar los mismos mensajes»). Errealitate kooperatiboa arrakastaren galbahetik ikusten duenak, ez du ikusten aldaketa sakonez hitz egiteko beharrianik.

Gaurko tendentziek bide onetik daramate Arrasateko kooperatibismoa. Hemendik aurrera nolabaiteko ziklo historiko berria irekitzen da, eta ziklo honetan autogestioa praktikatzeko metodoak existitzen dira. Gogoratu behar da, berriro ere, ikuspegi honek oso begi onez ikusten dituela lana antolatzeke molde berriak: Erabateko Kalitatea Ariz-

mendiarrietaren proposamenaren muina dela adieraziko da. Molde berri horietan aurki daiteke promesa edo narrazio berri bat, benetako kooperatibismoarako jauzia. Etorkizuna, beraz, ez zaigu arriskutsu azaltzen, promesaz beteriko eszenategi gisa baizik:

«Pero muchas veces no somos conscientes de lo que somos en realidad. Yo en alguna otra reunión decía que yo no era consciente. Y no he sido consciente cuando el otro día decías tú que la filosofía de Don José María se está materializando en la Calidad Total. Esa relación..., ni por el forro se me había ocurrido que estábamos en esa línea. Y fíjate que he estado dando cursos de lo que es la Calidad Total dentro de la empresa, y nunca se me ha ocurrido hablar de esa relación.»

Kooperatibismoak jaso du, beraz, konfirmazio eta arrazoi historikoa. Kanpotik datoz proposamen berriak, bai, baina muin-muinean filosofia kooperatiboarekin bat datoz erabat. Ikuspegi honi jarraiki, Enpresa Kultura Berriak eta bere proposamen parte hartzaileek oinarrituko dute etorkizuneko identitate kooperatibista, horretarako behar besteko indarra eta potentziala badutelako.

Aztertu dugun legez, diskurtso ildo honek azpimarratzen du Arrasateko kooperatibek duten diferentzialtasuna bestelako enpresekin alderatuta. Homologazio prozesurik ez onartzeaz gain, bata bestearekin zerikusirik ez duela esango da:

«Yo tuve que hacer un análisis para una ponencia... Y haces un análisis y comparas la sociedad mercantil y la sociedad cooperativa y no tienen nada que ver: el esfuerzo cara a la sociedad, cara a la creación de empleo, cara a la creación de riqueza.... No tienen nada que ver. Toda la creación de nuevas instituciones, como es la Eskola. ¿Qué opciones había aquí de estudio hace 25 años?»

Erraz aurkitzen dira bereizgarritasuna azpimarratzeko euskarriak, eta ezberdintasun kooperatiboa azpimarratzen duen diskurtsoa igo egingo da tenperaturaz zenbait momentutan, ikuspegi baikorra gailurra jotzera heltzen delarik. Ondokoa joera triunfalista horren beste adibide bat da.

«Que nadie se atreva a decir: «¡joder, esto lo hacen en cualquier otra empresa!». [La cooperativa] Es tan diferente que incluso cuando vamos a montar por ahí cosas lo hacemos de distinta forma. Se nota, además. Somos incapaces de introducir un modelo que no sea, de alguna manera, más participativo que el estándar en la zona. Pero eso es una experiencia casi de cada día. Se puede ver casi en cualquier sitio. Somos incapaces de transmitir otra cosa por lo que antes decías tú: es que estás acostumbrado. Un directivo de una cooperativa ha tenido que debatir con el Consejo Social... Y lógicamente ese señor va a cualquier otro sitio y ya habla con el otro de los objetivos que tiene: «y éste a qué me viene si esto no se hace en ningún lado». Ahora tenemos que mejorar ahí.»

Hain indartsua litzateke gauzak egiteko molde ezberdin hori, hain sustraituta legoke kultura kooperatiboa, nahi izanda ere ezinezkoa litzakeela besteekiko ezberdintasunik ez markatzea. Galera-diskurtsoaren zantzu oro desagertzen da une horretan. Enpresa kapitalistarekiko aldeak eta ezberdintasunak oso sustraituta leudeke: «ezberdinak gara ia-ia hala nahi izan gabe» formulazioa eraikitzen da aipatu diskurtsoa. Bereizgarritasun kooperatiboa garbia da eta kuestiona ezina, eta portaera ildo kooperatiboko sendo barneratuta daude. Modu garbian ezberdintzen den portaera ildoaz hitz egiten zaigu, galbidean ez egoteaz gain, ondo baino hobeto sustraituta dagoena.

Pertsona-sozietatearen krisia diagnostikatzetik oso urruti, formato ez kooperatibistan hedatzearen bertuteak azpimarratuko dira, enpresa kapitalistetan parte hartzea sustatzeko bidea marrazten baita; hots, bestelako enpresa kapitalista baten aldeko mugimendua dugu. Eroski da dinamika positibo horren adibidea. Beraz, sozietate ez kooperatiboetan egitura parte hartzaileak susta daitezke eta, zeregin hori, koherentzia kooperatiborako bitarteko gisa baloratua da. Formatu ez kooperatibistak ez du aztoratzen; are gehiago, enpresa kapitalistan molde berriak sustatzeko zeregin edo ardura historiko moduko bat aipatuko da.

Triunfalismoarekin jarraiki, Arrasateko kooperatibismoak interesa sortzen du atzerrian, baina, interesaz gain, lilura eta harridura ere ageri dela esango zaigu. Hori litzateke, duda barik, esperientzia kooperatiboak duen balio handiaren beste seinale bat:

«Fíjate, el otro día estaba dando a un grupo de rectores de universidad sudamericana una charla... Con el potencial que tenemos aquí de autofinanciación de los estudios y la conjunción de empresa que permite alternar trabajo y estudio, de forma que todos tengamos, por lo menos en la línea de salida, igualdad de oportunidades... Se les quedaban los ojos a cuadros: ¡joder, explícamelo un poco más, porque esto se puede llevar a otro sitio!». El fenómeno de Alecop... yo he sufrido el tener que alternar el trabajo y el estudio, y lo mal que lo he pasado estudiando peritaje, porque ya desde el principio tenía un montón de asignaturas suspendidas por no asistir a clase. Nuestra ilusión, es decir, que cada uno se autofinancie sus estudios y que no sea traba el poder económico de la familia.... Llegar hasta donde tú creas que puedes llegar a través de tus conocimientos. (...) ¡Hay va la leche!, decían. Esto es un mundo que es desconocido como herramienta global de oportunidades para los jóvenes... (...) Quiero decir con eso que cuando explicas esa realidad a otros, a veces pasa que a lo mejor las hemos dado tan por sabidas que no hemos explicado a nuestro entorno más inmediato.»

Estilo kognitibo honek transmisio arazoak iradokitzen ditu; hau da, Arrasateko kooperatibismoak dituen bertuteak transmititzen ez da asmatu. Arazoak ez dira kokatzen, beraz, egindakoan edo egin ez den horretan. Kontua da ez direla egoki transmititu ekarpenak, lorpenak eta bertuteak. Era horretan, kritika oro ertzetara bidalia da, eta kooperatibismoaren oinarrizko identitatea eta ibilbide historikoa babespean uzten da.

Identitate kooperatiboa zaintzeko horma babesleak eraikitzen dira, nor kooperatiboa positibizatze ahaleginean. Adibide gisa, zenbait gaztek kooperatibismoarekiko sentitzen duten deslotura dugu, hainbat erataria formula daitekeena: kritika aktiboa; edo pasibotasuna; edo inplikaziorik eza zentzu kooperatibistekin bat egiten ez dutelako... Horren aurrean, gazteen kexuak normaltasunaren barruan kokatzen dira, gazteen espirituak hala behar duelako izan, inkonformista eta kritikoa.

Hots, gazteen adibidean bezala, behin eta berriro kritikaren arrazoiak kanpoan kokatuko dira, esperientziaren ardura perimetrotik harantzago. Gazteen kasuan, kexuak gazteen berezko izaera kexatiagatik ulertu behar dira. Modu berean, kooperatiba barruetan batzuk oinarrizko funtzionamendua ezagutzen ez badute, interesatzen ez zaielako da, egon badagoelako bitarteko eta erreminta ugari informatuta egoteko eta modu aktiboan parte hartzeko («No se enteran porque no les interesa»). Behin eta

berririo babestuko da nor kooperatibista, eta defentsa estrategia honekin ez dira norberaren hutsuneak estaltzen, baina, agertzen direnean, oso motelduta agertuko dira, berauek kudeatzea posible egiten duen intentsitatearekin. Era horretan, jarrera triunfalistak libre du bidea errealitatearen irakurketa ardazteko zereginen.

Informazio gardentasuna eta komunikazio politika efikazak funtsezkotzat jotzen dira kooperatibismoaren muina den parte hartzea modu egokian bideratzeko. Horretan ere, alegia, informazioaren transmisioan, AKE barruan martxan jarritako zenbait dinamikek balorazio oso ona jaso dute:

«Yo recuerdo cuando los socios venían a participar en el Consejo Social de Fagor. Se hacían cruces de la información que había, del conocimiento de empresa que se les daba... Recuerdo que yo no asistía pero me lo contaron. Le decían: «pero, tú a dónde vas, pero si nos están dando todo, si nosotros no teníamos ninguna información, si aquí lo tenemos todo...!». Los hombres sorprendidos del nivel de información que se les daba...»

Etorkizunera begira ere kooperatibismoak zeregin itzela luke gure gizarteetan. Ongizate Estatua zenbait arduetatik erretiratzan ari den honetan, kooperatibek gizarte zerbitzu handia eskain dezakete eta erantzun humanista bat prestatu hainbat arlotan. Izan ere, kooperatibismoak bere baitan hartzen duen bitasun hori da beharko dena: batetik, enpresa ikuspegia, eta bestetik, gizartearekiko konpromisoa eta zerbitzua. Hori dela eta, kooperatibek gorpuzten dute erantzun ia bakarra, eta kooperatibek dute beharrezkoa den «supermodelo»:

«...el ámbito de los servicios de proximidad. El amplio mundo del estado de bienestar... allí donde se está retirando o allí donde se están creando nuevas necesidades que no tienen una respuesta en este momento. Y la respuesta, o va a ser una respuesta humanista o no va a tener respuesta. Es decir, eso no se puede tomar como un negocio, como se está montando ahora, porque cantidad de ayuntamientos están montando la clásica empresa... (...) Les importa la cuenta de resultados al final de año. Mientras que si tienes un modelo en el que tienes personas implicadas, te preocupas de su formación, porque si no, no hay futuro...; tienes un rigor empresarial, cosa que posiblemente otro tipo de organizaciones no lo tienen, ni tienen una estabilidad, ni tienen un proyecto empresarial serio y con muchas garantías...; y, por otro lado, con una actitud hacia la comunidad en su conjunto y además localizado... Dices, ¡joder!, si tenemos el supermodelo para dar solución a un montón de cosas.»

Finean, AKEn historia arrakastaren hizkiez idatzi beharrezkoa da, «miraritik» zerbait daukan giza esperientziaren aurrean baikaude. Hori da funtsezko datua.

«...hemos sido, yo diría, una historia de éxito; y lo dicen otros, no lo digo yo. Yo no soy nada triunfalista. Como dicen otros somos una historia de éxito casi milagrosa, a pesar de los valores dominantes.»

2.2.3. Arrisku eta galera osagaiak

Ikusten ari garen legez, aipatzen ari garen protagonistek baikor begiratzen diote Arrasateko Kooperatiba Esperientziari; triunfalismoaren galbahetik pasako dira

balorazioetako batzuk. Baina diskurtsoak ez dira norabide bakarrekoak izaten. Normalean zigi-zagan eraikitzen dira, ezker-eskuin kulunkatuz. Gure lagunek arrakastaren pistak jarraitzen dituzte gehienetan, baina lantzean behin baita galeraren bidezidorrak ere. Bidezidor horiek horixe dira, bidezidorrak, diskurtsoaren atal nagusia arrakastaren etorbideetik bidaiatzen duena baita. Baina, azter ditzagun kezka bidezidorretatik eginiko ibilaldiak, baikortasunaren ikuspegiaren ondoan baditugulako bestelako diskurtso-osagai kritikoagoak. Bestelako osagai horiek aztertuko ditugu ondoren, aztergai dugun diskurtso ildoaren agerpen osotuagoa egin aldera, baina betiere kontuan hartuta baikortasunak agintzen dituela esku artean darabilgun diskurtso eta bizipenak.

2.2.3.1. *Pertsona-sozietatearen ahultzea*

Beraz, baikortasunaren diskurtsoak badu zenbait kontrapisu, berauek errealitatearen errepresentazioa domeinatzen ez badira ere. Normalean ertzetan aurkitzen dira, baikortasunak ezartzen duen marko orokorraren ertzetan. Zenbait aspektuk eta joerek kosk egiten dute arrakastaz hitz egitera ohituta daudenen kontzientzietan, baina min gehiegirik sortzeko ahalmen barik. Kontrapisu horien bidez, erabateko triunfalismoa izan zitekeena bigunduta geratzen da, arinduta bere muturreko adierazpenak. Soldatapekoen protzentaia altua, batetik, eta kooperatiba berriak sortzeko zailtasunak, bestetik, dira kezka garrantzitsuenetakoak, pertsona-sozietatea ahultzen ari baita.

Halaxe da, sozietate kooperatiboak bizi duen krisia dugu mugarik gabeko baikortasuna leuntzeko ahalmena azaltzen duena: gizartean kooperatiba gutxi sortzen ari da azken urteotan, gero eta gutxiago dira sozietate kooperatiboa aukeratzen dutenak euren enpresa ekimenari forma juridikoa emateko orduan; eta bigarrenik, gora joan da ez-bazkideen proportzioa.

«Estoy de acuerdo esencialmente. Yo también soy positivo (...) Hay gente que continúa con la misma ilusión y posiblemente con más capacidad. Pero te voy a poner dos ejemplos concretos de la vida real. Por ejemplo, en mi función de asesoría jurídica. A mi más de una vez me han venido:

- Oye, queremos crear una sociedad.
- ¿Qué sociedad?
- Una Sociedad Anónima.

En alguna ocasión incluso me he llegado a cabrear, y mis compañeros me dicen: «Eh, tú, a ver...». Pero tú eres un asesor jurídico, no eres un maestro de escuela. Pero desde luego yo no me aguanto en decirles que hay posibilidades de crear una sociedad cooperativa. Al final del proceso me dicen que no. Son ellos los que toman la decisión.

Y otra cuestión me preocupa tanto o más, aunque afortunadamente están modificándose los comportamientos: ¿cuántos asalariados tenemos en la cooperativa? Eso tiene un riesgo muy grande. Un 30% de personas en tus plantas de trabajo, con una mentalidad [la nuestra], encima, de explotar. Quieras o no, son los que trabajan el fin de semana, porque son los más débiles.»

Termino gogorretan azaltzen zaizkigu baikortasunaren estilo kognitibo segurua hein batean zultozera datozen bi aspektuak. Enpresa ekimenen bat martxan jarri nahi duenak ez ei dio formula kooperatiboari kasu gehiegirik egiten, eta horrek kooperatibismoaren nolabaiteko defuntzionalizazioa adierazten du. Eredu kooperatiboa hedatzeko zailtasunak handiak dira, hala hautematen da («no se puede», «no se entiende»...). Inpotentzia soma daiteke kontakizunean. Izan ere, nolabaiteko gutxiago-tze prozesua bizi dela soma daiteke, formula kooperatiboarekiko identifikaziorik eza, gizartearen erreferentzia izateari utzi dio, ahultasun soziala du gaitza.

Kooperatiben gaineko euskal legediak aldaketa batzuk izan berri ditu. Tartean, kooperatiba bat sortzeko beharrezko pertsona kopurua bostetik hirura jaitzi da. Horrek ere zerbait adierazten du: gaur kooperatibismoaren aldeko hautuak bizi duen ahulezia.

«Eroski imposiblea da gaur egitea, ezta korporazioa ere. (...) Eta ez dira sortuko kooperatiba berriak, kooperatibistak behar dira-eta horretarako. Kooperatibista gero eta gutxiago dago modelo horretan funtzionatuko dutenak. Bazkide kopurua jaitzi egin behar izan da: cinco es la ostia, ezin da ailegatu eta hirura jaitzi behar da. (...) Hori baino konfesio... Bost pertsona kapaz ez bagara eta hiru bai, imajinatu non gauden...»

Kooperatiba berriak sortu ala ez, hainbatek dio gaurko garaian ezinezkoa litzatekeela beste garai bateko kooperatiba handi horiek sortzea: «Izango dira, baina handiak ez. Argi eta garbi: Eroski, Fagor, CLP, eta horrelako kooperatibak mirariak dira. Mirariak». Gaur kooperatiba berriak hutsetik sortzea ia ezinezkoa da, garapena bestelako bideetatik etorriko delarik: enpresak erosi, beste batzuekin kolaboratuz....

Merkatu kapitalistak, gainera, batzuetan ez ei ditu mekanismo kooperatibista solidarioak begi onez ikusten, eta kooperatibek zigortuak izateko mehatxua jasotzen dute. Izan ere, kooperatiba bat egoera txarrean egotea eta berau lagundu behar izatea, errentagarritasun irizpidearen kontrako portaera izan daiteke. Euskadiko Kutzari egozten ei zaio halakorik:

«Finantza arloan guretzat positiboa dena, kaltegarria da. Susmagarriak gara MCCn egotearren: «No podéis tener una calificación mejor porque estáis dentro de un grupo muy raro»... Penalizatu MCCn egotearren. «Lo que para vosotros es muy positivo es una rareza». (...) «Ustedes están moralmente obligados a ayudarles, y eso, desde la percepción capitalista del mercado, es negativo»».

Merkatuak, beraz, norabide horretan ere zaildu eta oztopatu egiten ditu molde kooperatibistaren logikak eta arrazionaltasun moralak. Ikuspegi horretatik, merkatu kapitalistak defuntzionalizatzen ei ditu zenbait logika eta portaera kooperatibista. Beste era batean formulatzearen: logika horiek ez dira funtzionalak merkatuaren joko zelaian.

Bestetik, aldi baterako langile ez bazkideen esplotazioaz mintzo izan zaigu, termino gogorretan mintzo ere. «Esplotatzeko mentalitatea» leporatzen zaio kooperatiben jarduerari. Guztiarekin, aldaketa handiak gertatzen ari direlako kontzientziaren aurrean gaude, eta horrek sortzen duen ziurgabetasunaren aurrean. Modu esplizituan esaten ez bada ere, bada plusbalioaren kontzeptua inplizituki aipatu duenik, kooperatibek soldatepekoek egiten duten erabilera kritikatzeko:

«Mirando hacia el futuro hay una incoherencia entre el trabajo de autogestión y de pronto contratar trabajadores que aportan más valor que el que se le paga en las cooperativas. (...) ¿No habría que hacer algo como, por ejemplo, que todo lo que hace esa gente y crea de valor, y que no se les ha pagado, dejarlo aparte como un fondo? (...) Que no nos aprovechemos nosotros en la generación de fondos que ha habido.»

Proposamenak proposamen, beste batzuen ustean egin beharrekoak ez du sekretu gehiegirik: printzipio kooperatiboetan azaltzen dena bete; hots, uko egin behar zaio soldatapekoak modu sistematikoan kontratatzeari. MCC-ko gainegiturak zorroztagoak beharko luke izan beheko kooperatibei aspektu hori eskatzerakoan:

«Lo primero que hay que hacer es cumplir con nuestro principio, que es renunciar a contratar de manera sistemática asalariados. Lo tenemos ahí como principio. Si no, quitémoslo, pero no seamos falsos. (...) Yo cuando oiga a veces: «es que el modelo de MCC no es impositivo hacia las cooperativas de base. En determinadas cosas no es que sea impositivo de arriba abajo, pero es que todos asumimos alguna disciplina, no? Si tú planteas en este momento: «oye, que tenemos este principio, flexibilidad tiene, pero hasta aquí llegan las aguas...» Eso se establece y eso se cumple para todas las cooperativas y punto. Como cualquier otro elemento de gestión. Que no me venga nadie diciendo: es que no tenemos poder»

Kontua, jakina, ez da nolanhikoa, kooperatibismoaren benetakotasuna baitako jokoan («no seamos falsos»). Ezbaia ez da soldatapekoen kontratazioa bai ala ez. Soldatapekoek gorpuztu beharko luketen ehunekoan datza ezbaia, zenbaitzuen ustean portzentaia hori murriztagoa izan baitaiteke. Krisi ekonomikoen ostean nolabaiteko gestio-ohitura batzuk errotu dira, beldurretik sortuak, eta gestiogintzan ari den jendeak erosotasuna bilatzen ei du; eta jakina, errazagoa da arrisku handiagorik hartu barik, soldatapekoak kontratatzea:

«Ahí hay un gap importante, un gap que afecta a los principios, un gap que afecta a la ley, porque en bastantes ocasiones no se puede cumplir la ley; y un gap en el sentido de que nos hemos hecho, en alguna medida, cómodos.»

Praktika kooperatibistak baditu, beraz, «gap» edo hutsune batzuk, eta hutsune horiek onartzeak baikortasunaren hedapen mugagabea zailtzen du eta triunfalismoaren indarra moteldu. Kudeaketa arduetan ari direnak erosoak bihurtu ei dira, printzipio kooperatibistekiko exigentzia gutxiagoko gestiogintza eginez. Ikuspegi honi jarraiki, soldatapekoen erabilera gehiegizkoak egitura kooperatiboan sortzen duen zulotik aparte, badago plano kulturalen kokatu beharreko zulo, hutsune edo «gap» moduko bat («gap intolerable»). Krisiak sortutako *beldurraren kulturalan* kokatzen du hainbat tek portaera ildo hori:

«Es que al final el empresario, la gente, tiene el problema de que se le venga abajo el negocio. Ese es el problema, y ha vivido situaciones de esas.»

Enpresaren gestioa aurrera eramateko orduan arrisku sentimenduak egon badira, aipatu dugun moduan, krisiek utzitako beldur hondarra ez baita nolanhikoa. Beldurrak eragindako segurtasun nahiari egozten zaio soldatapekoen gain-erabilera, aldi baterako langile ez bazkideen koltxoiarekin jokatzeko joera instalatu baita. Askoren iritzian, elkartasun arazo sakona legoke hondoan:

«Hor badago elkartasun arazoa. Danok arriskuak asumitzeko gai ez garen neurrian arrisku horiek horien gainean jartzen ditugu.»

Gainera, lehen errazagoa zen justifikatzea soldatapekoen erabilera masibo samarra, baina orain ez, egon badagoelako bestelako erremintarik: aldi baterako bazkidearen figura, esaterako.

Zenbaitzuen iritzian, aldi baterako langileen erabilera, inguruan gertatzen dena baino nabarmenagoa da kooperatibetan, behin-behinekotasunak eta ezegonkortasunak leku handia hartu duelarik. Balorazioak gogorak dira zenbait unetan: «Nosotros nos saltamos la ley a la torera». Kapitaleko enpresetan badira kontrolerako mekanismoak, sindikatuek gertutik zaintzen baitute enplegu kalitatea. Ostera, kooperatibetan egoera bestelakoa da:

«... Porque los sindicatos en el entorno no permiten la superación de un grado de temporalidad y punto. Los sindicatos vigilan, porque no se puede tener una temporalidad como la que tenemos...».

Zenbait kooperatibek —kooperatibetako gidariek zein basekoek— nahiago dute langileen portzentaia handi bat behin-behinekotasunean mantendu, bestela bazkide egingo lirateke, eta, ondorioz, aberastasuna banatu beharko litzateke; egoismo horrek gaur indarra ei du kooperatibetan. Jendea bazkide bihurtzeko ziurgabetasuna sortzen ei du: itzulkinak banatzea dakar; krisi unetan koltxoia galtzea dakar; indize txikiagoko langileak izatea ahalbidetzen du... Elkartasun keinurik garrantzitsuen izan beharko litzatekeena (bazkideztza aukerak besteei eskaintzea eta kooperatibismoaren onurak besteei irekitzea) egoismo pragmatikoak irensten du.

Baina, hortik parte, langileen egonkortasunak dituen onurak azpimarratuko zaizkigu, askoz zailagoa baita langilea inplikatzeko eta formatzeko egonkortasunik gabe. Zenbait jardura ekonomikorik ziurgabetasun handia bizi dute, eta halakoetan tira. Baina behin negozioa sendotzen denean jauzi kualitatiboa eman beharra dago eta langilea bazkide bihurtu:

«En nuestra actividad se necesita también que la gente se implique, que tengan formación, y eso también requiere estabilidad.»

Normalean, berehala sortzen dira galeratik gertu dauden ikuspegi kritikook indargabetzeko argudioak. Honela, aipatu berri dugun pasarteetan kontakizunak aurrera darrai, gaur egun gauzak hobetzen dabiltzala esateko (ez-bazkide gutxiago dago), soldatapekoen inguruko sentsibilitatea asko harrotu eta hobetu delako azken urteotan. Modu horretan, kritikaren edo galeraren kolpea arintzea lortzen duen ikuspegia eraikitzen amaituko da, galerak zein arriskuak baikortasunak gidatzen duen marko kognitiboan egoki kokatuz. Praktika ez kooperatibistak historikoki kontestualizatzeko ere laguntzen du galera bizipenerako bidea saihesten:

«No conviene dejar sobre la mesa determinadas dudas. Se dice que el cooperativismo está decayendo. Yo no estoy convencido de eso. Opino todo lo contrario. El tema de los asalariados vino en los años 80. Las cooperativas no teníamos la opción concreta de los contratos temporales, porque no existían. (...) Ahora se ha inventado el socio por tiempo determinado. Tampoco teníamos nosotros estos objetos y tenías que competir con el vecino.»

Ikusten dugun legez, kooperatibismoaren balorazio positiboak eta negatiboak antolatzeke orduan, lehendabizikoek — aspektu positiboek — idazten dute partituran egitura eta tonalitatea, eta ondokoek soilik zenbait konpas.

Soldatapekoen auzian zenbaitzuk ez dute, inondik inora, «esplotazioaren» tesirik onartuko. Are gehiago, egitura kooperatiboan bazkide eta ez bazkideen artean sortzen den ebaketa horren ondorioz, bazkideak dira gehien jokatzen dutenak. Modu honetan, normalean biktima gisa irudikatzen direnak (soldatapekoak) zenbaitentzat egoera erosoagoan daude; eta normalean borrero edo pribilegiatu gisa aurkezten direnak (bazkideak) zenbaitentzat sakrifikatuenak dira:

«Y en eso de que estamos nosotros aprovechándonos de su trabajo... Eso yo no lo aceptaría porque ante cualquier pérdida, estos señores siguen cobrando lo mismo. Y todas las cooperativas han tenido gripes y pulmonías. Entonces, estos señores no dejaban de cobrar lo que tenían que cobrar. Los socios se sacrificaban, bajadas en anticipos, tenían extornos, pero estos señores no. Yo no digo que no se les reconozca, pero cuando hay pérdidas no les afecta y hay que estar a las buenas y a las maduras.»

Gaurko kooperatibismoa defenditzeko erabiltzen diren argudioen egokitasunetik aparte, garrantzitsua da defentsa horren atzean zenbaitzuegan aurkitzen den oinarrizko jarrera, jarreretatik eraikitzen baitira diskurtsoak. Gaurko kooperatibismoa defendatzeko eta babesteko premia sakona soma daiteke askorengan, eta kooperatibismoaren aldeko datuei dimentsio orokor eta funtsezkoa emateko joera soma daiteke. Beti oinarrizko ideia bera azpimarratzeko helburuarekin: ez dugu arima galdu eta ez gaude arima galtzeko prozesuan. Akaso beharizan horrek ez du tarte gehiegirik uzten, ezin du tarte gehiegirik utzi, irakurketa osotuagoetarako. Ez da bistatik galdu behar, hautemate prozesuek gehienetan sakoneko interesei erantzuten dietela.

Horrekin ez dugu esan nahi defentsarako erabiltzen diren argudioak zentzuzkoak eta egokiak ez direnik, ezta gutxiago ere. Ez dagokigu guri legitimotasuna kentzea edo gaineratzea diskurtso bati edo besteari. Kontua da defentsa horren aurretik, kontsiderazio arrazionalen aurretik — argudioak boteretsuak eta zentzuzkoak izan ala ez berdin zaigu orain-, beharizan sakona soma daitekeela gaurko kooperatibismoa askotan entzuten diren kritiketatik salbatzeko. Beharizan hori da, gure ustean, aztergai dugun diskurtso ildoak ulertzeko gakoetako bat. Sinetsita gaude gizarte bizitzako errealitate ezberdinen inguruan — gure kasuan kooperatibismoaren inguruan — lehenik eta behin bizipen eta interes batzuk egotzen direla, eta ondoren bere inguruko irakurketa arrazionala burutzen da; gehienetan interes horiekin bat datorren irakurketa arrazionala, hain zuzen. Horregatik, hautemate prozesuak selektiboak izaten dira, ikusi nahi duguna ikusteko joerak indar handia hartzen baitu. Aipatu berri dugunak edozein diskurtsorako balio du, jakina.

Baikortasunaren diskurtso-ildoan, zenbait kritika onar daiteke, zenbait hutsune ere bai, baina kritikaren mugak argiak dira. Baliteke kooperatibismoa gehiegi kuestionatzea auto-kuestionamendu sekuentzia mingarri baterako bide zuzena izatea, euretako batzuk izan baitira 90 hamarkadako gidari garrantzitsuenak eta euretako beste batzuk kooperatibak gaur gidatzen dituztenak. Eta baliteke, beraz, gaurko kooperatibismoaren defentsa, auto-defentsa ariketa bat izatea, norbera babesteko ahale-

gina. Gaurko kooperatibismoaren gaineko interpretazio subjektiboaren zati handi bat oinarritzko beharrian horretatik elikatzen delakoan gaude, horrek agortzen ez baditu ere elikatze iturriak.

Kontuak kontu, kontakizunaren ardatza kooperatibismoaren defentsa baikorra da. Baina, esan dugun moduan, horrek ez ditu kritikarako ate guztiak ixten, eta ageri agertzen dira bestelako formulazioak. Aldi baterako langile ez bazkideen kasuan ondoko espresioak erabili dira: «no cumplimos la ley», «tampoco están asumidos los valores», «cierto lastre que se está modificando»... Azken esaldi honek azaltzen duen moduan, aurkitzen da kolpea leuntzeko modurik («cierto lastre *que se está modificando*»), izan ere, kritikaren ostean gaur inflexio positiboa bizi dugula eta bide onetik goazela esateko modua aurkitzen da (Komisio Iraunkorrean aztertzen ari da soldatapekoen asuntua, eta hainbat kooperatibetan bazkide kopuruak gora egin du).

Langile ez bazkideen portzentaia hazten doan modu berean, kooperatiba gutxiago sortzen dira. Krisi ekonomikoak sortutako beldurrak ez-bazkideen portzentaia esplikatzen duen modu berean, jokaleku ekonomikoa zabaldu izanak (merkatu autarkikotik europar merkatura, eta hortik mundializaziora) esplikatzen du kooperatibak sortzeko gaurko zailtasunak:

«A partir de la entrada de España en el mercado común, los mercados se han abierto. (...) Los años 60 y 70 fueron muy prolíficos en la creación de nuevas cooperativas, porque teníamos unas altas barreras arancelarias, de manera que la competencia exterior no nos venía. Sin embargo, teníamos un acuerdo con Europa, por la cual podíamos exportar. Entonces, había muchos negocios que por falta de suministro interior y porque los precios de fuera eran muy altos, se era capaz de escalar. A partir de que eso se vino abajo, casi todo lo que se hace estaba ya hecho fuera de aquí, y por empresas de mucha potencia. Entonces, a la hora de generar nuevos negocios, los costes eran tan altos que al final no se podían hacer cosas. Únicamente se podían salir nuevas empresas cooperativas por el desgajamiento de las cooperativas actuales.»

Deskooperatibizazio arriskua, beraz, kooperatiba berriak sortzeko zailtasunetik ere badator. Edozelan ere, puntu honetan ere baikortasunerako heldulekuak aurkitu aurkitzen dira. «Edesa» kooperatibizatze eginiko ahalegina da heldulekuetako bat; izan ere, horrek demostratzen du kooperatibizatze borondatea badagoela, eta jatorrizko filosofiarekin kontaktua galdu ez dela («procesos que son realmente complejos demuestran que no se ha perdido comba con la filosofía inicial, que hay voluntad de cooperativizar»).

Pertsona-sozietateak sofrituko du, baita ere, bazkideen parte hartze politikoa behar bezalakoa ez denean. Beste garai historiko batzuetan ideologiek indar gehiago zuten, eta parte hartze kolektiborako bulkada indartsuagoa zen. Gaur egun, oster, ideologiak hoztu eta jendearen gogoia epeldu egin da. Zenbait unetan, diagnostikoak parte hartzearen eskasiaz hitz egiten du, eta berau biziberritzeko beharraz.

«Yo creo que en estos momentos lo que habría que hacer es avivar esa participación. Y si se aviva esa participación bienvenido sea. Va a enriquecer más todavía el juego democrático interno. (...) Quizá se puede decir que hay gente que está muy satisfecha con lo que hay y otros que pueden ser un poco más críticos, bueno, pues vale, bienvenidos sean. Y si se organizan mejor todavía. Pero ¿qué es lo que te encuentras? Todo lo

contrario. Te encuentras con que no hay nadie que quiera ser del Consejo Rector, nadie quiere ser del Consejo Social...»

Soldatapekoen gain-erabilera eta kooperatiba berririk ez sortzea historian kontestualizatzen diren moduan (gertatutako krisi industrial eta ekonomiko larriak), parte hartzearen epeltasuna une historikoaren klima ideologikoari egozten zaio: bulkada ideologikoak ez dira lehengoak, ideologia handiak krisian sartu dira eta berarekin batera konpromiso ideologiko sendoak. Kasu honetan ere, kanpo-egozpenak dira kooperatiba barruko prozesuak esplikatzen laguntzen dutenak. Baikortasunaren ikuspegiak gertaeren kausalitatea azaltzeko estilo oso bat gorpuzten du, zenbait galera-diskurtsotan ageri den barne-egozpen indartsuak leunago ageri direlarik, agertzekotan.

2.2.3.2. *Balore eta zentzuen galera*

Aztergai dugun diskurtso-ildoaren funtsari bagagozkio, balore-transmisioa arakastaz burutu dela esango zaigu, eta baikorrenen iritzian, baloreak kooperatibis-plano inkontzientean bertan iltzatzea ere lortu ei da.

Diskurtso orotan oszilazioak gertatzen dira, atzera-aurrera ugari, gehienetan kontraesankorrak diren osagaiak aurki daitezke, eta elkarriketan zehar pertsona berberak ikuspegi ezberdinak defendatzen ditu, maiz kontrajarriak ere bai. Erabateko koherentzia diskurtsiboa ez da normalena, akaso oso diskurtso ideologiko eta egituratuetan salbu.

Horregatik, balore transmisio arakastatsuaresen tesiarekin batera, baloreetan gainbehera moduko bat bizi dela ere esango zaigu, pertsona berberak defendatzen duelarik askotan bata zein bestea. Gatozen balore ikuspegitik nolabaiteko hutsuneaz mintzo den alderdia azaltzeari.

«Los valores y principios los tenemos definidos, y son válidos. (...) Otra cosa es: ¿en estos momentos realmente esos principios los vivimos, su puesta en práctica, la concreción de objetivos que respondan a esos principios? Yo tengo una cierta percepción de que tenemos los principios ahí, como tales principios, pero muchas veces no solemos saber, o tenemos imperfecciones, en concretar esos principios en la realidad práctica. Por ejemplo, en el mundo empresarial, en el desarrollo, somos muy capaces de tener nuestros métodos de gestión, nuestros objetivos perfectamente definidos... En cambio, desde una perspectiva de principios, ¿no tenemos que dar también desde ese punto de vista unos elementos de concreción de esos principios, de medición de esos principios, de definición de objetivos en el avance de esos principios?»

Arrasateko kooperatibismoak bere egin ditu balore batzuk, misio bat, printzipio batzuk. Baina, betetzen al dira eguneroko praktikan? Teoria eta praxiaren arteko aldeak ezinegona sortzen du, gizartea eraldatzeko egitasmo utopiko eta potoloak alde batera utzita, teoria eta praxiaren arteko eguneroko koherentzia horretan saiatu behar baita Arrasateko kooperatibismoa.

«En el fondo lo que nos tenemos que cuestionar no es tanto una indignidad ética ante la realidad socioeconómica, me parece una cierta utopía plantearlo así, sino un

inconformismo de nuestra propia realidad con nuestros propios valores. Nosotros tenemos unos principios básicos, unos valores, una misión... y cuando explicas a terceros, la gente se queda un poco con la boca abierta, y muchas veces me queda la conciencia de decir: ¡joder, si conocieses nuestra verdad...! Ahí sí hay que tener un inconformismo: cómo estamos llevando a la práctica eso. Y tenemos ejemplos...»

Barrutik bertuteak handiagoak dira, baina hutsuneak ere bai. Halaxe dirudi norberaren munduaz ondoko irakurketa egiten denean: kanpotarrek guri buruzko egia balekitez... («¡joder, si conocieses nuestra verdad...!»). Koherentzia gradu handiagoak lortzeko ugariak dira hobeto beharreko aspektuak, baina langileen hezkuntza da gailentzen dena, gaur ezer gutxi egiten baita langileei balore eta printzipio kooperatiboak transmititzeko. Hezkuntza kooperatiboan aurrerapauso handia behar da.

Ikuspegi historiko batetik, baloreen higadurak sustrai sakonagoak ditu. Azken hamarkadatan gizartean aldaketa sakonak gertatu dira, eta beste garai bateko eraldaketaren aldeko grina gaur epelago agertzen da gizarteko sektore gehientsuetan. Kooperatibak horren adibide dira. Beste hainbat esperientzia eta eragileekin batera, kooperatibek ere nolabaiteko epeltze ideologikoa bizi izan dute, historiaren norabideak horrantz agindu izan balu bezala. Gainera, ongizate materialeko egoera batean, hots, gizarte mendebaldarrak bizi duten ongizatearen testuinguruan, badirudi asaldura etikorako eta utopiarako tartekak estutzen direla.

«¿Dónde estamos nosotros? Con todos los malos de la sociedad del bienestar, ahí estamos. Uno más de los malos. Y no sentimos ninguna indignación. Yo no la siento y creo que en general no la sentimos. Y participamos de eso. Y ya sabemos que los asiáticos viven muy mal, que los africanos se mueren de hambre, y todas esas cosas. Pero estamos ahí. Creo que en la realidad nuestra gente eso tenemos perfectamente interiorizado y forma parte del paisaje. Dicho esto, claro que hemos perdido tensión utópica. Como la propia sociedad. Es decir, en Mayo del 68 había una determinada sociedad y la de hoy es otra, y nosotros no nos vamos a escapar de esto, en ningún caso. Por lo tanto, hemos perdido esa tensión utópica que en otros momentos había, porque la sociedad tenía valores tan utópicos en aquel momento y ahora no los tiene. En ese sentido nosotros reflejamos también eso»

Inguruneak, edo testuinguru sozial eta historikoak, kooperatibismoaren taupada ideologikoaren erritmoan eragin zuzena izan du. Baina, arrazoiak kanpoan bilatzeaz gain, barruan ere bilatu behar dira. Arrazoi endogenoei erreparatzeak laguntzen digu gaurko egoera azaltzen, eta euren artean esperientziaren beraren bizi zikloa dugu aipagai.

«Yo creo que estamos viviendo también el fruto de nuestra edad como experiencia. No estamos en las fases jóvenes de cualquier actividad, en las que se han hecho muchos intentos en una dirección y otra. Estamos en una fase casi de madurez, no estamos cuestionando lo que queremos hacer, pero sí podemos tener una tensión ética entre lo que queremos hacer y lo que estamos haciendo. Ya hemos mencionado varias veces que hemos definido unos valores. ¿Los estamos cumpliendo? ¿La gente que tenemos en las cooperativas se siente identificada con esos valores? ¿Los vive realizados en su entorno? ¿Participa de ellos? Creo que esa es una cuestión que nos afecta de un modo determinante, y ya no estamos en la fase de juventud o de lanzamiento. Estamos en una fase de madurez, y ahí aparece un problema nuevo y es: cómo renovar la ilusión de los que se van incorporando a una experiencia ya terminada...»

Aipatua dugu Arrasateko kooperatibismoan lanak izan duen garrantzia eta atxiki zaion balio altua. Lanaren inguruan ardaztu da bizitza eredu bat, hainbat zentzu-ildo bereganatu dituelarik: auto-errealizatzeko bide gisa ikusi izan da; komunitateari zerbitzatzeko bitartekoa; gizartea eraldatzeko tresna; eta bere adierarik traszendentenean, Jainkoarekin kolaboratzeko bidea izan da. Lehendabiziko belaunaldiak gorpuztutako baloreez ari gara hainbaten ustean, gaurko kooperatibistak galduak baititu lanak izan dituen esangura sakonetako batzuk. Euren artean, komunitateari zerbitzatzeari mintzo dena:

«El trabajo como vía de realización personal, pues yo creo que efectivamente tiene ese sentido. Pero en lo que se refiere a servicio a la comunidad, que entra dentro de la ética arizmendiana, yo creo que pocas personas se plantean el tema como si fuera un servicio a la comunidad. Yo creo que es más bien un tema personal y de realización, como un instrumento para realizarse.»

Garrantzitsua iruditzen zaigu entzun berri duguna: arrazionalitateen arteko borroka dugu aipatu berri zaiguna, indibidual/komunitarioa bektorea aintzat hartzen duen borroka, ez horrenbeste logika ekonomikoaren eta bestelako artekoa. Lanaren adiera komunitarioaren higadura diagnostikatzen zaigu, eta lanak auto-errealizazio indibidualerako duen indarra handituz joan omen da. Funtsean, zentzu indibidualisten indartzeaz ari zaigu: motibazio komunitarioak ahultzen diren bitartean pertsonaren espektatiba, asmo eta interes indibidualak indartzen doaz.

Aurreko garaietan, kooperatibagintza bestelako gizarte eredu bat sortzeko bide gisa ulertu zuen hainbatek, ez soilik enpresa proiektu gisa, baizik eta proiektu global gisa:

«Yo recuerdo de los planteamientos que nos hacíamos cuando estábamos en la época primera... Nuestro planteamiento no era exclusivamente empresarial. Era global. Nos preocupábamos un poco de todas las distintas facetas de la sociedad dentro del ámbito que podíamos, claro. Yo recuerdo que hicimos reuniones sobre el tema de la seguridad comarcal. Me acuerdo perfectamente, y el lugar donde lo hicimos...»

Lehen kooperatibisten konpromisoak bestelako arlo batzuk kontuan hartzen zituen, zabalagoa eta globalagoa zen; gaur, enpresara murriztu da konpromiso hori. Iraganeko goi mailako zentzuak apaldu egin dira.

«...la cooperativa, quizá en aquel momento para muchos, era una respuesta bastante global a muchas de nuestras necesidades. En estos momentos yo creo que es una manifestación concreta de un compromiso personal que seguramente es más amplio, y desde luego sería deseable que fuese más amplio...»

Lehen kooperatibek pertsonen beharizan gehiago asetzen zituzten, akaso gizarte konpromisoaren zentzua garbiago bizi zen, konpromiso hori sentitzeari garrantzia ematen zitzaion garai batean. Inplikazio publiko eta politiko handiko sasoi batean kooperatibagintzak konpromisoa eskaintzeko ahalmena zuen eta konpromisoa bizi nahi zutenei eremu emankorra eskaintzen zien.

Askorentzat, kooperatibagintzak Euskal Herri osorako proiektu autogestionario baten zentzua hartzen zuen. Ondoko pasarteetan proiektu autogestionarioa herrigintzarekin bat agertzen zaigu, biak txirikordatuta:

«En este momento no tenemos un proyecto en este país autogestionario, de desarrollo comunitario. No existe. Yo creo que lo que existen son algunas condiciones objetivas que pueden favorecer eso. Primero, somos un país pequeño y además tenemos distintos niveles institucionales. Y tampoco es una tontería la tradición municipalista que tenemos; las comunidades tienen su importancia. Y han tenido su importancia siempre, incluso en el idioma; de un valle a otro hay diferencias porque hay identidades. (...) En esas condiciones el cooperativismo puede aportar... (...) Pero yo lo que no veo es el proyecto global. Y como no existe ese proyecto global pues a lo mejor decimos: joder, pues chico, sí estamos dispuestos a colaborar con otros, pero cuando vengan. Pues allí donde hay experiencias, pues en las ikastolas, echas una mano; la creación de la universidad, y en su día el euskera. En cuanto al euskera, por ejemplo, en el programa de «bai euskarari akordioa» la verdad es que por lo que me están diciendo, los más presentes son las cooperativas. (...) No es ninguna casualidad, nosotros formamos parte de este tejido social. Y, al fin y al cabo, también somos de este país, y de alguna forma eso lo vivimos. Lo otro a mí me parece un poco idealista. A mí me gustaría que hubiese ese proyecto [autogestionario] porque en definitiva sería una respuesta a mis planteamientos personales, a mis necesidades personales.... En un pequeño intento político que hicimos hablábamos de un proyecto autogestionario.... Creo en eso, pero ahora me parece de un idealismo absoluto. (...) No veo esa traducción en sentido práctico. No veo copartícipes.»

Sasoi batean proiektu autogestionario global baten barruan kokatzen zen kooperatibismoa, Euskal Herriaren eraikuntzarekin lotura estuan. Aurreko pasarteari jarraitzen badiogu, gaur Euskal Herriaren aldeko proiektuak irauten du (euskararen aldeko jarrera garbiarekin, aditzera emango zaigu), baina gizartearen autoeraketa ipar duen egitasmoak ez du sinesgarritasunik eskaintzen. Nolanahi ere, kooperatibismoa gizarte proiektu globalago batean txertaturik zegoela ikusten da, autogestioaren aldeko proiektu global batean. Kooperatibismoa gizartearen ikuspegi holistikoki bati lotzen zitzaion, autogestio integrala helburu zuena, gizarte bizitzako eremu guztien autogobernua ipar zuena.

Kooperatibismoaren kontzeptzio sendoa dugu aitaturakoa, sekularizatua, baina zentzuaren goi eremuak hartzen dituena, eta Arrasateko kooperatibismoaren bigarren belaunaldiko pertsonarik ideologizatuengana aurkitzen dena. Halaber, egitasmo «utopiko» honek gaur arazoak aurkitzen ditu praktikara eramateko orduan, eta hortxe, praktikaren lurralde horretan, ezinezko bilakatzen da. Gainbehera baten kontakizuna azaltzen zaigu: proiektuak sinesgarritasuna galdu du eta jendeak sinesmena. Zenbait goi-zentzu, gizartea eraldatzeko gogoarekin lotura dutenak, beste garai batekoak dira, desfasetuta daude eta nekez aurkitzen dute gaur funtzionaltasunik eta sinesgarritasunik. Hortxe galera.

Kooperatibismoaren aparatu ideologikoak eta tentsio utopikoak gradu batzuk galtzea normalizat jotzen duenik ere bada, berau dramatizotzat jo barik: «...egitura ideologikoki berriak belaunaldiak aurrera egin ahala leuntzen doaz. (...) Guztiz logikoa da tentsio utopiko hori hasierakoa ez izatea». Dramatizatorik gabeko baieztapena dugu. Badirudi iradokitzen ari zaigula Arrasateko berotasun ideologikoa betiko izan daitekeelako ilusioak funtsik ez duela, bikotean maitemina betirako sentimendua ez den modu berean.

Esana dugu kooperatibismoak diferentzialtasun kultural bat eman diola Deba-goienerari, ongizate materialaz eta aberastasunaren banaketa orekatuaz gain. Bizitza

kontzepzio komunitarioago bat somatzen da, balore horniketa ahalbidetzen duen *humus* moduko bat. Baina, hori horrela hautematen bada ere, horrekin batera *humus* horren higadura diagnostikatzen da.

Baloreen higadura azaltzeko orduan, kanpoko gizartearen pisu itzela kontuan hartu behar da. Hots, gizartean orohar, kooperatibismoaren ez diren baloreak eta pentsamendua dira nagusi. Arrazionaltasun ekonomiko hutsaren erregetza dugu hor kanpoan, eta mundu arrotz horren koakzio indarra sekulakoa da. Horren aurrean kooperatibismoak ñabardurak sartzen ditu, arrazionaltasun ekonomikoa osatzera datozen baloreak, baina ñabardura xume horietatik aparte, jokabide ekonomiko guztiek orientazio berbera segitzen dute:

«Hay una cuestión que me parece determinante: el peso de la sociedad que tenemos alrededor es tremendo, es imposible de eludir. Se puede matizar de un modo importante en algunos sitios como en el valle, en éste [Debagoiena], pero en todos los demás no hay manera de matizar. (...) La influencia se concreta en el pensamiento dominante, no sé si único, pero dominante sí es. Hay una manera de hacer las cosas, y es la manera de hacer a través de sociedades anónimas y con sus principios, primero beneficio y después todo lo demás. Hay una manera de hacer y de pensar las cosas. Y nadie piensa a la hora de resolver un problema en decir: vamos a hacer las cosas desde principios cooperativos, vamos a juntarnos en igualdad y vamos a decidir las cosas con este tipo de reglas de juego. Fuera de aquí nadie se lo plantea... (...) Fuera de nuestro ámbito de actuación en nuestro sector, por ejemplo [distribución, Eroski] esto tiene muy pocas matizaciones: es el beneficio primero y muy lejos, muy atrás todo lo demás, la consideración de las personas...»

Kooperatibismoak, baina, arrazoi historikoa lortu du. Gaur enpresa mundua astintzen diharduten haize berritzaileek hori konfirmatzen dute. Kooperatibismoaren kode genetikoan aurkitzen diren kontzeptu sakonek onespén historikoa lortu dute (parte hartzea, inplikazioa, pertsonaren zentraltasuna, autonomia, enpresaren ardura soziala...). Arrazoi historikoa lortu izanak harrotasun kooperatibista berreskuratzeko bidea zabaltzen du. Izan ere, kooperatibismoak azken urteotan nozitu duen zentzu hustuketak badu konpentsaziorik, badu ordezkorik, enpresa filosofia berriak baloreen munduan aingurak botatzeko aukera eskaintzen baitu, eta, aldi berean, errentagarritasunaren jainkoari zerbitzatzen jarraitu. Ekonomia (enpresa) eta etika uztartzeko aukerak sortu dira, baloreen errebindikazio idealista eta utopismo antzuetatik haratago. Baikortasunak gidatzen duen estilo kognitibo orokor horren barruan ulertu behar ditugu, beraz, galera osagaiok.

Parte hartzea modako hitza bada ere, gaurko kooperatibetako joeretako bat langileen «pasotismoa» litzateke; hots, jendeak erresistentzia handiak erakusten ditu parte hartzearen kultura batean integratzeko, enpresan inplikatzeko, eta enpresaren ibilbidea bere egiteko. Kontua da ardurak goikoengan delegatzen direla:

«Yo recuerdo que en Fagor se hicieron unos documentos perfectamente hechos con transparencias, con documentos de distintos colores, para que la gente tuviera unas carpetas así de grandes. Lo que pasa es que la gente al final dice: bueno, ya me harán esto. Hay una especie de pasotismo por el cual se confía en que los que dirigen llevan las cosas adelante. Y cuando los que dirigen no llevamos las cosas adelante, entonces no tienen ningún problema de cargarse la Junta Rectora y lo que haga falta.»

Oinarriko jendearen desinteresa da borrokatu beharreko gaitzetako bat. Pertsona batzuk, batez ere gazte berriek, enpresaren informazio sesiotik alde egiten dute ordua heldu bezain pronto («es que la gente cuando llega la hora de irse se va, y le importa tres pepinos lo que le digan»). Jendearen interes ezak portaera militanteen gainbehera moduko bat erakutsiko luke. «Militantzia» falta da, beste garai batzuetako buru-belarri aritze hura, gorputz eta arima jardun nahi izate hura; finean, «militanteak» egiteko barne baldintzak sortu behar dira.

Barruan militanteak behar dira, baina kanpoan ere laguntzak beharrezkoak dira. Eta, zenbait kasutan, kanpoan kooperatibismoarekiko jarrerak ez dira uste bezain onak. Hortxe beste arrisku bat: «Se habla mucho aquí oficialmente del apoyo a la economía social, al cooperativismo y tal, y luego a la hora de la verdad te niegan todo. Porque eres eficaz, porque si no..., vamos, te tirarían».

Pertzepzio horretatik kooperatibismoak uste baino arerio gehiago ditu eta, gizarte mailan eta instituzioen partetik, ez luke behar besteko onespénik. Kooperatibismoa biktimaren lekuan jartzen da, eta, biktima dela egia izan ala ez, biktimaren lekuan kokatze horrek barruko kritikak isilarazteko estrategiaren balioa hartu dezake, kanpo arerio handien aurrean bat egiteko eskaera luzatzen da: kanpotik egurra jaso, eta zelan da posible barrutik ezer funtsezkorik kuestionatzea?

«Vosotros [eztabaida-taldeko gidariorik eta testuen idazlariorik zuzendutakoa] no tenéis ni puñetera idea de las oposiciones que se tienen al cooperativismo, procedentes de los empresarios y de los sindicatos. Ni idea.»

2.2.3.3. Nazioarteratzea: arriskuak

Nazioarteratzeak erronkaz beteriko zikloa ireki du, hedapen estrategia ugari abiarazi eta kooperatibetako kudeatzaileen gaitasunei ateak zabaldu dizkie. Baina, aldi berean, nazioarteratzea ez da kooperatiba bidez egiten ari, eta lehendabiziko arriskua hortik letorke, talde kooperatiboaren metabolismo juridiko tradizionala kolokan jarri baita (persona-sozietatea), aipatua dugun legez.

Nazioarteratzearen ondorioz, hainbaten interpretazioari jarraiki, berdintasuna, demokrazia eta sustraitzea dezente sofritzen ari dira. Errealitate horren aurrean mezu baikorra bigundu egiten da, baikortasunarekin tentsioan sartzen diren osagaiak aurkitzen baitira, eta hortik aurrera arriskuez eta zenbait galerez mintzatuko zaizkigu. Baina, diskurtsoan soma daitekeen korrante eta jarrera nagusia baikortasuna izaten segitzen du; osagai horrek ardaztu eta antolatzen du gaurko kooperatibismoari buruzko errepresentazio— eta interpretazio-sistema. Ikus dezagun arriskuaren pertzepzioa.

Kooperatibek jarduera produktiboa atzerrian kokatzen dutenean, «ezin kooperatiba autonomoak sortzen ibili, lotura organiko-organizatibo bat egon behar baita; nola egin osagarri lotura hori langileen integrazio sozietarioarekin?». Horra hor erronka. Garbi arnasten da ondoko iritzia: «Ezin dugu besteek egiten dutena egin». Hortik aurrerakoak ez daude hain garbi.

Baina, badago aurrez plantea daitekeen auzirik: derrigorrezkoa al da nazioarteratzea? Zenbaitentzat ez dago beste aukerarik, merkatuak beste biderik ez baitu eskaintzen:

«Oso buru irekiz hartu behar ditugun gauzak dira. Nire lanpostua ziurtatzea nahi badut holako gauzak egin behar ditut. Galdera hori da, nola egin, baina ez egin behar den ala ez. Ez daukat alternatibarik. Ni ere prest nago trenetik bajatzeko, baina gera dezatela trena. Nik ere nahi dut tren honetatik bajatzea. «Hay que currar como locos», ba bai, baina konpetitzaileak hor daudelako. Nik ere nahi dut patxadan bizi. (...) Nik badakit alternatibak zeintzuk diren, Urbian oso ondo bizitzen da. Joan hadi!, baina handik predikurik ez egin, eh?»

Atzerriko ezarpenen aldeko politikak ez du, ikuspegi horretatik, alternatibarik. Bizitzan kosteak ditu, lehiakortasunaren errubieran bizitzeak bizimodu patxadatsuari uko egitea baitakar. Kooperatibismoan ere kosteak ditu. Baina, ez dago beste biderik, eta kontrakorik planteatzeak mundu moderno globalizatutik abdikatzeri garamatzala iradokitzen da, fantasiatzko imaginario aurre-moderno eta tradizionalistekin lotzen baita alternatiba oro.

Euskal-herrigintzak ere kalteak sofri ditzake nazioarteratzearekin: AKEak utzi egingo al dio euskal esperientzia izateari eta nazio atxikipen garbirik gabeko errealitate bihurtuko ote zaigu (edo hainbat nazio atxikipen bere egiten dituen errealitate)? Arriskuak ikusten dira, kanpoko ezarpenek Euskal Herriaren aldeko apustua edo euskal izaera lausotu baitezakete. Baina, ikuspegi horrekin batera, bestea ere badugu: kanpo ezarpenek indartu egiten duten AKE eta, zeharka, geure herria.

Arriskuak ikusten dira, baina, aldi berean, nazioartean ezartzea bete beharreko agindu gisa azaltzen da. Arriskuen gainera agindua dago, ez dago alternatibarik, eta arrisku eta kontraesanei buelta emanaz, hemengo kooperatibismoa eta lanpostuak defendatzeko modu bakarra kanpo ezarpenen aldeko apustua egitea da:

«Volkswagen va a hacer en Brasil los mismos modelos que en Europa, pero quería que tuviese los mismos proveedores que en Europa. Pero, claro, quería que los proveedores estuvieran en Brasil, no aquí. Entonces, si tú no me suministras en Brasil no te compro en Europa. Entonces, ¿qué haces? Es que no tienes alternativa, si quieres mantener los puestos de trabajo y generar aquí incluso más empleo, tienes que hacer esos planteamientos. Servir a tu cliente allí donde está.»

Edozelan ere, nabarmen ageri da, jakin, inor gutxik dakiela nazioarteratzeak sustraitzeari nola eragingo dion. Ezjakintasuna ageri da, munduan barrena hedatzearen ondorioak zeintzuk diren ikusteko baitako:

«nire ustez, ez dakigu zer gertatuko dan»

«Regeneratzailea izango da? Debaluatu, diluitu, gutxitu, murriztu egingo da? Ez dakit. Ez dakit nola, eta ez dakit zer gertatuko dan»

«Ikusi dogu prozesu edo egoera esperimental baten hasiko garela sartzen. Bueno, joango gara ikusten esperientzia konkretuen arabera zer ateratzen dan. Nola egin osagarriak enraizamiento lokala —ez bakarrik hemengoa baizik eta beste leku batzuetako enraizamiento lokala— eta ikuspegi orokorra.»

Kooperatiben sustraiak Euskal Herrian daude, baina aldi berean Euskal Herriatik kanpoko ezarpenek, kanpoko lurraldeetan bertakotzea dute helburu. Horrela, «Ca-

ceresen uste dute Eroski bertan sortua dela», eta hori sekulako lorpena da. Ikuspegi horretatik, des-territorializazio prozesu bati (Euskal Herriarekiko lokarriak ahultzea, nolabaiteko des-nazionalizazioa) ber-territorializazio prozesu batek segitzen dio (tokian tokiko identitatea eskuratzea). Finean, Arrasateko kooperatibismoa zenbait sektorek arduraz bizi dute Euskal Herriarekiko «aldentzea», eta, aldi berean, arduraz bizi dute beste lurralde batzuetara behar beste ez «gerturatzea» (ez sustraitzea eta ez bertakotzea).

Bertakotzeko, jakina, zer hobeto tokian tokiko langileen erabateko integrazioa sustatzea baino; hots, kanpo ezarpenetako langileak bazkide egitea. Horrek leku horietan sustraitzeko aukerak biderkatzen ditu. Ikus dezagun Euskadiko Kutxan bizi izan duten esperientzia:

«Guk, esate baterako, gure espanzinoa txikia da oraindino — Errioxa, Gaztela-Leoi, orain Aragoi... — eta asko, bere momentuan asko pentsatu genduan zer egin, enplegatu horiek bazkide egin ala ez. Ez egitea, batetik, errazagoa zan: si las cosas nos van mal pues dejamos... Pentsa genduan merezi zuela gure modeloa eroatea beste lekuetara be bai, eta uste dot merito bat izan dala, ze asko laguntzen gaitu jende hori bereganatzeko, barruan eukitzeko, faktore ezberdin bat da kompetenziaren aurrean...»

Baina, nagusiki, nazioarteko ezarpenek ez dute eredu kooperatibista jarraitzen. Ondorioz, nazioarteko ezarpenek zuzen erasotzen diote bereizgarritasun kooperatibistari; hots, kanpoko ezarpenak eredu kapitalistakoak dira, eta profil kooperatibista desitxuratzeko arriskua legoke: «Galdera da: onartzen dugu kanpo ezarpenetan modelo kapitalista, besterik gabe?». Bada galderari aterabide errazik ikusten ez dionik: «Gure dinamika horruntz doa, beste dinamika fundatzaileago batean sartzen ez bagara.»

Zenbaiten irudiko, nazioarteko ezarpenak ezin dira kooperatiba bihurtu, baina horrek ez ditu ate guztiak ixten, eta badago balore-koherentziari eusterik. Kooperatibismoaren esentzia galtzeko arriskuari aurre egiteko portaera ildo batzuk zaindu beharrekoak dira: tokian tokiko legeak bete behar dira, jakina; eta horretaz gain, AKEren printzipioetan oinarritutako parte hartze aukerak landu behar dira... «Ezin da gehiagorik egin», zenbaitzuen iritzian.

2.2.3.4. *Hezkuntzan hutsunea*

Arrasateko kooperatibismoa, funtsean, esperientzia arrakastatsua da. Nork imajina zezakeen halakorik duela hamarkada batzuk? Hezkuntza munduan emandako aurrerapausoak horren erakusle dira, izan ere, hainbat «amets» bete baita:

«En estos 25 años he vivido esa evolución. Cuando justo teníamos una oficialía y una maestría, soñar que íbamos a tener una ingeniería técnica... Cuando hablábamos de promociones, el objetivo de llegar a una promoción de 25 personas en ingeniería técnica era un sueño a realizar... Entonces, pensar que íbas a llegar aquí, a tener una Universidad, que íbamos a tener enlace con 20 universidades distintas por contrato, que pudieras tener la posibilidad de estudiar en el extranjero por tus propios medios o financiándote con una beca... Era inimaginable hace 25 años.»

Duela urte batzuk ametsak zirenak errealitate bihurtu dira. Ibilbide arrakastatsua egin da, lorpenez betea. Hezkuntza arloan egindako ibilbidea marrazteko «iraultzaile», «copernicano», «beste inon egin eta egiten ez dena»... Formulazio horiek ikuspegi triunfalistan koka daitezke:

«Ha habido hechos que han sido totalmente revolucionarios. Desde el momento en que se planteó hablar de formación continua... Hablar en el año 74 o 75 de formación permanente, vamos, salías del ámbito del Alto Deba e imagínate qué era eso. Don José María desde el principio montó una Eskola (...) Ahora en gastos totales se están invirtiendo 3000 millones al año en dar formación para reciclar a las personas. Pues eso se viene haciendo desde hace muchos años ya. (...) Yo creo que ha sido copernicano. A la educación se le ha dado un tratamiento que no se ha dado en otra parte, ni se está dando en ninguna parte por ahí. (...) El tema concreto de la Eskola de Magisterio...; como los centros de investigación.»

Esku artean darabilgun estilo diskurtsiboan era horretako irakurketek indarra dute, baikortasunak agintzen baitu, eta berau muturrera eramaten denean, triunfalismoak. Hezkuntzaren alorrean sentsibilitate handia egon izan da beti: «Ha habido siempre mucha sensibilidad y siempre se ha estado en tensión, mejorando, y han sido proyectos ambiciosos...»

Baina, ikusten ari garen legez, ikuspegi baikorrak normalean onartzen du kritika-rik, eta, kritika horietako askok hezkuntza hartzen dute begi puntuan.

«En el tema de la educación, ahí sí que desde luego yo diría que es un punto al que no le hemos prestado atención: la educación de nuestra gente. Eso lo hemos dejado olvidado. Ahí creo que tenemos un campo de acción, digamos muy importante. No con eso vamos a encontrar la solución, o vayamos a conseguir indignación ética y esas cosas, pero en cualquier caso ahí tenemos mucho que hacer. Porque nuestra gente entra en las cooperativas, casi... ¡como a cualquier otro sitio! Y hombre, pues vive una situación distinta, poco a poco, y tal, pero si aprende de una manera u otra, no es porque le estemos enseñando sino porque en la práctica unos pueden tener una experiencia y otros otra. Pero en ese terreno dedicamos absolutamente poco a lo que es la educación de un movimiento como el nuestro, que *per se* debiera tener una orientación de valores y unos medios.»

«Yo creo que viendo el conjunto de los trabajadores que están en las cooperativas, no han tenido una educación cooperativa, de los principios y valores que estamos diciendo, de las formas de ser cooperativas. Me acuerdo al principio cuando yo entré, por lo menos Alfonso [Gorroñoigoitia] solía explicar los estatutos y tal, aunque fuera algo superficial... Pero es que ahora no hacemos ni siquiera eso.»

Atseginez gogoratzen dira Alfonso Gorroñoigoitiak «katekizatzen» zuen sasoi hura, baina, «beharrezkoa bada ere, gaur gaizki ikusita dago jendea katekizatzea». Ordea, esan beharra dago norbera zer eta nor den.

Hezkuntzak, ez soilik Arrasaten baizik eta gure gizartean orohar, krisi orokorra bizi duela hautematen da: batetik, hezkuntza-erakundeak enpresaren eskaera berrien aurrean oso ondo zer egin ez dakitela daude oraindik, egokitze ahaleginetan; bestetik, hezkuntza moralak indarra galdu du. Ikus ditzagun biak:

- Ezagutzaren gizartean eta aroan bizi garen honetan, hezkuntza sistemak orohar hutsune handiak erakusten ditu. Pertsonen parte hartzea ezinbestekoa da

lehiakortasunaren borrokan, eta enpresak ezagutzaren balioa deskubritu dute. Horren aurrean hezkuntza munduak ez du ondo erreazionatu («les ha pillado con el pie cambiado»): eskema tayloristetan segitzen dute; hezkuntza proiektua ez da ulertzen prozesu gisa (saiatzen ari dira); garrantzitsuena ez da ikasgaia, multzoa baizik; ikasten ikasi beharra dago... Unibertsitatea «gero eta atzerago dago», lehen ezagutzaren munduan lehendabiziko postuan zegoen baina orain «enpresa handiak eta komunikabideak aurretik doaz»; horregatik, unibertsitatearen papera inportantea da, baina are inportanteagoa berau ez mitifikatzea. Arlo horretan, beraz, enpresa aurretik doa eta enpresa munduari erantzuteko orduan hezkuntza munduak zailtasun handiak ditu. Zenbaitentzat, bi munduak gerturatzea litzateke etorkizuneko erronka nagusia, eta zeregin horretarako hezkuntza-erakundeek egokitzapen ahalegin handia behar dute egin.

- Esan dugun legez, hezkuntzaren irakurketa orokorrarekin jarraituz, badago bestelako arazorik: irakasleria defasatuta dago, baina, batez ere, ezagutzaren transmisioa egitea baino ez dutelako nahi, «bizitza-irizpideetan» formatzeari uko egiten diotelako, hezkuntza morala (zuzena eta okerra zer den) kontuan hartzen ez dutelako. Finean, gizartean egoten eta izaten erakutsi behar da, eta gaurko irakasleriak uko egiten dio hezkuntzaren kontzeptu moral-etiko horri. Gizarte mendebaldarren arazo estruktural baten aurrean gaude, traspasatzea galdu baita, eta logika moralek dagoeneko ez dute indar handirik gurean. Euskal Herria, gainera, ziztu bizian igaro da sozietate erlijiosoa izatetik gizarte nahikoa sekularizatua izatera :

«En 30 años, de ser la sociedad más religiosa y con una motivación ético-religiosa más profunda... En 30 años ha cambiado la situación, cuando llevábamos siglos con esa situación. Y en este momento los que se dedican a la educación no quieren meterse en camisas de once varas. Fíjate, el tema de la enseñanza de la religión, de la enseñanza de la ética. Es que nadie se quiere meter por esos caminos... (...) Un problema, yo creo, que atañe a los planteamientos de trascendencia global. (...) Hasta el más ateo deberá tener una ética de saber lo que es bueno y malo. Eso hará falta ¿no? Pues el profesor huye de ese planteamiento.»

Hortxe hezkuntzaren gaurko bi arazoak eta kinka larria: batetik, enpresarekiko deslotura; eta bestetik, hezkuntza etikoan hutsunea, ematen den diagnostikoaren arabera, auzi etikoak bizitza sozialaren eta hezkuntza munduaren ertzetara bidaliak izan baitira.

Arrasateko unibertsitateak enpresarekin lotura handia eskaintzen du, horixe da bere bertuteetako bat, baina gehiago sakondu beharra dago. Hala ere, eta enpresa munduan egin beharreko hezkuntza lanari bagazozkio, hortxe aurki daiteke hutsunerik larriena. Arizmendiarietaren garaian transmisio ideologikoa pil-pilean zegoen, eta gaur, oster, bazkideek kooperatibismoaren gainean jasotzen duten formazio ideologikoa ia hutsaren hurrena da; baina, ikuspegi baikorren estilo orokorrari jarraiki, gaur gauzak hobetzen ari direla esango zaigu. Edozelan ere, beste garai batean —nagusiki Arizmendiarietaren eskutik— balore eta ideologia transmisiorako sortzen ziren komunikazio espazio eta denborak desagertu dira.

«Yo creo que en el mundo educativo no nos hemos metido bien. Yo creo que ese es uno de los grandes fallos, que fue donde Don José María empezó de hecho. Últimamente no hemos hecho reuniones de este tipo, salvo cuando Don José María entraba a participar. Yo recuerdo que solía venir a Caja Laboral a la Junta Rectora y antes de empezar nos daba una charla de cuarto de hora o 20 minutos para reflexionar... Pero, digamos, discusiones donde se puede aportar y enriquecer la posición, yo creo que, salvo hechos concretos como estas salvedades... Yo creo que nuestro gran fallo ha estado en el mundo educativo. Hacia dentro desde el punto de vista de los socios. Yo recuerdo que cuando yo entré en Ulgor se hizo un examen de los estatutos. No es que los estatutos supusieran mucho pero, por lo menos, los estatutos llevaban dentro una ideología, una forma de concebir la empresa y concebir la vida.... Pero después ya nada. Y desde ese punto de vista en su día se empezó a hacer en Otalora una serie de cursos para los recién llegados que yo creo que no se siguieron después. Ahora se ha recommenzado.»

Beraz, hezkuntza etiko-ideologikoari dagokionean gauzak ez daude hain ondo. Gauzak barruan ez dira ondo egin. Lehenago garrantzi handiagoa ematen zitzaion hezkuntzari, eta zeregin horretarako bitartekoak ugariak ziren. Denborarekin leunduz joan da konpromiso hori, eta autokritika egin beharra dago.

«... si tienes esa capacidad de comunicación, de participación, motivación a la gente tienes un factor competitivo añadido. Yo creo que eso es un tema que nosotros no tenemos que apearos. Estamos en la buena vía. Y no tenemos por qué cambiar en lo esencial. Ahora bien, a nivel educativo, creo que no tenemos que echar balones fuera. Yo creo que hemos fallado también internamente. Tú lo has citado y es cierto. Cuando los primeros años la política de personas no solamente era una técnica de servicio de la empresa. Era además un factor de ideologización, de formación y educación, de motivación... Yo creo que ese tema ha cambiado y no es por casualidad. Por ejemplo se hacían cursos de formación. No hace falta ir muy lejos: en Fagor había cursos de ingreso de socios de 40 horas. Era una dedicación importante, recursos importantísimos a producir, porque entendíamos que eso era importante. Yo creo que se está volviendo también. Desde ese punto de vista, estamos en la autocrítica sana y creo que estamos mejorando. De hecho, esta reunión a mi me parece el signo más fundamental e importantísimo.»

Ikusten den legez, aztertzen ari garen diskurtso ildo honek kritika zantzuak agertzen ditu, eta gertatutakoa esplikatzeko barruko hutsuneei begiratzea eskatzen da (barne-egozpenak). Lehenagoko dispositiboak, bazkideak kooperatibismoan hezteko formazio ikastaroak, esaterako, dagoeneko ez dira egiten. Orohar, kooperatibismoaz mintzatzeko, hausnartzeko eta berau transmititzeko denborak eta espazioak estutu egin dira. Kritikak gogor samarrak dira zenbait kasutan, baina beti aurkitzen da bidea gauzak hobetzen ari direla ikusteko eta adierazteko.

Hezkuntzan galera bat somatzen da, ez dago dudarik. Berarekin batera paradoxa bat hautematen da: sekula baino bitarteko gehiago dago hezkuntza kooperatibo bat garatzeko (lehen bakarrik F.P.; orain, aldiz, Goi Eskola Politeknikoa, enpresa ikasketak unibertsitarioak eta humanitate ikasketak unibertsitarioak) eta sekula baino umezurzago egin daiteke lan-ildo hori.

Izan badira kooperatibismoaren transmisioa helburu duten ikasgaiak, baina ondoko iritziarekin egiten dugu topo: «Sí, se dan clases porque algo ya les he visto a los chavales: tipos de sociedades... Pero es estrictamente lo que es la estructura jurídica». Inte-

resgarri irizten diogu aipatutako balorazioari, Meister-en azterlan klasikoan, kooperatibismoaren higaduraren sintoma ugarietako bat hezkuntzaren «judizializazioa» izango delako, hots, aspektu tekniko-juridikoen gain-dimentsioa hezkuntza transmisioan.

Baina, ze hezkuntza mota da aurrera eramane beharrekoa? Zein da balore transmisioa burutzeko bidea? Hezkuntza ez da ezagutza transmisio soilak, ez da paradigma ideologikoa baten jasotze intelektual hutsa. Benetako hezkuntzak dimentsio etikomoralak behar du. Unibertsitatea horretarako eremu inportantea da, dudarik ez, baina transmisio intelektualaz gain beharrekoa da kooperatibismoa bizitzea, baloreak bizitzea, ekinez gertatzen baita benetako balore-jasotzea:

«Pero desde el punto de vista educativo, en los propios centros de formación en los que hemos tenido influencia, sobre todo en esta zona... Y cuando sé que un señor, cuando va a clase dice que él no va a educar sino que va a dar exclusivamente conocimiento, pues se me caen todos los esquemas, porque con ese señor no puedes hacer nada. ¿Y eso cómo se hace? Porque es evidente que se aprende ejercitando la participación, la responsabilización, la solidaridad personal, la solidaridad intercooperativa... Se va aprendiendo progresivamente a medida que vas viendo la cooperativa. Yo creo que sería bueno que habría gente con otros planteamientos. Ahora tenemos Mondragón Unibertsitatea, que dentro de la universidad hubiera cursos específicos donde se pudiera dar este tipo de formación, grupos de discusión...»

2.2.3.5. *Instituzionalizatzearen arazoak*

Baikortasunaren talaiatik, zentzuak eta baloreak instituzionalizatu izana, orohar, kooperatibismoak gaur duen indarraren seinale da. Esperientzia kooperatibistak bere printzipioak eta portaera moldeak naturalizatu ditu, arkitektura organizatibo konplexu batean iltzatu. Diru kopuru handiak dira elkartasun ekintzetarako erabiltzen direnak, kooperatibek dituzten fondo ugarien bidez. Aitzitik, instituzionalizazioaren irakurketa positiboaz gain, bada beraz problematizatzen duenik, AKERen fundatzaileen kasuan oso garbi ikusten zen moduan. Bidegile eta gaurko protagonistek ere ikusi ikusten dute arriskurik, kontakizunaren espiritua baikortasunak gidatzen badu ere. Ikus dezagun instituzionalizatzearen gaineko ikuspegi hori zertan oinarritzen den.

Heldutasunera heldu den esperientzia batean, funtsezkoa da kide berriak nola integratu jakitea. Belaunaldi berriak eginda dagoen esperientzia batean integratzen dira. Baldintza horietan, nola elikatu zentzuz, ilusioz edo balorez? Nola egin norbere dagoeneko instituzionalizatuta aurkitzen den errealitate bat?

«¿La gente que tenemos en las cooperativas se siente identificada con esos valores? ¿Los vive realizados en su entorno? ¿Participa de ellos? Creo que esa es una cuestión que nos afecta de un modo determinante, y ya no estamos en la fase de juventud o de lanzamiento. Estamos en una fase de madurez, y ahí aparece un problema nuevo y es: cómo renovar la ilusión de los que se van incorporando a una experiencia ya terminada... (...) La cooperativa ya está lanzada. Ya no se forma parte del lanzamiento de la cooperativa. Esa sensación de meterse en un grupo que está creando un proyecto nuevo tampoco se produce porque el número de cooperativas que nace ya no es el que era. Creo que estamos viviendo una situación diferente.»

Obra Sozialak dira zentzu komunitarioaren adierazpide garbiak. Baina, ez ote dira lehendabiziko belaunaldiak eraikitako arkitektura bat, eta ondorengoei emanda etorri zaiena?

«Yo creo que esos planteamientos, los fondos de obras sociales..., yo creo que han sido asumidos como un tema sin demasiada discusión, sobre todo por la gente relativamente nueva que hemos entrado en las cooperativas. (...) Nos ha venido dado de las primeras iniciativas. Se fundaron o se plantearon o se decidieron en los primeros años. Luego no nos hemos planteado posteriormente. (...) No se nos ha vendido la idea de que eso es un servicio a la sociedad.»

Komunitateari eman zaion zerbitzua guztiaren atzean dago: fondo komunitarioak sortu dira, diru irabaziak kapitalizatu... Bizitza kooperatiboaren arauketa osoa norabide horretan doa. Baina, jabetzen ote da kolektibo kooperatibista horretaz?

«A mí me parece que podemos tener más o menos conciencia y constancia de eso. Pero yo creo que está en el trasfondo de todo y toda regulación que hemos hecho y hemos aceptado; empezando por una exigente distribución de resultados, con una exigente capitalización de retornos... Y eso está totalmente abocado o orientado a hacer servicio a la comunidad. Eso está dentro del compromiso social (...) Yo creo que toda la regulación, que es muy exigente, va en esa dirección. Otra cosa es que seamos más o menos conscientes de eso ...»

Aipatutako pasarteari optimismoa dario eta Arrasateko kooperatibismoari balio handia atxikitzen zaio: guztiaren atzean konpromiso komunitarioa dago. Baina, oraingoan azpimarratu nahi duguna pasartearen baikortasunean zulo txiki bat irekitzen duen ondoko aspektua da: jabetzen al da gaurko kolektiboa horretaz? Bizirik ote diraute guztiaren atzean dauden azken zentzuak, ala errito huts bilakatu ote dira?

Lehendabiziko belaunaldia da Arrasateko kooperatibismoa eraiki duen subjektu kolektiboa, esperientzia kooperatibista eratu duena, auto-eratzeko esperientzia bat mar-tzan jarri zuena. Ondorioz, lehendabiziko belaunaldiak bizi izan ditu bere narruan eraikin horri atxikitako zentzu eta balore sakonak. Hortik aurrera, badirudi zentzuak ahuldu egin direla, ondorengo belaunaldientzat sakoneko zentzuak urrunago gertatzen baitira, beste inork sortu eta hasitako esperientzia modura sentituz.

Kontu garrantzitsura garamatza hari-mutur horrek: zelan burutu zentzuen sakoneko transmisioa, baina, batez ere, nola aurrera eraman auto-eratzeko esperientzia etengabe bat, beste inork eraturako egitura batekiko bizipen heteronomoak saihestuz eta etengabeko prozesu auto-eratzailerik eta autonomo bati eutsiz. Galdera ondokoa litzateke: ondorengo belaunaldiek esperimendu izan ote dute euren (auto)eratzeko prozesu propioa? Hala bada, ze neurritan? Ikusi berri dugun pasartean horixe bera da problematizatzen dena: lehendabiziko urteetan fundatu eta sortutako ekimenak ez dira berriz planteatu, eztabaida barik barneratuak izan dira, norbere egin barik, gizarteari zerbitzatzeko gooa eta espiritua transmititu barik.

Sakoneko zentzuen bizipena moteldu izanak ondokoa suposatzen du: enpresa kooperatiboek behiala eraikitako konpromiso komunitarioko bideak gaur azaleko erritual bihurtzeko arriskua dago, nolabaiteko zentzu hutsunea biziz. Finean, ez da ideia eta bizipen komunitarioa elikatu.

Horixe litzateke instituzionalizazioak dakarren arazoa: jokoan dauden goi-zen-tzuen gaineko kontzientzia falta («falta de conciencia»), nahiz eta arauketa guztiak betiko norabidean funtzionatzen segitu, norabide komunitarioan. AKEren fundatzaileek diagnostikatutako galera beraren aurrean gaude, esku artean dugun diskurtso-ildoak modu bigunagoan azaldu arren aipatu diagnostikoa.

Parte hartzeari bagagozkio, zenbaiten ustean kooperatibetako Asanblada Orokorrak dagoeneko ez dira hain biziak: «Creo que las asambleas generales nuestras hoy son menos vivas que hace unos años. Quizás porque nos hemos exclusivizado mucho. Nos hemos institucionalizado mucho.»

Lehendabiziko belaunaldiaren bizipenak aldatu egin dira ondorengoengan. Hasierako ekintza kolektiboak izan zuen karga epikoa leunduz joan da urteen poderioz. Genesi garaian ekintza kooperatibista indarrean zegoen ordena sozial eta ekonomikoarekiko erreaktibo gisa erraz bizi zitekeen: bestelako baloreak gorpuzten zituen gizarte antolamenduari (erregimen frankista) demokraziarekin eta enpresa kapitalistaren erreforma sakonarekin erantzuten zitzaion. Gizarte ordenarekiko erreaktibo izatetik, instituzionalizatutako botere bilakatzera pasa da.

«El gran problema que tiene el cooperativismo es que en estos momentos estamos institucionalizados, somos un poder real. No sé por qué, resulta que hay que enfrentarse al poder, sin darse cuenta donde está el poder real, que no somos nosotros. Nosotros somos un pequeño átomo que intenta transformar algo con poquita fuerza, con mucha convicción y hemos sido, yo diría, una historia de éxito; y lo dicen otros, no lo digo yo. Yo no soy nada triunfalista. Como dicen otros somos una historia de éxito casi milagrosa, a pesar de los valores dominantes.»

«Euskal Herrian gazteentzako *stablishment* zati bat gara ja. (...) Eta Euskal Herri-kanpo ez gara ezer: kapitalista aprendiz batzuk. Eta Euskal Herrian *stablishment*-a. Eta hemen, bailaran [Deba Goienan], zer esanik ez.»

«Hemen [Deba Goienan] el *factotum* gara.»

«¿Dónde estamos nosotros? Con todos los malos de la sociedad del bienestar, ahí estamos. Uno más de los malos.»

Zenbaitentzat dagoneko ezin da epika edo utopia anti-kapitalistarik formulatu. Arrasateko kooperatibismoa ez da hori. Arrasateko kooperatibismoak bestelakoa den ekarpena egiten du: garapen kapitalistari enplegua, hezkuntza, parte hartzea, lan baldintza hobea eta gisako onurak dakartzkio. Horretan datza bere bereizgarritasuna, baina ez inongo izaera erreaktibotan.

«Yo como primer concepto no creo que se trate de indignación ética. Me parece rimbombante y exagerada. Plantearme la lucha de cooperativismo contra capitalismo y cosas por el estilo a mí me parece utópico. Yo creo que lo que tenemos que tener claro y debemos definir es cuáles son los eventuales elementos diferenciadores que nosotros tenemos que estar aportando en estos momentos respecto a la realidad y al desarrollo capitalista: empleo, participación, educación, promoción, reciclaje, condiciones de trabajo... Existen ámbitos de preocupación social..., tenemos problemas de la participación de la mujer, de minusválidos; empleo, que yo creo que es un elemento absolutamente fundamental y que creo que tiene que ser un elemento claramente diferenciador. Es decir, nuestro tratamiento del empleo, estoy convencido de eso, llega a

ser claramente diferenciador respecto al mundo capitalista. (...) Son esos elementos que ese mundo de la realidad capitalista..., son los que debemos recomponer y debemos ir dando ese mensaje diferenciador de la cooperativa con respecto a la realidad capitalista. En la medida que haces eso, intentas transformar dentro de tus posibilidades el mundo en el cual te desarrollas y vives»

Erreaktibo izaeratik botere izaerarako jauziak badu bere garrantzia: esperientziaren izaera eraldatzailea legoke jokoan, gaur gizartea positiboki eraldatzeko gogoia baino, indarrean dauden gizarte-joerak indartzeko ekimena ikusten baita kooperatibismoan. Ordena soziala eraldatzeko ekimena izatetik beratu bermatzeko eta erreproduzitzeko ekimena izatera pasa ote den, hortxe sakonean aurkezten zaigun galdera.

Garai batean, kooperatibismoak ordena ekonomiko jakin bati aurre egiten zion, praxi ekonomiko ezberdin eta alternatiboa gorpuzten zuen. Zenbaiten iritzian, bi eredu handien artean (kapitalismoa eta komunismoa), kooperatibismoak hirugarren bide bat ordezkatzeko zuten. Ondorioz, kooperatibismoak esangura garrantzitsua hartzen zuen, karga epiko nabarmena zeraman. Gaur, ostera, unibertitateetako eztabaidetatik desagertu da.

«En otros tiempos más antiguos incluso el discurso de nuestro alrededor era diferente. Lo de Mayo del 68, lo de los dos modelos... (...) Hoy ya no hay ningún discurso en el exterior que se cuestione el modelo económico que tenemos alrededor. Es decir, la cooperativa ya no es un intento de una búsqueda de un modelo diferente. Yo no sé ni si se debate en las universidades. Antes había seminarios en todas partes, ibas de una facultad a otra y veías seminarios sobre cooperativismo, sobre los Kibbutz... Ya no hay, bueno, ya tampoco ando por esos pasillos pero me imagino que ya ni se debate. Es decir, el modelo de las cooperativas como un modelo con un grado utópico en la sociedad no creo que se viva fuera de las cooperativas.»

Finean, AKE-k segitzen al du indar eraldatzailea izaten, ala eraldatua izan ote da?:

«Gauza bat da mundua zelan alda dezakegun eta beste bat munduak nola alda gaitzakeen. Hor badago arrisku handi bat.»

Instituzionalizazio gisa uler dezakegu askok gaurko kooperatibismoari ikusten dioten konformismo karga. Boterearekiko erreaktibo izaerari utzi izana bat dator konformismoak gaurko kooperatibismoan hartu duen lekuarekin:

«De alguna manera, si tenemos que plantear esa ilusión, el salir del conformismo. Es decir, estamos demasiado institucionalizados. Para los jóvenes somos una realidad muy vieja, institucionalizada. Somos el poder. Ahí sí que tenemos una batalla...»

Aurreko pasarteetan gizarteak kooperatibismoari buruz izan dezakeen balorazioaz berba egiten zaigu, populazio sektore jakin batek, gazteek, izan dezaketean balorazioaz. Kanpoko begi horiek zerbait zaharkitua ikusten dute, freskurarik bakoa. Aipatu dugun legez, funtsezko eraldaketa baten aurrean gaude: kontra-botere bokazioz jaio zen esperientzia (batez ere enpresan ezarritako ordena sozialaren kontrako bokazioa) boterea bilakatu da. Esperientziaren instituzionalizazioa litzateke kanpotik ere hautematen dena.

Kooperatibismoak gazteengan duen erakarpen indarra ez da nolanhiko auzia, ahalmen horrek eman ala kenduko baitio kooperatibismoari etorkizuna. Zentzu horretan, gazteek kooperatibismoa zelan bizi duten funtsezkoa da, eta aipatutako iriziek ez dute etorkizun onik eskaintzen: «una realidad muy vieja», «una realidad

instituzionalizada», «somos el poder»... Erakartzeko indar falta egozten zaio gaurko kooperatibismoari.

Beste batzuen iritzian, aldiz, Arrasateko kooperatibismoak aukera zaparrada ederra eskaintzen die gazteei:

«Los jóvenes en la cooperativa, en nuestra cooperativa al menos, si quieren progresar, si quieren hacer cosas, tienen esa opción. Fíjate lo que se gasta MCC simplemente en formación.... 3000 millones al año, en costes directos e indirectos. Eso se dice pronto.»

Gazteek aukera asko dute gaurko kooperatiba sarean. Akaso, ikuspegi horrek ez du aintzat hartzen ondoko aspektua: aukera horiek guztiak emanda datozkie gazteei. Non geratzen da bere bizi-esperientzia propiotik abiatuta belaunaldi bakoitzak duen sortzeko eta auto-eratzeko aukera? Gazteak goitik behera fabrikatutako esperientzia batekin aurkitzen dira, aurreko belaunaldiek sortu eta garatutakoa. Baliteke kontua ez izatea instituzionalizatutako mundu horretatik «zerbait eskaintzea», baizik eta belaunaldi bakoitzari auto-eratzeko aukerak luzatzea, zerbait propioa fabrikatzeko eta sortzeko aukerak luzatzea, iraganetik elikatuz, baina, aldi berean, norbere bizi-esperientziako zentzu eta kezkei erantzunez.

Baina zelan egin aurre instituzionalizatzeko prozesuari? Besteak beste, ikuspegi historikoari eustea komeni dela esango zaigu, izan ere, instituzionalizatzeko dituen arazoak ez dira oraingoak. Arizmendiarrietak ere garbi ikusten zuen joera edo arrisku hori eta berritzearen aldeko bere deiak etengabekoak ziren. Jarrera jakin bat behar da horretarako, etengabe aurrera egiteko prest egotea. Eta belaunaldi berriei luzatu beharreko proposamena hezkuntza da.

«Seguramente ha existido en todos los momentos de la vida de esta experiencia. Si recordáis Don José María manejó muchísimas veces el concepto de revitalización, «indar-berritu». Muchas veces y sobre todo en los momentos en que venían los planes de gestión y tal... Es una actitud: estar continuamente dando más empuje. Yo así lo interpreto y las nuevas generaciones, pues la cosa está en la educación, en hacer más participativa..., y más comunicación, que eso nunca estará de sobra.»

2.2.3.6. *Desfuntzionalizazioaren zantzuak*

«Antes [en otros periodos históricos] hemos tenido muy pocas herramientas para ejercitar un poco las libertades. Entonces, de alguna forma, el cooperativismo también ha sido robusto en sus inicios, en aquellos que podíamos tener un poco de inquietud de tipo social. Hoy en día hay cien mil vías de realizarse socialmente aparte de la cooperativa. Es decir, tienes desde partidos políticos, sociedades de cualquier otro tipo... En aquella época en la que empezamos a trabajar en las cooperativas, realmente la cooperativa cumplía varias funciones. No solamente ofrecía trabajo, sino que también otorgaba un cierto grado de realización personal. Hoy uno puede organizarse también en otros ámbitos.»

Garai batean, kooperatibek espazio erakargarria gorpuzten zuten, gauzak egiteko eta gizarte konpromisoa bideratzeko aukera sendoagoa eskaintzen zuten, gizartean bestelako konpromiso aukerak urriagoak ziren garaian. Testuinguru historiko erre-

presibo batean, parte hartzearen aldeko irilatxo bat ziren, eta kezka eta egonezina erakartzeko ahalmen handiagoa zutela hautematen da. Urteen poderioz bestelako gizarte-jardunetarako aukerak sortu eta konpromiso bideak biderkatu egin dira. Horrek kooperatibismoaren lekua aldatzea ekarri du, bestelako konpromiso batzuk indartzearen ondorioz kooperatibismoaren erakarpen-indarra (gizarte konpromisorako eremu gisa) ahulduta hautematen da.

«En cualquier caso, yo diría una cosa: el cooperativismo para nosotros ha sido un proyecto de vida. Es decir, en aquel momento había muchas cosas que no estaban accesibles [libertades y posibilidades de otras militancias]. Ahora como son tan accesibles la gente también los desprecia. Desprecia la política, el sindicalismo..., porque no han tenido esa carencia.»

Ekintza komunitarioa beharizanen lurraldean loratzen da, eta batez ere, beharizan horiek beste inork, botere publikoak esaterako, bere gain hartzen ez dituen garaietan. Espainiar erregimen frankistaren amaierarekin administrazio publikoak hainbat ardura hartuko ditu bere gain eta herri ekimen komunitarioetarako tartearak estutu egingo dira. Prozesu historiko horrek kooperatibismoaren oinarrian dagoen ekintza ereduaren desfuntzionalizazio erlatiboa dakar:

«Eran unos momentos en los que no había ningún apoyo público por ninguna parte, y por otra parte, ese enraizamiento en el país veía la necesidad de apoyo y sustituía a esa administración inexistente, apoyando a Ikastolas, a Euskaltzaindia... Luego, cuando la administración pública se ha asentado aportando sus apoyos, se ha ido retirando y haciendo otras cosas.»

«En un momento determinado la experiencia de Mondragón estaba en un determinado clima político... Llegó un momento, no sé, yo creo que hasta la Caja Laboral parecía el Gobierno Vasco. Un gobierno vasco en la sombra, que hacía un montón de cosas, temas de vivienda, temas de cultura, temas de sanidad... Pero claro, cuando eso se ha normalizado, y ahora tenemos un nivel de autonomía, un nivel de democracia, un nivel de libertad..., las cosas han ido a su sitio.»

«¿Qué estaba haciendo el cooperativismo? Pues en una sociedad como en aquel momento, una sociedad que no tenía sus propias instituciones, pues tiende a sustituirlos... Había una capacidad cooperativa en ámbitos en los que nosotros no pensamos hoy en absoluto, y que en el mundo es precisamente lo que se hace.»

Beraz, «kanpoan» —gizartean— gertatutako aldaketak direla eta, kooperatibismoaren kokapena aldatu da: gaurko gizarteko kideentzat ez da militantziarako eta konpromisorako leku bakarrenetakoa ez erakargarriena; eta ekintza komunitario eta autogestionarioaren funtzionalitatea ahuldu egin da, logika publikoak eskuratu duen indarraren eta funtzionalitatearen ondorioz.

Baina, kanpoan ez ezik, kooperatibismoaren barruko izaeran ere gertatu ei dira aldaketak. Aipatua dugu zenbaiten diagnostikoa: kontra-botere errealtate bat izate-tik botere bilakatzerara pasa da bere ibilbide luzean zehar. Arrakastak pasatzen duen faktura izan daiteke hori. Hasiara batean, enpresa munduan nagusi ziren moldeekiko erreaktiboa zen kooperatibismoa, molde eta harreman-eredu klasikoak eraldatzeko bokaziotik abiatu zen. Orain, ostera, badirudi nagusi diren moldeen gidari eta sustatzaile nagusietakoa dela (enpresa kultura berria eta *management* modernoa). Horrek gizartearen aurrean duen oinarritzko izaera eta kokapena ukitzen du, beste garai ba-

tean bere inguruan biltzen zuen epika errektiboak edo narrazio eraldatzailea nabarmen leundu baita. Indarrean dagoenaren aurrean molde alternatiboak proposatzen dituen esperientzia izatetik, ekonomiaren eta enpresaren munduko tenplu aurreratuek proposatzen dituzten moldeak bere egin eta berauen apostolua izatera pasa da. Bere izaera eraldatzailearen desfuntzionalizazioaz ari gara.

«Gizaki berria» izan da, ez bakarrik kooperatibismoak baizik eta bestelako ideologia handi askok helburu gisa planteatu dutena, eta eztabaidarako testuan ageri den kontzeptua. Maila ideologiko, filosofiko eta, baita ere, traszendente batean, «gizaki berriaren» aldarrikapena kooperatibismoaren muina izan da, baina jasotako interbentzio ugartan ez zaio atxikimendurik adierazten. Gertaera hori, imaginario kooperatiboaren funtsezko kontzeptu batekiko bereizte hori, aintzat hartzekoa iruditzen zaigu. Gaur egun, aipatu kontzeptuak eta gisako termino potoloek nolabaiteko arrotasuna edo disgustua sortu dute («no me ha gustado», «a mí el tema del hombre nuevo también me ha llamado la atención»,...). Imaginario kooperatiboaren higadura moduko baten aurrean gaudela ematen du, edo behintzat imaginario kooperatibo klasikoarekin lotutako zenbait kontzeptu potolo eta handien higaduraren aurrean.

Gauza bera gertatu da «asaldura etikoa» kontzeptuarekin (gaztelaniazko *indignación ética*):

«La expresión es llamativa en cierto sentido, como todo lo que se llama planteamiento ético radical. Radical en el buen sentido. Tú aceptas a esta sociedad tan indignado éticamente como cuando tenías 18 o 23 años. Pero, ojo, tampoco voy a cambiar el mundo ahora. Lo que no han sido capaces de cambiar en siglos, tampoco lo voy a cambiar yo solito o con unos 4000 como yo.»

Aipatu berri dugun pasartean errealismoa da gailentzen dena. Asaldura etikoa gaztetasunarekin lotuago dagoela iradokitzen zaigu («...tan indignado éticamente como cuando tenías 18 o 23 años»), eta adinean aurrera egin ahala ezaugarri hori galtzen ez bada ere, badirudi bizitzak erakusten duela norbere asmo indibidual eta kolektiboak errealitatez zelan egokitu («lo que no han sido capaces de cambiar en siglos, tampoco lo voy a cambiar yo solito o con unos 4000 como yo»). Kontaktuzunak errealitatea interpretatzeko eredu jakin bati heltzen diolakoan gaude: gutxi-asko, errealitateak makurrarazi egiten gaitu; modu positiboan formulatuta, gehiegizko erromantizismoz «libratzen» gaitu. Bizitza-estrategia adaptatiboak indartsu ageri dira; estrategia eraldatzaileak baino indartsuago, behinik-behin.

Garai batean imaginario kooperatiboak anbizio handia azaltzen zuen. Euskal Herri osorako proiektu autogestionarioa zuen amets, beste eragile batzuekin batera. Proiektu integral hori oraindik senti daiteke hainbatan bihotzetan, baina, esan dugun moduan, gaurko munduak errealismo dosi handiagoak eskatzen ditu.

«A mí los primeros capítulos [del texto] me han hecho reverdecer. Me ha recordado casi cuando andábamos hablando de un proyecto autogestionario para todo el País Vasco. Desde luego es un planteamiento que a mí me ilusiona como entonces. Lo que pasa es que lo veo muy difícil. (...) Tenemos que ser autocríticos (...) Si estamos haciendo hombres exclusivamente al servicio de la empresa, creo que no nos debe satisfacer. Tenemos que reverdecer eso. Yo estoy convencido de que si somos buenos cooperativistas

hacia dentro y hacia lo que nos rodea desde el punto de vista cooperativo, seremos buenos ciudadanos y nos encaminaremos en otras cosas también. Hacer un desarrollo más integral.»

Euskal Herri osorako proiektu autogestionarioa ardatz duen egitasmok osagai ideologiko indartsua darama berarekin batera, dudarik ez. Kooperatibagintzaren planorik holistikoa izan daiteke aipatu formulazioa, bertsio sekularizatua. Baina, dagoeneko ez da proiektu errealista gisa bizi, eta, ondorioz, hortik aurrerako formulazio ideologikoak, azken helburuak, suabeagoak eta generikoagoa dira: hiritar onak egitea, esaterako.

Kontakizunari erreparatuta, zaila da baloratzen beharrezko errerealismo baten aurrean gauden, hots, utopismo antzutik libratzen gaituen errerealismo sano eta produktiboaren aurrean, ala kooperatibismoaren berezko inkoformismo fundatzailea (asaldua etikoa) desagertze bidean aurkitzen den.

Sakonera etikoaren higatze baten aurrean ote gauden dugu galdera. Batzuen iritzian, balore higatze batez hitz egin beharko litzateke. Debagoiena izan da Arrasateko kooperatibismoaren aplikazio eremu pribilegiatua, eta bailara honetan *humus* berezi bat hautematen da, jokamolde komunitaristagoa, zenbait baloreren presentzia nabarmenagoa.

«... en Debagoiena, en el ambiente hay una inspiración, una forma de concebir mucho más comunitaria, la actuación a nivel de cualquier cosa, que en otras comarcas. Eso se nota muchísimo, pero no hemos hecho lo suficiente. Yo creo que en algún momento, esas primeras fortalezas que se cogen cuando se asumen unos valores y unas formas de concebir la vida, yo creo que han ido debilitándose. Creo que ha habido una cierta vergüenza en presentarse en esta sintonía. Creo que se está recuperando, pero creo que le hace falta muchísimo más, y esa parte cualitativa es lo que a nosotros nos define y nos especifica en lo que somos. Y esto yo creo que hay que recuperar y darle fuerza, toda la que sea. Y además, ahora el contexto empresarial ha mejorado mucho porque hay una asunción y se cree que es un factor competitivo importante. Es momento de abordarlo y abordarlo con fuerza.»

Aurreko gogoetak ondo laburbiltzen du aztertzen ari garen mintzamoldearen eta estilo diskurtsiboaren mamia:

- Batetik, kooperatibismoari zentzu-gorputz jakin bat atxikitzen zaio, ez baita ikusten enpresa teknika soil gisa, baizik eta balore batzuekiko atxikimendu sendoa agertu gura duen garapen komunitarioko herri-ekimen gisa, bizitza bera zentzuz hornitu duena.
- Bigarren pausu batean, urteen poderioz zentzu-unibertso horren galera moduko bat gertatu dela esango zaigu, balore eta jokamolde komunitarioen lausotzea («Yo creo que en algún momento, esas primeras fortalezas que se cogen cuando se asumen unos valores y unas formas de concebir la vida, yo creo que han ido debilitándose»). Prozesu hori «lotsa» kontzeptuari lotzen zaio. Sentimendu edo bizipen hori esplikatzeke arrazoirik ematen ez bada ere, ez dirudi gehiegizkoa denik ondokoa pentsatzea: mundu ekonomiko «ofizialean» patroi neoklasikoak izan dira nagusi, eta patroi neoklasiko tipikoek ez diote leku gehiegirik utzi dimentsio kualitatiboari (afektuak, baloreak, arau moralak...), eta gertaera sozio-ekonomikoen azalpenetan luzaroan hegemo-

nikoa izan den paradigma neoklasikoak indibiduo isolatu eta utilitaristaren figura baino ez du kontenplatu. Pentsamendu bakar horren aurrean, baloreen aldarrikapena konplexuz jotako ariketa bilakatu dela pentsatzeko arrazoirik badago, lotsarazten duen paradigma sasi ekonomiko gisa (paradigma horrek ez die erantzuten zientzia ekonomikoak modu hegemonikoan eta luzaroan erabili dituen kategoria analisiei eta arrazionaltasun ekonomikoari).

- Baina, hirugarrenik, diskurtsoa ez da sustraituko galeraren lurraldean, eta etorkizunera begira ikuspegi baikor eta horizonte argitsua marrazten zaigu. Izan ere, aspektu kualitatibo horiek (baloreak, zentzu komunitarioak...) zenbait momentutan nolabaiteko lotsaz eta erdi ezkutuan bizi izan badira ere, gaurko diskurtso hegemonikoak onartzen dituela dirudi, enpresa-etika binomioa modan jarri delarik («ahora el contexto empresarial ha mejorado mucho porque hay una ascensión y se cree que es un factor competitivo importante. Es momento de abordarlo y abordarlo con fuerza»).

Ikusten dugun legez, baikortasuna oinarritzeko orduan berriro egiten dugu topo erakundeetan egun proposatzen ari den eraldaketarekin: pertsona lehiakortasunerako faktore garrantzitsu bihurtzen ari da, eta horrek aukerak eskaintzen ditu paradigma kooperatiboa lotsa barik aldarrikatu eta lau haizetara zabaltzeko, horixe bera izan baita (pertsonak zentralak direla aldarrikatzea), eta ez besterik, kooperatibismoaren betiko aldarria.

Paradigma kooperatiboa *lotsa* barik aldarrikatu beharra diogu, kontzeptu horrekin egin baitugu topo. Gure ustean aipatu kontzeptua —lotsa— aski garrantzitsua da eta merezi du berau sakonago aztertzea.

Lotsa ondoko eran uler daiteke: «naizena» eta «izan beharko nintzatekeena» ren arteko distantzia; termino kolektibotan, «garena» eta «izan beharko ginatekeena» ren arteko aldea¹⁰¹. Izate idealaren eta errearen artean hautematen den leizeak eragindako sentimendua, hain zuzen. Garai jakin batean AKEeko zenbaitzuk lotsagarri sentitu zuten mistika, balore-multzo edo eta egitasmo etiko batekiko atxikimendua. Esan dugun moduan, luzaroan paradigma neoklasikoa izan da gertaera eta portaera ekonomikoen azalpena monopolizatu duena, eta barrutik darion utilitarismotik eta «homo oeconomicus» kontzepzioetik, gizakion bestelako dimentsioek (afektuek, baloreek, gizarte arauak...) ez lukete izango eragin gehiegirik enpresaren eta ekonomia-eremuan. Utilitarismoaren atzaparrek diskurtso politiko, ekonomiko, kultural eta enpresariala atrapatu duten garaian, AKEren zenbait formulazio etiko-ideologiko beste garai bateko idealismo defasatu, erromantizismo zaharmino edo infantilismo moduko batekin ez ote den lotu, horixe galdetzen diogu geure buruari. Izan ere, ikuspegi neoklasikotik haratago ez zegoen ia ezer; hots, *homo oeconomicus*-aren ikuspegi estuaren presio kulturala izugarria izan da.

Paradigma akademiko neoklasikoak —mendebaldeko unibertsitate eta ekonomia fakultate garrantzitsuenetan nagusi (izan) dena— kaleko jendearen interpretazioak

¹⁰¹ Thomas J. Scheff, «The Sociological Discovery of Shame», <http://sscf.ucsb.edu/~scheff/2.html>

zipriztintzerainoko indarra izan du, eta ikuspegi horretatik subjektuek ekintzarako logika arrazionala baino ez dute erabiltzen (etekinen maximotzea eta interes indibidual hutsa). AKEk beti erantzun dio bestelako paradigma bati, logika ekonomikoa baloreekin uztartzea bilatzen duen paradigmatari, baina paradigma honek ez du beti harrera ona izan, ezta gutxiago ere. Nola eutsi baloreen aldarrikapenari eta sakoneko motibazio etiko-ideologikoei, ekonomiaren eta enpresaren interpretazioa hegemonizatzen duen paradigma «zientifikoak» dioenean halako aspektuek inongo tokirik ez dutela?

Gure ustean, baliteke kooperatibismoak, edo hobeto esanda, enpresarien mundu sozialarekin kontaktu zuzena izan duen elite kooperaibistak, nolabaiteko estigma sentitu izana negozio munduan eta berau goitik behera agindu duen arrazionaltasun neoklasiko boteretsuaren aurrean. Baliteke balore-arrazionaltasuna bere egin gura duen enpresa eredia «idealistegitza» jotako aukera *naïf* eta estigmatizatu gisa ikusi izana garai batean eta zenbait sektoretan. Kontu egin behar da, gainera, Arrasateko kooperatibismoaren zati garrantzitsua, nagusiki genesi garaian, negozioen eta fedearren arteko aliantzan sostengatu izan dela. Edozelan ere, hipotesi batez ari gara.

Gaur, ostera, literatura ekonomikoak baloreen garrantzia azpimarratzeari ekin dio, eta kulturaren dimentsioa berreskuratu nahi da. Dimentsio kualitatiboa bilakatu da abantaila konpetitiborako giltzarria, eta horrek kooperatibismoaren nolabaiteko errekonozimendu historikoa ekarri ei du, eta AKEren berezko paradigmataren legitimazioa. Ekonomiaren jakintza tenpluetatik bestelako paradigma lantzen hasia da, eta ondorioz, gaur egun heldulekuak daude kooperatibismoak gorpuzten duen hautua (enpresa eta baloreak uztartzeko ahalegina) bir-baloratzeko eta berau, *estigmas*z barik, *estima* handiagoz bizitzeko. Hala ere, zenbait tenplutatik baloreei gaur egiten zaien gorazarreak badu mugarik, badu akotaziorik, eta AKEen barruan ere bai. Ikus dezagun.

Iritzi orokorrari bagagozkio, negozioak eta fedea dagoeneko ez datoz bat, ez behintzat garai batean aliantza horrek erakutsi zuen indarrarekin (akaso gaurko zenbaitzuen hautu indibiduala hortik badoa ere). Gehiago esango dugu: badirudi jarduera ekonomikoa hautu etiko sendoekin lotzea (etika kristauekin edo etika sozialistekin, esaterako) ez dela jada gaurko sentsibilitatearekin bat datorren formula, ezta funtzionala ere. Negozioa eta fedearren arteko idilioa (fede erlijiosoa edo sekularra), hots, jarduera ekonomikoak sakrifizioan oinarritutako gizarte konpromisoekin lotzea, gaur egun ez da beste garai batzuetan bezain indartsua.

Ildo horretatik, gaurko sentsibilitate kooperatibista militantzia zentzutik alden-duago dago; eta, batez ere, konpromiso erlijioso edo sekular potoloetatik alden-duago. Gizartea zerbitzatzea edo berau eraldatzea ipar hartzen duen narrazioa edo enpresakontakizuna ahulagoa da; are ahulagoa, gizarte-eraldaketaren narrazioa bere zentzurik indartsuenean (esaterako, klase borrokarekin amaitu, gizaki eta gizarte ordena berri bat ezartzeko). Kooperatibismoaren iraganeko molde kulturalak hautu zaharkitu eta zaharmindu gisa bizi dira, gaurko ekonomiaren mundu ezin konpetitiboagoan indarrean dauden ekintza ildo funtzionalak ez baitira halako kontzeptu kulturaletan oinarritzen. Kooperatibismo klasikoaren zenbait narrazio beste garai batekoak dira, edo horrela hautematen da behintzat.

Ikuspegi honetatik, iraganeko kultura, baliotsua izan da iraganean, eta beraz, errespetua eta esker ona zor zaio. Baina, aldi berean, antigoalekoa da, ideia zaharrak dira. Gaurko dokumentu kooperatibistek ez dute biltzen kooperatibismoaren kontzeptu humanista eta eraldatzaile sakonik. Ez dugu uste horren arrazoia ahanztura denik, ezta deskuidua ere; ez eta desadostasun ideologikoa (akaso gaurko gidari kooperatibistek desadostasuna senti dezakete kooperatibismo erlijiosoarekin, baina ez kooperatibismoaren zenbait sakoneko kontzepturekin). Gure ustean, erreparoa beste bat izan daiteke: dokumentuek ez dute kontzeptu ideologiko sakonik biltzen, hori egiteak lotsa bizipenetik gertu dagoen sentimendu leunago bat sortu izan duelako (nagusi diren moldeekiko desegokitzapena eta desfasea). Hitz batean, dokumentu ekonomiko batean lekuz kanpo daude erreferentzia ideologikoak, horiek iraganeko kontuak dira. Idealismo hori «infantil» samartzat jo daiteke, mundu zabalean negoziok jaso duten definizio sozial eta akademikotik urrun. Negozioen mundua nagusiki ekintza instrumentalaren eremua da, ez da kontzeptu ideologiko sakonak edo gizarte proiektu bat azaltzeko lekua. Gaur, pentsamendu ekonomiko eta enpresarialak badihardu enpresa-jarduna zentzu eta baloreekin lotzen, baina ez printzipio metafizikoen (nazio eraikuntza, klase askapena...).

Gaurko gizartean dagoeneko ez da erraz aurkitzen konpromiso ideologiko totalik, are gutxiago negozioren mundu hotzean. Interpretazio honi jarraiki, batezbesteko kooperatibistak ere ez luke erraz onartuko halako aipamen ideologiko sendorik, negozio mundua egitasmo etiko sakonekin lotzea inork sinesten ez duen operazio gisa hautematen baita, gaurko sentsibilitatearekin bat ez datorrena, edo eta dominazio politiko eta ideologikoa bilatzen duen estrategia gisa.

Beraz, gaurko konpromiso kooperatibistak muga estrukturalak ditu: gaurko sentsibilitate nagusiak ez du erraz ametituko beste garai batekotzat hartzen diren erromantizismo ideologikoak. Gero eta indibidualizatuagoa den corpus kooperatibista batean, ilusio edo mito kolektiboekin eginiko aipamenak errazago hartzen dute jite zaharritua, fede-ekintzen usaia baitariek, gaur munduak eskatzen duen jarrera errealista, pragmatiko eta konpetitibotik urrun. Gaurko gizarteak bestelako bizi-orientazioak sustatzen ditu eta bestelako giza sentsibilitatea. Duela hamarkada batzuetako gizartearekin alderatuta, dimentsio arrazionalak indartuta ditugu, eta kultura kolektiboarekiko atxikimendu estuak lausotuta.

Egin berri dugun deskripzio horrekin kooperatibismoan urteetako inplikazio zuzena izan dutenen zenbait bizipen posible azaltzen saiatu gara, lotsaren kontzeptua abiapuntu harturik. Horrekin ez dugu esan gura gaurko bizipenak nagusiki hortik doazenik, esan dugun moduan, gaur etika-enpresa binomioa modan jarri izanak paradigma kooperatiboaren inguruko harrotasuna sustatu duelakoan baikaude; hori bai, gaurko proposamen etikoei ez darie beste garai bateko proposizio eta gizarte printzipio sendorik. Nolanahi ere, gaur, zenbaiten iritzian, kooperatibismoak arrazoi historikoa eskuratu du, baina ez dugu uste sentsazio hori beti egon denik.

Enpresa kultura berriaren proposamen etikoa da gailentzen ari dena. Esan bezala, «gizaki berria» eta gisako kontzeptu klasikoek ez dute sinesgarritasun handirik gaurko sentsibilitatean. Inozentzia ideologikoak markatutako iraganaren zantzuak dira. Kontzeptu

gogor horien aurrean eszeptizismo handiagoa bizi da gaur, ez baitira hain garai ideologizatatuak. Kontzeptu horiek daramaten karga irrealaz jabetu den belaunaldia dugu.

Kooperatibismo desliluratu baten aurrean gaude, karga ideologiko-utopikoa duen zentzu oinarritze ahulagoa izan dezakeena; seguru asko, gaurko sentsibilitatearentzat zentzu molde horiek dagoeneko ez direlako baliagarriak, eta eraberritze lanik egin ez delako. Kooperatibagintzaren bilakaeraren beste estadio batekoak dira, estadio magikoagoa, mitikoagoa, ez hain arrazionalizatu. Eta estadio globalizaturako proposamen eta lengoia etiko-ideologiko gaurkoturik ez da elaboratu.

Desfuntzionalizazio horren arrazoiak ugariak eta konplexuak dira; zerbait esan dugu horretaz. Baina, arrazoi guztien artean bada bat orain aipatu nahi genukeena: galdu egin da enpresa kapitalistak eragiten zuen esplotazioaren bizipena. Bizipen hori lehendabiziko belaunaldiak martxan jarritako ekimen kooperatibistaren oinarrian egon da, eta bizipen hori zen identitate eta egitasmo kooperatiboaren abiapuntua. Enpresa kapitalistan izandako bizipenetatik abiatuz, ekintza eraldatzailerako baldintza subjektibo eta sozio-psikologiko jakin batzuk mamitu ziren. Erreferentzia hori galdu da, eta hein batean, norbere identitatea eraikitzen laguntzen duen «beste»ren figura galdu da, ez soilik maila sinbolikoan, baizik eta, baita ere, bizipenen maila materialean.

«Cuando se inició la experiencia la gente procedía de donde procedía. Procedía de la empresa capitalista, además en el sentido más extremo del dato, desde el punto de vista de la explotación. Se encontró luego con una empresa con una concepción distinta... Ya entonces se empezó a notar que aquellos que venían directamente de la universidad o directamente de las escuelas, no tenían la experiencia de haber vivido en una empresa capitalista, y la gente no valoraba todo lo que supone la cooperativa.»

«Oraingo gazteentzat kooperatiba batean lan egitea zeharo normala da. Besterik ez du ezagutu (beste enpresa mota bat). Nik bost urte eman nituen beste enpresa batean eta diferentzia nabarmena da. Beste batzuentzat ez da horrelakorik planteatzen eta horrek garrantzi handia dauka.»

Enpresa kapitalistaren esperientzia galdu izanak, kooperatibak gorpuzten duen esperientziaren eta balioaren berezitasuna galtzea dakar (hein batean, betiere).

Gainera, bestelako enpresa moldeetan izandako esperientzia kooperatiban mami-tzen denetik gehiegi aldentzen ez dela esango digun buruzagirik ere badago. Gauza beretsuak lirateke multinazionalak eta kooperatibak, lehendabizikoek langileak zain-tzeko borondate garbia azaltzen ei dute gaur egun:

«Pero, ¿vosotros creéis que las grandes multinacionales —que, por supuesto, tienen claro el tema del beneficio— en sus relaciones sociales con sus trabajadores, no las cuidan y las atienden? Yo tengo tres experiencias: he trabajado en una gran multinacional, en una sociedad familiar, y luego en el mundo cooperativo. Y desde luego mi experiencia es que la empresa multinacional se parece mucho más a las cooperativas que la empresa familiar. (...) El nivel de preocupación que tiene General Motors por sus trabajadores ya me gustaría a mí en muchas de nuestras cooperativas.»

Lehenago kooperatiben identitatea eta bereizgarritasuna garbiago zegoen. Gaur zailagoa da kooperatiba bat eta enpresa kapitalista bat zertan ezberdintzen diren garbi azaltzea.

«Cuando nació la cooperativa se percibían más claramente los elementos diferenciadores respecto al medio, respecto a la sociedad capitalista. En estos momentos, en este contexto, esos elementos diferenciadores, yo no sé si somos capaces de transmitir y de vivirlos como elementos diferenciadores positivos. Se hacen cosas. (...) Pero no sé si somos capaces. Ahí incide la formación, incide el dar mensajes claros etc. No sé si como tal movimiento tenemos claro cuáles son esos elementos diferenciadores. En la medida en que tuviéramos claridad seguramente seríamos más capaces de transmitirlos...»

Kooperatibaren bereizgarritasuna zertan datzan komunikatu beharra dago, gizarteari transmititu behar zaio identitate kooperatiboa zertan den. Komunikazio arazo bat identifikatzen da, baina komunikazio arazo gutxiago legoke mugimendu kooperatibistak berak besteeziko diferentziak garbiago balitu. Diferentziak lausoturik agertzen dira subjektu kooperatibistarentzat berarentzat ere bai.

Kooperatibismoaren egitasmoa eta identitatea transmititzeko beharra dago, gizarteari kooperatiba bat zer den esplikatu behar zaio. Nazioartean beste horrenbeste gertatzen ei da:

«De hecho, eso se nota a nivel internacional, cuando uno toma contacto con el resto de las cooperativas, pues hay un problema de transmisión a la sociedad: qué es una cooperativa. Hay realmente un problema. Ante los parlamentos, ante las instituciones políticas, allí tienes que justificar por qué eres diferente.»

Gainera, kooperatiba hitzak sarritan «gaizki kudeatutako enpresa» esan gura du, eduki negatiboa transmititzen du, eta ez interesa pizten duen egitasmo sozio-ekonomikoa.

Dena delakoarekin, kooperatiben eta enpresa kapitalisten arteko distantziak laburtu ei dira. Baina, bietatik zein da aldatu dena? Nor gerturatu zaio nori? Batzuen iradokizunei jarraiki, enpresa kapitalistak eta kooperatibak gaur gertuago daude ez kooperatibek bereizgarritasunak galdu dituztelako, baizik eta, batez ere, enpresa kapitalistek osagai berriak barnerratu dituztelako. Beraz, kooperatibak jokamolde edo izaera kapitalistara gerturatu barik (edo horrekin batera), nagusiki enpresa kapitalistak dira aldatu direnak.

«En la fase joven, entonces sí que había una diferencia enorme de la que era cooperativa comparada con el medio porque tenías tu empresa con gente joven, más o menos de tu misma generación, creando, empezando, con medios que eran, vamos, 10 veces o 100 veces mejores de lo que había en el medio. Eran empresas modernas, había un elemento de funcionamiento democrático en aquel contexto. Es decir, había muchos elementos diferenciadores que hoy no hay. Obvio, afortunadamente para el resto de empresas que también han mejorado mucho ¿no?»

Azken ikuspegi honek zer pentsa ematen du, ohiko enpresa kapitalistak (eta multinazionalak) eta kooperatibak parean jartzen baitira, elkarrengandik ez oso urrun. Batetik, identitatearen planoko gogoetara garamatza: multinazionalak eta kooperatibak gertuko errealitate gisa kontsideratzea, kooperatiben identitatea eta diferentzialtasuna kolokan jartzera garamatza. Norberaren *alter egoa* galtzen bada, ezin identitate propiorik eraiki, asimilazioaren aurrean baikaude. Finean, galdera litzateke: zertan datza, orduan, kooperatiben bereizgarritasuna? Edo, gehiago finduz: ba ote

dago bi esperientzien artean (kooperatibak eta multinazionalak) funtsezkoa den alde-rik? Finkatu ote daiteke identitate propio bat kooperatibek multinazionallekiko gaur dituzten ezberdintasunen kualitate eta intentsitatearekin?

Bestetik, ideologia planoko gogoeta datorkigu: aipaturiko pasarteetako batean agerikoa da multinazionalen gaineko irudi positiboa. Hori horrela bada, zertarako gizartea eta enpresa eraldatzeko proiekturik? Hots, badirudi gizarte eraldaketaren aldeko bulkadak oztopo tinkoa aurkitzen duela irudikapen horretan, izan ere, kapitalismo globalizatuaren ikono nagusi diren multinazionalak irizpide egokiak erabiltzen baitituzte euren jardunean, eta finean, mundua ondo gobernatuta dagoela ematen du. Beraz, zer eraldatu orohar gauzak ondo badoaz eta multinazionalen praktika ekonomikoak zuzenak eta egokiak badira? *Alter ego*-a anulatuta geratzen da gainditu beharreko errealitate gisa, eta ondorioz, higituta nor kooperatibista eta bere egitasmo ideologikoa.

Laburbilduz, gaurko kooperatibista askok ez du «esperientzia kapitalistarik», eta halakorik balego, dagoeneko enpresa kapitalista ez da hautematen adarrak eta buzta-na duen deabrua legez.

Gauzak horrela, etorkizuneko kooperatibismoa ezingo da iraganekoaren berdina izan. Besteak beste, lehen arazo eta beharizan primarioei erantzun beharra zegoen, baina gaur gizarte aberatsetan bizi gara. Ondorioz, egokitu beharra dago kooperatibismoa, errotik ezberdina den testuinguru sozial eta historikora ekarri:

«Es evidente que el planteamiento cooperativo no puede ser hoy exactamente igual del que fue en el momento de los pioneros. Está clarísimo, porque entonces había una serie de necesidades concretas y había que resolver, digamos, problemas primarios... Entonces, yo creo que más que revitalizar hay que adaptar a un nuevo contexto radicalmente distinto, que es el que tenemos ahora. Y quizás, a las nuevas generaciones, a través de la educación.»

Ongizateak ardatzen duen testuinguru sozial eta historikoan, baldintza objektibo-
boez gain, baldintza subjektiboak ere bestelakoak dira. Gaur zailagoa da gizarte sis-
temari edo enpresa munduari aurkakotasunik azaltzea, inoizko ongizate materialik
handiena lortu baitute gaurko gizarte mendebaldarrek. Kooperatibismoaren espazio-
an beste garai batean bizi izandako tentsio utopikoa eta asaldura etikoa, epelduta
agertzen dira, orohar gizartean epelduta agertzen diren modu beretsuan:

«Nosotros estamos insertos en el seno de la sociedad del bienestar. Si le oís al le-
hendakari decir que ya estamos en el 92% de la media europea y que vamos ahí... Por
lo tanto, no hay indignación ética. Al contrario hay un alineamiento con la sociedad
del bienestar. Nosotros y nuestras cooperativas los primeros, eh? No se nos ocurra,
digamos, pedir una cierta contención en las aspiraciones de bienestar en pro de... Bue-
no, pues estamos ahí. (...) La influencia de la sociedad está ahí. Y nosotros nos hemos
alineado con eso. (...) ¿Dónde estamos nosotros? Con todos los malos de la sociedad
del bienestar, ahí estamos. Uno más de los malos. Y no sentimos ninguna indignación.
Yo no la siento y creo que en general no la sentimos. Y participamos de eso. Y ya
sabemos que los asiáticos viven muy mal, que los africanos se mueren de hambre, y
todas esas cosas. Pero estamos ahí. Creo que en la realidad nuestra gente eso tenemos
perfectamente interiorizado y forma parte del paisaje. Dicho esto, claro que hemos

perdido tensión utópica. Como la propia sociedad. Es decir, en Mayo del 68 había una determinada sociedad y la de hoy es otra, y nosotros no nos vamos a escapar de esto, en ningún caso. Por lo tanto, hemos perdido esa tensión utópica que en otros momentos había, porque la sociedad tenía valores tan utópicos en aquel momento y ahora no los tiene. En ese sentido nosotros reflejamos también eso.»

Gizartearen eragina beti izan da handia kooperatibetan. Ezin beste modu batera izan, kooperatibak gizarteko parte baitira, eta gizarte tendentziek eragin zuzena dute espazio kooperatiboan. Bere garaian, gizartean arnasten zen grina eraldatzaitetik elikatu ziren kooperatibak, baina gaur ez dirudi halakorik arnasten denik, eta badirudi gizarte egitasmu eraldatzaileek ez dutela beste garai bateko indarra. Gizartean gertatutako huste ideologikoak esplikatzen du, hein handi batean, kooperatibetako epeltze ideologikoa.

«Tú has dicho, por ejemplo, Mayo del 68. yo me acuerdo cuando la gente universitaria entró en las cooperativas, allí teníamos una visión pragmática, vamos a decir, los que estábamos aquí en el valle. Y luego llegó la gente con las teorías de la universidad... Aquí [en las cooperativas] teníamos de todo [adscripciones ideológicas]. Pero ahora yo no sé la gente joven que se incorpora cómo se incorpora... Porque evidentemente aquí vamos a ser transparentes con la realidad, con el medio en el que estamos.»

Gaurko bizi esperientziak eta lehengo kooperatibistenak oso ezberdinak dira, ez dago zalantzarik. Kooperazioaren oinarria beharrezkoa izan da beti. Ekintza kooperatiboa, eta orokorrago, ekintza komunitarioa, gabeziaren lurraldean loratzen da, eskasiarenean, indefentsioarenean, babes ezarenean. AKEko zenbait protagonistek esango digutenez, gaurko gazteek ez dute halakorik bizi izan: gaurko gazteak esnemamitan hazi direla emango zaigu aditzera, beharizan gorriarik ez dutela bizi izan, babestuak egon direla beti, eta hezkuntza aukerak bermatuak izan dituztela; eta horrek guztiak bestelako bizi esperientzia gorpuzten du.

Gainera, aurreko belaunaldiak politizazio gradu altu bat bizi izan dute: «nosotros hemos vivido un sarampión, nos salía por todos los lados la política». Aldiz, gazteak ikaragarri despoltizatutako populazio sektore gisa agertzen zaizkigu, eta ikerketa soziologikoez hala demostratzen ei dute («la gente no se moja», «la gente no se implica»). Etorkizuneko kooperatibismoa «giza material» horrekin egin beharra dago. Bada kontrakoa uste duenik ere: gaurko gazteak gaituago daude, formazio hobea dute, inkonformismoak badu indarrik, «enprendedoreak» dira, eta abar.

Baina, gazteek ez dute dagoeneko erraz ametitzen zaharragoen autoritatea, edo aurreko belaunaldien erreferentziak. «Sermoi kooperatibistak» ez ditu erakartzen:

«... eta gaur ezin zara gazteei sermoiak emoten hasi. Esango deutsue Israelen moduan, Kibbutze-etan: «No me hable usted de sionismo. No me cuentes rollos, tío.»

Informazioa behar da, ez sermoiak. Norbere identitatearen birproduktzioa ziurtatuko duten informazio ildoak garatu behar dira, garbi geratu dadin «zer garen, nolakoak garen, ze diferentzia dugun, zein izan den gure historia, zeintzuk diren gure erretoak, ze politika enpresarial onartu dugun..., ezin baita maite ezagutzen ez dena». Badirudi gertaera kooperatiboaren analisi, ikerkuntza eta transmisioa jasoagoa eskatzen ari dela, sermoi-kontsigna errazetatik haratagoko pentsamendu eta ikerkuntza

lana, kutsu akaso moralistegia baztertu eta jite zientifikoagoa izango duen ildoa gara-
lana beharra. Eta horretan, ibilbide oso bat egi dago ibiltzeko:

«Lan hortan oso ahulak gara. Eskasak, oso frantziskotarrak gara. Ez jesuitak. Fran-
tziskotarrak.»

Zeregin hori, lehenengo eta behin, Arrasateko esperientziak sustatu duen gune
unibertsitarioan burutu behar da, eta gero Euskal Herri osoan, gizartean orohar.

Sentsazio orokorrari jarraiki, gaurko gazteek nahiago dituzte elkartasunaren
bestelako adierazpen batzuk, enpresa mundutik kanpo: bolondresgoa, GKEak...
Orohar, ez dute kooperatibismoa ezagutzen eta ez dute baloratzen, eta, seguruenik,
kooperatibistek eurek ez dutelako ondo «saldu». Gaurko gazteek ez dute koopera-
tibismoa proiektu eraldatzaile batekin lotzen, gaur GKEak dira balio sinboliko hori
dutenak:

«Adibidez, gaurko gazte batek ez du nahi bere sozial balioak kooperatiban
desarrollatu. Afirmazio fuertea da. Askoz errazago joango da ONG batera bere proiektu
soziala garatzeko. Normalagoa iruditzen zaio bere modelo organizatiboak horiek dire-
lako. Gure belaunaldiarentzat, 50 eta 60 hamarkadan kooperatiban lan egitea zan mo-
delo sozietario transformatzaile, aurrerakoi... nahi duzun guztia. Eta hori gaurko nere
informatikoarentzat ez da. Berak bere baloreak eta bere aspirazioak ditu.»

«En la juventud actual se produce el mismo número, o más si acaso, de jóvenes con
aspiraciones utópicas que en nuestros tiempos. Sólo que en nuestros tiempos había en
las cooperativas un sitio donde plasmar ese interés. Hoy no se buscan las cooperativas
porque no transmitimos eso. Se buscan otras cosas en otras realidades.»

Beraz, gaurko energia solidario eta eraldatzaileekiko deslotuago hautematen da
kooperatibismoa, erakarpen-indarra neurri batean galduta duen proiektu eta esperien-
tzia gisa. Imaginario kooperatibistak ez du leku bera okupatzen gazteengan.

2.2.3.7. *Lan molde berrien arriskuak*

Lan molde berriak kooperatibismoaren arrazoi historikoa konfirmatzera datoz.
Horixe da diskurtso ildo baikorraren ainguraleku garrantzitsuetakoa. Baina, halere,
bada arriskurik kontu honetan. Gehienek norabide horretan gehiago egin behar dela
esango dute, eta hori da kexu garrantzitsu bat: «egindakoa ez da nahikoa eta ausar-
tagoak izan behar dugu». Praktika berrien inguruan behar besteko konpromisorik ez
hartzea arriskueta bat da, baina hortik haratago, bada lanaren antolakuntza molde
berrien inguruan bestelako arriskurik ikusten duenik.

Hasteko, Arrasateko kooperatibismoan asko dira nolabaiteko arranguraz azter-
tzen dituztenak enpresaren inguruko proposamen berriak, enpresa kultura berri eta
parte hartzailea. Izan ere, kanpoan erditutako moldeez ari gara, eta Arrasatekoa be-
zalako esperientzia bati zegokion pausu ausartago hori naturalki ematea. Badago hor
nolabaiteko ahulezia eta inkoherentzia historikoa. Arrasateko esperientziak biltzen
zuen beste inork baino hobeto enpresa kultura berriaren hondoan aurki daitezkeen
motibazio etiko eta filosofikoak, baina ez du jakin izan hori aprobetxatzen. Gaurko
proposamenen gidari nagusi izateko, liderrak izateko, aukera historikoa galdu da.

«Yo creo que habría que lamentar de alguna manera el que nos haya venido como un reflejo de la cultura del exterior, a través de la calidad total o la mejora total. Cuando ya hace 20 años estábamos trabajando en el tema. Hace 20 años quizás no se pusieron todos los recursos, nos pareció que estaba por encima de nuestras posibilidades...»

Ikuspegi horrek errezeloa sor dezakeen interpretaziora garamatza: kanpotik sortutako kultura baten erreflexu hutsa izan behar ote da AKE?

Lana antolatzeke molde berriek beste arrisku bat dute: kooperatibek berauek teknika instrumental huts gisa ulertzera, eta ez kooperatibismoak behar lukeen eduki filosofikotik.

«Hay un producto nuestro específico que tenemos que desarrollar, que es en el fondo esa participación real de cada día. En eso tendríamos que ser nosotros la escuela número uno en el mundo. No tenemos la contradicción interna que tienen el resto de las empresas, aquí no estamos discutiendo el poder. El poder nos corresponde a todos (...) Tiene que ser una especie de democracia representativa, con los riesgos que tiene. (...) Quizás no tengamos que ser la mejor escuela de Marketing, pero la mejor escuela de gestión de recursos humanos tendríamos que serlo. Yo no digo que seamos los últimos, ni mucho menos, incluso aquí somos cabecera. Pero sinceramente, creo que en la gestión de recursos humanos hasta se ha echado un paso atrás. Creo que en estos momentos es mucho más un instrumento. Quizá ahora se está mejorando... Yo digo lo que hace 3 o 4 años percibía. Era más una gestión técnica al servicio de la gestión global de la empresa que un planteamiento más filosófico, más participativo.»

Oraindik ageriago ondoko pasartean:

«Esos grupos de mejora y demás, no se enfocan desde el punto de vista de la participación, sentido de autorrealización, etc. Se enfocan desde el punto de vista economicista.»

Aurreko ikuspegiak funtsezko arrisku bat seinalatzen duelakoan gaude: ze puntutaraino enpresa-demokrazia helburu duen egitasmote bategan —Arrasateko kooperatibismoa— ez ote den gailendu ikuspegi instrumentalago bat. Galdera horretatik, izate kooperatiboaren adierazpide gorena izan daitekeena (lana antolatzeke molde parte hartzaileagoak) kutsatuta bezala ageri zaigu. Aurpegi ezkutu bat luke, kontuan hartu beharrekoa: fondoko ideal baten instrumentalizazioa, hain zuzen. Aurpegi ambigua, beraz.

Parte hartzea sustatzearen aldeko joera soilik ekonomiaren eta efizientziaren irizpideetatik ulertzeko arriskuaz mintzo zaizkigu. Instrumentalizazioaren gailentzeak etorkizuneko proiektu etiko-kooperatibo bat oinarritzeko ahulezi nabarmena luke. Formulazio kooperatibista propioa eta autonomia bilatu ezean, badirudi besteekiko bereiztea zaila izango dela, enpresa mundutik datozen planteamendu berriak unibertsalak baitira, ezin enpresak aplikatu ditzakeenak. Ondokoa da ikuspegi horren beste formulazio bat:

«Estamos cayendo bastante en una consideración de ese aspecto instrumental que tiene la participación... Nosotros tenemos algo específico nuestro, y no lo tenemos que olvidar, sino que tenemos que darle una significación importante. Somos los que somos, sujetos de derechos y obligaciones en nuestra empresa, y con esa orientación de actuación comunitaria y de compromiso social. Es ahí donde no incidimos lo suficiente.

Y hay mucha más conciencia en esta línea instrumental de gestión de empresa que es lo generalizable, lo universal en todo planteamiento empresarial.»

Instrumentaltasunerako labaintze moduko baten kontzientzia aurkitzen dugu, eta horri buelta emateko, arrazionaltasun kooperatibo integralari eusteko deialdia luzatuko da («ese carácter social que tenemos lo hemos desarrollado poco»), eta kooperatibismoa, duen botere-metabolismo eta izaeragatik, egon badago enpresa kapitalisten proposamen eta praktikak gainditzeko moduan, eta beraz, esperientzia interesgarriagoak eraikitzeke moduan. Deialdi hori ez da luzatuko kontzientzia tragikotik, espiritu baikorretik baizik. Denek defendatuko dute ikuspegi ekonomikoa eta balore-ikuspegi uztargarriak direla, noski, baina gaurko orekak ez garamatza bide onetik («creo que estamos haciendo mal»).

Enpresa filosofia berriak bere baitan hartzen dituen printzipioen aldeko (langileen asebetetzea, bere ongizate subjektiboa eta autoerrealizatzeko aukerak...) borondate politikoa falta da; efizientiaren ikuspegitik haratagoko planteamendua falta da.

«Ahora se empieza ya a hacer, por ejemplo, algunos test de evaluación de la satisfacción de las personas y tal. Pues es algo que nosotros teníamos que haber hecho desde hace tiempo. No solemos andar así en cuestiones de técnica, eso no lo hacemos en el mundo industrial. En esos terrenos sabemos perfectamente qué rechazos tenemos, porque causas se producen...»

Ekintza ideologikoaren indartze bat eskatzen da, borondate falta bat suma baitaiteke ekonomia eta efizientiaren irizpide zehatzetatik harantzago doazen kontuetan. Arrasateko kooperatibismoak estu-estu heldu die garaian garaiko moldeei, baita molde tayloristei ere, berrikuntzarako eta formulazio propioetarako tarte gehiegirik utzi gabe, ideologikoki sakonagoak ziren lan antolakuntza moldeetan sartu barik. Zelan izan liderrak, ustezko efizientiaren izenean estu-estuan jarraitu zaionean eskema jakin eta arrotz bati?

Beste batzuen ustean, ez da falta izan borondate politikorik, bitarteko soziologiko eta kontzeptualak falta izan dira. Duela urte batzuk ez zegoen halakorik, ezta merkatuan ere. Beraz, ez zegoen aukerarik. Gaur bai, gaur jakintza soziologikotik ondorioztatzen diren bitarteko zehatzagoak ditugu, kasurako, EFQM famatua. Hala ere, zenbaitzuen ustean Arrasateko kooperatibismoak bereak diren formulak garatzeko ausardia behar luke, eta horretarako ikerkuntza propioa sustatzea ezinbestekoa da.

Borondate politikorik eza nabarmentzen duen puntu honetara helduta, bada aipatu den oso bestelako arrisku bat: gehiegi kritikatzeko, eta norbere ibilbidearen irakurketa negatiboegia egitea. Auto-kontzeptua salbatzearen aldekoa da ondoko pasartea, gauzak, egin, egin direlako, eta ibilbide aberatsa dagoelako lana duintzeko abiatutako egitasmo honetan:

«A mí me tocó con unos amigos también idealistas, viajar a Yugoslavia, a ver la autogestión yugoslava. El viaje fue catastrófico. Digamos que si comparamos, aquellos quedaban ahí abajo... Esa es una experiencia que la tengo vivida. Tampoco tenemos que ser masoquistas y darnos con el martillo en la cabeza. A veces la autocritica es tan fuerte que creemos que somos una mierda, así de simple. Yo no sé cómo están ahora las cosas.

Yo me acuerdo cuando estábamos discutiendo los planteamientos concretos de los documentos primeros de MCC. Yo tuve una discusión con el director gerente navarro este..., que planteaba el hecho de incorporar el concepto de dirección por objetivos. «¡No metas esto coño!»... Entonces ya estábamos con la calidad total, que nos iba a dar la instrumentación básica para llevarlo a cabo. No sabíamos cómo. Nosotros hablábamos de dirección participativa desde el año de la pera, pero no sabíamos cómo materializarlo (...) Estoy hablando de los años 90, hace 10 años. Luego se ha ido perfeccionando y captando más herramientas y al final se ha hecho un trabajo importante donde creo que hay un valor importante... (...) La posibilidad de que la gente realmente participe en el hecho del trabajo en su puesto de trabajo, era el primer problema que teníamos.»

2.2.3.8. *Herrigintzaz bi hitz*

Kooperatibimoa, berez, sustraitutako errealitatea da, tokian tokiko komunitateetan errotzen da. Arrasateko kooperatibismoak ageriko konpromisoa azaldu izan ohi du Euskal Herriarekin. Konpromiso hori nabarmenagoa izan da aurreko hamarkadetan, testuinguru politikoa, soziala eta, baita ere, ekonomikoa beste bat zelako. Gaur, jokaleku ekonomikoak munduan barrena hedatzera eramán du, eta horrek tentsioak sortu ditu garai bateko planteamenduekin: Euskal Herrian inbertitu, euskal herrigintzan jardun, eta Euskal Herriaren garapen sozio-ekonomikoan lagundu. Badago hemen azpimarratu beharreko beste galera osagai bat.

Horrek ez du esan gura garai batean mundu guztiak bizi zuenik herrigintzaren motibazioa, jakina. Nolanahi ere, bada berau esplizituki kuestionatzen duenik:

«Pues a mi [el tema del enraizamiento] no me ha gustado, como muchas cosas del trabajo éste. Primero, porque Don José María, yo recuerdo de él que siempre ha sido un hombre muy... O sea, ese concepto que se habla aquí mucho de País Vasco como país, yo no tengo ese reflejo de él. Don José María se refería más a la sociedad del entorno: cómo hacer una sociedad rica, cómo dar satisfacción a tu entorno. Yo recuerdo que discutíamos: ¿el entorno dónde está? El entorno tiene que ser amplitud de miras. No poníamos fronteras, aunque sea el País Vasco un entorno, y ahí donde estemos tenemos que ser generadores de desarrollo. Y ese concepto de país, yo creo que no era un lenguaje de Don José María. Eso quería decirlo, porque cuando leí esto, me he sentido..., me ha chocado con mi vivencia.»

Kooperatibimoa euskal-herrigintzarekin eta mundu ikuskera nazionalistarekin lotzea faltsutzat edo arriskutzat jotzen du zenbaitek. Arriskutsua da alderdikeriak ez baitio batere onik egiten barruan batasuna behar duen kooperatibismoari:

«Mira, en el tema del enraizamiento es raro que haya un planteamiento de país. En todo planteamiento personalista hay un enraizamiento por definición. (...) ¿El euskera como elemento de cohesión sociológica? ¡Habría sido el castellano!. Fíjate el esfuerzo que se ha montado para que el euskera sea el instrumento de comunicación y transmisión normal dentro de la cooperativa a todos los niveles. Lo cual me parece totalmente perfecto. ¡Pero, coño!, tendremos que decir que si ha habido alguna cohesión habrá sido el idioma castellano... Y sobre todo con el planteamiento que se ha hecho con el euskera, que ha sido politizado..., ¡todavía más discusión! Yo andaría con mucho cuidado, de la misma forma que hacía Don José María, de meter determinados planteamientos en la cooperativa que supusieron una división dentro. Yo creo que si algo ha habido en la

cooperativa ha sido unión. La gente no se ha politizado, la política la han dejado fuera. Nosotros aquí hemos tenido presidentes de cooperativas de HB, PNV, PSOE... y todo el mundo cuando era presidente se ha dedicado a la cooperativa y olvidándose de otros temas concretos. Y gracias a Dios se han olvidado, porque si no, hubiera traído problemas internos a la cooperativa y hubiera sido catastrófico. Entonces, yo creo que hay que andar con muchísimo cuidado. Y con lo del enraizamiento... Yo estuve hace muy poco con unos de las cooperativas de un pueblo de Jaén que hacen puertas y está todo el pueblo haciendo puertas. Y aquellos estaban hasta dentro metidos en el municipio, sacando el municipio adelante y enraizados en el municipio. Y había una empresa que era sociedad anónima que se estaba viniendo abajo, y la cogieron, la transformaron en cooperativa y salieron adelante. Pero claro, es normal, en todo planteamiento personalista eso es así. El capital es anónimo, hoy está aquí y pasado mañana está en Hong Kong. La persona no, la persona está donde está, donde ha nacido y donde ha pastado.»

Herrian sustraitzea alderdikierarekin lotzen da, eta horrek beldurra aktibatzen du. Politikoki zatituta dagoen herri batean, deslotura indarrak dira horiek, eta kooperatibak ere zatituta geratuko lirateke. Alderdiekiko eta politikarekiko mesfidantza hori Arrasateko kooperatibismoan beti presente egon den bizipena da.

Baina, galdera pizten zaigu: herrigintzaren kuestionatze moduko hori hain agerikoa izango ote litzatekeen duela urte batzuk? Testuinguru globalizatuak ez ote dakar Arrasteko kultura ekonomikoaren parte izan den herrigintza erlatibizatzeke aukera edo joera bat? Ez ote da zabaldu Euskal Herriarekiko atxikimendua kuestionatzeko orain arte existitzen ez zen tarte bat? Esperientzia globalizatu eta multinazional izae-rako batek ez ote dauka motibazio hori erlatibizatzeke beharizana, funtzionala izateari utzi dion momentutik aurrera?

Arizmendiarrietak herrigintzari buruz azaldutako jarrera ez da berdin baloratzen. Zenbaitentzat gauza guztien gainera pragmatiko bat zen eta «ez zuen sekula atarik ixten». Zirkunstantzia sozio-historikoen beldur bizi zen, eta gainera, argi zeukan proiektuek pertsonak batzen dituztela eta ideiek (edo ideologiek) deslotu; kooperatibak politizatzeari beldurra zion, sentsibilitate ezberdinen arteko talka gerta ziteke-elako eta alderdikieretan erori.

Nolanahi ere, protagonista askorengan herrigintzaren aldeko planteamenduak, lehenago ere ikusi dugun legez, oso nabarmenak izan dira, eta izaten segitzen dute:

«Yo tengo que decir que, desde un primer momento, el cooperativismo para mí se inscribe en una construcción del país. Para mí es indudable. Pero admito otro tipo de planteamientos. A mí me motiva muchísimo eso, y además creo que objetivamente está siendo verdad. Y esto está siendo captado. Euskal Herria lo capta. Tú empiezas a hablar y te dicen: ¿qué es el movimiento cooperativo? El movimiento del país, claro. Porque hay una localización, porque hay una reinversión de las cosas al mismo sitio, y eso es objetivo. Caja Laboral, Euskadiko Kutxa. Eso [la traducción al euskera] no salió así por casualidad. Y las inversiones aquí... (...) Cada vez que salía en una Asamblea General... todo el mundo decía aquí. No es ninguna casualidad. A lo mejor no se manifestaba tan expresamente, ni siquiera se podía hacer oficialmente, porque a lo mejor hubiese sido la guillotina. Para mí el problema está en qué vamos a pretender con la experiencia cooperativa; no le pidamos más de lo que pueda dar: «y es un auténtico fracaso, y es una traición a la causa, y es no sé qué y tal, y estos han dilapidado todo un patrimonio que podía haber sido una maravilla...»»

Naziogintza eta kooperatibismoa eskutik helduta joan diren bi bizipen izan dira askorentzat, aurreko pasarteetan ikusten den moduan. Baina, pasarte horretan beste zerbait ere iradokitzen da: gaurko baldintzek, globalizazioak, ez du kuestionatzen Euskal Herriaren aldeko hautua, eta gainera, kuestionamendu horren kontrako aldarria egiten da. Testuinguru globalizatua aukera bat da Euskal Herriari zerbitzatzen jarraitzeko.

Halere, herrigintzaren aldeko hautuak ahultasun estruktural bat dauka, eta, gehiago ala gutxiago, beti izan du: herriaren aldeko apustu hori modu agerikoan eta publikoan aldarrikatzeko zailtasunak (edo ezintasuna). Nabarmena da: Euskal Herriak bizi duen testuinguru gatazkatsuan (maila politikoan, kulturean, sozialean, identitarioan, eta, baita ere, armatuan), eta AKE-k espainiar estatuan dituen interes ekonomikoak kontuan hartuta, euskal kooperatibismoari neutraltasuna fin gordetzea dagokio. Euskal Herriaren aldeko hautua ezkutatzea ere bai.

Horregatik, kooperatibismoak naziogintzarekin duen lokarria, gero eta gehiago, hautu eta zentzu pertsonalen planoan gerta daiteke. Azken urteotan AKE-ren zenbait enpresek Espainian dituzten interes ekonomikoak haziz joan dira (Eroski kasu paradigmaticoa da), eta horrek herrigintzaren motibazioa lurralde pertsonalagoetara bultzatzen dezake, lurralde pribatuagoetara, bere esplizitazio garbiak gero eta zailtasun handiagoak aurkitzen baititu eremu publikoan.

Euskal Herriaren aldeko hautua lurralde pertsonalagoetara eraman daiteke (espazio publiko kooperatiboa naziogintzaren motibazioaz nolabait hustuz), edo herrigintzaren aldeko motibazioak biguntzeko eta erlatibizatzeke joera gailen daiteke. Bada, herriarekiko elkartasuna edo atxikimendua elkartasun ezaren sinonimo gisa ulertzen duenik. Bira kopernikanoa Arrasateko kultura ekonomikoan.

«Cuando oyes la solidaridad de enraizamiento, digo: casi ésa es la insolidaridad. (...) Si quieres hacer esa solidaridad eres insolidario con otros. Por lo tanto, creo que el enraizamiento cada vez es menor porque las sociedades se van abriendo y nosotros también, y creo que eso es bueno. Donde vosotros [ikertzaileok] percibís algún problema no hay ningún problema. La corporación se está abriendo, las cooperativas se están abriendo, internacionalizándose, y eso es perfectamente compatible con la afección que uno tiene por su país. Pero no le llamaría solidaridad.»

Ikuspegi horri bagagozkio, Euskal Herriarekiko konpromisoa elkartasunaren sinboloetako bat izatetik, elkartasun ezaren zantzu izatera pasa da, edo gutxienik sumoepen egotera. Kooperatiba esperientzia hedatzen doan heinean, bere konpromiso eta atxikimenduak ere hedatzen doaz: herri atxikimendu eskusibo batetik, askotariko atxikimendu baterako bidea egiten ari da. Jatorrizko nazioarekiko eskusibitateak eta gehiegi sustraitzeak elkartasun eza adieraz dezake. Aipatutako logika muturrera eramananda ondoko sententzia bitxiarekin aurkituko gara: «Somos más solidarios cuanto menos nos enraizamos». Esperientziaren euskal nortasuna, historiako datu gisa geratzea eragin dezakeen atea zabaldu ote da?

Ildo beretsutik, euskararen aldeko apustu garbiegi batek nolabaiteko egonezina sortzen du, eta horren aurrean euskal erroak bestelako sustraitze eta sentsibilitate batzuekin konpartitzearen aldeko deia luzatuko da:

«Hutsune bat badago testuan. Gure erroak ez daude toki batean bakarrik kokatuta. Adibidez, euskararen inguruan. Euskara gure hizkuntza da, baina beste hizkuntza batzuk ere badaude korporazioan eta balio bera dute hizkuntza guztiek. Limitazio bat dago; noski, euskara da gure hizkuntza, baina protagonista guztiena ez da.»

Euskararen aldeko hautua egiten den antzera, tokian tokiko hizkuntzen aldeko hautua egin beharko litzateke. Euskal sustraitzea ordezkatua behar da izan, eta bere lekuan tokian tokiko sustraitzea burutu:

«Euskaltzaindiak eskatuko baligu dirua, ba, pentsatu beharko genuke, baina balorazio positiboa egingo genuke. Eta Real Academia Españolak eskatzen badigu, Madril-eko kooperatibisten bidez? Eta Marruecosen? Desafio berriak mahai gainean jartzen ari zaizkigu. Guk Eroskin balore definizioak egiten ditugu gure jendearekin. Gaur egun ezberdina da orain urte batzuk baino, eta hemendik urte batzuetara diferentea izango da, derrigorrez. Guk ditugun baloreak inposatzen ahalegintzen bagara oker gabilta, erresistentziak agertuko zaizkigu. Protagonista berriekin gure baloreak mahai gainean jarri eta erabakiak hartzen hasi beharko dugu.»

Arrasateko kooperatibismoak beste garapen eredu bati erantzungo lioke, zenbaitzuen ustean. Bestelako garapen horrek ezberdintasun nabarmen bat izango luke garapen eredu «ofizialarekin» alderatuz gero: baloreak. Arrasateko kooperatibismoak beti erantzun izan dio gutxieneko balore gorputz bati. Baloreetan gutxieneko adostasun bat egon izan da, jatorri ezberdinekoak izan badira ere: genesian jatorri kristaukoak; herrigintza geroago; eta balore sozialistak, eta baita ere marxistak. Balore horiek baliotsuak eta baliagarriak izaten segitzen dute, akaso sekula baino gehiago.

«Es que dentro de ese mundo occidental nosotros aceptamos determinados valores, otros no. De hecho, nuestra experiencia está recalcando determinados valores que no tienen nada que ver con los valores predominantes... Yo creo que unos valores que son permanentes, otra cosa es la dedicación que le damos a eso... Ha habido una gran concentración de esfuerzos, desde distintos orígenes, incluso ideológicos, motivaciones... desde un planteamiento de tipo cristiano que puede ser en origen posiblemente muy definitivo hasta otros: un proyecto de defensa de este país, de construcción de este país; un planteamiento más socializante también, incluso ideológicamente marxista en su día. Existe una idea fundamental en la que está de acuerdo mucha gente de procedencias diferentes, y son los valores cooperativos que siguen siendo válidos. (...) yo creo que los valores cooperativos tienen la vigencia que podían tener a comienzos de la revolución industrial, incluso más. Estoy de acuerdo en que no sólo el modelo socialista-estatal-comunista ha fracasado... Yo entiendo lo de la indignación ética. Suena muy esto, pero quieras o no, yo creo que queríamos otra cosa, seguimos queriendo otra cosa.»

2.2.4. Etorkizunaz eta kooperatibismoa mundu berri batera ireki beharraz

2.2.4.1. Globalizazioa eta nazioarteratzea

Merkatu globalizatuak baldintza historiko berriak ezartzen ditu, inoizko baldintzarik gogorrenak, merkatuaren koakzio boterea biderkatu egin baita:

«Gakoa da non dagoen mundu hau. Multinazionalak gogorak dira tratatzeko, oso ezberdinak. Sistema osoa hartuta gu ez gara ezebez. Interesik ere ez du pizten. Izan dai-teke postura defentsiboa izatea, baina mundua hain da gogorra..., eta merkatua gutzient-ztat da berdina.»

«Hain da garrantzitsua momentu honetan garapen enpresariala, ze piskat deskuida-tu ezkerro desagertzeko arriskua bada.»

Garbi dago Arrasateko kooperatibismoak gaur bizi duen tentsio gune larri bat nazioarteratzeak ekarri duela, kanpo ezarpenek aurreko hamarkadetan erreferenteak izan diren hainbat printzipio eta jokamolde apurtzen baitituzte. Hori dela eta, zenbait-zuen iritzian bestelako kooperatibismo eredu bat mamitzen ari da, egitura juridiko ezberdinak nahasten dituen.

Kooperatibismoa eta nazioarteratzea termino kontrajarriak direla esan daiteke, kanpo ezarpenak ez baitira formatu kooperatiboan ematen ari, eta gehien iritzian ia ezinezkoa da hala gertatzea. Baina, horren inguruan zerbait egin beharra aipatu ko-da, Arrasateko kooperatibek enpresa hedapena beharrezkoa duten moduan, koopera-tibismoaren hedapena ere kontuan hartu beharrek o iparra baita.

Hasteko, globalizazio garaia kokapen berria dakarkigu, eta mentalki egoera be-rrira egokitzea eskatzen du. Horixe litzateke lehendabiziko egin beharra: testuinguru berriaz jabetu, eta pentsamendu oinarriak berriitu globalizazioaren argitara.

«Nuestro espíritu siempre ha sido igualdad de oportunidades y reconvertir resulta-dos, la distribución de la riqueza. ¿Eso hoy en día no exigiría un pensamiento más a nivel mundial? ¿Cómo podemos despegar a otros países? ¿Cómo podemos transferir renta? ¿Cómo colocar ayuda para que las cooperativas se desarrollen? ¿Únicamente haciendo cooperativas, o también de otras maneras? Eso es lo que yo creo que nuestro espíritu hoy exige, porque hoy estamos en otra dimensión... Buscar algo que permita transferencia de renta, ayuda a otros países... Es lo que en estos momentos no tenemos.»

Mundu globalizatuak, besteak beste, kanpoko eragile kooperatiboekin harremanak indartzea eskatzen du, horrek sustraitzearen printzipioa biguntzea ekarriko balu ere. Nazioartean, egon badago kooperatibismoaren aldeko eragilerik, Arrasateko koopera-tibismoak oso begi onez sekula ikusi ez baditu ere. Munduko eragile kooperatiboekin izandako harreman eskasia nabarmena da. Askok uzkur segitzen dute nazioarteko gai-negitura instituzional kooperatiboekin lankidetzan jarduteko aukeraren aurrean:

«... ezertarako balio ez dutelako. Hortik ez da ezer ataritzen.»

«Yo creo que la primera pregunta suele ser: ¿qué nos van a aportar estos? Nada.»

«Nazioarteko erakunde kooperatiboetan jendea ez da kooperatibista. Funtzionarioak, akademikoak dira, baina kooperatibista bat ere ez. Igoal 20 pertsona han eta soldata ez du inork kooperatiba batetik irabazten... Zu bakarria, hemeretziaren artean. Joder, pues te niegas a seguir hablando. Yo de esas cosas huyo como de la peste. Al final los 19 observándome a mí.»

«Horrelako erakunde asko sortu dira politikoen laguntzarekin, politikoen finan-tziazioarekin, eta gizarteari eta politikoei begira dagoz, eta ez enpresari. Eta bizi dira, askotan, printzipioak gora printzipioak behera... prozesu eta erreflexio guztiz dogma-tikoekin, inolako harremanik ez dutenak errealitatearekin. Tristeia.»

«Gure parekoak direnak bakar-bakarrik batzuk dagoz mundu osoan: Israeleko Kibbutzekoak. Harek bai. Eta enpresak deukiez eta problema enpresarialak deukiez,

guk baino askoz be gogorragoak dira, han ez dago ez soldatarik ez arraiorik. Haiekin bai hitzegin ahal dugu... Harek bai, bere lanetik bizi dira. Beste guztiak mundu osoan topau duana, teoria hutsa.»

Asko, beraz, epel eta uzkur azaltzen da nazioarteko egitura kooperatiboetan esku hartzeko aukeraren aurrean. Batzuen iritzian, aldiz, errezeloak alde batera utzi eta garaia da nazioartera irekitzeko, mugimendu kooperatibista globalean esku hartuz.

«... posiblemente hay que empezar por influir en los altos ejecutivos políticos, para que existan leyes adecuadas para poder hacer cooperativas.

Nuestro planteamiento ha estado muy enraizado. Yo creo que es una característica pura del cooperativismo, porque al ser sociedad de personas que se enraíza están las comunidades y allí se enraíza.... Yo creo que es correcto porque el capital es absolutamente impersonal, y se mueve de aquí para allá sin contemplaciones. Pero ese enraizamiento también ha sido, ha tenido una oferta negativa: en general no hemos sido dados a tener relaciones más allá de nuestras fronteras en muchísimos años. Porque claro, una forma de internacionalizar o una forma de atacar la problemática global que existe a nivel mundial es hacerlo a través de organizaciones cooperativas que hay a nivel internacional. Ahí está la ACI. (...) Utilicemos esos canales, porque a nosotros se nos tiene mucho respeto. Yo creo que a través de esto sí podemos hacer cosas, si intentamos hacerlo desde nuestra pequeñez, porque a nivel mundial somos muy pequeñitos, vamos a conseguir pocas cosas... Pero hemos sido bastante reacios a hacer eso...»

Nazioarteko Kooperatiba Aliantzak (ACI) 760 milioi kooperatibista hartzen ditu bere baitan, esango zaigu, eta munduko Gobernu Kanpoko Erakunderik garrantzitsuena da. Mundura irekitzeko eskaera esplizituaren aurrean gaude, enpresa makinaria egokitzetik aparte, globalizazio garaian izaera kooperatiboaren hedapenak estrategia berriak behar baititu. Beste batzuentzat, ostera, munduko kooperatibista kopuruaren zifrak tentuz hartu behar dira: «700 milioi horretatik zenbatek jakingo dabe kooperatibistak direla? Zenbatek du horren kontzientzia?»

Esan dugun moduan, globalizazioa —enpresen nazioarteratzea— eta kooperatibismoa termino kontrajariak direla. Baieztapen horrek egiaren zati bat adierazten badu ere, kooperatibismoaren eta globalizazioaren arteko harremana konplexuagoa da, baita positiboagoa ere. Izan ere, globalizazio garaian, kooperatibagintzak dakarren garapen komunitario eta autonomoak bikain erantzuten die hirugarren munduko beharrezan. Mundu globalizatuak mugimendu kooperatibista behar du, kooperatibagintzak onura handiak baitakarzkie hirugarren munduko komunitateei.

Zenbaitentzat, formula kooperatiboak gizarte garatuetan hobeto loratzen dira gizarte pobreetan baino:

«De hecho las cooperativas, se suele decir que funcionan mucho mejor en las sociedades desarrolladas y más igualitarias que en las menos desarrolladas y con más diferencias. Obviamente. Estamos para los ricos más que para los pobres casi-casi. Lo digo de cachondeo pero es verdad. Y lo cierto es que uno cuando va a EEUU ve cantidad de experiencias cooperativas o pseudo-cooperativas que están funcionando. Muchísimas consultorías están organizadas de esta manera o parecida. No le llaman cooperativa pero prácticamente es un sistema de una persona un voto.»

Zenbaitetan, beraz, ez da kooperatibismoaren desfuntzionalizazioaz hitz egiten, guztiz kontrakoa baino: kooperatibismoak erantzun baliotsua izaten segitzen du hirugarren munduan, nola lehenengoan:

«Es decir, señores: no estamos solos para transformar el mundo porque hay muchísima gente [700 millones de cooperativistas]. Y además, desde una visión general yo creo que el movimiento cooperativo se ve como una necesidad afortunadamente. En los países en vías de desarrollo carecen de un desarrollo autónomo, un desarrollo auténticamente comunitario.... Y, por otro lado, en los países desarrollados, por primera vez resulta que el valor humano es el valor competitivo más importante, además con sus valores... Coño, por primera vez un planteamiento ético empieza a ser una necesidad.»

Azken aurreko pasartean entzundakoa dagoeneko ezaguna zaigu: imaginario baikorraren balorazioetan helduleku garrantzitsua da lehen munduan hedatzen ari den *management* modernoa eta enpresa kultura berria. Behingoz, planteamendu etikoak modan daude, eta beharrezkoak dira. Lehen munduari zein hirugarrenari begiratuta, globalizazio garaia erakargarria da.

Mezu itxaropentsua da aitatu berri duguna. Kooperatibismoa etorkizuneko proiektu eta subjektu historiko gisa irudikatu eta (bir)kokatzen du. Globalizazio garaian ekarpen interesgarri eta konprometitu egiteko potentziala ikusten zaio. Desfuntzionalizaziotik urrun, globalizazioak berfuntzionalizatu egingo du kooperatibismoa munduan. Berrero ere, aztergai dugun diskurtsoak berezkoa duen alderdi baikorra erakusten duenean, kooperatibismoaren arrazoi eta balio historikoa konfirmatuta aurkitzen dugu.

Horretarako, mundu mailako kooperatibismoarekin aliantzak garatu behar dira. Zerbait egiten da norabide honetan, baina ez da nahikoa. Kreditu kooperatibak, zein Eroskiren kasuan..., aukerak egon badaude. Merkatuak eta produktuak ikertzen dabil-tzan komertzialek mapa kooperatibistarekin ere jokatu beharko lukete.

«Yo creo que se está haciendo más pero todavía no creo que hagan mucho juego en ese terreno. (...) Las cooperativas de crédito en Europa pueden tener también si se unen, y de hecho ya andan haciendo ese tipo de cosas. A nivel de empresas industriales eso es más complicado. (...) Eroski tiene una gran posibilidad de hacer cosas. (...) Ahora empiezan a hablar. Hace poco, por ejemplo, yo he sido testigo, han estado 12 tíos de las mayores organizaciones cooperativas de Suecia, y tenían los ojos que les hacía «bris-bris» viendo los supermercados de Eroski. Claro, ellos tienen Hipermercados de hace 30 años, quieren actualizarlos, querían llevar a Eroski allí por narices. (...). Cuando vieron Garbera..., no podían concebir... (...) A veces no utilizamos habiendo base de datos, a veces no hay bases de datos. Yo creo que los comerciales tienen que empezar, y los hombres que analizan los mercados, los productos y tal, a la hora de buscar alianzas, «pues nos interesa una implantación en el norte de Europa». Habría que mirar qué hay de cooperativas.»

Kooperatiba bakoitzaren zeregina baino, zenbaiten ustean kooperatibismoaren mundu mapari adi egotearen lana MCCrena litzateke. Beste batzuen iritzian, etorkizuneko erreferentzia nagusia «gizarte ekonomia» da. Neoliberalismoari kontrajarritako proposamena eraiki daiteke izaera pertsonalista duten bestelako enpresa batzuekin bat eginik. Horretarako, Europako administrazioak inplikatzeari lortu behar da, eta aniztasun juridikoaren arazoari aurre egin, zailtasunak handiak izan arren.

Nazioarte mailako auziez identifikatzera deitzen da hainbatetan. Esperientziak enpresa hazkuntzaren ikuspegitik testigantza garrantzitsua eman du, baina horretaz gain, efikazia ekonomikotik haratagoko baloreak ditu, hots, irizpide instrumental hutsetatik haratagoko elkartasun logika batzuk. Era horretarako esperientzia bat baliagarria izan daiteke mundu zabalean.

«Nuestras relaciones siempre son de crear cooperativas, reconvertir dentro del mundo empresarial. Somos un grupo empresarial, aparte tenemos unos valores que trascienden lo empresarial. Con esos valores y con la riqueza que tenemos, ¿no podemos ponerlo a disposición de otros pueblos para que se desarrollen?»

Bere zilborrera begira bizi izan da Arrasateko kooperatibismoa, nazioarteko eragile kooperatibistetatik zertxobait aldentuta, baina testuinguru globalizatuan, nazioarteko eszenategiak protagonismo handiagoa hartzen duen honetan, beharrezkoa da mundura begira jartzea ez soilik prozesu produktiboak dituen beharriari erantzuteko; baita ere, konpromiso kooperatiboak gaur hartzen duen dimentsio eta kokapen berriari begira. Zentzu horretan, nazioarteko eragileekin aliantzak egin eta maila horretan inplikatu beharra aipatuko zaigu behin baino gehiagotan, eta nolabaiteko sendotasun ekonomikoa bizi denez (80 hamarkadako industri krisitik urrun) une egokia da horretarako. Zenbaiten ustean, esaterako, martxan jarri beharko litzateke esperientzia mundu zabalean transmititzeaz arduratuko litzatekeen egituraren bat.

Norabide horretan, aipatua dugu Europako Ekialdeak eskaintzen dituen aukerak. Herrialde komunista ohietan ekonomia pribatizatzen ari da eta estatuarenak izandako kooperatibak aliatu bila dabilta; euretako asko kooperatiba industrialak dira. Euskal Herria eta MCC foku interesgarriak dira, duten esperientzia industrialagatik eta kooperatibismoaren euskal legedi aurreratuagatik:

«Hay unas posibilidades de colaboración importantísimas en una economía que está privatizándose. Unas cooperativas que en su día han sido del estado, absolutamente desprestigiadas y que en este momento necesitan del cooperativismo europeo. Y no es ninguna casualidad que, de repente, haya muchas cooperativas industriales, posibilidades de cooperativismo industrial, que empiezan a mirar allí donde hay cooperativismo industrial: norte de Italia, Francia, nosotros... El País Vasco y MCC para ellos es un foco increíble. Aquí tenemos ese ámbito de la cooperación internacional.»

Badirudi Europako Ekialdearekin bestelako enpresa-hedapen eredu bat martxan jarri litekeela, nazioarteratzea eta kooperazioa, beste behin ere, osagarri eginez.

Kontua da, gainera, nazioarteratze prozesuan Arrasateko kooperatibismoa irekita egon beharko litzatekeela formula juridiko ezberdineko enpresak naturaltasunez integratzeko, formula juridikoa ez baita izaera kooperatibista definitzeko irizpide bakarra, enpresak defendatu eta erabiltzen dituen baloreek ere izaera kooperatibista eman ala kendu dezakete. Hots, posible da enpresa-formula ez-kooperatibista batek (ikuspegi sozietario-juridikotik), izaera kooperatibistari eustea. Arrasateko kooperatibismoaren baloreak eta kudeaketa eredu hainbat formula juridikotan gorpuztu daitezke: sozietate anonimoan, sozietate anonimo laboralean... eta abar. Behar dena zera da: beste herrialde batzuetako jendea modu juridiko batean ala bestean integra-

tzeko borondate politikoa. Formula juridiko ezberdinetara irekita ez egotea kontserbadurismo seinale nabarmena da.

«Y ahí es donde podríamos sufrir el conservadurismo. El conservadurismo de que cooperativa es este tipo de estatutos y no es otro tipo de estatutos y otra forma de funcionar. Y ese conservadurismo lo podemos tener instalado dentro en todos los niveles.»

Nazioarteratzeak estrategia bat eskatzen du, ez soilik irizpide ekonomikoetan oinarrituko dena. Bestelako irizpiderik integratu beharko litzateke, eta euretako bat erregio-garapenari lotzea izan daiteke. Hots, puntualki, han eta hemen enpresa-ezarpen solteak garatu beharrean, erregio baten garapenarekin konpromisoa hartzen saiatzea litzateke ipar posible bat.

«El otro día hablando de este tema en esa comisión que tenemos... decíamos, ¡coño!, lo ideal para empezar sería que cuando estemos haciendo las inversiones también, si fuera posible, pues tuviéramos una cierta concentración territorial, porque claro, qué coño de solidaridad regional vas a hacer si tienes una cosa aquí y otra a 2000 kilómetros, y cada cosa son cosas pequeñas. Y claro, ahora estamos haciendo así, un punteo, no hemos establecido una cierta estrategia regional de decir: oye, pues vamos a estar en México no sé dónde, o en Polonia no sé dónde... Porque si no, la incidencia real que vas a tener va a ser anecdótica siempre.»

2.2.4.2. *Euskal Herrian ere kooperatibismoa ireki beharra*

Mundura «ireki» beharraz ari gara, hainbat direlarik horretarako bideak: nazioarteko gainegitura kooperatiboekin harremanak estutu; munduko kooperatiba ezberdinen artean enpresa-aliantzak sustatu; kooperatiben artean era guztietako harremanak bultzatu, ez soilik harreman komertzialak; esperientzia mundu zabalean transmititzeaz arduratuko litzatekeen egitura sortu; formula juridiko ezberdinetara irekita egon, eta abar. Kooperatibismoa bestelako mundu batera «ireki» beharraz mintzo zaizkigu, izan ere, munduarekin batera kooperatibismoa aldatu behar baita. Eta beharrezkoa den irekitze horretan, Euskal Herrian ere antzeko planteamenduak dituztenekin sinergiak bilatzeko aukeraz berba egingo zaigu.

«Nik uste dot hobetu egin dala azken urteotan, baina urte askotan egon gara gure gauzekin oso arduratuta eta ez deusagu jaramon haundirik egin geure alboan egon direnei. Hori azken bi urtetan-edo apur bat aldatu egin dala esango neuke. Zenbat bider ASLEkoekaz eta SALEkoekaz itun bat lortu gura eta... Ez neuke esango endogamikoak garela, baina bai, bakoitzak behar asko daukanean...»

Izaera itxia duen esperientzia da Arrasatekoa, horren fama dauka eta kritika hori maiz jasotzen du, azken urteotan irekitze garrantzitsu bat gertatu bada ere. Beste esperientzia batzuekin elkarlana bideratzea positiboa litzateke, beste garai batean Valentziako talde kooperatiboarekin bezala. Erregio-garapenerako programetan kooperatzea egokia litzateke, horixe baita Arrasateren ezaugarrietako bat, erregio bat sustatzeko gaitasuna, hain zuzen.

Irekitze horretan, garaia da enpresaren birmoldaketatik gizartearen berrikuntzara igarotzeko (Joxe Azurmendiren formulazioa erabiliz). Hots, komunitate auto-eratu-

go bateranzko bidea hartzeko garaia. Baina, mundu ekonomikoan kokatzen ez diren elkarte, gizarte erakunde eta esperientziekin ez da elkarlanik bideratu. Inguruarekin harremanak mugatuegiak izan dira, euskararen munduarekin izandako harremanak salbu, eta hor badago bete beharreko hutsune bat:

«Nuestra relación, nuestra capacidad de ósmosis con el entorno es una relación limitada. No admitimos demasiado las interferencias que nos puede provocar el mundo asociativo, no digo del mundo de los políticos, que creo que hay cierto divorcio, porque como no estamos en la parte en la que podamos vincularnos a una estrategia de partido, pues creo que nos consideran un poquito aparte. O con los sindicatos lo mismo. Pero en el espacio de organizaciones sociales de nuestro entorno, nuestras relaciones son escasas. Salvo, tal vez, con el mundo del euskera, donde ya hay más organización y más centrada. Pero en las demás cuestiones, organizaciones de vecinos, u organizaciones de consumidores en nuestro caso [Eroski], no son muy estrechas. Incluso son mayores fuera de aquí, en Madrid o en Santander. Aquí podríamos tener un cierto déficit.»

Arrasateko kooperatibismoa itxita dagoen «klub fin» gisa ikusten duenik ere bada. Klub hori ireki beharraz mintzo zaizkigu, kooperatiba txikientzat ateak irekita uztearen garrantziaz, garai batean Euskadiko Kutzak kooperatibismoa sustatzeko egin zuen ahalegina oroituz.

«Está claro que el desarrollo de la base que tenemos va a ser un desarrollo internacional, y eso nos lleva a sociedades anónimas. Eso es evidente. Pero claro, si quieres meter nueva simiente cooperativa, pues hombre, probablemente hacer una cooperativa de 200 es una ilusión. Pero bueno, nosotros somos un club muy selecto ¿eh? Si no abrimos un poco ese concepto de club y si no permitimos que sociedades cooperativas que serán de 14 o de 12, que luego serán más, se vayan metiendo, pues entonces claro, evidentemente estaremos en la misma situación. Yo creo que ahí deberíamos reflexionar. (...) Es decir, las personas que están poniendo pequeñas cooperativas, nosotros a eso tenemos que darle un ropaje, un apoyo... Es decir, esos por definición no pueden entrar en la corporación. (...) Nosotros tenemos que animar este proceso. Tú mira la historia del cooperativismo, la acción de Caja Laboral en su momento. Nosotros tuvimos una acción abierta y por eso se fueron haciendo estas cosas. Eso lo hemos cerrado, amurallado, ¡pero vamos, como la muralla china, igual!»

Itxitasun edo itxikeria hori gaingitu beharra dago, eta ingurunea auto-eraketaren bidetik eraldatzeko prest dauden bestelako eragileekin elkarlana bideratu. Besteak beste, ez da ona harri bitxi bat izatea, inguruan bidaide barik, logika antzekoak erabiltzen dituzten bestelako eragileei ezer eman eta beraiengandik ezer jaso barik. Bakar-dadea arriskutsua da, egoera horretan zailago baita norbere identitateari eustea.

«No es bueno para nuestra realidad el ser una perla rara. No nos viene bien. Sentimos..., el no tener otros modelos, otras referencias con las que compararnos, de los que recibir y a los que dar, es un riesgo. Podemos llegar a eso, a ser como los demás tanto que no haya ninguna diferencia entre una cosa y la otra. Yo no había reflexionado sobre ello, pero por lo que hemos derivado me parece que una buena postura puede ser perfectamente la de abrir MCC. MCC hoy en día es un movimiento económico, con solamente una plasmación económica. Si fuera más abierto y pudiera tener otras realidades dentro, esas mismas realidades tendrían su dinámica, y esas mismas realidades sí podrían plantearse unas metas que, desde luego, desde el MCC actual no nos vamos a plantear: el de hacer que nuestro entorno sea más cooperativo.»

Dimentsio ekonomiko hutsetik haratagoko beste zer bait eskatzen zaio Arrasateko kooperatiba esperientziari, eta zehatzago, korporazioari. Logika ekonomiko eta sozialaren artean bestelako orekak mantentzen dituzten errealitateei lekua utzi behar zaie, eta korporazioaren ateak ireki. Valentzian energiaren banaketarako kooperatibak daude, eta antzeko aukerak ugariagoak izango dira etorkizunean liberalizazioei esker; kulturaren munduan beste horrenbeste; izan ere, Katalunia moduko herrialdeetan, esaterako, kulturaren industria neurri handi baten kooperatiba bidez bideratzen da.

Beraz, Euskal Herrian bestelako sektore eta jarduera ekonomiko-sozialetara «irekitzeko» beharra aipatuko zaigu, korporazioa ireki eta bestelako apustuetan inplikatu.

«Yo creo que ha llegado el momento. En este momento estamos consolidados y empieza a haber alguna sintonía que me agrada muchísimo. Pero yo creo que ha llegado el momento de que entremos en algún proyecto de cooperación internacional. (...) Diría más. Aquí en Euskadi tenemos capacidad de desarrollar cooperativismo fuera del ámbito en el que está MCC, invirtiendo muy poco y poniendo muy pocos recursos. En el ámbito de las cooperativas de servicios personales, por ejemplo. Es un mundo enorme. En todo el Occidente se está desarrollando de una manera increíble, en los países subdesarrollados, en forma cooperativa, porque coinciden muchísimas cosas: servicio a la comunidad local; personas, el valor fundamental es la atención a las personas (cuidar ancianos...). Normalmente tiene que ser vocacional, tiene que ser por alguna idea. Ese tipo de respuestas las está dando el cooperativismo. Está en crisis el estado de bienestar. Muchísimos servicios los van a desarrollar otros. Tenemos que ser capaces de desarrollar eso y quizá en MCC estamos demasiado concentrados en el mundo empresarial, llamémosle, directo. Con pocos recursos creo que podemos ayudar: el cooperativismo de vivienda en Euskadi tiene una aceptación tremenda.»

Ongizate Estatuaren krisiak aukera berriak zabaltzen ditu, eta aukera horietan uztartuko lirateke kooperatibismoak berezkoa duen bitasuna: enpresa izaera eta komunitateari zerbitzua, arrazoi instrumentala eta baloreak. Ongizate Estatu zenbait arduetatik erretiraten ari den honetan beharrezkoa da erantzun humanista bat, ez negozio ikuspegia huts-hutsean, gaur egiten ohi den moduan, baizik eta enpresa zorroztasuna komunitatearekiko konpromisoarekin uztartuz.

Arrasateko kooperatibismoa industriaren munduan zentratu da, munduan zehar oso gutxik egin dutena. Baina, munduan zehar gizarte bizitzako bestelako eremuak kooperatibizatu diren bitartean, enpresa ikuspegiari hain lotuta ez dauden eremuak alegia, gurean ez da halakorik gertatu. Esate baterako, bestelako herrialde batzuetan, Mondragon Unibertsitateko erakundea den Bitori ikasleen egoitza bezalakoak ikasleen eskuetan daude, formato kooperatiboan, unibertsitateko ikasleek gidatu eta kudeatuta.

Bestelako sektore horietara irekitzea, motibazio sozialagoak dituzten ekimenei ateak zabaltzea, etorkizuneko ildoetako bat izan liteke.

«Por las experiencias cooperativas que he conocido por el mundo, lo nuestro se caracteriza bastante por el desarrollo en el ámbito industrial. Pero por ahí encuentras precisamente cooperativas en todo ese tipo de actividades, cooperativas de mayores, de

jóvenes, de mujeres... Muchísimas más cosas. Nosotros estamos un poco contaminados, en sentido positivo, pero contaminados en hacer cooperativas en el mundo muy-muy económico, vamos a decir, muy en el mundo económico-empresarial. Pero existen cantidad de movilizaciones ciudadanas en el ámbito cooperativo mucho más ricas. De hecho las cooperativas son más ricas en este tipo de cosas, quitando las de consumo y algunas financieras, que en el mundo industrial como somos nosotros. Y hay cantidad de fenómenos que a mí no me parecería malo el fomentarlo... (...) Creo que sería bueno fomentar una riqueza asociativa, cooperativa, también aquí [en nuestro país] en otros ámbitos.»

Zerbitzu sozialen eremuan kooperatiba ugari sortu da beste herrialde batzuetan, Italian esaterako, eta hortik jo beharko luke baita ere euskal kooperatibismoak, eremu horietan kooperatibismoa ez baitago presente, ez behintzat Arrasateko kooperatibismoa.

Maila lokaleko zerbitzu pertsonaletan esperientzia berriak eraiki beharko lirake, MCCren laguntza instituzionalarekin. Interkooperazio proiektu itzelak bilatzeaz gain, MCCren laguntza txikiakin errentagarritasun handiko proiektu txikiak jarri daitezke martxan, eta, aldi berean, gizarte beharrianekin bat datozen enpresa proiektuak sortu.

Bestelako errealitate horiek aberastu egingo lukete Arrasateko Kooperatiba Esperientzia, berau nolabaiteko joera endogamikotik atera eta sormenerako gaitasuna sustatuko litzateke.

«...en la medida en que tengas gente de diferentes ámbitos, luego se te presta mucho más a una cierta capacidad creativa incluso de hacer cosas... No sé, creo que puede abrir otro mundo. Si no, nos quedamos nosotros con un mundo muy, muy monocultivo. Lo mismo cuando decimos que es positivo que estén las tres divisiones, o los tres grupos. Yo creo que eso le añadiría también una cierta riqueza. Y desde luego en los valores, se van a compartir los valores perfectamente. En eso no va a haber ningún problema.»

Arrasateko kooperatibismoa odol berritzeko eskaeren aurrean gaude. Horrek kooperatibismoaren berritze aberasgarria ekarriko luke. Beste kontu bat da korporazioa zenbaterainoko inplikatu beharko litzatekeen; zuzen inplikatu ala zeharkako laguntza eta inplikazioa garatu beharko lukeen. Edozelan ere, modu batera edo bestera, korporazioa ez litzateke izango gaur dena, beste zerbaiten aurrean geundekede, baina kooperatibismo ikuspegitik sendo aberastuko litzateke eta horixe da inporta dena.

Ildo horretatik, etxebizitzaren arazo larriak osatzen du ekinbide kooperatiborako eremu pribilegiatua: etxebizitza merkeagoak egiteko aukera, teknikoki hobeak... Programa politiko guztietan lehendabiziko arazoa dugu. Lehen mailako arazo ekonomiko-soziala da, enpleguaren arazoarekin batera. Esango zaigunez, etxebizitzaren arazoa egun eskandalu hutsa da, espekulazioak agintzen baitu, eta gizartea ez da gai erantzun egokirik emateko. Kooperatibismoaren munduak ekarpen handia egin dezake arlo honetan. Kooperatibistak eurak dira arazoa dutenak, baina horrek ez du kentzen mundu kooperatiboa instituzionalki busti behar ez denik: laguntza instituzionala emanaz, prestigio irudia, oinarrizko planifikazio bat, alternatiba kooperatiboa sozializatuz eta enplegua sortuz, eraikuntza-enpresei fretoa jarriz enkanteetan...

Erantzun «oso interesgarriak» eman daitezkeela esango zaigu, eta diskurtsoaren tonuan, zeregin horrek epika ukituak ere bilduko ditu, herriaren aldeko borroka gisa ere planteatuko baita: «estar dispuesto a luchar en este país.»

Finean, arrazoi kooperatiboaren hedapena eskatzen da, berau planteamendu berrietara irekitzea: negozioaren irizpide hutsetik haratago, gaurko beharrian sozialei begirako jarrera irekiago bat. Aipatutako alorrek espiritu kooperatiboa sendotuko lukete, eta beharrian sozialei erantzutea helburu duen enpresa izaera errekupezko aukera ikusten da. Aipatutako ildoak kooperatibismoa biziberritzeko aukera dira. Hein batean, enpresa-ekintza kooperatibistaren zati bat beste bide batzuetatik orientatzeko eskaera da, ekintza horrek gizarteko beharrian eta problematika berriekin bat egin dezan.

Arrasateko kooperatibismoak bere ibilbidean zehar inplikazio handia izan du enpresaz gaindiko jardueretan, batez ere bailaran. Gerora, aspektu enpresarial eta ekonomikoak lehenetsi dira. Orain, berriro ere, enpresa-logika hutsetik haratagoko bestelako jarduera eta logikei heldu dakieke, euskarari, kasurako:

«Yo creo que en las actividades importantes que se han dado en la zona, creo que ha habido gente importante de las cooperativas metidas. En el ámbito educativo no hay duda: la Escuela y ahora la Universidad. En el tema de sanidad... Lo que pasa es que luego nos hemos centrado más en lo que es ya la función económico-empresarial, que continuar con esas actividades. Esas actividades ahí están. Hoy yo en día señalaría el euskera en la empresa, a la que también se está dando una fuerza bastante importante por lo menos en Arrasate. La cantidad de gente que anda es terrible, y supongo que también en otras empresas.»

Bizi dugun garaian, akaso herrigintzak ez luke Euskal Herrian inbertitzea eskatuko. Sasoi batean hori izan zen herrigintzaren kontsignarik garrantzitsuena, baina gaur horrek ez luke beste garai batean adinako garrantzirik. Euskal-herrigintzak badu beste garabiderik, nolabaiteko bira kulturalista bat bizi dezakeelarik, hizkuntzaren aldeko ekimenei lehentasuna emanez.

2.2.4.3. *Gazteak eta kooperatibismoa*

Belaunaldi berriei zer eskaini, horra hor gakoa. Lehenago esan bezala, kooperatibismoak, etorkizunik izan nahi badu, gazteak erakarri beharko ditu. Gazteak erakartzeko ezinbesteko baldintza da etorkizunean proiektziorik izan nahi bada, eta horretarako, gazteei irekita egotea garrantzitsua da:

«Yo creo que se trata de educación y transmisión. Seguramente sí que podríamos hacer ciertas puestas en común, y además mejor si hablásemos con las nuevas generaciones. Las nuevas generaciones que tienen más capacidad, más información, más conocimiento de causa, tienen indudablemente esa fuerza del inconformismo. El joven por definición es emprendedor y además es dador. Y ahí es donde tendríamos que forzar para traducir ese inconformismo en un aspecto positivo de actuación.»

Gazteen gaineko gogoeta ildo horretan, genero ikuspegia kooperatibismoan sendotzeko txertatu beharraz hitz egingo zaigu:

«Otra de las cuestiones que a mí me parece que es una batalla que tenemos que ganar, es el de las mujeres. No os podéis imaginar la fuerza con que asumen determinados compromisos cooperativos, por ejemplo, en el ámbito de servicios a las personas... Cuando les ves y asistes a una reunión en bloque, dices: «me está recordando las reuniones más calientes nuestras de hace 30 años». Ahí tenemos un potencial... Yo creo que somos una cooperativa un poco de hombres. ¿Qué tenemos para las nuevas generaciones?»

Genero ikuspegiaren aipamen bakarra dugu, baina, gure ustean, garrantzitsua, aipamenen kopuruari barik euren nolakotasunari begiratzan badiogu. Proposamen berritzailea da, genero ikuspegi zaharkitu samarra badario ere: emakumea tradizionalki femeninoak izan diren lanetara lotzen du, konkretuago, besteen zainketara («ámbito de servicios a las personas»). Emakumearen potentziala gizartean betetzen dituen rol klasikoekin lotzen da, eta baliteke planteamendu ausartago bat falta izatea: emakumeentzat aukera errealak (aukera berdintasuna edo diskriminazio positiboa) sustatzea enpresako botere espazio guztietan.

Tonu baikorraren haritik, kooperatibismoaren bereizgarritasuna garbi dago belaunaldi berrientzat, eta gazteen eta kooperatibismoaren arteko konexioa bide onetik doa:

«A mí me ha tocado ver, por ejemplo, en la Comisión Permanente [de MCC]: gente que viene de la nueva generación, y viene muy bien... Hay conocimiento de causa y están perfectamente en su sitio. Sí viven y son conscientes de que institucionalmente están con un contrato de sociedad, que hay una sociedad que funciona con unos estatutos participativos en sus órganos..., y dentro de un grupo que tiene una misión, unos valores, unos principios... Yo soy optimista. El joven es generoso..., y eso es lo que le llena.»

MCCko gidari-belaunaldi berriak ez du hausturarik ekarriko baloreen ikuspegi-tik. Ikuspegi baikorrak belaunaldi berrien sentsibilitatean mamitzeko aski indar aitortzen dio kooperatibismoari, eta kooperatibismoaren aldeko hautuak gazteen berezko izate eskuzabal eta emankorrekina bat egingo luke. Oinarriko beharrianak beteta ditugun honetan, diruak garrantzia galdu du gazteen artean, eta bestelako beharrak ase nahi dira:

«Una vez que las necesidades básicas están superadas y estamos en un nivel de bienestar, surgen otro tipo de necesidades de la persona, más allá de las remunerativas.»

Beharrianaren gizarte batetik ongizatearen gizarte baterako jauziarekin, balore postmaterialistak gailentzen ari direla aditzera emango zaigu, soziologian ezagunak diren Inglehart-en tesiekin bat eginez. Aldaketa horrek kooperatibismoa aldatzea dakar. Galdera inplizitu bat sumatzen da: kooperatibismoak zer eskaintzen du tesuinguru soziologiko eta historiko berrian?

Aztergai dugun diskurtsoaren erradiografia ondoko eran marraztu daitekeelakoan gaude: kooperatibismoak eragile sozio-ekonomiko gisa dituen baldintza eta izaeragatik, garapen pertsonalerako aukera gehiago eskaintzen ditu, eta beraz, belaunaldi berriak erakartzeko indar gehiago, belaunaldi berriengan zenbait balore postmaterialista indartsuak baitira (garapen pertsonala, auto-errealizazioa...). Diskurtso-analisi honetako azken puntuan sakonago aztertuko dugu aspektu hau.

Ikuspegi baikor honetatik, kooperatibismoak badu etorkizunik. Are gehiago, sekula baino etorkizun oparagoa du. Sarritan, kooperatibismoa gauzatzeko aukerarik onenak etorkizunean jarriko dira, galera sentimenduetatik oso urrun. Ekintza eta kontzientzia molde kooperatibistak ez doaz dinamika historikoaren kontra, bizi ditugun aldaketa historikoen karril berean baizik.

«La gran revolución que se está dando en el mundo es la revolución de la cultura de la formación. Cada vez menos la persona está dispuesta a regalar sus ocho horas simplemente por una contrapartida económica. Cada vez va a exigir muchísimo más al trabajo, su presencia en la sociedad en un conjunto, digamos, humano laboral. Yo estoy convencido de que el proyecto cooperativo es un proyecto de futuro.»

Baikortasunaren ikuspegitik, eta zeresanik ez ikuspegi triunfalistatik, belaunaldi berriekin konektatzeko ahalmena ziurtatuta dago, planteamendu kooperatibistak historiaren norabide bera segitzen baitu eta etorkizuneko eskaintzarik hoberenetakoa gorpuzten du: kooperatibismoak garapen pertsonalerako baldintza oso onak biltzen ditu.

Hala ere, aipatua dugu gaurko gazteen energia eraldatzaileek beste espazio batzuetan aurkitzen dutela leku egokiagoa, Gobernu Kanpoko Erakundeetan, esaterako. Gaurko gazteek ez dute hain erraz ikusten kooperatibek gizartea hobetzeko, eraldatzeko edo gizartearekin konprometitzeko espazio gorpuzten dutenik. Kooperatibek lan egin beharko lukete esangura hori errekueratzeko, orekak zaindu eta korporazio izaera baino gehiago kooperatiba izaera indartu.

Zenbaiten iritzian ordea, gazteek eurek jantzi beharko dute etorkizuneko kooperatibismoa, horretarako euren balore propioak erabiliz: «Gaur beste balore batzuk dauz eta eurek [gazteek] beste eredu bat egin beharko dabe.»

Gure usteen ukaezina da: gaurko belaunaldi berriek AKERekiko dituzten bizipenak ezin dira lehendabiziko belaunaldiaren berdinak. Arrazoiak ugariak izan daitezke, aletu ditzagun arrazoi posible batzuk:

- Gazteak, objektiboki, ez dira izan esperientzia hau eraiki dutenak.
- Ondorioz, eratuta eta eginda dagoen egitura konplexu batera sartzen dira, eta bide horretatik beti da zailagoa norik bere egitea egitura hori, edo beste modu batera esanda, auto-eratzeko esperientzia bat gorpuztea (esperientzia indibidual eta kolektiboa).
- «Gaiztakeri» kapitalistaren gaineko irudia ez da berdina. Hots, ez dago beste garai batzuetako bizi-esperientzia, enpresa kapitalistarik ezagutu ez delako, edo ezagututa ere enpresa kapitalistak lehengoak ez direlako. Hots, baliteke enpresa kapitalistaren inguruan beste garai batzuetan indartsuagoak ziren irakurketa eta definizio negatiboak gaur egun hain indartsuak eta hain konpartituak ez izatea. Finean, gazteak ez du ibilbiderik egin enpresa kapitalistak sortutako nahigabe eta gehiegikerietan.
- Lan munduan sartzeak beti dakar biolentzia esperientzia bat berarekin, edo beste modu batera esanda, lanak beti suposatzen du koertzio esperientzia bat, beti da, hein batean, behartutako esperientzia gogor bat, molde kapitalistan zein kooperatibistan. Bizitza molde berrietara egokitu beharra dakar, eta be-

rarekin batera, bizitza ziklo berria hasten da. Aukera eta bide berriak zabal-tzen ditu, baina, aldi berean, bizitza erregimen berriak aspektu mingarriak ditu (ardurak, tentsioak, balorazio eta auto-balorazio sekuentziak...). Gaur, gazte askoren kasuan bortxa prozesu hori kooperatibismoak zizelkatu eta konfiguratu-zen duen unibertsoan gertatzen da. Beraz, bortxa horren kontrako erantzuna ere mundu kooperatiboan gertatzen da.

- Finean, unibertso kooperatiboa bada, baita ere, edo batez ere, gurasoen mun-duan, eta kontuan izan behar da, belaunaldi berrien energia eraldatzailea gura-soen mundua aldatzea bilatzen duen ekimena dela. Gazteak aita-kooperatibis-moa du aurrez aurre.

Horregatik guztiagatik, gure ustean gazteek kooperatibismoaz duten definizio soziala ezberdina da. Ezin zitekeen beste modu batera izan. Ebidentzia horren au-rrean alferrikakoa izan daiteke gazteei eslogan zaharrak eta lehengo zentzu-eskemak transmititzen saiatzea (are gehiago, kulpabilizatuak badira sentsibilitate kooperati-borik ez dutelako). Gazteek euren zentzu-mundua eraiki beharra dute, eta horrek, funtsean, kooperatibismo berria esan nahi du, sentsibilitate berrietara egokitutako kooperatibismo zaharberritua. Gainontzekoa, bide hila da.

2.2.4.4. *Kooperatibismoaren transmisioa*

Gazteen mundura irekitzeaz gain, bada adin guztietako jendearentzat sortu eta as-matu beharreko zerbait: kooperatibismora bildu beharra dago, horretarako espazioak edo «bilguneak» sortu. Edo beste modu batera esanda, komunikaziorako une eta gu-neak sortu behar dira («hacer ciertas puestas en común»). Kooperatibismoaren trans-misioa da egiteko garrantzitsuenetakoa. Ikasleei bereizgarritasun kooperatiboaren berri emateko gogoeta eta komunikazio guneak falta dira:

«Yo sí creo que Mondragón debería tener algunos círculos donde se pudiera discutir o reflexionar con estudiantes, donde se pudiera dar a conocer la realidad cooperativa a diferencia con otra realidad no cooperativa, donde igual se conteste a todos los interro-gantes que se planteen.»

Nor kooperatibista (ber)eraikitzeke eta (ber)egiteko espazioak eskatzen dira. Es-pazio horrek, besteak beste, belaunaldien arteko komunikazioa ahalbidetuko luke, eta beraz, zentzuen, idiosinkrasiaren eta baloreen transmisioa. Ildo horretatik, ikerkun-tza-tesi honetarako eginiko eztabaida-taldeak biziki eskertu izan dira:

«Nere ustez gaurkoa ere oso serioa da. Orainarte ez dugu holakorik egin. Nik 24 urte daramatzat eta inoiz ez naiz jarri holan konkretuki, gidoi batekin, sistematikoki gauza hauetaz hitzegiten eta uztail zapatu batean. Eta pozik gainera.»

«Eta jendea holako gauzetaz guk uste baino interesatuago dago. Pentsatzen dogu askotan: hau nire arazo bat izango da, edo nire ardura bat, eta besteei bost axola jake. Eta ez da egia. Eta nozbait elkarrekin pentsatzea, joder, niri oso inportantea iruditzen zait.»

«Eta bandera hau ez dugu inoren eskuetan utzi behar. Beste gauza bat da espertoak, guruak... Baina guk egindako geure lana, geure erreflexioa, geure pentsamendua..., bandera hori ere geuk eraman behar degu.»

«... agradeceros la posibilidad que nos habéis dado. (...) Este intercambio me ha aportado muchísimas cosas, me ha animado, me ha cargado pilas y un montón de cosas. Y deberíamos de hacer estas cosas pero generalizadas.»

«[el debate, la reflexión] Era una de las típicas acciones de Don José María. Solía decir mucho; tenía capacidad de pensar y reflexionar en voz alta. Yo creo que eso siempre viene bien. Y sí deberíamos tener mesas de encuentro donde podamos reflexionar.»

Zenbaiten iritzian, negozioiak indar guztiak xahutu ditu, gehiegi agindu du, hezkuntza zereginak eurak bazterrean uzterainoko. Hezkuntzarako tarteak zaintzea, identitate kooperatiboaren transmisioa zaintzea da, komunikatiboki eraiki eta berreraikitzen den nor kooperatibista elikatzea.

«Pero yo sí creo que muchas veces nos ha dominado el concepto economicista... (...) Yo me acuerdo por ejemplo Fagor... procesos en los cuales una modificación de estatutos que era suficientemente importante nos pasábamos a todo el colectivo con sesiones informativas, con preparación de un equipo de proyecto con la explicación del no sé qué, y nos costaba la «zanganga» aquella 60 kilos 70 kilos de los de aquella época. Hoy en día ni nos lo planteamos. ¿Y en el fondo qué subyace? Yo creo que en el fondo muchas veces existen elementos economicistas... »

Beste garai batean lehenesten ziren debate eta komunikazio prozesuak, gaur ahu-lagoak dira, negozioaren iparrak interferentzia estrukturalak sortu baititu komunikazio eta heziketa prozesuetan. Kooperatibismoaren transmisiorako uneak, guneak, erremintak eta pertsonak behar dira, kooperatibismoaren etorkizuna hortxe jokatzen ari baita.

«A eso hay que darle mucha importancia en todas las cooperativas. Mira: haremos cooperativismo alrededor de una educación básica en cooperativismo, porque si no, no lo haremos.»

Finean, arrazionaltasun komunikatiboa garatu beharra iradokitzen ari zaigu, eta hori enpresatik kanpo antolatu beharra dago, ardura exekutiborik ez dutenek behar dute antolatu, enpresa munduak indar guztiak xahutzen baititu. Modu horretan, ezkutuan dauden kooperatibista askok eskertuko lukete. Horixe baita arazoetako bat: identitate kooperatibista «ezkutuan» dagoen identitatea da, bere balore eta zentzu multzoak erreflexu publikoa edo formulazio agerikoagoak falta dituelako. Proposamen kooperatibista ikusgai egin ezean, plaza publikoan kokatu ezean, ezinezkoa izango da nor kooperatibistaren inguruan biltzea eta bertan trinkotzea. Horregatik: «hay que poner el cooperativismo en el escaparate», gaurko gizarteko kultura mediatikoan «saltzen» jakin beharra baitago.

Nor kooperatiboak presentzia soziala behar duela esango zaigu. Gainera, ikuspegi baikorrek garbi dakusa kooperatibismoaren bereizgarritasuna. Baina, nola da posible plaza publikoan «ezkutuko» errealitatea izatea eta, aldi berean, bereizgarritasun nabarmena egozte kooperatibagintzari? Paradoxikoa bada ere, eta akaso kontraesankorra, etorkizunera begirako ikuspegi baikorra bi pertzepzio horien artean kulunkatuko da: batetik, kooperatibismoak ez dauka erakusleihorik, eta, ondorioz, zailtasunak ditu plaza publikoan ikusgai egoteko; bestetik, sekula baino kooperatibismo gehiago egiten da, eta sekula baino egoera hobean dago kooperatibismoa.

Baina, edozelan ere, ikuspegi baikorraren arabera gaurko sistemak (sistema kooperatibistak) bere baloreak eta praktika moldeak erreproduzitzeko gaitasuna azaltzen du: erakunde kooperatibistek baloreak sortzen dituzte, bestela akabo. Gazteen kasuan garbi ikusten da transmisioa burutzen dela (gazte gidarien kasua aipatua dugu).

Printzipio orokor gisa, kooperatibismoaren transmisioa, ematekotan, batez ere osmosi bidez emango da, hori ez baita teorikoki transmititzen ez ikasten. Bizipena da nagusiki sustatu beharrekoa, ez transmisio intelektual edo kognitiboa; azken hau bizipenak garatzeko, arrazionalizatzeko edo sistematizatzeko tresna baliotsua izan daiteke, betiere errealitatean oin hartuta baldin badator.

Beraz, ikuspegi baikorrean kokatzen diren askoren ustean, nolabaiteko transmisio «natural» bat zertzen da. Giza taldeek antzematen dute kooperatibismoaren kultura, etika eta filosofia. Errealitatea interpretatzeko molde horrek konfiantzaz begiratzen dio etorkizunari: «Y vendrán otros y seguirán, no os preocupéis». Konfiantza barik fedea ere ikus daiteke aipatu hitzetan. Nolanahi ere, ez dago ez hausturarik ez galera-rik: belaunaldien arteko transmisio kateak funtzionatzen du eta funtzionatuko du.

Galderetako bat litzateke ba ote dagoen Euskal Herrian bestelako aliaturik, autogestioan oinarritutako kultura eta praktika sustatzeko. Batzuk ez dute Euskal Herri-rako proiektu autogestionario eta garapen komunitarioko bat inon ikusten; idealismotik gertuegi dago egitasmo hori eta ez dago ez bidaide ez gogaidetik. Beste batzuk, aldiz, ez dute bidaiderik nahi:

«... Aquí donde apuntáis concretamente la dirección de la sociedad autogestionada; es decir, intercambios con otras organizaciones de carácter político, sindical, no sé qué... Primero, los políticos cada uno andan por su lado... esa es la triste realidad. Los sindicatos ni hablar, esos también defienden su control... Hablar de participación del trabajador en la empresa, ¿de qué? [Los sindicatos] Están a mil años luz, aunque deberían ser los que están más cerca de este planteamiento, pero están totalmente alejados (...) En otros ámbitos..., quizá en universidades se podría hablar de cosas. Es un contexto mucho más amplio, pero en esos otros políticos y sindicales no. Yo creo que es perder el tiempo lamentablemente.»

Kooperatibismoak eskaini dezakeen aspektu garrantzitsu bat lana da. Lanean auto-errealizatzeko eta lanaren bidez gizartearekin konprometitzearen aldeko hautua. Belaunaldi berriak, ba ote daude lanaren ideologia horri zabalik?

Etorkizunak eskatzen duena ondokoa da: gaur daukagunari koherentzia gehiago ematea. Hots, iraganean horizonte berriak marraztu behar izan ziren, imaginario bat sortu. Gaur ez dago horrenbeste sortu beharrik. Ikuspegi baikorretik, etorkizuneko desafioa gaur existitzen denari koherentzia gehiago ematean datza, eta ez gaur dugunetik zerbait berria sortzea. Izan ere, dagoeneko badugu bisio edo ikuspegi egoki bat.

2.2.4.5. Hezkuntza ereduaren garrantzia

Halaber, etorkizunaz mintzatzen denean hitz bat beste guztien artean gailentzen da: hezkuntza. Hezkuntza da giltzarria, kooperatibismoak, etorkizunik izan gura badu, ezтики zaindu behar duen egitekoa.

Arrasateko kooperatibismoaren eta hezkuntzaren arteko lokarriak oso dira indartsuak: esperientzia honetatik sortu edo lagundu dira hainbat ikastola, eskola profesional, ertainetako ikasketa zentro, eta goi-eskola. Eta azkenik, Mondragon Unibertsitatea da esperientziaren barrenetik garatzen ari den gune unibertsitarioa. Hezkuntzaren aldeko apustua da, tradizio horri jarraiki, mantendu beharreko nor-tasun zeinu garrantzitsuenetakoa, eta, baita ere, bizi dugun garai historikoak sutsu dakarren eskaeretakoa bat.

Unibertsitatearen kontzeptua aldatzen ari da eta galdetu beharko genioke geure buruari zein den unibertsitateek jokatu beharreko papera gure gizarteetan. Enpresa-rako hezkuntza eta bizitzarako hezkuntza, biak lirateke uztartu beharrekoak:

«Estamos hablando del saber ser, saber estar, que es la condición básica: las actitudes personales ante la vida, ante todos los hechos, no solamente el mundo laboral, sino lo político... Desde ese punto de vista yo creo que aquí hay un campo importante y Mondragón Unibertsitatea debería plantearse, a través de Lanki o de otro.»

Hezkuntzaren zeregin integrala aldarrikatuko da, hezkuntza zenbait eduki sozial, tekniko edo zientifikoen transmisio intelektualetik haratagoko zeregin konplexua baita. Gizakien bestelako dimentsioak kontuan hartu eta landu behar ditu benetako hezkuntza prozesu batek: jarrerak, harremanetarako gaitasunak, baloreak... Ikuspegi orokor batetik, hezkuntza etiko-morala da bereziki zaindu beharrekoa, eta berau behar-beharrezkotzat jotzen da bizi dugun garaian, apustu etikoak egin egin behar direlako eta enpresa munduak ere hala eskatzen duelako:

«...a mí me sale mi alma de predicador. Porque lo que tú crees que es bueno lo planteas y lo discutes, y si te cambian pues te cambian. Pero realmente intentas trasladar valores. (...) Además hoy en día las organizaciones empresariales incluso más avanzadas están diciendo que los contenidos no tienen tanta importancia a la hora de la selección. Hoy en día las empresas más avanzadas no cogen a gente porque tengan mejor currículo o sea un científico de la leche... Lo que ven es precisamente su capacidad de interrelacionarse, su capacidad de adaptarse, sus valores, su motivación y cómo es capaz de trabajar. En el fondo están pidiendo: «no me forme solamente a la gente con sus contenidos». Por supuesto, estaría bueno que no sepan multiplicar, por decirlo de alguna manera... Bueno, eso lo primero, pero también hay que formar lo otro.»

Gauza asko sartzen dira «hezkuntza etikoa» izenaren azpian; gehiegi akaso: harremanetarako gaitasuna, errealitateara egokitzeko gaitasuna, baloreak, motibazioa, lanerako gaitasuna... Edozelan ere, aurreko pasartean etikaren defentsa bi norabide-tan egiten da: moralak berez duen garrantzia defendatuko da; eta, gainera, gizarte-aren eta, bereziki, enpresan eskaera bat ere badagoela esango zaigu.

Zein da, beraz, eraiki beharko litzatekeen hezkuntza eta unibertsitate eredu-a? Arrasateko gune unibertsitarioak apustu garbi eta tinkoa egin beharko luke balore-aren heztearen alde eta eremu horretan bilatu bere bereizgarritasunaren zati inportante bat:

«...en nuestro caso tiene que ser más. Sinceramente, en la Universidad de Mondragón (...) o aportamos algo diferencial o si no, pues seremos otra universidad más. Pues vale. Una universidad pequeña aquí sirve para que [la gente] no tenga que ir a Bilbao, pues cojonudo. Y si es una escuela más específica que otra y tal, pues estupendo. Pero

yo le pediría más. Es un proyecto cooperativo, y en consecuencia tiene que transmitir lo cooperativo también internamente, es decir, tiene que vivirse una experiencia cooperativa del alumno, del profesor, de todos. Una cooperativa participativa, de trabajos interdisciplinarios, pero que cuide también el proceso societario. Se tiene que manifestar de alguna manera en los contenidos también, lógicamente. Yo creo que sí, tenemos que sacar la antorcha y decir, bueno señores, vendemos estos valores, claro que sí. Eso a nosotros nos identifica. Nosotros nos identificamos porque aparte de hacer una buena formación en sentido técnico, vendemos valores cooperativos, evidentemente que sí. Lanki, el otro y lo demás allá, investigación, desarrollo en nuestros ámbitos... Y estoy seguro que con el tiempo lo haremos. Estoy convencido.»

Mondragon Unibertsitateari bere kooperatiba izaerak ematen dio benetako lorrazta, eta kooperatibismoa izan beharko litzateke ia-ia unibertsitatearen azken helburua.

Formazio tekniko, funtzional eta instrumentalaren aldeko labaintzea gertatu ote den, formazio humanistikoaren kaltetan, Eskola Profesionalean beti existitu izan den errezeloa eta eztabaida da, baita ere Arizmendiarrjeta bizi zela. Nolanahi ere, formazio etiko-soziala izan beharko litzateke Mondragon Unibertsitatearen identitate zeinurik garrantzitsuenetakoa.

«Yo no sé si hablamos demasiado de valores cooperativos. Yo hablaría más de valores éticos, porque, además, creo que los valores éticos nos van, ¿no? Que no sea reduccionista. (...) Que nuestra universidad se caracterice por eso, y si se caracteriza por eso, desde luego, encajará perfectamente con nuestros propios principios y valores.»

Banaka batek ez du hala pentsatzen: Eskola, esaterako, ez da kooperatibismoa irakasteko gunea, bertako ikasketak teknikoak baitira. Kooperatibismoa enpresan ikasten da: «el cooperativismo se hace ejerciendo en la cooperativa»; «...hori ezin da predikatu, inportanteagoa da praktikan ikustea, barruko egitura benetan kooperatiboa dela eta ez direla bakarrik hitzak.»

Ikuspegi hori muturrera eramanda, kooperatibismoa lan-esperientzian eraiki eta transmititzen da soilik. Ez du zentzurik kooperatibismoari buruzko klaseak ematea. Beraz, transmisio intelektualak ez du lekurik hezkuntza kooperatiboari buruzko kontzeptzio horretan, kooperatibismoa praktikarekin lotutako zerbait baita, eguneroko portaerari eta giza ekintzari lotutako zerbait. Horregatik, bere transmisioa bide «natural» horretatik burutuko da, ez unibertsitateko lau hormen artean. Unibertsitateak bali dezake parte hartzea, Erabateko Kalitatea eta gisako balore edo ideiak transmititzeko, baina batez ere klasetik kanpo, ikasleak Errektore Kontseiluan parte hartuz eta gisako esperientzien bidez. Hots, esperientzia praktikoa da unibertsitateak eskaini behar duena.

Edozelan ere, hirugarren bide moduko bat adostuko dute askok, aipatu bi transmisio ildoak osagarritzat juzgatuz: parte hartze zuzenaren bidez (esperientzia kooperatibista praktikoaren bidez) balore transmisioa jaso jasotzen da, eta transmisio bide «natural» hau zaindu beharra dago; eta, aldi berean, balore eta ideologia transmisioaren bidez (transmisio intelektualagoa) parte hartzea eta, finean, kooperatibismoa sustatzen da, eta bide hau ere garrantzitsua da.

Zelan burutu transmisioa, ze bideetatik eta zein hezkuntza eredu den horretarako egokia, horixe da eztabaidagai dagoena. Ikuspegiak ikuspegi, hezkuntza etiko-kooperatibista arautuaren aldeko jarrera nabarmena da; hots, kooperatibismoak behar du transmisio etiko, intelektual edo pentsamenduzkoa. Hezkuntzaren alde humanistikoa estuki lotuta egon beharko litzateke kooperatibismoarekin, eta unibertitate orok behar duen kritikotasunarekin:

«Aquí mucha dimensión no va a poder tomar. Y sería imperdonable que la facultad humanística..., desde luego tiene que desarrollar aspectos específicos que se relacionen con el desarrollo del proyecto cooperativo. Sin ninguna duda, al servicio de la empresa, no en el ámbito técnico, sino en el ámbito más humano. Investigación de ese tipo también. Y desde luego, que sirva de nexo de unión entre la sociedad, la problemática de la sociedad, la respuesta de las empresas... Y desde luego, yo creo que tiene que ser muy crítica. La universidad por definición será crítica si es universidad. Y si no es crítica algo le falla.»

Batzuk «alde humanistikoa» deituko diote, beste batzuk «hezkuntza etikoa», eta baten batek «humanitateak» eta «hezkuntza soziologikoa». Nolanahi ere, hezkuntza mota hau funtsezkotzat joko da etorkizunera begira, eta, gehienek ustean, Arrasateko gune unibertsitarioari balio erantsia emango lioke. Norabide honetan ugariak izan dira ekarpenak:

«Yo creo que se puede genera un valor añadido que otras universidades no tienen. (...) Porque a veces hay determinados aspectos que nos llevan siempre mirando hacia atrás, que si tenemos no sé qué experiencia. A veces estoy pensando que está el conductor conduciendo y mirando por el retrovisor, en vez de mirar hacia adelante. Se pega un tortazo de todas-todas. Pues hay que mirar al futuro y hay que ser universal. En ese aspecto es básico la sección de humanidades y desarrollo sociológico y de estudios sociológicos. Yo creo que puede ser un elemento de conexión hacia adelante muy importante y de conexión con otras universidades. Con una situación de privilegio por nuestra parte, porque tenemos unas realidades concretas que por ahí no tienen.»

«Ni ados nago esatean hezkuntza dela giltzarria. (...) Humanidadeak eta holako gauzak derrigorrez eman behar dira. Pixkanaka-pixkanaka galtzen dabil, galdu eta galdu..., ez bakarrik unibertsitatean, baizik eta hezkuntza sistema osoan.»

Eta hori guztia posible izan dadin beharrezkotzat jotzen da irakasle-talde espezializatu bat, elkartzasuna ardatz hartuta hezkuntza etikoa izango duena ipar:

«Y en eso debería haber un equipo de profesorado dedicado exclusivamente a impartir una línea educativa-formativa, en la cual rigiera el término solidaridad. Bueno, empezando incluso por las nociones básicas de las Naciones Unidas desde el punto de vista de los derechos humanos, que no se explican en ningún lado. Y que hay que partir de valores éticos... (...) Yo creo que este es un tema que tiene que desarrollar todo un equipo de profesores que no tiene nada que ver con lo que se enseña en electrónica. (...) Esas cosas, si se planean bien y se hace un esquema educativo desde la base hasta los cursos universitarios, yo creo que se puede hacer perfectamente.»

Hezkuntza etikoak, gainera, hezkuntza prozesu guztia hartu beharko luke, hasi umetatik eta unibertsitatera heldu arte. Ardura hori gune unibertsitarioan nortzuk hartu beharko luketen ere garbi aipatuko da:

«Yo creo que ahí si podríamos hacer, con Lanki por medio, y además, también la facultad de Humanidades. Yo creo que se puede empezar a organizar un núcleo de per-

sonas organizadas en transmitir todos esos valores, los valores cooperativos, que son los más solidarios.»

Hezkuntza humanista hedatzeko zailtasunak ez dira txikiak, izan ere, hiru kultura ezberdinek osatzen dute gaurko unibertsitatea eta eskola bakoitzak tinko heltzen dio bere independentziari eta ikasgaien kudeaketari. Hezkuntza etikoaren hedapena, no-raino onartuko da? Hortxe galdera. Gaurko unibertsitatearen kohesio ezak dakartzan arazoak aipatuko zaizkigu, tartean esperientzia kooperatibistak hain berezkoa duen kultura eta hezkuntza humanistikoan adostasunak lortzeko arazoak. Beharrezkoa da proiektu komun bat unibertsitatearentzat, baina zaila izango da.

Kohesioak kohesio, unibertsitatean espiritu aurrerazale batek agindu beharko luke, egindakoarekin sekula konformatzen ez den espirituak. Akuilu lanak egingo litzkeen mentalitate ausartak gidatu beharko luke gune unibertsitarioa:

«Luego también tiene que dotarse de una mentalidad... Cuando se consiguió la oficialía, la formación de maestría era los más recto. Cuando nos dijo José María que lo que teníamos que hacer era dar ingeniería yo decía, bueno José María, vamos a hacer una maestría bien hecha; no nos vamos a meter en más berenjenales. Y hay que dar el salto, y menos mal que cuando no teníamos todavía consolidada la maestría nos metimos en ingeniería.»

Mentalitate horrek irakaslerian aurkitzen ditu zailtasunik handienak, irakasleek ohitura dutelako bere ikasgai partikularren mantupean gordetzeko. Zentzu honetan, unibertsitateari buruzko gogoeta kritikoa orokor bat egingo zaigu. Hots, malgutasuna behar da gaur egun, eta instituzio unibertsitarioek eta irakasleek aldaketari erresistentzia handiak jartzen dizkiote. Gauza bera gertatzen da ikerkuntza zentroekin, bestelako irakaskuntza zentroekin edo ospitaleekin. Mundu unibertsitarioaren erradiografia oso bat egingo zaigu: instituzio unibertsitarioa, orohar hartuta, tekniko eta adituz osatutako erakundearen paradigma da, eta bere ehundura gogorra da, aldaketen aurrean erresistentzia handia azaltzen duena. Gogortuta eta zurrunduta dagoen instituzioaren irudia erai-kiko da, eta malgutasunez jokatzeko zailtasun handiak ikusten zaizkio. Enpresarekin nolabaiteko alderaketa suma daiteke: enpresa, ostera, erakunde dinamikoaren paradigma litzateke, merkatura ondo egokitzen den instituzioa, malgutasunaren ikonoa.

Unibertsitatearen eta enpresaren arteko harremana, esan dugun moduan, erraza eta naturala izan beharko litzateke. Ez soilik harreman instrumentala; pertsonen arteko elkarlana ere bidera daiteke; esaterako, enpresa mundutik erretiratzerakoan, bizi-esperientzia oso bat transmititu daiteke unibertsitatean.

Aldi berean, zaindu beharra dago kooperatibismoaren inguruan ematen den me-zua, berau aldekoa izan dadin, osterantzean jarrera negatibo bat sortuko bailitzateke kooperatibismoaren inguruan.

Unibertsitatea nazioartera zabalik egon beharko litzateke, eta ikerkuntza propioa sustatzeaz ere hitz egin zaigu, administrazio publikoaren zain geratu barik. Euskal Herriko beste unibertsitateekin (EHU, Deusto eta Nafarroakoa) elkarlan bideak zabaldu dira, baina batez ere programa teknikoen alorrean. Baina, hortaz gain, ikerkuntza sozialerako eremu zoragarria gorpuzten du Arrasateko kooperatibismoak:

«Porque, ¿tenemos que estar esperando para que Hacienda o Dituación de Gipuzkoa haga un estudio sobre qué influencia han tenido las cooperativas en no sé dónde? Tendremos que hacer nosotros los estudios, ¿no?. En qué medida las mujeres tienen desarrollo porcentual [en la cooperativa], hasta qué punto los jóvenes tienen una posibilidad de promoción y se han aprovechado, y en qué medida damos más formación interna que otras empresas. Ese tipo de cosas; hasta qué punto hay satisfacción en el socio de las cooperativas... (...) Nosotros si estuviéramos ahora en Estados Unidos nos venderían 16.000 tíos: vamos a hacer ese estudio de arriba abajo... Seguro, porque además somos un campo de investigación extraordinariamente nuevo (...) Yo creo que sí tenemos que dar una respuesta a nuestros propios problemas y a la sociedad desde una perspectiva cooperativa. (...) Que en este país vean que cuentan con nosotros para todo lo que tenga alguna relación en nuestra vida empresarial, en nuestra vida social. (...) Tenemos que ser innovadores y el desarrollo de la relación empresa-universidad, sociedad-universidad, nosotros los primeros.»

2.2.5. Zentzu ereduaz

2.2.5.1. Kooperatibismoaren zentzu historikoa

Aztergai izan dugun diskurtso ereduaz, ñabardurak ñabardura eta desadostasunak desadostasun, kooperatibagintzari esanahi eta balio handia eransten zaio tarteka. Enpresa-teknika soil gisa formulatuzetik urruti, gizartea aldatzeko eta hobetzeko proiektu batekin lotuko da hainbat pasartetan. Kooperatibagintzari misio historiko bat atxiki zitzaion, eta misio horretan langilea enpresa mundurako gaitzea izan da egitasmoaren ardatzetako bat:

«Es como decir que el trabajador organizado adecuadamente es capaz de realizar una actuación competitiva en el mundo. Yo creo que en alguna medida se ha demostrado algo de esto.»

Kooperatibismoa modernitate kapitalistak sortu duen subjektu kolektibo bati lotzen zaio: langileriarri eta bere askapen prozesuari. Egitasmo historiko hori ez dute langileen aldeko guztiek konpartitu. Izan ere, XX gizaldian hainbat izan dira langileriaren askapena ulertzeko moduak (sozialismoaren edo sozial-demokraziaren borroka politikoa; sindikalgintzaren borroka laborala; langileria merkatu-ekonomiaren planteamendu kultural, politiko eta ekonomikora integartzeko botereen ahalegina...). Kooperatibagintzak proiektu propioa gorpuzten du, testuinguru sozio-historiko jakin batek markatutako muga eta aukeren artean. Zenbaiten diskurtsoan hautu historiko baten arrastoa agertzen da, apustu ideologiko eta estrategiko jakin bat daramana. Bide propioa hartzea erabaki zen; bide hori ez zen ekonomia planifikatua izan, ez bide kapitalista:

«En los 50 nuestro mundo conocido era bastante manejable y limitado. Entonces teníamos dos grandes sistemas, el socialista y el capitalista. Y tomamos nosotros una vía nueva, muy criticada sobre todo desde la izquierda. Fue muy doloroso ver como muchos compañeros nos criticaban, «sois un parche a la sociedad», «no aportáis nada al sistema»... Nosotros tomamos la vía cooperativa y ahí peleamos.»

Bi sistemen artean bietatik ezberdina izan gura duen hautu gisa agertzen zaigu kooperatibagintza. Ez da gutxi. Horrela formulatuta, kooperatibismoak hautu sustan-

tzial bat gorpuzten du, epika dosiekin jantzita datorrena («...tomamos la vía cooperativa y ahí peleamos»). Hautu sustantzial orotan gertatzen den legez, hautu historiko horrek kritika latzak jaso zituen, kritika «mingarriak», gizartea eraldatzearen aldeko «lagunak» zirenen partetik.

Langileen askatze prozesuarekin lotzeak eta historia modernoaren eszenategian hautu sustantzial gisa kokatzeak, karga epiko handi bat ematen dio kooperatibismoari. Hortxe aurki daiteke atxiki ohi zaion garrantziaren eta balioaren lehen neurria. Ondoren zedarrituko dugu zehatzago neurri hori.

2.2.5.2. Zentzua goi eremuetan

Analisirako erabili ditugun eztabaida-taldeak heterogeneoak izan dira bere osaketari bagagozkio, baina, zentzu-osagai sendoak aurki ditzakegu taldekide gehienek formulazio diskurtsiboetan eta unibertso sinbolikoan. Ikusi dugun moduan, «langileria», «herria» eta «Euskal Herria» bezalako kontzeptu lodiak lotzen zaizkio kooperatibismoari, berau gramatika ideologiko sendo batean kokatuz. Gehienetan osagai ideologiko hoiek iraganari buruzko irakurketetan agertzen dira, oraina eta geroari ez zaizkie hain garbi lotzen.

Aldi berean, koordenada ideologiko horiek ez dira soilik ideiak eta sinboloak, bizitza orientatzeko dispositibo praktikoak ere badira (edo izan dira). Hots, kooperatibismoari lotutako ideiek eta zentzu-osagaiek bizitza estilo bat hezurramitzeko gaitasuna izan dute, alegia, bizitzari ipar bat eman zaio eta berau gidatzeko tresna praktikoa bilakatu da:

«Creo que la primera aportación de Don José María fue su pragmatismo y su visión. Pero lo que realmente Don José María nos dio fue su capacidad creativa. Nos aportó su función educadora y nos dio una forma de vida, un tanto distinta, sustentada en unos valores que se centran en la persona y que van fundamentalmente a resolver los problemas que en ese momento tenía.»

«...el cooperativismo para nosotros ha sido un proyecto de vida.»

Ikergai ditugun pertsonen konpromiso kooperatibistaren inguruan ardaztu dituzte euren bizitzak. Kooperatibismoa ez da soilik enpresa eredu bat. Bizitza eredu baten zantzuak ditu, bizitzan kokatzeko eta izateko molde bat dakar berarekin. Hortxe ikus daiteke kooperatibismoak pertsona hauengan bete duen leku pribilegiatua eta kooperatibismoari atxiki zaion zentzu maila altua, bizitzak gobernatzerainoko ahalmena aitortu baitzaio. Aspektu hori garbi ikusten da ondoko pasadizoan, beste herrialde batzuetan eredu kooperatiboa ezartzeko eskakizunen aurrean zelan jokatu aztertzerakoan:

«... cuando te piden ayuda en otros países para poner en marcha otras cooperativas..., no se trata de llevar el modelo empresarial, sino de llevar el modelo de vida básicamente. El modelo de comportamiento vital, eso es lo que haría falta.»

Kooperatibismoa gizartea eraldatzeko, are gehiago, bestelako mundu bat eraikitzeko bitarteko gisa sentitzen denean, maila goreneko zentzu osagai batekin egiten dugu topo. Norbere bizitza zuzentzeko eta gidatzeko paradigma izateaz gain, plano

makroagoan gizakion elkarbizitza eredu eraldatzeko bide bilakatzen zaigu; gizarte eraldaketaren aldeko imaginario edo kontakizun handi samar bati loturik ageri zaigu. Hortxe hartzen du kooperatibismoak ideologia arrasto garrantzitsua, hortxe bihurtzen da zentzu iturri plano politikoagoan (politikaren adiera zabalenean). Zentzu eredu hori ere aurkitu dugu:

«El hombre nuevo... Los valores cooperativos son tan viejos como el hombre. Y lo que ha hecho el hombre de la forma más fundamental lo ha hecho de forma cooperativa. Si analizamos cualquier cosa me da igual, podemos ir a la antigüedad podemos ir a las catedrales góticas, podemos ir a lo que queráis. (...) La cooperación nacida en el siglo XIX responde a unas circunstancias concretas, una revolución industrial, capitalismo reciente... El tema de la igualdad es un tema sin hacer. El término de la democracia es más viejo que no sé qué, está gastado y está casi sin estrenar. Yo no tengo ningún problema en decir: «soy más viejo que la leche, y mis valores son más viejos que la leche, tanto como el hombre». Y tengo que renovar cada vez el compromiso con esos valores. Lo que tengo que hacer también es ser capaz de vender esos valores, transmitirlos y hacer un poco de marketing. (...) Porque estamos planteando un nuevo mundo, estamos hablando de un nuevo hombre desde ese punto de vista, porque es algo que todavía no se termina de hacer, es que la historia del hombre es nueva, todavía casi acabamos de empezar.»

Kooperazioa giza kondizioari lotzen zio pasartean, plano filosofiko sakonean kokatzen delarik berau, eta beti egon da presente gizadiaren historian. Portaera eta balore transhistorikoa da, unibertsala eta gizakia humanizatu egiten duen funtsezko joera gisa pertzibitua da. Aldi berean, historian bere osotasunean gauzatu gabeko proiektua da kooperazioarena, berdintasuna eta demokrazia moduko baloreak behar den moduan gauzatzetik urrun baitaude.

Hein batean, kooperatibagintza bestelako gizarte eredu bat sortzeko bide gisa ulertu du hainbatek, ez soilik enpresa proiektu gisa, baizik eta proiektu global gisa:

«Yo recuerdo los planteamientos que nos hacíamos cuando estábamos en la época primera... Nuestro planteamiento no era exclusivamente empresarial. Era global. Nos preocupábamos un poco de todas las distintas facetas de la sociedad dentro del ámbito que podíamos, claro. Yo recuerdo que hicimos reuniones sobre el tema de la seguridad comarcal. Me acuerdo perfectamente, y el lugar donde lo hicimos...»

Baliteke galera ikuspegiaren aurrean egotea: lehen konpromiso kooperatibistak bestelako arlo batzuk kontuan hartzen zituen, zabalagoa eta globalagoa zen; gaur, enpresara murriztu da konpromiso hori. Iraganeko goi mailako zentzuak makaldu egin dira. Izan ere, lehengo planteamenduak Euskal Herria autogestioaren bidetik eramatea zuten amets («andábamos hablando de un proyecto autogestionario para todo el País Vasco»).

Kooperazioa giza kondizioa hobetzeko proiektu gisa ulertzen da, eta bere bihoztzera joz gero ondoko iparrarekin egiten dugu topo: gizakioi erabakimena, erabakitzeko ahalmena, ematea (edo bueltatzea). Eta horrekin batera, komunitatearen garrantzia:

«En la medida en que cada uno de nosotros empezamos a ser dueños de nuestro destino, empieza a historiar el hombre. Desde ese punto de vista el hombre nuevo es

eso, que cada uno seamos no instrumentos sino protagonistas de las decisiones que nos van a afectar, que al mismo tiempo superemos la individualidad porque eso es otro de los grandes valores del cooperativismo. Para mí el individuo, (...) soy capaz de admitir que puede haber alguna genialidad. (...) El hombre es algo dentro de una comunidad. El valor comunitario es algo importantísimo. Yo las grandes crisis personales que he pasado con respecto al mundo cooperativo, os confieso con toda naturalidad, han sido cuando he visto falta de comunidad: «aquí no hay una identidad...» Es decir, un proyecto común solidario. Eso requiere un concepto de igualdad, democracia, trabajo en equipo, el valor de la primacía del trabajo sobre el capital... Ahí es donde digo: «me empieza a fallar la cooperativa». Luego he reaccionado porque he visto que eso existe todavía.»

Komunitatearekiko konpromisoa gertuko inguruarekiko konpromiso gisa uler-tzen da sarri askotan. Baina, erreferente komunitario nagusietakoa nazio-komunita-tea ere bada, hots, Euskal Herria. Arrasateko kooperatibismoak Euskal Herrian ditu sustraiak eta nazio eraikuntza du helburu, Euskal Herriaren alde egitea ipar. Hori bai, neutraltasun politikoa galdu barik, edo berarekin orekan. Ondokoa herrigintzari buruzko formulazio ausart eta agerikoenetakoa dugu:

«Desde el punto de vista de la construcción de este país, también es muy importante el cooperativismo. Es decir, el enraizamiento que tiene con la problemática local, rural, nacional... A mí no me cabe duda de que es un motor tremendo. ¿Tú crees que iba a convocar lo que ha convocado, si no llega a tener ese contenido de desarrollo comunitario en sentido amplio? Además, creo que ha sido capaz de evitar muchos follones de politización. (...) Quizás en estos momentos somos maduros... En aquel momento podía haber costado algo más. Me chocaba mucho esa neutralidad política del principio. Creo que la fui entendiendo poco a poco. Ahora lo entiendo perfectamente. (...) En eso Don José María también tuvo una visión acojonante. Pero yo creo que esa ha sido otra de las aportaciones. Valor comunitario en sentido amplio. Es decir, tener en cuenta que decidimos aquí, tenemos las raíces aquí, los frutos vienen aquí, este árbol está aquí enraizado y los frutos van a esta tierra y no salen de aquí. Mientras, te viene Daewoo, le dan dinero, viene, si te dan tres castañas se va y se ha terminado el asunto. Pasa lo mismo con la Mercedes. Nosotros estamos aquí, somos un valor enraizado y eso es otra de las grandes fortalezas. Una de las fortalezas universalmente admitidas: el desarrollo autónomo, el desarrollo propio.»

Herrigintzaz beste pasarte esanguratsu bat:

«Para mí no se explicaría el movimiento cooperativo vasco, concretamente el nuestro, si no hubiese bastante implicación también con el país, a nivel yo diría político, en el sentido global del término, socio-político, en el sentido global del término. Por lo menos gran parte de la implicación de mucha gente yo creo que va por esa vía. Y las raíces en tu propia tierra. De hecho, es lo que caracteriza yo diría en todo el mundo. Hoy en día que las multinacionales van y vienen, uno de los grandes valores que están viendo las sociedades que necesitan autodesarrollo, están viendo el modelo cooperativo como una de las posibilidades y uno de los elementos de referencia suele ser éste [Mondragón].»

Aztergai dugun diskurtso ildoan hainbatek herrigintza zentzu iturri garrantzitsu gisa ulertu du eta ulertzen du. Zentzuaren goi eremuak hartzen ditu, nazio proiektu batekin konektatzen baitu bete-betean: Euskal Herriari zerbitzu bat eskaini zaio eta eskaini nahi zaio.

Euskal Herri osorako proiektu autogestionarioa ardatz duen egitasmoa bizi izan dute zenbaitzuk kooperatibagintzarekin. Erabat ideologikoa den formulazio horrek kontzepzio kristauarekin haustura bat dakar: kooperatibagintzaren kontzepzio holistikoa (politiko) sekularizatua dugu berau:

«Gu tradizio industrial, progresista, sozialdemokrata, pertsonalista batetik gatoz... (...) En mi generación no había referencia religiosa. Para los fundadores claramente hay una referencia. En nuestra generación estábamos hablando de socialismo y de otras cosas. Y ahora ni una cosa ni otra.»

Bigarren belaunaldikotzat har daitezkeen pertsonen bizitzan ere kooperatibismoak leku zentrala bete du. Konpromisoa, inplikazioa eta militantzia dosi garrantzitsuak aurki daitezke, eta kooperatibismoak identitate indibidual eta kolektibo baterako material garrantzitsua eskaini du. Horregatik diogu kooperatibismoari lotzen zaizkion zentzuek goi eremuak harrapatu dituztela, bizitza aukera bat, gehiago ala gutxiago, oinarritu eta gidatu baitute. Goi eremuak zentzuz hornitu izanak irakurketa positiboa izan dezake, baina baita hain positiboa ez dena. Ikus dezagun.

Kooperatibismoarekin garatutako lotura «erabateko konpromiso» gisa ulertzen dute zenbaitzuk («compromiso tan absoluto», «proyecto casi total», «daba respuesta a casi todo»...). Bizitza bertan ardaztu izanak, baina, bizitza indibidual, famili bizitza, eta bizitza sozialeko bestelako dimentsio batzuk baztertea eragin du. Kooperatibismoarekiko konpromisoak eta berau goi-zentzuekin lotzeak, ekarri du fakturarik.

«... el compromiso tan absoluto que hemos tomado con la cooperativa: nos lleva todas las horas del día y de la vida familiar..., las cosas como son. Y [los miembros de la familia] nos pasan facturas, y tienen toda la razón del mundo. (...) Cuando nosotros llegamos a la cooperativa, para nosotros era un proyecto casi total. Daba respuesta a casi todo. Yo recuerdo que el fin de semana casi ni tenía ganas de estar por ahí. Yo no tengo ganas de estar con la gente, si estoy todo el día con centenares de personas. (...) Entonces te desarrollabas, estabas motivado, pero no cabe la menor duda de que había otras dimensiones que no controlabas. Y creo que un poco pobre sí ha quedado...»

Aurreko pasartearen begiak zorrotzago pausatuz gero, kontakizunaren zati handi bat, ia guztia, iraganean kokatzen dela ikusiko dugu (aditza iraganean agertzen da), eta segituan sortzen da susmoa: baliteke erabateko konpromiso hori lotuago egotea aurreko garaiekin eta garbiago azaltzea iraganean gaur egun baino. Kontuan hartu behar da halan hitz egiten duenak gaur egun ere lanean diharduela, eta urte batzuetan jarraituko duela oraindik.

Edozelan ere, eta susmoak susmo, gogoeta horrek ildo interesgarria irekitzen digu: konpromiso kooperatibistak izan beharko lituzkeen mugak bizitzako bestelako dimentsioak garatu aldera. Gogoeta horrek zera diosku: inplikazio kooperatiboak ez du ekarri dimentsio ekonomikoak orekatzea dimentsio sozial, kultural, pertsonal eta familiarrekin. Dimentsio ekonomikoak bizitza pertsonaleko bestelako aspektuak xurgatu ditu, labaintze bat gertatu da enpresaren alde. Beraz, zentzu holistikoz mintzo garenean, edo kooperatibismoak goi eremuak zentzuz hornitzeaz hitz egiten dugunean, kontuan hartu behar dugu ondokoa: zentzu holistikoa horrek ez du automatikoki esan nahi bizitza sozialeko arrazionaltasun eta esfera ezberdinen artean loka-

riak ezarri direnik (esfera ekonomikoa, kulturala, pertsonala, soziala, familiarra...). Baliteke kooperatibismoarekiko lokarri holistiko horrek ondoko zentzua izatea: aspektu ekonomiko-enpresarialaren gain-dimentsioa.

Espazio produktiboa garrantzitsuena den giza espazio gisa kontsideratzearen ondorioa litzateke aipatutako joera. Giza existentzia batez ere espazio produktiboan inbertitu beharra aldarrikatzen duen bizitza-ikuskeraren baten emaitza dugu aipatutakoa. Munduaz eta giza existentziaz kapitalismoak garatu duen zentzua da hori. Horregatik, kooperatibismoak, nahi gabe, kapitalismoaren imaginario zentralak langile mugimenduan sartu ditu, marxismoak egin duen moduan, espazio produktiboa berezko giza-espazio gisa kontsideratuz eta produkzio-bitartekoen sozializazioa (eremu produktiboaren eraldaketa) izugarri mitifikatuz giza askapen prozesuan. Hori dela eta, gaurko kooperatibismoak, gaurko kapitalismoak bezalaxe, amildegi batera eraman gaitzake ikuspegi kultural eta kreatibo batetik, bide horretatik ezgai izango delako zentzu sozialak sustatzeko.

2.2.5.3. *Zentzu-mugak*

Esan dugun moduan, badirudi kooperatibismoa goi zentzuekin lotzen den bakoitzean lotura hori iraganean kokatzen dela. Iragana, beharbada zentzuz gainezka ez bada ere, zentzuz hornituago egon izan balitz bezala. Aurreko garaietan zentzuak harrapatzen zituen zenbait goi eremu gaur hutsik edo aldatuta agertzen ote dira? Zenbait iritzik hipotesi hori indartzera jotzen dute, eta pertzepzio horrek talka egiten du imaginario baikorrenekin.

Sikatu ote da zentzu putzua? Desagertu ote da kooperatibismoa kontzeptu lodiekin lotzeko gaitasuna (Jainkoa, Klasea, Nazioa, Aurrerapena...)? Desagertu ote da, beraz, Arrasateko kooperatibismoaren zentzu eredu holistikoa?

Aztergai ditugun pertsonen zinez talde plurala osatzen dute, eta euren arteko ezberdintasunak handiak dira. Batzuk beste batzuk baino tonu biziagoa azaltzen dute «galdu dena» azpimarratzean, edo kooperatibismoan «dagoeneko aurkitzen ez dena» seinalatzean. Pentsamenduaren higadura da, besteak beste, hainbatek ikusten duena. Izan ere, aurreko garaietan eman zen pentsamendu produkzioa eta sozializazioa, eta gaur zailagoa da halakorik aurkitzea. Baina, horretaz gain, aurreko garaietan kolektibo kooperatibista «ismo» jakin batekin erlazionatzerik bazegoen, pentsamendu gorputz jakin batekin, pertsonalismoarekin, hain zuzen. Gaur pentsamendu batekiko talde-identifikaziorik ezin aurkitu:

«Hoy en día no se puede decir que como colectivo somos herederos de un pensamiento personalista. ¿Podemos aspirar nosotros a un hombre nuevo? Humildemente, creo que no. Ya ha habido otros intentos (comunismo, socialismo...). Me parece demasiado.»

Gaurko kooperatibismoa umiltasunetik bizi da, beharbada heldutasunak ematen duen ikuspegi konplexuagotik, eta ondorioz, bizi dugun garai historikoak tarte gutxiago uzten du «gizaki berria» eta gisako planteamendu sendo eta idealistetarako.

Badirudi kontzeptu lodi eta potolo horiek gaurkoa ez den sentsibilitate eta inozentzia ideologikoa adierazten dutela. Egitasmo distiratsu horiek gehiegizkotzat jotzen dira. Badirudi denboraren joan-etorriek eta esperientzia historikoak katilu ideologikoak hustu eta eszeptizismoa hedatu dutela.

Erreferentzia erlijiosoak izan dira lehendabiziko belaunaldia mugiarazi dutenak. Sozialismoak eta progresismoak mobilizatu dituzte bigarren belaunaldikoak. Gaur, ostera, ez dugu ez bata ez bestea aurkitzen. Gaurko belaunaldi berriengan agerian dago, sekula baino gehiago, hutsune ideologikoa eta printzipio meta-sozialen falta, bai kooperatibismoan bai gizartean:

«Gu tradizio industrial, progresista, sozialdemokrata, pertsonalista batetik gatoz, eta gaurko gaztea ez. Hor zeozer apurtu da, ez bakarrik gure esperientzian, gizarte osoan. Ni hurbilago sentitzen naz Tomás de Meabe edo Dr. Madinabeitiatik gaurko gazteengandik baino. Bestelako erreferentzia kontzeptualak dira. (...) En mi generación no había referencia religiosa. Para los fundadores claramente hay una referencia. En nuestra generación estábamos hablando de socialismo y de otras cosas. Y ahora ni una cosa ni otra.»

Herrigintza ñabartuta ageri zaigu, bestelako lurraldeen alde eskatzen den konpromisoa dela eta. Beste garai batean Euskal Herri osorako arnastu zen proiektu autogestionarioa gaur gaztetako amets eder gisa ikusten da, gaurko munduak asaldatze etikoaren lekuan errealismo dosi gehiago eskatzen baitu; zer esanik ez, enpresa munduak.

Beste garai batzuetan zentzuak eskuratzen zituen goi eremuak galduak dira, belaunaldi haustura isil baten aurrean gaudelarik. Imaginario kooperatibista ez da dagoeneko lehengo altueretara heltzen, ez eta lehengo sakontasunera. Hortxe gaurko zentzuei ikusten zaien muga garbia.

Izan ere, gaurko garaia ez dira ideologia handietarako garaiak. Arrasateko kooperatibismoan ere erraz sumatzen da hori:

«Igoal lehen beharrezkoago ikusten genduan baloreak oinarritzeko ideologia bat izatea, eta orain igoal errazago ikusten dabe baloreak jorratzea ez horren intetsiboki, eta ez derrigorrez ideologia batean edo erlijio batean sustraituta.»

«Guk denbora batean baloreak soportatzeko estruktura ideologikoak behar genituen. Gaur beharbada ez. Baloreek ez dute ideologia politiko edo sozialen zerarik, bakarrik aspirazioak...»

Erljioaren eta ideologiaren lekuan «baloreak» agertzen dira, lengoaia berri baten adierazpide bezala. Desideologizazio horrek izan ditzakeen aspektu positiboak ere aipatzekoak iruditzen zaizkigu, izan ere, jendeak lehen baino gehiago baloratzen ei du bere iritzia eta ez da hain erraza jendea manipulatzeko, kontsigna bidez funtzionatzen ez duen belaunaldia osatzen baitute gaurko gazteek.

Nolanahi ere, ideologia eta proiektu kolektibo handien ordez, indibidualismoa ageri zaigu indartsu:

«Aspektu indibidualak lehen baino garrantzitsuagoak dira. Jendeak asko baloratzen dau bere profesinoan, bere bizitza kalitatea...»

Horretaz jardungo dugu ondorengo puntuan, hain zuzen: narrazio handiek eta etika gogorrek utzitako hutsunea etika bigunago edo *ethos* indibidualistago batek betetzen ote duen aztertuko dugu.

2.2.5.4. *Zentzu modalitate berriak: zentzu-eredu indibidualizatuak*

Puntu honetan azaldu gura duguna inportantzia handikoa delakoan gaude. Eztabaida-talde batean jaurtitakoa abiapuntu harturik hasiko dugu esplikazioa. Aipatu dugu Espainiako ikasle unibertsitarioen artean eginiko galde-sorta batean MCC agertzen zela lan egiteko lehenesten zen aukera gisa. Hautaketa horren arrazoiak zeintzuk izan daitezkeen argitu guran, era honetako interpretazioak jaurti dira:

«Porque yo creo que se tiene conciencia por ahí, yo lo he oído, de que te dan grandes oportunidades de formación, y eso es verdad, y luego de promoción. Son aspectos que es verdad que se tienen. De hecho, los equipos directivos en general de las cooperativas de Fagor al menos, han salido todos desde dentro.»

Ematen diren arrazoiak badute garrantzirik, izan ere, jendeak Arrasateretikiko sentitzen duen gogo eta atxikimenduaren arrazoiak azaltzeko saiakera da, eta aldi berean, norbere buruaren irakurketa oso bat burutzen da, auto-irudia azaltzen zaigu. Kasu honetan, diskurtsoetan gertatzen ohi den legez, berdin interesatzen zaigu esaten dena eta esaten ez dena.

Arrazoiaren artean ez da aipatzen Arrasateko kooperatibismoak konpromiso sozialerako espazio bat gorpuzten duenik, soilik auto-errealizaziorako aukerak dira aipagai. Auto-garapena dugu kooperatibismoak azaltzen duen erakargarritasunaren muina. Gure ustean, baliteke hori izatea kooperatibismoan indartsu gorpuzten ari den narratiba berria edo erdi-berria. Finean, zera ematen zaigu aditzera: Arrasateko kooperatibismoak auto-errealizazioa oinarri duen proiektu profesional indibiduala eraikitzeko aukerak eskaintzen ditu besteek baino nabarmenago. Hortxe bere indarra.

Kooperatibismoaren eta garapen pertsonalaren arteko oinarrizko identifikazio bat burutzen ari dela esan daiteke. Esango zaigunez, «iraultza» bat gertatzen ari da, balore postmaterialistak gailentzen ari dira eta diru motibazioak leuntzen. Pertsonak bestelako beharrianak ase nahi dituzte, espresiboagoak eta pertsonalagoak, eta kooperatibismoak baldintza oso onak biltzen ditu zeregin horretarako.

«Una vez que las necesidades básicas están superadas y estamos en un nivel de bienestar, surgen otro tipo de necesidades de la persona, más allá de las remunerativas.»

«La gran revolución que se está dando en el mundo es la revolución de la cultura de la formación. Cada vez menos la persona está dispuesta a regalar sus ocho horas simplemente por una contrapartida económica. Cada vez va a exigir muchísimo más al trabajo, su presencia en la sociedad en un conjunto, digamos, laboral humano. Yo estoy convencido de que el proyecto cooperativo es un proyecto de futuro.»

Kooperatibek, diru motibazioez gain, jendea hobeto integratzeko gaitasuna dute, konfiantza, jendearekiko errekonozimendua, eta gisako baloreek «garrantzi izugarria» baitute:

«Yo sé los jóvenes lo que aprecian el tener un puesto de trabajo. Y además, [en las cooperativas] se les da pistas para correr. Aquel que tiene música, que pueda tocar la música... ¿Tú sabes la importancia que tiene esto? Me cagüen diez, si me ha puesto jefe de equipo y se han fiado de mí... Ese tipo de cosas tienen una importancia bárbara.»

Norbere karrera profesional indibidualean aurrera egiteak sekulako garrantzia dauka gaur. Kooperatiban eta kooperatibismoan integrazteko modu bat azaltzen zai-gu: pertsonen potentzialtasun eta ahalmen indibidualak sustatzea eta errekonozitzea. Kooperatibismoak daukan integrazteko gaitasuna ondokoan legoke: pertenezia zentzu bat eskaini eta pertsonen balioaren errekonozimendua. Ondorioz, garapen per-sonalerako espazio gisa irudikatzen da kooperatibismoa. Akaso beti irudikatu izan da horrela, garapen pertsonalaren ideia beti izan baita kooperatibismoa (Arrasatekoa barne) eta Arizmendiarrietaren pentsamendua sostengatu duen ideietako bat. Baina, bizi dugun garaian orekak bestelakoak direlakoan gaude, eta kooperatibismoa janz-ten duten eduki kulturalen artean gaur berori litzateke indartzen ari dena.

Beraz, bereizgarritasun edo diferentzia kooperatiboari buruzko kontzientzia so-ziala ere hortxe dago: parte hartzaileagoak eta auto-garapenerako aukera gehiago ematen duten enpresak dira kooperatibak. Berriro diogu, arrazoiaren artean ez da ageri Arrasateko kooperatibismoak konpromiso sozialerako espazio bat gorputzen duenik; autoerrealizaziorako eta sustapen profesional indibidualerako aukerak dira aipagai.

Aztergai dugun diskurtsoaren erantzuna ondoko eran idatz daitekeelakoan gau-de: kooperatibismoak eragile sozio-ekonomiko gisa dituen ezaugarri eta izaeragatik, garapen pertsonalerako aukera gehiago eskaintzen ditu, eta beraz, belaunaldi berriak erakartzeko indar gehiago, belaunaldi berriengan zenbait balore postmaterialista indartsuak baitira (garapen pertsonala, auto-errealizazioa...).

Jakina, garapen edo hazkuntza pertsonalaren aukera ez da hautematen koope-ratibismoak soilik eskaintzen duen aukera gisa. Baina Arrasateko kooperatibek be-reziki egokiak diren baldintzak biltzen dituzte integrazio molde horiek gauzatzeko. Izan ere, euren kultura eta esperientzia metatuan parte hartzearen aldeko baloreak eta barne-promozioa garrantzia handikoak izan dira.

Gaur, hortxe jokatzen da enpresen lehiazteko ahalmena, giza kapitalean eta be-rau motibatze gaitasunean. Hortik baikortasuna eta gauzak bide onetik doazelako konbentzimendua: kooperatibismoa etorkizuneko proiektu gisa irudikatzen da, gai baita mendebaldeko gizarteetan indar kultural nagusia den auto-errealizatzeko moti-bazioarekin loturak ezartzeko.

Kooperatibismoaren kanpo dimentsioa, hots, komunitateari zerbitzu bat eskaini eta gizartearen eraldatzeko motibazioa, baztertuta geratzen ote da? Baliteke erantzuna ezezkoa izatea, enpresa molde berriek garrantzi handia ematen baitiote enpresaren ekintza sozialari, erantzukizun sozialari eta gisako kontzeptuei; hots, garrantzia em-aten diote enpresaren onespren sozialari eta horretarako gizarteari ekarpenak egiten zaizkiola ikustarazi beharra dago; enpresak gizartearekin adiskidetzeko operazioak aspaldi hasi ziren. Arrasateko kooperatibismoari dagokionean ere, seguruenera kon-tua ez da barne-dimentsioari (langileen parte-hartze eta inplikazio aktibo eta zuzena-

ri) garrantzi handia ematen ari zaiola eta kanpo-dimentsioa(gizarte erantzukizuna) baztertuta geratzen ari dela. Kontua, gure ustean, beste bide batetik doa. Gerturatu gaitezen hipotesira.

Geure ustean, ikuspegi historiko batetik, zentzu modalitate sozialak ahuldu eta bestelako zentzu modalitate indibidualistagoak urgaineratzen ari dira. Gizarte eraldaketa ipar duen narrazio batetik, auto-errealizazioa eta auto-garapena oinarri dituen narrazio batera. Horixe izan daiteke gizarte indibidualizatuetakozentzu modalitate tipikoa.

Ildo horretatik, gaur subjektu indibidualek eraikitzen dituzten zentzuek lotura estuagoak dituzte bizitzako esfera pribatuarekin esfera publikoarekin baino. Gure ustean, gaurkoan ahulagoak dira gizarte eraldaketa ipar duten kontakizun sozialak (klase borrokan oinarritu direnak, esaterako), eta indartsuagoak subjektu indibidualaren defentsa eta eraikuntza oinarri duten planteamendu eta bizi estiloak. Kooperatibagintza ere, kontakizun soziala nagusi den paradigma etiko batetik auto-errealizazioa (garapen indibiduala) hegemoniko bihurtu den paradigmara igarotzen ari delakoan gaude. Lan honen azken atalean gehiago sakonduko dugu.

ATAL ESPLIKATIBOA

Arrasateko kooperatibistak aro globaren aurrean¹⁰²

¹⁰² Azken atal honen bertsio laburrago batek 2004ko Juan Zelaia saiakera saria irabazi zuen eta ondoko goiburuekin argitaratu da: *Diruak behar luke bihotzirik. Arrasateko kooptibismo globalizatuaren barrunbeak: atzoko zentzuak, gaurko ajeak, biharko erronkak*, Pamiela, Iruñea, 2005. Hemen aurkezten duguna bertsio luzeagoa eta osoagoa da.

1. Bi hitz euskal esperientzia sozioekonomikoaren balioaz

Arrasateko Kooperatiba Esperientzia (AKE) esperientzia demokratikorik nagusietakoa da enpresaren munduan. Bere arrakasta ekonomikoak analista askoren jakinmina pizten du. Euskal esperientzia honetan hainbatek ikusten du enpresa *izateko eta egiteko* bestelako modu bat, ohiko enpresa kapitalistaren kanonetatik aldentzen dena.

Asko dira Arrasateko kooperatibismoaren lorpenak eta ondo egindakoak. Komunitatearen garapenari bultzada garrantzitsua eman dio langileen autogestioaren ideian oin hartuta. Eragile garrantzitsua izan da lana eta ondasuna sortzeko zereginetan, eta baita sortutako ondasunak berdintasun irizpidez banatzeko lanetan ere. Arrakasta erdietsi duen kooperatibismo mota bat ere bada (arrakasta ekonomikoa, teknologikoa eta finantzarioa). Enpresa *izateko eta egiteko* eredu baten ontasuna neurtzeko orduan kontuan hartzen badira, batetik, aberastasuna sortzeko gaitasuna eta, bestetik, aberastasun hori elkartekideen artean banatzeko modua, AKE pista bat da. Euskaldunok munduari eginiko ekarpen garrantzitsua.

Euskal esperientzia sozioekonomikoa ez da soilik errealitate ekonomiko bat. Ideal zehatz batekin konprometitutako pertsona-sare moduan ere uler daiteke. Promesa baten ondorioz jaio zen: enpresa eraldatzea (barne-demokrazia, komunitatea zerbitzatu, ondasunen banaketa justuagoa, Euskal Herriaren garapena sustatzea) gizarte aldatzeko. Ametsaren jomuga, herritarrek (langileriak) enpresa (auto)governatzea zen, garai bateko jauntxokeria kapitalistari hortzak erakutsiz. Eta enpresarekin batera gizartearen beste arlo batzuk ere bai: hezkuntza, gizarte-aurreikuspena edo osasuna, esaterako. Autonomia sozialaren (langileriaren eta herritarren autoantolaketaren) intuizio eta pentsamendutik abiatu zen bertako protagonista ugari.

Aldi berean, kontraesanak dituen esperientzia ere bada, filiekin batera, fobiak sortzen dituena. Azken urteotan izugarri hazi da, bai negozio-bolumenean nola lan-

gile kopuruan. Eraldatze prozesu sakona bizi du. Eraldaketok zerikusi zuzena dute egungo ekonomia ireki eta globalizatuari erantzuteko premiarekin. Estrukturaltzat jo daitezkeen aldaketa horiek kooperatibaren balioetan, kulturean, egiturean eta izaera juridiko zein antolamenduzkoan ari dira gertatzen.

Prozesu horren berri ematea dugu xede. Barne begiratua da proposatzen duguna, amets hura zertan den ikustea. Euskal esperientzia sozioekonomikoaren bihotz-barrunbeak haztatzea, bere tolesdura intimoak, eta horretarako, hainbat kooperatibistarekin izandako solasaldiak baliatu ditugu.

Euskal Herriko kaleetan dugu eztabaida: Arrasateko kooperatibismoak bere ari-ma galdu ote du? Sekula izan ote du arimarik? Paper hutsean geratu ote dira balio kooperatibistak? Ba ote dago gizartea eta enpresa eraldatzeko egitasmorik? Arrazoi ekonomikoaren eta pentsamendu bakarraren biktima izan ote da?

2. Begiratu kritikoa modernitate kapitalistari: efikaziaren zentzuaz eta zentzuaren efikaziaz

Lan honen hasieran aipatu bezala, ikuspuntu zehatz batetik hurbildu gara fenomeno kooperatibora. Kooperatiba-jarduerak bi arrazionaltasunen arteko oreka bilatzen du. Bestela esanda, bi bulkadak zeharkatzen dute fenomeno kooperatiboa. Bata *arrazionaltasun ekonomiko-instrumentala* da: merkatuan arrakasta lortzea du helburu, ondo egokitzea joko-zelai horren arauetara. Bestea berriz, *balore-arrazionaltasuna*. Horren helburua lehen aipatutako arrazionaltasuna nolabaiteko humanitatearekin uztartzea da, zenbait balioekin bateratzea: printzipio demokratikoekin, komunitatea zerbitzatzea oinarri duen etika ekonomikoarekin, eta finean, etika komunitario batekin. Bigarren ikuspegi honetatik, kooperatibismoa *zentzu-komunitatea* da, *komunitate etikoa*. Hau da, pertsonaren eta bidezko gizartearen gaineko ikuspegi zabalagoa bere egiten duen enpresa jarduna da. Bokazio soziala eta eraldatzailea duen enpresarealitatea. Hitz batean: enpresari bihotza erantsi gura dion ekimena.

Beraz, kooperatibek bere egiten dute modernitatearen berezko tentsioa, modernitatea ulertzen badugu, behinik behin, Max Weberren ekarpenaren haritik. Weberrek zionari jarraiki, modernitatea bi indarren arteko tentsioa baita: *arrazionaltasun formal*a (giza ekintzaren helburua eraginkortasuna lortzea da) eta *balore-arrazionaltasuna* (giza ekintzari zentzua ematen dio bigarren honek, berau azken *zergatiaz* eta *zertarakoez* hornitzen du).

Weberren arabera, lehen kapitalismoaren ezaugarria ez zen inolako mugarik gabe aberasteko desira (*Etika protestantea eta kapitalismoaren espiritua*). Bestela esanda, «kapitalismoaren espiritua»-ren ezaugarria ez zen aberastasunak etengabe eta neurrigabe lortzea, baizik eta jarrera ekonomiko arrazionala izatea: jarrera arduratsua, zuhurra eta legeari errespetua agertzen ziona. Gainera, bizimodu zorrotza zen lehendabiziko kapitalistena. Aszetismo arrazionalan oinarritzen zen. Kode etiko zurrun batek gidatzen zuen lehendabiziko enpresari horien bizitza: austeritatearen kultura

aldarrikatzen zuten, ostentaziorik eta nabermenkeriarik ez zuten onartzen, alferrikako luxua gorroto zuten, eta lortutako ondasunak arduraz eta oso era neurritsuan gozatu zituzte. Puritanismo aszetiko horrek etengabe aritzera, ekitera, eta denborarik ez galtzera zuzentzen zituen fededunak. Beraz, lehen kapitalismoa ez zegoen printzipio etiko guztietatik bereizita. Justu alderantziz, ekonomiaren eta printzipio moral-erlijiosoen arteko lotura zehatz batean hartzen zuen oin.

Gauzak aldatuko dira baina, denborarekin sikatuta geratuko baita printzipio etikoen putzua. Jakina da Weberren diagnostikoak zer dioen: gizarte-bizitza modernoan baloreak galtzen joango dira. Galtzen joango da giza jarduera balorez janzteko gaitasuna. Haustura gertatu da modernitate kapitalistaren eta berau bultzatu zuten helburu moral-erlijiosoen artean. Hots, ekonomiaren eta moralitasunaren arteko haustura gertatu da. Gizarte modernoetan arrazionaltasun instrumentalaren aldeko mugimendua gertatu da. Gizarte bizitza eta ekonomia efizientzia irizpideez gobernatuko dira gero eta gehiago. Jakintza teknikoek gidatuko dute elkarbizitza, eta balore gorenak, pixkanaka, gizarte bizitzako ertzetara bidaliak izango dira. Halako baldintzetan ekonomia nekez txertatuko da ikuspegi holista batean. Gaitzagoa da ekonomi jarduera *gizarte-egitismo* zabalago bati lotzea.

Gaurko pentsalaria den Jürgen Habermasek irakurketa hori jasotzen du, eta antzeko diagnostikoa plazaratu. Bere ustez, arrazionaltasun instrumentalak *bizitzaren mundua kolonizatzen* dihardu pixkanaka. Bizitzaren mundu horretan baloreak ekoiztu eta transmititzen dira. Bertan gertatzen da komunikazio sinbolikoa, zentzuz eta orientazioz hornitzen gaituena. Bada, mundu hori deuseztatzen ari da. Horixe modernitate kapitalistaren patologiarik handiena. *Bizitzaren mundua* baita norbanakoaren eremu sinboliko eta kulturala, integrazio soziopsikologikorako lurraldea, hizkuntzak egituratua, talde akordio tazitoen lekua, auzitan jarri gabeko horizonte komunaren soroa. Eremu honetan pertsonen arteko elkar ulertze prozesuak gauzatzen dira, eta prozesu horiek zentzuz hornitzen dute giza ekintza. Hortxe mamitzen dira errealitatearen gaineko definizio komunak eta unibertso sinboliko konpartitua.

Bizitzaren mundua kolonizatua da beraz: arrazionaltasun ekonomiko eta burokratikoaren menpe geratzen hasiko da. Hots, merkatuaren eta estatuaren logika sistemikoen menpe (erabilgarritasuna maximotzea bilatzen duen logika, irizpide tekniko-funtzionalen lurraldea). Logika horren pean, norbanakoen ekintzak kalkulu interesatuetan oinarrituko dira. Azpisistema burokratiko-estatalak eta azpisistema ekonomikoak autonomia gero eta handiagoa dute, gero eta bereiziago daude bizitzaren mundutik, gero eta aldenduago arautze etiko-moraletik.

Soziologian, modernitatearen analisia egiten denean, sarri hitz egiten da mundu ikuskera globalen eta meta-narratiba legitimatzaileen likidazio prozesuaz. Balioen eta zentzu iturrien lehorte prozesuaz. Norbaitek esaten zuen neoliberalismoarekin merkataritza zentroak sortzen ditugula lehenago komunitateek betetako lekuetan. Ikuspuntu horretatik, zibilizazio moderno kapitalistak inoiz ez bezalako garapen materialaz hornitu gaitu, baina ordainetan arima lehortu digu. Weberrek zioen bezala, *kutxatila espirituz hustu da*. Espiriturik gabeko espezialista da gailendu den figura humanoa.

Balantze orokorra zentzu-galeraz eta asktasun-galeraz mintzo da. Balore-arrazionaltasunak giza ekintza kobernatzeari utzi dio. Ekintza pragmatikoaren des-

potismoa bizi dugu. Efikazia, efikazia, efikazia. Gizaki eredu bat ekarri du horrek, eta portaera eredu bat: funtzionalak diren arrazionaltasuna, mentalitatea eta jokaera gailentzen dira, eta zentzuz hornitzen gaituzten giza dimentsioak erreprimিতта gertzen dira. Garrantzitsua da gure jokaleku makro-historiko honen ezaugarriak ezagutzea, bertan jaio eta garatu baita AKE.

«Neokontserbatzaile» deiturikoek (Daniel Bell, M. Novak, I. Kristol eta P.L. Berger) antzeko analisia egiten dute kapitalismoari buruz. Lehen kapitalismoa, bizitzaren ikuskera eta estilo moral bati lotuta agertzen zaiguna, bere arrakastan bertan hondoratu da, bere buruaren biktima izan da, arrakasta horrek lehortu baitu bere balore-sistema. Weberrek hain zorrotz aztertutako lehen kapitalismoaren *ethos* aszetikoa desagertu da, eta kontsumismoan eta hedonismoan oinarritutako bizimodua sortu. Autore horiek bat datoz Weberrek jaurtitako abisuarekin, eta zera diote: aberastasunen ugaritzeak kontsumoaren etika dakar, eta fenomeno horrek kontsiderazio utilitarioak ezarriko ditu motibazio erlijiosoen lekuan. Geroago, kontsiderazio hedonistak gailenduko dira.

Beraz, egile horien ustez kapitalismoaren egungo krisia nagusiki krisi moral edo espirituala da, jada ez baitago «lokarki trascendentalik» sistemari «esanahi gorenak» eta egonkortasuna emango dizkiona. Gure gizarteek galdua dute aszetismo puritanoa, hau da, gizarte kapitalistaren balore-sistema tradizionala. Irakurketa horrek nostalgiak jota uzten ditu autoreok. Konponbidea? Berriro bueltatzea erlijiora, «bir-liluratze erlijioso» berri bati ekitea. Zentzu-beharrak giza komunitateen behar estrukturala da eta erlijioak bakarrik ase dezake behar hori, ez beste era bateko utopiaren batek. Autoreok erruki barik erasoko diote utopia sozial edo sozialistari lotutako proposamen orori. Bihotza behar, baina ez gorri kolorekorik antza.

Nietzschek ere ohartarazi gintuen Jainkoaren heriotzaz eta «zentzu galeraren» gertakiaz, askoz lehenago egin ere.

Orain kontatu behar dudana datozen bi mendeetako historia da. Zer gertatuko den deskribatuko dut, ezinbestean nahitaez gertatuko dena: *nihilismoaren etorrera*. Historia hau orain ere konta daiteke, premia bera ari delako oraintxe eragiten. Etorkizuna oraintxe mintzo da..., gure patua non-nahi iragartzen da... Europako kultura guztia aztoratua dago aspalditik, tentsio urragarri batekin, hamarkadatik hamarkadara handitzen den larritasunaz, hondamendira balihoa bezala; asaldaturik, bortitz, arrapaladan, bere helmugara lehenbailehen iritsi nahi duen uholdea bailitzan. Dagoeneko ez du gogoetarik egiten, beldurra dio gogoetari.¹⁰³

Bizi dugun garaian hitzetik hortzera darabilgu zenbait kontzeptu: «ideologiaren amaiera» (Bell), «meta-kontakizunen» pitzadura (Lyotard) edo «gainbehera ideologikoa» (Habermas). Horixe omen gure garai historikoaren taupada. Postmodernitatearen garaia omen. Gaur gainbeheran hautematen da beste garai bateko formulazio ideologikoen potentzia sinboliko eta integratzailea. Horixe, bizitzea suertatu zaigun aro historikoaren ezaugarri garrantzitsuenetako bat. Behialako Jainkoaren osteko jainko sekularrak ere hil omen.

Joxe Azurmendirekin bat gatoz: «Kapitalismoaren arazoak ez dira funtzionamenduko arazo teknikoak. Alde horretatik garbi dago ongi funtzionatzen duela. Krisia ez

¹⁰³ F. Nietzsche, *La voluntad de poderío*, Madril, 1981, 29. or.

da sistemako teknikei buruzkoa, sistemako gizon eta emakumeei buruzkoa baizik, ideiei eta etorkizuneko itxaropenei buruzkoa. Batzuetan ematen du ahaztu ere egin zaigula etorkizuneko «ordena berria»rena... Orainaldian galduta, etorkizunik gabe. Ideologia historiko handien hondamendiaren atzean, krisi hau erraz sumatu daiteke Europan, desorientaturik dabilzan ezkerretan; baina, ziur aski, baita Arizmendiarrietak abiarazitako kooperatibismoaren barruan ere...»¹⁰⁴

Modernitatea, horrenbestez, zentzu eta identitate (sendoen) krisiaren jokalekua litzateke: «Hauxe izan liteke gure garaiko errealtate eta egoera: identitate konpartituen desagitea, hots, gizartea desagitea esanahiz hornitutako sistema sozial modura»¹⁰⁵.

Arau zanpatzaileek gizakion bizi horizonteak estutu eta sufrimendu tonak eragin dituzte historian zehar. Hezur haragizko andre-gizonak makurrarazi eta gerri ugari tolestu dituzte, hainbaten bizitzak infernu bilakatzerainoko. Balore kristauen gauzatzeko historikoa bizitzaren ukatzailea izan da gehiegitxotan. Eta bestetik, sokaren beste muturrean, araurik ezak hezur eta larru uztearekin egiten digu mehatxu, arlo indibidualean sufrimendua baitakar horrek, eta arlo sozialean desintegrazioa eta noraeza. Hermeneutikak aspaldi erakutsi baitzigun gizakia ez dela soilik izaki biologikoa, animali sinbolikoa ere badela; are gehiago, izaki sinbolikoa dela biologikoa baino gehiago. Gizakiok jaiotzatik heriotzaraino sinboloz eta metaforaz inguratuta gaude. Ez gara bizi soilik unibertso fisiko batean, gure unibertsoa sinbolikoa ere bada. Sinboloek batasuna dakarte, besteei lotzen baikaituzte, eta unibertso sinboliko horietan sostengatzen gara gizakiok, interdependentzia afektiboan eta komunio sinbolikoan. Hortxe bere funtzio antropologikoa: batu eta lotu egiten gaituzte, bakardadearen eta hain oinarrikoa dugun hauskortasunaren antidoto gisa.

Sinboloak suntsipenaren alde erabil daitezke, baina, sinboloen funtzio integratzailea ere hortxe dago, anibalentziarekin oreka gaiztoan, giza kondizioaren funtsezko ezaugarria dela oroitaraziz. Eta hortxe daude zenbait sinboloren inguruan aurrera eramandako proiektu kolektibo askatzaileak. Finean, gizakiok metaforaz betetzen ditugu geure bizitzak, narrazioez estali geure biografiak. Errealtateari zentzua ematen dioten utopiez ere bai. Hortxe babes, hortxe segurtasuna, hortxe bizitzari ipar eta noranzko bat eranstea aukera, eta hortxe bide askatzaileak urratseko ezinbesteko baldintza.

Giza kondizioari darion funtsezko osagaia dela ikusita, erraz uler daiteke mendebaldeko zibilizazioak eragiten duen zentzu-krisia ez dela ahuntzaren gauerdiko eztula. Instrumentaltasunaren jainkotzeak eta arrazoi teknologikoak ez digute etorkizunik eskaintzen berauek arrazoi sinbolikoarekin biderik egiten ez badute bederen. Etorkizunak, bi indar horien arteko orekaren bidea behar du izan, bide amaigabe eta imperfektua, baina bide.

Esandako guztiagatik, balioen, mitoen, sinboloen eta zentzuen galera, identitate kolektiboaren makaltzea edo ahultzea (edo hori gertatzen ari delako sentsazioa), oso prozesu

¹⁰⁴ Joxe Azurmendi, «La idea cooperativa: del servicio a la Comunidad, a su nueva creación», Gizabidea Fundazioa, 1996ko azaroa, Arrasate.

¹⁰⁵ Manuel Castells, *La era de la información. Economía, Sociedad y Cultura. Vol.2: El poder de la identidad*, Alianza Editorial, Madrid, 1997, 394. or.

mingarria izan ohi da pairatzen duen giza komunitatearentzat. Egoera agonikoan dauden kulturak oso ondo dakite hori. Mundu sozio-kulturalak zentzuz, orientazioz eta segurtasun psikologikoz hornitzen gaitu, eta berau desegiten ikustea hari mehe batetik zintzilik geratzea bezalakoxea da. Galdutako paradisua edo arkadia zorionsua oroitzeak sortzen duen sufrimendua da hori, esango luke baten batek. Edo tradizioz eginiko etxalde be-roaren eraispenak sortzen duen mina, beste zenbaitzuek. Sutondoko epeletik egotziak izatea, finean. Dena delakoa, gizaki modernoon dimentsio moral, kultural, espiritual eta sozio-psikologikoa hezur eta larru egon daitekeela pentsatzea ez da, ez, edozelako diagnostikoa. Ez da edonolako hutsunea, gizakia izateak zentzuz bizitzea esan gura baitu.

Inongo *zentzu-aterpe* bako mundua bizi dugula? Elkartasun zantzurik agertzen ez duen mundu izoztua? Interes indibidual egoistari baino ez diogula jarraitzen eguneroko bizitzan? Ez dugu hori esan gura. Samuelson-en hitzak datozkigu gogora: «Ez dela musutruk ezer egiten? A ze txorakeria. Lau bilioi salbuespen besterik ez duen lege zientifikoa da hori. Hori egia balitz, giza espezieko inork ez luke astebete ere iraungo»¹⁰⁶.

Indibidualismo modernoak abantaila ugari ekarri digu, taldeek zailago baitute norbanakoak irenstea. Baina, aldi berean, konpartitutako proiektu eta zentzuak desagertzen doaz denboraren poderioz. Ematen du deabruarekin egin dugula paktua. Baliabide materialez eta eskubide indibidualez ondo hornitutako gizarteetan Anomiaren laztan hotz eta suntsitzailea egonkorra bihurtu ote zaigun, atomizazioa eta sufrimendu psikikoa gure bidaiaren geltoki saihestezinak izango ote diren, hortxe gakoa. Indibidualismoaren garaian zentzuz bizitzea ariketa zailagoa bilakatu zaigu. Gainbeheran antzematen dira gizarte eta pertsonak norabide jakin batean mugiarazteko gai diren proiektuak.

Finean, modernitate kapitalistarekin *efikazia* dugu goratu beharreko jainko berri, eta gauzen *zergatiak* eta *zertarakoak* lauso ageri dira. Manuel Fernández del Riesgo-ren hitzetan:

Max Weber-ek iragarritakoa betetzen ari da: menderakuntza arrazionalaren logika da nagusi. Arrazionaltasun teknologiko instrumentala da, gizakia gauza bihurtzen duena, gizakia pobretzen duena. Azken finean, efikaziaren printzipioa maila gorenera igotzen duen arrazionaltasuna, xedeak batere zalantzan jarri gabe, xedeak kritikoki aztertu gabe. Beraz, interes teknikoaren zerbitzura jarritako arrazoi instrumentalaren nagusitasuna, Frankfurtoko Eskolako autore guztiek salatua, gizkiaren benetako askapena ziurtatzen ez diguna. Paul Ricoeur-ek gogorarazten digun bezala, arrazionaltasun zientifikoak aurrera egin bitartean, atzera egin dute beste kontu hauek: zergatik eta zertarako galderek, giza bizitzaren guztizko zentzuak eta gizon-emakumeen zoriontasunak. Bizitzaren zentzuaren eta baloreen gaineko azken galderak egin gabe, garapen zientifiko eta teknologikoak bultzatzen duen arrazoi instrumentalak teknokraziaren ordena sozialaren alde egiten du azkenean.¹⁰⁷

Efikaziak zentzua galdu du, eta zentzuek efikazia.

¹⁰⁶ P. Samuelson, «Amor», *Newsweek*, 1969ko abenduaren 29a, ondoko lanean: *Economía desde el corazón*, Madril, Biblioteca de economía 19, Orbis, 1984.

¹⁰⁷ Manuel Fernández del Riesgo, «La posmodernidad y la crisis de los valores religiosos», in G. Vattimo eta beste batzuk: *En torno a la posmodernidad*, Anthropos, Bartzelona, 1994.

3. Kooperatibismoa Modernitatearen argitara

Gure munduan konpromiso moralak gero eta gutxiago arautzen du bizitza ekonomikoa, beronek efikaziaren jainko «arrazionalari» errezatzen baitio soilik. Horrek ez du esan gura gaurko erakundeek portaera ez morala bultzatzen dutenik derrigorrez, ezpada ekintza sozialek «adiaforikoak» bilakatzeko joera dutela. Hots, berez ez dira ez onak ez txarrak. Termino teknikoetan baloratu beharrekoak dira: aurrez finkatutako helburuak lortzeko erakutsi duten gaitasunaren arabera baloratu beharrekoak, ez balore moral-etikoak irizpide hartuta.

Baliabidez eta bitartekoz sekula baino hornituago dagoen zibilizazioa da Mendebaldekoa, baina ez dakigu nora goazen. Edo beharbada txarragoa dena, noranzko arriskutsu bat hartua dugulako susmo sendoa dugu. Eta ez dakigu ontzi hau nola geratu. Lekutan geratzen da etorkizuna esperantzaz argitzen zuen garaia. Lekutan ilustratuen espiritu baikorra. Gaur etorkizunari beldurra lotzen zaio nagusiki, edo gutxienik, arrisku sentimentua. «Arriskuaren gizartea» da gurea (Beck). Zygmunt Bauman-ek zioen moduan, «hegazkineko bidaiariek oso goian daudenean kabinan inor ez dagoela ohar-tzean zer sentitzen duten, ba, horren antzekoa da gure esperientzia.»¹⁰⁸

Bada, euskal kooperatibismoari buruzko gure funtsezko galdera hortik doa: kooperatibagintzaren ibilbidea zibilizazio modernoaren metafora gisa uler ote daiteke? Jakin gura dugu ea arrazionaltasun instrumentalak mundu kooperatiboa bere agindupera makurrarazi duen; ea baztertu, aldrebestu, indargabetu edo makaldu diren ekintza kooperatiboaren zentzu humanista eta logika ez instrumentalak. Azken batean, jakin nahi dugu ea zentzu— eta identitate-krisi baten aurrean gauden. *Bitartekoetan perfekzioa eta helburuetan konfusioa*, AKEk deriba hori izan ote duen galdetzen diogu geure buruari. Kooperatibismoaren hegazkineko kabinan norbait ote dagoen, hegaldiaren norabidea eta helmuga ezagutzen duenik bederen.

Kooperatibagintzaren desartikulazio sinboliko, ideologiko eta kulturalaz galdetzen dugu azken batean. Suntsitu egin ote dira hazkuntza ekonomikoa luzaroan sostengatu duten zutoin kulturalak? Kooperatibista askoren bizitzak oinarritu dituzten zentzu kolektiboak sikatzen ari ote dira? Jarduera ekonomikoa helburu etiko baten morroi jarri gura zuen esperientzia honek, jainko bakar bihurtu ote du ekonomia eta beroni datzekion arrazionaltasun instrumentala?

Alfonso Gorroño goitia dagoeneko ederki ezagutzen dugu: Arrasateko kooperatibetako lehen belaunaldikoa dugu, Arizmendiarrietaren kolaboratzaile zuzena, enpresa-gidari aparta izandakoa eta, seguruenera, lider sozialik handiena. Bada, zera zioen, ohi duen gar eta irmotasunarekin: «Gizon-emakumeak beren bidearen jabe izan daitezen, barruan musika behar dute, musika berezi bat. Musika bakarra diruarena eta erosotasun mugagabeekin bizitzeko nahiarena bada, nekez eraldatuko ditugu gizartearen egiturak». Kooperatibismoaren egitasmoari oraindik musikaririk badarion galdetzen dugu lan honetan, kooperatibistek euren barruetan musikaririk

¹⁰⁸ Z. Bauman, *Comunidad. En busca de seguridad en un mundo hostil*, Siglo XXI, 2003.

sentitzen dutenetz. Eta hala bada, zein melodia. Izan ere, globalizazioak pentagrama, konpas, erritmo eta instrumentu berriak inposatzen ditu, eta kooperatibismoak bere gustuko partitura baldintza horietara doitu behar du, musika-kodeak eraberritu. Baina bidean berezkoak dituen doinuen esentziak galdu barik. Bere-berea duen harmonian gehiegizko disonantziarik sortu gabe. Artzek zioen legez, iturri zaharretik ur berria edanez. Egiten ari ote da halakorik?

Kontua zera da, euskal kooperatibismoari buruz eta berau gauzatzeko aukerei buruz berba egitea neurri handi batean modernitateari buruz jardutea dela. Mendebaldeko kulturak bizi izan duen bilakaeraz jardutea da, bere paradoxez, anibalentziaz, kontraesanaz eta etorkizunerako aukerez. Bertako seme-alaba baita kooperatibismoa, modernitate industrialaren sorkide. Kooperatibismoaz hitz egitea gizarte— eta enpresa-eredu batez hitz egitea da, giza identitate eta giza eredu batez, ondorengoak uztartu nahi lituzkeena: ekonomia eta etika, pragmatismoa eta balio humanistak, hazkunde ekonomikoa eta gizartearen kohesioa, arrazoi ekonomikoa eta arrazoi solidarioa, errentagarritasunaren irizpideak eta demokraziarenak.

Arrazionaltasun biak integratzeko saiakera hori da Ilustrazioaren funtsezko promesa, gizakion emantzipaziorako eta autonomiarako ezinbesteko bidea. Baita gizarte eta kultura modernoaren arazorik handiena ere: sistema instrumentalaren *eraginkortasuna* (sistema teknokratiko eta merkantila) eta gizakiok beharrezkoa dugun *zentzu* pertsonal eta kolektiboak uztartzeko zailtasuna¹⁰⁹.

Jende asko arduratu da, eta arduratzen da gaur egun ere, kooperatibismoak mundu zabalean duen bilakaeraz. Kezkatzen gaitu bereziki aipatutako bi bulkadaren arteko orekaren hausturak. Eta jakina da haustura bi norabideetan gerta daitekeela. Batetik, oinarri ideologikoei dagokienez bikaina den kooperatibismoa daukagu, baina enpresa ikuspegitik porrot egiten duena (adibideak non-nahi aurki daitezke). Eta bestetik, pragmatismo ekonomizistaren arrimura irristatuz, arrakasta lortu bai, baina muin etiko-morala galbidean duen kooperatibismoa.

Tentsio hori etengabe bizi dute bestelako ekonomia eta enpresa molde bat garatu nahi dutenek. Brasilgo *Lurrik Gabekoen Mugimendua* datorkit gogora. Euren antolamendu ekonomikoa kooperatibismoa dute ardatz nagusi, eta porrot ekonomikorik ez, baina zailtasunak bizi dituzte. Eduki politiko-ideologikoz dotore jantzitako kooperatibismoa gestio eraginkorrago batekin uztartzea behar eta nahiko lukete. Israelgo kibutzak adibidea ere esanguratsua da. Belaunaldi berriek «komunismo gutxiago eta errendimendu gehiago» eskatzen dute, ideia distiratsuek ez baitute sabela lasaitzen. Bertako enpresari gazteak merkatuan bizirauteko beharrezkoa den ethos ekonomikoa beharraz mintzo dira: «Oso eroso da esatea gu sozialismoaren kontrako konspirazio baten jainu maltzurak izan ginela. Baina kibutzak, administratzen ari ziren bezala administratuta, kiebra jotzeko zorian zeuden. Zoritxarrez, kibutzak zutik jartzeko modu bakarra hauxe izan da: kolektibismoaren behi sakratuei lepoa moztea.»¹¹⁰

¹⁰⁹ A. Touraine, *¿Qué es la democracia?*, Temas de Hoy, Madril, 1994.

¹¹⁰ Ramy Wurgaft, «Kibutz, otro sueño que se muere», *El Mundo*, 2000eko urriaren 1a.

AKE kooperatibismo arrakastatsua da eta bertan gertatzen ari den haustura, gertatzekotan, balioen aldetikoa litzateke. Bada bere heriotza-agiria aspaldi sinatu duenik:

Helburu eraldatzaileekin jaino zen esperientzia kooperatibista modura, porrot egin du, praktikan bazterrean utzi dituelako helburu horiek eta haiei eusten zien kode etikoa. Porrot horrek ez du bueltarik. Ez dago «Corporación Cooperativa Mondragón»en kooperatibismoa berritzeko edo lehengoratzeko modurik, ezinezkoa baita, orain arte ikusi den bezala, aldi berean sistema kapitalistaren parametro konbentzionalen bidez efikazia ekonomikoa bilatzea eta printzipio kooperatibistak betetzea. CGMek, segur aski, kapitalismoaren ekonomia globalizatuan integratzen segituko du etorkizunean eta, ondorioz, oraindik izaera juridiko kapitalistako enpresetatik bereizten dituen ezaugarri batzuk galduko ditu.¹¹¹

Jakina da pentsamendu ezkertiar eta kritikoaren zati batentzat Arrasateko mugimendu kooperatibista galbidean dagoela. Mundu kooperatiboaren barrutik ere egin da hausnarketarik. 2003ko maiatzean egindako MCCko VIII. Kongresuan, ondoko gogoeta egin zuten bertako erakunde ofizialek:

Sarri samar entzuten da Korporazio barruan ez dagoela eztabaida kooperatiborik, gero eta zentzu pragmatikoagoa dagoela, eta I. Kongresuan onetsitako printzipio kooperatibistetatik aldenduago gaudela. Izaera lukratiboko aspektuetarantz labaintzen ba-geunde bezala, benetako nortasun zeinuekin zerikusi gehiegirik ez duten gaietarantz.

Baina, gure printzipio eta baloreetan erreparatzen badugu batetik, eta 1987an eta 1991n onartutako lanaren eta kapitalaren trataeran bestetik, bien arteko orekan ez da gertatu aldaketa garrantzitsurik....

Juan Metz teologo alemaniarrek zioen gaurko Europan ez dela erlijioa gizarte burgesa aldatzen duena; azken hau dela, gizarte burgesa alegia, erlijio kristauak duen onena moteltzen eta indargabetzen dabilena.

Halako zerbait gertatzen ari ote zaigu geure printzipioekin?

Esperientziaren helburutik urruntzen ari ote gara, hau da, pertsona kooperatiboagoa eta solidarioagoa moldatzetik?

Hezkuntzak gure kooperatibismoaren printzipioak uretzatzeko duen aparteko indarrak ahaztu egin ote gara?

Komenigarria ote litzateke eztabaida bat irekitzea ideien ikuspegi horretatik?

Nabaritzen denean identitate eta zentzu-mundua urperatzen ari dela arrazionaltasun instrumentalaren ur izoztuetan, zera pizten da, zentzu-krisiaren sentimendu hotza. Baina jokoan dagoenak oraindik geruza sakonagoak ukitzen ditu: giza autonomia bera dago jokoan. Zentzu-krisiaren igurtziaz gain, askatasun-krisiarena dugu. Hau da, gaurko mundu globalean jokoan dago esperientzia sozioekonomiko anitzak eraikitzeo aukera erreala, kontzienteki aukeratutako balioak ipar dituzten esperientzia beregainak sortzeko aukera erreala.

Azken batean, ondokoa da gaur mahai gainean dugun galdera: ea ekonomia kapitalistaren zabalkunde hazkor eta globalaren ondorioz, ezartzen ari ote zaigun inongo balore-inpugnaziorik onartzen ez duen ekintza-ibilbidea; ea inposatzen ari den jarduru-

¹¹¹ Iñaki Uribarri, «El otro cooperativismo», *Hika* aldizkaria, 59. zk., 1995eko uztaila-abuztua, Bilbo.

teko modu uniforme eta bakarra. Eta beraz, ea berez dagokiguna kentzen ote zaigun: autonomia, askatasuna, auto-orientatzeko aukera.

Globalizazioaren aurrean ahalmenik gabe sentitzeko arriskua dugu. Merkatuak bide bakarra eskaintzen duela sinesteko arriskua. Norberaren autonomia eskas eta zirkunstantzien zama astun sentitzen dute askok, eta bide bakarra ageri da halakoe-tan: merkatu-legeetara makurtzea eta berauek zintzo betetzea, kosta ahala kosta (baloreak efikaziaren aldarean sakrifikatuz, hala behar bada). Ondokoa da gaixotasunaren diagnostiko posible bat: merkatuaren atzaparrek ondo helduta dute kooperatibismoa samatik, eta balore-mugimendu ausartik eginez gero, atzaparrok errime estutzen dute bere zintzurra. Merkatuaren legea zorrotz jarraitu ezik, arnasa galtzerainoko indarrak estutuko dute. Beste modu batera esanda: merkatuak ez beste inork agintzen duen testuinguruan, «gehiegizko» balore orientazioa porrot ekonomikorako pasaportea litzateke. Kasu horretan, lehiakortasunaren guda zelaian zerraldo geratzean, alferrikakoak egitasmo ederrak.

Jokoan dagoena ez da nolanhikoa: geure bizitza gidatzea kontzienteki aukeratutako balioei kasu eginez. Hauxe dugu gakoa: ea etorkizuna eraiki daitekeen ala ez —eta zein neurritan— gizakiaren nolakotasun espezifikoan oinarrituz, hots, zentzua sortzea eta geure izatea horren arabera gobernatzea. Kontua da C. Wright Millsek 1959an, Aro Modernoaren amaiera izan zitekeenaren aurrean, jaurtitako baieztapen kezka garriari aurre egitea: «Historiaren gauzatzea, gaur egun, gizakiak aukeratutako balioen arabera bizitzeko duen trebetasunaz haratago dago»¹¹². Subjektuaren heriotza litzateke hori.

Beraz, balioen galerak berebiziko garrantzia duen arazo batekin jartzen gaitu aurrez aurre, kooperatiba enpresaren arloan ere bai: subjektibotasun erresistente bat sortzeko aukera eta beharra. Egituren, gizartearen edo globalizazioaren indarraren aurrean, indibiduo eta taldeek subjektu izateko duten gaitasuna handitzea da desafioa: geure bizitzaren gaineko kontrola berreskuratzea, geure buruak geuk aukeratutako balore-bidetik arautuz, geure historia txikiaren subjektu aktibo eginez. Egokitzapenerako aginduak eta auto-determinatutako ekintzak uztartzea, horretan datza desafioa.

Balore krisiak subjektuari buruz galdetzeraz garamatza zuzen. Hori da gaurko galderarik deserosoenetako bat, subjektuaren heriotzaz galdetzen duena, modernitatearen amaieraz finean. Ez da, ez, makala desafioa. Nietzschek Jainkoaren heriotzaz hitz egin zuen, eta Foucaultek subjektuaren requiema aitatu zigun. Baina Foucaultek berak, bere bizitzaren azken zatian, historian aktibo eta bizirik jarraitzen duen subjektua erakutsi zigun, mezu positiboagoa luzatu guran-edo. Dominazioaren lurraldean beti dago erresistentzia, esan zigun. Ildo beretsutik, badira azkenotan planteamendu eraberrituak, subjektua erreskatatu gura dutenak. Ez ilustrazioaren eta iluminismoaren subjektu harroa, ezpada subjektu moral (Apel, Habermas, Muguerza, Adela Cortina), narratibo (Ricoeur, McIntyre) edo diskurtsiboa¹¹³.

¹¹² C.W. Mills, *La imaginación sociológica*, FCE, Madril, 1993.

¹¹³ C. Thiebaut, «El sujeto posmoderno. Una reivindicación del sujeto moral tras su descarte en el siglo XX», *Areté*, XIII/2, 2001, 91-111 or.

Izan ere, Modernitatearen subjektu harroak kolpe latzak nozitu ditu. Kopernikok esan zion ez zela unibertsoaren zentroa. Darwinek tximinoen ondorengo genetiko kalifikazioaz umiliatu zuen. Eta azkenik, Freudek izaki kontziente-autonomo gisa destronatu eta inkontzientearen putzu beltza erakutsi zion. Hemendik aurrerako subjektu, aktore, herritar edo giza eragilea xumeagoa beharko da izan. Modernitatearen ohiko harrokeriarik bakoa. Jasandako umilazioen lezioak ondo ikasitakoa. Ahulagoa. Bidegurutzez josia. Eta errealitatearen anibalentzia eta paradoxak aguantatzeko ahalmenaz hornitua. Gizarte-baldintzapenen kontzientzia duena, baina bere autonomia erlatiboarena ere bai.

Egia esan, kontzeptu handi eta potoloek esklabo egin gaituzte neurri batean. Nazioa, aurrerapena, klasea, erlijioa, eta bestelako kontzeptu hunkigarriek euren zerbitzura jarri gaituzte, sarri pertsonen beharren gaintetik eta pertsonen kontra. Kontzeptuotako batzuk jausi edo makaldu izanak egoera onean jartzen gaitu egindako akatsetatik ikasi eta gauzak beste era batera formulatzeko. Beraz, subjektu ahula hemendik aurrerakoa, subjektu umilagoa, baina nahikoa. Nahikoa gaitasun sinbolikorako, erresponzabilitate moralerako eta utopia askatzaileen fabrikaziorako. Geurera ekarriz, subjektu kooperatibista (eraldatzaillea) errekueratzea beharko dugu. Eta, hein handi batean, sinboloen bidez egin beharko da hori, zentzu kolektibo eraberrituen bidez. Ideiak eta gizakion ahalmen sinbolikoa eragile historiko indartsuak baitira. Egia da: gaitza da historia gidatzea kontzientzietan kosk egiten duten ideia horiekin bakarrik. Baina ideia orientatzaile barik edozein ahalegin alferrikakoa izango da.

4. Arrasateko Kooperatiba Esperientziaren genesi garaiko zentzuak

«If you want to move people, it has to be toward a vision that's positive for them, that taps important values, that gets them something they desire, and it has to be presented in a compelling way that they feel inspired to follow»,

Martin Luther King

«La lucha por la existencia es una lucha «por» algo; tiene un propósito y sólo siendo así adquiere significación y es capaz de aportar sentido a la vida.»

Viktor E. Frankl

4.1. *Eragile subjektibo eraginkorra*

Asko dira Arrasateko enpresa-arrakastaren gakoak. Hona hemen Alfonso Gorroñogoitiak aipatu ohi dituen batzuk:

- a) Lehen kooperatibaren arrakasta funtsezkoa izan zen, ondorengoen garapeneren oinarri izan zelako.

- b) Arrakasta, neurri handi batean, espainiar estatuan 50eko hamarkadan bizi zen egoera ekonomikoari zor zaio: merkatu autarkikoa, hau da, kanpoko kompetentziari itxia.
- c) Arizmendiarrietaren gidaritzza irmo eta zuhurra.
- d) Kode moral estua garatu zen langileen eskaera justuei ondo erantzungo zion enpresa eredu sortzeko; bultzada morala baldintza teknokratikoak baino garrantzitsuagoa izatera iritsi zen.
- e) Erakunde-arkitektura konplexua eratu da, arau ugariz eta egitura operatiboz osatua; gainera, ordenamendu juridiko zorrotza sortu da, etengabe eguneratzen dena.
- f) Enpresa-elkartegintza (erantzun komun eta eraginkorrak izateko aukera ematen duten erakunde konpartituak: Euskadiko Kutxa, Lagun-Aro, unibertsitatea, eskualdeko eta sektorekako taldeak ...).
- g) Emaizten kapitalizazio osoa.
- h) Ordaintzeko orduan elkartasun irizpideak (ordain-sarien eskala batetik hirurakoa zen hasiera batean).

Kooperatibismoaren gaineko zenbait ikusmoldek, idealistak eta izaera moral nabarmenekoak, enpresa alderdiak alboratu dituzte (enpresa-mentalitatea). Alderdi horiek anti-utopiaren ikono izan dira askorentzat, borrokatu beharreko mamutzarra. Modu bateko ala besteko egitasmo utopikoak izan dira lehenetsi beharrekoak. Ondorioz, anti-ekonomizismoaren lorratza erraz aurki daiteke hainbat esperientzia komunitario eta kooperatibotan.

Arrasateko kooperatiba-kulturak sorreratik pragmatismoaren ukitu nabarmena izan du. Beste ezaugarri batzuen artean, nabaria da enpresa-jarduerari datzekion arrazionaltasun instrumentala bere egin duela inolako konplexurik gabe. Hau da, Arrasateko kooperatibismoak beti aitortu izan du lehentasuna duela enpresa-eraginkortasunaren printzipioak, eta berau oinarritzkoa dela gizarte-egitasmo kooperatibista lortzeko. Gizarte -eta enpresa-sentsibilitatearen artean dagoen ustezko aurkakotasuna hausten du. Bien artean hautatu beharra proposatzen duen formularen lekuan, elkarren osagarri direla eta elkar behar dutela pentsatuko da. Ekonomiaren (arrazionaltasun ekonomikoaren) eta etikaren (arrazionaltasun demokratiko-sozialaren) arteko harremana *nagusiki sinbiotikoa* da: zenbat eta aurrerago joan enpresa-arloan, orduan eta gehiago aurreratuko da autoeraketa kolektiborako egitasmo demokratikoan, eta baita garapen komunitarioan ere.

Kultura horrek, enpresaren jardunari mesfidantzaz begiratu beharrean, berau bere egiten du, era naturalean egin ere. Aipatutako *ethos* kooperatiboa Arrasateko kulturaren gakoetako bat da eta baita bere enpresa-arrakastarena ere.

Hori bai, Arrasateko kooperatiben arrakasta ez dator arrazionaltasun instrumentalarri (efikaziari) aitortzen zaion obedientziatik eta bestelako irizpideei uko egitetik. Arrasateko kooperatibismoak pragmatismoaren eta zentzuen arteko loturari zor dio bere indarra hein handi batean. Mistika jakin batekin eta «muga-kontzeptu» batzuekin izan duen konpromisoari. Hainbat kooperatibistaren kasuan, *gizarte-egitasmo* maila izatera ere iritsi dira konpromiso ideologiko horiek.

Ideiak indar aktibo eta eraginkor bilakatu ziren, errealitatea norabide jakin batean eraldatzeraino. Osagai sinboliko eta kulturalen potentziaren adibidetzat har daiteke AKE. Ez dago gaizki aspektu hori ondo iltzatzea gure kontzientzia eta analisisietan. Are gehiago ideien eta ideologiaren indarraren inguruan hain eszeptiko bilakatu garen honetan, eta etsipenak gure barrenetan ostatu hartu duen mundu konplexu eta post-modernoan.

Beraz, kooperatibismoa, errealitatea aldatzeko eta hobetzeko bokazioa duen kontakizun gisa auto-definitzen eta auto-ulertzen da. Bestelako enpresa eredu bat sortzeko narrazio gisa, eta bere formulazio ausartenetan, baita bestelako gizarte eredu bat ere. Arrasateko enpresa— eta kooperatiba-jarduna sorreratik arrakastatsua izan zen, besteak beste, balore-euskarria topatu zuelako. Euskarri horrek, lan jarduerari zentzu kolektiboa eman zion, eta horretaz gain, enpresa-garapena (kooperatibarena) legitimatu zuen eta egitasmo on eta komenigarri bezala identifikatu. Arrasateko kooperatibismoa *zentzu-gorputz* bati eta *legitimazio ideologiko* bati lotu zitzaion, eta osagai horiek arrakasta handiarekin bultzatu eta koordinatu zuten giza talde baten ahalegina. Horrela, enpresa-jarduna etorkizun-ikuspegi eta narrazio jakin batean txertatu zuten.

Gaur enpresa munduan oso modan daude «osagai ukiezinak» (sinesmenak, baloreak, motibazioak, aspirazioak, jarrerak...). Horiek baliatzen dira merkatuan arrakasta lortzeko. Lastima litzateke, paradoxikoa ere bai, enpresa munduak kulturaren eta «ukiezinen» garrantzia deskubritu duen honetan, euskal kooperatibismoa higitzen ikustea bere higitze kulturalari irtenbiderik bilatu ezinik.

Buelta gaitezen harira: enpresa- eta kooperatiba-jarduna moralki ainguratuta gelditu ziren. Zenbait osagai etiko-kulturalek ko-gobernatzen zuten enpresa-ekinbidea. Zentzu-ildo horiek, *inter-subjektiboki konpartituak eta moralki lotesleak* zirenak, bizi-jarrera bat sustatu zuten, *ethos* bat eta kode moral jakin bat. Bizitzeko era jakin bat eratu zen, lanean buru-belarri aritzea ezaugarri zuena, eta ondorioz, enpresa-arrakasta ahalbidetu zuena.

Zenbait balorek eragin handia izan dute Arrasateko kooperatiba-kulturan eta bertako aitzindariengan: lanak, esfortzu pertsonalak, aurrezteak, komunitatea zerbitzatzeak, soiltasunak eta autodiziplinak. Arreta berezia merezi du «lanak» eta beroni erantsi zaion balio etiko-moralak. AKE lana ardatz hartzen duen munduaren ikuskeran oinarritzen da, «lanaren ideologian». Pertsona batzuen artean lana esanahi traszendentea izatera iritsi da. Arizmendiarraren pentsamenduan lana da komunitatearen alde egiteko modua, autoerrealizate pertsonalerako bidea, eta baita ere Jaungoikoarekin mundua hobetzen laguntzeko era. Arizmendiarrak pertsonari buruz zuen ikuspegiak gizarte industrialak berezkoa izan duen *homo faber* ereduaren oinarri.

«Lan asko egin eta gutxi kontsumitu», horixe zen leloa. Horrela, enpresaren emaitzak oso-osorik kapitalizatu (irabazitakoa berriro inbertitu) eta garapen komunitarioari lehentasuna eman zitzaion. Bizitza gidatzeko eta gobernatzeko modu oso bat. Bizi-jarrera eta kultura «espartano» samarra, entzun genion behin kooperatibista historiko bati. Bada, ezaugarri horiek ezinbestekoak izan dira enpresak behar duen

talde-subjektibotasun funtzionala osatzeko (kapitala metatzea ahalbidetzen duen portaera estiloa baita). Halaxe da, enpresaren interesekiko funtzionala den kultura eta portaera sustatuko da bide horretatik. Merkatuak gorpuzten duen ekintza-eremuan efektiboa den jokaera eraikiko da. Merkatuan era eraginkorren jarduteko beharrezkoak diren pertsonalitate-egiturak eta baldintza subjektiboak sortuko dira.

Baina kontuz: kooperatibismoaren egitasmo etikoa ez da tresna pragmatiko bat, soilik merkatuaren baldintzetara era arrakastatsuan egokitzea bilatzen duena. Egitasmo etiko hori enpresa eta lan-jarduera esanahi moralez betetzen duen etika komunitarioa da, eta bertan parte hartzen duten pertsonak zentzuz hornitzen ditu. Horregatik, aipatutako etikaren betebeharrei kale egiteak, seguruenik, ekonomi jardueran huts egitea ekarriko zukeen (merkatu legeetara txarto egokitzea), baina mugimendu hone-tako protagonista askorentzat *eginbehar etikoari* huts egitea izango zen nagusiki.

Perry Andersonen iritzian, «[Marxismoak zera bilatzen du] egitura objektibo batzuk gainditze aldera, estrategia eraginkorrak gauzatzeko gai diren agente subjektiboak»¹¹⁴. Berba horiek Arrasateko kooperatibismoa azaltzeko erabil daitezke: talde-subjektibotasuna sortuko da (eragile subjektiboa), langile klasearen autogestio-esperientzia bat eraikiko duena (estrategia eraginkorra), eta enpresa kapitalista aldatuko (ohiko egitura objektibo kapitalistak). Eragile subjektibo hori hamabi urte inguru iraun zuen *hezkuntza-prozesu* luzearen bidez eratu zen (hezkuntza espiritual, soziologikoa, teknikoa eta konpromiso sozialean oinarritutakoa; urte asko pasatu ziren lehen kooperatiba sortu aurretik).

4.2. Autoeraketaren paradigma

Genesi-garaiko zentzu-gorputza, enpresa-jarduna bihotzeratu zuena, nagusiki Arizmendiarietaren pentsaeran oinarritu zen, euskaldunon historia modernoan figura esanguratsua (1915-1976)¹¹⁵. Arizmendiarietaren oinarritzko iparra ondokoa zen: herritarrek euren auto-gobernu eta autonomia gaitasuna handitzea, garaiko «jauntxoekiko» morrontza kulturalak eta materialak gaindituz. *Eraldatu zalea* zen, *irauli zalea* baino gehiago. Bere iritzian beharrezkoa zen «gizarte-ordena berri» baterantz eta «gizaki berri» baterantz abiatzea. Auto-eraketaranzko bide horretan, kooperatibismoak enpresa-munduan auto-gobernatzeko aukera gorpuzten zuen.

Erromantikoegia eta idealistegia litzateke pentsatzea Arrasateko kooperatibista guztiak biltzen zirela ideia horretara. Inozoegia ere bai (seguruenera kooperatibista gehienek lan segurua eta ondo ordaindutakoa bilatzen dute, orain eta beti). Arizmendiarietaren pentsaera autogestionario eta komunitarista, halakoetan gertatzen

¹¹⁴ Perry Anderson, *Tras las huellas del materialismo histórico*, Siglo XXI, Madril, 1986, 132. or.

¹¹⁵ Joxe Azurmendi, *El hombre cooperativo. Pensamiento de Arizmendiarieta*, Astaza (Otalora), 1992. Ikus baita ere: hainbat autore, *Arizmendiarietaren eraldaketa proiektua*, Mondragon Unibertsitateko Lanki Ikertegia, Eskoriatza, 2000.

den legez, gutxiengo ideologizatu batek konpartitu zuen nagusiki. Hona hemen pentsamendu horren oinarritzko hiru ideia:

- Batetik, helburua —kooperatibismo industrialaren ohiko helburuekin bat— ohiko *enpresa kapitalisten egitura eraldatzea* zen. Garaiko enpresa kapitalista modernoak bere-berea zuen botere-metabolismoa irauli nahi zen, enpresa mota berri bat sortuz lan-munduaren eskakizun justuak asetzeko eta langileei egoera berria aitortzeko (estatus politiko eta humano berria). Kooperatibismoa enpresa-egitura kapitalisten aurkako elementu erreaktibotzat hartzen zen. Izan ere, egitura kapitalistak berez bidegabekoak eta esplotatzaileak ziren, eta baita herritar xumeek jasaten zuten heteronomiaren (autonomia ezaren) sorburu nagusia ere.
- Bigarren ideia. AKEren asmoa ez zen mugatzen enpresa barruko botere-harremanak aldatzera. *Enpresaren kontzepzioa* bera eta beronen *funtzio soziala* ere aldatu behar ziren. Enpresa oinarritzko eragileztat hartuko da pertsonen promozio sozialerako, gizarte-justiziarako eta komunitatearen garapenerako. Barrura begira, demokrazia osagaiak txertatu behar ziren (barne-metabolismoa aldatuz). Baina, horrekin batera, kanpora begira, enpresak bere burua komunitatearen zerbitzura zegoen eragileztat hartu behar zuen: ongi kolektiboaren mesederako, ez inoren patrika indibidualak betetzeko. Eraldatze horren bidez gizartea eraldatzea lortuko zela uste zen (edo, sikiera, horretarako bideak irekitzen zirela), enpresa kapitalistari leporatzen zitzaizkion-eta garaiko gizarte industrial-kapitalistaren gaitzik gehienak.
- Hirugarren ideia. Enpresa-egitismo bat mamitzeaz gain, bere pentsamenduan *gizarte-egitismo* baterako intuizio sakonak agertzen dira. *Bizikidetzaren eredu berri baterantz* joan nahi zen. *Gero eta autogestionatuagoa eta autoeratuagoa izango den gizarte-eredu berri* baterantz aurrera egitea zen iparra. Urratssez urrats. Horrela, *hetero-nomiatik auto-nomiara* igaro nahi zen, urratsak emanez herritarrek euren existentziak autoarautzearen norabidean. Egungo hitzetan esanda, sozietate zibila da bere patuaren erantzule eta protagonista. Betiere Aro Modernoan garatu diren bi instituzioekin zaila baina beharrezkoa den elkarbizitzan: estatua eta merkatua. Helburua gizartea erreformatzea zen, herritarren autogobernu-esperientziak bultzatuz, ez bakarrik enpresa-munduan, baita gizarte-bizitzako beste esparru batzuetan ere: hezkuntzan, osasunaren arloan, aisialdian, erretiroan, etab. Hori da zentzu-gorputzaren maila gorena; alegia, zentzu-maila «supraordinala», helburutzat *gizarte-egitismoa* duena¹¹⁶.

Aipatutako zentzu-ildoak hainbat modutan azaleratu dira. Edo beste era batera esanda, kooperatibaren konpromisoa atxikimendu ideologiko ezberdinen bidez adierazi da:

- Izaera erlijiosoko atxikimenduak: Elizaren gizarte-doktrinak kooperatibismoaren aldeko apustu garbia egin du bere historian zehar. Kooperatibismoa

¹¹⁶ «Zentzu supraordinal» kontzeptua P.L. Berger eta T. Luckmannen lanetik hartu dugu, *Modernidad, pluralismo y crisis de sentido*, Paidós, 1997.

formula egokitzen hartu zuen Elizak *gizarte-auzia* konpontzeko. Arrasateko kooperatibismoan ere konpromiso kristau hori aurkitu izan da bertako protagonista askoren sakoneko motibazioetan. Motibazio kristaua agerikoa zen, baita ere, zenbait kooperatibaren dokumentuetan. ULGOR kooperatibaren lehen barne-araudian esaterako (geroago FAGOR enblematikoa izango dena). Bertan, «elkartasun kristaua» aipatzen zen hitzez hitz, kontzeptu horretan oinarritzen zela kooperatibaren konpromisoa.

- Sozialismoan eta klase-kontzientzian sustraitutako atxikimenduak. Arizmen-diarrrietak berak Arrasateko kooperatibismoa euskal sozialismoaren erreferente nagusitzat jo zuen.
- Herrigintzarekiko atxikimenduak. Euskal Herria izango da hainbatentzat abiapuntua eta helburua. Duela ez asko, halaxe mintzo zen goi kargudun bat:

«...desde un primer momento, el cooperativismo para mí se inscribe en una construcción de país. Para mí es indudable, pero admito otro tipo de planteamientos. A mí eso me motiva muchísimo, y además creo que objetivamente está siendo verdad. Y esto... Euskal Herria lo capta.»

Beraz, Arrasateko kooperatibismoaren oinarriak, lehendabiziko modernitatean pertsonen identitate kolektiboak sostengatu dituzten berberak izan dira: erlijioa, klasea eta nazioa. Horrela, kristautasunak, nazionalismoak eta progresismo sozialak osatzen dute kooperatibismo berezi horren arima ideologikoa. Betiere, ahaztu barik laugarren osagai indartsu bat ageri dela konstelazio ideologiko horretan, hainbat indartsuena: enpresa-pragmatismoa. Horiek, oinarritzko bulkadak. Konstelazio ideologiko hori da bere legitimazioaren oinarria, mugimendu kooperatibistako protagonistei zentzu-, ekintza— eta orientazio-marko segurua eman diena.

Aipatutako elementu bultzatzaile bakoitzak pisu ezberdina izan du historian zehar (baita protagonista bakoitzaren unibertso intimo-pribatuan ere). Horren arrazoiak, besteak beste, inguruko gizarteak jasan duen eboluzio ideologikoa izan da. Hastapenetan erlijio-motibazioa zen nagusi. 70eko hamarkada ideologikoagoetan ordea, euskal herrigintza eta sozialismoa indartuko dira. 90eko hamarkadan, beste indar-motibazioak motelduta, pragmatismoranzko labaintzea hasi ote den, hori susmoa.

5. Kooperatibismoa autoeraketarako bide. Herriaren boterea sendotzeko baliabide psikosozialak

Dagoeneko esan dugu Arrasateko kooperatibismoaren garapenean berebiziko garrantzia izan zutela aspektu (sozio)psikologiko eta sozio-kulturalak. Eragile subjektibo eraginkorra gorpuztu zen. Goazen zerbait gehiago esatera honi buruz, irudi baitzaigu autonomia eta auto-eratzeko esperientzietan funtsezkoa dela plano hori.

Berriro Perry Anderson-en hitzak ekarri nahi genituzke: «[Marxismoak zera bilatzen du] egitura objektibo batzuk gaintze aldera, estrategia eraginkorrek gauzatzeko gai diren agente subjektiboak». Ez da marxismoa gure ikerkuntza objektua,

baina berriro diogu berba horiek Arrasateko kooperatibismoa ulertzeko erabil daitezkeela: enpresa kapitalistaren botere metabolismoa errotik irauli eta langile klasearen autogestio esperientzia eraiki duen talde-subjektibotasuna sortu zen. Eragile subjektibo hori hezkuntza prozesu luzearen bidez osatzen da hein batean, eta berau gai izango da estrategia efektibo bat abiatu eta enpresa eredu alternatibo bat arrakastaz aurrera eramateko. Zerbait aldatu ahal izateko lehendabizi aldaketa hori irudikatu, modu trakets edo xumean bada ere, eta posible dela pentsa behar; hots, kontzientzia egoera jakin bat behar, bestela jai. Gizakion irudimena da, zentzu horretan, gizartean aldaketak eragiteko indar bizienetakoa, irudimenak etorkizunetik bidaiatu eta berau norberak ikusi nahi lukeen modura proiektatzeko ahalmena baitu. Ez zen hagatik sortu Maiatzaren 68ko esaldi famatu hura, «imajinazioa boterera»; imajinazioa botere eta injustizien kontra, gaineratuko genuke guk. William Blake-k zioen moduan, gaur begi bistakoa dena behiala irudimen hutsa zen.

Garapen komunitarioko esperientziek baliabide psikosozial jakinak behar dituzte arrakastatsuak izan daitezen, dudarik ez. Baliabide estruktural edo materialez gain (gizarte baldintzak, esan dezagun), baliabide kultural eta sinbolikoak behar dira, norbere gaitasun pertsonal eta kolektiboan sinesmena izatea, nor kolektiboaren ahalmenetan konfiantza. Autoefikaziaren nozioa behar da (pertsonal eta kolektiboa), kontuan hartuta gainera, talde gutxituak eta pobretuak izan ohi direla garapen komunitarioko esperientzien protagonistak. Kontzientzia egoera edo subjektibotasun jakin bat behar da, finean. Gure ustean, Arrasateko kooperatibismoa ikuspegi horretatik ere azal daiteke.

Hasteko, Arizmendiarietaren pentsamendua dugu. Arizmendiarietak oso garbi zeukan plano horrek duen garrantzia edozein gizarte-erlaldaketa prozesutan edo garapen komunitarioko edozein esperientzian. Hala zioen ezagunetakoa bihurtu den esaldi batean: «herrien garapena gelditzen duen oztoporik handiena barneko barrerak dira, hots, bakoitzaren izpiritu, mentalitate, ideologia eta kultura». Modu berean, «gure iraultza morala izango da, edo ez da izango», zioen apaizak.

Arizmendiarietaren pentsamendua ez du begi puntuan iraultza handirik, sekulako aldaketa bat bateko eta kopernikano bat, ez eta botere politikoaren konkista. Pertsona eta komunitateen kontzientzia-erlaldaketa sakon eta pausatutik etorriko zen benetako aldaketa, eta horrelakorik gertatu ezean, kontzientzien aldaketa eragin ezean, boterearen estalkia besterik ez litzateke aldatuko. Beraz, gizon-emakumeen mentalitate, desio, behar eta gogoen erlaldaketari erreparatu behar, ez botere egituraren konkista azalekoari. Arizmendiarietaren pentsamenduan bertan, beraz, *dimentsio psikosozialaren* edo *faktore kulturalaren* garrantziaren onespina agerikoa da. Erlaldaketa sozialaren ikuspegi oso bat ageri zaigu aldi berean, gizarteko egitura materialen aldaketarekin batera, kontzientzien aldaketa ipar nagusizat eta ezinbesteko bidetzat hartzen duen ikuspegia, hain zuzen.

Horregatik, Arizmendiarietaren pentsamenduan *klabe kulturala* ardatz nagusietakoa dela esan daiteke. Akaso, horixe da gako nagusia. Esaten dute Maoren «liburu gorria» erreferentzia liburu etengabea izan zela berarentzat, goitik behera azpimarratuta eta landuta zuela; sakon jorratuta. Arizmendiarietak ere nolabaiteko «iraultza kulturala» proposatzen zuen.

Autogobernu pertsonal eta komunitarioa bideratzeko beharrezkoa zen kontzientzia egoera berria, subjektibotasun indibidual eta kolektibo berria. Horixe zen demokratizazio sozial sakonerako aldi berean bide eta helburu. Horretarako, gehiengo sozialak garaiko klase pribilegiatuekiko bizi zuen dependentzia kultural sakonarekin amaitu behar, ez soilik dependentzia materialarekin (biak eskutik helduta doaz, baina badute, aldi berean, autonomia propioa). Eta hori errazagoa da esatea egitea baino. Izan ere, garai hartan herriaren dependentziaz haratago ez zen aukera handiegirik ikusten, gabezia egoeretan gertatzen ohi den legez. Erronka ez zen makala: herriak demostratu beharra zeukan heldutasun nahikorik bazuela enpresak sortu, kudeatu eta aurrera ateratzeko, jauntxo kapitalisten babes eta asistentzia barik. Herriak, finean, adinez nagusi zela demostratu behar zuen.

Kontuan izan behar, gainera, Arizmendiarieta eta bere kolaboratzaileak gerra zibilean galtzaile suertatu zirenen mundu sozial eta psikologikoan kokatzen zirela: euskaldunak eta herri klasekoak. Identitate kolektibo zauritu eta gutxiagotu bati buelta eman behar. Efikazia pertsonal eta kolektiboan oinarritutako sentimendua garatu behar.

Identitate eta autokonfiantza kolektibo sendoak beharrezkoak dira garapen komunitarioko ekimen arrakastatsuak sortzeko. Halako esperientzia bat arrakastaz burutzeko auto-kontzeptu kolektibo indartsua landu behar. Hor koka dezakegu *klabe kulturalaren garrantzia* eta *hezkuntza-prozesuarena*. Hezkuntza prozesu luze eta dimentsio anitzekoa abian jarri zelarik (hezkuntza espirituala, soziologikoa, teknikoa eta parte hartze komunitarioan ardatzua).

Esan daiteke dominazio harreman orotan dagoela nolabaiteko botere banaketa; hots, nahiz eta boterea oso modu asimetrikoan banatuta egon, normalean parte guztiek dute, gutxi-asko, botere baliabideren bat. Arizmendiarieta apaiza zen, eta kondizio horrek garaiko gizartean zenbait botere baliabide eman zizkion: funtsezkoak izan ziren baliabide materialak lortzeko (arrasatearren sosak) autoritatea eta estatus soziala (garaiko Arrasateko gizarte erlijiosoan gidari espirituala zen; gaitasun intelektuala zuen eta garaiko gizarte-prozesuen ezagutza; bere inguruan zuen harreman sarea; sinesgarritasuna...). Kapital sinboliko eta sozial hori nagusiki Arizmendiarietaren eskuetan zegoela esaten da, baina ez bakarrik, bere kolaboratzaile gazteek sinesgarritasuna eta ahalmena irradiatzen baitzuten garaiko Arrasaten. Kapital sinboliko-kultural eta sozial hori gabe, eta beronen erabilera efikazik gabe, ez dirudi Arrasateko kooperatibismoa heldu den lekura helduko zenik.

Autoeraketa esperientzia bat aurrera eramateko indarra behar dela, dudarik ez; nolabaiteko botere kuota bat esku artean. Eta, aldi berean, autoeraketa esperientzia oro komunitatea eta bertako kideak indartzea helburu duen prozesua da, boterearen banaketa asimetriko bati aurre egin eta desiratutako errekursoak komunitatearen eskuetara labaintzeko (errekurso material eta sinbolikoak). Autoeraketa prozesuek erabakimena behera ekartzea dute helburu, administratutako subjektu izatetik norbere norabidea erabakitzen duen subjektu autonomo izatera pasatzeko. Horregatik, autoeraketaz hitz egitea botereaz hitz egitea da.

Sarritan, botere banaketa asimetriko baten biktima diren giza talde edo pertsonen autokontzeptu indibidual eta kolektibo eskasa dute, dominazio harremana paisia naturalaren parte bilakatu baita, menperatuaren kontzientzian dominazioa «natural» gisa iltzatzea lortu delako. Menperatuak bere posizioarekin adiskidetuko duen apendizai prozesua bizi ohi du, meneko izaten ikasi egiten baita. Halakoetan, hots, bizitza gidatzeko boterea eta bizitzaren kontrola komunitatetik eta berau osatzen duten pertsonengandik urrun dauden egoeretan, norbere buruaren gutxiespena —gutxiespen indibidual eta kolektiboa— sintoma arrunta da. Botere konfigurazio asimetriko batek zenbait pertsona eta talde estrukturalki mugatu egiten ditu euren posibilitateetan, berabei aukera eta botere gutxiago eskainiz. Baina, aldi berean, sarritan pertsona eta talde dominatuak dira *automugatzen* direnak, euren ezintasunaz sinetsita daudelako (definizio sozial hegemonikoak barneratuz) edo iraganean metatutako esperientzia negatiboez euren ezintasuna konfirmatzen dutelako¹¹⁷. Prozesu komunitarioetan paralisi efektua sortzen du horrek, ezintasuna, apatia, indiferentzia edo eszeptizismoa. Ez dago gizartea aldatzerik parametro subjektibo-kultural horietatik.

Horregatik, garapen komunitarioko prozesuetan eredu psikologiko-sozial jakin bat ere beharrezkoa da. Weberren arrastoa jarraituz, zenbait autorek hazkuntza ekonomiko jakin baten arazoak pertsonalitate eredu batean aurkitzen dituzte. Ondokoak dira norabide horretan egindako bi ekarpen teoriko:

- a) *Pertsonalitate berritzailea*. Evertt Hagen-ek pertsonalitate eredu bat aurkitzen du hazkuntza ekonomikoko prozesuetan, enpresa-mentalitatearekin eta kapitalaren formazioarekin lotura estuan¹¹⁸. Pertsonalitate eredu hori gizarte modernoari dagokio eta pertsonalitate tradizional autoritarioaren antitesi gisa jaioko da.
- b) *Arrakasta-motibazioa*. David McClelland-ek kapitalismoaren garapenerako beharrezkoak diren aspektu psikologikoak aztertu zituen¹¹⁹. Bere ustean, ba omen dago garapen ekonomiko biziak eragiteko gaitasuna duen pertsonalitate sindrome bat. Garapen ekonomikoa, finean, arrakastarako motibaziotik ei dator (pertsonok arrakasta lortzeko dugun beharretik), eta lanaren etika gogor batekin harreman estuan legoke.

Aurreko ekarpenekin batera, askok «mentalitate sozialistaren» arazoez hitz egin dute. Ideiek, ideologiek eta jarrera mentalek eragin positiboa izan dezakete, ala kontrakoa, aldatetaren kontrako faktore izan daitezke. Horixe da, zenbaiten iritzian, «sozialismo errealeko» hainbat herrialdek bizi izan duten oztoporik handiena merkatu ekonomiarako trantsizioan: «mentalitate sozialista», «espíritu socialista», «homo sovieticus-a» edo «captive mind» deritzona (gatibu den pentsamendua)¹²⁰. Urte luzeetako

¹¹⁷ Gizarte patriarkalean emakumeek bizi ohi duten dependentsia kultural, psikologiko eta emozionala aski aztertua izan da, sarritan psikoanaliaren eskutik. Ikus, esaterako: *El Complejo Cenicienta. El miedo de las mujeres a la independencia*, Grijalbo, 1982.

¹¹⁸ Everett Hagen, *On the Theory of Social Change*, Homewood, IL: Dorsey Press.

¹¹⁹ David McClelland, *The Achieving Society*, Nueva York: Free Press.

¹²⁰ Czeslaw Milosz, *El pensamiento cautivo*, Tusquets, Barcelona, 1981.

totalitarismoak, dependentzia estatalak eta autonomia indibidualaren itotzeak, «barne arkitektura» moduko bat konfiguratu du, baldintza kultural eta psikologiko batzuk.

Aipatutako ekarpenen egokitasuna alde batera utzita (izan badituztelako argitu bako zakutxo bete aspektu), guri orain ez zaigu interesatzen kapitalismoaren ezarrerarako baldintza kultural eta soziopsikologikoak zeintzuk diren jakitea. Zein den autoeraketa esperientzietarako beharrezkoa den «psikologia», gizarte eraldaketa prozesuetarako beharrezkoak diren disposizio mental eta oinarri kulturalak, horixe gure interesa. Ez gara gu lehenak lurralde honetara iristen, jakina: gaintitu behar dira «ikasitako desesperantza»¹²¹, «autoefikaziaren blokeoa»¹²², era guztietako «alienazioak», eta «ni efikaz bat garatu»¹²³. Komunitatearen indartze prozesuetan eta, beraz, autoeratzeko prozesuetan, funtsezko dimentsioa da hori (erdarazko hainbat termino aurki daitezke berau azaltzeko: *empowerment*, *fortalecimiento*, *empoderamiento*, *apoderamiento*). Garapen komunitarioak autoestima pertsonal eta kolektiboa garatzea eskatzen du, botere psikologikoa garatzea (indibidual eta kolektiboa), kontrol pertsonala eta komunitarioa handitzea, autoefikaziaren nozioa sustatzea, autodeterminazio pertsonal eta kolektiborako ahalmena, autokonfiantza, identitate-zentzu indartsua, balore eta sinesmenak.

Ikus dezagun zelan definitzen duen Maritza Montero-k *indartze* edo *gaitze* prozesu bat, edozein eratako aitakeria edo asistentzialismotik urrun:

...el proceso mediante el cual los miembros de una comunidad (individuos interesados y grupos organizados) desarrollan conjuntamente capacidades y recursos para controlar su situación de vida, actuando de manera comprometida, consciente y crítica, para lograr la transformación de su entorno según sus necesidades y aspiraciones, transformándose al mismo tiempo a sí mismos.¹²⁴

Komunitatearen indartze prozesu batek hainbat osagai behar ditu. Ondoren azalduko ditugu osagaiok, baina aurretik esan, Arrasateko kooperatibismoak, gutxi-asko, guztiak izan dituela ezaugarri, eta horregatik izan dela, besteak beste, autoeratzeko esperientzia arrakastatsua¹²⁵:

- *Parte hartzea*. Komunitateko kideek garatzen duten ekintzaz ari gara, kolektiboki erabakitako helburu eta estrategiei jarraiki. Parte hartzea osagai funtsezkoena da, garapen komunitarioko gainontzeko ezaugarriak ahalbidetzen dituena.
- *Kontzientzia*. Osagai honek hezkuntzarekin harreman zuzena du. Kontzientziaren mobilizazioari egiten dio erreferentzia: des-ideologizazioa, des-alienazioa, ikuspegi kritikoaren garapena (autokritika barne), eta gertakari komu-

¹²¹ S. Seligman, *Indefensión*, Debate, Madril, 1981.

¹²² A. Bandura, «Towards an unifying theory of behavior change», *Psychological Review*, 84, 1978, 191-215 or.

¹²³ L.A. Escovar, «Hacia un modelo psicológico-social del desarrollo», *Boletín AVEPSO*, III (1), 1-6 or., 1980. Ondoko lanetik hartua: Maritza Montero, *Teoría y práctica de la psicología comunitaria*, Paidós, 2003.

¹²⁴ Maritza Montero, *op.cit.*, 72. or.

¹²⁵ Arrasateko kooperatibismoari buruzko irakurketa hau lantzeko aipatua dugun Maritza Monteroren lana erabili dugu, 66-67 or.

nitario eta sozialen ulermena. Beharrezkoa da arazoan arazoak eta garaian garaiko prozesu sozialak ezagutzea, konpetentzia horiek areagotzeak gizartean ondo kokatzeko eta aldaketak sustatzeko ahalmenak indartzen baititu. Auto-kontzientzian aurrera egitea da. Normalean hezkuntza prozesuak garrantzitsuak dira zeregin horietan.

- *Kontrola*. Pertsonen autokontrolari egiten dio erreferentzia, eta baita ere gizarteko errekurtsio eta botere baliabideen gaineko kontrolari.
- *Boterea*. Komunitateak duen botere soziala.
- *Politizazioa*. Komunitatearen indartze prozesuek hiritartasunaren garapena dakarte eurekin batera, eta ondorioz, gizarte zibilaren indartzea. Espiritu kritikoa sustatzen dute eta eskubide eta betebeharren gaineko kontzientzia argiagoa.
- *Autogestioa*. Komunitateak hartzen dituen erabakien eta abiatzen dituen ekintzen autonomiari dagokio. Antolakuntza komunitarioaren autoefizientzia ere garrantzitsua da. Zenbait lorpen eskuratu ahala, norbere buruan konfidantza garatzen da eta segurtasun sentimenduak gorpuzten.
- *Konpromisoa*. Komunitatearekiko atxikimendu eta obligazio sentimendu etikoa da. Horrek bultzatzen gaitu guztientzat onurak ekarriko dituen ekintza kolektiboetan parte hartzen.
- *Ahalmen indibidualen garapena*. Hainbat gauza esan nahi dira: pentsamendu orientazio positiboa lantzea; gutxi erabilitako errekurtsioak garatzea; erabiltzen diren errekurtsioen domeinu handiagoa; tentsio soziala administratzen ikastea; konpetentzia zentzua; estrategiak eta konponbideak planteatzeko gaitasuna.
- *Identitate soziala*. Neurri batean ala bestean aurreko guztia betetzen denean, identitate soziala garatzen da, eta identitate horri lotutako balore eta sinesmen batzuk (zentzu-gorputz bat).

Aipatu dugun azkenari lotuta, *narratiba komunak* eraikitzea osagai garrantzitsua da autoeratze prozesuetan. Batetik, autoeratze prozesuen produktu dira narratibok, baina bestetik, autoeratze prozesuak motibatzeke ezinbesteko faktore ere bai¹²⁶.

Halako osagaiak dituzten prozesuak abian jartzen direnean, eta gure ustean Arrasateko esperientzian guztiak egon dira presente indar gehiagoz ala gutxiagoz, pertsonak eta giza taldeek euren bizitzak kontrolatzeko edo dominatzeko ahalmena indartzen dute. Garrantzitsuak diren auziak erabakitzeko eta gidatzeko gaitasuna indartzen da. Erabakitzeko ahalmena (erabakimena), horixe da Arrasateko kooperatibismoak abiatu zuen prozesua, ondoko oinarriekin: autodeterminazio gaitasuna, justizia distributiboa, eta parte hartze demokratikoa¹²⁷.

Atal honetan garapen komunitarioko eta autoeraketa esperientzien gaineko ikuspegi jakin bat luzatu nahi izan dugu, eta bide batez, Arrasateko kooperatibismoa begira-

¹²⁶ J. Rappaport, «Empowerment meets narrative: Listening to stories and creating settings», *American Journal of Community Psychology*, 23 (5), 795-807 or.

¹²⁷ Prilleltensky-ren iritzian, aipatutako hiru horiek dira indartze prozesuetan aurkitu beharreko baloreak. I Prilleltensky, «Empowerment in mainstream psychology: legitimacy, obstacles, and possibilities», *Canadian Psychology*, (35), 358-375 or.

tzeko eta irakurtzeko modu bat proposatu. Autoeratze esperientzietan, Arrasatekoa barne, *barruko baldintzek* duten garrantzia azaldu gura izan dugu, psikologia kolektiboarekin lotu daitekeen dimentsioa azaleraziz. Finean, aldagai kultural eta sinbolikoen indarra azpimarratu gura izan dugu, kontzientzia kolektibo baten taxutze egokia nahikoa ez baina beharrezkoa baita halako esperientziak arrakastatsuak izan daitezen. Esperientziaren gaurko egoerari buruz dugun galderarik garrantzitsuena hortik doa: gaurko kooperatibisten *barruek* ba ote dute autoeratze prozesuan sakontzeko potentzialik?

Badirudi aspektu hori nabarmena izan dela iraganean, besteak beste Arizmen-diarrietaren eta bere kolaboratzaileen lidergo komunitario sendoak asko lagundu zuelako. Etorkizunari begira galdera garrantzitsua dugu: ea zein puntutaraino Arrasateko kooperatibismoak eragile subjektibo autonomoa izaten segitzen duen, kultura eta identitate propio batekin, egoera soziohistorikoaren gaineko irakurketa batekin eta, ondorioz, gizarte aldaketaren aldeko estrategia jakin eta efikaz batekin.

6. AKERen gaurko ajeak. Arima galtzen ari ote?

Gauza jakina da AKE eraldaketa garrantzitsuak ari dela izaten. Hein handi batean, prozesu horrek globalizazioarekin du zerikusia. Sutsu lehiatu behar ekonomia gero eta irekiagoan. Hona hemen egiturazko aldaketa nagusiak:

- Kooperatiba berrien sorrera moteldu (edo gelditu) egin da.
- Kooperatiba-izaera ez duten enpresa asko sortzen ari da. Nazioarteratze prozesu guztia formatu ez kooperatibistan gertatzen ari da. Metropoli kooperatiboa eta periferia kapitalista osatzen ari da (2008rako talde industrialaren langileen % 30 inguru Euskal Herriatik kanpo egongo dela aurrizusten da).
- Gora egin dute aldi baterako langileen eta bazkide ez direnen proportzioak (talde osoa kontuan hartuta 1991n ia % 75a bazkideak ziren; 2002an % 45 inguru).
- Aurrerakinen (soldaten) arteko aldea handitu egin da (hastapenetan batetik hirurakoa zen ordainketa-eskala; gaur, 1etik 7,5-8ra doala kalkulaten da; beste estimazio batzuk gorago jartzen dute gehieneko hori).
- Hozte demokratikoaren sintomak ageri dira hainbat kooperatibatan (Batzar Nagusietara bazkideen % 30 inguru joaten da bakarrik)¹²⁸.

Hala ere, Arrasateko kooperatibismoak bizi dituen aldaketak ez dira hor amaitzen. Alderdi subjektiboan ere mamitzen ari da zerbait; alegia, Arrasateko kooperatibismoa sostengatzen duten kontzientzia-egituretan. Plano kultural horretan, kooperatibismoaren barruko tolesdura intimoago horietan, eraldatze prozesu garrantzitsuak

¹²⁸ AKERen fundatzaileetako batek, Jose M^a Ormaetxeak, plazaratutako datua: *Larrun*, 27. zk., 1999ko azaroa.

ari dira egokitzen; hots, esperientzia indibidual eta kolektiboa zentzuz hornitu duen artefaktuan.

Gaurko galdera litzateke emaitzarik optimoena besterik bilatzen ez duen ekin-tza-ildoak ez ote duen ziutatela kooperatiboaren eraikin moralala han-hemen zulo-ta hondakin bihurtzeko zorian utzi. Gure ustean, arrisksuena ez baita kooperatibak era honetara ala bestera jokatzeko (demagun aldi baterako langileak masiboki kontratatzea), ezpada jokabide etikoago baterako beharrezkoak diren kontzientzia-euskarrien desartikulazioa, soro kulturalaren ahitzea. Behin erresistentzia horiek amilduta, atek parez pare zabaltzen baitzaizkio eraginkortasuna ez besterik bilatzen duen ekintza ildoari. Hainbat jokabideren aurrean sumindura etikoaren taupadak sentitzen ez dituen kooperatiba-jarduera kooperatibismo gatzgabetua da, bihotz-oinarriak galdutakoa, asimilazio kulturalaren lurraldean amildutakoa, pentsamendu bakarraren sirena kantuek kateatua.

Esan dugu genesi garaian gizarte-zentzu jakin batzuek blindatu zutela enpresa-jarduera. Egin dezagun geldialditxo bat puntu honetan.

Iraganaren irakurketa erromantikoa eta idealizatua egiteko arriskua beti hor-txe dago. Kontuz ibili gaitezen beraz. Edozelan ere, bere sorreran, eta ondorengo ibilbidearen zati luzean, Arrasateko kooperatibismoa «kausa» antzeko bat izan da askorentzat. Bertan gorputz eta arima aritu dira «militante» ugari. «Kausa» horrek humanitatearen erredentzioan parte hartetik hurbil dagoen zerbait eskaini izan dio askori, nagusiki kooperatibismoa kontzeptu erlijioso batekin lotu zutenei. Sakrifizioa, soiltasuna, diziplina, eta interes indibidualari uko egitea, halako printzipioetan oinarritutako biziera bat mamitu zen.

Arrasateko kooperatibek ez dute aberatsik sortu. Eta bertan inplikaturako askok aukera zuten patrika indibidualak ondo baino hobeto betetzeko, euren ibilbide profesionala kapital enpresan emanez gero. Gainera, etekinen kopuru handia kapitalizatzen zen (poltsikoratu barik berriro inbertitu), aberastasuna sortzen eta banatzen segitu behar zelako. Gogora ekarri ditzagun Gorroñoegoitiaren berbak:

Entonces, la gente al jubilarse a los 65 años hace su propia lectura: me dan 8 millones. Y en lugar del 80% si hubiera echado el 30%, hubiera tenido en lugar de 8 millones 24. Ormaetxea hizo una síntesis muy graciosa: todo lo que nosotros damos a capital no nos llega para comprar un modesto bajo. Desde esta lectura, da la sensación de que el modelo era excesivamente atípico, demasiado espartano para vivir fluida y normalmente en sociedad; se ha ajustado tanto que pedir más sería quedarnos con nada entre manos.

Garapen komunitarioa eta ekitatiboa ipar zuen esperientzia garatu nahi zen. Berger autoreak «garapenak» mendebaldean izan duen esanahi jakin batez mintzo zaigu, eta nago esanahi hori AKEn bizi izandakoa dela: «Garapenaren kontzeptua ez zen bakarrik arlo ekonomiko-enpresarialean burututako ekintza arrazionalen helburua. Maila sakonagoan, erredentzioaren itxaropen eta ametsen muina ere bazen»¹²⁹. «Erredentzioa», kode moral kristaua jarraitu duten kooperatibistentzat; eta «askapena» (langileriarena, Euskal Herriarena) kode sekularizatua jarraitu dutenentzat.

¹²⁹ P.L. Berger, *Pirámides de sacrificio. Ética política y cambio social*, Santander, Sal Térrea, 1979, 30. or.

Genesi garaian, motibazio erlijiosoak izan zen bizi-konpromiso horri eutsi ziona eta energia gehienak mugiarazi zituen. Pasio kooperatibista bat arnasten zen, sortzaileen eta ondorengo gidarien jokaerak gobernatu zituen. Lurrean bete beharreko *misio* moduko bat identifikatu daiteke. Kooperatibismoa garaiko gizartearekin konprometituta bizitzeko modu bat izan zen, konpromisoan oinarritutako bizitza-egitasmoari eusteko *zentzu-iturria*. Kooperatibismoaren idearioak jokatzeko eta bizitzeko molde bat proposatzen zuen. Kooperatibismoak promesa bat gorpuzten zuen.

Beraz, genesi garaian, zentzuz hornitzeko gai zen *lokarri trascendental* bat sortu zen, enpresa-jarduera balioekin lotzeko gaitasuna zuena. Enpresa-jarduna bizitza onaren eta gizarte onaren ikuspegi bati lotu zitzaion. Zentzu-eredu integralaz ari gara. Pertsonak euren bizitza eraiki eta egituratu dute kooperatibismoaren hondoan aurki daitezkeen kode moral kristauari, kode sozialistari edo euskal herrigintzari jarraiki.

Alabaina, bereziki esperientziatik erretiratuta dauden kide batzuen ustez, jada «kooperatibista izate horretan ez dago emozio gogor edo sakonik». Dimentsio ideologikoa higitu egin da eta identitate militanteak ahuldu. Muturrera eramanda, diagnostikoa kezagarria da: fedearen eta sinesmenen (erlijiosoak eta sekularrak) galera orokorra bizi dugu eta, horren ondorioz, fenomeno kooperatiboaren nolabaiteko disoluziorako joera.

Galera-sentimendua ezaugarri duen diskurtsoa da hori, eta bereziki lehenengo belaunaldiko kide batzuen artean aurkitzen da (baina ez bakarrik: gaurko gidarien artean ere badago galeraren nolabaiteko kontzientzia). Hala ere, aipatu beharra dago kide horien barne-foruan badirela beste diskurtso-ildo batzuk ere. Hots, ez dira penatan bizi, negarrak irentsita. Galeraren ikuspegian, esperientzia kooperatiboaren gaurko egoeraz eta bere ibilbide historikoaz bakarrik diren pertzepzioak ere badaude. Eta diskurtsoa batetik bestera kulunkatuko da. Baina hainbatetan kasuan galera sentimendua da bizipenik indartsuena eta diskurtso-ildo hegemonikoa, bestelako pertzepzioak estaltzen dituena.

Galeraren pertzepzioetik ia hutsean geratu da idealismoaren, erromantizismoaren eta beste garai bateko elkartasun-zentzuaren zati handi bat. Gizartearen joera nagusiarekin bat datorren prozesua da, erreferentziak galdu baititu gure gizarteak, hori tendentzia orokorra. Motibazio indibidualak nagusitzen ari dira konpromiso komunitarioaren kaltetan. Narratiba indibidualistaren garai honetan, «militantismo» eskasa eta kooperatibismoaren aldeko berotasunik eza nabari dira. Egungo kooperatibista tipikoaren existentzia sozialak inoizko ongizate materialik eta indibidualismorik handienak ditu ezaugarri, *american way of life* horretatik gertuago. Kooperatibistak aburgesatu egin dira. Ormaetxearen hitzetan:

Lehen doi-doi bizi zen peoiak, termino errealetan, orduko lau halako irabazten du, % 400; hori lortzen du orduan egiten zituen lan orduen % 65 eginez. Eta bere seme-alabetatik inor ez da geratuko unibertsitatean joan gabe horretarako gaitasuna badu... Orduan bost kotxe bakarrik zeuden Arrasaten 10.000 biztanlerentzako; gaur bi biztanleko auto bat bada. Gaur etxe guztiek dute berogailua eta Arrasateko kooperatibisten %

20 edo % 30ek edukiko dute bigarren etxe bat herrian bertan, Donostian, Errioxan edo Espainiako punturen batean.¹³⁰

Bizimodu sakrifikatu eta luxurik gabekoak, bizimodu kontsumista eta hedonistago bati eman dio bidea. Finean, kooperatibek sortutako diru eta ondasunek elkartasunaren higadura eragin dute, emaitza onek «berekoi» bihurtzen baikaituzte. Horixe da egun jubilatuta dauden lehenengo belaunaldiko zenbait kideren artean partzialki errotutako pertzepzioa. Pertzepzio hori da *zentzu-krisiaren* eramaile eta eragile nagusia.

7. Digresio teorikoa zentzu-eredu integralaren (kooperatibismo erlijiosoaren) pitzaduraz¹³¹

Ondorengo lerrootan, batez ere fundatzaileek bizi duten zentzu-krisia aztertzen saiatuko naiz, arrazoibidean hurrengo urratsak eginez:

- Lehendabizi, fundatzaileen kolektiboak zentzu-krisia bizi duen hipotesia euskarrituko dut. Krisi hori nozitzera zergatik heldu diren azaltzen ahaleginduko naiz.
- Fundatzaileek zentzu-krisia pairatzeak, nolana, ez du adierazten, batetik, krisi hori erabatekoa denik (krak sinboliko betean bizi direnik), eta, bestetik, gorputz sozial kooperatibo osoak sintoma horiek dituenik; horren zergatiak ere azalduko dira.
- Azkenik, labur bada ere, egungo testuinguruan —gizarte moderno aurreratu eta pluralago batean— kooperatibismoak bete dezakeen tokia deszifratzeaz arduratuko naiz. Berger eta Luckmann-en ekarpen teorikoa erabiliko dut horretarako. (Dena den, deszifratze hori lehen saiakera baino ez da, atal honen azken lerroak baliatu baititut etorkizunari buruzko gogoeta zabalagoa egiteko).

Esan dugun moduan, Arrasateko kooperatiba-mugimenduaren fundatzaileentzat —baita lehen belaunaldiko kooperatibista haietako hainbatentzat ere— esperientzia kooperatiboko kide izatea ez da azaleko zerbait izan: beren identitate sozialaren oinarritzko elementua eta beren existentzia indibiduala egituratu duen bereizgarri bat izan da. Kooperatibismo arizmendiarraren kontzeptu moralaren arabera gobernatu dute —edo gobernatzen saiatu dira— euren jokabidea, enpresa-funtzioa eta bizitza osoa.

Kooperatibismoak eta fede kristauak, bata bestearekin txirikordaturik, osotasun bat moldatu dute. Ondorioz, kooperatibismoa zentzu-igorlea izan da izan daitekeen bertsio osatuen eta holistikoenean: bizitza oso bati edukia eta norabidea ematen diz-

¹³⁰ Larrun, 27. zk., 1999ko azaroa.

¹³¹ Atal honetan zentzu-krisiari buruzko gogoeta egiteko, Berger eta Luckmann-en *Modernidad, pluralismo y crisis de sentido* jarraituko da (Paidós,artzelona, 1997).

kion iparrorratza. Fede kristauak eman dien interpretazioan oin hartuta, fundatzaileek argi eta seguru ulertu dute nolako gizarteko kideak ziren eta bertan nolako misioa zuten. Kooperatibismo erlijiosoak, sistema ideologiko gisa, existentziaz interpretazio global samarra eman die eta, gainera, pribilegiozko lekua bete du subjektuen identitatearen eraikuntzan¹³².

Nolanahi ere, fundatzaileen perspektibatik kooperatibismoaren bilakaera ez ei da txaloka hasteko modukoa, alderdi ideologiko-kulturalari eta dimentsio identitarioai bagagozkie. Galdua du indarra subjektuak batu eta kohesionatzeko dispositibo gisa. «Kooperatibista izatean» oinarrituriko bizipen eta sentimendu kolektiboak, oraingo belaunaldietan batik bat, mugitu egin dira: subjektuen nortasunaren eraikuntzan posizio makalagoak dituzte orain. Horrek ez du esan nahi kooperatibismoa dagoeneko ez dela zentzu-iturri eta identitate-igorle, baina baliteke identitatea eta zentzua eskaintzeko gaitasuna moteldu izana eta, hortaz, gizarte konplexu eta asko pluralago batean, lehiatu beharko du identitate— eta zentzu-igorle diren bestelako iturriekin (lehia ez baita bakarrik merkatu ekonomikoan ematen).

Fundatzaileen unibertso sinbolikoa ulertzeko funtsezkoa da sekularizatze fenomeno aintzat hartzea. Erlijio-sentimenduek berealdiko indar eta kemenez aberasten zuten fundatzaileen jarduna; kausa justu baten parte eta arrazoi moralaren eroale sentitzeak ematen dituen indar eta kemena, hain zuzen. Fundatzaileek pairatzen duten zentzu-krisiaren funtsezko arrazoietakoa bat zera da: jendearen kontzientzian eta Arrasateko kooperatibismoa ulertzeko eran, interpretazio erlijiosoek dagoeneko ez dute lekurik.

Zeri deritzogu, ordea, zentzu-krisia?

Zentzu-krisia mutur biren arteko distantziak sortzen du: batetik, zentzuetan koinzidentzi gradu jakin bat partekatze exijentzia (nahia) eta, bestetik, egiazko koinzidentzia intersubjektiboa. Hots, «zer konpartitu nahi nuke» eta «egiazki zer ari garen konpartitzen», bi horien arteko aldeak sortzen du zentzu-krisia. Desiratzen denaren eta benetan denaren arteko desadostasuna handia denean sortzen da. Horrela ikusita, «denaren» eta «izan beharko lukeenaren» arteko distantzia baino ez da. Ohikoago bihurtzen da zentzu-krisia ondokoa gertatzen denean: bizi-komunitate batean, bertako kideen artean erabateko zentzu-komunitatea izatera iritsi nahi da (nahia handia da eta errealitateak eskaini dezakeena oso mugatua).

Zentzuari dagokionez, bi gizarte eredu bereiz ditzakegu:

- Batetik, balio-sistema bakarra daukaten gizarteak ditugu, eta balio-sistema hori aplikazio orokorrekoa da. Egoera horretan, zentzu-maila eta eremu denak egokiro integratuak daude: bai eguneroko esperientziari eta ekintzari dagoz-

¹³² Esan gabe doa: horrek ez du esan gura, noski, lehen belaunaldiko kooperatibista den-denentzat kooperatibismoak toki hori hartu zuenik. Iraganaren irudi erromantikoak saihestu aldera, kontu egin behar da kooperatibismoa ukitu idealistako formulazioa ez ezik, betidanik eta —seguru aski— batez ere, zentzu ekonomiko-pragmatikoko elementua izan dela kooperatibisten artean. Kooperatibista gehienentzat lana hein handi batean bizitzaren erreproduktzio materialerako tresna izango zen iraganean ere.

kien zentzuak, baita bizi-jokabidearen kategoria supraordinalei dagozkienak ere (zentzuaren goi eremuak: aspektu traszendente eta espiritualak). Ereduek honetatik gertu ditugu gizarte arkaikoak, antzinaroko goi-kultura konplexuak eta Mendebaldeko gizarte aurremodernoak, esate baterako. Horrelako gizarteek nekez nozi dezakete zentzu-krisirik, bertako kideen arteko komunikazioa eta kointzidentzia intersubjektiboa sendoa eta segurua baita. Jakina, gizabanakoari zentzu-arazoak planteatzen zaizkio, baina gizarteok transmititzen duten zentzu-ordenak koherentzia gradu handia erakusten du, sozializatzeko eta ekintzaren instituzionaltze-prozesu kongruenteei esker.

- Beste muturrean: balio partekatuak eta aplikazio orokorrekoak jadanik ez dira kide denentzat baliagarri. Balio horiek jada ez daude estrukturalki bermatuak, ez dira barneratzen intentsitate berdinarekin bizitzako alor denetan. Hauxe da zentzu-krisi subjektibo eta intersubjektiboak hedatzeko oinarritzko baldintza. Gizarte modernoaren paradigma da hori, ondoko bereizgarriekin: pluraltasun axiologikoa, bizi-estiloen dispersioa, bizitza ulertzeko moduen aniztasun hazkorra. Modernizatzeko esan nahi du, besteak beste, patuak determinaturiko existentzia batetik makina bat aukera aurkezten dituen beste batera aldatzea; hautatzea posible ez ezik, derrigorrezkoa da hauetan. Bizitza bizi beharko da auzitan jarri gabeko interpretazio-patroiei eta jokabide-arauei heltzeko inongo aukerarik gabe. Modernitateak, hortaz, ziurtzat emandako horren galera dakar. Pluraltasunak agintzen badu ere, honelako gizartean litekeena da indarrean irautea tradizioari herentzian harturiko balio-sistemaren batek. Litekeena da iraganeko belaunaldien erantzunak osaturiko zentzu-erreserbak irautea, nolabait; eta, beharbada, erakunde espezializatuak (erlijio-soek) administratzen segitzen dute zentzu-despentsa historikoa. Baina gizarte horietan instituzio handiak (ekonomiko, politiko eta erlijiosoak) bereiztu egin dira balio supraordinalen sistematik, «bereizte estruktural» izeneko prozesuaren bitartez: erakunde horietako bakoitzak, berak administratzen duen area funtzionalean (ekonomian, politikan...) determinatzen du gizabanakoaren jokabidea. Erakunde politiko eta ekonomikoek, horrela, euren bereizgarria den zentzu objektiboa hedarazten dute (helburu batzuk lortzera bideraturiko «zentzu arrazionala»). Finean, «horrelako gizarteko erakundeek, oro har, jadanik bizitza praktikoa ez dute aplikatzen zentzu eta balioen erreserba modu sistematikoa eta loteslean.»¹³³

Estruktura sozial bakoitzari, beraz, zentzu-eredu bat dagokio. Arrasateko kooperatibismoaren eboluzioa honela interpreta daiteke: lehen gizarte-eredutik bigarreneko trantsizioa bizi du; aski gizarte soilari (aipatu berri den lehen ereduko estruktura sozialari) dagokion zentzu-eredu batetik, testuinguru plural bati dagokion zentzu-eredu baterako trantsizioa bizi du. Horregatik, Arrasateko kooperatibismoak bere ekintza ekonomiko-enpresariala autonomizatzeraz jotzen du; hau da, ekintza ekonomikoak (eta honi loturiko arrazionaltasunak) utzi dio zentzu-ordena supraordinal (erlijioso) batean txertatuta egoteari; logika ekonomikoa aske geratu da. Ekonomia

¹³³ Bereger & Luckmann, *op. cit.*, 54 or.

alorrean instituzionaldutako ekintzek —«zentzu objektiboa», hots, logika ekonomikoa soil-soilik jarraitzen duten ekintzek— altoa eman dute: beste alor batzuetatik (erlijiotik, esaterako) ekintza ekonomikoa eta honen azken zentzua babestu, antolatu eta gidatzeko nahiari ezetz esan diote; ekintza ekonomikoak bere logika propioari erantzun behar dio, ez beste inoren aginduei.

Hortik aurrera, kooperatibistaren bizitza indibiduala sar daiteke balio supraordinalen sistema batean, bai, baina soilik autonomizatu ez den beste alor batean; simpleago esanda: espazio pribatuan. Fundatzaileen kasuan ere, sinesmen erlijiosoak bizitza pribatuko kontuak ziren eta, ñabardurak ñabardura, Arrasateko kooperatibismoa erlijio kontuetan neutral azaltzen zen (Arrasateko esperientziako kide izateko ez zen katolikoa izan behar; beste kooperatibismo batzuetan gertatu da, ordea: sozialista, komunista, nazionalista edo katolikoa izan behar, esperientzia kooperatiboaren ideologiaren arabera). Hala ere, iraganean lausoagoak ziren pribatutasun eta publikotasunaren arteko mugak, garaiko erregimen diktatoriala bera ere konfesionala zen. Bizitza publikoak bazuen erlijio kutsu nabarmena.

Ikusi berri dugunez, prozesu hori modernitatearena da: ekintza-alorrak (ekonomia, politika, erlijioa...) elkarrengandik banandu egingo dira eta alor bakoitza urrundu egingo da beste alor batzuetakoak diren logiketatik¹³⁴. Fundatzaileen diskurtsoan, gizarte osoaren bilakaera orokorra da hori, Arrasateko kooperatibismoa horren adierazletako bat baino ez delarik.

Hortaz, Berger eta Luckmann-i jarraiki, gizarte modernoak badu bereizgarririk zentzua artikulatzeari dagokionez: pluraltasunak markaturiko testuinguruan, zentzu partekatuak gutxieneko mailetan gertatzen dira soilik. Alor funtzionalak —ekonomia, politika, administrazioa— lehenago zentzu ordena supraordinaletan izan badira ere, orain toki berria hartu dute.

Beraz, alor bakoitzean instituzionaldutako ekintza mota bakoitza —demagun, adibidez, ekintza ekonomiko-enpresariala, ekonomiaren alorrean—, instrumentalki orientaturik dago, bere areako funtzioak betetzera orientaturik (enpresa-ekintzak errentagarritasuna du helburu). Esan bezala, ekintza-eskema hau ezin integra daiteke zentzu-eskema supraordinaletan; erakunde erlijiosoek eta «ia» erlijiosoek bakar-bakarrik transmititzen dituzte jeneralizatzeko asmoa duten zentzu kategoriak. Eta, esan den bezala, nork bere bizitza balio supraordinalen sistema batean integratzea, soilik espazio pribatuan gerta daiteke (gainerako erakundeek —ekonomiak, politikak, etc— okupatu ez duten eremuan).

Noiz agertuko da, bada, zentzu-krisia? Zentzu-krisia eta zentzu-krisi jeneralizatua, gauza bera ote?

¹³⁴ Beste askoren artean, Habermasek azaldu du fenomeno hori. Zehazki esateko, ekonomia eta Estatu alorrek bereak dituzten arrazionaltasun kognitibo-instrumentalak askatu egin dira bestelako giza logiken presio mugatzaitetik. Horrez gainera, alor horietako logika autonomizatuak dira, modernizatzeko prozesuan zehar, kolonizatuz doazenak beraienak ez diren bizitza sozialeko espazioak. «Bizitzaren munduaren kolonizazioa» gorpuztuz doa horrela.

Gizarte modernoak dituen area funtzionaletako helburu partzialak egoki betetzen diren bitartean —jarduera ekonomikoaren helburu instrumentalak egoki betetzen direnean, adibidez—, norbanakoaren ekintza babesturik dago zentzu-krisi jeneralizatutik. Horretaraxe mugatzen dira gizarte modernoetan partekatzen diren zentzuak: alor funtzionaleko zentzu partziala partekatzen da, loturarik ez duena inongo zentzu-ordena supraordinalekin. Bada, beraz, nolabaiteko zentzu-komunitate bat. Komunitate horrek partekatzen dituen zentzuak gutxienekoak dira: «funtzioen funtzionamenduaren» ideia, hots, ekintza-area bakoitzean jokabideak area horri dagokion logika jarraitu beharko du (enpresa bati errentagarritasuna dagokio, eta funtzio hori egoki bete bitartean ez da zentzu-krisi jeneralizaturik izango).

Horregatik, fundatzaileek bizi duten zentzu-krisia ez da zertan izan kooperatibista guztiena: kooperatibak enpresari dagokion «zentzu objektiboa» betetzen duen bitartean —errentagarritasun ekonomikoa—, ez dago zentzu-krisirik, ez behintzat zentzu-krisi jeneralizatu eta erabatekorik. Gainera, beharbada kooperatiba askok hori ez besterik eskatzen diote kooperatibari, «zentzu funtzional» hori ondo betetzea; eta besterik eskatu ezik, zentzu-krisirako bidea guztiz moztuta geratzen da («zer konpartitu nahi nuke» eta «egiazki zer ari garen konpartitzen», bi horiek bat datozelako).

Gauregun, kooperatibista gehientsuentzat —baita kiderik sentsibilizatuentzat— ia pentsaezina da ekintza kooperatiboa zentzu-ordena supraordinal baten txertatzea, demagun bertsio erlijiosoan. Gaur egun ezin mintza gaitezke praktika enpresariala eta *munduaren kontzepzio unitario* baten arteko konexioaz. Egintza ekonomikoak jadanik ez du eskatzen funts erlijioso batean oin hartzea; areago, eragozpentzat joko du zeinahi eratako adiera erlijioso dinamika ekonomikoan sartzea (errentagarritasunerako traba den heinean). Baina, esan bezala, horrek ez du esan nahi kooperatibisten esperientziak zentzu-jantzirik ez daukanik maila apalagoetan. Zentzu-baliabide horiek —besteak baino ahulagoak edo hauskorragoak beharbada—, bizi-jokabide oso bat zentzuz hornituko ez badute ere (fundatzaileen kasuan bezala), baliteke subjektuari aukera eskaintzea fenomeno kooperatiboarekiko leialtasun eta motibazio-sare jakin batean txertatzeko.¹³⁵

Horregatik, bestelako zentzu-maila batzuei eustea badagoelako hain zuzen, enpresa-ekintzak azken helburuei buruzko erreferentzia galdu izanak ez du zertan zentzu-krisirik piztu kooperatibetako bazkide guztiengan. Gainera, zentzu-eredu apal horri («zentzu funtzionalari»: errentagarritasuna) beti erants dakioke zentzu-igorlea den gutxieneko elementu etikoren bat edo beste. Hor baliteke nolabaiteko zentzu-komunitatea izatea beraz, eta maila apalagoetako zentzu-elementuek sostengua eskain dezakete. Hori bai, zentzu-komunitate hori iraganean baino ahulago eta sen-

¹³⁵ Zentzu-eredu hori apalagoa izan arren, ez genuke berau inola ere gutxietsi beharko, giza komunitateak kohesionatzeko elementu indartsua izan baitaiteke. Enpresa komunitateak, eta berau proiektu komun gisa bizitzeak, energia askotxo gidatu eta mobilizatu ahal izango du, are eta gehiago testuinguru globalizatuaren mehatxuen aurrean eta krisi ziklikoko koitunturretan (enpresa komunitateak bizirik iraunarazteko lehia eta borroka kolektibo etengabearen aritu behar duenean, alegia).

dotasun txikiagoz jantzia agertuko da: kooperatibismoa eguneroko ekintzen mailan zentzua ematera irits daiteke baina ez, inola ere, maila supraordinalean; eta, seguruenik, ez da izango bizi-proiektu oso baten eduki eta norabidearen iturri nagusia; ez, bederen, iraganean bezala.

Esan liteke kooperatibetako kideen artean guztiak ados daudela ondokoan: zentzu funtzionalek (errentagarritasunak, lehiakortasunak) funtzionatu behar dute. Horrek kasurik gehienetan funtzionatzen duenez (Arrasateko kooperatibismoa arrakasta ekonomikoko esperientzia da oro har), ez da bizi deskalabru sinbolikorik, zentzu-krisi erabatekorik, nolabait esateko. Baina, kooperatibista guztien kasuan zentzu-krisiaz hitz egitea erabateko gehiegikeria bada ere, esan liteke nolabaiteko «zentzu-krisi estalia» bizi duela hainbatek (normalean ez fundatzaileenaren parekorik). Ondokoa izan daiteke horien bizipena: gutxieneko zentzu-mailak (errentagarritasunak) operatibo dirau kooperatibetan, baita zenbait kontsiderazio eta praktika etikoz blai ere (logika demokratiko batzuk, justizia sozialaren logikak...), baina sumatzen da autonomizatzen ari dela egunetik egunera, are gehiago globalizazioarekin, eta oraindik badirauteen logika ez instrumentalei eusteko indarra nahiko litzateke, edo enpresa-jarduera sendoago kokatzea marko etiko zabalago batean.

Edozelan ere, alor ekonomikoa eta alor moralaren arteko lotura estua bizi izan duenak eta bizi nahiko lukeenak —enpresa-jarduera zentzu supraordinalez bustiz— bizi du gaur zentzu-krisia.

Horra hor fundatzaileen kolektiboak nozitzen duen zentzu-krisiaren jatorria: jakitun dira beraien zentzu-gordailu historikoa egun makalik dabilela; ikusten ari dira zentzua antolatzeke euren modua —ekintza ekonomikoa zentzu-ordena supraordinal batean txertatuz— desagertuz doala bestelako zentzu-eredu batzuen mesedetan. Bestelako eredu horiek indartzen ari dira, inguruneak norabide horretan egiten baitu presio, enpresa-bizipena modu jakin batez baizik ulertzen ez delarik: balio supraordinaletatik gero eta autonomoago, alegia.

Epe luzeagoko perspektiba historiko batean ipiniz gero, nago gaur egun fundatzaileek bizi duten zentzu-krisi hori badela atzeragotik datorren arrazionalizazio-prozesu baten ondorena. Arizmendiarrietak berak ere kooperatibismoa kontzeptualizatzeko molde zaharrekin hautsi zuen, molde horietan zentzu moralak hegemonikoak baitziren; ekintza-area ekonomikoaren zentzu funtzionala menpe zuten, nolabait. Arizmendiarrietak, funtsean, arrazionaltasun ekonomiko eta instrumentala sendotzea proposatu zuen eta, ondorioz, esan liteke bere proposamena lehendabiziko uhin arrazionalizatzailea izan zela. Hura «zentzu funtzionala» autonomizatzearen aldeko lehen mugimendua izan zen («enpresak, lehendabizi, lehiakorra behar du izan, bestela jai»). Izan ere, kooperatibak porrot ekonomikoaren adibide borobilak izanik, garaia zen beharrezko enpresa-eraginkortasuna lehenesten hasteko. Kooperatibismoa ulertzeko molde kultural berri honek eman dio Arrasateko kooperatibismoari behar zuen potentzia enpresariala. Hala ere, ekintza instrumentala oraindik azken zentzuetara loturik zegoen, marko etiko-moral batean (gizaki eta gizarte ideal baten ikuspegian) itsatsia zegoen.

Fundatzaileen zentzu-krisia bigarren arrazionalizazio-uhinarekin lotua dago; «zentzu funtzionalak» (errentagarritasuna, lehiakortasuna...) autonomo bihurtu eta

hedarazteko bigarren mugimendu historikoarekin, alegia. Habermasen hitzetan esateko, «lilura galtzearen bigarren labekada».

Gaurko mundu globalizatuan, kontua ez da baina, enpresa-ekintza soilik «zentzu funtzionalak» ez beste ezerk laguntzen duela; enpresa-ekintzak badu, izan, beste hainbat zentzu ere: geroz eta ohikoagoa da entzutea enpresaren erantzukizun sozial, etiko eta ekologikoaz, esaterako. Enpresan balioak geroz eta arreta handiagoz aztertzen, tratatzen, garatzen, balioesten dira. Ekintza ekonomikoa —enpresa-jarduera— eta balio supraordinalak («interes orokorra», esate baterako) lotzeko ahaleginetako bat da hori. Hori dela-eta, ahaleginok enpresaren helburu zenbait legitimatzeko saiakerak dira batez ere, ez baitira funtsezko ekintza-eskemak ukituko hauek arrazoi instrumentalarekin gatazkan sartzen baldin badira (hots, normalean errentagarritasunerako oztopo ez diren bitartean kontenplatuak dira logika sozial, etiko edo ekologikoak). Lan honen azken atalean helduko diot gaiari sakonago.

Beraz, gaurko kooperatibismoan badirudi zentzu partekatuak ahulagoak direla. Ez da iristen goreneko mailara: gizakiak ez du aurkitzen bizitzaren zentzua kooperatibismoan; gizarte-ideal baten inguruan kooperatibistek ez dute zentzu partekaturik. Zentzua gutxienekora murriztu da: arrakasta ekonomikoa, nolabaiteko eredu axiologiko bigunarekin nahasirik; hots, kultura eta identitate korporatibo bati dagokion balio-sistemarekin. Eredu horretan balioek ez dituzte gainditzen helburu ekonomiko hutsak, edo ez daude euren parean; alderantziz, erdietsi nahi diren enpresa-helburuak lortzeko dispositibo funtzionalak dira. Balioak enpresa-gestio eraginkor baterako elementuak dira, batik bat.

Honela ere formula daiteke fundatzaileek bizi duten zentzu-krisia: zentzu kooperatiboak jadanik ez ditu estaltzen bizitza indibidualako alor asko; ez du bere baitan hartzen ibilbide biografiko osoa; ikuspegi antropologikotik dugun zentzu-premiaren beheko mailletara bakarrik heltzen da.

Makina bat zentzu-input dituen mundu multizentriko, plurisemantiko honetan beraz, balio-sistemak eta interpretazio-eskemak erabat erlatibizatzen ari dira. Horren aurrean, pentsa genezake formula posible bakarra zentzu ahuleko identitate kooperatibista izan litekeela: kooperatibismoa zentzu-komunitate izan daiteke, neurri txikiago batean baina; berau beste hamaika zentzu-iturriekin osatu beharko da eta elkarren artean lehian aritu beharko dute.

Izan ere, Berger eta Luckmann-en iritziz, gizarte modernoetan badira «bitarteko erakunde» edo «bigarren mailako erakunde» izenekoak. Erakunde horiek zentzuak sortarazten dituzte (auzoko parroki komunitatea, psikoterapia taldea, talde ekologistak, alderdi politikoaren tokiko batzordea, era askotako elkarteak, etc.), eta komunitateen kohesioa sustatzen dute. Orientazioa eskaintzen dute zentzu— eta balio-ordena oro hartzailerik ez duen gizartean. Zentzu-sistema globalak osatzen ez badituzte ere, oso litekeena da instantzia horiek gizarte modernoak babesten ari izatea zentzu-krisiaren hedapen pandemikotik.

Laburtuz, Arrasateko kooperatibismoaren bilakaera honela imajina daiteke:

- bertako kooperatibismoa, fundatzaileen esperientzian, zentzu-sistema globala zen;
- denbora joan ahala —hurrengo belaunaldietan, nabarmenkiago— sekularizatzeko prozesua gertatuko da, baina, zentzuak oraindik sendoak izango dira eta goi-mailak hartuko dituzte (konexioak gertatuko dira mundu ikuskera nazionalistarekin edo sozialismo autoeratzailarekin, esate baterako).
- Geroago, ekintza ekonomikoak utziko dio sekularizatutako zentzu-gorputz globaletan txertatuta egoteari ere.

Galdera da: sorrerako zentzu-eredua eta geroagoko zentzu-eredu globalak etorkizunean benetako alternatiba izatea batere kontu segurua ez izanik, izan ote liteke kooperatibismoa «bigarren mailako erakunde»?

Arrasateko kooperatibismoa zentzu-komunitate minimotik sekula baino gertuago egon daiteke: ekintza ekonomiko-enpresarial alorreko «zentzu objektiboak» ondo betetzen ditu; kitto. Eta baliteke horixe izatea etorkizuneko balizko eszenatokietako bat, Arrasateko kooperatibismoaren etorkizuneko zentzu-eredua, alegia; beharbada bi ezaugarriekin: bat, zenbait balioez apaindurik agertuko litzateke; eta bi, gaurkotzeko arazo larriak aurkituko lituzkeen diferentzialtasun historikoz jantzita letorke, seguruenara (iraganeko «errentak», nolabait).

Nolanahi ere, bada beste eszenategi bat izateko aukera: kooperatibismoa beste hainbat mailatan ere zentzu — eta kohesio-sortzaile ager daiteke; eta, seguruenik, iraganeko zentzu-goialdeetara iritsiko ez bada ere, gizakiok premiazkoa dugun esperientzia esanguratsuaren bat estaliko du aurrerantzean ere. Ondoko norabidea izan liteke egokia: kooperatibismoa zentzu funtzionaltetik (arrazionaltasun ekonomiko eta instrumental hutsetik) haratago doazen zentzu-gradu hainbaten igorle izatea. Zein izan daitezke, zentzu funtzionalaren mailatik harago, egungo kooperatibistek partekatze moduko zentzu-elementuak? Lan honen azken lerroetan saiaturiko naiz horri erantzuten.

8. Beste zenbait gako zentzu krisia ulertzeko

Jarraian, esperientziako protagonista eta sektore batzuk bizi duten *zentzu krisia* ulertzeko beste zenbait arrazoibide emango ditugu (teoria soziologikoari ez hain lotuak). Baina lehenago ohar bat. Zenbait kooperatibistak zentzu krisiaren erantzule gisa azken urteotako elitea eta teknokrazia seinatzen dute. Bere ahultasun ideologikoak kooperatibismoaren urardotzea ekarri du, eta gaur zailagoa litzateke kooperatibak eta gainontzeko enpresak bereiztea. Kooperatibak nortasuna galtzen ari dira. Halaxe zioen buruzagi batek:

«Yo a Ormaetxea cuántas veces le he dicho: Arizmendiarieta fue Marx. Tú y tu generación, Lenin. Y después de Lenin vendrá la mediocridad. Pero nuestra responsabilidad será organizar esa mediocridad. Vamos a organizarla ¿no? No vamos a ser Breznev. No creo que lo seamos...».

Gaurko elite kooperatibistak ez dira lehengoak, horixe hainbaten iritzia. Gure ustez, argudiatze bide hori ez da bistatik galdu behar, liderrek eragin handia baitute edozein gizarte esperientzian. Hala ere, bere horretan argudio hori mugatua da hain gertakari konplexua azaltzeko orduan. Gainera, kontu egin behar da desideologizazioa berdin aplikatu dakiokeela base kooperatibistari, ez bakarrik eliteei. Konstelazio ideologikoan pitzadurak suma daitezke, eta horrek guztiei eragiten die. Ikus dezagun.

8.1. Konstelazio ideologikoaren ahitza

Badirudi lehenago aipatutako puzzle ideologikoaren osagaiak (erlijioa, sozialismoa eta herrigintza) higadura-garaia bizi dutela:

- Azalduta dago: Arrasateko kooperatibismoaren sekularizazioa («lokarri trszendentearen» galera), eta baita euskal gizarte osoarena ere, bistakoa da oso.
- Sozialismoan modu batean ala bestean sustraitutako motibazioek ere behealdi garaia bizi (izan) dute mundu osoan; desorientazio sakona. «Historiaren amaiera» iragartzen zuten kanpai-hotsen biktimak izan dira, azken urteotan pentsabide eta praxi kritikoaren eremuak arnasaldi moduko bat bizi badu ere (Gizarte Foroen eta alter-globalizazio mugimenduaren eskutik nagusiki). Horrela, bada, erlijioarekin gertatu antzera, liberazio-etika ezberdinek atzerakada historikoa jasan dute euren sinesgarritasunari, gizarte-legitimizazioari eta eraldatzeko potentzialari dagokienean. Sentsibilitate edo bulkada horrek oro har atzera egin du gizarte mailan, eta baita ere, gizartearen erreflexu natural gisa, kooperatiben gorputz sozialean.
- Aldi berean, herrigintza ere lardaskatuta dago: erasoaldi bortitza jasaten ari dela ematen du, merkatuen irekiera globalaren eta esperientzia kooperatiboaren internazionalizazioaren eskutik. Horrek nolabaiteko *desnazionalizazio*-prozesua eragiten du, eta ondorioz, baliteke lurraldetasun— eta identitate-leialtasunak urtzen egotea. Hipotesi horri jarraiki, euskal nortasuna lausotu eta poliki-poliki *enpresa-komunitate transnazional* bihurtzeko joera dago, inolako lurralde-atxikimendurik bakoa, edo atxikimendu anitzekoa. Horretaz gain, nazioarteratze prozesuak auzitan jarri du kooperatibismoak gorputzen duen erakunde-ereduaren bideragarritasuna globalizazio garaian (nazioarteratze prozesu guztia formatu ez kooperatibistan gertatzen ari da).

AKEren orain arteko sakoneko motibazioek, beraz, une konplikatu bizi dute. Konstelazio ideologikoaren osagaiak, behialako sinbolo eraginkorrak, nolabaiteko higadura nozitzen ari dira era batera ala bestera, hein handi batean globalizazioak ezaugarritzen duen aro historiko berriaren ondorioz.

Gainera, garrantzitsua da beste aspektu bat: garapenaren ideia sakon aldatu da (aldatzen ari da) mendebaldeko gizarteetan. Progresoaren eta etengabeko hazkuntzaren ideiak kolokan daude. Lehen, progresoa itxaropenen eta erredentziorako

aukeren bilgune zen. Baina gaur, arazogune izatera eta arriskuaren ideari lotuta egotera pasatu da (arrisku ekologikoak, kulturalak, sozialak, finantzarioak...). XX. mendearan amaierak *hazkuntzaren mugen* gaineko kontzientzia ekarri du. Georges Balandier-ek dioen moduan, hirurogeita hamarreko hamarkada, beste ezer baino lehen, *zalantzaren* hamarkada da; lilura desagertu egin da; aurrerapenak «desilusioak» dakartza; gizartea «blokeatuta» dago. Hazkuntza ekonomikoak jada ez ditu bertute guztiak, eta bada «altoa» ematea proposatzen duenik ere.¹³⁶

Kontzientzia berri horrek enpresan eta ekonomian nagusi diren kultura «desarrollisten» flotazio-marran jotzen du eta, nola ez, Arrasateko kultura sozioekonomikoan. Badirudi kultur aldaketa garrantzitsu baten aurrean gaudela: garapen teknologikoaren eta ekonomikoaren efektuek *arriskuaren kontzientzia* moduko bat sortu dute herritarrrongan. Dagoeneko garapena, hazkuntza eta modernizazioa ez dira modu automatikoan *hobetzearen* sinonimo bezala ulertzen.

Zentzuen higatzeari dagokionean, argigarriak dira Euskadiko Kutxaren laurogeiko hamarkadako memorieta agertzen den mintzamoldea (memoriok garrantzi handia zuten garai hartan, AKERen oinarri ideologikoak agertzeko euskarri garrantzitsuenetakoak baitziren). Sasoi horretan, jarduera ekonomikoaren berri emateaz gain, kontzeptu lodiz beteriko testuak ziren: herria, Euskal Herria, langile klasea, askapena, progresoa... Halakoxea zen garaiko gizartea bera ere. Gaur, «hitz zombiak» dira euretako asko (klasea, progresoa), eta, gizartearen tenperaturarekin bat, memoriak ez dira erabiltzen kontzeptu ideologikoak azaltzeko, zenbakiez betetzen dira, jarduera ekonomikoaren berri ematen da soilik. Bihotza gogortuta geratu izan balitz bezala.

Uler bedi esaten ari garena: ez dugu esan gura Arrasateko kooperatibismoa lehengo motibazio-indar eta legitimazio ideologikoetan jada sostengatzen ez denik; ez da hori. Esperientziaren protagonistetako askok motibazio-indar horiek sendo bizi dituzte euren barruetan. Ondokoa da esan gura duguna: legitimazio horiek ñabar-dura gehiagorekin agertzen dira ireki berri den fase historikoan, eta iraganen baino ahulxeago eta arazo gehiagoz ere bai.

Enpresa-jardunaren bultzatzaile izan diren *zentzu supraordinalak* orain problematizatuta agertzen dira, goi-zentzuen putzua *lehortze-prozesuan* balego bezala (edo agian eraldatze-prozesuan). Zergatik gertatu da hori? Igual jarduera ekonomikoak berak erabaki du baztertea jada behar ez duen balore-estaldura. Horren zergatia hauxe litzateke: kooperatibak behar dituen portaerak eta estilo kognitibo-instrumentalak dagoeneko lortu dira (langile saiatuaren profila eta kudeaketa-kultura eraginkorra). Aspektu horien instituzionalizatzeko historikoa konponduta dago. Weberren tesia dugu hori, hasierako enpresa kapitalistaz ari dela: balio kultural tradizionalak tresna funtzionalak ziren lehen, baina orain baliogabeak edo disfuntzionalak izatera pasatu dira. Beste era batera esango dugu: merkatuaren baldintzetara arrakastaz

¹³⁶ Georges Balandier, *Magazine littéraire*, 239-240 zenb., Paris, 1987ko martxoa, 25-26 or. (Eugenio del Riok zitatu: *Modernidad, posmodernidad*, Madril, Talasa, 64. or.).

egokitze beharrezkoak diren enpresa-mentalitatea eta bizimodua mekanikoki beregiten dira gaur, inolako legitimazio ideologikotan edo funtsezko sustrai axiologikotan oin hartu gabe.

Hipotesi horren arabera, behin Arrasateko kooperatibismoa sendotu ondoren, enpresa-sarea urrundu egin da bere garapena bultzatu duten ikuskera etikorlijioso eta sekularretatik. Ez ditu behar bere biziraupenerako. Jada ez lirateke beharrezkoak izango euskarri ideologikoak edo aingura etiko-moralak. Behinik behin, soberan leudeke formulazio normatibo gogorrak, hau da, gizarte ezberdin bat sortzeko asmoak. Eta orduan, arrazionaltasun ekonomikoa inoiz baino indar handiagoz altxatuko litzateke *bestelako logika* batzuek errealitatean eragiteko duten asmoaren aurka. Izan ere, bestelako logika horiek errentagarritasunaren ikuspuntu «razionaletik» kanpo leudeke, «irrazionalak» lirateke, eta nonbaiten tokirik izatekotan protagonisten eremu pribatu eta subjektiboan behar. Kooperatibismo garaile eta arrakastatsuak pixkanaka alde batera utziko lituzke antzinako helduleku ideologikoak. Ustez abian den prozesu historiko bati buruz ari gara, edo nolabaiteko «iraultza isil» bati buruz.

Arrazoiak direnak direla, historian zehar ekintza kooperatiboa lagundu duten *zentzu supraordinalek* nolabaiteko higadura bizi dute; une zaila. Esperientzian parte hartzen duten sektore batzuek ere pragmatismo ekonomikorako labaintzea ikusten dute. Beste garai batzuetan ekintza kooperatiboak izan duen zentzu-jantzia urratuta antzematen dute, bihotzaldia bihotzerre bihurtuta.

Dena den, jadanik esandakoa: nago, enpresaren jarduna orohar, eta kooperatiben jarduna zehatzago, ez dela labaintzen ari instrumentaltasun hutsera. Globalizazio aroan, enpresaren mundua diskurtso legitimatzaile berria lantzen ari da: enpresen gizarte erantzukizuna; langileen asebetetzea eta inplikazioa... Enpresa «enkantatzeko» saiakera historiko berri baten aurrean gaude, eta zentzu-osagaiekin lotzeko ahalegin berri baten aurrean. Eta AKEren etorkizuneko bidea ere horixe izan liteke. Gauzak horrela, AKE ez litzateke larrugorrirek egongo, zentzu-janzki berriarekin baizik. Janzki etiko berria, *management modernoaren*, *enpresa postayloristaren* eta *enpresa kultura berriaren* proposamenetatik elikatzen dena. Bueltatuko gara gai honetara.

Aipatutako guztiaren ondorioz, egun AKEk erantzun behar duen galderetako bat honako hau da: ze puntutaraino arrazionaltasun ekonomiko-enpresarialak ez ote du goi-zentzuekiko bereizte bat aldarrikatzen? Hori hala bada, behialako motibazio-indarretatik aldentzen ariko litzateke. Are gehiago: globalizazio aroan zentzu berriak sortzeko eta kooperatibaren nortasuna berritzeko aukeratik aldentzen ibiliko litzateke beharbada.

Aipatutako ikuspuntutik, Arrasateko kooperatibismoaren egungo krisia (globalizatutako eta intentsitate handiko kooperatibismo-ereduarena) krisi kulturala edo zentzu-krisia da nagusiki. Izan ere, sistemari egonkortasuna eman dioten eta berau «esanahi gorenez» hornitu duten «lokarri trazedentalak» eta lokarri sekularizatuak («erlijio laikoak»: klasea eta nazioa) ahulduta ageri dira.

8.2. *Begiratu historikoa. Gizarte-aldaketak Euskal Herrian*

Esperientziak iraun duen 50 urteotan zehar asko aldatu da euskal gizartea, eta aldaketek, zelan ez, eragina izan dute kooperatibetan eta AKEk egun bizi duen une kritikoan. Euretako batzuk azalduko ditugu:

- *Ekonomi testuinguruaren* aldaketa.

Diktadura frankistaren garaia autarkia garaia izan zen: estatu-nazioaren mugek zedarritzen zuten jarduera ekonomikorako esparrua. Esparru hori itxia zen eta lehiakortasun-exijentziak oso apalak. Testuinguru horretan, enpresa-arrakastarako aukerak handiagoak ziren, gauzak ganora pixka batekin eginez gero. Ondorioz, testuinguru samur eta lasaiago hartan, beste era batzuetako logikek enpresaren jarduera kobernatzeko zuten tarte handiagoa zen. Enpresa-jardueraren eremua izugarri ireki da (autarkiatik globalizazio ekonomikora 50 urtean), eta gaur mundu-merkatuan jardun behar dute kooperatibek, lehiakortasun-presio handiko testuinguru berrian.

Hiru garai nagusi bereiz ditzakegu¹³⁷: 1) 1955-72, kooperatiba-taldearen sorrera, gaineitura-entitateen sorrera eta garapen azkarreko garaia; 2) hirurogeita hamarreko eta laurogeiko hamarkadak: krisi industrial sakona Euskal Herrian, eta Europako merkatu bakarrera egokitu aldera antolaketa-formulazio berrien sorrera; 3) laurogeita hamarreko hamarkadan merkatu globalizatura egokitzea.

Lehiakortasunaren presioek subjektu kooperatiboaren «arrazoi ekonomikoa» etengabe sustatzea, garatzea eta hedatzea eskatzen dute. Horregatik, bestelako arrazionaltasunen eragin-eremua nabarmen txikiagotuko da. Eta balore-arrazionaltasunak atzera egin du jarduera ekonomiko-kooperatiboa kobernatzeko xedeetan.

- Espainiar estatuan jazo den aldaketa politikoak nolabaiteko ongizate estatua ekarri du, *publikotasunaren sendotzea*, alegia.

Horren ondorioz, logika komunitarioaren jarduera-esparrua txikiagotu egin da. Esku-hartze publikoa etengabe hedatu da eta bere gain hartu ditu beste garai batzuetan herri-ekimenen esku zeuden gizarte-arazoak. Ikuspuntu historikotik, autogestioaren jarduera-esparrua txikiagotu egin da, eta neurri batean, komunitatearen logikak gizarte-funtzionaltasuna galdu du.

Zenbaitzuek diote Arrasateko kooperatibak «itzalpeko euskal gobernu» moduko bat izan direla, Lankide Aurrezki Kutxak lideratua. Kasurako, euskal kooperatibismoak inplikazio zuzena izan du euskal hezkuntza sisteman, hots, herri perspektibatik hain estrategikoa izan den ikastolen mugimenduan, berau sortzen lagunduz eta diruz hornituz. Euskararen eta euskal kulturaren euska-

¹³⁷ Jose Maria Ormaetxea *Didáctica de una experiencia empresarial. El cooperativismo de Mondragón*, Otxalora, 2003.

rri garrantzitsua izan dela ezin uka (Euskaltzaindiak berak egoitza Lankide Aurrezkian zuen garai batean). Gauza bera esan daiteke banatutako gizarte-laguntza eta sostengatutako era guztietako elkarte ugariei buruz. Denboraren poderioz, logika publikoak herritarren autolaguntza sareak ordezkatu ditu, hainbat arlotan egin ere.

Bestetik, erregimen politiko berriaren ezarpenarekin kooperatibak da-goeneko ez dira, diktaduraren garaian bezala, oasi demokratiko bakarrak. Gaur esperientzia demokratikoa bestelako eremu batzuetan ere eraiki daiteke, eta kooperatibek barne demokrazia duten hainbat erakunderekin batera bizi dira (partiduak, sindikatuak, udalak...). Ondorioz, erakunde kooperatiboek beste batzuekiko zuten berezitasuna ahuldu egin da.

- *Testuinguru soziologikoaren* aldaketa.

Kooperatiba-jarduera tresna eraginkorra zen sorrerako testuinguruan, garaiko gerraosteko gizarteari (Arrasatekoari) eta gizarte horren beharri zenei erantzuteko. Kooperatiben funtzionaltasun soziala bermatuta zegoen. Kontu egin behar dugu kooperatibak historian zehar bereziki gizartearen beharrei aurre egiteko jaito eta garatu direla. Baina zer gertatzen da funtsezko behar horiek beteta daudenean? Zer gertatzen da gaur egun kooperatibismoarekin, gizarte-ongizatea eta ugaritasun materiala ezaugarri dituen testuinguru sozio-historikoan? Kooperatibismoaren izateko arrazoiari berari eragiten dion galderaren aurrean gaude: nola eta zergatik egin kooperatibismoa gaurko lehen mundu honetan.

Ez gaude gerraosteko testuinguruan. XX. gizaldiko bigarren erdialdean erdi mailakotzat jo daitekeen populazio sektorea asko hazi da euskal gizartean, eta ongizatean instalatu. Aldaketa soziologiko horrek kooperatibismo eredu batetik beste batera iragatea ekarri du: *beharriaren kooperatibismotik ongizatearen (edo ugaritasunaren) kooperatibismora*. Eredu batetik bestera igarotzeak zentzuak birkokatzea eskatzen du, nagusiki belaunaldi berriek bizi dituzten behar eta motibazio berrietatik abiatuta. Ekintza kooperatiboa, eta orokorrago, ekintza komunitarioa, gabeziaren lurraldean loratzen da, eskasiarenean, indefentsioarenean, babes ezarenean. Zergatik jardun gaur kooperatibagintzan?

- *Giro ideologiko eta kulturean* aldaketa garrantzitsuak gertatu dira.

Bizi dugun aroa berezia da bere dimentsio ideologikoari bagagozkio, aipatua dugu zerbait horri buruz. Berlingo harresia erori ostean zenbaitzuek alternatibarik ez zegoela oihu egin ziguten. Askapen horizontetarik ez omen, eta Fukuyama-ri kasu eginez gero, historia bukatu da, ez baitago bestelako etorkizun posiblerik merkatu-ekonomia eta demokrazia liberaletik haratago. 90eko hamarkadan han-hemen loratu ziren logika eta politika neoliberalak, eta progresista askotxok aurkeztu zuten euren dimensio ideologiko eta intelektuala.

Utopien gainbehera moduko bat bizi dugu, eta egokitzapena helburu duten bizi-jarrerak indartu dira. Dagoena onartu behar, konformismoa nagusi. Badirudi erromantizismo ideologikoak kamustuta daudela. Beste garai bateko militantzia erromantikoa orohartzailea zen, pertsona goitik behera markatzen zuen (larregi sarri askotan). Gaur, ostera, izatekotan, bolondresen konpromiso bigunagoa dugu modan.

«Fukuyama sindromean» eroritakoei gustatu ala ez, historia ez da amaitu. Baina beste zerbaiten amaieraren aurrean gaude: garai mesianikoaren amaieraren aurrean, hain zuzen. Profetismoa eta tentsio mesianikoa galdu dira. Belau-naldi berriek profil ideologiko zapalagoa dute. Badirudi ukitu pragmatiko eta motibazio indibidualista handiko pertsona eredu ari dela nagusitzen arketipo kultural berri gisa. *Satisfakzioaren kulturaren* bizi gara (Galbraith). Meta-narratioak ez dira erabat desagertu gizarte-bizitzatik, baina nabarmen ahuldu dira. Higituta ditugu beste garai bateko zentzu-gorputz indartsuak, interpretazio-sistema handi eta orohartzaileak, eta identitate sendoak. Euskal Herrian ere nabarmena da hori.

Gainera, kezkak lekualdatzen ari dira, eta horrek esplikatzen du, hein batean, kooperatibismoak jende gaztea erakartzeko duen zailtasuna, «gazteek nahiago baitute ONGekin konprometitu, kooperatibismoarekin baino».

8.3. Zentzuen instituzionalizazioa. Kooperatiba-komunitatetik korporazio-elkartera

Arrasateko mugimendu kooperatiboa sortu eta garatu zuten batzuen ikuspuntutik, eurek kooperatibismoari erantsitako esanahiek eboluzioa jasan dute. Sinesmenek, ilusioek, sentimenduek eta idealek guk *instituzionalizatze-prozesua* deitu duguna jasan dute. Hau da, esanahi-sistema, balioak eta printzipioak eguneroko jardunean iltzatuta dauden elementu bizituak izatetik, prozedura tekniko eta burokratiko instituzional konplexuak izatera pasatu dira. Eta kooperatibisten bizipenetatik urrutiago daude.

Genesi garaiko ekinbide kolektiboari zerion zentzua makaldu egin da. Hoztu egin da sorrerako ekinbide kolektiboak zeraman zama emozionala eta epika erromantikoa. Areago ekinbide hori kokatzen zeneko garai historikoa urrundu ahala, eta lehen belau-naldikoak erretiratu edo desagertu ahala. Jada sendo finkatutako errealitatea da nagusi; hau da, bere motibazio-oinarriak eta esanahi-sistema instituzionalizatu dituen errealitatea. Gaur esanahi-sistema objektibizatuta dago, bihotz pusketak kooperatibako horma batean ondo iltzatuta, nolabait esateko. Baina protagonista bakoitzaren eguneroko armazoi subjektibotik urrunago. Osagai kulturalak (balioak, ideiak, ikurrak) jarduera instituzionalerako arau bilakatu dira, behar bezala tipifikatutako prozedura tekniko bihurtu dira.

Kasurako, elkartasuna erabat instituzionalizatuta dago: ondo zehaztutako eta zeharritutako prozedura, portaera-kode eta arau instituzionalak ezarri dira. Lehenagoko elkartasunaren bizipen zuzenago eta pertsonalagoak bidea utziko dio burokratiki

kudeatu eta administratuko den elkartasun ereduari. Galeraren ikuspuntutik, aipatu elkartasun instituzionala elkartasun faltsua da, ez baitu eskatzen ahalegin pertsonal handirik. Esfertzua instituzioak (kooperatibak) egingo du.

Egiari zor, garrantzitsua da portaera eta jokabide-kodeok instituzionalizatu izana. Egitura instituzionalean naturalizatu izanak kooperatiben sarea elkartasunaren bideetatik gidatzea ahalbidetzen du, prozedura ugarien bidez egin ere (ordainketa tarte mugatuak, kooperatiba arteko laguntza mekanismoak, emaitzen kapitalizatzea, eta abar). Ikuspegi baikorrago honi helduz, eta galera sentimendutik urrun, bada dioenik inoizko elkartasunik handiena bizi dela.

Hala ere, lehen belaunaldiko kide garrantzitsu batek zioen moduan, «argi dago badela elkartasun instituzional bat erraz betetzekoa dena», eta horren bitartez diru kopuru handiak bideratzen dira norabide askotan. Gainera, kooperatibetan dirua bakoitzak egiten duen lanaren arabera banatzen da eta erabakiak «bazkide bat boto bat» leloari jarraituz hartzen dira. Baina, «kooperatibaren elkartasunaren espiritua askoz ere apelazio sakonagoa da: elkartasunak kostu bat suposatu behar du arimarentzat edo poltsikoarentzat». Elkartasun-esperientzia horrek indarra galdu du. «Kostu» hori egun nekezago bizi da.

Lipovetsky-ren terminoak erabiliz, minik ematen ez duen elkartasun baten aurrean gaude, kultura judu-kristauaren eta tradizio sozialistaren antzinako sakrifizioetikez bestelakoa. Lengoia aldaketa baten aurrean ere bagaude neurri batean: besteenganako *betebeharretan* oinarritutako lengoia morala norbere *eskubideen* aldeko lengoia ordezkatu du. Guztiarekin, kooperatibek behiala eraikitako konpromiso komunitarioko bideak gaur azaleko erritual bihurtzeko arriskua dago, zentzuz hustutako prozedura tekniko bihurtzeko arriskua.

Izan ere, luzaroan Arrasateko kooperatiba-munduak komunitate txikia eta, giza harremani dagokienez, hurbila osatzen zuen. Gaur egun, kooperatiba-esperientzia askoz konplexuagoa da bere dimentsioari, bereizketa sozialari eta antolamendu-arkitekturari bagagozkie. Langile gutxiko komunitate eta kooperatiba bakarra izatetik, hirurogei mila langile baino gehiago dituen gizarte-egitura konplexua eta ehun eta berrogeita hamarretik gora enpresak osatzen duten kooperatiba-taldea izatera pasatu da. Arrasaten eta bere inguruan bilduta egotetik, munduko kontinente ia guztietara hedatu da. Egitura soziala askoz konplexuagoa da, funtzioak asko espezializatu dira eta, horren guztiaren ondorioz, harreman sozialek beste profil bat dute.

Hamabi lagunekin hasi zen lehen kooperatiba, eta gaur 65 mila lagunetik gora. Hasierako kooperatiba-elkartea osatu zuten pertsonen komunitatea trinkoagoa zen eta talde primarioetik hurbilago zegoen. Bertan, «aurrez aurreko» harremanek garrantzi handia zuten. Hurbileko komunitate txikietan harreman-eredu jakin bat sortu ohi da, distantziak txikiagoak baitira eta kontaktua intimoagoa. Baldintza horietan, esperientziaren arau moralek eta printzipioek formalizazio maila txikiagoa eskatzen zuten. Egiturak sinpleagoak ziren eta gizarte-kohesioa informalagoa.

Gaurko elkartasuna beste era batekoa da: aldeek elkarrekiko duten behar funtzionalean gehiago oinarritzera pasatu da. Gutxiago oinarrituko da kontzientzia ko-

lektiboaren indarrean. Ideia hori muturrera eramanda, gaur arau instituzionalizatuak mantentzen du bizirik fenomeno kooperatibista, oinarri kulturalak ez dauka horretarako indarririk. Horregatik, egungo konplexutasunera iritsita, kooperatibaren bizipena ez da hain kutuna eta bai, ordea, instituzionalizatuagoa. Giza tenperatura ezberdina da. Hortik Arrasateko kooperatibismoaren zati batek (bereziki lehen belaunaldiak) bizi duen galera-sentimendua eta egoera anomikoa.

Har dezagun adibide gisa laurogeita hamarreko hamarkadan gertatu zen antolamenduaren eraldaketa. Mundu kooperatiboa egituratzeko modua nabarmen aldatu zen: Arrasateko kooperatiba-taldea eskualdeka antolatua zegoen (gertutasun geografikoaren irizpideak), eta enpresa-sektoreka (negozioka) antolatuzera pasatu zen (merkatu-irizpideak). Arrakastaz erantzun behar Europako esparru ekonomikoan sartzeak ekarri zituen desfioei. Efikazia ekonomikoaren ikuspegitik onuragarria izan zen. Baina bestelako ondorioak ere izan zituelakoan gaude. Izan ere, enpresa-optimizazioak mugak eta murrizketak ezarri dizkie gizarte-sare «naturalei». Eta kontu egin behar da sare horiek direla komunikazio sinbolikoaren ekoizle eta kokaleku. Horrela, komunikazio prozesuak tratatuta geratzen dira hein batean. Ekoizpen-prozesuaren beharrek interferentziak sortzen dituzte komunikazio-kanaletan, eta ondorioz, baita balioen ekoizpenerako eta sozializaziorako eremuetan ere.

Jar dezagun beste adibide bat: behialako bilera luzeak eta berauek izan duten eraldaketa. Sortzaileek diote garai bateko enpresa-bilerek edo langileen batzarrek egungo bilera azkar eta eraginkorrek baino askoz ordu gehiago irauten zutela, eta balio kooperatiboak gogoratzeko balio zutela. Hainbat espazio, lehenik eta behin, pedagogia kooperatiborako eta esperientziaren baloreak erreproduzitzeko esparru gisa ulertuak ziren. Gaur egun, ostera, baloreez jardutea onenean zaharkituztat har daiteke; txarrean, doktrinatzeko saiakeratzat.

Beraz, murriztu egin da komunikazio sinbolikorako eta talde-zentzuen erreprodukziorako lurraldea. Estutu egin da *bizitzaren mundua*. Mehetu egin da balioak erreproduzitu eta sozializatzeko mundua. Uzkurtu harreman eta eztabaida kooperatiborako esparrua. Finean, kolonizatua izan da komunikazioa eta talde-identitatearen berregitea ahalbidetzen duen territoria.

Prozesu historiko horrek harreman sozialak despertsonalizatzeko joera agertzen du, komunikazio sinbolikoan interferentzia estrukturalak sortzen ditu, eta finean, kooperatiba-bizitza logika sistemikoen menpe utzi (sistema administratibo-burokratekoaren eta merkatuaren logika inbertsonalaren menpe). Joera horrek kooperatiben bizitza mekanizatu egingo du, zentzuz hustu, eta zentzu berriak sortzeko euskarri barik utzi.

8.4. Aldaketak enpresa kapitalistan, kooperatiben identitate-krisia

Luzaroan, Arrasateko kooperatiben eta enpresa kapitalisten arteko diferentziak nabarmenak izan dira. Gaur, aldiz, antzekotasun gehiago dago bataren eta bestearen

artean, eta horrek kooperatibei nolabaiteko identitate-krisia ekarri die. Gutasun oro krisian sartzen baita *alter egoarekiko* diferentziak lausotzen diren heinean.

Izan ere, kooperatibaren *alter egoak* (ohiko enpresa kapitalistak) sakoneko eraldaketak jasan ditu. Enpresa kapitalisten munduan praktika berriak proposatzen dituzten diskurtso berriak hedatu dira. Enpresa inplikaziorako, partaidetza aktiborako eta kooperaziorako esparrua litzateke (dagoeneko ez litzateke klase sozialen interes antagonikoen gatazkagune). Izan ere, ekonomia irekien garai hauetan «giza baliabideetan» datza enpresen lehiakortasunaren gakoa.

Ondorioz, enpresa *ingurune afektibo* gisa definitzen da eta bertan beharrezkoa da *denen inteligentzia mobilizatzea*. Une honetan, *kulturak arrazionaltasun teknokratikoa* ordezkatu nahi duela dirudi. *Borondatezko atxikimenduak* koertzioa ordezkatu du. Beharrezkoa da mentalitateak aldatzea eta beharrezkoa «gizabanakoak bere buruarekin eta taldearekin duen harremana aldatzea, eta soldatapeko langile sortzaileak ekoiztea, egokitzeko eta komunikatzeko gai izango direnak»¹³⁸. C. Francis enpresaburuak hala zioen:

Zuk eros dezakezu jendearen denbora; zuk eros dezakezu presentzia fisikoa leku jakin batean, baita mugimendu-kopuru bat ere orduko. Baina ezin duzu erosi gogoberotasuna, leialtasuna... ezin duzu erosi bihotz, buru edo arimen dedikazioa. Hori irabazi egin behar duzu.¹³⁹

Enpresaren konpromiso ekologikoa eta gizarte-erantzukizuna aldarrikatzen dira. «Etikarik gabe ez dago negoziarik», esango zaigu. Kultura erdi-berri baten aurrean gaude, enpresa-jarduera zentzu osagaiekin lotu nahi duena: «ongi kolektiboarekin», konpromiso sozialarekin eta antzeko beste kontzeptuekin. *Enpresa postaylorista berriak* bere barnean *pertenentzia zentzua* sortu nahi du. Kulturalki konpaktua den kolektiboa antolatu nahi du, gero eta lehiakorragoa den merkatu irekian borrokatzeko gai izango den kolektibo sendo eta trinkoa.

Egungo buruzagi kooperatibista askorentzat, enpresa-kultura berriak arrazoi historikoa ematen dio kooperatibismoari. Izan ere, enpresa-kultura berriaren kontzeptuak (parte-hartzea, inplikazioa, konpromiso soziala...) kooperatibaren kode genetikoaren oinarrian bertan daude. Guztiz baikorra den ikuspuntu horretatik, kontzepzio berriek bide ematen dute etorkizunean arazorik gabe lortzeko kooperatibismoaren betiko helburua: etika eta ekonomiaren arteko bateratzea.

Narratiba berri hori, enpresa-kultura berria oinarri duena, indar handiz sartu da Arrasateko kulturaren. Paradoxa eman dezake, baina nago kooperatiba-ikuspuntuaren garaipen historikoa dirudien horrek, aldi berean, kooperatibaren nolabaiteko krisia adieraz lezakeela, berezko identitatearen desitxuratzea ekar baitezake. Hau da, kooperatibaren eta enpresa kapitalistaren arteko diferentzien desagertze-prozesuaren au-

¹³⁸ Adela Cortina, *Ética de la empresa. Claves para una nueva cultura empresarial*, Trotta, Madril, 2000, 92. or.

¹³⁹ Manuel Quevedo eta Joseba Polanco, «Kooperatiba-kudeaketarako gida», CSCE-EKGK (Euskadiko Kooperatiben Goren-Kontseilua), 4. or.

rean egon gaitezke, *homologazio prozesu* baten aurrean. Eta ondorioz, kooperatiben nolabaiteko identitate-krisiaren aurrean. Ikus dezagun.

Orain arte, bai kooperatibaren bai enpresa kapitalistaren siluetak oso ondo zehaztuta egon dira. Bakoitzaren erliebeak oso erraz bereizten ziren eta bien arteko ezberdintasunak nabariagoak ziren. *Indiferentziazioa* dakarren prozesu historikoa bi mugimendu handiren ondorio gisa uler daiteke. Batetik, enpresa kapitalistak alde batera utzi ditu bere adierazpen eta erlieberik harroenak. Bere barne-harremanetan postulatu demokratikoagoetara hurbildu guran dabil, eta gizartea zerbitzatzeko asmo handiagoekin (diskurtso-mailan behinik behin, gehiegixotan praxia beste kupel bateko sagardoa baita). Bestetik, kooperatibek kontzesio inportanteak egin behar izan dituzte (behin-behinekotasun tasa altuak, bazkide ez direnen kopuru altuagoak, kapital-enpresak sortu...). Bi mugimenduon eraginez, gero eta konpartituagoa den lurralderantz doaz bi errealitateak (kooperatiba eta enpresa kapitalista), eta horrek beste garai bateko identitate zeinu garbiak desitxuratzen dituen berdintze-prozesua dakar.

Kaleko jende arruntaren ahotan ere entzuten da, biak ala biak enbor bereko ezpalak direla. Kosta egiten da, sekula ez bezala, kooperatiba den enpresa eta ez dena bereiztea, bereizketarako oinarri argi bat aurkitzea. Horren guztiaren ondorioz, egun egoera historiko konplexuagoa bizi dugu, irakurketa manikeorik onartzen ez duena: enpresa kapitalista ez da beste garai bateko deabrua eta enpresa kooperatiboa ez da bertute guztien ikono.

Beraz, baldintza historiko berrietan, kooperatibismoaren erliebea lautzen ari da. Indarra galdu du kooperatibismoa errealitate errektibo gisa ulertzen duen pertzepzioak. Indarra galdu du kooperatiba ohiko enpresa kapitalistaren berezko arrazionaltasun eta izaerarekiko antagonista gisa ulertzen duen pertzepzioak. Ikuspuntu historikoari eusten badiogu, AKERI buruzko pertzepzioa ondoko norabidean mugitu dela esan daiteke: indarrean zegoen enpresa ereduarekiko kode eta jardunbide alternatiboen eramaile izatetik, nagusi diren kode eta diskurtsoen erreferente garrantzitsu izatera (Arrasateko kooperatibak eredu dira kudeaketa molde berrien alorrean).

Berdintze-prozesu horrek *identitate-krisia* sortzeko ahalmena du. Izan ere, *gu kooperatiboaren* definizioa, hots, norbere bereizgarritasunaren azalpena, gero eta zailagoa da. Gero eta ñabardura gehiago behar ditu. Ondo uler bedi: horrekin ez dugu esan nahi kooperatibaren bereizgarritasuna desagertu denik, ezta gutxiago ere; ez eta historian lehenengoz jartzen denik auzitan kooperatibismoaren izaera errektibo eta antagonista. Zera esan gura dugu: euskarri argi eta zehatzetan oinarritutako talde-identitateak bidea utzi diola oinarri zehaztugabeagoak eta lausoagoak dituen identitateari. Trazu sendoko kooperatibismoak, ñabarduretan oinarritutako kooperatibismoari utzi dio lekua. Deabruak ba omen du aingerutik zerbait, eta aingeruak deabrutik.

8.5. *Hezkuntzan hutsuneak*

Amaitzeko, Arrasateko kooperatibismoaren berezko eta egiturazko joera bat aipatuko dugu labur. Gure ustean, eta kooperatibista gehienek onartzen dute esango

duguna, balioak ahultzearekin lotura zuzena du ondokoak: azken hamarkadetakoa hezkuntza-defizita (nagusiki Arizmendiarrjeta hil ostekoa). Izaera teknikoko hezkuntza bai, baina ez da egon planifikazio sistematikorik kooperatibaren zentzu kolektiboak (ber)ekoizteko, transmititzeko eta berriztatzeko. Inertziek, barrukoek zein kanpokoek, markatu dute norabidea. Ez da zentzu-fluxurik egon.

Indarrean dagoenarekin bat ez datorren ezein esperientziak ezin dio bere identitateari eutsi, ez badu bere kideen artean etengabe elikatzen autoulermen eta autodefinizio kolektiboa.

9. Zer egin? Aterabidearen arrastoan

9.1. Hiru erantzun molde nagusi

Arrasateko kooperatibismoak une korapilatsua bizi du. Leninen galdera mitikoari lotuko gatzazkio segidan: *zer egin?* Erantzunak ugari, kooperatibisten artean. Hiru dira nabarmenduko ditugunak. «Tipo idealak» dira azalduko ditugun erantzun moldeak, errealitatean nekez aurkituko ditugu garbi-garbian, eta normalean kooperatibista gehienek batetik eta bestetik hartzen dute zerbait.

Tradizionalismoa edo jarrera esentzialista

AKEk orain arte izan dena izaten jarraitu behar luke. AKEk bere berezko balioei, printzipioei eta jardunbide tradizionalei eutsi behar die. Jarrera eta diskurtso honetatik, «pertsona-sozietatea» eta kooperatibaren printzipioekiko ahalik eta koherenteena den jardunbidea babestu eta sustatu nahi dira. Posizio honen hondoan *galera* sentimendua da nagusiki aurkitzen dena.

Esentzien eta praktika puruagoen inguruan biltzea eskatzen da. Baina, jarrera horrek aurrez aurre egiten du topo gero eta globalizatuagoa den merkatuarekin eta bertan era eraginkorrean erantzun beharrekin. Euren biziraupen eta lehiakortasun estrategian kooperatibek gero eta gehiago erabiltzen dituzte zenbait «koltxoi»: behin-behinekotasuna eta soldatapeko langileak esaterako (horiek egiten dituzte lan gogorrenak eta sasoi txarretan kalera joango diren lehenak dira).

Baliabide horiek gehiegi erabiltzen ote dira? Behar baino gehiago erabiltzen ote dira? Baiezkoan gaude gu. Hala ere, badirudi «tradizionalismoan» ixteak ez duela eskaintzen benetako alternatibarik. Kooperatibek nekez uko egin ahal izango diete halako baliabideei, eta ondorioz, eztabaida ondokoa da: zein neurritan erabili baliabideok. Erantzuna edozein delarik ere, *pertsona-sozietatea* nabarmen ahuldu da kooperatibismoaren garapen-fase honetan, *lan-kontratu*a (lotura ekonomiko soila) *sozietate-kontratuari* (kooperatibismoaren oinarritzko ezaugarri bereizgarria) lekua jaten ari baitaia.

Gainera, nazioarteratze prozesuarekin kooperatibismo zaharra eta bere egitura juridiko tradizionala kolpatua da, nazioarteratzea ez baita kooperatiba bidez egiten ari. Globalizazioarekin eredu mistoa eraikitzen ari da: geurean kooperatibak eta kanpoan enpresa kapitalistak. Atzerriko ezarpenak kooperatibak ez izateko arrazoiak ugariak badira ere (juridikoak, ekonomikoak, kulturalak...), «kapital enpresen izaera juridikoa duten filialak aukeratzen dira, Etxe nagusiaren kontrola ahalbidetzen dutelako»¹⁴⁰.

Erlatibismoa edo jarrera postmoderno

Beste batzuentzat zaila da gaur egun zentzu-oinarri komuna eraikitzea. Funtsean, kontua litzateke zentzua bere maila funtzionalean mantentzea. Hau da, enpresak behar dituen zentzu eta logika instrumentaletan (merkatu-efizientzian) bat etortzea denok. Beraz, egun Arrasateko kooperatibismoa kohesionatu eta oinarritu dezakeen «zentzu» nagusia (ia bakarra esango genuke) jarduera ekonomikoaren *zentzu objektibo* da: enpresa-errentagarritasuna eta eraginkortasuna.

Proposamen horren arrazoiak ugariak izan daitezke: etsipena, halabeharra edo uste osoa. Gutxieneko zentzu-komunitate horretaz gaindi, ezinezkoa da interpretazio-oinarri komun bat, are gutxiago gizarte-egitismo bat. Hori bai, posible litzateke nolabaiteko etika-irizpide batzuk erabiltzea, eta nolabaiteko balore-enklabeak sortzea. Betiere, irizpide etiko horiek zangotrabatzen ez badute arrazionaltasun instrumentala eta beroni atxikitako helburuak. Hau da, baldin eta arrazionaltasun instrumentalekiko funtzionalak badira, berau sendotuz eta blindatuz. Hortik aurrera ez da antzematen enpresa-jarduna esanahi-sistema global batean txertatzeko aukerarik, eta are gutxiago kooperatibismoaren iraganeko zentzu-eredu potolorik (Jainkoa, klasea eta nazioa kontzeptu «zombiak» dira).

Posizio baikorra edo triunfalista

Azken jarrera eta diskurtso hau, normala denez, zuzendaritza-lanetan jarduten dutenen artean nabarmentzen da. Horien ustez, Arrasateko kooperatibismoak lortutako arrakasta ekonomikoan erreparatu behar, eta beronek gizarteari egin dizkion eta egiten ari zaizkion ekarpenetan: nagusiki aberastasuna eta lanpostuak sortzea, nahiz eta lanpostu denak ez izan kooperatiboak. Horiek dira «benetako datuak». Gainera, enpresa-kultura berriak, eta kudeaketa-eredu parte-hartzaile berriek kooperatibismoari *arrazoi historikoa* eman diote.

Ikuspegi erabat baikorra dugu, eta krisirik onartzekotan, kooperatibismoaren zehaztapen juridiko tradizionala krisian egon daitekeela onartzen da; ez dago zentzu—edo identitate-krisirik. Guztiz kontrakoa: jarrera eta diskurtso horren arabera, inoiz baino kooperatibismo gehiago eta inoizko hobea egiten da. Kooperatibismoa gero

¹⁴⁰ Anjel Mari Errasti, *Kooperatiben garapena globalizazioaren garaian: nazioarteko hedapenaren politika sozioekonomikorako gakoak*, UPV-EHU, Donosita, 2005, 430. or.

eta gehiago definitzen baita partaidetzaren eta bizipenen arloan, ez zehaztaperen sozio-juridikoan edo antolamenduzkoan. Alderdi horiek (partaidetza, inplikazioa...) asko hobetu dira azken urteotan enpresaren antolaketa postayloristaren ondorioz. Izan ere, Arrasateko kooperatibetako batzuk Europan aitzindari eta gidari dira enpresa-eredu berriaren lurraldean (bikaitasunean nabarmendu diren kooperatibetako batzuk: Irizar, Copreci, Fagor Egoketa eta Euskadiko Kutxa).

9.2. Diskurtsoen toponimia

Gehiago afina daiteke. Sentsibilitate ugari osatzen dute kooperatibismoaren espazioa, irakurketa ezberdinak aurkitzen dira kooperatibismoaren egoerari buruz, baita etorkizunean eman beharreko erantzunei buruz ere. Bi denbora-ardatz horiek kontuan hartuta (gaurko egoera eta biharkoa), diskurtso-erregio ezberdinak bereiz daitezke, ikuskera ugari, eta saiatu gara euretako bakoitza izendatzen, leku diskurt-sibo bakoitzari bere izena jartzen:

KOOPERATIBISMOAREN GAURKO EGOERA	
Diskurtso-ildo hegemonikoa	Jarrera nagusiak
Galera	Inpotentea («ez dago zer eginik»)
	Erresistentea («koherentzia maila altuagoa lor daiteke, erabil dezagun ekintza-tarte hori»)
Baikortasuna	Baikorra («kooperatibak segitzen dute ezberdinak izaten eta, kontraesanak kontraesan, pista inportantea dira»)
	Triunfalista («sekula ez da horrenbeste kooperatibismorik praktikatu, ez eta hain kooperatibismo onik»)
Aurkakotasuna	Eszeptikoa («kooperatibak, funtsean, besteak bezalakoak dira»)
	Aurkakotasun militantea («lehen kooperatiba zelako aurka, orain kooperatiba ez delako»)

Etorkizuna irudikatzeneko moldeak bost lurraldetatik abiatzen direla irudi zaigu eta, lurralde horietatik abiatuta hainbat izan daitezke etorkizuneko eszenario posibleak:

Abiapuntua	Etorkizunak zer ekarriko du?
Galera-nostalgia	Galera
	Koherentzia maila altuagoa
Inpotentzia – Ezintasuna	Galera, homologazioa
Eszeptizismoa	Galera, homologazioa
Itxaropena - Berritasuna	Enpresa kultura berrira ekarritako kooperatibismoa (oinarri juridiko-sozietarioan oinarritzen ez den kooperatibismoa)
	Globalizazioaren desafio sozio-etikoei hobeto egokitutako kooperatibismoa (Alter-globalizazioaren lortzean jar daiteke Arrasateko kooperatibismoa)

9.3. *Bi hitz tradizionalismoaz eta diskurtso posmodernoaz*

Buelta gaitzen hasieran nabarmendu eta deskribatu ditudan hiru erantzun molde nagusietara: tradizionalismoa, erlatibismo posmoderno eta baikortasuna. Nago erantzun molde guztiek dutela egiaren bat, erantzun guztiek konponbide partzialen bat eskaintzen dutela. Hala ere, denek dituzte ahultasunak.

Lehenengo erantzunari buruz (tradicionalismoa) ohar labur bat dagoeneko esandakoari. Jarrera horrek, funtsean, kooperatibismo tradizionalaren postulatuak eta jardunbideez osatutako dikea eraiki nahi luke. Iraganean hazka egin, eta horrela, barne-barneko esentziak suntsitzeaz mehatxu egiten duen merkatu irekiaren aurrean paparra atera eta erresistentziarekin erantzun. Baina iraganak eta tradizioak etorkizuna eraikitzen balio beharko liguke, ez berau hipotekatzeko. Beste era batean esanda: gehiegizko tradizionalismoa auto-suntsitzaila da, guztiek ikusten dute hori, lehenagoko moldeen pisuak hondoratu baitezake barkua. Alabaina, egia da kooperatibareduak askoz gehiago eman dezakeela gaur ematen duena baino (behin-behineko langileen erabilera jaitsi, kooperatiba gehiago sortu, demokrazia hobetu, gizarte konpromisoak berri, etab.). Horregatik, printzipio tradizionalakiko koherentzia maila altuagoa bilatzen duen nerbioa behar-beharrezkoa da espazio kooperatiboan.

Bigarren erantzun ildoaren kontra gaude ia erabat (diskurtso postmoderno). Zentzuari maila funtzionalean eustea (zentzu instrumental hutsari eustea: «ipar ekonomikoak eta enpresa arrakastak lotzen gaitu») bere horretan zentzu maila boteretsua da, dudarik ez. Baina, era horretako postmodernismoak ez du eraikitzen. Paradig-

ma guztiak bazterten dituen egokitzapen guztietarako prestatzen da. Eta zentzu-baieztapen guztiak (ez instrumentalak) ukatzeko ere bai. Errealitateari era akritikoan egokitzeko prestatzen da. Posizio horrek autodeterminatutako ekintzaren aukera bera zapuzten du. Kontzienteki aukeratutako balioen arabera autogobernatzeko aukeraren ukazioa da. Posizio hori onartzeak pausu galanta bezain tristea ematea ekarriko liguke; alegia, subjektu kooperatiboaren heriotza onartzea, kooperatibismoa instrumentaltasun hutsari lotuko bailitzaioket modu kontzientean. Globalizazioari arima eta bihotza bilatzen ari zaizkion honetan, Arrasateko kooperatibismoak gaizki egingo luke bereak galtzen utziko balitu.

10. Kooperatibismo postaylorista iparra ote?

Hirugarren erantzuna, edo nerbio kulturala (diskurtso-jarrera triunfalista), etorkizunean garaile ateratzeko aukera gehien duena da (horretarako merkatu lehian gauzak ondo irten behar, jakina). Kooperatibek oinarritzko aldaketak bizi dituzten honetan, kooperatibismoaren berrirakurketa eta birdefinizioa monopolizatzea lor dezake.

Jarrera-diskurtso triunfalista deitu dugunak kooperatibaren gorputz gihartsu eta erakargarriaren bikaintasunak haiztzen ditu. Gorputz bikain hori, urteetan zehar egindako ariketaren eta pilatutako arrakastaren ondorioa da, baina, baita ere, postulatu postaylorista berrietara azkar iritsi eta berauetara arrakastaz egokitu izanaren ondorioa. Erakusteko moduko gorputz lirain, gihartsu eta erakargarria, finean. Eskukadaxoa dira Arrasateko Kooperatibismoak burututako ibilbidearen irakurketa baikorra egiteko euskarri eta datu objektiboak. Enpresa postayloristaren lengoia moralak, gainera, helduleku berriak eskaintzen ditu, eta kooperatibismoaren betiko baloreei nolabaiteko arrazoi historikoa aitortzen die. Ikuspegi baikorra, inondik ere.

Ikuspegi baikorrak gorputzaren azalari edo kanpo itxurari begiratzen dio. Termino ekonomikotan arrakastatsua da. Baina, beharbada gorputz horren osasun itxura onak ez digu ikusten uzten kooperatibismoaren anatomia barrutik sufritzen ari dela, identitatearen eta zentzuen barrualde sakonean hain zuzen. Litekeena da «Identitate kooperatiboaren eta Kalitate Osoaren» arteko ezkontzak ondokoa ikusteko aukerak mugatzea: sakoneko korrante indartsu batzuk suma daitezke, metatutako zentzu historikoaren ondarea suntsitzen ari direnak.

Bereziki belaunaldi berriei dagokienez, gorputz kooperatiboaren bihotzak ez dirudi taupadak antzinako indar eta bizitasunarekin ematen dituenik, eta ez dirudi beste garai bateko zentzu-fluxua eta integrazio sinbolikoa eragiten duenik. Baliteke kooperatibek arnasa sakonago hartzea *management* modernoaren eta enpresa postayloristaren izenean banatutako oxigeno maskara berriekin. Baina geure buruari galdetu beharko genioke ea formulazio horiek gai diren identitate propioa oinarritzeko (ezin ahaztu enpresa kapitalistatik datozen formulazioak direla), eta ea bokazio eraldatzaile baduten.

Arrakasta ekonomikoaren atzean, ezkutuan, isil-isilik eta ondo gordeta, aipatutako hori egon daiteke: AKERen legitimazio historikoaren, adostasun soziokulturalaren eta autodefinizioaren oinarriak pixkanaka desegiten egotea. Eta ez dirudi egun modan dauden formulazio berriek behar adinako indarra dutenik aipatutako desegite erlatiboa konpentsatzeko. Ikus dezagun.

10.1. Zenbait erreparo enpresa kultura berriaren itzal luzeari

Demagun balioen ardatz bat, gutxiagotik gehiagora doana:

- ardatzaren mutur batean, ekintza instrumental peto-petoa, hau da, zentzu eta balore euskarririk bakoa;
- bestean, zentzuz eta orientazioz betetako *aterpe kooperatiboa*. Aterpe horren oinarrian ondasunak sortzeko eta justizia irizpidez banatzearen aldeko konpromisoa legoke, gero eta autoeratuagoa den gizarte eta komunitate baten aldeko bidea eginez, boterearen demokratizazio hazkorra medio.

Mutur biak egoera idealak dira, eta beraz, nekez aurkituko ditugu errealitatean. Hala ere, bi muturren artean badira tarteko aukerak eta formulazioak. Horietako bat aipatutako enpresa postaylorista da. Aukera hau balore-ainguratzea lortzeko saiakera da, eta gai etikoa instrumentalizatzeko arriskua nabarmena da. Arrasateko kooperatibismoak bere egin nahi duen egitasmo eraldatzaileaz baino gehiago, nago *kosmetikaren* lurraldean koka dezakeela gogoeta morala. Marketing Con Causa (MCC) deritzan lurraldean.

Litekeena da enpresaren diskurtso berria kooperatiben mugimendua hezurramituko duen indar kultural berria izatea; hau da, Arrasateko kooperatibismoa oinarrituko duen «etika eta zentzu-eredu» berri nagusia. Horrela balitz, neurri handiko eraldaketaren aurrean geundeke, kulturaren alorrean gertatzen ariko litzatekeena: antzinako zentzu-eredua, Enpresa Kultura Berritik hurbilago dagoen beste eredu batek ordezkaturik litzateke.

Geure buruari galdetzen diogu ea aldaketa prozesu horrek trantsizio bat dakarren, kooperatibismo eredu batetik bestelako eredu baterakoa: *sakrifizio-etiketan* oinarritutako kooperatibismotik (kultura kristauan, tradizio sozialistan edo motibazio abertzalean oinarritutako inplikazio eredu), *minik bako altruismoan* oinarritutako nolabaiteko kooperatibismorantz. Minik bako altruismoa arruntagoa da gizarte postmoralistetan, lehenasuna indibidualismoak eta narrazio indibidualistek duten gizarteetan.

Enpresa-eredu berriaren babesleek borondate hori izan ala ez, diskurtso berriak enpresaren jarduna «etika utilitarista» batekin janzten du (edo *nagusiki* utilitarista den etikarekin). Etika horrek logika ekonomiko-instrumentalaren interesekiko funtzionala behar du izan, eta logika horren eskaerak betetzera da bideratua. Funtsean, etika hori enpresaren «zaintza funtzionalaz» arduratuko litzateke; hots, merkatu baldintzetara ondo egokitze beharrezkoa den lurralde kultural eta psikologikoa eskaintzeaz. Azken batean, *geruza sasimoral* berri batek estalitako ekintza instru-

mental hutsa. Gizarte-etika kooperatibistak sorreratik duen arrazionaltasun morala, intxaur-oskol batek ordezkatu dezake, kanpotik itxura oneko eta zapoetsukoa, baina hustuta barrutik.

Horrekin ez dugu esan nahi enpresa molde berriak ez duenik kontzeptu, jardunbide eta potentzialtasun interesgarriak. Baina oraindik ikusteko dago zein izango den bere bilakaera, zintzotasuna, inplementatzeko gaitasuna, indar lotzailea eta errealitatea eraldatzeko ahalmena. Gainera, ezin ahaztu kapitalismo neoliberalaren multinazional enblematikoeak (Enron, WorldCom, Adelphia, Arthur Andersen...) eta hainbat megakorporazio globalek (Nike, GAP, Adidas...) oso bestelakoa den aurpegi erakusten ari direla garaiotan. Ezin ahaztu horiek guztiek diskurtsoan formulazio etiko distiratsua erabiltzen dituztela, akatsik gabeak. Finean, ezin ahaztu edozein belar pila ez dela meta.

Garai paradoxikoak bizi ditugu. Sekula baino gehiago hitz egiten da Enpresen Gizarte Erantzukizunaz eta arduragabekeria barra-barra praktikatu. Horren adibide dira gaur gertatzen ari diren enpresen lekualdatze prozesuak, bulkada etiko ezaren paradigma borobilak. Halakoak eta beste batzuk ikusita, mesfidantza da nagusi. John Elkington gaurko korporazio globalen «kanibalismoaz» mintzo da: «Korporazio handiak sardexkak dituzten gizajaleak dira, kanibalak. Zibilizazio maila altuko erakundeak, mahaian sardexkak-eta dotoreziaz erabiltzeko gai direnak, baina, aldi berean, kanibalismoaren grinak eta jateko eta irensteko gogo asezinak bultzatuak»¹⁴¹. Bizi dugun aroan enpresak arazo ekologiko, humanitario eta sozialen erdigunean bizi dira, eta enpresa-etikarena *bluff* bat da kasu gehiegitxotan.

Edozein modutan, heldu diezaiogun ikuspegi baikorra. Argi dago egun baloreez eta enpresa-etikaz mintzatzea erabakigarria dela, puri-purian dagoela, oso modan ere bai. Eta hori bada zerbait. Horregatik, enpresa-jardueraren *ber-moralizazioaren* aldeko alde berri horrek, gure ustez, euskarri baliotsuak eskaini ditzake. *Kapitalismoa eraldatzeko benetako etika* baterako, eta *arrazionaltasun ekonomikoaren eraldatze etikoa* lortzeko abiapuntua izan daiteke¹⁴². Edo beste era batean esanda, «trapolin efektua» eragin dezake eta kooperatibak formulazio ausartagoetara hel daitezke bultzada hori aprobetxatuz (bere *humus* ideologikotik ernatuko diren formulazioetara). Kasurako, kudeaketa parte-hartzaileak, kooperatibak bere-berea duen enpresa-demokraziarantz ekartzea, hori litzateke desafio historikoa.

Horretarako, *management modernoa* erlijio berri gisa bizi duten mesias eta guru berriei adi entzun, entzundakoa kooperatiben autonomia kulturalaren eta berezko imaginarioaren galbahetik pasatu, eta, bidaiaren amaieran, bere oinarritzko intuizioetara ekarri (demokrazia, gizarte erantzukizuna eta justizia soziala). Hortik eraikiko dira, perfektuak ez, baina justuagoak, duinagoak eta demokratikoagoak diren lan— eta enpresa-esperientziak.

¹⁴¹ Tomás G. Perdiguero-k aipatua: *La responsabilidad social de las empresas en un mundo global*, Anagrama, 2003, 57. or.

¹⁴² Jesús Conill, «Marco ético-económico de la empresa moderna», in Adela Cortina, *Ética de la empresa. Claves para una nueva cultura empresarial*, Trotta, Madril, 2000, 51-74 or.

10.2. Arrasateko kooperatibismoa indibidualismoaren garaian: zentzu-eredu berriak

Indibidualismo sutsua da enpresa molde berriaren hondoan arnas daitekeen bizi-pena eta proposamena. MCCko buruzagi bati entzun genion egungo enpresak paktu berri bat dakarkigula. Enpresak zera diotso langileari: «jar ezazu hemen daukazu guztia, zure denbora, zure gogo, zure gaitasun intelektual eta emozionalak... Trukean promozio indibidualerako eta autoerrealizatzeko espazio bat eskainiko dizugu».

Gure tesiaren arabera, lehenagoko narratiba sozial-komunitarioak (nazioa, klasea...) gaur ahulagoak dira, eta ahuleziak utzitako hutsunean bestelako zentzu-moldeak loratzen ari dira: kooperatibismoak aliantza sendoak proposatzen ditu autoerrealizazioarekin, proiektu profesional indibiduala garatzeko gogoarekin. Bestelako «homiliarik» onartzeko disposizio pertsonalak ez dira lehengoak. Proiektu indibiduala inbaditu dezaketen kontzeptu lodiak ez daude modan.

Baloreak inplementatzeko zaku bete teknika eta erreminta sortu dira enpresaren munduan. «Aholkularitza etikoak» kasurako. Beste askoren artean, *coaching* eta gisako teknika erdi psikologikoak erabiltzen dira gaur, baita Arrasateko kooperatibismoan ere. Hitz gutxitan esanda, *coaching*-aren bidez elkarrizketarako gaitasunak lantzen dira. Solasaldirako espazioak sortu eta norberak dituen uste eta jarreraren gaineko autoanalisi eta introspekzio lana burutzen da, eta berauek aldatzeko aukerak izango omen ditu norbanakoak. Klima emozionala eta afektuak aztergai bihurtu dira enpresaren munduan. Norbere burua zaintzeko joera bat aurki daiteke, barruak aztertzekoa. «Ametsak egia nola bihurtu» goiburua jarri zioten *Argia* aldizkariak *coachingari* buruz eginiko erreportajeari. Ametsak, jakina, indibidualak dira, ez gara amets kolektiboez ari.

Merezi du aipatu baloreen tratamenduari buruz (*coachingari* buruz nagusiki, baina bestelako teknikei buruz ere bai) zenbait hari-mutur azpimarratzea. Intuitiboki jardungo dugu, eta tonu kritikoa erabiliko dugu azterketa xume honetan, betiere jakinik teknika guztiak ez direla jite berekoak, teknika horien erabilerak ezberdinak izan daitezkeela, eta abar. Aipa ditzagun hari-muturrok:

- Batetik, aipatzekoa da teknika horiek goi mailako kudeatzaileek darabiltzatela (guk dakigula ez zaizkio luzatu kooperatibisten base sozialari).
- Aipatzekoa, baita ere, zein azkar eta indartsu hedatzen ari diren. Zer adierazten du horrek? Azkartasun horrek introspekzio beharra adieraz dezake, zentzu hutsunea betetzeko nahia, edo norbere bizitza eta eguneroko jokabidea zenbait baloreekiko koherentzian ikusteko nahia, edo laneko eskakizun handiek autolaguntzarako eta elkar-laguntzarako sareak sortzera behartu duela jendea (lanaren espazioan integratutako terapia moduko batzuk sortzen ariko balira bezala)... Edo dena batera.
- Terapia molde bigunak sartzten ari dira enpresaren munduan. Zergatik? Intuitiboki ari bagara ere, begitantzen zaigu gaurko enpresa ereduarekin zerikusi zuzena duela horrek. Gaur buru-belarri eta bihotz-arima jardun beharra dago,

enpresan inbertituz intelektua, emozioak, nortasuna, ilusioa, gaitasun sortzailea eta gainontzeko ezaugarri intimoak. Lekutan, ezer pentsatu ez, soilik exekutatzeko eskatzen zitzaion langile mekanikoaren irudia. Ondorioz, ezagunak dira gaurko enpresak sorzen dituen tentsio emozionalak eta eragiten duen higadura psikikoa; Sennetek *karakterraren korrosioa* deitu dio horri. «Lan-indarraren erreproduktzioarako» bideak (zilegi bekigu hizkuntza-hondar marxistaren bat), hots, lanerako gaitasunen berregite etengabea ziurtatzeko mekanismoak, ez dira lehengoak, gaur tentsio indibidual eta psikologikoen areagotzea kudeatzeko efikazak diren teknikak behar baitira.

- Dena delakoarekin, bizitzaren aspektu intimoak eta pertsonalak lan munduan txertatuak dira, bertan aztertuak eta tratatuak. Enpresaren eta bizitza pertsonalaren arteko mugak ez dira dagoeneko batere garbi agertzen, eta enpresak badu «instituzio totalaren» antz gero eta handiagoa.
- Baloreen tratamenduaren abiapuntua ez da kooperatibismoa eta bere pentsamendu-sistema. AEBetan erditu eta azken hiru urteotan Europatik hedatzen ari den tendentzia honek baloreen auziari modu orokor batean heltzen dio, gehienetan kanpotik ekarritako aholkularitzek gidatzen dutelarik prozesua.
- Garrantzitsua iruditzen zaigu baloreen trataerari erreparatzea, izan ere, proposatzen dena bezain garrantzitsua da proposatzen ez dena. Baloreen trataera jakin bat burutzen da: maila mikroko egoerak aztertzen dira, egunerokotasunean sortzen diren gatazka intra- edo inter-pertsonalak, eta ez da mundu edo gizarte problematikarik azalduko, ez behintzat indar berarekin. Eguneroko jarrerak eta baloreak aldatu nahi dira, eta hor aurkitzen dugu gaurko garaiak duen kontraesanetako bat: globalizazio garaian arrisku globalak agertu zaizkigu, eta, aldi berean, biltze indibidualista baten aurrean gaude, plano indibiduallean konpondu behar baitira zenbait kontraesan sistemiko. Aipagai ditugun teknike-tan, maila makroko kontzientzia hartzerik ez ei da (sendo) planteatzen.
- Horregatik, kontakizun sozialik gabeko pertsonalitate postmodernoak behar duen balore-formularen aurrean gaudela ematen du, funtsean indibidualismoa oinarri eta efikazia helburu duten formulen aurrean. Helburua, batez ere norbere egoera indibiduala hobetzea, lan-taldearen eta erakundearen egoera hobetu dadin. «Irabazleentzako gida» moduko bat dirudi.
- Horrek eramaten gaitu pentsatzera Arrasateko kooperatibismoaren kasuan litekeena dela narrazio sozialaren mutazio indibidualista eta pragmatiko baten aurrean egotea. Narrazio kolektibo barik, autokontzientzia tresna bilakatzen da, efikaziaren zerbitzura dagoen erreminta, eta norbere bizitza arte-lan bihurtzeko tentaldi. Testuinguru kultural, sozial, ekonomiko eta globalik gabe, edo berauek bere adierazpide minimora murriztuta egonik, prozedura linguistikoa eta psikotekniko horien bidez lengoia moral berriak sortzen ari dira, etika komunitario batean baino gehiago, indibidualismoaren lurraldean kokatzen direnak.
- Finean, baloreak aztertu eta implementatzeko teknika zehatz horiek (nagusiki) funtzionalak dira (horixe beharbada bere arrakastaren gakoak). Nagusiki teknika horien zenbait bertsioekin gertatzen da hori (beste bertsio batzuetan disfuntzionaltasunak sortzeko ahalmena ikus daiteke). Hots, ez dute zertan

kontraesan kolektibo eraikitzaileak sortu, ez eta tentsio sortzaileak, errealtatearen zenbait plano gogoetatik kanpo gera baitaitezke edo behar besteko garrantzirik eman gabe: praxia eta ideologia kooperatibistaren arteko kontraesanak, talde-norabideari buruzko gogoetak, gizartea positiboki aldatzeko egitasmoari buruzkoak, auto-eraketaren paradigma zabalari egin nahi zaion ekarpena, demokrazian nola sakondu... Hori dela eta, teknokraziarentzat eroso den baloreen inplementazio eredu baten aurrean egon gaitezke (erabilek erabilera, bertsioak bertsio), teknokraziaren interesekiko funtzionala, ez baitu ukitu beharrik mingarriak izan daitezkeen kontuak (kooperatibagintzak gaur bizi dituen arazo eta kontraesanak), eta giza kapitalaren aprobetxamendu hobea egingo da (laneko egoera indibiduala hobetuz, laneko errendimendua hobetuko da). Akaso horregatik, besteak beste, sekulako hedapena gertatu da oso epe laburrean. Enpresa inguru afektibo bezala definitu den honetan, afektuak (komunikazio interpersonala, baloreak, egitasmo indibidualak...) tratatu beharreko gai bihurtu dira.

Lipovetsky-k gure aroari «aro hutsala» deitu dio (*la era del vacío*). Indibidualismoa eta pribazitatea gailendu dira, eta bere ustean zentzu hutsune bizi dugu, baina tragediarik ez dakarren zentzu hutsunea. Izan ere, «aukeraketa pribatuena» aro askatzailea bizi dugu. Garrantzitsuena «norbera izatea da». Garrantzitsuena indibidua da, eta beronek askea izateko eta autoerrealizatzeko duen eskubidea¹⁴³. Proiektu indibiduala da zentzu-ipar berria.

Aprobetxa dezagun Lipovetskyren gogoeta hori zentzu-krisiaren hipotesia zertxobait ñabartzeko. Izan ere, zenbait sektoretan zaila da zentzu-krisirik aurkitzea, nabaria baita motibazio indibidualetatik edaten dutela askok eta autogarapenaren lurraldean aurkitzen dutela motibazio osagai garrantzitsua. Horrek motibazio-indar garrantzitsua suposa lezake norbere barrualdean. Baina gehiago dago: ekinbide ekonomikoaren zentzu objektiboak (arrakasta ekonomikoak) ondo funtzionatzen duen bitartean zaila da deskalabro sinbolikorik gertatzea, gutxieneko zentzu osagai hori amortiguaziorako koltxoi sendoa baita. Zentzu krisi bat gerta dadin ondoko baldintza beharko litzateke: zentzu-komunitate absolutu bat osatu nahi edo beharko genuke (arrakasta ekonomikotik haratagoko zentzu-gorputz goren batek lotu beharko gintuzke), baina ezin dugu.

Buelta gaitezen gaurko testuinguru soziokulturalean indibidualismoak duen garrantzira. Jean-Paul Fitoussi eta Pierre Rosanvallon-en iritzian, indibidualismo modernoa anibalantea da oso: «Es, al mismo tiempo, un vector de emancipación de los individuos, que potencia su autonomía y les convierte en sujetos de derechos, y un factor de creciente inseguridad, que hace a todos responsables del futuro y les obliga a dar a su vida un sentido que ya no está prefigurado por nada externo»¹⁴⁴.

¹⁴³ Gilles Lipovetsky, *La era del vacío. Ensayos sobre el individualismo contemporáneo*, Anagrama, 1986.

¹⁴⁴ Jean-Paul Fitoussi eta Pierre Rosanvallon, *Le nouvel âge des inégalités*, Paris, Seuil, 32 or. Zygmunt Baumanen ondoko lanetik hartu dugu aipua: *Comunidad. En busca de seguridad en un mundo hostil*, Siglo XXI, 2003, 30 or.

Komunitaterik gabeko garaiak bizi ditugu, edo komunitate ahuleko garaiak nahia-go bada. 1960an Maurice R. Stein-ek ondoko hitzak jaurti zituen: «Los lazos comunitarios se hacen cada vez más prescindibles (...). Las lealtades personales disminuyen su alcance a través del sucesivo debilitamiento de los lazos nacionales, los lazos regionales, los lazos comunitarios, los lazos con el vecindario, los lazos familiares y, finalmente, los lazos con una imagen coherente de la propia identidad»¹⁴⁵.

Gaurko profesionalak, batez ere enpresetako goi karguek (kooperatibistez ere ari gara), autonomia pertsonalerako eta garapen profesional indibidualerako tarte handiagoa gura dute; euren mugimendu askatasunari traba gutxi jartzea. Hori bermatu ezik, komunitatearekiko independentzia eskatzen dute; esaterako, berrikuntzarako ahalmena garatzeko traba izan daiteke demokrazia; pizgarri indibidualak nahi dituen pertsonarentzat logika igualitaristak ere traba dira; sormen indibiduala eta enprentzaia bezalako kontzeptuak gatazkan sartzen dira kooperatiben logika komunitaristekin. Hori da kultura indibidualistago baten funtsa. Ez dugu esan gura jarrera hau mundu kooperatiboan instalatu denik, ezpada jarrera eta mentalitate hori hazkorra izan daitekeela, nagusiki zenbait gazteren esperientzian eta espektatibetan (aurreko diskurtso kulturalen iturritik edan ez dutenak), eta goi mailako kooperatibisten kasuan (kooperatibismoaren globalizazioarekin batera bizi-esperientzia globalizatu dutenak, munduko zoko ezberdinetara mugitzen direnak egunero, eta bizitzaren parte handi bat aireportuetan ematen dituztenak).

Funtsean, kooperatibetan *zentzu modalitateen trantsizio historikoa* gertatzen ari da. Trantsizio historiko honek kooperatibismoa *motibazio publiko-politikoetatik motibazio pribatu-indibiduala*etara darama. Edo hobeto esanda, azken motibazio horiek indartze bidean daude. Gizartea eraldatzearen aldeko proiektu batetik autoeraikuntza indibiduala helburu nagusi duen inplikazio paradigmara. Subjektu kooperatibistaren ohiko zentzu sozialen tokian, norbanako ugariren zentzu-bilatze indibiduala eta indibidualista. Zentzu-eredu berri hori Arrasateko kulturaren txoko intimoetan sartzen ari dela irudi zaigu, zuzendaritza lanetan dihardutenen kontzientzian habia egiten ari dela. Seguruenera gertakari iraunkor baten aurrean gaude, kooperatibisten kontzientzietan kosk egin eta geratzeko etorri den fenomenoaren aurrean.

Aipatzen ari garenak, irakurketa positiboa eginez, ondokoa froga dezake: kooperatibismoak badaki bat egiten bizi dugun garai postmodernoan urgaineratzen ari diren zentzu eta inplikazio eredu berrieekin; badaki bat egiten autoerrealizazioaren lengoaiarekin. Ikuspegi baikor horretatik Arrasateko kooperatibismoaren indar erakustaldi baten aurrean gaude: jendeak aurki dezake enpresa kooperatiboan (enpresa kapitalistan baino errazago, zenbait inkestak diotenaren arabera) gaur hain inportantea dena, hots, garapen indibidualerako eremu bat, sustapen eta autoerrealizazio profesionalerako baldintza onak. Ez da gutxi. Galdera da: non geratzen da gizartea aldatzeko eta hobetzeko kooperatibismoaren berezko egitasmoa? Non proiektu kolektiboa? Gizartea eraldatzearen aldeko konpromisoaren higadura ikusten ari ote

¹⁴⁵ Maurice R. Stein, *The Eclipse of Community: an Interpretation of American Studies*, bigarren edizioa, New York, Harper and Row, 329 or. Aipu hori ere Baumanen lanetik jaso dugu, *ibidem*, 59 or.

gara? Biltze indibidualista ote da mundu global batean kokatzeko modu egokia? Eta azkenik, eta inportantea: sostenga ote daiteke enpresa-egitasmo eraginkor bat indibidualismoaren soro kulturallean?

Ez dugu uste teknika eta diskurtso kultural berriek balio ez dutenik, edo berez kaltegarriak direnik (berriro esango dugu bertsioak eta bertsioak daudela). Ez da hori esan gura duguna. Ez da gutxi enpresan komunikaziorako tarreak sortu izana (*coaching* edo bestelako tekniken bidez), berauek nagusiki maila mikroko edukiz eta introspekzio psikikorako baliabidez jantzita badatoz ere (ahaztu barik introspekzio ariketa hutsa positiboa izan daitekeela, horrek lan-harremanak humanizatzen lagundu baitezake eta egoera indibidualak hobetzen). Solasaldirako espazio horiek, elkarrizketa moral eta etiko zabalagorako atarikoak izan daitezke; eztabaida kooperatibista zabalagoekin osa daitezke. Bidegurutze horretan legoke puntu interesgarria; hots, maila mikroko auziak aro globalak eskatzen dituen makro-eztabaidekin uztartzeko aukera.

11. XXI. menderako Euskal Kooperatibismoa: efikaziari zentzua, zentzuei efikazia

11.1. *Nortasuna berritu ikuspuntu autonomotik*

Enpresa postayloristaren postulatuaren bitartez, kudeaketaren tendentzietan buru izango den kooperatibismoa eraiki daiteke. Eredu hori, baina, oso ahula da norbere burua *egitasmo sozietal* batean ulertzeko, eta ikuskera kooperatibista eta autoeratzaille sakonagoan. Bide horretatik bakarrik, kooperatibismoak aukera galduko luke bere burua giza-komunitateen autoeraketa- eta autogobernu-paradigma zabalago batean kokatzeko. Horregatik, XXI. mendeko kooperatibismoarentzat, kultura eta enpresa-kudeaketa berriak norbere egitea baino gehiago, edo berauen igurtzia sentitzearekin batera, beharrezkoa da *ikuskera eraberritu* bat lantzea. *Ikuskera beregaina, autonomia, eta identitatea sakon berritzea.*

AKEk, eta esperientzia sozioekonomiko alternatiboak eraiki nahi dituzten ekonomia sozialeko eragile ezberdinek sakoneko *hausnarketa kolektiboa* egin behar dute. Nortasun kolektibo propioa zein jardunbide bereizgarritzat osatzen den erabaki behar dute. Hots, zeintzuk dira gaur jarduteko bide edo esparru bereizgarri horiek? Kooperatibistek atzera erantzun behar dituzte oinarritzko zenbait galdera: «nortzuk gara», «nortzuk ez gara», «zer ekarpen egin nahi dugu», «zer egin ahal dugu», «zer da guran aldatu gura ez duguna». Beharrezkoa da galdetzea ea zein den kooperatibek euren buruaz duten ideia eta zer ekarpen egin nahi duten bizi dugun *aro-aldaketaren* aurrean. Azken batean, kooperatibismoak esan beharko du zein den bere autodefinizioa eta autoerrepresentazioa, genesi garaiarekin konparatuz oso ezberdina den garai historiko honetan. *Etorkizun-ikuspegi* eraberritua sortu behar da. Berta Chulvik antzeko bidea proposatzen du:

El cooperativismo solo podrá encontrar criterios claros de actuación, que le permitan presentar a la sociedad un mensaje rico e interesante, y relacionarse sin inseguridades con el resto de agentes sociales, si se inicia un debate en profundidad sobre cómo una sociedad organizada sobre la base de la cooperación y no de la competencia podría hacer más felices a los hombres y mujeres. En resumen, sólo si el cooperativismo hace valer sus propias ideas sobre el modelo de sociedad que defiende es posible estructurar todas las relaciones con los demás agentes sociales. Además, sólo si el cooperativismo sabe lo que quiere podrá darse cuenta de la cantidad de cosas que tiene en común con otra gente que actúa en su entorno inmediato defendiendo los mismos ideales y con la que es muy interesante colaborar. Aunque el debate es complejo y largo, las preguntas para iniciarlo son muy sencillas: ¿Qué significa ser una cooperativa? ¿Qué es necesario cambiar en esta Sociedad? ¿Cómo pueden las cooperativas, individual y colectivamente, contribuir a ese cambio?¹⁴⁶

Kanpotik iristen diren formulazioen egokitze akritikoa egin beharrea, kooperatibaren tresna analitiko eta kontzeptualak mugiarazi behar dira. Kooperatibaren nortasunaren gaineko eztabaida ireki beharra dago, Arrasateko kooperatibismoaren *autonomia kulturaletik* abiatuko dena, eta euskal esperientzia sozioekonomikoa sostengatzen duen pentsaera komunitarista propiotik. Bestelako erreferentzia kultural batzuk integratzen jakinez, noski. Baina kulturalki nagusi diren eta mundu arrotzetatik datozen proposamenek asimilatuak izan barik.

Zilegi bekigu galdetzea Arrasateko kooperatibisten emozioen mapan gaur sumindurarik ba ote dagoen. Izan ere, horixe da arriskurik handienetakoa: ikuspegi kritikoa (eta autokritikoa) galtzea, munduari eta norberari buruzko irakurketa autokonplazientearen altzoan goxo instalatzea, erosotasunean habia eginez. Hots, bultzada etikoa indargabetzea, izaera bihoztuna abandonatzea arrakastaren etorbidearen kale-kantoiaren batean. Munduaren bidegabekeriek sortutako sumindura morala kooperatibismoaren motorra izan da, bere hausnarketaren, konpromisoaren eta mobilizazioaren motorra. Agnes Heller-ek zioen gizadiaren arazoetan inplikatzera garamatzan sentimendua errekuiperatu behar dela, eta sentimendu hori *mina* dela¹⁴⁷. Bada, bihozminaren esperientzia eta bulkada etikoa da kooperatibismoak motxilan behar duen elikagai ezinbestekoa bere ibilbide berrian, horrek autodefinitzea ahalbidetzen baitu. Cioranek zera zioen (*Ese maldito yo*): «Todo lo que nos incomoda nos permite definirnos. Sin indisposiciones no hay identidad. Ventura y desventura de un organismo consciente».

Errealitatearen analisi kritikoa Arrasateko kooperatibismoaren jaiotzaren oinarrian bertan dago. Baina ez balego ere, aipatutako analisisia oinarritzakoa eta beharrezkoa da edozein gizarte-eragilerentzat, ahalik eta modu kontziente eta autonomoenean kokatzea gura badu behinik behin. Are beharrezkoagoa gurea bezalako sakoneko al-daketa historikoen garaietan.

Etorkizunean AKE sentsibilitate- eta zentzu-eredu ezberdinek osatuko dute. Beti izan da horrela. Kooperatibismoa espazio plural eta anitza da, eta hala behar du.

¹⁴⁶ Berta Chulvi, *op.cit.*

¹⁴⁷ Agnes Heller, *Teoría de los sentimientos*, Fontamara, Bartzelona, 1985 (3. edizioa).

Pluraltasun horretan eraiki beharko dira konparti daitezkeen minimo komunak. Aipatutako jarrera eta diskurtsoez gain (tradizionalista, triunfalista...) badira beste taupada batzuk. Euretako batek (bir)formulatze sakona eskatzen du, belaunaldi berrien energia eraldatzaileei lotutako nortasuna mamitzea. Etorkizuneko nerbioa izan daiteke, eratzten ari dena, antzinako zentzuekin lotura duena eta egungo eta etorkizuneko arazoei so dagoena. Belaunaldi berri baten sentsibilitate berria. Garrantzitsua da bulzada horri lekua uztea, AKE era bikainean elika baitezake.

Izan ere, belaunaldi-aldaketa guztiak dira garrantzitsuak, baina oraindik garrantzitsuagoa da errelebo hori aldaketa soziohistoriko sakonekin batera datorrenean: belaunaldi berri batek mundu ezberdina taxutzen du eta, aldi berean, mundu horrek belaunaldi berriak taxutzen ditu. Sentsibilitate berri horrek gizarte ikuspegi zehatz batean jarri gura ditu oinak; alegia, komunitatea (gizarte zibilaren autoantolaketa) indartzearen beharra errekeruperatuko duen ikuspegian. Eta bi jokabide arriskutsu salatzten ditu:

- batetik, kooperatibaren tradizionalismoari (tradizioan ixteak ez baitu etorkizunik) eta postmodernismoari darien ezkortasuna eta baita fatalismoa ere;
- bestetik, enpresa-moda berriaren zati handi bati darion oportunitate pragmatikoa eta etikaren instrumentalizazioa.

Sentsibilitate berri horrentzat, Arrasateko kooperatibismoa birpentsatu eta berregingin beharra dago, sakon egin ere, garai historiko berriaren desafio etikoei erantzungo dieten zentzu berriak eraikiz. Kontua ez da antzinako kooperatibismoaren zentzuak eta moldeak berpiztea, baizik eta, egungo baldintza historiko berrietan, kooperatibismoaren balio unibertsalei eta AKERen oinarritzko pentsamenduari zehaztapen berria bilatzea.

Beharrezkoa da dramaturgia berria eraikitzea: eszenatokia aldatu da, eta baita ikusleak eta antzezleak ere. Ondorioz, gidoi berria behar. Gidoi horrek gai izan behar du kooperatibismoa gaurko munduarekin egoki lotzeko. Horretarako, globalizatutako modernitate kapitalistaren eta bere arazoaren irakurketa eguneratua behar du.

11.2. Jokaleku historiko berri batean kokatu behar. Begiratu laburra gaurko munduari

Zinez konplexua da egungo munduaren nondik norakoak argitzea. Baina badirudi gaurko munduaren izaera hitz batek aski ondo harrapa dezakeela: globalizazioa. Globalizazio desordenatuaren aurrean, mundu eta merkatu globalizatu zuzentzea, egoki arautzea, premiazko desafioa da. Izan ere, badirudi kapitalismo globalizatuak galdu egin duela, edo baztertu, edozein arautze etiko, erlijioso, familiarazko, ekologiko, sozial edo politiko. Bere ibilbide historikoan, lehenik eta behin gizarte tradizionaletako araez askatu zen. Eta duela gutxi, estatu-nazioaren markoan nolabaiteko eraginkortasunez jardun dutenak ere gaitetik kendu ditu (langileen eskubideak, Ongizatearen Estatuaren logika sozialak...).

Hans Küng teologo eta ikertzailearen iritziz, mundu mailako ekonomia zeharo independizatu da¹⁴⁸. Egun ez da berau eraginkortasunez kontrolatzeko gai den mundu mailako politikarik. Zalantzan jartzen ari da politikak ekonomiarekiko duen lehentasuna, eta aldi berean, etikak ekonomiarekiko eta politikarekiko duena. Halako joeren ondorioz, etorkizuna etengabeko aurrerabidean eta progresoan irudikatzen zuen amets ilustratuak puntuak galdu ditu. Arrisku bizipenak dira gaurkoak.

Pentsaera aurrerakoiak berak ere, beste modu batean begiratzen dio modernitateari. Funtsean begiratu anbibalentea izan da beti berea, baina luzaroan aukera ugari eskaintzen zuen garai historikotzat izan du modernitatea. Ostera, egun pentsamendu aurrerakoiak modernitatearen alde ilunetara zuzentzen du begiratu. J.J. Brunnerren hitzetan: «...begirada eta sentsibilitate aurrerakoiek aditzera ematen dute orain, lehenbiziko aldiz, beldurra diotela modernitateari. Sozialista utopiko eta zientifikoan edo sozialdemokraten lehengo baikortasunaren ondoren ezkortasuna agerikoa da. Hazkuntza, ezkortasun horren argitan, ezinegonen iturria da orain, eta iraultza teknologikoa kulturarentzako mehatxua.»¹⁴⁹

Eskuin politikoa ordena tradizionala defendatzearen aldekoa izan da historian zehar, eta ezkerre, aldaketaren eta progresoarean aldekoa. Hobsbawn-ek dioskun moduan, gauzak aldatzen ari dira, nagusiki XX. mendeko azken hiru hamarkadetatik aurrera¹⁵⁰. Ekologismoak, esaterako, aldaketa ekonomiko eta teknologikoei altoa eman nahi die, edo bederen berauek kontrolpean jarri. Gauza bera ongizatearen estatuari dagokionean, beroni kosta ahala kosta eutsi gura baitzaio. Pentsamendu aurrerakoiak *statu quo*ari eutsi gura dio gaur, «kontserbadorea» bilakatu da, nolabaiteko beldurra baitio datorkigunari.

Izan ere, XX. mendeak modernitatearen alde ilunak erakutsi dizkigu (bi mundu gerrak, totalitarismoak...). Izan gaitzkeenaren neurria erakutsi digu, eta ondorioz, giro intelektualean mesfidantza sakona sortu da egitasmo ilustratuarekiko, baita behiala baikortasunez blai bizi ziren askorengan ere. Woody Allenek esan omen du interesa duela etorkizunean, bizitzeko geratzen zaiona bertan emango duelako. Nago barruan ahots bat instalatu zaigula, interesa baino gehiago etorkizunarekiko mesfidantza agertzen duena.

Badirudi inoiz baino beharrezkoagoa dela gizakiaren eta gizartearen dimentsio aniztasuna aldarrikatzea. Badirudi beharrezkoa dela merkatuak taxutu duen «dimentsio bakarrekiko gizakiari» (Marcuse) aurre egitea eta hortzak behar bezala erakustea gizartea instrumentaltasunaren eta erabateko pragmatismoaren menpe jartzeko ahalginiari. Merkatuari eta ekonomiari beren lekua bilatu behar zaie, ez gehiago ez gutxiago.

¹⁴⁸ Hans Küng, *Una ética mundial para la economía y la política*, Trotta, 1999, 225. or.

¹⁴⁹ Brunner, «Apuntes sobre el malestar frente a la Modernidad: ¿transfiguración neo-conservadora del pensamiento progresista?»; http://www.geocities.com/brunner_cl/listado.html.

¹⁵⁰ Eric J. Hobsbawn, *Entrevista sobre el siglo XXI*, Crítica, 2000, 116-119 or.

Xabier Leteren hitzak aspaldikoak dira: «diru zakarrak bihotzik ez du», «lotuko dugu gogor eta estu, haz ez dedin gizonen gain» (*Izarren hautsa*). Izan ere, arrazionaltasun tekniko, ekonomiko eta instrumentalaren erreinuan gizakumeon bestelako dimentsioak ahaztu ditugu. Komunikazio sinbolikoa sortzen deneko mundua zaindu beharra dugu. Zentzu eta balio kolektiboak ekoiztu, transmititu eta sozializatzen dituzten gizarte-bizitzaren arloak babestu behar ditugu. Instrumentaltasun hutsak bihotzak izozten ditu, diruaren hotsa besterik entzuten ez denean hotzak hartzen baikaitu. Inoiz ez dago soberan Habermasen aholkua gogoratzea:

Mugak jarri behar zaizkie ekonomiaren eta administrazio publikoaren diru eta botere zirkuituei, eta, aldi berean, zirkuitu horiek bizitza pribatutik eta espazio publiko libretik bereiztu behar dira, hots, komunikazioaren bidez egituratu diren ekintza-eremuetatik. Bestela, bizitzaren mundua, berari arrotzak zaizkion arrazionaltasun ekonomiko eta burokratikoak inbadituko dute gero eta modu nabarmenagoan.¹⁵¹

Askok sinistu izan dute estatuak duen ahalmenean bizitza molde emantzipatuak gauzatzeko. Pentsamendu aurrerakoi eta kritikoaren zati garrantzitsua kokatu da parametro horietan. Baina agerian geratu da administrazioak dituen mugak. Bere logika burokratikoarekin, elkartasun moldeak desagerrarazi dituen indar historikoa izan da, sare sozial naturalak desegiteko joera agertzen du, sozietate zibilarren ahalguneak higatzeko tendentzia du, eta herriaren indarra makaltzen du. Bide hori ere, administrazio publikoarena alegia, logika instrumentalaren hedapenerako bide zuzena izan da, eta kultura indibidualistaren euskarrietako bat. Bitarteko administratiboek euren mugak agertu dituzte. Amets estatalistaren bizioak agerian geratu dira. Eta estrategia eraldatzaile horretan inbertsio ideologiko osoa egin dutenek badute zer pentsatu:

Estatuaren boterearen logika sistemiko berariazkoak ustekabeen harrapatu zuen sozialdemokrazia. Sozialdemokraziak tresna neutral gisa hartu nahi izan zuen estatuaren boterea, eskubideak jende guzti-guztiari ziurtatzeko, hau da, estatu soziala sortzeko. Baina ameskeria zela ikusi da; ez estatu soziala bera, baizik eta bide administratiboek bidez bizitza-modu libreak abiarazi nahi izatea.¹⁵²

Emantzipazioa, lortzekotan, ez da dekretu publikoz lortuko. Estatu sozialak gizarte arazoak konpondu nahi izan ditu, baina, aitortu beharreko lorpen garrantzitsuekin batera (*publikotasunaren zibilizazioak* ekarri dituen onura ezagunak, eta zaindu beharrekoak), arrazionaltasun formalaren hedatze hazkorra eragin du. Bizitzaren munduaren eta mundu komunitarioaren ahitzea eragin du. Kontuan izan behar luke apunte hori logika herritar eta autoeratzzaileak ahultzen dituen ekintza publikoak, eta bestelako orekak bilatzen saiatu, publikotasunaren nozioa logika administratibotik haratago irekiz. Euskal Herrian badugu logika komunitario eta autoeratzzaileen berri. Igual betikoagatik, igual estaturik gabeko nazioen zerrendan gaudelako. Administrazio publiko moderno propiorik ez —edo berau ahula edo subordinatua izan—

¹⁵¹ J. Habermas, *La necesidad de revisión de la izquierda*, Tecnos, Madril, 1996, 135. or.

¹⁵² Jürgen Habermas, «¿Qué significa hoy socialismo? Revolución recuperadora y necesidad de revisión de la izquierda», ondoko liburuan: Blackburn (ed.), *Después de la caída. El fracaso del comunismo y el futuro del socialismo*, Crítica, Bartzelona, 1993.

eta geure nortasunaren biziraupena logika autoeratzaillearen potentziaren menpe utzi behar izan dugulako.

Arrazoiak edozein direla, Euskal Herriak aspalditik garatu dituen estrategiak (hezkuntzan, kulturaren, enpresaren munduan...) gaur hainbatek aldarrikatzen ditu. Tartean, zelan ez, pentsamendu komunitaristak. Gaur erruz hitz egiten da merkatuaren, estatuaren eta komunitatearen artean oreka berria lortzeko premia. Hau da, komunitatea eta herri ekimena indartu beharraz.

Arrazionaltasun ekonomikoa bera inoiz ez da arazo izan (arrazionaltasun publiko-administratiboa izan ez den modu berean). Arrasateko kooperatibismoak betidanik jakin izan du hori. Bere desarautzea eta mugarik bako hedapena izan dira mundu gero eta arriskutsuagoa ekarri dutenak. Modernitate kapitalistaren arazoa betikoa da: arrazionaltasun ekonomikoaren mugak seinatzea. M. Walzerrekin bat gatoz: «Azokako etika azokarako dago ongi. Azoka hiriaren parte bat da, ez hiri osoa»¹⁵³. Logika publiko-administratiboaz antzekoa esan daiteke: berau logika autoeratzailleekin batera joan beharko litzateke, ez berauen kontra.

Ez dirudi gaur gure arazoen inguruan erantzun baikor ugaririk dugunik, ez eremu intelektualean ez kale kontzientzian. Gizakiok geure eskuetan sekulako boterea eskuratu dugun honetan, autosuntsipenaren aukerak sekula baino handiagoak dira. Eta ematen du ez dugula norabide garbirik. Modernitatearen ohiko kontzeptu eta orientabideek indarra galdu dute: progresoa, garapena, askapena, hazkuntza, hezkuntza, akumulazioa, hobekuntza, ilustrazioa, abangoardia... Badirudi kontzeptuok galdu dutela garai batean zuten erakarren indarra. Atzera egin dute ekintza kolektiboak oinarritzeko funtzioan.

Gaur gure eskuetan metatu dugun boterearen beldur gara. Geure buruaren beldur, geure espeziearen beldur. Zaila da planeta honi begiratu bat ematea hotzikararik sentitu gabe, bihoztu gabe. Ez da beharrezkoa koordenada ideologiko iraultzaileetan kokatzea horretarako. Kasurako, Jacques Delorsek eta bere taldeak «arriskuaz betetako munduaz» edo «ibilbide kaotikoan doan munduaz» hitz egin dute, eta arrisku horiek guztiongan sorrarazten duten beldurrez¹⁵⁴. Indar positiboekin batera, biziaren eta ontasunaren aldeko bulkadarekin batera, Thanatos dugu, bulkada suntsitzailea, Eros-i ezpatak ondo zorrotzuta agertzen zaiona. Gure espezieari espezie suizida deitu dionik ere bada. Giza inteligentzia epe luzera mekanismo ebolutibo baliagarria ote den, hortxe galdera.

Mendebaldeko zibilizazioak hasitako bidearen izaera autosuntsitzaileari buruzko duda-mudak aspaldikoak dira. Aspaldikoa da, esaterako, Freuden beraren ohar esanguratsua:

Gure garaikideak halako muturrera iritsi dira oinarritzko indarrak menperatzeko prozesuan ezen, haien laguntzarekin, erraza izango bailitzateke gizakiek azkeneko gi-

¹⁵³ M Walzer, *Las esferas de la justicia. Una defensa del pluralismo y la igualdad*, Fondo de Cultura Económica, Mexiko, 1993, 74. or.

¹⁵⁴ Jacques Delors eta beste batzuk: *Hezkuntza: altxor ezkutua*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 1999.

zon edo emakumea ere desagerraraztea; erraza litzateke gizakiok elkar garbitzea. Ongi dakite, eta hori jakitetik datozkie, parte handi batean, ezinegona, zorientasun falta eta larritasuna. Gauza bakar baten zain egon gaitezke: «zeruko bigarren indarra», Eros betierekoa, bere indarrez baliatu dadila borrokan bere etsaia garaitzeko, bera bezain hilezkorra den etsaia [Thanatos] garaitzeko.¹⁵⁵

Bizi dugun garaian indartu egin da gizadiaren norantzari buruzko mesfidantza, eta ez dira falta XXI. mende hasierako munduaren gaineko irakurketa ezkorrak, baita apokaliptikoak ere (arazo ekologiko eta humanitarioak ikusita, ezberdintasun ekonomikoak eta gerrak). Berriro datorkigu gogora Baumanek proposatutako irudia: hegazkineko bidaiariak, han goian oso altu doazela, abiadura handian, eta inor ez hegazkineko kabinan.

Hala ere, XXI. mendearen hasieran irakurketa etsigarriak egon arren, guk geuk nahiago dugu Paul Ricoeur-en hitz eta jarrera itxaropentsuei erreparatu. Aldaketa sasoi guztiak senti daitezke mehatxu garai gisa, ala aukera berrietarako garai gisa. Gera gaitezen aukerekin:

Gaur eguneko gizakia muga berezi batera iritsi da: ahalmena du bere existentzian funtsezko aldaketak eragiteko, baina baita bere burua suntsitzeko ere. Lorpen horrek historian orain arte ezagutu gabeko aro bat irekitzen du. Baina ez litzateke ona izu-ikarak harrapatzea. Arauak jartzea da kontua. Zenbat eta handiagoa izan gizakiaren bosterea, orduan eta ate gehiago irekitzen dira ongi edo gaizki jokatzeko. Ez dugu harritu behar, ezta gogoz erori behar ere. Aurrerapen zientifikoa eta globalizazioan bueltarik gabeko hondamendien arriskua ikusten dute batzuek, baina ni ez nago konforme jarrera ezkor horrekin.¹⁵⁶

Kontua araez hornitzea da, esango digu Ricoeurrek. Proposamen askok adierazten dute arautze etiko, kultural edo politiko berria behar dugula. Politikaren aldarrikapena gako garrantzitsua da mundu seguruagoa eta arrisku gutxiagokoa eratzeko. Anthony Giddensek noraezak jotako munduari buruz hitz egiten du, eta zera esan: «mundu zoro horrek ez du autoritate gutxiago behar, gehiago baizik». Eta esaldi horri ondorengoa gehitzen dio: «hori erakunde demokratikoei bakarrik ekar dezakete»¹⁵⁷.

Alabaina, globalizazioak aitzakia ezin hobea eskaintzen die hainbat politikariri euren burua ahalmenik gabe deklaratzeko; aitzakia, politikaren esanahi noblea aldrebestu eta arazo sozialak merkatuaren arazo bihurtzeko (edo arazo tekniko); aitzakia paregabea, besoak antxumatuta dituztela, ekonomiaren kudeaketa eta merkatuen kontrola estatuen eta politikaz gaindi daudela esateko. Beck-ek dioen bezala, merkatu gehiagoren alde agertzen diren politikariren «suizidio publiko gustagarri» baten aurrean gaude.

¹⁵⁵ S. Freud, *El malestar en la cultura*, Alianza, Madril, 1970, 88. or.

¹⁵⁶ Frantziar filosofoari eginiko elkarrizketa batetik jasotako gogoeta: «Un filósofo en defensa de la persona». Elkarrizketa Interneteko helbide honetan: <http://www.uia.mx/humanismocristiano/filosofos.html>

¹⁵⁷ A. Giddens, *Un mundo desbocado. Los efectos de la globalización en nuestras vidas*, Taurus, Madril, 2000, 95. or.

11.3. *Zenbait pista Euskal Kooperatibismoa mundu globalizatuan birkokatzeke*

«Hay que intentarlo... y al fin y al cabo actuar sobre la realidad y cambiarla, aunque sea un poquito, es la única manera de probar que la realidad es transformable»,

E. Galeano

«Reconozco la realidad. Reconozco los obstáculos, pero rechazo acomodarme en silencio o simplemente ser el eco vacío, avergonzado o cínico del discurso dominante.»

Paulo Freire

Kooperatibismo izoztuari aurre egin

Honezkero ezaguna zaigu saihestu beharreko bidea: zentzu higaduraren ibilbidea, pentsamendurik eta bihotzik gabeko *kooperatibismo izoztua*. Izan ere, bide horretatik AKEk bere legitimazio oinarriak galduko lituzke, eta pertsona askoren barruetan motibazio-indar eraginkorrak izan direnak. AKEk hazkuntza ekonomikoaren idolatrian gotortzeko arriskua du, efikaziaren ideologiatik irristatu eta aurreko garaietako pentsamendu-osagaien igurtzia galtzeko arrisku erreala.

Horren arrazoiak konplexuak dira. Lan honetan euretako batzuk argitzen saiatu gara. Seguruenera, esperientziaren jatorrian bertan aurki daiteke instrumentaltasunaren idolatrian amaitzeko zenbait abiapuntu. Izan ere, Arizmendiarietaren pentsamendua hazkuntza sozioekonomikoaren kontzeptio mugagabeen oinarritzen zen, geroagokoa baita Mendebaldeko hazkuntza eredua auzitan jartzearena, geroagokoak dira Mendebaldeko kultura ekonomiko intentsibo eta suntsitzailearen lehendabiziko ondorioak (edo ondorioen kontzientzia hartzea) eta berauei buruzko gogoetak. AKEren hasierako pentsamendu dispositiboak hutsune nabarmena du zentzu horretan, garaiko pentsamenduek izan ohi zutena. Garai historiko batek ezarriko dituen muga kontzeptualen biktima da AKERen abiapuntuko pentsamendua. Gaur, oster, ez da egongo enpresa eraldatzailea egiteko bestelako molderik, aipatu hutsunea bete ezik.

Hutsuneak hutsune, Arizmendiarietak pentsamendu-ipar batez hornitu zuen esperientzia, berau giza duintasunaren eta autonomia sozialaren oinarritzko intuizioetan kokatuz. Arizmendiarietaren eta, hein batean, sortzaileen osteko kooperatibismoa, pentsamendu ikuspegi batetik izoztuz joan den kooperatibismoa da, aipatu oinarritzko intuizioen igurtzi eta beroa galtzen joan baita. Pentsamendu leize bat gertatu da, kooperatibismoa zurrundu eta fosildu egin da. Erdi-luxuzko hotel baten itxura hartu duela irudi luke: jateko ona, zerbitzu aparta, gela erosoak. Bertako bizilagunak ase-tuak ditugu, baina, pentsamendu hoztasunak eta zentzu-krisiak jotako gaitza nozitzen dute, lausoago bizi baitituzte azken zertarako eta zergaitiak (sintomatologia horren hedapena eta intentsitatea berdina ez bada ere sektore guztietan). Zentzu horretan, Mendebaldeko gizarteen metaforma borobila da. Saña-ren hitzak datozkit:

Si nuestra época se diferencia de otras es sobre todo por la indiferencia a los valores humanos y morales. Mientras prolifera la producción de bienes materiales, expiran los bienes culturales y espirituales. Hemos aprendido a fabricar máquinas y utensilios mecánicos de toda clase, pero hemos renunciado a la elevación y perfección espirituales. De ahí que nuestro tiempo sea tan pobre en grandes personalidades, en individuos excelsos...¹⁵⁸

Azken bolada luzean AKE ez da gai izan zentzuz hornitzeko, autonomiaren oinarritzko intuizioari jarraipena eman eta beronekin berotzeko. Ez da gai izan gizarte eraldaketaren iparrari eutsi eta berau pentsamenduz elikatzen (praxia inertziak bideratu du hein handi batean). Ondasun materialak produzitu dira, aberastasuna sortu eta banatzeko dispositibo eraginkorra izan da eta izaten segitzen du, eta aitortu behar zaio ikuspegi horretatik duen balio eztabaidea. Ez da gutxi. Baina, produkzio kulturalik, pentsamenduzkorik edo ideologikorik ez da batere egin.

Gaur, produktibitatearen estrategia baino zerbait gehiago behar da. Efikaziaren kulturatik haratago, kulturari efikazia bilatu behar zaio. Hortxe leizea: garapen teknokratiko eta produktibistak ez du izan parekorik kulturaren eta jakintzaren arloan. Hortik aurrera, sakonean dagoen huste etiko-ideologikoak sortzen duen egonezinetik abiatuta, baloreen gainean obsesio moduko bat gailendu da, baloreen inplementazioaren inguruko eztabaida tekniko eta praxi bigun bati heldu zaiolarik.

Hemendik aurrera zer? Ba al du AKE bere ibilbidea berbideratzeko errekurso eta borondate nahikorik? Ikusteko dago. Indar asko daude jokoan, interes multzo konplexua, eta etorkizuna ez dago idatzita, ez onerako ez txarrerako. Belaunaldi berri batek, laugarrenak, hartu beharko du AKE testuinguru soziohistoriko berri batera egokitzen langintza, aro historiko berriaren eskakizunen haritik, esperientziaren oinordetza jasoz eta berau eraldatuz. Prest egon beharko dute indignazioaren inteligentzia eta gizarte eraldaketaren iparra/pedagogia/esperantza berreskuratu beharko dira. Prest, idolatria erosoan inertzia eta altzo goxoetatik irteteko.

Globalizazio garaian desafio berriak

Arautze politiko, etiko eta kultural berria beharrezkoa da bizi dugun munduan. Hori da, besteak beste, alterglobalizazioaren mugimenduaren eskutik eginiko Munduko Gizarte Foroetan aldarrikatzen ari dena. Kooperatibismoaren mundua ez da politikarena, horretan zalantza gutxi. Baina, kooperatibismoa autoarautze etiko eta kultural jakin baten bitartez orientatutako esperientzia da. Logika batzuekiko fideltasuna aldarrikatzen duen esperientzia kolektiboa da, enpresaren munduan burutua. Horra hor kooperatibismoaren desafioa, baita hemendik aurrera ere: ekonomi eta enpresajardueraren autoerregulazio komunitarioa sustatzea, kooperatibismoaren betiko balio unibertsalen norabidean.

Arrasateko kooperatibismoan kooperatiba-sentsibilitate berri baten hazia badela aipatu dugu. Hazi hori, oraindik era zehaztugabe eta intuitiboan, norabide berri batean

¹⁵⁸ H. Saña, *Opresores y oprimidos*

begiratzan hasi da, gauza batez jabetuta: kooperatiben esperientzia garai historiko eta sozial berrian kokatzen dela. Hala ere, oraindik ikusteko dago zein izango den aipaturako sentsibilitatearen ibilbidea: zein indarrekin abiatuko den, zer gaitasun duen bere ikuspegia gorputz sozialean eta zuzendaritzan gauzatzeko, bere erresistentzia denboran zehar, zer ahalmen duen jada existitzen den erakunde-sarean bere ikuspuntua integratzeko, zer gaitasun duen enpresa-jardun ezberdin etaaldi berean bideragarria gauzatzeko tresnak eskaintzeko... Ikusteko dago, nagusiki, egungo botere egiturek nola hartuko dituzten proposamen berriak.

Sentsibilitate horrek dio gure garai historikoak ondorengo makro-abiapuntuak edo kezka dituela (besteak beste):

- *Globalizazioa eta demokrazia*. Esmatzen ari den mundu globalizatuan erakunde finantzario eta ekonomiko handiak dira mundua gobernatzen dutenak (Munduko Bankua, Nazioarteko Diru Funtza, Merkataritzaren Mundu Erakundea). Inork horretarako hautatu gabe, inork horretarako agindu demokratikorik eman gabe. Erabakiguneak urrundu egin dira giza komunitateetatik eta berauen kontrol demokratikotik. Kaleko jendeak ez du ekonomia gobernatzen, ezpada sufritzen. Horren aurrean badira demokrazian sakontzea eskatzen duten ahotsak. Sektore afektatu guztien erabakitzeko ahalmena indartzea eskatzen dutenak, hain zuzen. Ekonomiaren eta enpresaren munduak logika demokratikoagoez zipriztintzea etorkizuneko zeregin garrantzitsuenetako bat izango da.
- Gizarte industrialaren *berregituratze ekologikoa*. Nolabait, mundu modernoaren ardatza *auzi soziala* izatek (kooperatibismoaren begi puntuan izan den arazo nagusia) arazo ekologikoa izatera pasatu da. Gizaki modernook, geure erreproduktzioarako beharrezkoa dugun ekosistema suntsitzeko gaitasun miresgarria azaldu dugu. Jarduera ekonomikoa giza espeziearen erreproduktzioarako jarduera da, pertsonon beharizanak betetzera zuzendutako ekintza. Baina, gaurko ekonomi eta garapen eredu neoliberalak alarma guztiak piztu ditu. Ekonomiak bizitzaren gainontzeko arloekin bakea sinatu beharra dauka, darman oldartze bideari alto moduko bat eman. Batetik, ekologiarekin, baina ez bakarrik. Mendebaldekoa produktioan zentratutako gizarte moldea da, inoizko aukera materialik handienak sortu dira (berauek banaketa beste kontu bat da), baina ahaztu egin du gainontzeko eremuek bizitzaren erreproduktzioarako duten garrantzia: aspektu ekologikoen, pertsonalek, kulturek, sozialek, familiakoen... Eredu desberdinek elkar ulertzea da Mendebaldeko gizartearen eta beren garapeneren desafio nagusia.
- Modernitate kapitalistaren *berregituratzea Ipar-Hegoa kontraesana* oinarri hartuta (nazio-estatuaren markoan kokatutako kapitalaren eta lanaren arteko gatazka jada ez baita konfliktuaren ardatz nagusia). Kropotkinek zioen XIX. mende bukaeran, guk, jende zibilizatuak, dena dakigula, guztiari buruz daukagula iritziren bat, guztian interesa; gauza bakarraz dugula ezjakintasuna: aho-ara daramagun ogia nondik datorren. Bere gizarteko pribilegiatuek ari zen, bera barne, baina aplikatzeko modukoa zaigu esandakoa gaurko lehen mundu honetakooi. Amildegia bat zabaldu da Iparraren eta Hegoaren artean. Kon-

tzientzia hori pizten ari zaigu, lapurrarena alegia, eskandalua baita hemisferio «demokratikoak» zelan ustiatzen duen zoritzarreko beste hemisferioa. Jakin badakigu bazka honetan guztiek ez dutela mokadurik. Beharbada gaurko munduari buruzko daturik esanguratsuena marra moduko hori da: marraren alde batean mahaira gonbidatutako eskubidedun pertsonak (gu, gutxiengoa); bestean, mahaitik jausten diren hondarrak batzera kondenatutako arima galduak (besteak, munduaren gehiengoa).

- *Sexu-rolen berregituratzea*. Bada esaten duenik XX. mendean iraultzarik egon bada (Mendebaldeaz ari gara), iraultza horrek andrazkoekin duela zerikusia. Bide luze eta liskartsu baten ostean gaur mundu produktibo eta ekonomikorako sarbidea lortu dute. Bizitza ekonomikoan euren leku zilegia eskatzen dihardute. Gure gizarteetako instituziorik patriarkalenetakoak dira enpresak. Euren botere-egituran emakumezkoak oraindik arauaren salbuespena dira eta berdintasuna hitz erretorikoa. Emakumea lan-munduan era masiboan sartzearen ondorioz, *genero-ikuspuntua* enpresan txertatzea lorpen hurrenkera logiko baten hurrengo pausua da. Pauso historikoa, gizarteko erabaki- eta botere-guneetan berdintasuna sustatzeko bidean.
- Modernitate kapitalistak eta beronek bultzatzen dituen bizimoduek eragindako *zentzu krisia*: indibidualkeria, orientazio kolektiborik eza, talde-tasunaren higitzea, eta arrazionaltasun instrumentala orekatzeko beste giza logika batzuen beharra. Gaurko kooperatibismoa balore krisiak jotako testuinguruan dihardu. Aldi berean, giza ekintza zentzu kolektiboei jarraiki orientatzeko gogoak markatutako testuinguruan. «Zentzudun» jardueretan inplikatzeko beharrezana dugu. Soziabilitatearen eta zentzu ez instrumentalen eskaerei hobeto erantzun dakieke enpresa komunitarioetatik eta kooperatibetatik¹⁵⁹.
- Bizi-kalitatearekin eta bizitzan lanak duen (eta izan beharko lukeen) tokiarekin zerikusia duten *kezka iturri berriak*: lanaren eta familiaren arteko harremana, edota lanaren eta aisialdiaren artekoa, esaterako.

Garapen ereduaren galdera

Kooperatibismoak kontuan hartu beharreko zenbait abiapuntu berri dira horiek. Guztien artean bada azpimarratu gura nukeen aspektu bat, XX. mende bukaeran eginitako aurkikuntza garrantzitsua, hain zuzen: etorkizunik ez dago garapen eredu jakin batekin. Hazkunde ekonomiko etengabea jada ez da segurtasun iturri, ez lehen bezala, berarekin batera arriskuak baitatoz, eta ez nolanhikoak. Belaunaldi berrien kultura nabarmenagoa da segurtasunaren eta hazkunde ekonomikoaren arteko aliantzaren haustura. Garapen ereduak egundoko pobrezia eta arazo humanitarioak sortzeaz gain, ekosistema hondatzeko gaitasun aparta erakusten du (aldaketa klimatikoa,

¹⁵⁹ Ikus Benedetto Gui, «Organizaciones productivas con fines ideales y realización de la persona: relaciones interpersonales y horizontes de sentido», in Luigino Bruni (koord.), *Economía de Común. Por una cultura económica centrada en la persona*, Ciudad Nueva, Madril, 2001.

ozono geruzaren agortze hazkorra, atmosferaren kutsadura, biodibertsitatearen galera, basoen desagertzea, hondakinak, erosioa eta basamortutzea...).

Iraultza zaletasunaz batere susmagarria ez den Erromako Klubak duela hiru bat hamarkada eman zuen abisua, garapen ereduaren eutsiezina zela, eta harrezkero ugariak izan dira aieneak. Ekonomia desarrollista eta produktibistaren postulatuek (mugarik gabeko hazkundera, zenbat eta lan gehiago orduan eta bizimodu hobea) indarra galduta dute gazte belaunaldi konprometituen kultur koordinadetan. Egungo kontzientzietan nekez mamitzen dira iraganean eztabaidaezinak ziren zenbait ideia, eta etorkizunean are nekezago. Ekonomia kualitatiboago baten aldeko formulak gero eta ozenago aldarrikatzen dira.

Mendebaldeko garapen ereduaren inguruko zalantzak auzitan jartzen du arrakasta ekonomikoa *per se* ona dela dioen ideia, eta arrazionaltasun ekonomikoa mugarik gabe hedatzearen zilegitasuna. Eta litekeena da hau ez gertatzea ekologi etika suminaldi baten ondorioz; ezta planeta honetan beste bizi-forma batzuk deuseztatzen dituen giza ekintza harrapari baten aurkako matxinada moralaren ondorioz; eta ezta sekulako pobrezia eta inoizko ezberdintasunik handienak sortzearen ondorioz ere. Litekeena da aipatutakoekin batera arrazoi nagusia segurtasunik eza ardatz duen sentimendua izatea, hartutako norabide historikoak dilema potoloekin jartzen baikaitu aurrez aurre. Hortik datoz etika planetario baterako deialdi gero eta ozenagoak. Kontzientzia berrientzat, nagusiki egoeraren berri izan eta aldaketa positiboaren aldeko «indar bizi» bihurtu gura dutenentzat, zaila da giza balioetan oinarritutako egitasmo historiko bat irudikatzea, baldin eta egungo bizierak eta ekonomia-moduak (eta enpresarenak) ez badira sakon birplanteatzen.

Esandako guztiarekin ez dut iradoki gura Arrasateko kooperatibismoak gure munduko miseria guztien zama bere gain hartu beharko lukeenik. Euskal esperientzia sozioekonomikoa ur tantatxo bat da itsaso zabalean. Ez zaio inori batere mesederik egiten bere ahalmenetatik haratagoko exijentziak planteatzearekin. Izan ere, espektatiba potoloak frustrazio handien atarikoak izan ohi dira. Kontua da, gogoetok Arrasateko kooperatibismora ekarrita, kooperatiben munduak argi izan beharko lukeela ezingo diola globalizazioari behar bezala erantzun konponbide teknokratiko hutsetan oinarrituta; bai adimenez bai bihotzondoak jokatu beharko duela.

Etorkizuneko erronka arrakasta lortzea da, gero eta lehiakorragoa den merkatuan, dudarik ez horretan. Eta gauzak ez dira batere errazak izango. Baina, aldi berean, bultzada etiko-ideologikoa funtsezkoa izango da: gaitasun komunitarioa beharko da beharrezko arrazionaltasun kulturalak, etikoak, sozialak eta ekologikoak sortzeko, eta horrela, XXI. mendean gizadiari indar handiz eragingo dion mendebaldeko garapen ereduaren jasanezintasunari aurre egiteko. Aberastasuna sortzea, bere horretan, dagoeneko ez da utopia bat, demostratzen ez bada Hirugarren Munduarekin solidarioak garela, aberastasuna modu justuago batean banatzen dela, ingurumenari begirunea diogula, etikoki gaitzesgarriak diren merkatu guneetan ez garela ari (arma fabrikazioan, esaterako), langileen eskubideak errespetatzen direla, edo euskarari arnasa berria ematen diogula lanaren munduan... *Efikaziari zentzua* bilatu behar zaio berriro, eta *zentzuei efikazia*...

Efikaziari zentzua, zentzuei efikazia

Lan honetan AKEren dimentsio batez jardun dugu nagusiki: ekinbide kooperatibista lagundu duen kulturaz, zentzu gorputzaz edo kontzientzia-egiturez. Lerro hauek zera defendatzen dute: AKEk une kritikoak bizi ditu, gaurko aldaketa biziek mehatxuz (mehatxu ekonomikoz eta kulturalaz) jositako paisaia marrazten dute, baina baita aukera berriez ere. Diagnostiko batekin ari gara: AKEk «zentzu krisia» bizi du, «krisi kulturala» edo «motibazio krisia», eta merezi duen seriotasunarekin heldu behar zaio horri, izan ere, zentzu-ipar bat izateak sekulako indarra eman dio giza kolektibo honi, pertsonen barruetan motibazio-indarrak aktibatu direlako, enpresa proiektua legitimatu duelako, eta konfliktibotasun gutxiagoko eta eraginkortasun handiko dinamika bat abian jarri delako.

Ñabardurak garrantzitsuak dira, eta zentzu krisiaren tesia hobeto kokatzea eskatzen digu gorputzak, bai bere *intentsitateari* dagokionean nola bere *hedapenari*. Bere intentsitatea ez da erabatekoa. Zentzu objektiboak (enpresaren arrakasta, zentzu pragmatikoa) ondo funtzionatzen duen bitartean deskalabro sinbolikorik ez da gertatzen, berau amortiguatzeko koltxoi sendo samarra baitugu. Gainera, zentzu krisirako ezinbesteko baldintza da ondokoa: zentzu-komunitate absolutu bat integratu nahi genuke baina ezin dugu. Hainbaten kasuan ez da hori sentitzen, kooperatibismoari eskatzen ez zaiolako zentzu-komunitatea izaterik (ez zentzu-komunitate absolutua, bederen), eta eskatu ezik, sentimendu anomikorik ez. Zentzu krisia maila indibidualean senti daitekeen lotsaren parekoa da: «naizena» eta «izan beharko nintzatekeenaren» arteko distantzia. Askok ez dute alde handirik sentitzen kooperatibistok «garena» eta «izan beharko ginatekeenaren» artean, bigarren honi gehiegirik eskatzen ez zaiolako; beraz, zentzu krisiari bidea mozten zaio. Arrasateko kooperatiba esperientzia ez da «lotsagarria». Ildo horretatik, zentzu krisiaren hedapena ere mugatu beharra dago: ez du gorputz kooperatibista osoa hartzen, kooperatibismoari gehien eskatzen dion sektoreari eragiten dio.

Dena delakoarekin, eta ñabardurak ñabardura, ukaezina da egon badagoela zentzu-krisirik, sarri inplizitua den krisia: Arrasateko kooperatibismoa ez da «lotsagarria», baina,aldi berean, ez dago «lotsabakoz» josia (senti daiteke nolabaiteko «lotsa», «garena» eta «izan beharko ginatekeenaren» artean nolabaiteko aldea). Integrazio sinboliko eta motibazionala kontu konplexua da, eta beroni aterabidea aurkitzeak, seguruenera, ekinbide ugari jorratzea eskatzen du. Hasteko, kooperatiba-enpresa espazio sinboliko gisa ere ulertu beharra dago, errealitate kultural gisa, eta zentzu eta motibazioz osatutako unibertso gisa (motibazio eta zentzu anitzez, jakina).

Zentzu krisiaz hitz egitea ez da hutsaren hurrengoa, garrantzitsua da hortaz jabetzea. Izan ere, bulkada etikoa, ideologikoa, sinbolikoa edo motibazionala izan da Arrasateko kooperatibismoaren arrakastaren ezinbesteko baldintza (ez bakarra, baina bai ezinbestekoa). Historian zehar metatutako zentzu-gorputzak, behialako kontzeptu potoloek (jainkoa, klasea, nazioa, progresoa...), utzi diote hain eraginkorrak izateari, eta ahulago ageri dira jendearen inplikazioa, motibazioa eta eraldatze gogoak aktibatzeke zereginetan. Arrasateko kooperatibismoa era bateko ala besteko hizkuntza

meta-sozial batek lagundu izan du beti. Enpresaren munduak orain badaki ukiezinak zenbaterainoko diren garrantzitsuak, baina, zilegi bekit horrela esatea, hemen aspaldi dakigu eta praktikatzen dugu hori. Hemen, ideia-indar handiek (idea erlijiosoak, aurrerakoiak edo abertzaleak) efikazia historikoa eskuratu dute eta hainbaten bizitzak bete: askok euren nortasunaren eta existentziaren zati handia kooperatibismoan eta beronen eraldaketa proiektuan oinarritu dute. Enpresaren efikazia bilatzeak zentzua izan du, eta konpartitutako zentzuek enpresaren efikaziari hegalak eman dizkiote. *Efikaziari zentzua eman zitzaion eta zentzuei efikazia.*

Gaur, dimentsio hori da —dimentsio etiko-ideologikoa eta hortik eratortzen den motibazio gorputza— azken urteotan minbera dagoena, sufritzen ari dena eta, hori dela eta, berriro aurkitu behar zaie *zentzua efikaziari eta efikazia zentzuei.*

Kooperatibismoak indarra galdu du proiektu eraldatzaile eta motibatzaile gisa. Bistakoa da hori, bai kooperatiba barruan nola kooperatibetatik kanpo. Kooperatibismo zaharrak garaiko gizartearen arazoei erantzun nahi zien, baina, gizarte molde hori jada ez da gaurkoa. Merkatu globalizatuak zenbait ekinbide inposatzen ditu, eta ondorioz, kontradikzioak areagotu eta kooperatibismoa egurtzen du. Baina, arazoa ez dago soilik «hor kanpoan» (merkatuaren determinismoa), «hemen barruan» ere ote dagoen, kooperatibistek euren barrenetan bizi duten defizit kulturalen, gihar ideologikoaren biguntzean, besteak beste. Homologazio kultural-ideologikoa arriskutsuetan arriskutsuena da, subjektibotasun eraldatzailea hiltzen baitu eta, ondorioz, ekinbide alternatiboak eta eraldatzaileak imajinatzeko eta urratzeko ahalmena ezeztatzen du.

Horregatik, mimo handiz zaindu beharko dira barruko tolesdurak; hots, «dimentsio kulturala». Esanda dago: globalizazioa taxuz egokitzeko soluziobide teknokratikoetatik haratago joan beharko da. Plano kulturala eta subjektiboa arrakastarako gako nagusietakoa izango da aurrerantzean ere (beharbada inoiz baino gehiago). Zinez paradoxikoa litzateke AKEk *klabe kulturala* ez zaintzea enpresa munduak deskubritu berri duenean lehiakortasunerako funtsezko baldintza dela. Tristea litzateke AKEk potentzial hori higatzen ikustea eta beheraldi historiko batean sartzea aspektu horri dagokionean, besteak nolabaiteko gorakaldian murgildu diren honetan. Gainera, globalizazioari arima (edo norabide intxaropentsua) aurkitzen saiatzen ari garen honetan, AKEk ezin du berea galdu.

Kontua ez da kooperatibismo zaharraren zentzuak berpiztea, ezpada kooperatibismoaren balore unibertsalen zehaztapen berria lortzea aro historiko berrian, eta horrek zera esan gura du: *ber-fundazio* eta *ber-fundizio* operazioa (zilegi bekit euskara hala tratatzea). *Ber-fundazioa*: globalizazioaren aroan berriro formulatzea gutasun kooperatibista, honen guztiaren zergatia eta zertarakoa berriro erantzutea. *Ber-fundizioa*: zentzuen eta motibazioen putzu berritua sortu, *collage* eran; batetik, zenbait zentzu zahar-berrituekin (demokrazia, konpromiso soziala); eta bestetik, zentzu berriekin: ziklo historiko berrian eraldaketa proiektu batek kontuan izan beharko lukeen semantika berriarekin (autoerrealizazioa, ekologia, hirugarren mundua, demokrazia partehartzailea, kalitatezko enplegua, etxebizitza, generoa, euskara, bazterketa soziala...).

AKERen desafioa, eta gainontzeko enpresena, ez da (ez litzateke izan behar) beste barik hazkuntza ekonomikoa lortzea; dirua irabazi beharko da, bai, baina estandar sozial, ekologiko, kultural, demokratiko eta solidarioei erreparatuz. Zeregin horretan AKEk defentsibara joka dezake, gogo barik jardun dezake, beste erremediorik ez duelako, konbikzioa eta kontzientzia historikoa falta zaiola, *kosm-etika* erabiliz¹⁶⁰. Bada beste aukerarik: *enpresa izateko* eta *egiteko* molde berriaren lorratzean jarri daiteke, umildadetik baina konbikzioz.

Bide horretan ez da oztoporik faltako. Sarritan merkatuak jokatzeko beste modurik ametitzen ez duela entzuten da¹⁶¹. Determinismo horretan sinesteak subjektu kooperatibistaren heriotza dakar. Nago badagoela alternatibarik, merkatua ez dela bide bat eta bakarra seinatzen duen maldizio bat. Beti dago gehiago ala gutxiago haztearen aldeko hauturen bat, handik edo hemendik hazteko aukera, era honetara ala beste horretara. Baina, pentsamendu bakarraren atzaparretan jausi ote diren askoren kontzientziak, hori errezeloa. Horren aurrean nolabaiteko *deskolonizazio mentala* beharrezkoa da. Berriro diot: arazoa «hor kanpoan» barik «hemen barruan» dugu.

Askoren iritzian, kooperatiben helburuak beste edozein enpresak dituen berberak dira: hazi eta dirua irabazi; diferentzia ez datza «zer nahi dugu» galderan, ezpada «zelan» egin hori. Erantzun horretan baloreak eta zentzu kooperatibistak biderei kolorea emateko baliabideak dira, ez helburuak erabakitzeko tresnak. Ez da gutxi. Baina, horixe da hain justu ere teknokraziaren gustuko ariketa: azken zergatieri eta zertarakoei buruzko galderak ekiditea. Teknokraziaren mentalitatea «zelan» galdeztzailean oinarritzen da. Zibilizazio modernoa maisu bilakatu da bitarteko efikazanak aukeratzeko zereginean, eta printzipio etikoak onargarriak izango dira efikaziaren bidean bultzadarik lortzen bada. Lausoago ageri dira, ordea, azken zertarako eta zergatiak. AKE kultura modernoaren deribaren metafora gisa har daiteke. Eta biak dira garrantzitsuak, «zelan» eta «zer-zergatik-zertarako» galderak, biek baitute elkarren beharra. Bestela, kooperatibismoa enpresa teknika soil bihurtzen da, planteamendu eraldatzailerik gabeko kontakizun zapala, ipar ideologikorik gabeko tresna; eta kooperatibistak, arimarik gabeko espezialistak, langile bihozgabeak.

Pixkat gehiago zehaztuz: gaurko enpresa eta kooperatibetan parte-hartzea baldin bada gakoa, galdetu beharko da zertan parte hartu, nola, zenbat, norekin, eta, batez ere, *zergatik* eta *zertarako*. Galdera horiek dira etorkizunean gizarteak erantzun beharrekoak. Galdera horiek gure gizarteetako sektore eraldatzaileen espirituan daude, eta gero eta indartsuago egongo dira. Gaurko eta etorkizuneko identitate inkonfor-

¹⁶⁰ Edo kooperatibistek pentsa dezakete ekologia, hirugarren mundua, generoa eta etorkizuneko eraldaketaren aldeko semantikak eskatzen dituen kontzeptu makro-soziologikoak ez dagozkiela kooperatibei, ezpada estatuei eta politikari. Kasu horretan ahaztuko litzateke funtsezkoa dena: kooperatibismo zaharra ere garaiko gizartearen gatazka makro-soziologiko zentralari lotu zitzaion bokazioz; aro industrialaren lana vs. kapitala gatazka, esaterako.

¹⁶¹ «Oso buru irekiz hartu behar ditugun gauzak dira. Nire lanpostua ziurtatzea nahi badut holako gauzak egin behar ditut. Galdera hori da: nola egin; baina ez egin behar den ala ez. Ez daukat alternatibarik. Ni ere prest nago trenetik bajatzeko, baina gera dezatela tren. Nik ere nahi dut tren honetatik bajatzea. «Hay que currar como locos», ba bai, baina konpetitzaileak hor daudelako. Nik ere nahi dut patxadan bizi. (...) Nik badakit alternatibak zeintzuk diren, Urbian oso ondo bizitzen da. Joan hadi!, baina handik predikurik ez egin, eh?» (GP/PE-1/16/Larramendi).

mistaren muina hortik doan bitartean, arriskutsua litzateke kooperatibismoa hortik deslotzea. Deslotuta geratuko bailitzateke bere identitatea berritu eta indarberritzeko gaitasuna duten sektore eta ideietatik.

Finean, subjektu kooperatibista moral eta ideologikoaren errekupezioa da lehenbizikoa, beronen trinkotzea ere bai. Narrazio handirik gabeko sasoian (erlijioa, klasea, nazioa eta progresoa problematizaturik edo ñabartuta dauden honetan), eta alternatiba globalik ez dugun aro historikoan, subjektu kooperatibista ahulagoa izango dugu seguruenen, baina nahikoa. Nahikoa gaitasun sinbolikorako, erresposabilitate moralerako, bide alternatiboak irudikatzen, eta utopia askatzaile eta errealistak fabrikatzeko.

Eta garrantzitsua dena: auzi biak eskutik joan daitezke. Hau da, AKEk bere proiektu eraldatzailea birpentsatu eta egokitu dezake desafio sozio-etiko berriei erreparaturik (AKE ideologikoki trinkotu); eta, aldi berean, berritutako zentzuak izan daitezke giza-talde (kulturalki) trinkoago eta lehiakorragoaren bizkarrezurra (AKE ekonomikoki trinkotu).

Zentzu horretan, enpate kulturala ez galtzea, berau berrindartzea eta berritzea (kontzeptu zaharrak birformulatuz eta berriak sortuz), etorkizunera begira garrantzi handiko eginbeharra da. Ez soilik ekinbide ekonomikoa marko etiko bati lotzeak egitasmo historiko batekiko leial mantentzen gaituelako; edo ekinbide ekonomikoa zentzuz hornitzeak *etxalde kooperatibistaren* berotasuna sentiaraziko digulako, eta horrek ongizate psikologikoa, lanari bihotza atxikiz. Horretaz gain, etorkizunearan esperientziaren zentzuei erreparatu beharko zaie, eta zentzuen berregitean behar besteko arreta eta esfortzua inbertitu beharko da, beste arrazoi horregatik ere bai: ingurune globalizatu batean lehiakor eta eraginkor jokatzeko funtsezko erreminta izango da. Puntu honetan bat etor daitezke koherentzia ideologikoa bilatzen dutenak eta teknokraziaren irizpideen jarraitzaileak. Aliantza horretan bilatu beharko da aurrera egiteko indarra.

Beeraz, inork ez dezala ikusi geure proposamenen koherentzia ideologikoa ez besterik bilatzen duen planteamendu erromantikoa. Gauza bat da pentsamendu bakaurretik gertu dagoen pragmatismoaren aroz kezka azaltzea (eta berau kritikatzeko), eta beste bat bizirauteko beharrezkoa den ikuspegi pragmatikoa ahaztea. Bigarren hori lehendabizikoa bezain kaltegarria litzateke.

Autoeraketaren paradigma zabala

Gizarteko sektore eraldatzaileekin loturak planteatzea deserosoa da zenbaitentzat. Kontradikzioak kudeatzeko prest egon behar. Baina, gizartea zentzu humanizatzailean aldatzearen alde daudenekin loturak ez zainsteak kooperatibismoak muin-muinean duen izaera eraldatzailearen higatzea areagotuko du. Horregatik, harremanak eta aliantzak sendotzea komeni da, bestelako kultura ekonomiko bat sortzearen aldekoekin, autoeraketaren intuizio eta praxiarekin bat datozen gizarte-eragileekin, bai Hirugarren Munduko errealitate autoeratuarekin nola Euskal Herriko gizarte erakundeekin.

Besteak beste, ekonomia solidarioaren munduarekin: banku etikoak, enpresa sozial solidarioak, inbertsio fondo etikoak, aholkularitza berde eta etikoak, etc.

Arrasateko kooperatibismoaren arrakasta, hein handi batean, mikroklima jakin bati zor zaio, ekosistema humano bati. Berau elikatzea, *humus* eta ingurune komunitario hori zaintzea, oinarritzkoa izango da aurrera begira ere. Mikel Irizarrek ederki azaltzen zuen ideia hori:

... atzerrian zenbait atal garatzeak ez ei du zalantzan jarriko kokapen nagusia. Hobe horrela. Ze taldearen arrakasta ez zaio zor bakarrik formula juridiko bati edo pertsona jakinen lidergoari. Esango nuke garapen ikusgarriaren funtsa dela azpian dagoen komunitatea, izaera kolektiboa, gizarte jakinduria. Ekosistema, hitz bakarrean esateko. Debagoieneko ekosistema humanoak esplikatzeko du, beste ezerk baino hobeto, ibararren garapena. Eta formulak edo pertsonak alda daitezke tokiz, baina ekosistemak ez. MCCk Debagoienean ditu erroak, hemen behar du enborra. Adarrak bai, munduan. Areago. Ekosistematik hartzen duena jornaletan itzultzen du, hori da oinarritzko tratua. Baina falta zait ibarrekiko mezenasgoa, gizarte dinamikan inplikazioa, ekosistema bera indartzeko apustua. Denon mesederako, MCC barne.¹⁶²

AKE enpresaren munduan burututako autogobernu komunitarioko esperientzia bat da. Herritarren autogobernua oin hartzen du, eta sozietate zibilaren protagonismoan. Barruko hainbat sektoretan ikuspegi zabal hori falta da baina, eta ikuspegi oparoa da etorkizunari begira. Gizarteko indar biziak sustatzea bidea baita demokraziaren eta justiziaren aldeko urratsak emateko. Gizarte zibil pluralista eta indartsua behar dugu. Herri-boterearen ahulezia da borrokatu beharreko gaitza, areago globalizazio garaian. Gizarte zibilaren botere eta ahalmenaren kontrako mugimendu orok pixka bat gehiago gerturatu behar dira boterearen kontzentrazioa, hots, kanpo logika arrotzek administratutako subjektura. Pixka bat gehiago aldentzen gaitu demokraziatik, eta bere existentzia administratzeko gai den pertsona eta komunitatetik.

Kooperatibismoa enpresaren alorrean burututako herri ekimen gisa uler daiteke. Bide horretan Arrasateko kooperatiben esperientziak hainbat arlo kooperatibizatu ditu: lana, aurrizkia, kontsumoa, aseguruak, hezkuntza, kreditua. Gizartearen bestelako eremu batzuetara irekitzea bide indartsua izan daiteke balorez eta zentzuz berrelikatzeke, eta autoeraketan aurrera egiteko: etxebizitza; bazterketa soziala; kultura; komunikazioaren mundua; Hirugarren Munduaren garapen komunitarioa, etc.

Ideologia handiak gainbeheran ditugu, bai. Baina kooperatibismoak aldeko du ondokoa: sozialismo klasikoek defendatu dituzten estrategiak porrot egin du (komunismoa, batetik, eta estatu-sozialismoa edo sozialdemokrazia, bestetik). Ondorioz, nolabaiteko *sozialismo komunitarioko* garaiak dira. Narratiba eta errelato txikiagoetarako garaiak ere bai, esperientzia konkretuak eta inperfektuak abiatzeko aroa, merkatuaren eta estatuaren porrotaren ostean, komunitatearen protagonismoa aldarrikatzeko garaia; bestelako hainbat mundu anitzetarako ekintza anitzak behar dira. Jakinik, aldi berean, bilaketa etengabe jarraitu behar dugula, sintesi perfek-

¹⁶² *Goiena*, 157. zk., 2004ko maiatzaren 28a.

turik ez dagoela. Toni Negri zera dio: «Todo encantamiento ha terminado: con ello el reino de la posibilidad reside por entero en nuestras comunes y potentes manos»¹⁶³.

Claus Offeri irakurri nion aldizkari batean XIX. mendeko pentsalaririk garrantzitsuena ez zela Marx izan, ezpada Alexis de Toqueville, eta analista sozial eta politiko gehienek onartzen dutela hori. Zeinek nori aurrea hartu dion ez da kontua, orain ez zaigu inporta nor izan zen bietatik handiena. Kontua da azken urteotako (80 eta 90 hamarkadetako) ideia politikorik karismatikoa hein handi batean Toqueville-ren oinordetza intelektualtzat har daitekeen Sozietate Zibilarena dela¹⁶⁴. Gizarte autoeratuagoaren ideiak, gainera, joera ideologiko ezberdinekoak biltzeko gaitasuna du.

Dogmatismo, narrazio eta utopia handirik bako sasoian, autoeraketaren intuizio zabalean oinarritutako esperientzia txikiek (eta ez hain txikiek) tokia dute, eta ilusio eraldatzailearentzat arnasa dira.

Indibidualismoan gotortutako kooperatibismoari aurre egin

«Gizaki publikoaren gainbeheraz» hitz egiten da gaur (Sennet), edo «eremu publikoaren desegiteaz» (Habermas). Mugimendu bat suma daiteke AKE-n: publikotik pribaturako tendentzia, autoerrealizazioaren kulturean ardaztutako kooperatibismo berria proposatzen ari da. Joera hori bat dator gure gizarteetan oso garaikidea «pertsonek bilaketa erromantikorekin» (Sennet). Bilaketa indibidualaren muturrean, «intimitatearen tirania» moduko bat suma daiteke, bira kultural sakona, gizartearen orohar, eta baita AKE-n ere.

Nolabait, bi komunitate proposamen ageri zaizkigu gaurko kooperatibismoan (ez dute zertan kontrajarriak izan):

- Enpresa Kultura Berrian ardaztuko dena, autoerrealizazioa zutabe harturik, komunitate proposamen biguna, nolabait esatearren.
- Komunitate etikoa, bestetik. Kooperatibismoa gizarte-erlaketaren semantika berrira lotzeko arduratik proposatzen da bigarren hau (kontzeptu etiko sakonekiko konpromisoaz gain, kooperatibismoari garai berrietara arrakastaz egokitzeko gaitasuna ziurtatzea du desafio).

Lerro hauek ondokoa defendatzen dute: kooperatibismoaren despolitizazioaren aurrean, bizipen kooperatiboa pribatizatzeko proposamenen aurrean, beronen (bir) politizazioa berreskuratu behar da. Belaunaldi berrien indibidualkeriak eta autoerrealizazioaren estetika muturrekoak talka egiten dute ahulnekiko ardura aldarrikatzen

¹⁶³ Toni Negri, *Fin de Siglo*, Paidós, Bartzelona, 1992, 44 or. I. Zuberon lanetik jasoa, *Las condiciones de la solidaridad*, 167 or.

¹⁶⁴ *Demokrazia Amerikan* lanean konpromiso errepublikarra irudikatzen du: lehen aristokrata onek egindakoa, hots, norbere tokiko komunitateaz arduratu eta zaindu, herritarrek eurek egin dezaketela. Dena den, Toqueville ez zen bakarra izan. Eta gerora, ezker marxistaren atal oso batek, anarkismoak eta komunitarismoak autogestioaren ideian ardaztu dute euren pentsamendua eta praxia.

duen nozio komunitarioarekin. Zenbait kooperatibista zaharrek, gaurko bizierei erreparatuta, «obligazio gehiago, eskubide gutxiago!» diote.

Gaur, egon, badago identitatearen aldeko borroka bat; ez du zerikusirik klase-identitatearekin, nazio-identitatearekin, edo bestelako identitate komunitarioen aldeko borrokarekin. Identitate indibiduala eraikitzearen aldeko borroka da nagusitzen ari dena. Harrotzen ari den indar kultural berria da, eta arin hedatzen (nagusiki gazteengan eta elite kooperatibistan, hau da, etorkizuneko kooperatibismoa kulturalki funtsatzeko ahalmena duen sektore garrantzitsuenetakoan).

Biografia indibidualak garatzen direneko ingurumari makrosoziologikoa aldatu da. Bizitza komunitarista mamitzeko beharrezko euskarri sozial, kultural, instituzional eta materialak higituta daude nabarmen, eta galdera da gaurko belaunaldi berriek, kultura komunitarista batean zaildu bakoek, ba ote duten euren bizitzak bide komunitarioetatik gidatzeko aukera errealik.

Konpon ote daiteke hau hezkuntzaren bidez? Hezkuntzaren aukerak mugatuak dira, prediktuak, bere bakarrean, ezin baititu bizitzak orientatu. Predikutik haratagoko hezkuntza eredia balitz ere, beronek gaur espazio sozialean asko indartsuagoak diren indarrekin lehiatu behar luke (komunikabideak nagusiki). Bizitzaren orientazio komunitarista batek, nolabait esateko, euskarri materialak behar ditu, gizarte-instituzioak, bestela boluntarismo hutsean erortzeko arriskua dago. Hala ere, estrategia edukatiboa beharrezkoa dela dudarik ez.

Gako komunikatiboa

Lan honetan Arrasateko kooperatibismoak nolabaiteko krisi kulturala edo zentzu-krisia bizi duela defendatu dugu (baita askatasun-krisia ere, globalizazioaren indar faktikoen aurrean bere berezko molde eta jokabideak ahulduta dituen aldetik). Kontua da horri zelan buelta eman. Kontua da nola egiten zaion aurre aro historikoaren aldaketari loturiko motibazio-krisiari edo krisi kulturalari.

Motibazioen hobetzeari behar bezala heltzeko, zentzu-krisiari egoki aurre egiteko, garrantzitsua da jakitea giza-taldeetan motibazioak zelan sortu, mantendu, sozializatu eta hobetzen diren. Lerro hauek ez dute hain gai konplexua agortuko, ez da hori nire asmoa, esan beharrik ez dago, baina, jakin badakigu motibazioen hobetzea lurralde zabal bezain konplexuari lotzen zaiola: giza komunikazioa. Zentzuen eta komunikazioaren arteko loturak oso dira estuak, jakina da hori.

Motibazio intrintsekoak ez dira loratzen auto-genesi prozesu bidez (bulkada hori kontuan hartu beharreko faktorea baldin bada ere). Edozein giza-taldetan dimentsio horren genesiak eta garapenak oinarri soziala du, harreman bidez gauzatzen da, komunikazioa du abiapuntu. Gizakion dimentsio komunikatiboaren bidez, hots, gizarteek elkarriketarako sortzen dituzten espazioen bidez (modu kontziente ala inkontzientean, espazio formalak edo informalak), munduaren ikuspegi bat eraikitzen da, espazio horietan burutzen diren ekintza komunikatiboaren bidez ekoiztu, sozializatu eta berritzen dira baloreak eta plano intersubjektiboan konpartitutako zentzuak.

Horrela kontaktatzen da motibazioen munduarekin; filiazioak sortzen dira eta baita atxikimendu afektiboak ere; ikuspegi bat elikatuz ikuspegi honi bizia ematen zaio etengabe; identitateak eta autodefinizio kolektiboak (bir)eraikitzen dira; konpaktazio kulturalaren alde jardun ohi da; partekaturiko esanahi-sarea egikaritzen da; dependentsia lokarriak sortzen dira eta, honekin batera, destino bera konpartitzen delako ideia; konfiantza sareak egituratzen dira; eta, beraz, auzi konplexu bezain garrantzitsuari egiten zaio aurre: integrazio sinboliko/motibazional/kultural/sozialari.

Estrategia komunikatiboa potentzial autoeratzailerak askatzeko giltza da. Gaurko mundu kooperatiboan dagoen prozesu komunikatibo formal bakarrak, edo plataforma komunikatibo bakarrak (*T.U. Lankide* aldizkaria dut gogoan), esperientziaren legitimazioa du ardatz nagusi, talde korporatiboari buruzko informazioa du oinarritzko lehengai; beharrezkoa da hori. Horrek baditu *identitate efektu* batzuk, baina ez dago kontzientziaren formazio kritikorako euskarri sendorik, ez esperientziaren gaineko analisi kritiko-eraikitzaileko tresnarik. Eta gaur, kooperatibisten kontzientziaren kontrola barik, legitimazio hutserako tresnak barik, kooperatibisten elkarriketarako une eta guneak behar dira. Jakinik, betiere, trinkotze kognitibo-kulturalerako bideak aro globalera egokitu beharko direla, hots, plaza lokal-fisikotik haratagoko espazio komunikatiboak beharko dutela izan.

Komunikazioari modu kontzientean heltzea garrantzitsua da bereziki globalitate sasoiari. Aro globalean identitateak lehenagoko irizpide klasikoek bidez egikaritzen dira: espazioa (tokian tokiko lurraldea konpartitzen duten komunitateak) eta denbora (denbora konpartitua). Baina, bestetik, aro globalak espazio eta denbora ulertzeko modu tradizionalak hankaz gora jartzen dihardu, eta modu berriak sortzen ari dira identitateak egikaritu eta birproduzitzeko. Identitateok puntalatzeko bide berriak behar dira, ikuspegi sozial eta geografikotik gero eta barreiatugao dauden sare eta giza errealitateetan txertatuta bizi baikara. Hori bistakoa da bere ekinbiderako munduaren luze-zabala hartu duen enpresa-sare batentzat.

Prozesu komunikatiboek zera ahalbidetzen dute: borondate ezberdinek bat egitea eta esangura konpartitu batzuen inguruan adostasunak lortzea. Kantitatean nola kalitatean fluxu komunikatibo egokia ziurtatuz gero, honek egikaritze sozial eta kulturalerako ahalmen handia du. Ahalmena du, batetik, beharrezkoa den «zentzu dentsitate» lortzeko; hots, merkatu globalak gorputzen duen jokaleku hain lehiakorrean «zentzu kuota» funtzional eta eraginkorrak behar dira, eta komunikazio-prozesuek hori eskaintzeko ahalmena dute. Bestetik, gaur gizartea eraldatzearen aldeko proiektu batek behar dituen logika demokratiko, sozial eta ekologikoak sortzeko erabil daitezke ekintza komunikatiboak, eta logika horiekin enpresaren jardunbidea hornitzeko.

Bide horretatik eta bestelako batzuetatik, Arrasateko kooperatibismoak bere barruan irudi bat behar du sortu, etorkizunean izan nahiko lukeenaz informatuko duena. Nortasuna zerk emango dion galderari erantzundako zatiekin osatutako irudia, eta irudi horrek lekutxo bat behar luke ahalik eta kooperatibista gehienen barruetan. Barne irudi berritua aro berri baterako.

Horretarako etengabeko elkarriketa kolektibo sakonari heldu beharko zaio. *Komunikaziorako une* eta *guneak* sortu beharko dira, hori baita azken zentzuak eta ba-

loreak ekoizteko eta sozializatzeko bidea. Beharrezkoa izango da zitadela kooperatibistan plaza publikoa berrezartzea, nortasun kooperatibistaren berreraikitze inter-komunikatiboa gerta dadin. Komunikaziorako une eta gune horiek solasaldi moralerako eta gogoetarako espazioak behar dute izan. Kontua ez da lehenagoko konpaktazio ideologikoa berrezartzea iraganarekiko nostalgiak eta erromantizismoak hala aginduta. Kontua da konbikzio batetik abiatzea: bide horretatik bereizgarritasuna lortuko da, kalitate etiko handiagoa, eta baita enpresari (eta bere lehiakortasunerako gaitasunari) bultzada garrantzitsua ematea ere.

Bizi dugun garaia aukera-aukerakoa da horretarako, izan ere, gaurko enpresak bira dialogikoa bizi du: elkarrizketarako, komunikaziorako, elkar ulertzeko eta partehartzeko espazio gisa ulertua da. Gainera, enpresaren ardura sozial eta ekologikoa aldarrikatzen da, *etikarik gabe ez omen dago negoziarik*. Kultura berria da hori, enpresaren jardura zentzuekin lotu nahi lukeena: «ongi komuna»rekin, konpromiso sozialarekin eta bestelako kontzeptuekin.

Desde esta perspectiva ya no impondrían su hegemonía ni el orden funcional (técnico) ni el institucional-político (administrativo), sino la racionalización comunicativa del mundo de la vida. De lo cual se espera que emerja una «integración social comunicativa», basada en la «comunidad de sentido» (consenso) y no meramente funcional, que, por su parte, una cultura empresarial y un *management* comunicativo fomentarían también en la empresa.¹⁶⁵

Bira historiko honek baldintza ezin egokiagoak ezartzen ditu Arrasateko kooperatibismoak gaur behar duen «esnatze» identitariorako. Elkarrizketa etiko eta ideologikorako uneak eta guneak behar ditu. Esandakoa lortzeko: kalitate etikoa (eraldaketa proiektua berritzea), bereizgarritasuna eta enpresari bultzada.

Hezkuntzaren garrantziaz

Estrategia komunikatiboaren atal pribilegiatua, agian garrantzitsuena, hezkuntza/formazioa da; zentzuak sortu eta berritzeko hezkuntza; partehartzeko behar den jakintza eta motibazioa sustatzeko hezkuntza; kohesiorako eta integrazioarako hezkuntza. Parametro berrietan ardatzu beharko litzatekeen hezkuntzaz ari naiz, edukiari zein metodologiari erreparatuta; elkarrizketa eta komunikazio parametroetatik eraiki beharreko hezkuntza, alegia (ez jakintzaren transmisio klasikoan).

Beraz, hezkuntza-eginkizuna da, seguruenera, birsortze kooperatibistaren muin garrantzitsuena. Eta horretarako, bere ibilbide historikoan sortu dituen hezkuntza-egitura garrantzitsuak erabili beharko lituzke. Bereziki bere unibertsitatea (Mondragon Unibertsitatea). Unibertsitatea izan beharko litzateke kooperatibismoaren eztabaida- eta hausnarketa-gune neuralgikoa, betiere harreman estuan enpresa munduarekin. Unibertsitatea punta-puntan egon beharko litzateke Arrasateko kooperatibismoaren

¹⁶⁵ Jesús Conill, «Marco ético-económico de la empresa moderna», Adela Cortina *et al.*, *Ética de la empresa. Claves para una nueva cultura empresarial*, Trotta, 2000, 66 or.

berezko zentzu kolektiboen ekoizpenean eta transmisioan. Eta gainera, pentsaera aurrerakoi eta berritzailearen eragile ere izan beharko litzateke. Euskal kooperatibiston esperientzia aberatsa pentsatzeko lekua izan beharko luke (eragiteko gaitasuna dugun territorioak sakonago pentsatu behar baititugu); geure *praktika pentsatzeko* eta geure *pentsamendua praktikatzeko* akuilu behar luke.

Kooperatibismoaren hezkuntza bidezko transmisioak etorkizunean aurrera egin dezan, gutxienez bi estrategia bereiz daitezke:

- Bide «naturala»: eguneroko jardunean burutzen den transmisioa da, «osmosi» bidezkoa, eguneroko portaera kooperatibistak eredugarri bihurtzeko duen gaitasunean oinarritzen dena. Balore, printzipio eta zentzuen gutxieneko arrazionalizazioa behar da, ez gehiagorik, eguneroko lan esperientziak eta bizipen kooperatibistek indar nahikoa baitaukate balore eta printzipio kooperatibisten transmisore izateko. Portaera eredugarria eta etsenplua dira gakoak. Ikuspegi honetatik, belaunaldi berriek kultura kooperatibista jasotzen dute, transmisioa egin egiten dela erraz ikus daiteke¹⁶⁶.
- Bide «estrategikoa». Kooperatibismoak arrazionalizazio altuagoa behar du, eta gogoetarako eta eztabaidarako komunikazio espazioak sortu behar ditu. Zentzu horretan, osmosi bidezko transmisioa dagoeneko ez da nahikoa, kooperatibismoa eta bere ikuspegia «ezkutuko» errealitate bilakatzen ari baita. Kooperatibismoak gizarte bizitzan eta pertsonen identitatean leku bat gura badu, lekua egin egin behar du, eta bere bereizgarritasuna berreraikitzen eta aldarrikatzen hasi.

Bigarrenari honi buruz zerbait gehiago esan nahi nuke. Eguneroko lan-bizipenak balore eta zentzuen transmisioa ziurtatzeko duen ahalmenetik harantzago, eta horrekin batera, zentzu kooperatibisten transmisioak gaur beharrezkoa du arrazionalizazio maila altuagoa. Beharrezkoa du transmisio intelektualala.

Gaur aldaketa historikoz jositako garaia bizi dugu, eta aldintza hauetan, osmosi bidezko transmisioa ez ote da kooperatibismoaren proposamena bestelako mezu eta ikuspegi anitzez osatutako espazioa sozialean abandonatzea? Espazio soziala okupatzen duten indar ideologikoak, errealitatearen definizioak eta era guztietako mezuak borroka sinboliko handian bizi dira, gizartea errepresentatzeko gaitasun handiena nork lortuko borrokan. Kooperatibismoak, bizirik iraun nahi badu, indar kultural eraginkorra izan nahi badu, beste plano batean jartzea behar du, soilik plano horretan burutu ahal izango baita berau birpentsatzeko, birplanteatzeko eta indarberritzeko zeregina.

Erazegia litzateke pentsatzea plano hori sekula ez dela existitu. Hori ez da horrela baina; are gehiago, plano intelektualago horrek Arrasateko kulturen garrantzi handia izan du, bai hasieran nola geroko garapenean. Arizmendiarrietak berak zuen, nagusiki, horren ardura, esan zaigun moduan, gogoeta-egile aparta baitzen berau

¹⁶⁶ «Desde el punto de vista de la generación de hombres cooperativos, el propio sistema, la propia cooperativa está regenerando, está generando nueva gente, nuevos valores que asumen la razón social» (B-A/196/Mongelos).

(«[el debate, la reflexión] Era una de las típicas acciones de Don José María. Solía decir mucho; tenía capacidad de pensar y reflexionar en voz alta»). AKEren izaera praktikoa sarritan azpimarratu da, baina, errazago ahazten da gidaritzza ideologiko eta intelektualak eman diola iparra.

Hots, kooperatibismoaren indar berritze bat behar da plano subjektibo eta kulturean, mentalitateen alorrean. Kontzientzia eta subjektu kooperatibista biziberritu behar. Ez da izango birsortzeko inolako aukerarik, hezkuntzari eta belaunaldi berrien formazioari dagokien garrantzia ematen ez bazaie. Ez da izango ez imaginario kolektiboa berritzeko aukerarik, ez subjektu kooperatibista berreraikitze biderik, baldin eta ez badago hezkuntza-estrategia eraginkorrik. Eta berau gaurko munduaren koordinada berrietan ondo errotuta beharko da egon. Kontzientzia eta subjektu kooperatibista biziberritu behar da, eta hezkuntza ez da nahikoa horretarako, baina bai guztiz beharrezkoa.

Euskal Herriaren aldeko hautua

Euskal-herrigintzaren motibazioa oso presente egon da Arrasateko kooperatibismoan, baina, aldi berean, hainbat indarrek estutu izan dute, nagusiki kooperatibek euskal lurraldea gainditu dutenetik. Lau aitatuko ditugu:

- Batetik, Espainiako merkatuan dauden interes ekonomikoak daude eta, ondorioz, Euskal Herriarekiko gehiegizko atxikimenduak gatazka testuinguru batean sor ditzakeen arazoak. Euskal izaera nazionala publikoki aldarrikatzea arriskutsua da Espainiako merkatutik hain nabarmen elikatzen den Arrasateko kooperatibismoarentzat; jakina da gatazka politikoaren testuinguruan izugarri oldarkorra dela nazionalismo espainola (eta jakina da boikot operazioak planteatu direla Espainiatik; Kataluinak ere badaki zer den hori).
- Kanpo faktore horren ondorioz, Arrasateko kooperatibismoaren barruko erresistentziak ere hortxe daude (neurri handi batean Espainiarekiko morrontza ekonomikotik datozenak). Zenbait kooperatibisten barruak deseroso jartzen dira nazioaren aldeko formulazio konbentzituuegi batekin (edo euskararen aldeko jarrera garbiegi batekin). Zenbait kasutan formulazio sendoak konpartitzen ez direlako, edo konpartituta ere, erresonantzia politikoegiak aurkitzen zaizkiolako.
- Beti existitu den aspektu bat: kooperatibismoaren autonomia (neutraltasun) politiko-partidista oinarritzko printzipio historikoa da. Ondorioz, esango zaigu inplikazio politiko ezin dela instituzionala izan (are gutxiago estaturik gabeko nazioarekiko atxikimendua), indibiduala baizik. Modu horretan, gizartea zeharkatzen duten arazo sozial, laboral, nazional edo kulturalak ez dira ulertzen mugimendu kooperatibistaren gogoeta- edo jarduera-objektu gisa, ezpada kooperatibista bakoitzarena berak hala nahi izanez gero.
- Globalizazio ekonomiko garaian gertatzen ari den nazioartratezko prozesua ezaguna da (esportazioetan, inbertsioetan eta ezarpenetan), kanpo merkatuetara hedatzeko dagoen beharrezko alegia, eta horrek bistakoa da nazio-identitatea

ukitzen duela. Kooperatiben jardunak aspaldi gainditu zuen euskal lurraldea eta joera honek indarra egiten du Arrasateko kooperatiben identitatea «multinazional» izaerarantz mugiarazteko eta euskal izaera ahultzeko.

Argi dago globalizazio garaian herrigintzaren motibazioa mugitzen ari dela. Horrek ez du esan nahi, gure usteen, esperientziaren euskal izaera birrintzen ari denik, ezta gutxiago ere. Baina, baldintza berrietan, globalizazioaren aroan, badi-rudi izaera hori birnegoziatzen eta birkokatzen ari dela nolabait. Kooperatibisten artean irudi zaigu gutxienez bi norabidetan ari dela mugitzen euskal-herrigintzaren motibazioa:

- Herrigintzaren aldeko formulazioak erlatibizatzeko edo ukatzeko saiakerak egiten dira, batetik. Ikuspegi honetatik, kooperatibismoak betidanik oso berea izan duen printzipioa, komunitatearen sustapena alegia, naziogintza osagaiez biluztu edo hustu behar da (Euskal Herriak utzi dio jokaleku ekonomiko-enpresarial bakarra izateari eta, ondorioz, utzi dio sustapenerako komunitate bakar izateari). Gainera, esango da, kooperatibismoak zein Arzimendiarrietaren pentsamenduak «komunitateaz» hitz egiten dute, inguruneaz, baina beti oso modu orokorrean eta naziogintzaren aldeko konnotaziorik gabe. Hots, komunitatearen eta ingurunearen kontzepzio despolitizatua edo ez-nazionala agertzen zaigu. Kooperatibismoak ez du frontierarik, tokian tokiko garapena bilatzen du eta tokian tokiko identitatea, ez identitate bakarra. Baliteke interpretazio hori berria ez izatea, eta seguruenera beti existitu izan da. Kontua da seguru asko diskurtso horiek indartzeko baldintza objektibo egokiagoak bizi ditugula gaur. Beraz, globalizazio garaietarako hizkuntza erosoagoa proposatzen zaigu, naziogintzak dituen inplikazio politiko deserosoak baztertzeko baitira eta, baita ere, naziogintzaren motibazioak nazioarteratze prozesuari ezartzen dizkion muga eta erresistentzia psikologiko-identitario-kulturalak.
- Euskal herrigintzaren aldeko formulazioak erlatibizatu edo ukatzeko saiakerekin batera, motibazioari eutsi nahi diotenen artean batzuk formulazioa *aldatzen* ari dira. Gutxienez bi norabidetan. Batetik, kanpo ezarpenak Euskal Herriaren garapenerako beharrezkoak direla esango zaigu, nazioarteratzeak Euskal Herriarekiko konpromiso galera bat dakarrelako tesiari kontra eginez eta kontrakoa esanez; hots, kanpo ezarpenek (eta leku-aldatzeek) enpresa ikuspegitik aurrera egitea dakarkigute, hazkuntza ekonomikoa ahalbidetuz, eta horrek onurak dakarkio Euskal Herriari. Beraz, diskurtso honen arabera nazioarteratzea Euskal Herriaren aldeko hautua da. Diskurtso honek, aldi berean, lekualdatzeei alternatibak bilatu behar zaizkiola azpimarratzen du (bailio erantsi handiagoko gaurko zereginak Euskal Herrian geratuko lirateke eta beste batzuk asmatu beharko lirateke). Bestetik, euskal-herrigintzak adiera indartsua eskuratu du azken urte edo hamarkadatan: euskararen aldeko hizkuntza politikak leku nabarmena hartu dute kooperatibetan, eta, herrigintzaren «bira kulturalista» edo «hizkuntzazko» horrek, eta gisakoek, nazioarteratzeak dakarren problematizazio eta dilemetatik irteteko, edo berauek leuntzeko, aukera dakarte. Hots, globalizazio garaian herrigintzak forma sendoa har dezake euskararen bidetik.

Egin dezagun aurrera. Argi dago globalizazio garaian munduaren luze-zabalean hedatutako esperientzian, zentzu- eta esanahi-sare transnazionala osatu beharko dela hein batean, eta, aldi berean, Euskal Herriarekin hartutako konpromisoari eutsi. Ez da erraza izango. Batetik, koherentzia kooperatibistak eskatuko luke kanpo ezarpenak kooperatiba bidez burutzea, edo gutxienik kanpoko konstelazioa formula partehartzailez ondo hornitzea (nolabaiteko erabakimena eskaintzea gestioan, erabakietan eta kapitalean). Bestetik, euskal izaerari eustea, esan beharrik ez dago, lehentasuna izan beharko litzateke herrigintzaren ikuspegiarentzat eta, beraz, Arrasateko kultura kooperatibistarentzat. Hor nonbait, punturen batean, talka egiten dute biek; talka egiten dute koherentzia kooperatibistak eta esperientziaren euskaltasunak: zenbat eta gehiago sakondu Euskal Herritik kanpo sustatu beharreko eredu partehartzailean, orduan eta erabakimena barreiatuago. Aterabidea oreka kontua izan beharko da, eta sormena beharko da (inteligentzia juridiko eta organizatiboa) dilema horri aterabidea aurkitzeko.

Edozein kasutan, badirudi «euskal izaera» birnegoziatzen eta birkokatzen ari dela. Sasoi batean Euskal Herria ekonomikoki indartzean zetzan konpromisoa, bertako baliabideak bertan inbertituz. Nazioarteratze prozesuak ez lioke printzipio horri uko egin behar; are gehiago, enpresen lekualdatzeak min handia eragiten ari diren honetan. Lekualdatzeak derrigorrezkoak izango dira zenbait kasutan, uste baino higituago izan dezakegu urte gutxiren buruan euskal paisaia industrialia; eta kasu horietan, merkatu globalaren exijentziek beste biderik uzten ez dutenean, alternatibak asmatu beharko dira euskal lurraldean. Jakin badakigu horretan ari direla AKEren zenbait sektore.

Eta esandakoa: Euskal Herriarekin konpromisoan beste bide batzuk ere badira. Kooperatibek puntako lana egiten dihardute euskararen aldeko hizkuntza politiken alorrean, euskararen biziraupenerako hain estrategikoa den lanaren munduan urratsak emanez.¹⁶⁷ Bide oparoa da etorkizunera begira, dudarik ez; zentzu hornitzailea eta konpromiso sozialaren adierazle garbia.

Bi apunte nazioarteratzeaz

AKEren zentzu-kartografia klasikoa, hein handi batean, gizarte mendebaldar-modernoaren berbera da (klasea, nazioa, fedea, progresoa...). Gaur, kooperatibak mundu osoko geografia ezagutzen ari diren honetan, zentzu-geografia birpentsatu beharra dago. Mundu berrian taxuz orientatzeko pentsamendu-mapak berregin behar dira.

Kooperatiben nazioarteratzeak —kontuan izanik honek industria arloko kooperatibei eragiten diela nagusiki— mehatxuz beteriko prozesua izan daiteke ala, bere zailean, aukerak ere eskaintzen dituen aldaketa historikoa. Nazioarteratzeak zenbait potentzialitate izan ditzake ondoko estrategian sartzan bada:

¹⁶⁷ Amagoia Unanue eta Nahia Intxausti, *Kooperatibak eta euskara. Historia eta aro berri baten oinarriak*, Mondragon Unibertsitateko Lanki Ikertegia, Eskoriatza, 2002.

- Enpresa motibazio hutsetik haratago, Ipar/Hegoa kontradikzioaren motibazio-tik ere abiatzen bada.
- Onura fluxuak herri aberatsetatik herri pobretuetara bideratzen badira, ez alderantziz.
- Legalitatea betetzetik haratago, hartzaileak diren herrialdeetan jarduera enpresariala aurrera eramatean erantzukizun sozial eta ekologikoari erreparatzen baldin bazaio.
- Garapen erregionalaren estrategiatik planteatzen bada.
- Autogestioaren ikuspegi ideologikotik heltzen bazaio, mundu zabalean alianztzak eginez parametro horietan kokatzen direnekin.
- Finean, globalizazioak dakartzan arrisku eta arazoei buruzko gogoetatik abiatzen bada (estandar demokratiko, ekologiko eta sozialak jarraituko duen enpresa-ekinbidea), ez bakarrik errentagarritasun ekonomikotik.

Kooperatibista izateak gizarte posizio berezira lotzen segitzen du, baita globalizazio garaian ere. Gizarte posizio berezia eta interesgarria. Kooperatibistak eurak dira lekualdatzeen inguruan, edo nazioarteratze prozesuaren ganean, erabakiak hartu behar dituztenak. Posizio horrek zerikusirik ez du administrazio publikotik (funtzionarioak) edo ekonomia globaletik jaten duen herritarraren posizioarekin: hauek munduko ekonomiaz etekina ateratzen dute, baina erabaki zuzenik hartu barik. Horregatik, batzbesteko herritar mendebaldarra kexu ager daiteke munduko egoeraren penagarriaz, oso kexu ager daiteke harreman ekonomiko desorekatu eta injustuez, eta, bitartean, bizi-maila ez eutsigarriari sendo atxikita bizi. Kooperatibistaren kasuan, ordea, berak erabakitzen du bere enpresaren ekinbidearen diseinua eta, ondorioz, posizio ezin hobean da globalizazio garaiko kontraesan eta desafioak zuzen bizitzeko. Nago interesgarriagoa dela postura hori, gaurko ekonomiaren antolamendutik etekin dezente atera eta MCCren arrakasta ekonomiko inkoherenteaz kexu den euskaldun-mendebaldar asetuarena baino.

Modernitate kapitalistaren atrofari alternatiba bila

Finean, Alain Touraine-ekin bat gatoz honetan: Max Weberrek aztertu zuen modernitatea ez dela izan daitekeen bakarra. Zentzu horretan, AKE desafio garrantzitsu baten ordezkari da, bere apalean bada ere: AKEk erakutsi diezaguke logika instrumentalak ez dituela zertan txikituta utzi balioak eta bestelako zentzu oro. AKEk, eraginkortasuna eta zentzuak uztartuz, borroka egin beharko du arrisku handi baten aurka: bere burua haztea beste helbururik ez duen egitasmo bat izatea, bitarteko handi eta indartsuen unibertso iparrik gabea.

Zentzu horretan, hazkunde ekonomikoa garapen eredu jakin batekin lotu beharko da, estandar sozial, etiko, demokratiko eta ekologikoak errespetatuko dituenarekin. AKEn desafioa ez baitatza ekonomikoki haztean. Hazkuntza ekonomikoa lortu beharko da bestelako irizpide batzuekiko lotura estuan: irizpide demokratikoak, sozialak, kulturalak, ekologikoak eta elkartsunezkoak.

Eginkizun horretan, Arrasateko kooperatiben mugimendua era defentsiboan aritu daiteke. Hau da, gogo txarrez eta irizpide horiek eraginkortasun ekonomikorako

trabak baino ez direla sinetsita. Beste aukera bat ere badu: bere xumean, bide berriaz sinetsita, enpresa izateko eta egiteko era berri baten aldeko pausoak erakuts ditzake. Bestelako globalizazio baten aldeko irizpideen lortzean koka daiteke. Ez da erraza izango hori, ahitze ideologikoa handia baita. Baina ez dago aurrez ezer idatzita, etorkizuna eraikitzeke dago. Gainera, badaude aldeko indarrak: eztabaidarako disposizio eta gogoia; erantzukizun sozialari zein demokraziari bultzada berria eman nahia; nazioarteratze prozesuan enpresa-eredu partehartzaileagoa bilatzeko asmoa; hirugarren munduaren inguruan sorturiko erakundea (Mundukide); euskararen arloan emandako urratsak...

Mendebaldeko gizarte modernoetan betidanik izan da ekonomia eta enpresa ulertzeko modu osoago bat. Hau da, egitasmo etikoari eta gizarteari lotutako modu bat, bereziki Gizarte Ekonomiaren eskutik. Gizarte Ekonomia, eta kooperatibak haren adierazpen puruena bezala, jantzi juridiko jakin bat baino gehiago, ekonomiaren munduan kokatzeko modu bat izan da: logika ekonomikoa bestelako gizarte-logika batzuekin lotu nahi izan du. Diru-irabazia ez da ikusten helburu gisa *per se*, baizik eta gizakiaren garapen osorako tresna gisa. Ekonomia Sozialaren iparra ez da zenbait etika-osagai enpresaren jardunean txertatzea, baizik eta bere burua proiektu etikotzat definitzea. Eraikuntza soziala eta kohesio soziala helburu dituen egitasmo etikoa da, eta horretarako enpresa-jardueraz baliatzen da.

Ganorazko birsortzearen aldeko ahalegina egiten ez bada, kooperatibismoa, eta gizarte-ekonomiaren beste forma batzuk, ibilbide antzuan abiatuko dira: enpresa-formula edo teknika huts bihurtuko dira. Arrakasta ekonomiko handiagoa ala txikiagoa izango du, baina ez du lortuko bere inguruan biltzea belaunaldi berrien energia eraldatzaileak. Bide horretatik, kooperatibismoa datorkigun munduaren eszenatoki identitario eta sinbolikotik kanpo geratuko da. Birplanteatzen baditu bere pentsaeraren oinarriak eta etorkizuneko praxi-ildoak, ez dago argi bere berezko begiratu eta ikuspegiarentzat espazioa lortuko duenik, baina saiatu behar. Eta gure munduak behar du, beharbada sekula baino gehiago, irudimena eta ausardia. Behar ditu eraldatzeko bokazioa duten esperientziak.

BIBLIOGRAFIA

- ADORNO, THEODOR W.: *Educación para la emancipación*, Morata, 1988.
- ALONSO, L.E.: *La mirada cualitativa en sociología*, Fundamentos, 1999.
- ANDERSON, Perry: *Tras las huellas del materialismo histórico*, Siglo XXI, Madrid, 1986
- ANGUEIRA MIRANDA, Miguel Angel: *Hacia la comunidad cooperativa libre. Por una Revolución Social al margen del poder y la violencia*, Intcoop, Buenos Aires, 1975.
- ARANZADI, Dionisio: *Cooperativismo industrial como sistema, empresa y experiencia*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1976.
- ARANZADI, Dionisio: «Orígenes históricos y asentamientos ideológicos del asociacionismo socioeconómico», *Congreso de Cooperativismo*, Deustuko Unibertsitatea, 1988.
- ARANZADI, Dionisio: «La empresa cooperativa y sus ventajas competitivas», *Estudios Empresariales*, LIV bol., 167 zka., Este, Donostia.
- ARRIETA, Leyre et al.: *El movimiento cooperativo en Euskadi (1884-1936)*, Sabino Arana Kultur Elkargoa, 1998.
- ATXABAL, Juana: *Narziso berriaz gogoetak*, UEU, Bilbo, 1992.
- AUSTIN MILLAN, Tomas: «La dimensión social de la depresión: Una mirada desde la modernidad», http://www.geocities.com/tomaustin_cl/.
- AZKARRAGA ETXEGIBEL, Joseba: *Diruak behar luke bihotzik*, Pamiela, Iruñea, 2005.
- AZKARRAGA ETXEGIBEL, Joseba: *Mendebaldearen mintzo mindua. Begiratu kritikoa gizarte eta kultura modernoari*, BBK-Euskaltzaindia, Bilbo, 2006.
- AZKARRAGA ETXEGIBEL, Joseba: *Modernitate kapitalistari kritika: Weber, Frankfurteko Eskola, Habermas*, UEU, Bilbo, 2006.
- AZURMENDI, Joxe: *El Hombre Cooperativo*, Astaza-Otalora, 1992.
- AZURMENDI, Joxe: «La idea cooperativa: del servicio a la Comunidad, a su nueva creación», *Gizabidea Fundazioa*, 1996ko azaroa, Arrasate.
- BAQUÉ, Philippe: «¿Qué es la economía solidaria?», *Hika*, 59 zka., 1995eko uztaila/abuztua.
- BARCELLONA, Pietro: *Postmodernidad y comunidad. El regreso de la vinculación social*, Trotta, 1999.
- BARCELLONA, P.: *El individualismo propietario*, Trotta, Madrid, 1996.
- BAREA TEJEIRO, José eta MONZÓN CAMPOS, José Luis: *El Libro Blanco de la Economía Social*, Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, 1992.
- BAUMAN, Zygmunt: *Comunidad. En busca de seguridad en un mundo hostil*, Siglo XXI, 2003.
- BAUMAN, Zygmunt: *Modernidad y Holocausto*, Sequitur, 1997.

- BAUMAN, Zygmunt: «Individualmente, pero juntos», Beck eta Beck-Gernsheim
- BECK, U.: *¿Qué es la globalización?*, Paidós, Bartzelona, 1998
- BECK, U.: *La sociedad del riesgo global*, Siglo XXI, Madril, 2002
- BECK, U.: *Un nuevo mundo feliz. La precariedad del trabajo en la era de la globalización*, Paidós, 2000
- BECK, U.: *La democracia y sus enemigos*, Paidós, 2000,
- BECK, Ulrich: «Vivir nuestra propia vida en un mundo desbocado: individuación, globalización y política», Anthony Giddens eta Will Hutton, *El límite. La vida en el capitalismo global*, Tusquets, Bartzelona, 2001
- BECK, U.: «Reformulación de una posición de izquierdas más allá de la izquierda y de la derecha. Re-regulación democrática», *Archipiélago*, 45 zka
- BÉJAR, Helena: «Una época de frío moral: la sociología comunitarista de Robert N. Bellah», *REIS*, 74 zka., 1996
- BELL, Daniel: *El advenimiento de la sociedad post-industrial*, Madril, Alianza, 1994
- BELLAH, R. et al., *Hábitos del corazón*
- BENEVIDES PINHO, Diva: *Evolución del pensamiento cooperativista*, Intercoop, Argentina, Cuadernos de Cultura Cooperativa, 76 zka
- BERGER, P.L.: *Para una teoría sociológica de la religión*, Bartzelona, Kairós, 1981
- BERGER, P.; BERGER, B.; eta K. HANSFRIED: *Un mundo sin hogar. Modernización y consciencia*, Sal Terrae, Santander, 1979
- BERGER eta LUCKMANN, *Modernidad, pluralismo y crisis de sentido. La orientación del hombre moderno*, Paidós, Bartzelona, 1997
- BERIAIN, Josetxo: *Estado de Bienestar, planificación e ideología*, Editorial Popular, Madril, 1990
- BERMAN, Marshall: *Todo lo sólido se desvanece en el aire. La experiencia de la modernidad*, Siglo XXI, Madril, 1991
- BILBAO, Andrés: «La racionalización económica y la secularización», *REIS*, 74 zka., 1996
- BIHR, Alain: «El neoliberalismo y los retos actuales del movimiento obrero», <http://www.memoria.com.mx/131/>
- BOFF, Leonardo: *El cuidado esencial. Ética de lo humano, compasión por la tierra*, Trotta, Madrid, 2002
- BRADLEY eta GELB, *Cooperativas en marcha*, Bartzelona, Ariel, 1985
- BRUNI, Luigino (koord.), *Economía de Comunión. Por una cultura económica centrada en la persona*, Ciudad Nueva, Madrid, 2001
- BRUNNER, J.J.: «Apuntes sobre el malestar frente a la Modernidad: ¿transfiguración neo-conservadora del pensamiento progresista?»; http://www.geocities.com/brunner_cl/listado.html
- BUENDIA, Inmaculada: «La participación democrática: ¿un valor en extinción en las sociedades cooperativas?», *Revista de Economía pública, social y cooperativa*, CIRIEC, 34 zka., 2000eko apirila
- CALETTI, Alberto Mario: *Iniciación, desarrollo y porvenir del cooperativismo*, Intercoop, Buenos Aires, 1983
- CASTEL, Robert: *Metamorfosis de la cuestión social*, Paidós, Bartzelona, 1997
- CASTELLS, Manuel Castells, *La era de a información. Vol.2 El poder de la identidad*, Alianza, Madril, 2001
- CONILL, Jesús: «Marco ético-económico de la empresa moderna», Adela Cortina et al., *Ética de la empresa. Claves para una nueva cultura empresarial*, Trotta, 2000
- COQUE MARTÍNEZ, Jorge: «Eficiencia y promoción del cooperativismo: una revisión histórica de las bases conceptuales», *REVESCO*, 73 zka.
- CORTINA, Adela: *Ética de la empresa. Claves para una nueva cultura empresarial*, Trotta, Madrid, 2000

- CORTINA, A.: *Crítica y utopía: la Escuela de Francfort*, DIP
- CRAIB, Ian: *Modern Social Theory. From Parsons to Habermas*, Harvester Wheatsheaf, London, 1992
- CHULVI, Berta: «Las cooperativas: sus relaciones con el entorno y su comunicación con la sociedad», Federación Valenciana de Trabajo Asociado, <http://astro.es/fvecta/principio2.doc>
- CHENEY, G.: *Values at work: Employee Participation Meets Market Pressure at Mondragón*, Ithaca, NY, Cornell University Press, 1999
- DAHRENDORF, R.: *El conflicto social moderno*, Mondadori, Madrid, 1990
- DAR, Yechezkel: «Communality, Rationalization and Distributive Justice. Changing Evaluation of Work in the Israeli Kibbutz», *International Sociology*, bol. 17, 1 zka., 2002ko martxoan
- DIETERICH, Heinz: *La democracia participativa. El socialismo del siglo XXI*, Gara egunkariak argitaratutakoa, Baigorri Argitaletxea, 2002
- DRIMER, B. eta DRIMER, A.K.: *Compendio de cooperativas*, Ediciones Intercoop, Buenos Aires, 1985, 2. edizioa
- DURKHEIM, E.: *El suicidio*, Akal, Madrid, 1989
- ELIAS, Norbert: *El proceso de la civilización. Investigaciones sociogenéticas y psicogenéticas*, FCE, 1993
- ELIAS, Norbert: *La sociedad cortesana*, FCE, 1993
- ELIAS, Norbert: *La sociedad de los individuos*, Península, 1990
- ELIAS, Norbert: *La soledad de los moribundos*, FCE, 1987
- ERRASTI, A.M.: *Kooperatiben garapena globalizazioaren garaian: nazioarteko hedapenaren politika sozioekonomikorako gakoak*, Doktore Tesia, Donostia, 2002
- ETZIONI, *La Tercera Vía hacia una buena sociedad. Propuestas desde el comunitarismo*, Trotta, Madrid, 2001
- FERNÁNDEZ DEL RIESGO, Manuel: «La posmodernidad y la crisis de los valores religiosos», in G. Vattimo eta beste batzuk: *En torno a la posmodernidad*, Anthropos, Barcelona, 1994
- FERNÁNDEZ DURÁN, Ramón: *La explosión del desorden. La metrópolis como espacio de la crisis global*, Fundamentos, 2 edizioa, 1993
- FERNÁNDEZ DURÁN, Ramón: *Capitalismo (financiero) global y guerra permanente. El dólar, Wall Street y la guerra contra Irak*, Virus, 2003
- FLECHA, RAMÓN; Gómez, Jesús eta Puigvet, Lidia: *Teoría sociológica contemporánea*, Paidós, 2001
- FOUCAULT, M.: *Hermeneútica del sujeto*, La Piqueta, Madrid, 1994
- FREUD, S.: *El malestar en la cultura*, Alianza, Madrid, 1970
- FRIEDMAN, M.: «The Social Responsibility of Business is to Increase its Profits», *New York Times Magazine*, 1970eko irailaren 13an
- FROMM, Erich: *El miedo a la libertad*, Paidós, 1993
- FROMM, Erich: *Psicoanálisis de la sociedad contemporánea*, FCE, 1990
- FROMM, Erich: *Ética y política*, Paidós, 1993,
- FROMM, Erich: *Sobre la desobediencia*, Paidós, Barcelona, 1984
- GADEA, Enrique: *Evolución de la legislación cooperativa en España*, Euskadiko Kooperatiben Goren-Kontseilua, 1999
- GARCÍA, Oihana: *Partehartzea enpresan. Begiratu historikoa, begiratu kritikoa eta lankidetzaren begiratura*, Lanki, Mondragón Unibertsitatea, 2003
- GARCIA JANÉ, Jordi; VIA LLOP, Jordi; eta XIRINACS DAMIANS, Lluís M.: *La dimensió cooperativa. Economia social i empresa al segle XXI*, Icaria, 2001
- GIDDENS, Anthony: *Sociología*, Alianza, Madrid, 2000

- GIDDENS, Anthony: *El capitalismo y la moderna teoría social*, Labor, Barcelona, 1988
- GIDDENS, A.: *Modernidad e Identidad del Yo. El Yo y la Sociedad en la Época Contemporánea*, Península, Barcelona, 1995
- GIDDENS, A.: *Un mundo desbocado. Los efectos de la globalización en nuestras vidas*, Taurus, Madrid, 2000
- GIDDENS, Anthony: *La Tercera Vía. La renovación de la socialdemocracia*, Taurus, España, 1999
- GINER, Salvador: *Carisma y razón. La estructura moral de la sociedad moderna*, Alianza, Madrid, 2003
- GINER, Salvador: *Historia del pensamiento social*, Ariel Historia, Barcelona, 1999
- GORZ, Ander: *Metamorfosis del trabajo*, Sistema, Madrid, 1995
- GREENWOOD D.J. eta GONZALEZ J.L.G.: *Industrial Democracy as Process: Participatory Active Research in the Fagor Co-operative Group of Mondragon*, Stockholm, The Swedish Centre for Working Life, 1991.
- GUI, Benedetto: «Organizaciones productivas con fines ideales y realización de la persona: relaciones interpersonales y horizontes de sentido», in Luiginio Bruni (koord.), *Economía de Comunidad. Por una cultura económica centrada en la persona*, Ciudad Nueva, Madrid, 2001
- HABERMAS, Jürgen: *Teoría de la acción comunicativa I y II*, Taurus, Madrid, 1992
- HABERMAS, J.: *Ciencia y técnica como ideología*, Tecnos, Madrid, 1988
- HABERMAS, J.: *El discurso filosófico de la modernidad*, Taurus, Madrid, 1989
- HABERMAS, J.: *La necesidad de revisión de la izquierda*, Tecnos, Madrid, 1996
- HABERMAS, Jürgen: *Problemas de legitimación en el capitalismo tardío*, Buenos Aires, Amorrortu, 1975
- Hainbat Autore: *Habermas y la modernidad*, Cátedra, Madrid, 2001
- Hainbat Autore, *Lankidetza, Arizmendiarietaren eraldaketa proiektua*, Lanki Ikertegia, Eskoriatza, 2000
- HERAS, Iñaki: *txanponaren bi aldeak. Ekonomiaren mito eta elezaharrak*, Alberdania, 2003
- HILLMANN, Karl-Heinz: *Diccionario Enciclopédico de Sociología*, Herder, Barcelona, 2001
- HOBBSBAWN, Eric J.: *Entrevista sobre el siglo XXI*, Crítica, 2000
- HORKHEIMER, Max: *Crítica de la razón instrumental*, Buenos Aires, Sur, 1977
- HORKHEIMER, M.: *Teoría Crítica*, Barcelona, Barral, 1973
- HORKHEIMER, Max eta Adorno, Theodor W., *Dialéctica de la Ilustración. Fragmentos filosóficos*, Trotta, Madrid, 1998
- IBÁÑEZ, Tomás: *Municiones para disidentes*, Gedisa, Barcelona, 2001
- INGLEHART, Ronald: *El cambio cultural en las sociedades industriales avanzadas*, CIS, Madrid, 1991
- INNERARITY, D.: «Una economía de la hospitalidad», *Anthropos*, 188 zka.
- IRURETAGOYENA, J.; GRAFULLA, C.; IRURETAGOYENA, C.; eta BILBAO, L.: *La Economía Social. Una nueva forma de vida para el País Vasco*, Eusko Jaurilaritza Gasteiz, 1990
- KASMIR, Sharryn: *El mito de Mondragón. Cooperativas, política y clase trabajadora en una ciudad del País Vasco*, txalaparta, Tafalla, 1999
- KÜNG, Hans: *Una ética mundial para la economía y la política*, Trotta, 1999
- KÜNG, Hans eta KUSCHEL, Karl-Joseph: *Hacia una ética mundial. Declaración del Parlamento de las Religiones del Mundo*, Trotta, Madrid, 1994
- LAIDLAW, Alexander F.: *Las cooperativas en el año 2000*, Intercoop, Buenos Aires, 1981
- LASCH, Christopher: *La cultura del narcisismo*, Andres Bello, Barcelona, 1999
- LASH, Scout: «Individualización a la manera no lineal», Ulrich Beck eta Elisabeth Beck-Gernsheim, *La individualización. El individualismo instituido y sus consecuencias sociales y políticas*, Paidós, 2003

- LAVERGNE, Bernard: *El socialismo con rostro humano*, Intercoop, Buenos Aires
- LIPOVETSKY, Gilles: *El crepúsculo del deber. Una ética indolora para los nuevos tiempos democráticos*, Anagrama, Barcelona, 1994.
- LIPOVETSKY, Gilles: «Individualismo y solidaridad en la cultura empresarial», hainbat autore: *Ética y empresa: una visión multidisciplinar*, Fundación Argentaria, Madrid, 1997
- LORENDAHL, Bengt: «Trabajo y bienestar a través de las organizaciones del Tercer Sector», *Revista de Economía pública, social y cooperativa*, CIRIEC, 33 zka., 1999eko abendua
- LOZANO, Josep M.: *Ética y empresa*, Trotta, 1999
- LOWY, Michael: «Barbarie y Modernidad en el siglo XX», Foro Social Mundial, Biblioteca de las Alternativas, saretik hartu dugu idatzia: <http://www.iade.org.ar/FSM/articulos/barbarie.doc>
- LOWY, Michael: «Ética, política y utopía societaria», Pastor, Rendueles eta Varela (ed.), *Neoliberalismo vs. democracia*, La Piqueta, Madrid
- LUCKÁCS, Georg: *Historia y conciencia de clase*, Orbis, 1985
- MACIONIS, John J., eta PLUMMER, Ken: *Sociología*, Prentice Hall, Madril, 2001
- MARDONES, J. M.: *El discurso religioso de la modernidad. Habermas y la religión*, Anthropos, Bartzelona, 1998
- MARDONES, J.M.: *Razón comunicativa y teoría crítica*, UPV, Bilbao, 1985
- MARCUSE, Herbert: *El hombre unidimensional. Ensayo sobre la ideología de la sociedad industrial avanzada*, Seix Barral, Barcelona, 1969
- MARCUSE, H.: «Socialismo o barbarie», *Materiales de Sociología Crítica*, La Piqueta, Madrid, 1986
- MATHEWS, Race: «Ethics and Inclusion: Mondragon and the Workplace Relationship», *Etika-Enpresa Jardunaldiak*, HUIHEZI - Mondragon Unibertsitatea, Eskoriatza, 2001eko maiatza
- MCCARTHY, Th.: *The Critical Theory of Jürgen Habermas*, Cambridge, Mass-Londres, 2ªed., 1982
- MEISTER, Albert: *Los sistemas cooperativos: ¿Democracia o tecnocracia?*, Editorial Nova Terra, Bartzelona, 1969
- MELUCCI, A.: *Vivencia y convivencia. Teoría social para una era de la información*, Trotta, 2001
- MENDIZABAL, Antxon: «Autogestión y mercado», *Hika*, 91 zka., 1998ko uztaila
- MOMMSEN, W.: *Max Weber: sociedad, política e historia*, Buenos Aires, Alfa, 1981
- NAREDO, J.M.: «Sobre el «pensamiento único»», *Archipiélago*, 29 zka
- OLABE, Mikel: «Lankideak. Una mirada sobre nosotros mismos», *Hika*, 91 zka., 1998ko uztaila
- ORMAETXEA, Jose Maria: *Medio siglo de la Experiencia Cooperativa de Mondragón*, Otalora, 2003
- ORMAETXEA, J.M.: «Cambios. El cooperativismo de Arrasate visto por un fundador», *Hika*, 91 zka., 1998ko uztaila
- ORTEGA BARRIUSO, Fernando eta CEREZO MORQUILLAS, Néstor: *Al calor de la autogestión CYFISA: la utopía vivida*, Hilo Negro, 1996
- ORTI, Alfonso: *El análisis de la realidad social. Métodos y técnicas de investigación social*, Alianza, Madrid, 1990
- PERDIGUERO, Tomás G.: *La responsabilidad social de las empresas en un mundo global*, Anagrama, 2003
- PÉREZ ADÁN, J.: *La salud social. De la socioeconomía al comunitarismo*, Trotta, Madril, 1999
- PÉREZ ADÁN, «La aportación de la socioeconomía al debate sobre el sentido de la economía en el mundo moderno», *Archipiélago*, 188. zka.

- PÉREZ FERNÁNDEZ, Edmundo: «La participación como elemento constitutivo de las empresas de la Nueva Economía Social», *Revista de Economía pública, social y cooperativa*, CIRIEC, 40 zka., 2002eko apirila
- POLANYI, Kart: *La gran transformación. Crítica del liberalismo económico*, La Piqueta, Madrid, 1997
- RAZETO, L.M: *Los caminos de la economía solidaria*, Lumen-Humanitas, Buenos Aires, 1997
- RAZETO, L. M.: «La economía de solidaridad: concepto, realidad y proyecto», *Persona y Sociedad* aldizkarian, bol. XIII, 2 zka., 1999eko abuztua, Santiago de Chile
- RÍO, Eugenio del: *Modernidad, posmodernidad. Cuaderno de trabajo*, Talasa, Madrid
- RITZER, George: *Teoría Sociológica Contemporánea*, McGraw-Hill/Interamericana de España, 1993, Madrid
- RIVERA, Antonio eta DE LA FUENTE, Javier: *Modernidad y religión en la sociedad vasca de los años treinta*, EHU-UPV, 2000
- RODRÍGUEZ IBÁÑEZ, José Enrique: *¿Un nuevo malestar en la cultura? Variaciones sobre la crisis de la modernidad*, CIS, 1998
- ROELANTS, Bruno: «La nueva ola del cooperativismo en el mundo», *Día Mundial del Cooperativismo 2002: Sociedad y cooperativas: interés por la comunidad*, Vitoria-Gasteiz, 2002ko azaroak 27.
- ROJAS MARCOS, L.: *La ciudad y sus desafíos*, Espasa, Madrid, 1999
- ROSE, Nicolás: «El gobierno en las democracias liberales «avanzadas»: del liberalismo al neoliberalismo», *Archipiélago*, 29 zka., 1997
- RUANO DE LA FUENTE, Yolanda: *Racionalidad y conciencia trágica. La Modernidad según Max Weber*, Trotta, Madrid, 1996.
- RUIZ OLABUENAGA, J.I.: *Sociología de las organizaciones*, Universidad de Deusto, 1995
- SCHVARSTEIN, Leonardo: *La inteligencia social de las organizaciones. Desarrollando las competencias necesarias para el ejercicio efectivo de la responsabilidad social*, Paidós, Barcelona, 2003,
- SENNET, Richard: *La autoridad*, Alianza, Madrid, 1982
- SENNET, Richard: *Narcisismo y cultura moderna*, Kairós, Barcelona, 1980
- SENNET, Richard: *La corrosión del carácter. Las consecuencias personales del trabajo en el nuevo capitalismo*, Anagrama, Barcelona, 2000
- SENNET, Richard: «»La flexibilidad laboral: aparato ideológico y dispositivo disciplinario», *Archipiélago. Cuadernos de crítica de la cultura*, 40 zka., 2001eko iraila
- SERRANO, Enrique: *Legitimación y racionalización. Weber y Habermas: la dimensión normativa de un orden secularizado*, Anthropos, Barcelona, 1994
- SOLER, Francisco V.: «La identidad cooperativa como garantía de futuro: Las cooperativas de crédito ante la trivialización de sus principios», *Revista de Economía pública, social y cooperativa*, CIRIEC, 40 zka., 2002eko apirila
- SPEAR, R.: «Globalisation et strategies cooperatives», in D. Côté (koord.), *Les holdigns cooperatifs: Evolution ou transformation definitive?*, Jalons, De Boeck, Bruselas, 2001
- SPEAR, R.: «Membership strategy for co-operative advantage», *Journal for Co-operative Studies*, 33.2, 2000eko abuztua
- TOURAINÉ, Alain: *Crítica de la modernidad*, Temas de Hoy
- UNZUETA ALBERDI, Iñaki: *La crisis de la «sociedad del trabajo». De Marx a la Escuela de Frankfurt*, UPV/EHU, 2000.
- URIBARRI, Iñaki: «El otro cooperativismo», *Hika*, 59 zka., 1995eko uztaila/abuztua
- URIBARRI, Iñaki: «Transformaciones de la experiencia cooperativista de Mondragón», *Hika*, 91 zka., 1998ko uztaila

- URIBARRI, Iñaki: «La doble moral del Grupo Cooperativista MCC», *Arian* aldizkaria, 27 zka., 2001eko uztaila
- URIBARRI, Iñaki: «Estado actual del movimiento cooperativista de Mondragón», ondoko lanean: Elena Grau eta Pedro Ibarra (koord.), *Una mirada sobre la red Anuario movimientos sociales*, Betiko Fundazioa, Gakoa Liburuak e Icaria Editorial. Barcelona, 2000
- VALLESPÍN Fernando: «Habermas en doce mil palabras», *Claves de Razón Práctica*, 114 zka., 2001eko uztaila/abuztua
- VANEK, J.: *The General Theory of Labor-Managed Market Economies*, Cornell University Press, Ithaca, New York, 1970
- VARGAS SÁNCHEZ, Alfonso «De la participación en la empresa a la empresa de participación democrática», *REVESCO (Revista de Estudios Cooperativos)*, 67 zka., 1999
- VARGAS SÁNCHEZ, Alfonso: «Las sociedades cooperativas como empresas excelentes», http://www2.uhu.es/alfonso_vargas/toledo.html
- VILLASANTE, Tomás R.: *Las democracias participativas. De la participación ciudadana a las alternativas de la sociedad*, HOAC, Madrid, 1995
- WALLERSTEIN, Emmanuel: *Ecología y Costes de Producción Capitalista: no hay salida*, Binghampton University, Ferdinand Braudel Center, 1997
- WEBER, Max: *El político y el científico*, Alianza, Madrid, 1991.
- WEBER, Max: *Economía y Sociedad*, FCE, 1992.
- WEBER, Max: *Ensayos sobre Sociología de la Religión*, Taurus, Madrid, 1983
- WEBER, Max: *La ética protestante y el espíritu del capitalismo*, Península, Barcelona, 1999 (euskaraz: *Etika protestantea eta kapitalismoaren izpiritua*, Gaiak, Donostia, 1996).
- WEBER, M: *Historia Económica General*, FCE, México, 1983
- WELLMER, Albrecht: «Razón, utopía, y la dialéctica de la ilustración», hainbat autore, *Habermas y la modernidad*, Cátedra, Madrid, 2001
- WHITE eta WHITE, *Mondragón más que una utopía*, txertoa, Donostia, 1989
- ZAMBRANA, Lourdes: «Nuevas militancias para nuevos tiempos», *Cuadernos Cristianisme i Justícia*, 2002ko urtarrila
- ZELAIA, Adrian: *Kooperatibak Euskal Herrian*, Udako Euskal Unibertsitatea (UEU), Bilbo, 1997
- ZIEGLER, Jean: *La victoria de los vencidos*, Ediciones B, Barcelona, 1988
- ZUBERO, Imanol: *Las nuevas condiciones de la solidaridad*, Desclée de Brouwer, Bailbao, 1994
- ZUBERO, Imanol: *El trabajo en la sociedad*, UPV/EHU, 1998
- ZUBERO, Imanol: «El espacio de una nueva sociedad civil globalizada», *Somos. Revista de desarrollo y educación popular*, 2002ko udaberria, 1 zka.

Arrasateko kooperatibistengan bizitza gobernatzeko berezko molde baten zertzeladak aurki daitezke. *Ethos* bat, nolabait. Euskal esperientzia kooperatiboa ez baita soilik errealtate ekonomiko bat, amets batekin konektaturiko esperientzia ere bada: enpresa eraldatzea gizartea aldatzeko; herritarrek enpresa (auto)governatzea; nor bere patroi izatea, efikaziari zentzua atxikiz eta zentzuei efikazia (osagai sinboliko eta kulturalen potentziaren adibide da, hein handi batean). Arrasateko kooperatibistek *zentzu-komunitatea* osatu dute, nolabait.

Munduan garrantzitsuenetakoa den esperientzia kooperatibo honek bi alderdi josi nahi izan ditu: bizitzaren alderdi materiala (eta honi dagokion arrazionaltasun instrumentala, eraginkortasuna helburu duena) eta existentziaren dimentsio sinbolikoa (eta honi dagokion balore-arrazionaltasuna: giza ekintzari *zentzua* ematen dio, azken *zergatiaz* eta *zertarakoez* hornitzen du). Hortaz, kooperatibek bere egiten dute modernitatearen berezko tentsioa Max Weberrek zioenari jarriki, honen ustez modernitatea bi indar horien arteko tentsioa baita.

Azken urteotan Arrasateko kooperatibak asko hazi dira (negozio-bolumenean zein langile kopuruan), eta aldaketak gertatu dira kooperatibismoaren egitura objektiboetan zein subjektiboetan. Eraldaketok, zelan ez, zerikusi zuzena dute aro berriari erantzuteko premiarekin: egungo ekonomia globalizatua eta posmodernitatea.

Ikerkuntza honek Arrasateko kooperatibismoaren arkitektura kultural-identitarioan gertaturiko eraldaketa historikoak ditu aztergai, kooperatibisten subjektibotasunean eta kontzientzian, alegia. Eta atze-oihalean, Modernitateari buruzko gogoeta: arrazoi sinbolikoak dituen zailtasunak arrazoi instrumentalaren desfile oldarkorraren aurrean (bizitzaren munduaren kolonizazio hazkorra, Habermasen esanetan).

Kooperatibisten amets hura zertan den ikusi, ikerkuntzak diagnostikatu duen 'zentzu-krisia' zergatik gertatzen ari den aztertu, eta etorkizunerako zentzu eta norabide posibleak proposatu nahi izan ditugu.

Joseba Azkarraga Etxegibel

1972an jaioa, Bizkaiko Abadiño herrian.

Soziologian doktorea da (UPV-EHU). Egun soziologia irakasten du HUHEZIn, Mondragon Unibertsitateak Eskoriatzan duen Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean. Giza eta Gizarte Zientzien Departamentuko arduraduna da bertan, eta Errektore Kontseiluko kidea. UEUko kidea ere bada.

Ikerkuntzan ere badihardu, M.U.ren baitan kokatzen den LANKI Ikertegian (www.lanki.coop). Arrasateko mugimendu kooperatibista dute ikergai nagusi, eta gizarte zibil autoeratuagoa oinarritzko intuizio, motibazio eta ipar.

Bestetik, egun ondokoak ditu lan- eta gogoeta-ildo: egungo gizarte aldaketen gaineko ikuspegi panoramikoa; gaurko norbanakoak (soziologia, historia eta psikologiaren arteko bidegurutzea); gizarte iraunkorraren aldeko kultura eta identitateak.

Juan Zelaia saiakera saria irabazi zuen 2004an, ondoko lanarekin: *Diruak behar luke bihotzik* (Pamiela, 2005). 2005ean Euskaltzaindiaren Mikel Zarate saiakera saria eskuratu zuen: *Mendebaldearen mintzo mindua. Begiratu kritikoa gizarte eta kultura modernoari* (Euskaltzaindia-BBK, 2006).

Euskaldunon Egunkarian aritu zen iritzi artikulua idazten, eta egun *Berrian* eta *Argian* jarraitzen du langintza horretan.

